




JOAN ZIREN

1. DINOSAUROAK HORIZONTEAN



XABIER AMURIZA

JOAN ZIREN

I

DINOSAUROAK HORIZONTEAN

Xabier Amuriza

<i>Argitaratzailea:</i>	Xabier Amuriza
<i>Egilea:</i>	Xabier Amuriza
<i>Egilearekiko kontaktua:</i>	xamuriza@euskalnet.net
<i>Azala:</i>	Rosalinda Incardona
<i>Kudeatzailea:</i>	Balea Musika Ideiak (Igorre)
<i>Maketazioa eta inprimaketa:</i>	Gertu (Oñati)

ISBN: 978-84-611-8126-1

ISBN: 978-611-8127-8

Lege Gordailua: SS-1229-2007

Elkarrentzat ama-alabak eta niretzat
etxeko neskatilak diren biei

Mundua zelan dabilen barik, badabilela jakiteko, egunkaria jasotzera autotik irten naizenean, kioskoa muturretan agertu zait (eskerrak, galtzear bainintzen!), burdinsarea erdi-jausian, goiari eusteko lotsaz, beheraino luzatzeko koldar. *Atzokoa, ezta?* –galdetuko dit– *Bai, etzikorik ez badago*– erantzungo diot, nire kaskarrak baiezkoa egiteko gogorik ez duela igartzen badut. Bezperakoa doan damaidate (egun baten gorabeherak zer ardura du munduaren joan-etorrian?), neureak direla-eta noizean behin daramaiedan fraileen dozena arrautzagatik, hau ere oparitua, noizean behingo fede-itxurako kanpai-jotzeen alderako. Hurbiltzean, burdinsarearen inklinazio zabarra iruditu zaidanak horma kontrako arrapalada pasionaletik orekatzeko astirik izan ez duen gona gorria gogoratu dit, beti erlazio berdintsuen maniara ez jotzearren. Bidezko da horma garbiak ederren iruditzea, graffiti inbisiblez kargaturik ageri baitira, fusilamendutik lehen musuraino, aipatu arrapaladatik pasatuz; ordena baikoitzaren gustuak erabaki beza, dena bizi-legeak haril dezan utzi gabe. Letra gajo samarreko orri-erdi tarratadan ebakian irakurtzen baino entzutenago dut: *Behingoan nator. Mandatura noa.* Andrea bazen, badakit non egongo den; senarra bazen, kalkulaten dut. Letra beti andrezkoa da, ez senarrak idazten ez dakielako (litekeena), baizik:

- *Nik ez jakinat zer ipini!*
- *Ez dakik zer ipini, sinistekorik, guzurti horrek!*
- *Ixte kontuan, zertara jatorren destaina hori?*
- *Zuzenekoak balio ez deutsanari bide batez esan behar jakok.*
- *Horrela esanda, zuzena jirudin.*
- *Ikusten?*
- *Nik 'jirudin' esan jonat, ez besterik.*

Jendeak zergatik den esplikatzen ez dakien kiosko honetako oharren ospea euren luzakin argigarrietan datzala atera dut, oraingoan mandatuarena bezala, hurrengoan jarriko baitizu: *Itxita. Bihar goizago zabalduko dogu.* Edo: *Oporrak. Ondo ibili.* Edo: *Loteria bai. Urtetea ez da segurua.* Argiena mandatuarena da; edozer izan daiteke. Senar-emazteak batera sartzeko, batek kioskotik irten beharra izaten zuen, telebista sartu zuten arte, noiztik hirurak kabitzen diren. *Telezaborra ikusten? – Ez, guk jan egiten dogu.* Tokirik doienak ere komuntxo bat ez luke falta izan behar (zigor-ziegetan ere jartzen dizute hori), kanpoak hain okupaturik daudenean. Inon ezin duzu zer premiazkorik egin, larrialdietara eroan zaitzaten lortu ez baduzu, nondik lasterren etxera bidali bazaituzte ere, behintzat dena kakazturik utzi ahal izan duzun. *Harakoa berau, kirofanoan masturbatzera etorria!*

Jada gizona zela eta estintzioa agindu ziotenean, nire izatearen barne-zuloan ezkutatu zen umeak, honelako kiosko laburki itxi batean, katamar barruratu eta txikleak harrapatzeko izango zukeen pentsamendu balienteaz errukitu naiz. Bere ausardiaren gorena zen pentsatzeaz baliaturik, golkoak hartu ahala eroango zukeen, ez egiantzera mugatzen ziren bi eskukada soil, itxaronik beti ere karamelerak, pentsatze hutsera mugatu izanaren ordainez, hots, mutikoaren zintzotasun faktikoaz hunkiturik (*bai mutiko otzana! hik merezi dok zerua, hik! – hain arin?*), malbabiskoren bati jaregingo ziola. Autoa aldatzeko aprobe txatuko dut tartea, infrakzioa orokorra den lekuetan, larritu egiten baita; inoiz aurkitu izan dut suizidatu guran, ahoa garabiaren amura amorruz jaurtirik. Bat ere premiarik gabe edo ahal dudan guztian bezala, bigurutzeko biribilguneari aurretik ezkerre araugabeki harturik (inori begiratu ezik, inork ez zakus), benetan txarto aparkatu dudala uste dut; apenas horregatik isunduko nauten, bestela ere aski gorroto bainaute. Noan Bar Topa-ra, egunkari guztiak egon ohi direnera. Horrela ez ditut isuna ipintzen ikusiko, eta neu ere ez naute bueltan ikusiko parabisako papera, intsektu handitua bezala atxilo aurkituko dudana, laztanki pilotatzen, eta hatz artetik katapultan, erpuruak eta hatz luzeak nik irakatsi gabe dakiten moduan, leihotik kontrako espaloiraino jaurtitzen, orduantxe pasatzea otuko zaion auto inpekablearen, marka zaharreko modelo futuristaren gainetik, beste aldeko oinezkoak, zeinaren identitatearen ezezagutzak bera gorrotatzetik libratuko

ez nauen, higuin txoropito bat jasan dezan, zeuk agian, txikle zikin bat zapaldu duzulakoan; edo ume bat, zeure umea agian, hura ahoratzera, ahoskatzera makur dadin, txupatxus-burua delakoan; eta amak *kaka dauka!* esatean, oraindik oinarrizko perpausetara iritsi ez den chomskyar faseko potolotxo hanka-okerrak edo potolo hanka-okertxoak senti dezan hizketan ez dakienak pentsatu ezin duena: *Kaka gura dot, ba!* Isun-pilotatxoa zakarrontzira ere bota nezake, baina horrek infrakzioari zibismoa erantsiko lioke.

Plaza-kantoitik goiko kalera, hiru metro zabaleko mailadi ospela erdibitzen duen burdinazko eskudelari heltzera noala, bertan goitik behera ziztuan lerrotuz datorren mutiko baten aurpegi exzitatua hauteman dut, abarka punta-zorrotzak nire begietara zuzen apuntatuz. Apartatzea pentsatzerako, ezarri didan barekoak eta baldosa apurtuango estropozuak atzez eraitsi naute. Bitxi da nola larritu naizen garondoa libratu ote zen, artean bere premiarik inoiz sentitu ez nuela. Biraoak azartatu ezinik, marmarka zutitu naizenean, ez dakit mutikoa negarrez ari den, berak ere hartu duen kolpeagatik, ala barrez, eman didan sustoagatik. Ez da jakin-erraz ere, zoruan ez baitago mutikorik. Eskudel barrenari heldu diodanean, neure ume-burua abiatu da goienean; elkar jotzea, hots, hark ni harrapatzea, inebitablea zen. Maiz gertatzen zait neure iragan-buru bati aurrez erreparatu eta ezin apartatzea, zorionez alde batetik, zeren zer izango litzateke, nik alboratzea lorturik, hark aurrera egingo balu, gehiago ez itzultzeko? Batzuetan bruskoak badira ere, talka horiexei esker aktualtzen zaidala uste dut kontzientzia; bitarteko denborak ezerezturik, danba kolpatzen naiz neure lehengo hamaika buruetariko edozeinegaz. Unea hain laburra ez balitz, ohartzerako joana! Nia ei da sentipenik inmediatea, baina nigan behintzat, talka saihesteko sena lehenago iristen da beti neure buruaren sentipena baino. Nekez izan naiteke filosofiaren objektu ondoriogarria, Miletoko Talesen hastapen primarioetan ez bada, zerua obserbatuz (usina ekarri guran bezala), putzura jausteko, alegia.

Egia esan, zaila zen neure burua zela pentsatzea, beste zartako hartaz geroztik. Umetan ezagutu nituen eskudelak meheegiak ziren, haietan ipurdia lerratzeke, eta eskailerak, ilunegiak. Elizako korurakoa zen bat, oso egokia, non iluntasuna abantaila zen. Monagilo hasteko irrika nagusia eskudel hartantxe

gora eta behera ibiltzeko izango nuela uste nuen aukeratik sortu bazen, ondo asmatu nuen, batez ere, abade koadjutore gaztearen faltan, parroko zaharra konfesatokian isolatzen zenean. Ez zen behar lo egon zedin, gorra zela uste baitzen konfesioen ozenetik; ezer entzungo bazuen (garbi entzun behar zuen, absoluziorik izango bazen), eliza guztia jabetzeko moduan hitz egin behar zitzaion belarri-zulora, zera ez zen hain erraza, buruari eragiten baitzion, garondoan zukeen akaina kokotagaz beragaz maspildu guran bezala. Astiro-astiro abiatuko nintzen eskudelean behera, nagia zaldizko bailitzan, balaustreei banan eta kontuz jareginez, zaratarik txikieneko ahaleginean, beldurrari lehentasunik ez aitortzearren; eta atzez beti, arriskurik ez ikusteak hartatik libratzea bailekarren, harik eta behin, trebetasunetik abiadurara igarotakoan, txarto kalkulaturik, edo baze-goela ahazturik, eskudelaren amai-burua, esku-bonba baten antzekoa, uzkor-noak kank jo zuen arte, krank sentitu nuena. Barre-hezurak ez zidan utzi negar egiten, parroko zaharraren isolamendua ez haustearren; edo kandela bakotxari paternoster bana errezatzen geratu zen atso-parea, atzera begiratu eta ezer ez ikustean (korupea ilun beti), deabruaren arima askatu zelakoan asalda ez zedin. Ahalik isilen, praktetara kaka eginda bezain oker, eskuak ipurdian baina sakatzen ausartzeke, kanpandorrea goraino ez nintzen behingoan iritsi, masail-koloreak eskailera-zulo amarauntsuan utzirik. Sakristau txikiak bueltako kanpaira ailegatzeko zeukan mukurraren gainetik, burua kanpai nagusiaren barrura sartuta, guraina negar eta barre (*kaka berde*) egin nuen, bigarrena areago parentesiko esatera osatzearren. Geroztik, eskudelaren bizkarrera ondo tolesturik, hots, balaustre torneatuei kostata jareginez jaitsiko nintzen, harik eta, arrautzatxoak traba egiten hasteko adina koxkortu zirenean, buelta egin behar izan zen arte, aurrez jaisteko. Hori indefentsio nabariegia zen nire bizi-sen basatiarentzat; piztiak ez dira premia gabe arriskatzen, eskalatzaile asegaitzak bezala. Gauzarik hutsalenak, ez gutxitan ergelenak (kanpandorreranzko amaraunak, esaterako), gordetzen dizkidan oroimen hau erre egingo nuke, bizi naizela berari esker ez baneki. Oroitzeko interesa agor badakit, hil nazakezu lasai.

Pentsaezina zen, kaleko eskudel uhartuan behera, lehentxoago ikusi dudan mutikoa ni izatea, seminariotik ez bazetorren; baina orduan, sotanaz agertu beharko zukeen, hantxe hasiko bainintzen, seminarioan, grina zaharra berriro tentatzen, tabike-barandaren hamabost zentimetro zabaleko eskudelean.

Marmol merkea bera, inprentaren sorreran ebakitako pastela bezain kolorgetua, oso labain hala ere, beti distiratsu, gastaturik alegia; distira kolorgea, seminarioa taxutzen zuten hainbat misterio larrietariko bat. 'Eskudeletik astoan jaiste' falta handitzat zigortu behar zen, baina kodifika itzazu bostehun mutiko gose-puntuan, pasillo erraldoietako bigilantzia sahiesgaitza eskailera kebratuetan burlatzeko amorratzen daudenak. Hanka bata eta ipurdi erdia barrurantz, beste hanka eta ipurdi erdia gainean (ia gorputz osoa airean, balentria miresgarria, bertigozkoa niretzat), sotana garestia apartaturik (honek ere bazuen atzean, bestelako eseri-orduetatik, aurreko zikina islatzeko adina ispilu, horretan xahutzen zena praktetan aurrezteko), hantxe adiskidetu nintzen berriro erremate dohatsuki leuna zeukaten eskudelekin, behin (nahitaez gertatu behar zuena, determinismora errenditu gabe), eskaileraren hutsune rektangular hondogabe eta beldurgarritik ('hondogabea' beste adjektibo bat egaz bigundu beharra neukan, hustasuna apur bat humanizatzeko) jausi nintzen arte. Jausteak berak baino izularri handiagoa zemaidan bideko ertzak jotzeak; osorik lehertzea gozoago zen, antza, burua zatika galduz joatea baino. Nireak egina zukeen, gertaera garaiz bihurtu ez balitz amets.

Zorionez, kaleko eskudel burdinazko honek erremate kurbatua dauka, eta antezedente guztien aurka ere ezagutu beharko nukeen gainera zetorkidan mutiko behingoz temerario hura neu nintzela, erdi-gaupasen biharamunetan burua gauza arraroetarako jenioan egoten baita; adibidez, barbiturikoa Barbara-tik datorrela zelebrenki suposatu eta gero, zer da kontua eta egia zela, zientzialari baten nobiaganako detaileagatik, halaxe izango baitzuen xoraturik gizajoa. Azkenean, talkak berriro ere aurrea hartu dio ezaguerari, eta kolpea bakarrik geratu zait, denbora atzeratuaren presente totala sentitu izanaren zauskada iraunkor, ia zoragarrian. Ezagutu dudanerako, bi buruek berriro lehengo distantziara saltatu izanak ez dit ardura, bakoitza bere norabidean banatzen direno. Mutikoak, barne espiralaren hasierako hamaika eta batgarren bihurgunetik, bihotzera harrika darrai, taup-taup-taup. Batzuetan huts egiten du, eta odolak huts egin behar didala ematen dit.

Asko dok, ba! Bar Topa itxita. Kosta behar zait mundua badabilen jakitea. Ordua izatea alferrik da, erlojuari igartzen jakin ezik. Edo bi makulugaz da-

torren agureari ordua galdetu badiozu. Esku bat libratzeko, makulu bata bestearen gainera errenditu, gorputza nonbait kokatu, eta beste hainbat transizio txiki eginik, esku hori txamarrako poltsikora iritsi denerako, damu zara galdetu izanaz, orain ikusi beharko baituzu (bide batez, historia guztia entzun) inertzia sentimentalez jo duela hara, zeren azken urtegunean (*duela zazpi egun luuuuuz!*) eskumuturreko erlojua oparitu baitzioten, esku liberatua darimana, hain zuzen. Atzera makuluak aldatu eta, esku librearen mahuka atzeratzeko, esku okupatua libratu, noizbait bistaratu den erloju gorri-gorria, berak hain zenbaki txikirik ezin duela ikusi eta (*esaten neutsen nik baina!*), zeuk ikusteko luzatu dizu. Ordu bat behintzat jakinik, eskerrik asko eta aurrera jo duzu, ordu geldia ez ote zen sartu zaizun duda argitzeak zeure buruarentzat lekarkeen ondorio ridikulua ekiditearren. Borondaterik ezin behintzat ukatu; ez beste hark egin zizuna bezala: *Ordurik badozu? – Ardura deitsu ala?*

Dena jota, eguerdia badela esango nuke. Ez ahal du taberna itxi honek gaua egunerantz luzatzeaz beste okerrik izango, neu ere hementxe bainabil (beraz, mundua badabil), ohe azpiko arkakusoei gaineko bilkuran batzeko astirik eman gabe, batzuek soinera zuzen saltatu ez badute; hala izan bada, orain ez nago horiek atenditzeko grazian. Zer ordutan oheratu naizen baneki, banuke abiagune retroaktibo bat, beti aurrera egitea ez baita derrigorra; atzerakada bat eginik, handik aurreratzea errazago da, lehengo punturaino ez bada ere. Atzerapen aurrerakoia esango genukeena, baikortasun konbatiborearen inbentzioan bezala; eta alderantzizkoak baztertu gabe, Darwinen sudur inboluzionistaren usaimen ebolutiboa, adibidez. Goizeko hirurak Bakioko Eneperin entzun nituena ziur nago; hiru ala lau danda izan ziren eztabaida beroa, ia alkoholikoa zebilen, etxea ez dela barkua zioten bi gazteren artean, haien kulunkatik baietz zirudien baina. Batak *dan-dan-dan izan dok* bazioen, besteak *dan-dan-dan-dan izan dok* tematzen zuen.

– *Zelan izango zoan dan-dan-dan-dan, dan-dan-dan jo bajok?*

– *Heuk jo dok ala?*

– *Jo baneu legez.*

– *Hik dan-dan-dan jo eta nire belarriek, batek eta biek, dan-dan-dan-dan entzun?*

– *Hik, laugarrenean, intentzinoa entzungo heuen.*

Liskarrerantz makur amilgarria zeraman eztabaidak kanpo interbentzioaren beharra kantatzen zuen, eta horixe gertatu zen, albotik iradoki zietenean, ea zergatik ez zioten erlojuari begiratzen; orduan bi liskartiek, shock kebratuak transformaturik bezala, elkarregaz uztarri egin zuten, besoak sorbalda-tik sorbaldara, auzia eurek euretara konpontzekoa zela aldarrika, elkarri muturrak apurtze-zoriraino odolberotu izanaz ahazturik, beharbada sen basikoen argitasun deitugaberen batek abertitu zielako, elkarri ezer apurtzeko, elkarren sostengua behar zutela.

Besteok erlojuari begiratu genion. Azkenean, nahi ezta ere, denok sentitzen gara hutsen betetzaille, norbere larrurik jokatzen ez denean, eta horrexegatik dakit zer ordu zen, goizeko hirurak edo laurak. Berehala abiatu ez ginenaz gainera, handik Berrizeraino etorri egin behar zen. Baneki etzanda edo loplantan zenbat ordu egin dudan, banekike zer ordu den, baina nago txoriteria (gauari egunerantz luzatzen ez uzten ernegugarriro tematzen den inpertinentzia koral hori, edo munduaren eboluzioaren insignifikantzia arroganteki deklamatzan duen oilhan egusentiar hori) kantuan hasi denetik honakoa artekoa baino luzeago izan dela. Gutxienez, hamaikak izan behar lukete, baita hamabiak hogeit gutxiago ere, bitxiro ondo aparkaturiko BMW baten leihoan sudurra itsatsirik begiratu dudanean. Halako kotxe-marka izateko, ez zait iruditu nire Skoda-rena baino erloju fidagarriagoa. Beharbada, horrelaxe orekatuko dute konkurrentzia, lehenago ere, matxismoaren abangoardian, *hik andra edarra? nik ahuntz pare!* ihardetsi ohi zen moduan, beti ere modutsuen eskala bereizteko; bi txikienek bular nekatuei (zimelduei, garbi esanda) tiratzen zieten bitartean, amaren oinetako behatz nagusi bana xurgatzen zuten hurrengo handienek, lau urteko bikiek, estimatuko zuketen ahuntzaren erro bat txandaka, elkarri ez ematearren elkar jan zezaten. *Txikito! Balio izatekotan, hori sabelean egitekoa zoan.* Abertentzia singularrean eman dut, suposatu beharko baita elkar jatea batak bestea jatea izango zela, ez biek biak.

Umetan, gaiztoa izan liteke, mundua gaiztakeriak gobernatzen duenik jakin gabe. Penagarria da gizakiok ez bihurtzea zuhaitz (alderantziz ez luke mereziko), ukitzeko ahalik gabe elkarregaz hitz egin ahal genezan. Ez naiz arrazista, baina nahiago dut zuriekin ez tratatu. Banentorren autopistan

gauzez eta... dranba! *Dios! Tiro egin jeustek! Ez nok, ba, terrorista!* Aurrera noa, suposamena onartu nahi ezta. Noizbait, derrigor geratu behar izan dut. Gurpil baten lehertzea izan da. *Hau maspildu dok, baina behintzat azkeneraino burrukatu gozak.* Aurrera beti! Buelta egin eta aurrera. *Orduan, zer itxaropen daukatzu bizitzan?* – *Bat, handia: amaituko dela* – *Hori segurantza ez dok?* – *Eskerrak!* Gizakia animalia bezala asko interesatzen zait; pertsona bezala, ez hainbeste. Erromaren historia handiosak damaidan plazer nagusia da ia inor inportanterik ez zela berez hil.

Noan *Ganekoetxera* pentsaturik, autoan egin dut oinez legoa luzatua iruditu ohi zaidan kilometroa, herri barrenetik goieneko bar-jatetxe honetara, non erosteko nintzen Egin egunkaria ziur edukiko duten. Ateari kris-kras daragiot behin eta berriro (*krisket honek mende bat izan behar jok, etxe erreren batetik aldatua ez bada*), ugazaba ernegarazi ohi duen ekinean, giltzaz ixteak etortzen seta asetzeaz beste prebisorik ez balu bezala; edo beharbada, tabernara sartzeko eskubide unibertsalari edozein bortxa balegokio bezala. *Ganekoetxe be itxita? Iragarri bako konploten bat ete jabilk hemen?* Guztiz itxita ere ezin du egon, kontraleihoak kenduta baitagoz (*ostuta agian?, baina orduan zerbaitek zabalik egon beharko leukek*), burdinazko tranga dingiliz; gortina bitartetik, kafe-makina gorriaren gaineko horma-erlojua ikusten alferrik tematu naiz, lepoa angelu guztietatik luzatu arren (*girafa banintz!*), tarte bisualak ezin baitu islak saihesterik lortu. *Honelako kristal moduak egiten dituenari pasatzen ez den mozkorra ezarriko neuskiok.* Gaur badirudi giltzak, zirrituak, dena dabilela saiheskor; susmoa heldu zait BMWko erloju-orratzen luzerak, hala albokeratik, ez ote ditudan oker neurtu, bistan baitago, hamabiak hogeit gutxiago barik, zortziak bi gutxiago izan behar dutela. Neure Skoda-n begiratuko dut; hala balitz, etxera. *Orduan, Bakiotik hona, bost ordu baino ez ete dok izan, hirurak entzun ondoren, mundu piloa korritu eta gero?*

Autoa hamabost metrora aparkatu dut, taberna azpiko errepidearen beste aldean, era errazegian, isunik jartzeko motibo gabe, bai penagarria. Zerua laino egonik, eguzkia zer goieratan egon daitekeen obserbatu guran nabil; aurkitze propioak, batez ere asmatzen hainbeste kostatako tekniken prezinditzea suposatzen duenak, laburbideak edo bide eginak indignotzat jotzen

ditu. Honelako goizetan, hodeiak eta gortinak elkartruke espontaneoan ibiltzeari bidezko iritzirik, taberna aurreko alboen parrapean eseri naiz, oinak harrizko mahai biribilaren ertzera eta belaunak sorbalden parean, aulki kullunken oker-neurtzerik txikienean, garondoari susto galanta emateko moduan, ohartu gabe, neuk uste, taberna itxiak ez duela jasaten, pentsatze zorrotzak emango lukeenaz bestera, parrapean esertzerik; ohartu gabe, baita, aurrez aurre, errepideaz beste aldean, bolatoki berritua dagoena, zaharreango martxaren bekaitz txairoan, non neuk ere, inoiz, balentria gurako ridikuluak egin izan nituen, ez sotana eta guzti jaurtitzen nuelako (kristauek balentria humanotzat miresten zutena bera), baizik, zoruaren zakarguneengatik onberaki desenkusutzen nindutenez, behin ere txakinik ez jotzeko garantia eskaintzen nuelako. Ematen zizkidaten azalpenetatik (*bolatokia ez dago bape zainduta; aterperik be ez dauka ganorazkorik; barriztetan ez badabe, geu izango gara azkenak*), jotzeak ez jotzeak baino zorte txarragoa zirudien, nahiz eta beste jaurtitzaileren artean, zorte txarra nahikoa zabal eta ugari banaturik nekusen.

Tabernaren azpialdean, ez naiz ohartzen ezker-atzerantz erdi-ikusten den udaletxe txikiaz, zeinaren arkitektura lirainak barne-ariera logurakorra enkubritzen duen; ezta, harrikada bat beherago (distantziak harrika neurtzen ikasi izanak ez zidan gutxi kostarazi sistema metrikoa bakez ulertzen. *Gehiago harririk badakark eskolara, janarazo egingo deuat, entzun?* – *No, señorita!* – *No, señorita, zer? Jan ala ekarri?* – *Sí, señorita! Janda ekarri*), kanpandorrea herriko etxea baino hiru bider gorago jasotzen duen elizaz ere, miresmen fededunak ganga maiestoseko eta desatxikipen umorezkoak konkorrak monumentaleko ikusiko lukeenaz, non Jainkoa errezuekin distrahitzen duten, kanpoan trabarik egin ez dezan. Mojen kanpaiek zergatik ote dirudite beti mojakoi, eta fraileenak frailekoi? Erantzuna zaila da, gutxik baitauka ornitorrinkoaren dohaina, zeinaren mokia berdin irudi dakizukeen mirakulu nahiz faltsifikazio. Doi-doi begizatzen dut bolatokiagaz harresi egiten duen Markesa Anderearen parkea, non hainbat metrotako gerriak (denek goraiatuak, inork neurtu gabeak) dauzkaten zuhaitz eta pinuek jauregia zirrituka bakarrik ikusten uzten duten, eta zeinaren jabe Markesaren berri garbirik inork ez dakien. Madrilen bizi ote den, parasito handiei suposatu ohi zaien habitatean; ote diren, singular-pluralek hautazko diru-

ditela. Horrek nire irudipena (inoiz ez dut markes-markesarik pertsonan ikusi, tapirrik edo anakondarik ikusi ez dudan bezala) halako eran baieztatzen du, non barruti suprahumano horiek iruditzen zaizkidan, ez izaki iraungien extralur, baizik biziliar duinak asma daitezen zain dauden opulentzia luzeritziak, bertan udaletxea egokitzea otu zaien arte, opulentzia herritarren zerbitzu bihurtzeko alkimia politikoari esker.

Egotez, Ganekoetxe jatetxeko parrapean eserita nagoen arren, izatez, etxeari albotik, apur bat azpitik, begiratzen dion errepidean behera nator. Barandila gaintetik irtenak, buruak eta belaunak bakarrik ikusten ditut, gazte edo gaztetxoena; parrapezale helduek nekez hartzen dute jarrera hori, naturak arlo guztietan banatzen dituen salbuespen plantosoren batzuk ez badira. Ikuspen horrek hainbeste aldiz erreparatu izanak gogoan irarri didan irudi inpresoa izan behar du, zeinaren aginduz, segurrenik, eseriko nintzen hemen, ni ez bainaiz honela inoiz egona, hain gutxi taberna itxita dagoela, nahiz eta pasaeran beti sentitu izan dudan noizbait eseriko nintzeneko zirrara antizipatua, zeina ere izan daitekeen, autora ordu bila joan beharrean, hemen esertzeko arrazoia; eta hori bezala, beste hainbat arrazoi, zeren, azken batez, eremu ez-ohartutik deduzitu ditudan arrazoiok adina egitasun ukan dezakete deduzigai geratu diren beste auskalo zenbatek, bost axola eurei. Kontua da nire belaunek eta sorbaldek aipatu irudi inpresoa bakarrik egon behar izango zutela parean, zeren, gorputzari begira, argi ikusten da, eskuak poltsikoetan ia elkar jotzeraino eta hankazabal, aulkia atzerantz erritmo mantsoan kulunkatuz, finalitate desaktibatua tenplantzan eserita nagoela.

Ez da harritzekoa udaletxeaz, elizaz, bolatokiaz, markesa anderearen parkeaz eta, honen goiko aldean, begiratzuz gero, ikusiko nukeen eta bizipen jostarien eta batzuetan estu samarren trumila berrituko lidakeen eskolaz ez ohartzea, nire begi berrikusleak, ikusleen jarduera eurek nahi dutenean (edo nahitik at) zurrupatzen dutenak, aldasgora bateko baztergune batetik begira baitaude, bila nenbilen egunkaria kioskoan normal hartzerik izan banu, jada egina izango nukeen ohiko ibilbideko geltoki anonimoan. Zaldibarko herri-gunea gainditzetik gutxira, lasterketetan hirugarren mailako kategoria ozta esleitzen zaion Areitio mendatean gora, arbolapeak txoko antza damaion baz-

ter batera alboratu naiz, errepide zaharrari moztu zioten bihurgune estua-
gora alegia, nondik, nahi gabe ere, errepidearen goranzkoa zein beheranzkoa
(hau retrobisoretik) ederto begiztatzten diren. Egunkaria erosi eta astiz bana-
bil, nahiz eta gero, denborari gehiegi joaten utzita, beti presaka amaitu, au-
rrera eta aurrera joan ohi naiz zokomira mantxoan, atzeko bolante ipurtarinen
ernegurako (*pasa hadi gainetik, horren larri bahago*), bazter atsegin baten bila,
ibili denak badakike aurkitzea ez dela hain erraza baina: batean, zaborrak
bertan botata (latorri uhartuak paper eta plastiko zatiak baino jasangaitzago
zaizkit), neumatiko zimur bat, kaka-pilo galantak ere bai, batzuk torneatze
barrokoen forman, plan baten edo premia suzesiboen arabera banatuak; bes-
tean, ikuspegi kaskarra dagoela, ingurumirak asko laguntzen baitu egunka-
ria ulertzen; bestean, harri beztuak erdi-erdian, sua egin izanaren seinale,
zikinkeriak ere hor nonbait; bestean, norbaitek aurrea hartu dizula, bazterra
gustukoa bazen, gehienetan gertatu ohi dena berau, okupaturik dagoelako
gustatu ez bazaizu, bestea abantaila handiren bat gozatzen ari ote zen arren-
guran. Azkenean, umea ahoan daraman katuak bezala (tigrea irudikatuko
nukkeen, estintzio-zorian ez balego, gizajoa), lortu duzu (edo etsi duzu) zeure
burua nonbait uztea; lehenengotan erabat gustuko ez izan arren, gustuan ere
ohiturak ez baitu gutxien agintzen, azkenean (hau ez al dut hasieran esan?),
zure presentziak tokia maitagarri bihurtu dizu, hurrengoan bertara zuzen
etor zaitezten.

Motorra ahalik astiroen itzalita (ez dakit nola egiten den, baina beti saia-
tzen naiz), egunkaria zabaldu aurretik, geldi egongo naiz, ez begira, bai bai-
takit egunkariari heldu behar diodana. Ez zain ere, horixe baita azken nahiko
nukena, beste auto bat atzean, alegia; orduan hanka egingo nuke, ez nauela
beldurtu erakusteko bezain astiro, popatik har dezan desira igartzeko bezain
gangar. Bitartean, txiza egitera irten naiz batera larri gabe, baita egin ere, non-
dik ateratzen den beti ez dela atabalik behar, hotsa egiteko, ezta nahikunde-
rik ere, erako gauzak berez etortzeko; sarritan egin izan dut, tantarik irten ez,
eta lan guztiak bikain buruturik bezala bragea itxi, miroiak esateko moduan:
Horrek hartu jok asaskua! Obserbazio hauek ez dira izango Einsteinek apun-
tatu beharrik ez zeukan ideiak bezalakoak, originalak baziren, ahazten ez zi-
tzaizkionak, baina bide bazterreko gozotasun bat apailatzeko balio didate

behintzat. Nik uste dut, honelako une jalkietan, gorputz-atalek harmonia orokorretik bereiz dihardutela, pentsamena ere, sentsazio inkonexoen gainean, zoriaren erle. Horrela, osagai bakoitzak, ez beharbada nahi duena, baina nahi gabe datorkiona egiten du, norbera ere denean barreiatuz; eskuliburuek 'distrahiturik' bezala definituko lukete, baina baliteke distrakzioa ez izatea desarrreta, une hartan behar lukeela suposatzen zaionaz beste objektu bateango aditasun osoa baizik.

Bazter hau ez dudala neuk hautatu esango nuke, berak tiratu didala baizik, errepide guztien bigarren izaera funtsezkoagatik (nire sentimenarentzat sarritan lehenengoa bera), zeinaren arabera ezin dudan bazterretara begiratu, bertan aparkatzeko gogo sortu gabe, batez ere errepide leunki bihurrak direnean; esan nahi baita, lautadetako zuzengune amaigabe horietariko bat zapaltzen dudanean, ahalik arinen atzean uzteko presak jotzen nauela, autoari esteak ketan jaurtiaraziz. Besteek ere horixe egiten dutelakoa daukat, inoiz, derrigorren batek jota edo salbuespen atseginen baten kilikan baztertu naizetan, beldurgarriro pasatzen baitziren denak, lurrikara jazarle bati iheska bezala. Han urrunean, auto bat geldi-geldi dakusu, errepideari itsatsitako kromoa bezala; bat-batean, haren haizeak eta burrundadak ia kunetara egotzi zaitu, berezko indarrari zure ezusteak erantsi dion sakadan, egotzi zaituen ala jauzi egin duzun dudatzeraino. Hurrengo kromoa ez dakizu lo datorren ere zeure gainean itzartzera; erreka itxurako sakonguneaz haragoko artepean babesteak ez dizu merezi, hori ez bailitzateke errepide bazterra, lautar bakar-tiaren imintzio anakronikoa baizik. Nire bazterrak bihurgunearen gainean edo hurbil egon behar du, ahal dela aldapan, datorrena edo doana nitaz ohar-tzerako, nik bera, interesatzen bazait, begiekin esprimitzeko moduan; gehienean, gorantz nahiz beherantz, astiro iragan behar du, bera azkarra izan arren, eta denik txuloena bada ere, maiz gertatzen baita aurrean berebil astun edo mantxoren bat, oraintxe ikusten ari naizen bezala. Kamioilariak gozatzen etorri behar du, atzean dakarren erreskada ernegatuaren buru.

Bihurgune honetan lehenengoz geratu nintzenean, segurrenik ez neraman Egin-ik, ez gero, mendate gaineko Hesparru jatetxean, beste egunkariak irakurtzeko asmorik. Ez naiz argi gogoratzen, baina ia ziur naiz geratzeko arra-

zoia errepide zaharraren xarma bera izango zela, nondik behinola motorrean oker-oker pasatzen nintzen, orduan, halako bihurgune estuetan, temeritate suizidatzat jotzen zen orduko laurogeian, sotana beltzagaz haizeari belarrondokoak emanaz eta eltxoak uxatuz, ez dakit zeinetatik gehiago. Bazter honetan, iragan bizian naiz, oraina albotik pasatzen ikusiz, paradoxaz askoz motelkiago orduko berrehunean ere, iragana ez baitzen agian hobea izango, baina bai bizkorragoa, gazteago nintzelako, eta, batez ere, pentsatuz batera, dena batera datorrelako, nahiz eta saiatzen naizen komeni ez zaizkidan pus-kak, asko eta tematiak, orainaren errepidean behera bidaltzen, hurrengo bihurgunean bistatik gal daitezten. Zoko honetan egia da iragana errealago dela oraina baino, zeina fikzio iruditzen zaidan, iraganaren dibertsio, neure burua ere barne bertan; lantzean batek parean eupada egiten du, edo abiaduraren frenatze gaizki disimulatuan, begira-begira pasatzen da, susmagarri litekeen zerbaitetan ari ote naizen. Efektu hori ia automatikoki lortzen du egunkaria bekokiraino jasotzeak, burua erdi-ostenduz. Batzuei berehalaxe igartzen zaie, adibidez, nahitaezko lentotasuna nola amenizatu ez dakiten kamioilari gerriz gora biluziei, gerizpea ere sutzeko moduko bero honetan; edo, ustez bolido irrepetiblean, abiadura nokeatzeko grina inkorregibleak aurrean jartzen dien nobedade oro penetratzeko gaintasunaz inbestitzen diren... gazteei, esan beharko dut, adintsuei zurrutak alderantzizko temeritatea eragiten baitie.

– *Ezin dozu arinago joan?*

– *Karga handitxoa jaroat!*

– *Ba, uste dot mendate barreanean kontrola dagoela.*

– *Hara orduko pasatuko jatak.*

– *Put! Honelakoen atzeari eutsi egin behar jako gero, norbera hortikoa izan barik!*

Horietariko edonork, goiko bihurgunean agertu denetik non zer haitemango datorrela, egunkari ostean zerbait ezkutatu nahi zaiola susmatu dueneko, ez darantzu txakurraren oso ezberdin, zeinak, esku bategaz *geldi!* aginduz, besteagaz zerbait gordetzekoa egin badiozu, haren birei zeuk ere biraka erantzunez, gordegaia beti ere atzean ezkututzen duzula, azkenean aurpegira salto egingo dizun. Bekoki goiena bakarrik bistan uzten didan

egunkaria goratxoago jaso dut, gidaria gratuitoki egiten ausartu den aieruari sinespide objektiboa emateko; ez da zaila ere, bakoitzak, eszena ezohiko eta ustegabeetan, berak desira lukeena irudikatzen baitu errazen. *Egunkariagaz estaltzen haz alu hori, bestea xurku-xurku ari jakan bitartean?* –ulertu diot (hurrengorako ideia gozatsua eman dit) marmarka askatzen zituen keinuetan. Edo, beharbada, parean pasatzean, egunkaria zapla itxi eta jaitsi dut, horixe gomendatu nahi zidan irrizkin lotsabakoak, atzerik hara, titular nagusiak irakurri nahi zituela igarri diodanean. *Eros heuk, inorena xurgatzen ibili barik!* –jaulki diot retrobisoretik, eskuineko lehen hiru hatzen txintxin-keinuaz, behoko bihurtunean ezkutatu den arte; susmoa daukat lehenengotan altzoan etzanda neukala suposatu duen burua ordainekoa zela ulertu duela zerriak. Ziurtatu nahi izatera, autoa arrankatu eta kilometroa baino lehenago harrapatu, muturrak aise, berak ez bailuke halakorik usteko, hautsiko nizkiokela jakin arren, egunkaria altuera normalean berrirekitzea hobetsi dut, bizitzari, bizigarri izango bada, atzean galdera asko eta askotarikoak uztea komeni dela pentsaturik.

Errepide zahar maiz zeharkatuaren segmentu txiki honen gainean geratzen naizenean, okindegiko labetik gozo-gozo irtengo dela suposatu ohi dudanean beherengo apal edo erretilua bezalakoaren ikuspena izan ohi dut beti, euren usain-kolore-zaporez hirutasun txiki perfektuak osatzen dituzten opil biribil-luzangekin betea bera, epel-epel, berri-berri. Dena oraintxe gertatzen ari dela esango nuke, jan ez beste guztia egiten baitut, baina hori, jatea, beste gertaera bat litzateke, hirutasun multiplikatuaren egiari ezer kentzen ez diona, nahiz eta, bera gabe ere, sarritan beste mirariak akabatu ohi diren, ziur bainago konparazioa ez didala iradoki kontestuaiekiko egokitasunak, nire oroimenean pilatu diren opiltxo jan gabeen irritsak baizik, orain denak erreskan janda ere, errendituko ez litzatekeena berau, ondorengo ugaritasunak ez baitu aurreko eza, edo galea behintzat, ezabatzen, gerran ibiliek ondotoxogoratzen duten bezala gosea burura pasatu zitzaienekoa. Hala ere, opil orduan alegiazko haiek gero, egiatzki, nahi adina jateko zortea izan dudanez gero (grina aseegin baten jabetza zortea izan litekeen neurrian), egunkaria irakurri ahala, jatea bera ere errepresenta nezake goranzkoen eta beheranzkoen bekaitzerako, gosea horztunago pasatzen baita asearen albotik.

Polizia espainolak eta frantsesak muga erabat itxi diote euskararen festari, dirakurt kamioilariak ikusi gabe joan behar izan duen hizki handietan. Argazkiak lagun heldu samar batzuen atxilotze istilutsua dager. Berri lazki rutinario hauek ere leunkiago sartzen dira, umetan sekula nahikoa jaterik ez nuela izango sinetsi nuen opiltxoan ahogozo usaintsuak lagunduta. Hala ere, jana-ren gutiziarantz ihes egin didan konparazioak beste intentzio bat zeukan: la-bearen beheengo erretilua errepide zaharraren zati honexegaz bat egin nahi nuen, errepide presenteari alborantz irten zaion zatia bera, nahiz eta, izatez, alderantziz gertatu, orainari beti iraganetik begiratzen baitzaio. Kontua da orain, retrobisoretik, Panda zurian behetik gora datorren neska pareari be-gira nagoela. Voyeurismo subtila, bitasunak deskontzentratuko ez banindu. Eurek ere niri begira dirudite; parean pasatzean, kopilotuak oparo begiratu dit, irribarrea ere iruditu zait, aurrez aurreko eguzkiaren ofuskazioa ez bazen. Neuk ere, badaezpada, hots, sen solteren baten bulkadaz, bekoki azala goratzeke keinua egin dut, belarrien mugida eta guztikoa; horretan trebea naiz, mutikooi belarrietatik tiratzea ia errealizazio pertsonaltzat praktikatzen zuen seminarioko prefektu bati esker. Goiko bihurgunean ezkutatzera doan neska pareari opil-gosearen adinetik begiratzen diot, desira aplazatuak aurreikusitako dotoretasun eta pilatutako intentsitatean; iruditzen zait horrelaxe baka-rrik begiratzea merezi duela pasatzen denari, pasatu egiten baita, ez erremediogabeki, zorionez baizik, oraina beste ondorengo bati uzteko. Neu, oster, ez naiz pasatzen, iraganaren erretiluan nabilelako, izate egiazko ba-karrean; izatez, errepide zahar baten hondakin baten gainean. Finkaleku oro iraganean dudala, oraina ez zait existitzen; inorentzat ere ez dela existitzen baieztatzen ausartuko nintzateke, baldin ergelkeria akademikoak hartaz aspaldi eta dohatsuki gabetu nintzen adimen filosofikoagaz batuko nauen bel-dur ez banintz.

Gertaeratik pertzepziora, nahitaezko denbora zati bat behar izateaz gainera (pertzibitzen ez den existentzia hutsaren berdina litzateke), orainaldi famatu hori, horrela zuzen eta berbertan, nori benetan interesatzen zaiola esan gene-zake, gure pentsamendua, beti, hartatik atzera edo aurrera badabil? Ez naiz kontatzen hasiko, autoan noanean, edo nagoenean, orain bezala, nire burua (nire existentzia erreala) non ibili ohi den: paisaiak (hiritar, itsastar, mendi-

tar) berritzen dituen denbora joanean, edo doan lekuko gertaeran imaginatzen dituen lagun eta eginkizunen denbora etortzekoan. *Kaixo, betiko ezagun eta ezezagunok! Gaur arte zelan bizi izan gara elkar ezagutu barik?* Autoan gertatzen den une aktual bakarra, peaje-ordaina edo kontrol poliziala gutxietsi gabe, istripua da, zorionez bat-batean, ezustean, pentsatu ere egin orduko atzematen gaituena; presentetik guztiz at. Ez naiz salatzen hasiko, zeure eguneroko egintzetan (niri entzuten zaudenean, esaterako, edo ni zuri), unetik zer urrun egoten zaren, naizen. Benetako solasa denean ere (ez dut ukatzen hori ere inoiz lortzen denik), zertaz mintzo gara, oraina ez den edozertaz ez bada? Orduan iruditzen zaigu (iruditsera ere ez dakit iristen den) oraina ez dela ardatz imaginario bat besterik, edo arrabol inbisible bat, zeinaren gainean plataforma bat dabilen, non iragan-etorkizunak ez diren beti atzera-aurrera txandatzen, fusioan baizik, batetik eta bestetik zenbana duen ezin bereizteraino. Salbuespenak trastornoen sailean sartzeko beldurrik gabe baieztza dezakegu, zernahitan dihardugun guztian, pentsamenaren ariera bistaratuko balitz, orainaren itxura guztia deskonposaturik, kaosturik agertuko litzatekeela, zorionez noski, edozein baita orainaren itxura baino ederragoa. Ez, ez! Ez dut ukatzen oraina ere badenik. Bakarrik diot giza denbora bakarra oroimena dela, eta oroimenean ez dagoela orainik; ifernuaren existentziatik bera ukatu gabe libratzen nintzenean bezala, egon bai, baina hutsik zegoela predikatuz, horrela kristauen lasaitasuna Jainkoaren ridikuluan pausatzen bazen ere. Misterioen ulertezinean, arraro-puntu bat naturaltzat hartzen ohituta geundenez, ez zen arriskutzat jotzekoa graziosoren batek atera zezan zerua beterik zegoela, baina ez zela existitzen. Kristaueria orokorrari ezin zitzaion ondorio hori interesatu, puntazalaren bat beti poztuko zen baina; behin esan nuen Jainkoa ez zela ez dakit zertarako bezain txotxoloa, eta marraskilo-saltzaile batek ihardetsi zidan, gizakia ulertzeko, apur bat txotxoloa izan behar zela.

Ez dago ukatzerik banaizela zerbaiti arreta osoz ekiteko gauza, baina arreta ez da pentsamendua, biek bereiz ibil daitezkeen heinean. Horren seinale bitxia duzu arreta zorrotzak kanporatzen dizun mihia, zeinaren punta bitxiki mugikorrak (eltxo inbisibleak harrapatzen bezala) arretaren objektutik lekutan dabilen pentsamenduaren direkzioak markatzen dituen, atze-

man dezakeen arkuan beti ere; ahoa buelta osokoa izatera (bi lapiko-erdi berriz zerran itsatsiak bezalatsu), mihiak duda gabe jarraituko lioke, belarri azpitik pasatzean, gingila mihizkatuz, atseginki, zergatik ez. Pentsatzen ari naiz naturan, buelta osoa hartzeko mihiak badiren bezala, ba ote den buelta osoko ahorik; ez datorkit adibiderik, baina izango da baten bat, giza espezie desagergaian baino ez bada ere. Aipatu mihi-puntaren aldizkako ezkutatzek ez dira, bainutxo bat hartzeko apeta beharrezkoaz harago, pentsamenduaren norabide-aldak barrutik hara jarraitzeko edo gidatzeko erretira taktikoak besterik. Zer izan zitekeen arreta zorrotzagarik, zulatzen urtebetetik gora kostatako tunelaren muturrean, azken lanaren (ihes-egunean kolpetxo bat emanda, kanporanzko sokaboi bihurtzeko jausiko zen lurrari artean eutsiko zion enkofratuaren) errepasso batean tokatu zitzaizana baino, murru kontratik gora, gaineko lurzoruaren sendoera neurtzeko, alanbre bat sarturik, askatasunaren zabalera totala izango zenaren argi zulozko zorabiagarri hura agertu zenean? Bada, orduantxe ere, nire pentsamendu ezin intentsoagoa etorkizun arrakastatsuan (*lortu joagu! hau dok hau!*, besarkadak, musuak, amodioak) edo hondatuan zebilen (*kakazaharra! izorratu gaituk*, ziegak, beste prozesu bat, untxien destinoa), nahiz eta bigarren etorkizun hori ez pentsatzen saiatzen nintzen, pentsamenduaren ahalbide guztiak kontsideratzeko jenio predeterminatu eta, beraz, inebitableaz harago, pentsaketak berak ez zezan, hain une delikatuan, okerra faktalki betearaz. Hartan zentratzeko astirik izan banu, ohartuko nintzatekeen etorkizuna ere iraganean gozatzen nuela, emozioz aurreikusten nuen askatasuna gertatutzat jo ondoko sentimenduak baitziren denak, eta sentimenduak pentsamenduari jarraitzen edo prezeditzen baitio beti, biak ahalmen beraren izen alferrik ezberdinak direla aldarrikatzeak eragin lezakeen irritazio tentela saihestearren. Begiratzea besterik ez dago oraintxe ere non nabilen: Zaldibar gaineko bihurtzune desagertu batetik abiatu ondoren, Berrizko Ganekoetxeko parrapean eserita nago, nondik berriz ere berresten zaidan lagun batek aspaldi esana, hark ere bere baitatik gehiago, segurrenik: *Hi beti habil hemen egon eta han pentsetan*. Alegia, eserita edo etzanda nakusten lekutik ere (jarrerarik estatikoenak eurok) digresio etengabean bizi naizela, probisionalki hila naizen loan egiten ditudan eskapaldiak kontatzen hasi gabe.

Digresio polita izan da, baina taberna ireki zezaten ez du balio izan; altxatu egin beharko dut, zer ordu den zehazki jakiteko ere; horretantxe ari naiz, autoaren atea zabaldutakoan, erloju honek hamabiak hiru gutxiago markatzen du baina. *Egia ete dok, ba, eguerdia dena?* Elizdorreko erlojua geldi dagoela pentsatu ondoren (badira erabakiak, inork delegatu gabe hartzen ditudanak, batez ere, erantzupenik ez zaidala eskatuko itxaroten dudanean; esaterako, erreka batek hain lekutatik pasatu behar duela erabaki dut, eta gero pasatzen ez bada, ez naiz itotzen; edo norbait maite dudala, eta gero berak maite ez banau, izugarritzko poza hartzen dut, ezer ez esateko ausardia izan nuelako), lau leihoak jaitsi eta dandak entzuteko zain nago, irrati-musika sua-bea lagun. Kanpandorreko erlojuek zerbait jotzeko preparatzean egin ohi dituzten karrankadak (eskatzen zaizkien penitentzia mediebalen edo iragartzera doazen aktualizazio bortxatuen kexaz bezala) entzuten hasi naiz, baldin behin, aurrerago eskua harrapatu zidaten ordainez, gurpil hagindunen artean makila sartu eta halako apokalipsia sortu nuelarik, kanpandorreak korura jausi behar zuelakoan, hanka-joko ikaratuari eman nionekoak izan ez badira. Orain erantsi zaizkien melodiekin (graziosoak eurak, desafinatzen hasi arte, non herriz aldatzeko gogoak ematen duen, hurrengoan ere nobedade sinpatiko berdina itxarongo ez bagenu), zaila da barruko tramankulu-hotsa kaletik entzuteko moduko aparatua jartzea, hainbeste milioi kosta eta gero; eta kostatzekoa, oraindik eskabidea ez ei da amaitu eta. Hamabiak barik, ordu bata izan behar dute, hamahiru kontatu baitituzte. Hainbeste itxarote eta arretari buruzko gogoeta, azkenean, orainaren erreferentziarik imaginarioen baina minimoki sinesgarri bakarrean ere huts egiteko. Erloju modernook hain dira exigenteak, gainera, ezen ez dizuten okerra zuzentzeko bigarren aukerarik emango, behin pekatu egitea nahikoa balitz bezala, zerua irabazteko. Tentuz pentsaturik, zer ardura dio ordubete aurrerago edo atzerago ibiltzeak, lehen ere jaiton ibili banaiz, goizeko zortziak zirelakoan, eta balira ere, zer?

Noan etxera. Hemen, agiri ez diren guztiei nitaz burlatzeko motiboa emon besterik ez joat egiten. Autoa hamabiak eta bostean arrankatu eta banoa Traba-kuko errepiderantz, astiro-astiro, konbentzimendurik ezak bazterrak ikusmiratzen laguntzen didala, Bidebarrietako bidegurutzea begiztatu arte, non Areitio gainera irteten den erramala zuzen dakusdan. *Hesparru ziur za-*

balik egongo dela. Bestela be, haraxe joateko ez nintzoan, ba? Erabaki garbia har-
tzerako, zalantzen bidertzaile izan ohi den bidegurutzearen gainean naiz;
autoak, horrelako uneen arriskuen jakitun, badaezpada aurrera jo du
zuzen, etxera-bidea albora utzita. *Tirok, ba! Hire kapritxoa hori badok, goazen
aurrera, eurt egitera be urrun joan beharko geunkek eta.* Gaur egungo errepide
sarea hain onurakor diseinaturik dago, ezen bidaiak boluntarioei uko egin
behar izan nien, errakuntza txiki bat aski baitzen bidaiak handi bat eskura
zitezadan, eurt egin ezinik.

Eskargako mendatean gora noala, txakur bat aurrez dator errepidean
behera, erdiko marrari atxikia; ez dirudi apartatzeko asmorik dakarrenik.
Atzo autoz jo nuena baino (haiek emakumearen garrasiak, bera zapaldu
banu bezala. *Sentitzen dot, andere! Txakurragaitik, ez zugaitik*) handiago da
hau. Handiegia ere bai. Badaezpada, abiadura geldotzen dut, geratzen
naiz, eta berak, aluak, apatx egin du. Goitik behera begiratzen didanez
gero, autotik irteten ez da ausartu nire inferioritate konplexua, zeinaren
arabera, turutaren mehatxu-gama guztiari eman behar niokeen, edo
azeleratze-frenatze brusko batez izuarazten saiatu; baina izuak ez baitu
beti eragiten ondorio naturaltzat suposatzen zaion baztertzea, bai, ostera,
inoiz, itsumenean, norabide guztiak zarraturik, eraso frontal bilakatzea,
ohartze horrexek libratu nau zein aldetan (berean ala nirean) kalte gu-
txiago egin izango zukeen ez dakidan triskantza bat burutzetik. Txakurra
ez da, izan ere, autopetik pasatzeko modukoa, eta esertzean, triangelu an-
geluzuzenaren jarrera milenario horixe hartu ez balu, txahala ez ote den
nengo, honengan berezkoa baita apartatzen ez jakitea, edo tokirik oke-
renean sartzea, teilatuan esaterako, goragoko teilatutik jausita, non, hala
ere, ez ei lukeen mutilzaharrak etxean adina kalte egingo; sermoilari bati
majo damutu izango zitzaiokeen buruera berau, abade bat bertan akaba
zedin desira (*honeek entzutera etorri gara hona?*) mehatxu hutsean geratu
izan balitz. Gero, tabernan, eztabaida zaratatsua sortuko zen, mutilzahar
haren haserrea konparazioagatik baino gehiago ez ote zen herrenagatik
izan, orduan ere mihiak mihi eta herrenak herren baitziren. Nire txaku-
rrak ez dirudi alusiorik harrapatu duenik. *Hik ez badaukak, neuk be ez jau-
kaat presarik.*

Uste dut badakidala nondik izorratuko dudan; txakur batek ezin du txizarik egin gabe luzaro egon, batez ere gurpilak, geldian ere biraka imaginatzen dituenak, aurrean ikusten dituenean. Bitxi da, baina ulertzekoa; ustez eremua markatzeko, autoaren hainbat parte posibleren artean, gehienik gurpil gainera jasoko dizu hanka, badakielako gurpil hark seinalea auskalo noraino eramango duela, han beste kolega baten atxikimendua jasotzeko. Poliziak, auto bakoitzaren ibilerak zorrotzago kontrolatzearren, gurpiletako txiza aztarnen analisirik oraindik ez kontsideratzea txakurteriaren katalogo zehatza osatzeko zailtasunengatik izango da; baita, agian, euren sailarekiko analogiak, nominalki bada ere, erreferentean bertan konprobatu beharraren erreparoa-gatik. Pentsatzekoa da efikazia polizialak zirritu ugari izaten jarraituko duela, nondik, paradoxaz, txakur handiak beti ere txikiak baino aiseago eskapatuko diren, tamainak alderantzizkoa pentsaraz balezake ere. Kostatzen zait imaginatzea txikiei eusten eta handiei jaregiten dien sare bat, baina badira horrelakoak, zertatik berriro baitesten den errealitatea irudimena baino askoz zabalagoa dela

Artegatzen hasita nago, zirkulazioaren inprebisio gehikorrean, bai gizakumeon, bai, segurrenik, txakurren aldetik ere, lehen kasua izan daitekeen kinka honetan. Ezin dut pretenditu, ordea, geratzeko agindu didan arrazoi berak orain mugiaraz nazan, pazientiaren ontziak erreserba markatu arte behintzat, une batean amore propioak altuera berera edo gorago altxatzen ez banau, aldapa erripe samarrean behetik nagoenez gero; edo animalia gainetik pasatzeko odolbero geroz probableagoak jotzen ez banau, oraintxe gertatzen ari zaidala uste dudan moduan. Autoa arrankaturik, astiro-astiro hurreratzen hasi natzaionean, aurpegia bueltatu du, arbuioz nik uste, ezer ikusi nahi ez duelakotzat ere uler daiteke baina; akabatzeko adina ez, baina eskarmentu gogoangarri bat emateko moduan jotzera nindoala, goiko bihurgunean beste txakur bat agertu da, txikia, pixka bat albokera eta erdi-erditik bera ere (*Aldundiaren arau barriren bat ete dok hori?*), zeinaren bila jada abiatua den, gorantz, nik baino lehenago erreparatu bide dion txakur handia, isats balantzariaren azpian uzki santua erakutsiz (santua eta usaintsua ez dira inkompatibleak), eta ia belarri gabeko burutzarraren ostean bere mutur zapala gordez, honelakoxe inkontru buruturen batean moztua, segurrenik. Oraintxe

ez dakit nire kolpea ekidin nahiak ala kide txikiaren erakarpenak mugiarazi duen; lehenengoak probableago dirudi, gorantz bazterretik baitoa, errespetua hartu duen seinalean. Horixe uste nuen, bi txakurrak, hain handi-txikiak elkarrekiko, jolasean korapilatzekeo bildu diren arte, errepidearen erdi-erdian berriro, nire autoaren hurbiltzeak ezertan distrahitzen ez dituela; ez dakit batak bestea irentsia ez duen ere, txikia ez baita inondik ageri. Oraingoan geratuko naiz, ez prekauzioagatik, ikuskizunagatik baizik. *Tabernak itxirik eta txakurrak bide erdian, hau mundu modua jarri jakuna, neu erdiren nazela.* Ez gaude, bada, mortuan ere, non, todoterreno baten aberia konpontzen dihardugula, berebil arrotz bat ostertzean agertu den; ondotik pasatu zaigunerako, denbora luzea igaro ondoren, neskak *ia-ia jo gajozak* esanik, mutilak darantzu: *Hementxe gajagozan, egon be, erdi-erdian eta!* Nik ez daukat albotik pasatzerik, lehen batena bezala, orain biren kapritxoa egin beharko bainuke. Presarik ere ez dudanez gero (etxean bakarrik nago, familiak munduari su eman eta Miami alde egin ondoren, non andreak bi neba dauzkala dioen), natura bakarti eta serial samar honek (pinua ezker, pinua eskuin, dena pinu madarikatu, norbetea ez denean) eskaintzen didan antzezpen prehumanoaz lasai gozatzeko, motorra itzungi dudanean, txakur txikia txinparta bezala irten da txakur handitik, pinadiko pistan barrura sartuz. Pare bat segundora, apur bat erreflexu atzeratuz, nahiz eta bere tamainak pentsaraz zezakeen baino bizkorrago, handia ere ezkutatu da txikia jazar aitzakian, eszenatik alde egiteko erarik kaballeroenean. Pasarazi didaten beldur puntu inkonkretu baina egiazkoa ez da iritsi haurtxotako lehen inpresioetariko bat zuzendu behar izatearaino, non txakurrak pareko eta gizakiak munstro iruditzen zitzaizkidan. Bai bildu dut, ostera, beldurrarekiko neukan irudia berresteko egoera berri bat; alegia, beldurra, barne tirabiren bidertzailea, askoz nitarrago eta, beraz, literarioago dela, barietatea elementu edo oztopo esternoetatik ateratzen duen ausardia baino.

Orain libreki jo nezake aurrera, eta halaxe nindoake, autoa ere libreki, bere kabuz (arreta-iturri indeliberatuen erretira fortuitoaz hanka egiteko baliatu naizen antzik ez ematen laguntzarren), baso pistarantz sartu ez balitz, berehala geratzeko, arrasta-makinak utzitako zanga gurpil txikientzat handiegien aurrean. Ez urrun sartzeko asmorik neukalako, baina arrastatu nauten txa-

kurra euren jakingo duten biziorantz ostentzearen nostalgiaz gainera, ezingo nioke barruan lerratu zaidan sentipen bat, dezepzioa esango nukeena, hanpatzeari eutsi, basoen ezagutza ustez innatoa, senidetasuna esatea gehiegi ez litzatekeena (neure burua, garbi esanda), iraindu behar ez banu. Errepideon gora eta behera hainbestetan iraganik, martxan ganoraz begiztatzeko astirik inoiz hartzen ez nuen bidezabal hau idealizaturik neukan, antza, bertan itzal hostotsuak eta bihurtune suabeak irudikatzen nituela, ondulazio ia balantzarian, zeina finkotasun geldia baino deigarriagozat zergatik jotzen nuen ez dakidan, mirari naturala imintzioetan deskonposatzeko ziztrinkeriagatik ez bazen. Izan ere, goazen bideak beti dauka hustasun bat, alborantz utzi ditugun bideek mukurutzen dutena; edo badu zerbait, zapaldua izateko baino baliosago zelako, gure gogo galdetugabea ustez interpretaturik, bere kabuz alboratu dena, zehazki zer den ezin jakiteak handik pasatze bakoitzean handituko duena, behin eta berriro zapalduko gabeziek, txikienak badira ere, euren alderantzi biderkatuak eraikitzen baitituzte. Hori gertatzen da, hain zuzen, zeuk ez beste inork susmatu ez duen eta, beraz, hain xarmagarria izan behar duen 'beste leku batean' (bideak beti bidean, barruak beti kanpoan), non umetan, adibidez, txori bat pausatzen ikusirik, kontuz-kontuz hurreratu zinen; ezer ez aurkiturik ez ber-hegatzen erreparaturik, ahurrek haren lumaje azpian nabaritutako epeltasun dardarkorra baino misterio handiagoa zabaldu zenuen airean, ez zenuelako talenturik izan orbel bat izan zela oharatzeko. Horrexegatik da bidea ibiliago eta aseeginago, eta bideak dira hain ugariak, alboan geratu diren guztiak erlazionatzen dituzten marra imaginarioak besterik ez direlako. Sentipenen desplazamendu horrek ez du norbere kolaboraziorik behar; eurak kokatzen dira nahi duten lekuan, gehienez nahasirik, norbere oharmenik heltzen ez den translazioan, sentipenei nahimen bat suposatzea egintza bera bezain frogaezina ez bada.

Argi dagoena da estarta zabal bezain zaskar hau, adar-zati bortxatuz eta asko basatza lehortuan gaizki sartuz betea, makinek azal-urratutako pinugeri zikinez eta zoru zastrakatsuz aldamendua, hain bista laburrera bihurtune ala lurraren irenspena den ere argitzen ez duena, ez dela nik, hemen zehar pasatzen nintzenetan, batez ere, goiz norabait presati edo bueltako ilunabar ameskorretan, begirada agurkor baten zain uzten nuen bidea. Autotik irten

naizenean, txakurren marmarioa dantzut, baina eurak ez dakutsat; presentzia erdizko horrek, besoak atzeraka eta burua erdi goran, paparra aurrerazten ipini nau, arnasa-planta askatuan edo nagi-urtika. Nire golkoan, lehengo ez koldarkeria baina bai erreparoa orain gorputzez-gorputz bati ez liokeela albo egingo agertu guran bezala dabilen bitartean, zalantzan nago, kinka hipotetiko guztiz premiagabe batean, zer hautatuko ote nukeen: oso goi eta ia gainean dakusdan pinuzko ostertz zerradunaren hortzak kontatu ala otsoari haginak garbitu; otsoaren gratuitate itxurazko hori baliteke gorputzez-gorputzaren ekarpena izatea. Baliteke, azkenean, hainbeste frontetan banaturik eta sarritan deskomunikaturik dabilen neure buruaren eragina izatea aurrean agertu zaidan utopiaren konpliera: txakur handia bueltan dator, zeinaren begien marroia kolore bero guztien nahastura iruditu zaidan, pieza txikia aprobantjan ondoren, handiogoaren bila bailetarren, nahiz eta gizalegean galdetuz: *Zeozar galdu jak ala?*

Arrisku kasuan, autoaren ate irekia barrutik saltoan itxi nezakeela jakiteak eskuak atzetik hankartera ekarri dizkit, ez hor aparteko ezer defendatzekorik neukalako, brageta ixten ari naizelakoa egitearren baizik, eurek hain egintza bakun eta jareginean egiten dutena buka berri banu bezala. Gorputz zokondoak, intimo samarrak batez ere, miatzen hain zaleak izanik, txiza egitean, txakurrek inoiz ez dute bertara begiratzen, aitzitik badirudi huraxe ezkutatzeke jasotzen dutela hanka, berau busti zaion hasberria ez bada. Guk alderantziz jokutzen: aurrekoari ez begiratzeagatik (igogailuan eta abar), edo begiratzen digula ez ikusteagatik, kapaz gara begiak geure bragetan josita mantentzen ez lotsatzeko. Txizagintzaren azken fasea bakarrik erakutsi diot badaezpada, nekez izango bainuke, lehenengotik hasita, preparazioa barne, denak segida kontzientean, gozatuan alegia, kateatzeko patxadarik, horrelako patari baten zaintzapean. Ez dakit brageta zabaltzen ari naizela ulertu duelako (horixe da, kontestuaren zehazpen subtilagorik ezean, arriskugarritzat jo ohi dena), edo auto lagunbakarrak bazterra bilatzea txokatu zaiolako, behintzat geratu egin da; kasik nahiago dut benetako arrazoirik ez usnatzea, neuri ere txokatzen baitzait txakur txikiaren lorratzik ez ikustea, horrelakoak ohi diren itsaskorrek izanda. Txakurrei sekula ez zaiela atzerik eman behar gogoratu dut (horixe gustatzen ei zaie); eta aurpegi emanez, presarik ez zaiela

erakutsi behar (horrexek kintzen ei ditu). Arauak aplikatzen badihardut, baina ez dakit autoan sartzerik lortuko dudan, eta lortuta ere, estartatik irten ezinik geratzen banaiz (*gizonak sartu egin behar jok holako zuloan gero!*), begirada kaninoan laguntasunik aurkituko dudan. Pentsakizunok, noski, auto barruko segurantzak jariatzen ditu (*barruan hago, zantar hori?*), eta nire duintasuna sekuentzia hori guztia aurreko aurpegiz-aurpegian kokatuz berrosatzen den bitartean, leihoko kristala zegoen baino beheratxoago jartzen du esku ezkerrek, honek ere zerbait aportatu nahi, gizajoak. Eskuinak jarlekuaren mugigailuari eman dio; gorputzak koska bat atzerago sakatu dio. Azkenean, hemen denak apuntatzen baitira erretira garailearen aintzara, txakur handiak errepidearen erdia berriro okupatu aurretik (asmorik ere apenas zeukan, nire us-tezko baso-bide miragarrian barrura ezkutatu baita berriro, pasadizoari zaunka baten garrantzirik eskaintzeke), autoari atzerakoan irrintzada luzea aterarik, banoa Eskargan gora, iraganari pare bat arrastada eta estarta desliluratu bat utzita.

Mendate gaineko etxean, susmotxartu nau nola ez den ageri ia beti egon ohi zen txakurra, sarritan bidea gurutzatzen, inoiz erdi-erdian etzanda, nahiz eta zirkulazioa gehitzeak ernegatu zuenetik, etxe-ataria eta errepide-bazterra banatzeko marra egitera ekandu zen, lo-plantan ondo zaindutako marra bera, autorik ez sartzeko baino gehiago, etxeakoak errepideko itsumustutik jago-teko, mehatxatuz bezala: *Etxe honetan istripurik gura dauenak neure gainetik pasatu beharko dau*. Goranzko ibilgailuak, bereaz beste aldekoak, kontaktu egiten zituela uste dut; ia isatsa zapaltzen pasatzen zitzaizkion beheranzkoei, ostera (gehien ardua behar zioketela ziruditenei), jaramonik ez zien egiten, bera ere haragokoa gehiesteko mania zaharrak jo bailuen; Antartidaraino joanik, pinguintzen fideltasunaz (monogamoak hil arte, hainbeste milak elkar ukitu arren) txunditurik itzuli direnak ikusi izan ditut dardaraz, heriotzaren ertzean lo dagien leialtasun horri begira. Arestian, hamairu bihurtune beherago, bidera irten zaidan txakurrak orain ageri ez dena izan behar zuela pentsatzeak 'gaitz erdi!' hasperen eragin dit lasaitasun retroaktiboan, bai baitakit hementgoa emea zela, erroz gora etzanda ikustetik; animalien artean emea sarritan beldurgarriagoa izan arren, harengandik jasan ahal izango nukkeen ezbeharrak naturagaz batagotzat jo behar da. Ez dut uste, eraso kasuan, oker larririk

izango zatekeenik; eurek ni ezagutzen nautenik zin egin ezin dudan arren, neu ziur naiz txakur emeak ondo ezagutzen ditudala, eta ez dut esplikaziorik emango.

Eskergatik Areitiora, kilometro bat eskaseko jaitsieraren azken gaintxotik, Hesparru jatetxeari erreparatu diot, laugune zabalean mendi kontrara gotortua, itsasotiko hegabera gorri erraldoi bat atsedenean kokatua iduri, hego erdi-bilduen posizio iraunkorrean; gorri-zuria areago, harrezkero hamaika lagun-aldren iragaitzak eta enbateg sakatu arren, hegadarik berjasotzeko itxurarik ez daukana. Hegabera gorri-zuririk baden ere ez dakit, eta balitz, dudan naiz konparaziorako balioko ote lukeen, baina egintza hori ez da ez hegaztiena, ez etxeena, neure gogoarena baizik; honi txarretik ona ateratzeko balio badio, ez naiz hasiko konparatzaile berrien bila, nahiz eta, badaezpada, jate-txeari zehatzegi begiratzea ekiditen dudan, ebidentziaren kontra ezingo bainuke konparazio inpropioan jarraitu. Nork jakin! Hegabera gorri-zuriari ez nioke behingoan jaregingo. Hartan-horretan, jatetxe alboko aparkaleku handian geratu naiz, landa handiangoaren aurrean, nondik, beti bezala, Mallabia garaiko auzoen, muno paraleloen goien luzangetan lerrotuen gainetik, Artibaiko lehen mendiez handik Markinaldea gainirudituz, itsasaldea bilatzen, arnasten dudan, nahiz itsasoa bera ikusi ez. Hantxe dagoela jakinez gero, sumatzea nahikoa da, ez baitakit zein den legea, itsasoak, ostetik, bistan denak baino gehiago tira dezan, ostearen beraren tira-legez ez bada. Norbere barrua ere beste oste bat dela joz gero (ez dakit itsasoa baino handiagoa, bai handinahiagoa), eta nahitasuna bada inmentsitate imaginagarrikerik handiena, ni ez naiz bi oste mugagaberen arteko marra bisiblea besterik; gauza jakina da muga-marra baten gainean ez dagoela bakezko bizimodurik.

Eguraldi onez, sarritan landa ertzeraino zeharkaturik, Mallabiko ibar sakon eta estuari eta hango nobedade beti berdintsuei (behi, ardi, auto, industrialde, hilerri) bota ohi diedan begirada laxoak gaur airean geratu beharko du, taberna puta bat zabalik aurkitzeko gurari izorranteki luzakorrak zuzenean barrura bainaroa, eta tira; atarteko sei mailak itxurak emango zuzkeen baino bi jauzi justuagoetan gainturik, herenez behera zurezko eta gora beirazko ate alai zabalik aurkitu dut. *Sasoi izan dok!* Behinena egin-

tzat emanik, hallean aurrez ageri den komunetik pasatu gabe ezin dut utzi, kafea hartuz, egunkarien irakurtze lasaia premia txikiek izorra ez dezaten baino areago, komenentzian jartzen dizutena ez baliatzea gero gabezia bihur daitekeelako, eta, batez ere, landa ertzean Mallabira begira egintzat utzi dudanak (*barriro txizaginan? – erreka be zarata egiten jok eta – ederra freskura! – heriotzak txizaginan harrapa naiela!*) aldean jarraitzen duelako; ez erreka bat, noski, baina bai ondoren, eskuak freskatuz, ispiluari begiratzea, hots, ileei orraztu bat ematea justifikatzeko adina. Ileok, sarritan (dutxara-koan ere orraztu egin behar izaten dut), buruak baino ardua handiagoa damaidate, umezaroan alferrik bilatzen dudan arrazoiren bategatik, gero-ko erru ororen erantzulea umezaro errugabeen datzalako teoria alegre-ari jarraituz. Bere ilearen inguruan dagoenari atzea eman guran edo apur bat albokera dakuskezu, orrazian hobenen bat ezkututzen bezala; edo aurpegi purrustadaka bustiko du, gero karteratik aterako duen hezur horz- tuta justifikatzeko; hori begiratuen artean, zeren, egintzaren konplexu gabe, jareginki diharduena bada, orduan txotxolo edo inguruaren desafia- tzaile irudituko zaizu, komun publikoetan intimitatea banatzea aurrera- pen sozialean sartzen ote duen. Ezbai guztiok, premiarik izan ez arren, eser-ontzidun kabinara sartuta konpontzen dira, non, atea itxita edo oina- gaz utsiz (krisketek ez dute beti funtzionatzen), nahi duzun moduan pre- para zaitezkeen ispilu gabe ere; baldin, ateko irudi gizonezkoak eta andrezkoak ezin bereizturik (arte transgenikoa), edo zalantza arrazoizkoaz baliaturik, emakumeen aldera sartu ez bazara, non ispiluak atean-atean agertu zaizkizun (orain badakizu non sartu zaren), aukera berdintasunaren eskale. A zer erretolika atera zidan bart, euren komunetik irteten harrapatu ninduen andere batek.

- *Ez al dok ikusi hori emakumezkoena zela?*
- *Zeuri preparatzearren sartu naz, ba.*
- *Hurrengoan itxarotea daukak neuk urten arte.*
- *Zure ondoren sartzea 'odore' handia neuke.*

Irteeran, kontua behar duzu, pizontzi-iladan atzerantz bueltaturik da- goen buru alegrearen batek zure aurpegi gorde samarra egin ez duzun mo-

kordoagaz identifika ez dezan, zeren, benetan eginda bazatoz, ez dukezu lasaitasun osorik, bizpahiru ate inorekin gurutzatu gabe, ahal dela, pasaturik, zurito bat eskatu arte, edo aurretik eskatua zurrupatu arte; orduan desiratzen zaude utzi duzun opari anonimoak sartun guztiei esteak okaraz diezazkien, inoiz zeuri ere gertatu zaizun moduan, pentsatzeraino: *Dios! Hau itzi dauena terrorista ez badok, Ameriketara ez jagok armarik*. Hesparruko komunitan inor ez da ageri; inork isiotu gabeko argi guztiak martxan, bi metro zabaleko ispiluak mende erdi atzeragotik diost: *Bai ule polita, mutiltxo honexek daukana!* Edo: *Nondik ekarri deua amak horren ule kiribil hori?* Aho bakoitzak jaulkitzen zuena dantzut, inoiz atsegin zitzaizkidan emakumeenak batez ere, gizonen etorria ez baitzen *bai, bai* edo *bo, bo* eranstetik pasatzen. *Neugaitik ete jinoek?* Dudak urrundu egingo ninduen, disimulu handian beti ere; esaterako, zenbait mutil handiagok, dena belarrondoko bidez erabakitzen zutenek, pilota bila bidaltzen baninduten, bertan gertatzeko borondatea erakutsiko nuen, “hurrengoa arinago bueltatzearren”, benetako intentzioa brutalitatetik apartatzea bazen ere. *Ume horrek jaukanan bihotza!*, pentsatzen nuen esango zutela. Halako distantziatik ilearenak ez zidanez askorik ardura, harrotu ere egingo nintzatekeen neure kautan, hurrengo ezustean eskuartean harrapatuko ninduten beldurreratik ez izatera; laztan osoz eta sinpatia gozoz egiten zutena, bestalde, baina ohartu gabe maitasuna ere biolentzia mota bat izan daitekeela. Sabelaren kontra esturirik, inoiz altzoan ere bai, bi eskuekin burua igurtzeko erraztasuna zeukatenak ondo zainduko nituen, beti lortzen ez banuen ere, umeen arretaldiak motzak izaten baitira; etxe inguruan ia atseginez jasaten nituen xerak ziren, hain zuzen, elizaldean edo kalean gehien saihestuko nituenak. Senide eta auzo hurbilengandik ahalik urrunen ibiliko nintzen meza ostetan, edo herriko jaietan, dirutxo emango zutela itxaroten nuenengandik izan ezik, zeintzuek orduantxe aprobetxatzen zuten denen aurrean ile-igurtzi bat egin eta berriz orraz nindezaten aukera potxoloa. Niretzat, orduan, emakumeak ziren eskolan bost urtetik hamalaurako multzo bakar eta mistoan ezagutu ez nituen guztiak; batzuetan, eskolako neska nagusiak ere bai, handik kanpora ikaskide txikien ardura babeskorra hartzen zutenak, adin bereko mutilak burezurrei ostikoka edo lagun makalagoei ukabilka asaskatzen ziren bitartean.

Halaxe luzatu zen nire umezaroaren hari zehe bat, harik eta gero, igurtzi haien leunaz grinatzen hasi nintzeneko, ukiezina nintzela aurkitu arte, apaizgai beltzez bildua, zeinaren ilea igurtzeko tentaziotik infernuraino urrunduko ziren denak, nire buru handi samarra ortuaren erdian hazitarako geldituriko azaburu haizeak joa bezain minbera utzirik. *Hauxe dok, ba, buru ha, apur bat handiagoan* –diotsat ispilukoari, eta esku-jasotze eta buru-makurtze simultaneoaz, betiko ezagunari bezala agur eginik, *egongo gozak*, banoa berriz ere halluzangan zehar, mostradore txit luzearen hondoko muturrera, non zorteko sentitzen naizen, egunkariak, sarritan bezala, aurretik hartuta edukitzeko inor ez dagoelako. Hementxe daude denak piloan, bata bestearen gainean, esku gogaitu baten zain, ez dakit nolako nahasmen bakezkoan, *Egin, Diario Vasco, Euskaldunon Egunkaria, Deia* eta *El Correo (Español, el Pueblo Vasco)*. *Egin*-i tiratu diot eta titularra (*Baltasar Garzon epaileak gaur erabaki dezake Egin-en itxiera*) ezagun egin zait, aspalditik dakargun beldurrean irakurrita, segurrenik. Hurrengo hizkirik handienak (*Miles de vizcaínos inundan Pamplona para presenciar el derby Osasuna-Athletic*) are ezagunago zaizkit, partidu horren zati bat neuk ere ikusi bainuen telebistaz, herenegun.

Herenegun? Egunkariaren datari begiratu diot eta: *Kakazaharra! Hau atzokoak dok*. Piloko besteak ere atzokoak dira. Data aldatuz gero, egunkariak berdintsu aktualak direla pentsatzeak ez du balio, data bera jakitearren erosi duzunean. *Tirok, ba! Helduko ete nok inoiz behar den egunera? Zerbitzaririk ageri ez denez, irakurritz itxarotea pentsatu dut, oraingoan atzo irakurri gabeko El Correo Español* eta horiek, kontrarioek zer dioten jakitea ez baitago egun zehatzaren gorabeheran. Goizean kioskora jotzean, mundua nola dabilen bainoago badabilela jakin nahi banuen, hori bezperakotik ere berdintsu segurta zitekeen, gaineko egunetarako hainbat berri iragartzen baitituzte, berdin-berdin ez bada ere, hortxe-hortxe gertatuko direnak. Garzon epailearena bazitekeen berdin gertatzea; hala izan bada, gaurko *Egin*-ik ez egotea bidezko zen, nahiz eta, iragarrita egon ez arren, herri hau ezagututa, lamiazulotik ordezkoren bat sorginbidez ateratzea ere normala izango zatekeen, *Euskadi Información* edo horrelako zerbait; lau orrialde bakarrik, baina hortxe, traban. *Bihar Espainiako eta Frantziako gobernu-buruen bilera. Euskal gatazkari buruzko elkarlana estutuko omen dute*. Hau ez da berdin gertatuko, errealitateak iragarpena

beti gainditzen baitu okerrean, baina gertatuko da; uste dut igarriko diogula mundua badabilela.

Goian bego. Hileta elizkizunak bihar 19:00etan izango dira, Mañariko parrokian. Ziur horrelaxe gertatuko dena, istripuek edo trafikoko arazoek eragozten ez duten puntualtasun exaktoan, mundua badabilela sentitzeko, hilena ez da adibiderik aproposena baina. *Lepoan hartu ta segi aurrera.* Bagoazela, beraz. *Nik eskelak irakurtzen gozetan joat gehien. Nork esango jeustaan honeek denok nire aurretik joango zirenik? – Ezagutzen dozuz ala? – Hilak. Denak hilak!* Ohartzen nintzen hitz horretan, batez ere pluralaren ‘k’ indartuan, haitzetik uretara saltatzean bezalako blastada gertatzen zela, eta orduantxe hasi nintzen uler-tzen, zergatik askok, egunkarietan, lehenen eskelak irekitzen dituzten. Ez hain zaharrek ere. Hauek eskelei hunkipenez begiratzen diete, Jainkoak haiei lehe-nago deitu dielako, eta euren inminentzia probablean, nortzuk izango dituz-ten bidaide hurbil jakitearren; normalena da pentsatzea beste mundura iritsiera mundu honetatiko irteeraren ordenan izango dela, edo behintzat pur-gatorioko arimen ondoan, zeintzuk beharbada gaurko eskeletakoek umetan egindako errezuei esker datozkeen orain bueltan, baina beste bide batetik. Hain zaharrak ez direnen eskela-grinaren esplikazio bat izan daiteke ez dau-katela bizitza horzkatzeko talenturik, edo umorerik, beste batzuen joateari kontrajarri ezik. Izan daiteke bizitzaz burlatzeko modu bat ere, edo mende-katzeko, nork jakin, hemen hilkor bakoitzak bere kanpaia baitaroa aldean.

Bihar ere udako eguraldi bikain horietarikoa izango dugu, goizean ifar suabeak os-karbi distirantea ekarriko duela. Eguerdi aldera, hego-ukituak temperaturari gora era-gingo dio. Iluntze beranduan, beharbada, trumoiak ahalegin txikiren bat egin dezake. Hara! Hauxe, behintzat, iragarritako modu-moduan gertatzen ari da, zertatik atera daitekeen mundua, badabilela ez ezik, esandako moduan dabilela. *Zer-bitzari hori nondik ete jabilk?* Barra eta jantokia banatzen dituen poste kontra-tik barruratu naiz, ea bazterren batetik erreparatzen didaten, edo, gutxienez, *oraintxe nator, ez dago inor,* zerbait entzuten dudan. Mundua ibili arren, liteke-ena da inor ez egotea, baina orduan eupada egiteak ez luke zentzurik, pentsa-tzen hasita nagoen moduan, nahiz eta sarritan zentzurik eza bera izan orrorik handienen ateratzaile. Itsasoak bakarrean egiten ditu urrumarik bortitzenak,

bazterrak apurtu ahalean. Jendez inguraturik dagoenean, bare-bare, formal-formal egoten da, sekula oliba bat irentsi ez balu bezala. *Hobe izango joat eupadatik hastea. Eup! Inor bizi da? (uhin-uhin-uhinak) Eeeup! Aitor! Olatz! Non zarie?* Berriz ere uhin-uhin-uhinak hegala guztietatik, ordena eta segida zehatzetan. Barratik barrurantz ate irekitik, sukalde eta biltegiatarantz jaisten den eskailburua bistan dago beti bezala; jantokitik bueltan sartzea pentsatu dut. *Ea neska hori bazterren batean luze dagoen, sukaldariagaz zertu ez bada.* Orduan ere, luzatzea komeni, baina, hala balitz, eta hobe ledin, nola zurituko nuke neure inkurtsioa (*ezin heuen apur batean itxaron? pentsatu behar heuen behar honeek ez direla luzeak izaten!*), bezeroak beti arrazoia daukalako ez bada (*han daukak erreklamazino orria! hik idazterako, hau amaituta jagok*), nahiz eta neuk ere, goizean hasita, badakardan potroak handitzeko adina motibo? Txikiena ez da, eskailburuan eupada egin dudaneko, barrenetik, ez dakit nondik, baina eskailera honetatixe gora, zaunkak datozela uhin erraldoietan, Eskargan bakez apartatzea lortu dudana zakurraren buru forman. Ahoa gorputz guztia ezkutatzeraino zabaltzen du; ahosapai gelatinosotik buru osoa ikusten diot, ispiluan bezala; eskailerako hutsuneak eta etxeko galeriek elkargaintze trumiltsu bihurtzen duten zaunkeriatik, dudana nago zakur bakarra ala aldraden. *Ispilua bada, neure burua izan leitekeek.*

Dantzudan (eta ustez dakusdan) zakur-burua neure izuaren forma izatea besterik ez dut behar. Ez nintzateke lehenengoa, mediku batek, txakurraren beldurra hango alaba neumonikoaren urgentzia baino pisuago zitzaionak, bere helera adierazteko, etxaburutik teilatua harrikatzea asmatu zuenetik, nahiz eta gero aitortzen lotsatu txakurraren beldurratik izan zela. Horixe behar dut, surrealismoan bainoago errealismo iraulian aurkitzeko, zeinean zer pertzeptible ustez osoaren munstroasun ezkutua azaltzen den, halako eran non tirakada luzea kostatu den hagintzarra (*min egiten badeutsu, esan gero! –ez, ez! segi, segi!*) alikatean ikustean, pentsatzen duzun: *Munstrokeria hori nire ahoan egon dok? Dentistak ustel zegoen, bai!* hots egin du, nahiz eta sanoak ere, errore mediku bat bide, inpresio berbera egingo zizukeen. Ez zara ohartzen, anestesiak estali arren ondo intuitzen duzun min erogarriak behartzen zaituen kontzentrazioan, halako bi munstro-ilada daukazula ahoan. Berez txikia den hagina, esmaltezko elegantzia perfektua, zeure aulki etzaneko

menpetasunetik hain handi ikusteak frogatzen dizu munstrotasuna ez datzala tamainan, figuran baizik; horrexegatik izango dira hain merkeak munstro-filmak, niminotasun handitua (zomorro ezteus bat) benetako handia baino munstrosoago delako, munstrotasuna aseezina dela alde batera utzita. Umetan betiko hauteman nuen bezala Etxanosoloko txakurragan, katea noiz hautsiko ote zuen dardaraz begiratzen nionean. Ahalegintzen nintzen ez zitekeela gerta sinesten, etxe hartara joatea maite bainuen: gereziak, pikuak, madariak, etxean eginiko menbriluak, sartzen uzten zidaten latsarria, gurera zergatik ez zetozen ulertu ezin nuen enaren habiak, oinaztuak umeak egiten zituen haritz marroa. Baina, katerik haustekotan, halakoxean behar zuen, ez lo zegoela. Adiskidetzeko, isilean, jaki gozoak, neuretzat litxartzen ausartu izango ez nintzatekeenak (gailetak, urdai zatiak, inoiz lukainkak) eramango nizkion, baina xantaiaren errefus arrabiatuak beldurgarriago bihurtzen zuen txakur hark (nik emana lurraren kontra destripatu eta gorrotoz airatzetik, neuri zer egin nahi zidan ulertzen nuen) hain muineraino inprimatu zuen nigan beldurraren dependentzia ezen gero, lagun egin ginenean ere, eramaten jarraitu bainion, berriro munstro bihur ez zedin. Urteen buruan gertatzen ari zaidanetik, ez dirudi lortu nuenik.

Baina, andratxo! Zer on egin deusku guri parroko jaun horrek, horrenbeste opari eroateko? Emazteak, otzarako dozena arrautzari, oilasko pare eta solomo (badaezpada oso) gorriskari begira: Onik ezer be ez, senartxo, baina gatxik egin ez deigun. "Munstroa ez datza tamainan, figuran baizik", entzuten darrait uhin zaunkarietan. Figura beldurgarriok (funtzioaren gen denboratsuen eta zentzumenen estetika nahitaez adaptatuaren ondorioz, ia konposizio artistikoa dirudien hortzen alde bisiblea ez bezala) ez dira hain izaki minoritarioak oraintxe ere, adimeneraino garaturiko natura honetan; ikus, bestela, eskeletoen erromeria bat, non geu baino errealago diren barne-figura horiek existentzian ere transzenditzen gaituzten. Edertasunari on zaio beldurra, higuin puntu bat ere bai agian, hondoraino sartuko bada. Horri gehitzen bazaio beldurra misterio-sortzailerik handiena dela (umetan Bilboko zenbait kaleahoren paretik pasatzean, bat-batean retroa bezalako besotzar batek zurrupatuko ote ninduen beldurrak gero hango misterioen multiplikaziora eramanez ninduen bezala), uste dut une hau ere hobeto ulertzeko moduan

nagoela, dudatzen hasita bainago misterio egiazkoan ala alegiazkoan ote nabilen.

Errealismo iraulian edo errealtate egiazkoagoan ez banabil, eskaileran gora etortzear zirela uste nuen zakurrek euren txabolan egon behar dute; badakit non ere, sarritan hurreratu bainaiz kanpotik haien amorrua tentatzera. Garaje hurbileko ate handia zabalik egotean, zaunken arkutxo bat dator barrura; gainerakoa etxearen akustikarena dela pentsatu behar da, batetik harmaika eta birako multiplikazio hau mirakulutzat jo beharrik izan gabe. Beraz, nik neure buruari doan sartu diodan beldurra doan astindurik, sukalderraino jaisten jarraitu dut, non, atea ireki baiko, kontatzeko astirik eman ez didaten katuek sute gaineko ontzi artetik ziztuan ihes egin duten; txakur zaunkak agresibitate zehatzagoz datoz (ez hain beldurgarri, beraz) biltegiko ate erdi-irekitik. *Katuak sukaldari dabilzen etxean ez dok pospolorik behar*, ezta txakurrak zerbitzari dabilzanean ere edukaziorik, baina seinale eskasa hauxe inguruan inor egoteko, jaiotetxeko sukalde txikian, katua armairu gainetik lukainka korden iladara salto eginda aurkitu nuenekoa gertatzear ez bada. *Ah, bai? Hori be ikasi don? Oraintxe emongo deunat ahazteko erremedioa!* Atea itxi eta erratzik gogorrenagaz (*beti ari non esaten –aitak amari–, edozein bizkarretan jota be, ez apurtzeko moduko erratzak ekartzeko, ez kainaberazko emekeriok!*) eskarmentua ematera nindoan katuek, bere burua inguraturik ikustean, ez zidan begietara salto egin, ikarak atea berriro irekitzeko argitasunik kendu ez zidalako. Hark eskaileretan gora ganbararaino eroan zuen astrapalan, eta marrauak entzuten nitueno, ez nuen argi pentsatu, bai bihotzaren tunpadetan nabaritu, lukainkak ez ezik, txerri bizia jaten lehenago utziko niola, behar zuen denbora guttia emanda, izutasun izugarri hari begiak berriro aurrean ipini baino.

Suete gainean, ondoko trangadera-mahaian, harrian eta eroan-ekarriko orgatxoetan, ontziak katuei gustatzeko moduko desordenan daude, goizean etorri behar zuela dirudien garbitzailearen zain. Bart goizaldean, oso berandu segurrenik, azkenak aldegin zuenetik, hemen apenas giza gerizarik ibili den, animaliak ez beste denak intoxikaturik ez badaude. *Aitor! Olatz!*, dei egiten dut konfiantza urriz, txakurren zaunkak bizitzeaz beste ondorio gabe, zeintzuen hagin-lerro suminki lerdetsuek, biltegi-garajeko

ate irekitik aurrez aurre ikusi nautenean, ikaraz geldiarazi nauten, katearen atzetik euren txabola mailatuak arrastan irudi. Ez dut pentsatu nahi euren muturretatik pare bat metrotara pasatzea nolako burlatzat hartuko luketen, neu esku hutsik, gainera. *Hobe izango joat, bakez-bakez, etorritako bidetik itzuli.* Sukalde oraindik usaintsuan zehar, barraranzko eskailera barranean, pisu eskerga bat nabari dut, lehenbizi oinetan usterik, gero buruan, azkenean sorbaldetan lekutu dudana, grabitatea infinituraino zeheturik bezala, non lurrak orokorki barik (ez litzateke gutxi planeta osoa tiratzen ari zaizun sentipen direktoa), haren parte guztiek (partikulek esatea partizio pretentsiosegia izango da) banan-banan zapaltzen nauten, halako eran nola, Zelanda Berriko palmondo bat desegingo balitz, arindura bat nabarituko nukeen, horrek beste milioika palmondo geratzen direlako abailmena hainbestetan multiplikatu ez balu; hori tamaina txikiago baina berdin errealetara jo gabe, intsektuetara, adibidez, zeintzuetariko bat bakarra nahikoa den, grabitatearen pertzepzioaz honagoko bizitza sentigarrira itzulita, munduko palmondo guztiek batera baino gehiago izorra zaitzan. Eskua eskudel parera hurbiltzean, jausi egiten zait, eskolan esku zigortuak, gurutze eran zabal eta liburuz kargatuak, lehen barretxo balientek estutuz joan ondoren, abaildurik jausten ziren bezala, harik eta maisuaren mimen zitalak, atseden llabur bat utzirik, berriro gurutze berean ipinarazi arte.

Egoerak ez dirudi oraingoagaz zerikusi handirik daukanik, baina behar bada eskolako gomuta horregatik, kalbarioaz gogoratu naiz, non Jesukristo hiru bider jausi ei zen gurutze gupidagabearen azpira. *Eta hiruretan altzatu zen!* –nabarmentzen zuen ikasle belaunikatuen gainera gogo-zuzendariak, zutitze gailenen etsenplua gure bizitzetara aplikatu nahian, bakoitzaren aurreko “jaustearen” meritua iradokitzen zuenik ohartu gabe, behin inozoki adierazi nionez. Bekosko zorrotz guztia sartu zidan larruan, aditz horren adiera badaezpadakoren batek kinaturik-edo, ohartu gabe, orduan ere, bera ari zela “jaustearen” bariatate nik artean susmatu gabeen malezia pizten. Gerago, gurutzebidearen monizioak experimentalki gure esku uzten hasi zirenean (gurutzebidea gidatuz, gurutzeari gustua har geniezaion), hirugarren jausierako estazioa izendatuko zidaten, eta honako zerbaiz jaulkiko nuen,

neure debozio zintzokiegi handiguran: *Gure Salbatzaileak ez zeukan hirugarrenez horren apalgarriri lur jo beharrik, lehenengo jausialdian kurutzepetik hanka egin izan baleu. Halan be, gurago izan eban kurutzeari ez albo egin...* Hurrengoan ere horrelaxe ekingo niokeen, kontrastearen indar ustez infinituan, Jainkoa bera jausten-altxatzen baitzen, baldin gogo-zuzendaritzak, doktrina-zaintzaren forman (kasu larrietan interbenitzeko amorratzen egoten zena, bestalde), bere gelara bakarrean deitu ez balit, kargu hartzeko:

- *Nondik bururatu jak lehenengo jausialdiko alde egite, hiretzat 'hanka' egite hori?*
- *Txarto esan al dot? Bere Jainko ahala gorderik, kurutzera borondatez entregatzea ez al da misteriorik handiena?*
- *Auzia ez dok misterioa, interpretazinoa baino.*
- *Ez al eban Jesusek izango berorrek 'alde' dinon hori egiterik, gura izan baleu, halan be bardin-bardin salba gindeikezela?*

Gogo-zuzendariak, korapilo esplika-zailen bat aurkezten zitzaion guztian bezala, erruki burlosoa ala ulerkorra zen igartzerik ez zegoen irribarre ordezeko ezpain-okertze batez, bere autoritate problematikoa begiz-begi luzatuan inposatu ohi zuen, eta hortixek errezelotu ninduen, ohartarazi zidanean:

- *Kurutzearen azpitik ihes egiteko ahalbiderik ezin dok beste barik iradoki, hainbeste arima oraindino samurregiren aurrean.*
- *Horixe esan dot, ba! Jesukristok ez ebala ihes egin, ahal izanda.*
- *Behar ez denen batek egiteko bidea ikusi leikek.*
- *Orduan zer esan behar da? Besterik ezinean kurutzeratu zela?*
- *Intelligenti pauca!*

Horixe ebatzi zuen, ezpain-okertzea mehatxura korrituz, zaila baitzen lehentxoago arima 'oraindino samurregitzat' jo zituenen inteligentziaz fida zedin. Halaxe joan ginen gutxitik askora zabaltzen, heziketa sana diotenaren (zer ote da bera?) inbertsioz, misterio interesgarri baten hurbiltasunaz oharrazten gintuzten zeinu muzintiei esker. Gure gogo-zuzendaria, begiak haize hondartsuan bezala itxirik eta buruari eraginez, *no, no, no!!* hasten zenean, aztoratu egiten ginen, zer ikusten ari ote zen. *Ama Birjina biluzik agertu jakok!,*

ahapetu zidan behin, ukondokada batez, ondoko ikaskide arratiarrak. Lotsabakokeria handiegia iruditu zitzaidan, baina, harrezkero, neu ere Ama Birjina biluzik ikusten hasi nintzen; tortura bat lehenengotan, harik eta 'pentsamendu txarrek' txakurren psikologia zeukatela ikasi arte: zenbat eta gehiago uxatzen dituzun, hainbat biziago akosatzen zaituzte.

Harritzen naiz nola ez den, fisika-lege guztien aurka, nire sorbalden astuntasun eskerge oinetara transmititu, hauek normal askatzen baitira zorutik, banan behintzat; batera ere baietz esango nuke, erabatasun pentsaezinen baten beldur ez banintz. Zertan ez dela, kalbarioaren asoziazio ez dakit nondik kongruenteak, edo neure jakintza pena handi gabe murritzuan gelditzen zen hondar-senak, Sisifo gogoratu dit, zeinaren zorigaitz eternalki errepikatuak, gizatasunaren patu estremoak inkarnatzean, jainkoen ankerkeria infinitua bistaratu zuen, hirugarren egunean pizturik, esperientziarik ez errepikatzeko zortea izan zuenarenak ez bezala, hau ere kasu irrepetiblea bere erara. Altxatzeko, gogorik eza baino zama handiagorik ez daitekeela izan otu zait, nire kasua Jesukristoren eta Sisiforenetik bereiztekotan, zeren, horiek behintzat drama neurrigabearen tontorra helburu bazuten, nik nola justifikatu behar dut hirugarren egunean infernuetara jaitsi nintzenekoa bergertatze hau, gorantzean norbaitek eskailburutik hots egiten badit, ez zertan *habil hor?*, *nor haz* baizik? Lehen kasuan, edozein halabehar esterno aduzi nezake, txakurrak eurak, esaterako, zeintzuen beldur ez funtsgabea (*eduki be badaukazuez etxezain porrokatuak gero!*), jätetxeko sancta sanctorumaz beste irtenbiderik, oraingoan sarbiderik, ez zaidala geratu frogatuko nukeen, kontestu detailosoa paratuz, baita sonambulismo transitorioa ere, zoro-puntu baten suposamen gabe nekez sinesgarrituko nukeena bera, baina, nolana ere, kinka flagranteko asaldua baino jasangarriago litzatekeena. *Nor haz?* kasuan, oster, izen-deituren hustasun kasik iraingarrira jo ezik, erantzun orotatik at utziko nindukete, zera gehienetan, honelako inoren etxean sartzeetan salbuespenik nekez tokatzen baita alde, bero-bero egin zaitzaten motiboa izaten den. Nor naizela erantzun behar dut (*zer haz?* galdetu balidate ere!), ez baitut neure barruan izate estrainiorik ezkututzen, mendeetako bilaketan garunak zimeldu zaizkion pentsamenaren aurkikuntza garbirik ezak sobera frogatua duenez?

Grabitate jasanezin hau gaintzeko, hots, eskailerak lasai igotzeko, erre-
medio bakarra goian inor ez dagoela segurtatzea da, eta hori, gauden leku-
raino helduta, era bakarrean egin daiteke. *Bizi al da inor? (Etxekoa banintz legez
berba egin joat). Aitor! Hilik be ez al da bizi? Olatz!* Deihadarrak bere erantzuna
besterik ez dakar bueltan. Ez dirudi inor dagoenik, sorbaldak tanpez arin-
tzeak ere sentiarazi didan moduan, baina orduan ez dut ulertzen zergatik
poztu naizen, baten bat ia amorratuki bilatu nahian honenbeste arriskatu eta
gero. Berriro eskailburuan, hutsune handiak eta ate-leihoak, bat edo beste ire-
kiak, besterik ez da ageri; eta goragoko solairurako eskailera. Hortiko itzule-
ran grabitateak ez nindukeela atxikiko suposatu arren (ba ei daude jaitsierak,
igoerak baino zailagoak), ez dit batere tiratzen, beharbada beste porrot baten
prebisioz, logeletara igotzeak, non ez litzatekeen gutxiago infamea intimitate
adurtsu baten –mmm!– zapuztaile agertzea, nola litzatekeen abailgarriago
etxeko zokorik pribatuenak hutsik aurkitzearen desitxaropen totala. *Gatzu-
naskan ete jagozak?* Egoerari gatz apur bat egin beharko zaio, zoru izoztuan ez
labaintzeko, buru galdatuaren azpian. Jantokian zehar barrara itzuli naize-
nean, ez naiz harritu etxekoen edo zerbitzarien ausentziaz, baina bezeroen
lorratzik ez ageri izateak (neskameak jendetasun obligatuz jaulkitako fresku-
rekin, gero kabinan kanpai eder bat jotzeko, zarata eta guztikoa, berotzera
datorren kamioizale aurreztaileren bat baino ez bada ere) noraezaren katalo-
goa gaintitu behar dit. Tabernan azken eta bakar izatea zer den badakit, baina
ordu honetan (*non jagok erloju puta hori, hormako eguzki ederra kafeontziaren goie-
neko zenbaki keinutietara minimizatu ebana? Hamahiruak eta zazpi. Segundoak heu-
retzat!*), eta dagoen egun argi eta beroan, beldur naiz ez ote naizen mirari
inpersonal batean harrapatu aurkitzen. Mirari pertsonala zer den baneki
bezala.

Hesparruko atarteko mailadi buruan, barrurantzean baino marroago, baina
neuronen inurri-habia keak astintzear bezala, errepideetara arretaz begiratu
dudanean (ehun metrora bidegurutze laukoitza eta eurt bat daude), muine-
raino danbatu nauen eta belarriak geziak bezala atezatu dizkidala sentitu
dudan zauskada batek hipotesi lazgarria jaurti du, zeinaren baieztapen for-
malerako denbora eta arnasa behar ditudan. Beharbada ez da metafora es-
kerga bat besterik izango, luze eta jabal garatuko dena, amaieran errealitatera

bihur ala bidean absorba nazan desiratuko dudan galdetzeko gauza ez naizena. Haitza burrunban estali duen olatu beroari ere jaistea kosta egin zaio, minean apurtuz bera ere, gozamen ustean joana. Berriro saiatu beharko du, apar txolinetik garbiturik, puskak berrosatzerik badu. Milioika urtetan hala egin badu, beste behingoagatik lortuko duela itxaron behar da, nahiz eta horrek noizbait azkena izatearen derrigorra delakoa kontraditzen duen. *Konpondu eik hori!* Itxaropena tratatik kenduz gero, dena esplikatzen da.

Hodeitxo bat hauteman dut Mugarra haitzaren buru zapaletik oskarbirantz goratzen. Neure umezaroko Etxanon nago, etxetik kilometro batera, Txabola gaineko zelaian behizain. Txakur txiki gerakaitzak buruz zekien terriorioko nobedadeak usnatu bitartean, ganaduak diseinu zehatz baina niretzat monotonoegiz trazaturiko zadorrak txirringolan mareatzen nituen. Beharbada, animalia haiek ez zituzten nire inbentuak baloratuko, noiztenka eta arrazoi niretzat oinarrigabez konbergitzen ziren marra paraleloen harmonia ia euklidianoan, konexio zutak edo zehiarrak, behin lasterbideak, behin luzapideak, baita txirringolak maite zituen angelu kurboak ere (kontradizioa bada, jar bihurgune) nonahi irudikatzen nituenean, nahiz eta ez, noski, txakur koxkorak amarauntzen zituen ibilbide nekez errepikatuen obsesioraino, inprudentziak, txakurren akats kardinal nagusiak, sastraka inpenetratean edo erlabio-zuloan sarrarazten zuen arte. Nire kasuan, bide berrien grina eurotatik amai gabe aldiz berpasatzeko eta zadorrak obra pertsonal baten aitorle ikusteko gozamenari lotzen zitzaion; txakurraren bideak, oster, hain ziren konfiguratzera ukatzen, ezen bazirudien haren eragilea errepika ororen derogazioa zela.

Etxearen euskarri zirela jakiteak sortzen zidan haienganako karinoz segurrenik, behiak euren premien izaerara bizi zitezten ulertzetik berez-berez jotzen nuen ni neure izaeraren premietan saiatzera. Premia horien artean, neureenetariko bat zen helera terminal gabeko zadorrak multiplikatzera, hala nola, euri ondoren, ubideak zabaltzera apetatzen nintzenez, txakurra lekuko mesfidati eta lastimakor nuela, bustitasuna gorroto baitzuen, bere gogoz errekarra saltatzen zuenean izan ezik, zeren eta harrikada-planta soil baten atzetik. Nire kasuan, bai zela exzitantia ikustea nire abar-puntak edo, ahal bazen, hatz-puntek irekitako ildaxka nola

likido uherraren etorrera zintzoak handitzen zuen, nahiz eta hurrengoan, ia beti, handik apartatu nahi izana nuen bide bakar hartatixe jaitziko zen berriro ura. Berau bezain temosoak, baina mamalagoak ziren behiak: edatera zihoazen ura eurek zikintzen zuten sarritan. Edo atzekoa egarri geldituko zen, aurrekoak txiza egin zuelako, behirik nekez ikusiko baituzu edaten eta txizaginan batera, nola bai edaten eta bekorozginan, gero hau premia 'nagusia' dela esan dezaten. Txizagintzak arretea eksklusiboa eskatzen die, nonbait, mamala-airean pasaturiko larritasun aurpegiz, inoiz gertatu gabeko zerbaitek isaspetik eskapatuko bailien. Harritzekoa ere ez da, bestalde, egileak ez baitu parrastadarik ikusten ahal (onomatopeia, gehienik), besteengan ez bada; baina hori ez da esperientzia propioan sartzen, nahiz eta ezin-ikusiak ere ez duen dena esplikatzen, zeren bere begien aurrera arrantza lurruntsua dagien astoari, adibidez, bere barne-produktuak gaina harturik, hasierako tonua sarritan oso urrun joaten zaio, izorrai, segurrenik apropos, aluak; eta ez oilar insoportablea bezala, Vivaldiren afinazio-eredu izatearren, edozein ordu sonorizatzeko eskumenaz baliatzen dena, oiloak Benidormen badaude ere.

Neuk asmatutako bideen amodioak ez ninduen, noski, bidegintza berrietatik desatxikitzen, batez ere nire senarentzat hain aurkikuntza zoragarria zen bide zarratu baten aurrean; alternatibarik aberatsenaren kalkuluan, praktikotasuna eta bistosotasuna, bidea eta bidaia akoplamendu totalera batu guran, arratsalde osoa igaroko nuen, azkenean egokiena bide zaharra bera libratzea izango zela ateratzeko bazen ere; ez alferrik, noski, zorion ez eternala baina bai infinitua oinkatu ahal izan bainuen. Oso gero konturatuko nintzen animalien premia-sena etorkizunezko soluzioetan ere ez zela beti gutxien zuzena, Aldundiko talde tekniko batek nahi gabe aitortu behar izan zuenez. Mendi garai batera pista bat irekitzeko ikerketak egin ondoren, gurpide zaharra zabaltzea erabaki zuen, harriturik galdetuz:

– *Nor izan zen bide hau delineatu eban injinerua?*

– *Hara, jauna –azaldu zieten–. Orain ehun bat urte, mendibidea egitea pentsatu zenean, herriko adituek ezin eben adostu nondik zehar ekarri; azkenean, udaletxeko astoa (alkatea barik bestea) tontorrean askatzea pentsatu eben, ha herrira nondik jaisten zen, bidea handixek markatzeko.*

- *Emon zorionak asto horri.*
- *Jesus! Asto ha noiz hil zen!*
- *Lastima da jenioek hil behar izatea.*

Inkontzientzia handia behar zela pentsatu nuen, hain hodei ezteusa zero zabalera hain bakar irteteko, bere txikitasuna arratsalde distiratsuaren kontrasteari esleitu nion belztura intentsoz konpentsatzen bazuen ere. Txirringolaren atzetik edo fantasien aurretik (aireko oskilazo edo erreka karramarro bakoitzagaz –bi bizilagun enblematiko aipatzearen– garatzen nituen erro-mantzeak kontatu gabe, ezinezkoagatik ederrak, amaiera posiblerik gabeak alegia), itzuli batzuk egindakoan (orduan ere, arnasa nasaitzeko, geratu beharra zegoen, etorkizun guztia aurretik izan arren), hodeia, Aramotz parean, gorago eta montorrago ageri zen. Beltzean berdin, moztu berri zioten burua (hau ez zen ikusten) harrapatu guran, aurrera-makur zihuan erraldoia zirudien, nire umezaroko, eta oraintxe ere esplikatzea kostako litzaidakeen auzi zerutar misteriosoenetariko bat berrituz, hots: nola hainbeste handi zitekeen hodei bat ortzi erabat urdinetik (ezerezetik, nolabait), zeina nik izaterik gardenentzat imaginatzen nuen, ezin bainuen kontzibitu argia ere, funtsean, enbarazu bat gehiago ez zenik. Behizain nengoela gogoraturik, txirringola gelditu nuen, eta behi-txilinen lorratzik ez nentzuen. *Behirik ez galdu bistatik gero!* – abiatzean beti agintzen zidan amari (hark ere bere arauak bete egin behar), *txilinak zertarako daukiez, ba?* –ihardetsiko nion hutsik gabe, neuk ere askatasun minimo baten justifikua irteeran bertan aldarrikatutik uzteko.

Arratsalderoko arazoa (ez hilgarria, beraz) gertatua zen, eta txistu jo nion txakur kriskitin gabeari, zeintzuk ipini arte ez nuen bakerik eman, ezta, berehala, kendu arte ere. Leku batzuetara, auzoko neskatoa ispiluan zelatatzen, esaterako (ez nuen ez ispilu, ez neska ikusiko), txakurra isilik eramatea komeni zen; etxean uzten ahalegindu arren, ez zegoen segurtatzerik atzetik jarraituko ez zuenik, *madarikatua! zertan hator hona? shhh! ez deuat esan etxean egoteko? geldi hor!* – *Baten bat dabil hor?* –neskatoaren buruak, leihotik kanpora. *Ez, pasetan ari nintzonan* –erantzungo nuen, asun artean ezkutatzeko soluzio okerragorako astirik izan ez bazen. *Hortik nora pasatu behar dok?* Eskerrak haren buruan ere, nirean aitzakia ganorazkorik ez moldatzeko bezala, beha-

rezko ondoriorik ateratzeko garapenik ez zegoen. Txakurra, obedientzia inaziotarrak eskertuko zukeen bozkarioz, tximistan hurbildu da txistura; bagoaz norantz joko zuten suposatzen dudan behien atzetik, pinadian barrura, non abereak areago sartzen diren hazka egitera eta iratzen euliak astintzera (edo ibilaldi utopikoan soilki), hango belar mingotsa bazkatzera baino; esan nahi baita, pinupean ibili besterik egiten ez dutenez, haien norakoa lehenengoan asmatu ezik, behiak galtzeko arriskua benetakoa izan daitekeela. Ikara horrexegaz goaz txakurraren alde guztietaranzko zolitasun desinhibitua eta biok. *Amaren esanik ez egitearren!* Aitormen berankorra, beti bezala, ez hainbeste haren ongura mindu izanaren damuz, okerraren ondorio posibleen beldurrez baizik, zeinaren botere nagusia gehiago zen momentuko auresanezina, gero konkrezioa baino. Konkrezio agian benignoa, umezaroko gertagai beldurgarria ez baita azkenean, sarritan, eszenifikazio soil bat izatetik pasatzen. Beharbada, egundoko agirakaldia bi ahotsetara entzun duen mutiko abaildua bistatik joan denean, gurasoak barrez deskojonatuko edo irribarrean plazertuko dira, edo, soilik, aurreko solas ezteusera itzuliko. Eszenifikazio hori, nagusitan, posibilitate txar guztiak batera eta maximizaturik irudikatzeko ahalmenaren maneia izan daiteke; beldur zen oker horietariko bat benetan gertatu zaionak beti izango du beste oker guztiak zorioneko prekauzioagatik ekidin dituelako gailentasuna, alferreko beldurretan sufritu duela deduzitzea ergeltasunaren kantu ozenegia bailitzateke, hain kalkulu negatiborako ere adimen-maila bat behar da baina.

Behirik inon ageri ez izatea baino larriagoa da kontrako norabidean ez ote goazen zalantza; orduan ez dago lau norabide kardinalak arin korritzea besterik, baina noraino, hain luzeak badira? Hauetariko ezeinetan, ez joanean ez etorrian, lorratzik aurkitu ez baduzu, has zaitezke okerrena pentsatzen, nahiz eta gero, beharbada, haserre eszenifikatua besterik izango ez den; zure ume-talentuan oraindik ez da existitzen figura hori. Iratzen zenbat arinago, txirringola-manilak hainbat gehiago trabatuz, pinadiaz handiko zelai garbira irten garenean, hor dantzut neure umetako soinuak alegreena (ezta infernuko ausporik ez zeruko organorik ere!), galdutzako behien txilin hotsa. Oraingoan, norabide kardinalen metodoa efikaza izan da. Txakurrak, aurpegira adi-adi, bidea ixten dit, bai baitaki, honelako susto ondo amaituen ondoren,

nik berari pare bat musu emango eta berak niri belarriak mihizkatuko dizkidala, nahiago lukeen aurpegiaren orde; eta lurrean garagarra egingo ditugula, behiak berriro galdu arte. Pinadira sartzean, hodei burumotz huraxe salbu, oskarbi utzi duguna, dagoeneko guztiz estalirik eta aurpegi haserrez ageri da, burua aurkitu bailuen, nahiz eta gu ez gauden zeruaren jantzi-aldei jaramon handiegirik egiteko moduan. Txilinaz fidatzeari laxokeria iritzita, zelaiaren ertzetik, aldapa erripe eta luzearen hasieran beheratxoago, behi liderra ikusi dudanean, 'Ruby' eta biok (izen hori aitak txakurrari apropos ipini ziola uste dut, nire ahoskera kirrimarratuak egiten zion graziagatik, grrruby, grrruby!) lurrean iraulka oldartu gara, jolas arriskutsuaren mugan beti, biok ere hortzak erabiltzen baititugu, inoiz kontroletik alde egiten dutenak eurok. Lehenengoz belarritik heldu diodanean, ikaraturik hanka egin du, txilioka gizarajoak, hartutako minagatik baino gehiago, haren burutxoak ez zuelako inondik itxaroten hozka egingo nionik. Gero uste dut gustatu egin zaiola, hala berak ere hortzak libreago erabiltzeko aitzakia daukalako.

Iratzan, korapilo ezin egonkor, ezin askatua pirritatzen garela, bat-batean, argitasun zaurigarria eta danbarrada durdigarria gertatu dira. Txakurra, suak harturik bezala, iratzen desagertu da; zer izan den kargutzerako, zutitzen ere hasterako, euria truxuka ari du, txingorragaz nahastean. Iraperik irape, katean lehertu den oinaztuak errepara ez diezadan, pinadian babestera jo dut, trumonadan arbolapea arriskutsuago izan daitekeela, entzuna izan arren, sinesteko gauza ez naizela. Pinurik adartsuenak ezin dio urari eutsi, txingorra apur bat mehatzen badu ere. Txakurrari larri deitu diot, berehala dator, zahagitxo iruntzitua bezala, pinu kontran neure hanka artera kikildu da. Lagungarri izango nuelakoan, haren dardaran, izuaren gorputza ukitu nuen, ipuin ustean entzuna nuen munduaren azkena hantxe ez ote den izango. Atertuko zuela pentsatzeko adorerik ez neukan. *Eta behiak? Ai, Rubytxo! Oraintxe gureak egin dauela uste joat.* Ekaitzaren biolentziaz, neuk ez dantzut, baina negarrez nagoela uste dut. Gaua da edo gautu egin du; beharbada gehiago ez du argituko. Erlojuari igartzen apenas nekiela, denboraren kontzeptua beste ipuin bat besterik ez zen nire buruan. Gero jakingo nuen, ume batentzat, egun bat bizitza osoa izan daitekeela eta ordu laurden, eternitatea. Txakurra ondoan ez zegoela konturatzean, ez nintzela larriagotu ikustek la-

saitu egin ninduen; gehiago nondik ikaraturik ez neukala esan nahi zuen. Haren larrua ere, laguna abandonatzeko, leialtasuna baino grina bitalagoren batek jo izango zuen. Bat-batean, gau osoa honela igaro beharra izan nezakeela pentsatzeak (*honela* baino gehiago, *gau osoa-gatik*), beldurraren dardara eta bustiaren hotzikara paralizatu egin zizkidan, salbabide bakarra zen mugimena anulaturik. *Ama!* Negarrik ere ez dator. Oinaztuaren argialdi bizi eta zarratuetan, gerizen multitudeak baino ez dakutsat, denak isekaz eta mehatxuz: *Kokotxo bat legez hilko haz!* *Osterantzean, geuk jango haugu.* Pinuaren kontrara tente nengoena, belaunek euren kontura amore emanik, jesarrita aurkitu naiz; lurra jotzean, ipurdiak trumoi simultaneoaren dardara nabaritu du. Jausteko gauza izan banaiz, ez nago immobilizaturik. Horrelakorik ez nuen pentsatu, baina gorputzak bere kontura erabaki zuen mugitzea; bazezakeen, beraz. *Noan arin, koko bilhurtu aurretik! Eta behiak?*

Kilometro bat bazen basotik etxera; adin hartan, distantzia amaigabea. Oinaztuen laguntzaz aurkitu nuen pista istiltsua, batzuetan belaunetarainoko lakua; euren argitasunera jarraitu nuen ilunpe likidoa zeharkatzen, urrats bakoitza basatzen ehorztetik libratuz. Laburtzeko, diodan amamarenean argi hilurren bat hautemateak (hango olio gorri lodizko argi ketsuak mihi linbotarra zirudien) ozenki negar egiteko adorea eman zidala. Haren sukalde partetik zotin isilean pasatzen ahalegindu nintzen, neure miseria ez salatzearren bainoago geure etxea hur nabari nuelako. Hemengo argi biziagoa ikusi nuenan (gurean petrolio purgatoriotarra gastatzen zen), erabat askatu zen nire negarra, ez entzuna izan zedin, ekaitz persistente hartan ezinezkoa berau, baizik jada, nire edozein zaratak izugarrikeria berriak erakartzeko beldurra amaitzean, kontentzio guztiak desaktibatu zirelako; baita, bide batez (beharbada, batez ere), etxekoen aurrera husturik iritsi guran, baliente plantan alegia, gaua kanpoan pasatu behar izateak ez zidakeela ardura izango agertuz. Txakurra bidera irten zitzaidan; abandonatu ez banindu baino samurrago bersarkatu nuen, haren gorputzari zerion pozezko dardara nire bat-bateko bipiltasun heroikoak (*hau eskolan kontetan dodanean!*) barka-eske loriostzat ulertu baitzuen. *Zelan heldu haz, Ruby? Behiak etxean jagozak?* Behiak ukuiluan zeuden, bai, etxera sartu aurretik, konprobatzeko izan nuen ez dakit gailentasun ala larritasunaren arabera. Sukaldera sartzean, ez nuen aurpegi kezkatu

hauteman, bila irteteko motiborik eman ez bide zuen eguraldi mota baten konstantzia baizik. *Zelan ez deusak ekaitzari igarri?* –hots egin zuen aitak, bur-laize fingituan, neuk uste. *Ni behien arretan ibiltzen naz!* –hots egin nuen gotor, neure inesperientzia mendrea frekuentatibo tinkora jasoz.

Askoz okerrago buka zitekeen estualdi funtsean aski dohatsu haren metaforak apenas balioko duen orain, inpotentzia totalak ere asumitzeko derrigorretik libratu ezin nauen egoera esplikatzeko, baina kondairak astia eman dit, auspoa nolabait, ez beharbada aurkikuntzaren magnitudea atzemateko, horretarako anikilazioz hil beharko bainuke, baizik gogoia anikilaziorik, hain zuzen, ez gertatzera prestatzeko, zeren zer zentzu zukeen, bestela, hain umezaro germinalera saltatzeak, aspalditasun haren oraintasun horixe ez balitz, gure ahalez gaineko konmozio orotan, nortasun zatigabearen grazia edo zigorra mantentzen diguna? Eta oroimena ez balitz, bitarteko zulo beltz posible guztiak penetratuz, denbora luzearen muturrak kontzientzia bakar bihurtzen dituena? Burua galtzear ote nago? Garaiz ulertzerik izan ez zuen adimen inozentean handituz joan zen umetako hodei txiki, deslai hartan, nola ez nuen aurreikusi, badaezpada susmatu, munduaren azkena, edo behintzat nirea (hori gertaturik, besteak zer axola du?) eragitear egon zen ez-tanda? Metaforak ez dit, bada, balio izan; aurreikuspenak, eztanda hartatik bai bezala, ez nindukeen oraingotik libratu ahal izango, zeinak, bestalde, ez-tandaren alderantziena dirudien, dena hain bare-bare.

Denbora apur bat harramazkatu guran baino ez nabil, zeren bueltarik ez daukala dirudien aroaren hasieratik orain nagoen unera, goizerik igarri banio ere, ordu batzuk lehenago iristea besterik ez nuen lortuko. Nork jakin horixe ere, zeren, egunkarien saltokia itxita aurkitu dudanean, konturatzen hasi izan banintz, beharbada oraindik zerbaiterako garaiz nengokeen; edo Topa itxita aurkitzean, Hesparrun bezala eupada egin banu, beharbada oraindik baliozko orientazioren bat hartu izango nukeen; edo Ganekoetxeko parrapean iragana ausentaturik, saguzar eskegia bezala egon ez banintz, beharbada orain alde guztietarantz *hemendik ez, hortik ez* markatzen duenaren antizipazioren bat harrapatu ahal izango nukeen. Hesparru itxita aurkitu izan banu ere, tokatzen zela dirudien bezala, etxera joan izango nintzatekeen, bazkaldu izango

nukeen, eta orain bigira gozoan nengokeen, hankak zabal-zabal, larrugorri eta masta-goran, neure 'txakur zuriaren' kolorea sendatzen. Baina alua, itxita ere egon zitekeen inkausalitate beraren arabera (kasualitatea norbere irudimeanean bakarrik gertatzen dela eta determinismoa tautologia baino ez dela ukatzen hasi behar ez badut), zabalik aurkitu dut, eta hemen nago orain, atarteko harmailadi burutik, ehun metrora ageri den bidegurutze laukoitzak marrazten duen hustasun eskeletikora errenditu ezinik.

Desesperaturik agertzea ostentosoan izan liteke. Egotea, ez hainbeste. Tremendismorako joera unibersaltzat jo liteke. Zorian ez bada zorigaitzean, aha-lean ez bada ezinean, denok izan gaitzke protagonista. Hortxe datza balia dezakegun berdintasun bakarra. Konforme dagoenak ez du literaturarik behar. Gehienik, komikiak. Zerbaiten grina, kezka edo amorru gabe, literatura hutsala da. Horregatik, zaila da literatura konformistarik izatea, oso txarra ez bada. Izan naizena beti interesatuko zait gehiago izan nintekeena baino. Literaturarako ere bai. Etorkizuna iraganetik edertzen da. Ez da harritzekoa; iraganerantz jaiotza dago; etorkizunetik heriotza dator. Iraganaren luzapenetik bizi naiz. Horizonteak hain distantzia ezberdinak batzen dituen bezala jausten naiz haurtzaroa, bing-bang txiki etengabe espantsibo hartara. Nire etorkizuna iraganera itzulera da. Baina nora itzuli naiz iraganetik? Zer da bidegurutze horrek esan nahi didana?

Txarto aparkaturiko autotik Egin egunkaria hartzekotan irten naizenean, txokatu zait kalean arimarik ez ibiltzea; halaber gero, Olakuetako semaforo alferrik errespetatuetan, ez aurrean, ez atzean, ez alboz, neureaz beste ibilgailurik, ezta pasonibelean beti pasatzeke harrapatzen nauen trenik ere, martxan ez ikustea; edo Ganekoetxeko eserialdi luzean, neure errepide mentalak berkorritzen niharduela, azelerazio izpi bat ez entzutea; edo Eskargan gora, parte txarreko usaina hartu diedan txakur haiekin baizik ez gurutzatzea; edo Hesparrun berton, giza figuraren gerizarik ere ez somatzea. Ebidentziak, gertatutakoan, beti agertzen dira ulertzeko kemenik izan ez dugun iragarpenez beteak, zeintzuek, halaber, gertaera osoa behar duten, esanahi argia har dezaten; ez da harritzekoa profetak halako auraz inguratzea, argitasunetik baino abiaduratik gehiago eman zaion gure adimenari misterio multipletan deslai-

tzea gustatzen baitzaio. Kontua flipatzea da, ulertzen ez bada ere, eta horixe da orain arte egin dudana, eta honezkero egiten jarrai nezakeena, azkenean ebidentziaren inposizioak ulertzeko ahaleginetik libratu bainau.

Haurtzaroko digresio luze eta ihesgura hartan abiatu naizenetik (ea hain urrundik bueltan, bide akzidentalaren batean galtzen nintzen), ibilgailu bakar bat ere ez da pasatu, bistan dauzkadan lau norabideetan. Dozena bat auto eta hiru kamioi geldi dauden aparkalekura jaitsi naiz, eta Trabakuko errepidea eta beronegaz batzen diren Ermuko eta Mallabiko erramalak hil baten gomuta baino soilago daude. Berdin, beste aldean, Kanpazar eta Elgetako mendeak, eta biak gainez gain loturik, Eibarreraino darraien transbertsala, gauetan trafiko zarratuaren ager-ostenetan, gorputz-uztai argizatuen lupu erraldoia ematen duena. Litekeena da norabide guztiak itxita egotea, alde guztietatik abiaturiko lasterketa multiplea ardatzen batean, beharbada Areitio gain honetantxe, biltzera datorrelako, nahiz eta orduan antolakuntzaren seinaleak eta antolatzaileak ere han-hemen ikustea bidezko litzatekeen. Beharbada, jakinean egon beharko nukeen motiboren bategatik, denak autopistatik bidali izango dituzte. *Hortxe egongo dok ataskoa!* Errepidea gurutzatu eta, txatarra-lantegi handi eta paralizatuaren albotik, barreneko autopistara begira nago. Zaldibarko tunelaren irteeratik Berrizen zehar Durangoraino, ez da eulirik ere ageri, ez Bilborantz, ez Donostiarantz, zerak esan nahi baitu ez dela gertaera lokalizatu bat. Bonba-abisu batek ere ez zezakeen hain inguru zabalik har, atomikoa ez bazen, baina hemen nork eduki behar zuen horrelako hondagailurik, yankien barrabilak espaziotik jausi ez badira? Beltza litzateke Euskal Herriaz orduantxe gogoratzea. Lurrikara baten alerta izan ez bada, zeren lehen ere, gau batez, Eibartik Bergara aldera, eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat unetan, susto galantak izanak baitira, ohitura gabeko inozente asko biharamunean kalean jabetu baginen ere. Beharbada probintzia osoa ebakuatu izango zuten, eta ni ezer jakin gabe, goiz erdian egunkari bila, fresko-fresko. Berrizko kaleetan eta pasatu naizen denean, ibilgailu normal aparkatuetan ez zen igartzeko hutsunerik ageri; airezko ebakuazioz izan beharko zuten. Baina orduan, suposatzekoa den hegazkin-flota arrapatuaren burrundada nahitaez apokaliptikotik, zerbait entzun beharko nukeen, ezta? Eta, beti ere, ni bezalako despistatuek gehiago ere geratu beharko zuketen

nonbait, nahiz eta gero eurek elkar topatzen agian jakin ez, errepide-ispilu batean bere buruagaz gurutzaturik, *kaixio!* hots egin eta aurrera joan zenak, susmakor itzuli eta inguruan inor ez ikustean, pentsatu zuenean bezala: *Arin ezkutatu dok horixe, mirarietan sinistuko baneu legez*. Ez dut uste burua apurtzerik merezi duenik, ezta ispilukorik ere, ohartxo bategaz dena argi uztea zeukatenek auskalo zergatik nahi izan ez dutena kalkulatzeko. Ez daukat inori esplikaziorik eman beharrik, are gutxiago neuk eragin gabeko egoera batenik. Beste munduan badaude, abisatzea daukate; posta-arazoa bada, itxaron bezate, neu iritsi arte.

Errepidearen erdira itzulita, eguzkiaren alde (igarri egiten dut lurraren norabide inbertsoa), moda beti, begiratzen zaion posiziotik begiratu, abialekura datorrela erakusteko, astiro-astiro biratzen diren maniki handi horiek bezala dihardut, norabide guztien (Urkiola, Kanpazar, Elgeta, Arrate, Trabakua) ekorketa pausatuan, hutsik datozen bideak laztanduz; ez dut ulertzen zergatik den poetikoago urrungo bideak beti joaten ipintzea, etortzea arrunkeria bailitzan. Bidea osterantz amaitzen den lekuan, badirudi geure burua jartzen dugula ezkutatzear, horrek nolabait bilagarriago (maitagarriago) egiten gaituelakoan; inoiz, oste hura zapaltzeko zortetik izan badugu, kontrako norabidean grinatzen gara berriro, oste berriari lehentxoago geu han egon izanak eransten dion liluraz, zeina, gure presentzia somatuz batera, berriro lekuz aldatuko den, haur irrikatuari beti txak urruntzen zaion usoa bezala. Bideak joan badoaz, segurrenik izango da etortze orok geuganantz markatzen duelako; badirudi horixe dela bide baten azken xedea, beste erremediorik ezean iritsi beharrekoa. Oraingoan, ostera, geroz gustu handiagoa hartzen ari naitzen biraketa apur bat hetxizatu honetan, astiro-astiro, bide guztiak neugana bihurtzen ari direla nabari dut, neure bila datozela; luzaro gabe mugitzen ez banaiz, harrapatu egingo naute, bete-betean, erdi-erdian. Itomena izan behar du bide guztiak norberagana eramatea, nondik eskapaturik ez daukazula.

Oraingo auzi nagusia besterik da, ostera: ez dakit, ez daukat uneari dago-kion sentipenik; esan nahi baita ezin dudala gogorik inorantz kargatu, hitz terrible bat eransteko. Halako indiferentzia bat soilik, terribletzat jo daitekeena, noski, zeren, suposatzen dudana egoera definitiboa bada, eta baldin bera

bezain esplikaezina litzatekeen kontrako gertaerarik gainetorriko ez balitz, pentsatzen saiatzen naizen bezala, ez al nuke neurri gabeko dardara, zirrara, desolazio, zauskada, estasi, txundidura, lilurapen, zoramen, haluzinazio, hilgura, barre-eztanda, euforia, amorrua... sentitu behar, ea sentipen horietariko baten baten edukiak behar denaren klabea darakusen? Zerbait aparta gaine-tortzean, ona zein txarra (oraindik ezin dut bereizi bi kategoria antagoniko eta sinpleen horietariko zeinetan kokatu behar den egoera), norbere sentipenek ere parean egon behar dutela suposatzen da; hori ez gertatzea (esaterako: *hilotzak zapaltzen najonazen eta harri bat legez geratzen nintzonan, harriak zapaltzen legez; ume jaiobarría eskuratu jeustenan eta katilu bete salda emon baleuste legez geratu nintzonan*) harrigarritzat jotzen dugu, gertaeraren garrantzia norberagan eta ez gertaeran bailegoen; edo, segurrenik eta subtilki, harrigarritasuna gertaeratik norberagana pasa dadin, esanez bezala: *Pentsa zer jazo zen, eta ni (harritu zaitez!) ezer sentitu ezinik*. Garbi esanda, gure erreakzioa errealitatea baino garrantzitsuago bilaka dadin saiatzeko joera dugu; garbiago esanda, ea norbait errealitatearen ardatz garelako pentsatzen deskuidatzen den. Berdin sentipenen gabezia baino bistosoago den larsentimenean: *Zer egin ez nekiela geratu nintzonan, negar ala barre; ha zonan hanketako dardara, eskuak izerbera eta begiak malko; poza ala tristura den erabagi ezin donan une sublimea*. Lortu dugu, bada, errealitatearen kondaira geure sentipenen exhibiziora ekartzea, nahiz eta ez gauden ziur jaramonik egingo diguten; entzuten duteno, beharbada horixe onena, gogo gabeko arretak nagusiago egiten baikaitu, guregana behartzen diren neurrian; bide batez, horrela hobeto izorratzen ditugula ahaztu gabe. Zertaz mendekatzen ari garen ez dakigun zerbaiten linfa hitzetara pasatuko ez balitz, solasak ez luke graziarik.

Une honetan ez naiz, oster, inorekin solasean ari, nahiz eta zail egiten zaidan neure buruagaz mintzatzea, beste lekukotasun bat, distantea bada ere, inperzonal bada ere, imaginatu gabe. Ohiko sentsazio adkirituei, egitan bereizgarri bakar zaizkigun tipikoei, tiraka dihardut (ez desesperatuki, hau ere sentsazio tipikoen artean baitago), eta ez dute etorri nahi; beldur dira, euren argizkeria inkontestablean, apaldurik atzeratu beharko ez ote duten, egoerari inondik ere ez dagozkiola ikustearen lotsaz, bere sumin osoa espejismo baten gainera jaurti duen eraso bezalatsu; beharbada espejismo horixe da aurkitu

dudan hitzik baliosena, jarraipenari buruz lehenean utziko banau ere. Orain-
txe susmatzen dut, giza izaeran, sentimendua beti prezeditzen zaiola erreali-
tateari, zeina, noski, balitekeen noizbait sentimenduen abiarazle izatea,
hastapen ezohartuan, baina neuk behintzat, ohartun bihurtu nintzenetik, kon-
tzentziatik at sentitzerik ez dudanez gero, errelitateaz badut aurretiko hun-
kidura, gaitzidura edo ezaxola bat, zeintzuen arabera gozaten, ernegatzen
edo aspertzen ari naizela nabari dudan. Ezeren aurreiritzi gabe, errealitateari
norbere sentimena guztiz irekitzera goazena ere, eta zer esanik ez, txunditzen
edo zirraratzen uzteko asmorik garbienez, esperientzia berrien bila oldartzen
garena ere, besteak bezalako jarrera-motak baino ez dira; errealitateari ez zaio
esperientziarik interesatzen.

Liburuen azpimarratzea bezala, non bakoitzak bere pentsamenduen ara-
berakoa markatzen genuen, zenbat sentituago, hainbat marra lodiagoz, aur-
kikuntza handian ari ginelakoan; baita ari ere, azken batez, gure xumetasun
ezkutatua orrialde haietan autoritate bihurtzen baitzen. Baziren ia dena azpi-
marratzen zutenak, partikulak eta makuluak izan ezik, inoiz 'alegia', 'beraz'
eta halakoak ere bai, gakoa, terminoetan barik, loturetan bailegoen, termi-
noen inkonprenstioa loturen konprenstioz biguntzeko ez bazen. Halakoak
azterketak gairiditzeko larri ibiltzen ziren, azpimarra gabe gelditutako hon-
dakinak atxikitzen baitzituen, hain zuzen, oroimenak, zeinarentzat, hainbeste
arrastada gorriren artean, gehienez arkatz puntamotzak bide, lerro-puska
sano batzuk aurkitzea arnasbide zen. Hil arte azpimarratzen darraienik ere
izango da, jarrera ikaskorra ('jarrera' berriz ere) bizitzako dohainik eta bizia-
ren adierazlerik sakonena delakoan, batez ere ohartzen ez bada ikasten duena
ezer gutxi dela, zorionez ahazten zaionaren aldean.

Oroimenari, ahaztutako izateari tiraka ari naiz, Areitioko mendate gaineko
ingrabitateari sentsazio aiutu bat asignatzeko prezedente itxurazko baten bila;
ezin dut erabaki, barruak alde batetik ematen didanez, pozez saltoka hasi, ala
hiltzea desiratu behar dudan. Azken batez, zer besterik gertatu da, *mundua
neurea balitz legez* esakuntzan maiz agertu dudan baikortasuna, eta disimu-
luan desiratzeko zitalkeria izan dudan inposible hori literalki egia bilakatzea
baino? Badakit zenbaitentzat munduaren jabetasuna mundukoan menpera-

kuntza litzatekeena, horretarako akabatu behar direnak akabatuta bada ere. Ez dut uste nire kasua denik, eta balitz, alferrik litzateke; areago, hortixek heldu zaidala uste dut sentipenik zuzenena hiltzeko desira ez ote litzatekeen pentsamendua, nik ez baitut ezer egin, berandu jaiki besterik; eta aldarrikatzaera animatzen naiz, oihutik xuxurlara ondorioen alderik ez legokeen honetan, egoera hau baino lehenago hautatu izango nukeela kanporantz heriotza lukeen haitzuloan barnatzea ere; heriotzaren pentsamenduak ez dit hiltzeko gogorik (pena bai) ekartzen. Beldurrik ere ez. Hilak ez dira zahartzen. Azken batez, bere norberaganako urruntasunetik edo inorenganako hurbiltasunetik hain pentsaketa inpresionantea garatu dugun heriotza hori bera errealki gaineratzen denean, ez du mezurik sinpleena baizik iradokitzen: *Heldu jakuk hau be*. Edo: *Zer egingo deusagu, ba?* Edo: *Azkenean, azkena*. Egiatzko orduan, horixe besterik ez dakizu literatura-iturri agortezina izan den horretaz. Azken gogoia adierazteko arnasarik ez dutenen aurpegian, legaturik primarioena besterik ez duzu irakurtzen: *Ahalegindu bizitzen, zuri be hauxe jatortzu eta*. Sinplea baina maximoa izanik, nahiago nuen heriotzari ez begiratu errepide bazterretako lore-sortetan; ezta neutaz mozorroturik bazetorren ere. Bakarrik eskatzen nuen hil nendin, edo hil nintzaten, torturatua izan gabe. Orain hortik ere libre naiz. Orduan zer?

Proba dezadan egoera bueltagabeen aurrean erabili ohi nuen jokaera, umoreak laguntzen bazidan, hori hemen gelditu dela uste baitut. Edo proba dezadan huts-hutsean. Goizalde beranduko, bart bezala, errepide bakarti eta apartatuetan, autoa aberiatu zait, edo ezin irteteko zulora amildu naiz. Zer egingo dut? Lehen-lehenik, zigarrotxo bat isiotu eta patxada osoz erre, tengada bakoitzari colonerainoko itzulia eraginez, hau ere ultzera orduan bakarrik aintzat hartua izan ez dadin. Gero, inondik argitasunik ager ez baledi (zaila agertzea, paraje oihantsua eta ilargi gabeko gaua egokitu bada), beste zigarrotxo bat isiotu eta hau ere patxada berean erre, oraingoan, autoaren argi guztiak itzungita, sortzen den argitasun apur eta atrebitua neure tirakada lentoki, gozatsuki luzatuen emaitza izateaz harro edo apal nadin. Bigarrena amaitutakoan, mutxikina zoruan itzungitzen ondo ikusita, ez suterik ez eragiteko zibismoagatik (*zer ardura jeustak orain?*), baizik ipurtargiak ez dezan inbasio territorialen engainurik jasan, pentsatzen hasteko moduan nago ego-

eraren alkantzuaz: *Belea ez dok baltzago egingo. Errekara joan bahintz, ez zoan gozoagoa izango* (zigarroa isiotzea zaila behintzat). *Azken baten, nork jakik non eta zelan hagoen!* Horrelako gogoetek, konpongarri efikazegiak izan ez arren, alferreko larritasunei beldurra sartzen diete, horiek ere ehizia noraezean harra-patzea gustatzen zaien piztia koldarrak baitira. *Ezer egin ezin bada, larritu be ez gaitzen egin.* Hortxe eman diet popatik, baina autoak zuloan darrai, eta zeozer pentsatzen hasi beharra dago. *Hori dok!* Eta ez, txiza egiteko ere asti barik, kapotak eta maleteroak airatzen hasi, azkenean, *geldi, hi! zertan najabilk?* erabakitzeke, zigarro zirtzil bat erretzeko potrorik ez edukitzeagatik.

Presentean berlurreraturik, inor agertzen ez bada, duintasunak diost kezkatzen hasi beharko nukeela. Orduan, autoan tabakorik erabiltzeko ohitura prebentiborik ez dudanez gero (bidean erretzen badut, etxera iristeko garra moteltzen zait), noan Hesparrura, han inor ez dagoela jakiteaz baliatzera. Hemen gauzak lehen-lehenean daude, atarteko harmaila eta harlauzetako lehengo neure kanporanzko oinatzak izan ezik, ez hainbeste, freskoen daudelako, baizik ezagutzen ditudan bakarrak direlako. Nire sarrerakoekin berdindurik, beste oinatz guztiak barrurantz daudela ohartzen da nire harri-mena, zeinak, antza denez, oraindik saturatzeko asko falta duen. Hortik ateratzen dut izutzeko ahalmena ere hortso ibiliko dela, baina, horretarako motiborik ez deno (gizakia ez al zen, bada, gizakiaren otso?), poz izugarriak datozkidala, bide batez kontradikzio kontzeptual jaiton hori (izua ematen duten pozak, aupa, Kant!) neure alde ebatziko delakoan; baina bai errezelotzen naiz apur bat, bai baitirudi, oinatzan arabera, denek barrutik alde egin edo barrutik eraman dituztela. Harritzekoa da baten batek, ateraino bakarrik bazen ere, ihes egiterik ez lortzea; baldin, izuren bati begirik kendu ezinik, edo eurt egiteko asti faltan, atzez irten ez badira, nahiz eta oinatzok ez duten inolako presa edo tentsio zantzurik ageri, denak ateko menura begira, edo *aurrera, mesedez – zeu aurretik, mesedez* jardun balira bezain mazal; eskuak poltsikoan dituztela ikusiko nituzke, egiten duen berorik egingo ez balu.

Sekula tabakorik eskatu ez diodan (kontrabandotik hornitzen naiz) maki-naren aurrean, marka-ilara irakurtzeak zirrarratu egin nau; garbi ohartu ez banaiz ere, kasik ziur esango nuke analogia baten eragina izan dela. Erretzea

zigortuago eta maiteago genuen seminarioan, zer izango ote zatekeen hone-lako tramankulu argitsu eta koloretsu bat aurkitzea sotoko paraje ilun, kan-toitsu eta esploragaitz haietako gure eskapu beti ere murriztean, nora hautsaren jasanezina alegatzen zuten nagusiak ez ziren jaisten, euren ma-muen menpean aurkitzeko beldurreratik. Hoge eurokoa sarturik, beste guz-tiak asko kosta gabe baztertu eta, Habanos ala Fortuna, duda luzean egon ondoren (zerbait ez badut, presa da, noski), azkenean bigarrena erabaki dut, izenagatik baino gehiago, berriz ere segurrenik, seminariotiko oporretan ez-kutuan erosi nuen kalitate usteko lehen markaren nostalgiaz (*gogaikarri samar jartzen ez haz ari? – ba, segi lagun hobeen bila*). Botoiari sakaturik, errai guztiak metalizatu balitzaizkio bezalako kirrinken ondoren, ikaratu nau ikusteak zi-garro-paketea eta bueltak zer zehatz eman dituen makinak. Ez al diot, bada, horretarakoxe eman? Nire erreflexuak oraindik ez daude, antza, egintza nor-malen azpitasun intrigantera egokituak. *Inor ez badago, makinek zelan jarrai-tzen jabe martxan?* Gogoeta horrexek ekarri izango dit txokor bat erretzeko buruera, okasioak merezi duela eta, urteetan egin ez dudana berrituz. Faria eta Rosly kaxak badakit non egoten diren, zerbaitegatik baitaude bistan; az-kenean faria bati heldu diot, espetxean, lagun baten urteguna (edo ahal zena: itxaron gabeko gutun miragarri bat, edukiagatik baino bidaltzaileagatik mi-ragarriago; Carrero Blancoren lebitazioa; Portugalgo krabelinen iraultza) ospatzeko grina ostenduari jarraituz.

Metxero zinta ere hemen dago, etxearen izen eta guzti, osorik eroateko arrazoiekin teman ipini nauena; azkenean, ale bakarragaz eta bizkor alde egin dut barra barrutik, ezin baitut, bakartasun absolutuaren hipotesian ere, lapu-rretan ari naizelako sentipenik ekidin. Baliteke destinorik ez tentatu nahia izatea ere, ez hainbeste in fraganti harrapa nazaten lotsariagatik, agerpenaga-tik beragatik baizik, zera, une honetan, poztasun probablea barik, kasik za-putz handia litzatekeen. Suposatzeko seinale guztiak daudela dirudien egoera pentsaezin hau egiazkoa bada, utz biezadate bera luzaroago bizitzen, beharbada temeritate handiegian sartzen ari banaiz ere. Zer? Berriz ere, nik ez dut ezer egin, eta ez daiteke izan nire pentsakizun txakilek hain objektibitate kontudentean eraginik edukitzea. Ez naiz lehen ere alferrik maiz susmatua nire ikuspegia ez dela segurregia izango, pare bat txikitok hainbeste aldatzen

duenean. Ez al dut erabaki zigarrotxo bat erretzea, gero eskuan dudan txokor bilakatu dena? Orain, duda sartu zait txokorra poxpoloz ala metxeroz isiotzea desgomendatzen duten. Inpertsional plural hori ez da, beharbada, unerako egokiena izango, baina ez naiz hasiko hizkuntza guztia egoera dudazko batera egokitzen, inork ez entzuteko. Oraintxe gogoratu naiz biak direla zatakkak, poxpoloak fosforo- eta metxeroak gas-usaina inkatzen baitute. Sekretua zotza zen, kikatik hartzen dudana bera. *Hau dok komenentzia!* Su emanik, beragaz zuzen isiotzen ari naiz, ez baitakit, puruaren muturrera baionetan sarturik, agian bizkorregi hurbilduko litzatekeen garra atontzeko molderik izango nukeen, behinola sudurra erre nuenean bezala. Burua maiz hauts zenezake, astoak ere ez gara-eta, baina sudurra behin erretzea nahikoa da.

Isiotuz batera, galearen okergune batetik zalantzak jo nau, okasioari ez ote niokeen zigarrotxo bategaz zuku hobea aterako fariagaz baino, zeina maiteegi dudan bere apalean, eta pilatzen dizkidan gomutetan. Umetan, etxeko edo amamareneko gonbidatu egunetan, nik denei 'Andramariak' deitzen nienetan, nahiz Sanbartolomeak izan; edo Gabonetan, amak ezkututik mahairatzen zuen kaxatik, aitik motibo gabe (edonoiz alegia) erre ez zitzan, honek bat hartuko zuen eta, usainka-usainka, eskuetan buelta batzuk emango zizkion, haren itxuraren ikuspegi guztiak begietatik sar zekizkion; azkenean, poxpoloekin barik, hiru-lau beharko baitzituen (horrek, gastuaz eta amaren erneguaz gainera, txokorraren isiotze jarraitua apur zezakeen), surtako txingarragaz ukitutuz-apartatuz (hura kurriekin ekarri eta puru aurrean eus-tea nire Gabon gaueko egintzarik zerutarrena zen), astiro-astiro piztuko zuen; muturra aski txingartua zenean, hura unea!, tengada bana egiten utziko zigun. Faria maiteak ere, oster, txokor izaten darrai, hots, dena irenstera joz gero, astiz eta dezisioz aurre egin beharreko erronka, eta ez mutur inguruan txondor bat edukitzea bakarrik, barrualde guztia hondeatzen ari zaizuna. Hobe dut zigarrotxoa. Kea barrutik bueltakoa nahi dut, neure antz eta irudia hartzeko modukoa; ez nire bizitzaren erdigune direla faltsuki tematzen diren ametsena, nire izatea bera den pentsamenarena baizik, zeina bisible egiten zaidan, ahotik isil eta nagiro irtenik, joan beharraren penaz, gorantz ahulki zabalduz doan kean. Kontzentrazio handiko pentsamena bada, zerbait asmatu, deduzitu, gainditu, transformatu beharrekoa, astiro joango da, ezpainak eta

sudurra ozta libratuz, begiak gora eginean direla. *Joan naiteke ala itzuli egingo naz?* Erantzunik eza joan-baimena izaten da, begirada kengabeak eman lie-zaiokeen bultzada maitekorrean. Ezabatzer doanean, pentsamena bere izate inmaterialera itzultzen denean, zigarrotxoa berriro ezpainetan estutuko da eta, txingarraren bizitze ahalik luzeen eta ia transparentetik, kanporanzko imintzio instantekoa egin duen ahokadak nire barne ilunpe guztia korrituko du; eta delizian nago, bueltan ekarriko duen bisio inoiz ez berdinarenean, neure pentsamenaren, agerpenik sinesgarrienaren zain.

Pentsamen amorratuan, motibo zirtzilez zein benetan handiz berdintsu sumintzen den horretan, kaxa torazikoa karraskatzen denean, kea ahoan luzaro egongo da, barruratzeko beldurrez, sudurretatik bizpahiru arnasaren sar-irtenak ilunpea apur bat baretu arte; azkenean, irentsirik edo irenstera, desesperazioa bezala sartuko da; ahoa berriro ixtean, sudurretatik disparatuko da bi sifoi izututan, zeintzuek, mahaiaren kontra apurturik, zatien elkargainkan ihes egingo duten, ezabapenaren salbaziorantz. Pentsamen jostarian, berriz, ahotik irten ahala, sudurretatik sartzen saiatuko da, bidean bibote forma guztiak kiribildu arren, izpirik galdu gabe, transbase garbiaren arteaz gainera, begietara joan ez dadin; edo sigisagak eta batez ere uztaiak erreskan jaurtiko ditu, ahoa moluskoen uzkia bezain higuinarririo modulatu, bakarrean edozein itsuskeria edukazio dela eta. Uztai dotoreak egiten ikasi nuenean, jolas soilari gutxi iritzirik, akrobazia nahi nuen: uztai hegalaria tamaina bateraino handitzen zenean, haren erditik ke txorro fin-fin bat pasarazi. Ez zen ekin faltaz izango lortu gabe geratzea, orduan ere ulertzeko gai izan arren, irabazten utzi nahi ez nien lege fisiko soilengatik, baina ahaleginak merezi izan zuen, haren gomutak berritzen didan samurtasun graziosoak ikusita.

Batzuetan, gutxien izanda ere asko iruditzen direnetan, pentsamena mukul edo, beste gabe eguna tokatu zaiolako, tristerik aurkitu ohi da; orduan ez du bere irudia garbiegi hautematen ahal, edo nahi. Keri begiratzen dio, baina figura langidoa (putz egiteko adorerik ez dauka) baino gehiago, haren beste aldean askoz handiago ageri den hormako erlojua dakus, zeinaren segundo-orratzari kostata darraion begiak, mundu honetan zerbaiti jarraitu beharra

dagoelako. Noizbehinka, hasgora luzea sudurretik eta hasbehera esplosiboa ahotik entzungo dira, kearen konpainia gabe; hau, minberatasunaren hurrengo geldialdian, ezarian infiltratuko da, eta hortz eta ezpain doi-doi irekien artetik aterako, eragabe, sudurretatik ere zertxobait jausten dela baitirudi; eta aurpegitik ez urruntzeko aginduagaz bezala alde egingo du, norabide argi gabe, baina pentsamenaren forma bat beragaz daramala beti ere. Pentsamendu kezkatuek, nahigabetuek, euforikoek, denek daukate euren ke forma inkonfundiblea, nire zigarrotxoak aukeran banatzen duena. Hori ezin dut puru harroagaz egin, ezta ia sentimen-lagun dudan faria sufrituagaz ere. Horiekin azaina bat egin nezake, baina nire gogoak geroz nahiago du bere egoera ezberdin ugarien, sarritan zehazgabe baina inoiz ere ez sentigabeen, ikuspen intimoa aurkezten dion kea, zeinak oraintxe ere, bigarren zigarrotxoaren amaieran, deskolokaturik aurki nadin motiboak badirela dirudien honetan, hurrengo urratsa zein izan nezakeen argitu didan: *Ermura eta Eibarrrera jaitsi behar dok, ea handik zer panorama dagoen.*

Autora sartzera, hanka bata barruan eta paparra ate irekiaren kontra, ezin dut berriro errepideei denbora batez begiratzetik libratu, ez hainbeste dagoeneko kasik sustoa lemaidakeen ibilgailu residualen bat ager dadin itxaropen guztiz etsi nahi ezkoan, baizik trafiko-sare hutsaren ikuspen lunarrean dardaratzeko, inoiz espainiar lurretan iragartzen dizkizuten ibaiak bezalatsu, *Río Tal, Río Cual*, non, zubitik begiratzera jaitsirik, lehortasun pitzatuak baizik aurkitzen ez dituzun. Noizbait, Areitio gainetik Ermurantz jaisten hasitakoan, Mallabiko baserri bateko ganbaran, gurdi-soka bat gailurreko hage nagusitik eskegita ageri zait, zabun bainoago kirrinka eginez, zorua ez-bai ukituko, gizon bat bitarte, zeina, zentimetro batzuk luzeago izatera, beharbada destitotik libratuko zatekeen, nork jakin. Eszena horien ikuspena ezin dut ekidin beti sokatik hasterik, hartatik eskegita dagoena luzagarri sekundarioa baillitzan; urkatzea erabaki duenari kosta egiten zaio, sokaren mutur bata lotzeko, adar edo hage gustukorik aurkitzea, beste muturraren heldulekua (lepoa) irrelebantea bailitzan. Ezin dut ekidin, segurrenik, urkatunaren begiak ere, soka jan guran, zabalik gelditu zirelako; edo ez dudalako arinegi ikusi nahi sokari zentzua ematen ari dena ez dela neure antza hartzeko beldur nintzatekeen kasu orokorraren adibide bat besterik. *Txo! Zertan hago hor? – Heure*

zain! Bere egunean, hage hutsa edo korraizu hustua in situ ikusi ez nuelako, gizona bertan iraunkortu zitzaidan, eszenatik ez erretiratzeko teman, neu bertara joan arte. Eta orain? *Ez, Txo! Orain ez. Itzidak apur batean nobedade kokaekinok norantz argitzen diren ikusten.* Egia esan, orain joanda, beldur naizela uste dut bertan topatuko ez ote nukeen, sokak joate orokorretik atxikirik.

Ermura iristean, beti geldiarazten nauen lehen semaforoa berde aurkitzea nobedade orokorraren ñabarduratzat joko nuke, ezpaloi banatetik erdian topo egitera doazen bi txakurrek galgarazi ez banindute; ez dakit errespetatu izango nituzkeen (suposatzen da txakurrek badakitela apartatzen), elkarri jaramonik egin gabe gurutzatu ez balira, makinisten agurrez eta bidaiari distrahituez harago, elkarregaz ez talkatzea segurtatzen dioten tartea ignoratuz gurutzatzen diren bagoiak bezala. Ez nago txakurretarako. Herrira sarturik, kale nagusia, Markinaranzko errepidea, hiri barruaren ertz urruneraino igarotzen dut astiro-astiro, arropa eskegiei begira, ea kentzen edo ipintzen erreparatzen diodan norbaiti; bueltan, kale beretik, kontrako norabidean nator, ea infrakzio sostengatuak erreakzio inhumanoren bat (zer axola dio aurrizkiak?) eragiten duen. Hemen ez da galegorik ere ageri, zeintzuengatik esan ohi zen amerikarrik ez errusiarrik ez zela iritsiko halako batek aurretik zapaldu gabeko zorura, Pluton eta Ermua barne. Azken honetara ez ei zen Galizia osoa etorri, beste lekuetarako ere, aurkitu gabeak barne, galego bana gutxienez gorde behar zelako. Galizia maite! Nork hutsarazi nahi zizun horren sorleku ondinhagarri hori? Gaur ez da, bada, galegorik ere ikusten, eta horrek argumentu borobila izan behar luke, borobiltasun inapelablean ere ertzzen bati heltzeko derigorrak ez balerrait, marrazo baten haginari bada ere, barrurantz giza hondarren bat ote daraman.

Eibarrerantz darrait, martxa normalean, hots, semaforo guztiei popatik emanez, astiro joateak ezer ez duela aportatzen ikusita. Kantoian, Arrateranzko nostalgia albora utzita, *Arrateko zelaiko lirio lorea, handixi gora dago zerura bidea* (ez neukek horixe konprobatu barik hil gura), Armeria Eskolaren aurrean geratu naiz, ez sartu, bai sartu, ate nagusia zabalik ikustean. *Ea hemen be makinak martxan dabilzen!* 'Makinen martxak' makinalki erraturik irten beharko zuen, nire pentsamen ikuslean (pentsatu gabe ikus dezaket, ikusi gabe

ezin dut pentsatu; ikusmena esentzialago ote da?) armak erruz ageri baitira, eskopetak, rifleak, fusilak, kanoiak, proiektilak, balak, obusak, nire irudimen beliko saiatuki kaxkarrarentzat eta gorroto saiatuki infinituarentzat denak antzekoak, legenarraren noduloak bezalatsu, nonahi denek batera egon behar dutela iruditu ohi zaidanak, Eibarren zein Olinpoan eginak izan. Arrazoi garbirik esleitu ezingo niokeen desbultzadak desistiarazi nau ikasle atzeratu edo irakasle eskirolen bat aurkitzeko 'esperantzara' sartzetik; Markinako armagintza baten izena berau, artea omen gainera. Desistitze irrazionala, noski; armak euren kontura solte badabiltza eta atea zabalik badago (armak ez daude atea zabaltzen ohituta), kanpoan ez nago seguruago; baina nik aurrizki ukatzaileak (irrrr...) funtsik aldatzen ez dion neure arrrr...azoiagaz ibili behar baitut, noan aurr...era, esanahi inertziaz bano ez bada ere, bakar-tasunak norabideen bereizketarik onartu nahi ez balu. *Aginte barik geldituta misilen bat neure parean jaustea besterik ez joat behar.*

Aldasbehera luze eta artezak Eibarren erdira jaitsi nauenean, zabal baino lau bider sakonago eta hamahiru bider luzeago den mendiartearen 'erdia' zehazterik badago, Untzaga plaza betikoa (ni sortu baino orduerdi lehenago egin zezaten nahikoa da, betikoa izan dadin) inoiz ez bezala aurkitzeak, uso hutsez beterik alegia, ez nau oraingoan harritu, nahiz eta, badaezpada, itzuli osoa eman diodan. Berehala, kontrako norabidean beste itzuli bat ematea bururatu zaidanean, hau marka; barruak ez dit lagundu nahi; ezin naiz ausartu temeritate inbalidatu bat burutzen ere. *Egin behar joat, ba!*, tematzen naiz, kontrako norabidea bezalako moldatzaile efikazik ezin duela izan pentsatuz. Ea nork esan behar didan ezer. Halaxe egin dut, behin astiro-astiro, zoruko eta inguruko xehetasun guztiak banan-banan mastekatuz; badira mordoa, zulotasun kontzientzia posible duen ezertaz ez pribatzeko ingenioan inkubatu zen Eibarren. Bigarren itzulian, plazak eta udaletxeak osatzen duten kale-lauki ia perfektuki karratuan, ahalik abiadurarik itsuena daroat, aurreko itzulian hautemandako xehetasunak asasinatuz, edo gezi jazarle bilakatu bailiran iheska. Inork ez dit altorik eman, *ez nora hoa, zoro hori?* hots egin. Autoa errepide erdian trabes utzirik, ez baitut legez aparkatzeko tarterik aurkitu, udaletxeko karrerape zokoan zertatik sobra dauden kalkulatuak ezer argituko ez lidakeen barrika tripaundi batzuei erreparatu diet; bat Untzagako plazako

lau angeluen diagonalek elkar ebakiko luketen unera itzulka ekarri, tentetu eta gainera igonik, ez inguratzen bide nauen jendetza espektanteari begirada birakor, mantso eta dominante bat jaurti gabe, *Gora Errepublika!* oihu egin dut. Ibai estalian behera eta aldatsetan gora ihesi doazen kaleen erantzun deskoordinatuei itxaronik (*onak gajagozak hemen, matxinada arrakastan eroateko*), oihua errepikatzen dut, berdin hirugarrenez; baita laugarrenez ere, euskarazko zenbaki trinitarioaren omenez, *aita, semea, eta espiritu santua eta biok* (hauek bost ez al dira?), deskoordinazioa geroz inteligibleago iristen zaidala. Lehenik, bistan dauden kaleek darantzutela dirudi, ia unisonoan; ondoren, osteen anarkia hasten da, batzuetan muturretatik kointzidentea.

Beste begirada harrapari batez ingurua deuseztaturik, *Behera Errepublika!* oihu egin dut, ondorengo deskoordinazioari arreta belarribakarra jarriz, hots, belarri bata nabarmen aurreratuz, erantzunen zati nagusiak etorri behar lukeela arbitrarioki suposatu dudan alderantz; oraingoan garbiago zirudikeen, laugarren errepikari uso aldra baten motibo gabeko hego-jasotze hurbilak amaia jan ez balio. Usoak galerien kalerantz ostendu dira, eta berriro neure masen anbizioan geratu naiz, barrika loka ez jaustez arduratuago, matxinadaren etorkizunaz baino. Eibarren Errepublikaren alde ez kontra inor ez agertzeko, hemen ere ezin du arimarik geratu izan. Barrika gusturago egongo den zokora bihurturik (erdian ez daki zer egin, okerreko tokian ez dagoela emateko), autoan naiz berriro, kontrako norabidetik abian, ez oraindik beharreko lasaitasunez (bi aldeetan neuri begira aparkaturiko autoei amorratu itxura hartzen diet), baina bai erabaki osoz, norbait ager baledi, berak alde egin dezan ikaraturik, ez nik. Ez da izan ezusterik, gasolindegia martxan diharduen irudipenaz besterik, mangeratzarra auto bat kopulatzen ageri baita, erretiratzeko indarra ere eiakulaturik, giza analogiatik juzgatzekotan; haranzko balentria mitiko eta guzti, bueltan denak inpotenteak, sarritan, eroan duten txapeltxoa ekartzeko ere gauza ez izateraino. Atzamarragaz ateratzekotan, ez al zen hobe dena beragaz egitea?

Azitaingo autopista sarreran, makinak eginbeharraren senik laztankorrenez luzatu dit tiketa, inoiz tu eginda bertan utzi izan nauena, burla egitera irten zen mihia iruditu zitzaidalako, umoretik pixka bat gorago itzultzen nin-

tzen goizalde haietariko batean. Oraingoan gozoki tiratu diot, mihia gorgoil eta guzti erauzteko moduan, eta Bilborantz hartu dut Donostiaranzko alde-
tik, berriz ere kontrako norabidetik eta ezkerretik. Iraultza radikalaren oldar
honek garbiago dirudi, motibo guztiak amaitu direnean. Bertan behera uztea
batere kostatu ez zaidan Ermuko irteera igaro ondoren, bertakoez besteak
oraindik Durango ikusten tematzen ziren Iurretaraino jarraitzea baino ez
duket, Berriz parean zubitik saltatzen saiatzen ez banaiz, lehenengoa ere ez
bainintzateke. Zaldibarko tunelean ezin dut ekidin ikararen sentsazio objek-
tiboan, subjektuarena izan ez daitekeena, honek ondo baitaki motibo objekti-
borik ez dagoena. Autoaren burrundadak, tunelaren efektuz bainoago
kontrako norabidearen kontzientziaz, eztanda jarraituraino biderkatuak, hain
nau durditzten ezen urrunean ageri den zulotik (zulotxotik) ez kabitzeko bel-
durrak eragin didan eurt-gogoari zorakeria bat beste zorakeria bategaz kon-
pontzerik ez delako pentsamendu analogikoak bakarrik eusten baitio,
pizturik darraien argiteriari esker, segurrenik. Sentipen funsgabea gaindi-
tzeko edo lehenbailehen amaitzeko, azeleragailuari topera eman behar izan
diot, radarrak izutzeko moduan, begiak itxita. Ireki ditudanerako, zuloa han-
ditua da, pasatuko naizela uste dut, eta halaxe gertatu da, ez, burrundadak
kanpo libreria jaurti nauenean, herensugearen okadan bezala, laxoaldi doha-
tsu bat nabaritu gabe. Iurretara aurreko artezgune luzean, bat-batean ibilaldi
espazialean sentitzen naiz, autobidea airezko zubia bailitzan, Esnebidea iru-
ditu zaidana bera, berez ere zabala den Durangaldearen, nahiz eta Anboto
eta Oiz kateek bi aldeetatik argi eta autoritatez mugatuaren, amaigabetasun
sentipenak eraginda; batik bat, haran osoko kontzientzia bakarra izan naite-
keen pentsamenduak jo nauenean. Unetxo bat izan da, ohartun bihurtzerako
joana baina, tximista hurbilak begi itxietan darraien antzera, sentsazio iraun-
korra utzi didana, zeinaren arabera, handitasun inguratzailea txikitasun-
maila alderantzitua besterik ez denez, inmentsitatea bakartasun totalaren
esperientzia litzatekeen. Dzistada bat izan da, mugagabearen gezikada bat,
bakartasun total horren pertzeptzio jarraiturik utzi ez duena zorionez, orduan
desintegrazioa izan baitzitekeen.

Peajera heltzear, neure burua deitoratzen dut, kontrako norabidean ez nai-
zelako ausartu izan, bakartasun literalean aurkitu arte; ezein norabidek opo-

nenterik eduki ezin zuen arte. Horrek esan nahi du orain errei egokira aldatzen edo bertan eurt egiten saiatzea zentzugabea litzatekeela; behingoz, okerretik ondorio zuzena ateratzeko gai naizela ikusteak aurreko zapuzetik alibiatzen nau. Peajea, bost pasagune posibletarik erdikoan jarri naiz, arrrerago, albotik lasterbidea ematera zetorren sarrerako alderantzizkoa apropos utzirik, zentzugabea ere okerragoaren itxaropenik ez agortzearren. Apurte gabe amorerik emango ez lukeen langa (hontzat alde-kontrek indarrean darraite), autoagaz bortxatu ala ez dudan egon ondoren, azkenean eskuagaz jasotzea pentsatu dut, astiz eta kurioso, ez bere konformitatez, ukituz batera alarma suminduan garrasitu baita. *Ekiok! Baten bat etor daiten lortzen badok, ni baino abilagoa izango haz,* hots egin diot pasaeran, esku-keinu adierazle eta guzti. Ez dakit zer ulertu duen, tanpez isildu baita, neure harriduran pentsatzen dudalarik norabide honetan alarmatzeko preparatu gabe egongo zela. Harridura ez da gutxiago lastu, beste aldean, bidaiariak normalean irten behar zutela suposatzen zen kabinetatik ehun bat metrora, guardia zibilaren kontrolari erreparatu diodanean, hain maitea duten lekuan eta hain landua duten jarreran. *Joño! Honeexek jakingo jabeke egoeraren barri.* Infrakzio betean nekarren autoari (oraintxe konturatzen naiz alarma zergatik isildu den) instantean eurt eraginik, beste pasagune baten parean Donostiarantz utzi dut, hainbeste exzitatzen dituzten ihes-maniobran. Oinez abiatu naiz, entregatzera bezala, eskuak poltsikoan (total entregatzera ere ez, beraz), eurak ere barruko behar luketen fenomeno estrainio hauen berri nola galdetu pentsatuz, eurek ulertzeko moduan. Hurbiltzean, errepidea erdibitzeko kono gorriak, barrutira sarrarazteko katea horzgorak eta lau patrol berde formazio aktiboan aurkitu ditut, ez barruan, ez inguruan inor gabe denak, nahiz eta arma abandonaturik ez ageri. *'Que se vayan de una puta vez'* kantak efektua egin jok, antza. *Horreek joanak izateko, gatxa dok inor geratu izana.*

Ikusleek alde egin dioten komediantek bere tximinoa ere aurkitu ezin duenean bezalakoa sentitzen dut. Hainbeste rektifikazio eta, batez ere, hainbeste espektatiba garatugabegaz, neurez ere aurreikusi behar nuen honenbeste, baina badirudi nire erreflexuak ez zeudela guardia zibila giza fenomenoan errekonozitzen ohituak, gramatika orokorretik irregulartasunak ahaztu zaizkiona bezala, hizkuntza batzuetan hain ugariak eurok. Banago ka-

roetariko bat hartu eta jarraitzeko ere, horrela inor bistaratzea improbableago ez balitz, zeren beharbada gertatzen dena izango da, sorgin aldikada baten ondorioz, egon badaudela, baina ez direla ikusten, eguzkiak inoiz gerizarik ikusi ezin duen bezala; ez da konparazio distiratsuegia neuganatzeko harrokeriagatik, baldintzarik inkuestionableenak oraintxe nituzkeen arren, baizik gerizatik inoiz eguzkirik ikusi ez dudalako esperientzia apalagatik. Hemen ikusi ezinak pilatuz doazenez gero, narraion bideari neure medioekin.

Giltzari ukituz batera arrankatu dela (*beroaren eragin haluzinantea ete dok hau guztia?*) iruditu zaidan autoa eurtu eta Bilbotik honanzko irteerara noa, berrehun bat metrora, non berriro biratu eta norabide zilegian plantatu naizen, lehiatilatik ukabilka, *azkenean be!* zantzo eginez, eta behin, artista bere-baitatu baten, iluntzea bistaren joateagaz erraturik larritu zenaren, auto-lagun nindoala (*ez ete jok honek geratu behar?*), Zarauzko peajeko alarma guztiak aurrean eraman genituena gogoratu. Kabina guztietako langileak zitzuan gaineratu zitzaizkigun, txakur lasterkariak kaiolak irekitzean oldartzen diren bezala, armaturik egotera (ez txakurrak, besteak baizik), asaltoko guardiak zirela pentsatzeko moduan. *Baina, Amuriza! Nora zoazte?* –aldu zen jazarle bat, ni eza gutzean, asalduetik harridurara–. *Nondik gatozen ez al duzue jakin nahi?* pentsatuz, *txoferra artista baitugu* –marmartu nuen albora eginean, neure burua libratzeko, laguna deskargatu guran. *Artista beharko dik, bai, ipurtzulo-raino argiztaturiko galeria hori –ez duk, bada, ipurtargia ere!– gauez ez ikusteko* –hots egin zuen oraindik aztoraturik, peaje luzea afusilatzeke bezala seinalatuz. *Ikusi, ikusi dot, baina ez jat pentsau geraketako zanik* –desenkusatu zen okerragora gidaria, estreinatu gabeko lapikoaren aurpegiz. *Badaukak gaia, bertso batzuk ateratzeko* –jaurti zidatela iruditu zitzaidan azkenean, aktibistekiko inkontrua izango zelakoaren ikara alegantzia sozialaren episodio batera lerratu izanaren lasaitasuna irribarre laboral batean laburbiltzea ez gutxi kostata.

Iurretako irteeran, tiket-karrajutik hain gabe pasaeran, alarmak (bakarra bada, mordoa dirudite) berriro airean dira, *isilduko zarie nik agindu aurretik*, kabinetara begiratu ere ez dudalako mesprexuz erretxindu ez badira. Txo-txolokeria dela erabaki arren, kezkak, edo hartatik libre nintzela uste nuen sineskariak, badaezpada ere (*zer kostatzen dok, ba?*), geldiarazi eta atzeraka

nakar, inor ba ote dagoen kabinan lo edo luze (bertikalki beharko), bideko omisio txiki batek, ohartua izatearen ondorio inponderableren batez, emaitza orokorra porrotera determinatzeko eduki lezakeen ahalmen fatidikoari aitzakiarik ez ematearren. Inor ez zela egongo suposatzen nuenez gero, alferreko atzerakada eginaren tentel-zaporerik gera ez zekidan, langa guztiak banan-banan bortxatu ditut. Ohartu naiz denek alarma bakar bera aktibatzen dutela; horrek esan nahi du bizpahiru bortxatzaile batera pasatzen zirenean, bat ez besteak hutsik gabe libratzen zirela, sinkronian akatsik egin ezik. *Eta gu hareen zorrak ordaintzen! Holan zelan amortizatuko zonan, ba, autobide zeken hori?* Aurkikuntza horrek, atzerakadaren alferrekotasun jakina ezeztatu ez badu ere, efektu sekundario estimagarria ekarri du; aurrerantzean, panorama nola dagoen ikusita, utilitate zuzenik izango ez duen arren, eta iragan egintzak irrebertsibleak diren arren, sekula ez da berandu izango, behinolako txarto-esanak (*autobide zantar hau ez don harritzekoa honen karua izatea, beti obretan! Cantabriarantz, barriz, doan, emoiozan azak!*), unean bertan sen karraskariaz (geu ere horztunak gara) edo detrakzioaren plazer agorgaitzaz beste etikarik ez zeukatenak, guztiz arrazoizkoak zirela konprobatzeko; eta gogoia lasaitzeko, lehen horregatik estutzen ginela egia bada. Berandu? Gauzek honela jarraitzera, has ninteke amesten etorkizuna iragan zuzendua eta gehitua besterik ez dela izango.

Saihesbidetik, Aita San Migelek zeru altutik barreka begiratzen dion Iurretarrantz, eta berari hain harrogarri zaion *Tronperri* deitura alberriek *Zapoerri* ulertzetik libratu ezin duen Durangorantz, lehen sarrerako arrapalan behera nator. Zornotzaraino segiarazi nahi zidan golkoari (*txakada batean han hago barren!*) zergatik ez diodan obeditu gogoratzean, arrazoi nabariak eta kanpotik akasgabeak (*nonoiz edo nonon amaitu beharko joagu, eztok?*) zerbait intimoagoa zuritzen zuela ohartu naiz; Bizkaiko lau norabide nagusien ebatura edo, nerabezaro lilurakor hartan uste nuen bezala, sorgune misterioitsua zen neure jaioterria hutsik aurkitzeak batzuetan hain lagun laztankorra den, baina orain ezertan lagunduko ez lidakeen tristuran amilduko ninduke. Segurrenik, lehen-lehenik, Etxanora jo izango nukeen, nire izatearen klaberik ez dakit gehienak baina bai sakonenak, eta ziurki kutunenak, euren kabuz bizi diren neure benetako jaioterri txiki bakarrera. Urrundik begiraturik, elizaldeak ibar

koxkor baten goienera erretiratu den indiano potzolo gazterik aberastua ematen du, non eliza, dorre luzeagoa edukitzera, konkistara irteteko nagi den zaldia lirudikeena, dozena bat etxe galantek, pilotaleku txairoak eta eskola zapalak (hau ere, goi urrunetik, txakur gorria lotan bezalako) inguratzen duten, nire lehen gomutatik bizpahiru etxez bakarrik aldatua. Ez zait ahaztu hilerria, biziak eta hilak gutxitzen hasi zirenean handitu zutena. Horrexegatik dirau bertan, urtero bermatu beharreko tentetasunean, duela mende erdi hil zen osabaren burdinazko gurutze merkeak, orduan ederto kostatua bera, zeina erretiratzeko inor ez den ausartu, ez, beharbada, lehenik *Peron* goitzen-
durik, gero, Kubako matxinadaz buruberotu zenetik, *Fidel Castro*-ra mutatu zelako, baizik, horiekin bere buruaz aski "beste" egina zuela emanik edo, azkenean moztu egin zuelako, azaltzea urragarriegi litzatekeen eran. Behin honetzeko, merezi luke gurutze gaizoak egoten utz diezaioten, erdoilak barkatzen diono. Gure aitak ere hor daramatza horma kontrari hogeita hamabost urte, sarrera-atetik lehenengo bigarren eskuin harrian, eskapatzeko okasioaren zain, hark ezin baitzuen auzune isilik jasan. Ama ondora etorri zaionetik, lasaitua dateke, barbaroa baitantzut. *Kostatu jan heltzen! – Ez hi taternatik heltzeko zain egotea kostatzen jataan beste!* Hilak alegreak dira, bizirik inguratzen ez bazaie. Orduan isildu egiten dira, gomuta txarrak berriturik edo. Hilerria estreinatu zuena ere (Mariabelandia Barrenagoienbeaskoetxea Bigarrenalaburrageoztekoa) hortxe dago oraindik. Zeruratzea luzatu egingo dela dirudi.

Norberea urrun edo inorena hurbil zela, hartaz hain pentsaketa inpresionantea garatu genuen heriotzak, bera errealki aurkezten denean, arrazoirik sinpleena baizik iradokitzen ez badu (*Heldu da hau be! Edo: Zer egin leio, ba?*), besteen norberarekiko kontakizuna are laburragoa da: *Hemen datza*. Intentzio sentikorragoa duenak *hementxe* ipiniko dizu. Egiatzko orduan, horixe besterik ez dakigu literatura- eta arte-iturri agortezina izan den maitale banaezin horretaz. Esklamazio lakonikotik haragoko borondaterik geratzen zaionak aholka zaitzake: *Saiatu oraintxe, zuri be hauxe jatortzu eta*. Ez da harritzekoa exekuzio indibiduala masakrea baino teatralagoa izatea. Azken batez, tragedia ez da gizateria akabatzea; tragedia norbera hiltzea da. Erligioa. Zerbait izan dadin desira. *Badago bego, badago bego, katutxoa mizpira gainean dago*. Es-

parrua estutuz doa: mundua → Euskal Herria → eskualdea → etxea → logela
→ hilkutxa. *Zer ondo nagoen hementxe!*

Uste dut ondo egin dudala inor ez egotea normala den lekutik hasia, nahiz eta, zurezko ate bikoitz arku puntadunaren leihatilako barrote torneatuen artean, gustura begiratuko nukeen, oraintxe bailitzateke une beharrezkoa, ehortzaile inprobisatu hura ikusteko, zeinak hilerrian gauzez sartzeko paparririk ezetz izan erronka burlosoari aurre egin dion. Izaraz jantzitako konfabulatua (une egokian agertuko zaion beste-mundutarra), eroateko prebentzio bere kautan apalgarria izan duen aitzur-kirtenagaz jo (buru eta guztiko erreminta eroatea apustua galtzea baino lotsagarriago izango zatekeen) eta bertan zuloz sartuko du betiko, gero bueltan ehortzaile profesionalari kargu hartzeko: *Ea hilk be lanak ondo amaitzen doazen, hor jentea airean jabilk eta!* Ez dut begiratuko, inork ikusiko ez baditut ere, inoiz baino motibo gehiago baitago ehortzaileak edo ehortziak ager dakizkidan, egia baldin bada neu naizela okultaziotik falta duten bakarra. Hilerrioste goragoan, nire ezagutzaz geroztik egina behar duen ukuilu handiaren inguruan, behiak, nabarrak eta gorriak nahastean, eman-erakortasun urriaren pekatuari bistositatearen alaitasuna eman guran gajoak, lasai ageri dira euren bazka-lan koordinatuan, bakan batzuek gerizpetan, hausnarrean, edo eguzkiari bizkarra eskaintzeko kuraian edo promesan lehen-erroturik dihardutela. Seinalerik beldurgarriena animaliek ihesari ematea zela ikusi nuelarik, aziendon presentziak asko lasaitu nau, giza inkognitari aurre egiten jarraitzeko.

Eskolan ere, ordu eta hil honetan (uztaila dela uste dut), inor ez aurkitzea normala dela jakiteak asko animatu nau, nahiz eta bertan nenbilenean, nire talentu ezkutuzale eta, ihes kasuan, ahalbide seguruen behardunarentzat esplikaezina zen 'bizileku' bat, ez etxe, ez eliza, ez ukuilu izateaz gainera (kostatu zitzaidan eskolaren helburua bere arkitekturagaz kontziliatzen), aurretik dena leihotuta, eta alboetatik eta atzetik horma huts izatea. *Hau egin ebanari leiho guztiak batera jausi jakoazen, antza,* pentsatzen nuen; lanbideak desgandoragaz erlazionatzeko baino ezgauzago zen nire adimen oraindik ez hain pentsatzaile bezain sentitzailearentzat, jaustea inori desiratzeko ezbeharrik graziosoena izan zen, haurrengandik helduekiko behintzat. Gero ere ezagutu izan ditut nor-

bait segaila irristan imaginatzeak bakarrik barrea askatzen zietenak. Ari naiz begiratzen eta, harrezkeroko sistema hermetikoren bat bide, begirada laminar baten zirritua baizik uzten ez didan pertsianatik, ez dakust oraingo aretoa, gastronomia-txokotik erakusgelarainoko funtzio guztiak betearazten dizkiotela badakidana, neure eskola eternoa baizik, Francoren eta Primo de Riveraren presentzia altxatian, irremediablean, zeintzuk ikustera nire gorputza gaixotasun bitaliziora bezala egokitu zen. Barrualdea ondo ikusterik banu, ez nuke oraingo itxura aldatuegia (auzo-elkarte edo txoko, adibidez) haute-mango, lehengo betikoa, desagertua baizik, zeina, halaber, patxadaz ikusteko, oraingoak traba handia egingo lidakeen, azkenean superposizio nahasien, irrekonozibleen, elkar-egozleen dema burtzoragarrian abiatzeko. Orain, barka, ene jeneral, ez nago esperientzia mistiko-diaboliko horiek asimilatzeke egoeran.

Eskolako parketxoaren (lehenago lorategi xume) itxiturako ateka krisketuna, barrurantzean krak eta kanporantzean krik egiten zuena, orduko bera ala ukitutik iruditu zaidan ondorengo ote den egiaztatzeke adorerik ez daukat. Bertatik (ikus nintzanak itsua naizela pentsa lezake), iragan jaulkiezina neure eguneko kinkatik bereiz uzten alferrik saiatu ondoren, oraintasun ia inexistente baina inebitablera saltatzen dut, hots, Etxanoko plaza koxkor ondo inguratura, zeina, lehenengoz zapaldu zuenean, menditik jaitsi zen bakartasun ez dohakabe, bai infinituki desiros eta hein berean beldurti hari munduko hari imaginario guztiak hantxe biltzen edo handixek zabaltzen ziren korapilo miragarria iruditu zitzaion. Nire garapen intelektual oro, hankak prakazulo banatan sartzeko teknikatik unibertsoaren azken auzietaraino, eskola hartatixe abiatuko da beti, zeinak, lotan dagoela ere, emisio ikustezin, etengabe eta amaigabean diharduen, erradiaktibitatean bezala. Kondenaturik nago sines-mundu oro, sorginak barru, eliza hartatixe, bizitza mundutarra taberna hartatixe, lan-bizitza edo 'bizimodua' ziotena soro, baso eta auzo mehatz haietatixe ulertzen jarraitzera. Nekazaritza erabat desager baledi ere, industria eranskintzat sentiaraziko didan ikuskera ruralak dominatzen nau, zeinak, gero, informatika naturalizat hartuko zuen, hau etxean gara baitaiteteke, atartean zein artepean, txirringolan edo *bedarrak jorratu ta artoak sasira* jaurtitzen bezala. Eta orain plazaren erdian, korapiloaren gain-gainean, pan-

pina nagi horiek bezala, isilki biratzen naiz, oinik nabaritzeke (lebitatzen ari ote naiz?), ikus nazaten, neuk ez baitut inor ikusten, ezta fantasmarik ere, izan ezik berriro normaltasunaren biziraule osasuntsu diruditen bi txakur elizpean jolasean, edo Arrindamendiko behorak, koadroak bezain exhibenteak. *Hemen inor ez egotekotan, bardin jeustak mundua hutsik egonda be.* Horrexegatik sartu naiz Durangora, Zornotzarako bide arriskutsuegiaren tirari uko eginda, jaioterri xumean ere, Etxanon, inor ez aurkitzean, neure korapilo esentziala, iragan eternitatera lotzen nauena eta etortzekora lotuko nauenik ez sinesteko gibelik ez daukadana, desegingo zitzaidan beldurrez, halako eran nola bar-kilero ontzi-gorriaren izozki hura, jende arteko distrakzioan edo lagunuen batek zati bat kentzeko arriskuan barik (eskatzen zuenari eman gabe ezin geratzea kentzea baino tristeagoa zen niretzat), etxeko gozamen bakartian jatearren, neraman dirutxo hartan osorik gastatzeko penarik izango ez nukeena, azkenean erosteke gelditzen zen, bidean urtuko zen beldurragatik. Behin gertatuko zen hori, gero beste arlo batzuetarako balioko zidan esperientzia irrepetibleen sena estreinatzeko.

Zornotzarantz hartu izan banu, handik neure Torreburura bitarteko auzo batzuk (Epaltze, Katia, Autzagane...), hutsari agurka, ostadarra zeharkatzen bezala, sentimenduen fermentazio usaintsuan erdi drogaturik astiro-astiro iragan ondoren, ezin izango niokeen eutsi jaiotetxearen tiramen kasik kontraezinari, zeinaren egitura txiki, inguruarekiko desentonakor (gerra inguruko gabeziak, modelo txiro eta presatietan ugalduek) eta nondinahi ageria nire gogo osaezinaren negatiboa izan baitzen. Aspalditik hutsik dagoenez gero (bizileku izaerak, haren habeentzat, bertan lo egitea esan nahi du), bertan inor ez aurkitzeak normaltasunaren berrezarpena ikusaraziko zidakeen, non bakartasuna, lehenago ere gutxitan ez bezala, inguru lar-biztandutiko askagune gozatsua zen. 'Zorionsua' jar nezakeen, fingimendua edertasunera transfiguratzeko arterik banu, baina beldur naiz ez ote nukeen, orduan ere, zorionaren zati ukaezin baina txikia besterik ez den adierazpen literario bat lortuko, zeren, hartaz garatu diren gogoeta intelektual amaigabeak eta figurazio artistiko nekagaitz guztiak sintesi labur bezain askira ekarriz gero, ez dago argi zoriona lortzeko ahalegin irrikatsua ez ote den gutxiago nekagarri, lortuari eusteko ernaitasun deskuidaezina baino. Kostata bada ere, eta kasua-

litateagaz aliaturik, zoriona aurkitzeko miraria osa lezan adimenak ez lekike gero nola babestu galtzeko posibilitate infinitu eta aurreikusgaitzen arrengratik; orduantxe eskertzen da norbaitek esan diezagun: *Hori ez dok pentsetakoa, izatekoa baino*. Saiatzen gara aholkulari sinesgarri horrek (*nork eduki leikeen berorren sanotasun tolesgabea!*) iradokitako bidetik jotzen, baina ez dugu aurkitzen ezer izateko modurik, pentsamenak, bidaide baino ez gutxiago biderakusle, dena inguratu gabe. Haurrak dira aholkulariak agindu ziguna osokien eta nolabait naturalkien betetzen dutenak; horrexegatik eman ohi digute halako errukia, maitasunetik baino gehiago nostalgiatik hots egiten dugunean: *Laztanak! Bai tamala eurak ez konturatzea euren pozaz!* Badaezpada, ez dugu 'euren zorionaz' esango, horrek berehala gure kontzientzia interpelatzen baitu, zeinak ez digun uzten lehentxoago errukiarazi gaituen zorion infantilik desiratzen.

Horrek ez du esan nahi berriro haurtzarora bihurtzeari, minimoki dohatsua izan bada, uko egingo geniokeenik, ahal balitz. Ezetzera tematzen garenean ere, gehiago da ez dugulako, zoriona bezain auzi garrantzitsu eta sentiberan, ezintasun jakinaren aurkako ahalegin hipotetikoan ere porrot egin nahi. Gogo-jolas gisan baietz diogunean (demagun lortu dugula berriro haur izatea) berriro susmatzen dugu, haurtzaroa atzean utzi ahala, ez zaigula lehengoaren (oraingoaren) izate oso ezberdinik irekiko, eta hamaika ber-haurtzek ez lukeela probabilitateen kalitaterik aldatuko, adimenaren izaerak bere lege propioak eta nahitaezkoak dauzkalako. Kontzientziak, nahiz eta ez daukagun, zoriona ere bere sentimendu bat den mailan, ezintasun totalik borobilki aldarrikatzerik (patologiaren ondorioz baino ez bada ere), ezin du zoriontsu izan, kontradikzioan jausi gabe, edo arterago disolbatu ezik, ametsa zentzuak gidatzea ezinezkoa den bezala. Hauek biak, hurbilak ez eze, bat bera direlako sentipen argia, indartsua, kontzientea, luzatu gurakoa, maiz izan dut, erabat seneratu edo, hobeto, senean birrindu arte, non ohartzen naizen zer paraje irrazionaletan ibili naizen; eskubete inurri ispiluzko katilura jaurtitzean bezala, zeintzuen antzera ametsak, euren irudiari iheska, ondokoen gandik galdu-gordean aldaratuz, gehienik ere talkatuz, haren islada direla suposatzen den desplegu nolabait ordenatua ridikulizatu nahi dutela dirudien. Desbandada hori guztia ez litzateke ezer, lehen itzartzearen aurkikunde

gisan, sabaitik zintzilik, gau osoan handituz etorritako tanta erraldoia bailiztan, begi dominante bat hautemango ez banu, nitaz eta nire zirtzilmenaz deskojonatzen; edo zer gauza zuzterbakoen barreak itzartu nauen ohartuko ez banintz, hain mozketa inoportunoaren dezepzio handiegirik gabe, bestalde, barrearen mekanismo horrixek esker salbatzen bainaiz ugariago diren amesgaitzetatik, eta, segur-segurki, luzatzeak batere hobetuko ez lituzkeen inozokerietatik.

Norbait etortzeko itxaropenetik bizi den txakurra askatu dut, nostalgiaren senik ez daukaten oilo txalinei atesarea ireki diet, eta ez dut uste beste animalia dependenterik hemen bizi denik, ganbara hustutik bainoago izutik iheska etor zitezkeen saguen auzorik hurrena suak irentsi baitzuen, beste auzo batego semeak bere burua hantxe erretzeko hautatua izanaren destino gorian. Ez zen, nonbait, patua bere jaiotetxean bururatzen ausartu, horren barkaezina hil eta gero ere jarraituko ziolakoan-edo; beste baserri bikoitz eta bakarti horretantxe frijitu zuen bere arima, beharbada bide batez, ez batean ez bestean inor bizi ez izanik, etsia behar zukeen txingarpeko gorrotoren baten piztutaldian. Giza errendizioaren modalitate sarrastagarri hura (munduratu gintuen etxeari –fisikoki ere bai garai hartan– biziraupen inbiolablea aitortzen genion), baina analogien ohituratik pentsagarri zena, ez zatekeen besteongan esklamazio asaskugarrien litaniatik edo gizon gazte baten hezur ikaztuek beti ere eragitekoa den bizitzarekiko larridura egiazkotik asko haragotuko, beragaz batera holokaustora eramanez izan ez balitu zortzi eta hamar urteko bi alabatoak, baserri oraindik nahikoa berri baina abandonatuko zokondo amaigabe eta ilungune misteriosoetan kukuka jolasteko pozean edo, etxe guztiz librean, hainbeste ipuin ondo ulertu gaberen lilura tokian bertan errepresentatzeko joranean joan izango zirenak. Zorigaitzaren tamaina materiala berdina izango bazen ere, alferrik saiatu ginen, larriki, oroimena apur bat lasaituko zuen aitzakia dohakabeen bila, umeen ama, atsekabetik ez bazen, zorotasunetik behintzat salba zedin.

Urrizpeko gerizpetan jesarrita, txakurraren zorion geldiezinari jarraitzeak zorabiatu behar nau, beroaren eta narabilen zoroaren ondorio ez bada. Begien aurrean daukat Autzaganeke aldatsa, zeinaren hiru kilometroak, osten-

gune txiki bat izan ezik, lehenago bezain garbi ikusten diren, Arnabaten baino goratxoago agerturik, Aritzazurin ezkutatu arte. Abiaduraren miraritzat geneukan orduko trafikoak kamera lentoa lirudike orain. Gerratik biziraule eta ibilgarri itzultzeko zortea izan zuten gutxietariko G.M.C. haiei, hiru ardatzen txundipena nire begietan estreinatu zuten kamioi apurtezinei, karga baino martxa gehiago kostatzen bide zitzaien, karga bera estimulu ez bazuten. Lehengoan, halako bategaz hain bat-batean (itxaroten ez den guztiagaz bezala) topo egin nuenean, masusta berdeak jan ondoko behinolako kakalarria, praktik askatzeko astirik ematen ez zuena, sartu zitzaidan, zertatik ateratzen den erraiek adimenak baino lehenago igartzen diotela denboren, berrien zein joan-en, presentziari. Halakoxe kamioi baten abiadura gorena probatu nahi zuen indianoak, Larruskaingo erreka-zulo bihurturik, konpromiso gutxiago izatearren, gauez hartarako hautaturik, geratu egin behar izaten zuen, neurri batetik gora azeleratzean, iluntasun inespikablean sartzen zelako, harik eta, zurturik, argia atzean uzten zuela konturatu zen arte. Orduko trafikoaren mehatzetasuna kalkulatzeko, ez daukat gogoratzea besterik nola nire jolas irrisistibletariko bat izaten zen, ea aldats barrenean agertzen zen ibilgailuak, goian ezkutatu arte (berdin alderantziz), bakartasunari eusten zion; edo, antzeko baina zailago, ea zenbateraino kontatzen nuen, errepide guztia hutsik ageritzen bitartean. Fondoko jolasa bezalakoa zen hori, beste batzuekin (txirringola, ziba, txakur) aise aldireritzen nuena, ibilgailurik bizkorrenak ere bidualdi hura egiten denbora nasaia behar izaten baitzuen.

Batzuetan, errepide-jolas hartantxe zentratuko nintzen eskusiboki, bihotz gazteegiarren sentikorregia suspentse lar bortitzetara behartuz. *Helduko ete dok? Ez ete dok?*, begiekin ikusmira etengabe ekortuz eta gorputzagaz sakatzeko planta oharkabeak eginez, norbaitek *zeri bultzaka habil hor hutsean?* kargu hartu arte; edo, trafikoaren hutsaldia luzatu guran, zenbaketa era ahozkatua baino askoz azkarragoa den pentsamendu hutsera ekarriz. Ez dakit erronka multiple haietariko bat ere (gorantz, beherantz, bi norabideak batera, auto bizkorrak, kamioi lentoak, motorrak, ozta-ozta bereizten ziren bizikletak, errepide osoa, zati bat bakarrik, Katiako ostenguneraino) osoki gainditzera iritsi nintzen, ez emaitzen gorabeheran ez dagoen jolas bere baitan justifikatuak (bizioak bezala, suposatzen dut) bideko garaipenak ondorengo porrot askoz ugariagoen artean

galtzen dituelako, baizik nire urte lilurakor haiek, neure ez-txunditzeko, edo ez-beldurtzeko, edo ez beldur-txunditzeko ezgaitasun radikala bide, eguneroko agerpen gorri, zoragarri eta aldizka berritu haiekin mukurutu zirelako. Arnabate baino goratxoago, han behean agertzen zen 'sauder'-ari, igo ahala miragarriro handituz zetorrenari, begirada finkoz jarraituko nion, baita Katiako ostengunean ere, berriro noiz bistaratuko, Aritzazurin pena triumfalez ezkututzen ikusi arte. Marigorringo kolosal hura goraino orduko bikoiztu egiten zen, autobusaren bi solairuak garbi bereizten utziz, bi marigorringo itzel elkarren gainean, azpikoa luzeagoa, bere mutur galantez, harik eta nire txundimena leherrarazi zuten 'sauder' txatoak agertu arte, mundu ezezagunaren elegantzia magistral guztia zabalduz, aldasgora hain martxa maiestosean zeharkatzen zutenak, objektiboki nahikoa astitsu, minutu mordo behar baitzuten dena igotzen, nire begientzat beti arinegi, batez ere hain hurretik ikus nitzakeen azken tramuan. Ikuspen igotzaile handios hura baino gutxiago inponentea ez zen ibar guztira zabaltzen zen burrundada, distantziak uniformeki banaturik, ikuspide guztia okupatzen zuen elementu leun-leuna, argiaren dardarizoa bezalakoa, haizearen soinean ez bazetorren, gailentasun inbentziblean. Inoiz, beren beregi harrapaturiko marigorringo benetakoa eskuan neukala itxaroten nion autobusaren agerpenari. Orduan, oraindik metaforen kontzientziara iristeke, erronka izango zen ea, marigorringo erraldoia ezkutatu arte, marigorringo ñiminoak hatz puntan zirauen. Hala gertatzen bazen, leun-leun putz eginez, kantatuko nion: *hoa-hoa zorionean, hator-hator nahi donanean*. Oraindik ere zail egiten zait pentsatzea marigorrigoa arra izan daitekeenik. Batzuetan joango zen, sarritan eskura jaisten tematuko zen, pena emango zidan, eta arreta oso gabe igartzerik ez zegoen kili-kili leun-leuna ahurrean sentituz, esku itxia belarri ondoan apur batean eduki ondoren (sentitzen hain zail, entzuten ez errazago, arreta zentratzeko baliosen), umeen delikaziarekiko atxikimendua denboran laburra izaten baita, nahiz ondorioetan luzea, lurrean abartxoa sartu eta harexen puntan kokatuko nuen, nahi zuen airea har zezan.

Autobus haien itxura ikusgarriak baino gutxiago ez ninduen kitzikatzen barruan zeramatela imaginatzen nuen munduak, Zornotza baino handiagoa nola izan zitekeen kontzibitu ezin nuen Bilbotik, berau baino handiagoak izan behar zutela deduzitu gura nuen Bermeora eta Lekeitiora, non marigorringo eskerga

haiek lo eta eurt egiten zuten, joan-etorrian zebilen munduagaz. Ez, noski, mundu fisikoa, hegoatik Anboto-kate, Gorbeialde eta kantabriar tontorretaraino, eta iparretik, Oiz eta Bizkargi artetik, itsasora errenditzen ziren mendietaraino, sobera eta ustez ezin gehiagoan ikusteko harrotasuna neukana, baizik neure bizi-inguruan hain mehatz nekusen eta, bere multzotasunean, hain urrun eta osteko aurkezten zitzaidan giza mundua, aitak *etxanotar guztiak batera sartzeko bestekoak* esan ohi zuen autobus gorrietan atzera-aurrera zebilena, ordu jakinetan, nire begi avidoen aurretik pasatzeaz beste zeregin argirik gabe; grandiositate ibiltari hark aho-zabal jar nintzan bezain hur, eta bere barne konposiziorik ezin bereizteko bezain urrun. 'Sauder' gorri haietariko batean egin nuen lehenengo joan-etorri amestuak nire bizitza aro bitan banatu zuela esatea gehiegizko ez litzatekeena baino mirari handiagoa egin zuen, autobusaren goi solairuko leihotik luzatzen zen nire buruak, kamera samaluzeak, mendate osoko erreia korritzen zuen travelling erraldoian hipnotizatu ninduenean, neure aurreko aroan bizikiago barnatzeko posizio berri eta mugikorrak ekarriz. Izan ere, partaide bat gehiago bilakatu nintzen giza mundu zuzmurtsu eta konfuso hartatik, paraje berriei irrika zirraratiz begiratzen banien ere, mendateari helduz batera (beharbada autobusa Autzaganeko geralekuan gelditu ez eta nork jakin nora eramango ninduen beldurrez), neure etxe eta etxe-inguruentzat beste begirik ez neukan, kristalaren kontrara lo-plantak egiterainoko disimuluan, beste bidaia-riek 'basamortu' hartakoa nintzenik susma ez zezaten. Han, etxearen azpialdeko sagasti barrenean, neure burua hauteman nuen, belaun-bihur eserita, zeinak, halaber, neuk bakarrik gozatzeko liluraz begiratzen zion autobusari, eta neuk bakarrik ulertzeko zeinuak egiten zizkion barrukoen artetik ezagutzen zuen bakarrari, halako eran, non, sarritan, bikoiztasun trukagarri hartan, neure burua zeinegaz identifikatu ez nekiela, beste buru bat agertzen zen, Epaltzeko auzo distantziakidean adibidez, aurreko bi izakien indistintzioa ironiaren angelutik bridatzen. Nahiz eta lausoki, orduan ere susmatzen nuen gogo-errore laketki kontsentitu horrek gero bete-betean lagunduko zidan Jainkoaren hirutasuna inongo misterio gabe ulertzen.

Noan orain iturrira, seminariotik etxerakoan, inoiz berau baino lehenago bisitatu ohi nuen bazter txiki agortezinera. Alde batetik sasitzak, bestetik aldats oso erripeak ostentzen duen zulo ia abandonatu honek ez du ematen

ezein gogoren moldagune mina izan litekeenik, baina nik hementxe aurkitzen dut zeru-lurren seberitatea biguntzen duen elementua, etxean eta etxe inguruan ez egoteak (teilatuko euri lohiari etorri ahala joaten uzten zaio) eta batez ere lurraren erraietatik niretzat hain ulertezinki garden sortzeak xarma ukigarri guztien jabe egiten duen ura. Hatzetz eta abartxo batez, beronen kondukziorik bihurrienak entseatzen ditudala, paraje honetan ia ezinezkoa den lautasunaren zentzua finkatu zait, alferrik tematzen bainaiz, batzuetan ernegaturik dena ostikoka apurtzeraino, bihurgune engainagarrien edo bat-bateko okerkuntzen bitartez, ur inozenteak apur bat gorantz egin dezan; alboak kargatzen badizkiot, usterik gutxienean, zirritua ireki eta agurrik ere esan gabe eskapatzen da. Ur berri eta txit freskoak etengabe eta guraina etortzen darrai, ordea, eta beronegaz eta lurragaz, nire irudimen hesigabera iristen diren esperimendu guztiak (ez iristen diren bezain forma exaktoan ere) egingo ditut; zerrikeria guztiak alegia, hauek formarik exaktoenean beti, azkenerako neu ere, irudiaren baino ez gutxiago usainaren aldakuntzagatik, izutan aldentzeraino, txakur deskontzertatua bezala. Armario ate-loka haiek irekitzen hain trebea zen animalia horrek ez zuen, behin, bere burua saiakera politean ikusi, lapikokada txokolatea burutik behera jausi zitzaionean, etxean urteko txokolate-egun bakanetarikoa zenik kalkulatu ez zuelako, nahiz eta, sustoaren ondoren, bere gorputza mihizkatzen nabari zitzaion gozamenetik, berariaz egin zuela zirudien. Nire kasuan, izutan baino areago izugarri, lupetz-figura bihurturik; horixe zen zoramen kulminantea, batez ere gero, etxean aurkezteko, ganoraz garbitzen ikasi nuenetik, aurretik arropa erantziaz bazter seguruan utzita, noski, mandoren bati belar usainak, edo kaka-rraldoi euren izenak dioen gustuak, eramateko tentaziorik ez emateko moduan, nahiz eta, hala, zigorraren kezkarik ezak esperimentuaren intentsitatea gehiegi moteldu zuen.

Gero ere egunean hainbestetan etorriko naizen iturriarena egintzat utzirik (ez bereganako grina aserik, beste grina batzuen urgentziak sakaturik baizik), amamanera abiatu naiz, han, nire baitatik eskapaturik, auskalo zein zuhaitz erpin, mandio-zulo edo asto emerren gainean dabilkeen mutikoa disparateren bat egin aurretik harrapatzera. Bide erdian, beti tripa lohiak harrika azaleratzen dizkiodan putzuaren buruan eskukada harria amaitu-

takoan, aurrera jo beharrean, geratu egin naiz, ez hainbeste, amama aspaldi hilaren eta harekiko bizikidetza osoaren desagerpenean, nire mutikoaren atzetik neure burua ere ezabatuko ez ote den beldurrez, baizik pentsatuz oroimen azkar bainoago instanteko honek, zenbat eta iraganera maizago itzuli, hartara hainbat aihertiago atxikitzen denak, ez ote nauen azkenean, azkengabeki, materialki izan zena baino denbora askoz luzeagora eramango. Horrexegatik irten naiz, Zornotzara jarraitu beharrean, Iurretako peajea, zeren nire lehentasuna, minutuak joanago eta bakarragoa, hartatik at geratu naizen ala neu irenstera datorren ez dakidan fenomeno neurtezin hauxe argitzeak izaten jarraitzen baitu.

Iurreta eta Durango banatzen dituen eta zein aldetarantz nobleago den ez dakien zubiaren gainean, ibaiaren eskuin kontrara dagoen dorre antzeko etxe txit zahar, noizbait berriztatzen hasi eta itxuraz amaituari begira nago, bertan biziko nintzatekeela maiz egindako burutazioa bete zedin baldintza guztien gainean oraintxe aurki nintekeela pentsatuz, baina desiratzen ezin ausartuz, fenomenoak garbi beldurtzen ez, baina bai larritzen nauen alderantz makurtzeak nire kontsentimenduaren aitzakiarik suposa ez dezan. Gerta bedi gertatzekoa bere erantzukizun bakarraren pean. Ezin dut orain zehaztu zergatik zaharberituak berririk originalenak baino gehiago atxikitzen nauen. Seguruenik izango da berria oroimen gabe aurkezten zaidalako, zeina, noski, lo batzuk bertan egiteak sortuko lukeen; baina zaharrean gertatzen zait, gomutak amorruz errebelatzen zaizkidan gazteluak edo jauregiak ez badira, neure oroimenaren zuntzekin bat datorren elementu piloa aurkitzen dudala, batez ere nire hirutasun estetikoak osatzen duten harri-zur-burdinak badira. Horietan, berrikuntzak garai bateko gabezia inseparableei orduan desiratzea ere insolentzia izango zatekeen formak erantsi dizkie. Zaharberituak, bai-baiki, neure izatea eguneratzen du, hobeturik.

Durangora sarrerako etorbide nagusiaren erdialderantz, martxan jarraitzen duten semaforo ridikuluei jaramon egitea pentsatu dut; beharbada, neu natorrelako atentzio bat izango da, eta ez nago inorekin oihas jokatzeko egoeran. Astiro-astiro noa, lehenengoan eta ralentyaren indar itozorian, burua krokodiloarena ehizakirantz bezain finko, begiak elkarren alderantz tiratzen

saiatzeko baino josiago, begiradaren enfoke urrunak, bi ezpaloietakoko balkoi-lerroetan, marginalki eta lausoki harrapa lezakeen bururen bati *zer egiten dok hor?* hots egin beharraren beldurrez; edo beharbada hilkutxadun autoa gidatzen banindoa bezala (beterik egongo ahal da), zeinaren atzetik bizien se-gizio zenbakaitzak (hiletetan inoiz ez da jakiten asistenteen kopuru zehatzik, bakoiztasun bakarra, hilarenaz gainera, inasistenteei bailegokien) etorri behar lukeen, burua itzultzen ausar banendi, *zertan hoa hor?* kargu hartuko lidake-ena. *Izorratuko zarie, ba!* *Atzera begiratzearen abantailak anulatu dira.* Konkurren-tzia honetatik neuk alde egitea besterik ez genuke behar. Retrovisorea neure belaunetarantz (*norenak izango dozak, ba?*) okertu dut, horrek ere dagoena bes-terik erakuts ez dezan. Darraigun, astiro baina buru izatearen abantailaz gehiegi abusatu gabe. Une batean iruditu zait begiek eremu bisual indepen-dentea osatu dutela; hemen badirudi denak aitzakia baten zain zeudela, ba-koitzak nahi zuena egiteko; begi batak eskuineko behe oina (tabernak, kafetegiak, gozodendak) ekortzen du, eta besteak ezkerreko teilatu hegatsak, bitarteak hirugarren begirik merezi ez balu bezala, halako eran nola, polizia-bikotea haitzuloan sarturik, bataren linternak zoruko oinatz prehistorikoak apuntatzen dituen, denak atxilotzeko aztarna bila, eta bestearenak sabaiko saguzarrak (*aikor, hi! horreei mesede egingo deutsek, eskegitzen badozak*), kiropteroen ezezagutzan (horrela esanda, harritzekoa ere ez da) goldetiko desertzioa ezkutatuz; egiazko ezezagutza izan daitekeena, bestalde, erakunde batzue-tan jatorriarekiko haustura efikaziaren bermetzat aurkezten baita, erligioetan ukoaren bikaintasuntzat bezala, *utz aita eta ama eta segi neuri* zelakoa aldrebes ulerturik, non segurrenik esan nahi izango zukeen uzteko gurasoak bakean eta hasteko oraingo bizimodua eta geroko zerua pasotismoan ez oinarritzen.

Durango saihezbide antzera zeharkatzen duen eta honezkero nobedade-rik itxaroten ez dudan etorbide luzearen erdian, hiribarrurantz hartu dut, hain hiri leinargiak bere erdigune harroarentzat nola onets zezakeen ulertzen ez nuen izen lirainegi (Ezkurdi) eta badaezpadakoak tiraturik, zeina beharbada esaera zahar baten aldaerak, kontrakotzat zein kideztat jo zitekeenak, hauta-raziko zuen (*txerri aseak ezkurdia kakaztu*), harik eta, alberritarren 'Zapoerri' mendekatia zentzu beretsuko esagerazioan itotzearren, herritar guren batek etnografian 'Tronperri' ordain redimitzailea aurkitu zuen arte. Pentsakizuno-

kin, eta neu ere ezkur-amesleen sailera pasatzeko abantailen kalkuluan, trenbide libreari buru-gur eskertzailea dagiot, pasonibela zabalik egon arren, gerta baitzitekeen, fenomenoaren abiagunean, trena bertan gelditzea, nahiz eta orduan langek ere behean egon beharko zuketena, *eta niri zer, dagoeneko beste aldean banago? Zelan gura dozue alde bietako langak nik apurtu neizen, bitartean trena bazihoan?* Ezkurdiren erdi parera heldu naiz eta autoa txukun baztertzen dut parkearen espaloi ertzera, beste aldeko banketxeen lerrotik ahalik gehien urrunduz, hil bat aldean daramatelako, edonon gelditzea merezi dutela uste dutenei kontra egitearren. Motorra itzungi eta kontu eta begirune osoz, hilaren besoetan haurtxo bat lotan bailegoen, Ezkurdiko urmaeletara nator, freskura eta geriza bila. Bitarte guztietatik harrapatu gura nauen eguzkiari iheska eurt egin dudanean, ez dut segizioan alerik hauteman, arimak gorputzei aurea hartuta ez badatoz, behinola gertatu zitzaidanaren alderantziz, maiz gertatzen baita batera posible dena bestera ere berdina izatea. Giza-buruagako Urrexolatik ordubete luzeko andabidean, bazekarten gorpua basabide erripen eta bihurtean, euria goian-behean. Neure akolitoz, gurutzez eta hornimen santu oroz jantzirik, zapata garbi-garbiekin, hilotza etxean jaso behar nuela suposatzen zitzaidan honek beheko errepidean itxaron nion, elizatik hirurehun bat metrora. Jarraitzaileen eta, batez ere, andarien itxura lorrin eta errukarriaz oharturik, salmo-kantari hasi aurretik, gizalege iruditu zitzaidan, euren ahalegina aitortuz, *badakarzue?* galdetzea, zerari andari batek ihardetsi zion: *Hau badakargu, baina arima goian geratu da eta haren bila berorrek joan beharko dau.* In paradisum deducant te angeli... Latinaz beste hitz sakramentalik ez genuen abadeoi zaila zen inork eginkizun betegabeen konturik eskatzea, esan nahi baita, hizkuntza inperiala zendu edo adarkatu zenetik, elizak mende eroak zekartzala, gauzarik sinpleenak, ulertezinaren balanka txit efikazean, adimengai goren ei zen misteriora jasoz.

Ezkurdin, alderantzizkorik gertatzen den itxaron bitartean, antzare *zotzak eta paluak, estudianteen kontuak* uretara botatzen dihardut, eta laster pentsatu dut hankak belaunetaraino, gero izterretaraino, freskatzea, hegazti igerilarien sarkasmorako, ez baitute ulertzen zergatik ez naizen urmael erdira sartzen. Ezin dute imaginatu igeri edo hegan ez dakien izakirik; biak ez dakizkiena, berriz, nire kasuan bezala, ziur munstrotzat edo misteriotzat joko luketena, bi

kontzeptuok bereizteko talenturik badutela emanik. Noizik noizera, burua autorantz biratzean, ez dut arimarik inguratzen ikusten, ezta apur bat behe-
rago, zeremoniara garaiz iristeko, taxia hartzera lasterka etorri ohi den betiko
berantiarrik ere. Hil baten ingurura ez arrimatzeko, herri honetan ere apenas
den inor. Laster nork jakin zertarako behar nezakeen denbora baliosa galtzen
ari naizela pentsaturik, autoa bat ere kopla barik abiarazi eta banoa aurrera,
Andra Marirantz ezker, ibilbide eskusiboki oinezkoan, berriz ere arau guz-
tiak zapalduz, Barren-, Goien- eta Erdi-kale estu eta luzeetan, itxaropenaren
azken pindarrak probatzera. Auto ilara militarki aparkatuak, isiltasunaren
gainean, kaosa baino ordena beldurgarriagoan. *Hartu eizue bertatik! Agertzerik
pentsetan badozue, hor geratzen zarie hilagaz, eta bestela, bertan usteltzea jaukak.*

Iurretako zubia (lehengoaz beste bat) gurutzatutakoan, norabait pasatu
naizelako sentipen arin baten ondoren, errepide nagusiari Berrizerantz heldu
diot. Asfaltoak haluzinazioa dirudi, erreberberazioa bide, argia galdaran ira-
kiten ari bailitza. Euri xehe dirdaitsua zoruan zipriztinka, pentsatu dut le-
henbizi, baina horrelako euririk ez baita lurrean saltatzen, jar dezagun
indriska bortitza, non, goitik beherakoa ezabaturik, tantateria saltariaren ar-
gizko hordimena bakarrik ikusten den, zorutik bereiziz batera, zein lehenago
berriz zoruratu lehian, trinkoaren trinkoz elkar apurtuz, intzidituz, dirdaia
min egiteraino biderkatuz. Hurragotik begiratzean, inurri txiki transluzidoen
azalerrate presatia, histerikoa, gogoratu zait. Intsektu ilun, eurenkoi, izo-
rrante horiek ez daukate, ordea, metafora delikatueta sartzeko grinarik; er-
leak jarriko ditut, hauek, konparaziora zuzen egokitzen ez direnean ere, beti
sortzen baitute hunkipen samurgarri bat; asmatu egin dudala uste dut, hu-
rrengo bihurtzeko erlezko pizza baten antza hartu baitiot, hegoak irradia-
zio leherkarian. Zapaltzen baditut, azpitik gora jango naute. Orain, oster, a,
errepidea argizko solairuen superposizioan dakust, sare asfaltiko dirdaitsuak
elkargain eta kontrako mugimenduetan oszilatuz, ehungintzetan era fina-
goan, edo harrobietako hondar garbiketan era zakarragoan ikusi ohi diren
mugimendu gurutzatuen antzera, sare bakoitzaren begixka eta filamentu
xume-xumeak biziaren biziz desegitear. Makina horietan bada kontrako mu-
gimenduak koordinatzen dituen adimen mekaniko bat. Oraingo fenomenoak,
oster, susmarazten dit neure adimen birrindua ez ote den argiaren subleba-

zio masiboaren eragile, zeina autoaren azpiraino sartzen den, zulo beltzean barik argizkoan irentsiko nauelarik. Izpiak abiatuz batera itzultzen dira, ur xirrizta kontaezinak bezala; doazenak datozenekin elkar जो, berriro multiplikatzen da efektua, hain bat-batean, non argiaren eztanda nuklearraren, ezinezko uste nuenaren, gainean sentitzen bainaiz. Denik dentsoenean ere, inoiz ez dut entzun argiak konsistentzia solidorik zeukanik. Zulora noa zuzen, zeina ilun izateak ikusmena behintzat hondamenetik libratuko didan; eta horrexen bila, konparazioz ilunpe atzeman dudan goiaren bila, hain zuzen, burua jaso dut, begien atsedean instanteko bat sentituz, baina salbame-nak beti gorago behar duelako senak eguzki inplakableagaz toparazi nau. Hiru usin jarraiko zein baino zein totalago atera zaizkit (*ai nire gerria, pare bat sailhets ez badira!*), eta orduan, bazterra jotzeraino desbistaturik (*eskerrak inor ez dabilen*), hain itsumenaren objektu bilakatu naiz, ezen ez baitakit garunen kea belarrietatik daridan, ala belarrien euren kutsapen dirdiratzailea den. Ma-reatzen ari naizela uste dut; uste badut, egia izango da.

Matienako San Blas hoteleko parkinera albotik sartu naizenean, mirari eginda nago nola lortu dudan horren ate doia erditik azartatzea. Besoak bo-lantean, burua beso artean, saiutzen ari naiz, ez argizko eztandaren, behar-bada tenperatura ohigabe honen ondorio mentala besterik ez denaren, turbaziotik itzultzen, baizik zehazten, itxuraz indiferentziaren summuna di-rudien beste fenomeno oraezin horren zein puntutan kokatu behar dudan neure burua, kontzientzia soilaz haragoko hustasun osoa ez bada. Badirudi sekula ezer apenas argitu duen metafisika nekez hasiko dela orain baliagarri izaten, *unble-ble, unble-ble, buru hori, buru hori, zirriaska, zirriaska, altxa buru hori, altxa buru hori, euppp!!* Burua altxatzean, egoerak ez dakit zurrutik behar duen, baina merezi duela iruditu zait. Hesparru bezala, San Blas kafetegi-ho-tela zabalik aurkitzera, komenentzia osoan egingo nuke, kafetegiko hiru sa-rrerak, gizon batek hain kapritxoz berrituak, itxita ez baleude. *Ai, Goiuri! Ez hintzen Mediterraneoan ezkutatuko, eztok?* Hori ez litzateke inolako oztopo, kris-tal bat apurtzea errazena bainuke, ilargiratze metodora jo gabe. Bulkaka sen-timental batek diost koldarkeriari egoeraz baliatzen uztea gizonkeria motza dela, eta autorantz bueltan nator bakez-bakez, ez bide batez aparkalekuaren aldetiko jantokiko sarrerari erreparatu gabe. Probatu dut eta, uste guztien ez

alde ez kontra, ezin baitut susmorik arriskatzeko finkapenera iritsi, jatetxea zabaldu egin da. Mundu guztiak ate honetatixe hanka egin bide du; azkenari atea ixtea apropos ahaztu izango zitzaion, ugazaba izorratzeko aukera disimulatua ikusi zuenean. Ezker, jantokia, eskuin, sukaldierantz dirudien pasabidea. Susmorik ez, baina dudarako gaitasuna badaukat; azkenean, egarriak jantokiko mahaietan ahoa bete tuz ikusarazi dizkidan botila uren irrikaz baino areago, sukaldean Hesparrun bezalako zakurren bat aurkitzeko beldurrez (badirudi oraingoan leialtasunak ez diola nagusigoari jarraitu), ezker angelura baztertu naiz. 'Arrati 2000' jantokiko poligono irregular handian, mahai-zapi erabat zurien eta gortinoi zuri-horiska horizontalki kolore biziz marratuen (dena eguzkiarena ez bada) erakusgurari ez-ohartu eginik, bi litroko botila osoa hustu dut, plastikoa hatzetan voluptuoski maspiltzeraino. Gur-gur edan ahala, paparrean behera ere parrastan jausten utzi diot, gorpuzak barrurantz hartzen zuen bustitze tamalez epelegia kanpotik freskura suspergarri bilaka zedin. Ez dakit txiza ere batera joan ez den, batak besteari azkar tiratzen baitiote, baina barruak diost, orain hitz egiteko moduan jarri denean, arestiko argi-eztanda ez zela beroagatik baino gutxiago izango egarriagatik, zeinaren bizitasunaz ura ikusi arte ez konturatu izanak apur bat kezkatzen nauen, neuk igartzeko, senen deskonposiziorantz ez ote noan. Beste botila bati ere, bezeroen zain prest-prest dauden mahaiak sinestea komeni ote zaidan pentsatu bitartean, tratu bera damaiot, oraingoan barrura baino askoz gehiago kanpora; gehiena, botila muturra garondoan jarrita, bizkarrezurrean behera doa, uzkiko bustidurak eman ohi didan horzkiduraz ahazturik, zeinak, noski, eragiletik hain urrun eta batez ere hain funtzio ezberdineko, nahikoa kapritxosoa dirudien, noizbait karramarro edo ur-sugeren batek horzka egin zidalako ez bada; eroan dudan bizimoduan, eremu horretan ez dut beste hortz klaserik gogoratzen. Zoruan putzua eta oinen txipli-txaplan lorrin galanta osaturik, hobe duket inor agertzeko arriskutik alde egin. *San Blas, kaketan plast! Etorriko nok barrero, heu be joan ez bahaz.*

Berrero kanpoan, eguzki jotzailearen azpian, etxerako gogo biziak eta bakarrak eraso dit, ez hainbeste base berreskuratu gisan, nondik egoerari aurre egiteko operazioak oinarritik berrasi eta antolatu ahalko ditudan, baizik ezin dudalako neu izan inguru osagarri bat gabe; hots, inguruetariko bat, esen-

tziala, huts egiten edo lokatzen denean, etxea behar dut. Beharbada gero, hara iristean, berak ere, lokaturik, sokorru eske bezala hartuko nau, baina beti dagoke gehiago ez itzartzeko itxaropenean oheratzea, oinetakoak sarre-ran erantzita. Pizterik balitz, itsusia litzateke oinetako eta guzti harrapa zaitzaten. Matienatik Berrizera bitartean, errepide nagusia Markinarantz hartzeko utzi dudanean, Andikoako elizalde txikia Oiz maldako gain batean aurrez agertu zait, bere urruntasun bakartia mendian atzeraka ezkutatu guran baino gehiago (Ama Birjinaren santutegi gotorra kanpandegi ia inper-tzeptiblean zikatrizatu zen, botere terrenalen batek elizdorre itxuraz ahal-tsuagoak moztu zituenean), osteren batetik kuku egitera aurreratu eta, ikuskizunaz xarmaturik, bertan gelditu bailitzan. Pinuzko berdetasunak in-guraturiko aurpegi zurbilean, izara santuko aztarnen tristura gogoraziko li-dake, ez baneki bertatik haranaren zabaltasun ikusgarria, Anboto kateak handioski mugatua, esku-eskuan eta mendean atzematen dela. Nobedade-aren abialeku izan den Berriz behean utzirik, Trabakuko mendate hasi be-rritik ezkererantz auzobidea hartu dudanean, taupaketa dobleki bortitza nabari dut, entzuten dut, tinpanoak barrutik kanporantz haustear; batetik, fe-nomenoak auzoa ere eroan ote duen; bestetik, ez ote zaidan, etxerako falta den kilometroan, norbait bidera irtengo, mugida sozialetatik eta altxamen-duetatik at beti gelditu ohi den eskekoren bat, adibidez. Edo harri bat, ha-rrikada bat, zeinak koexistentziaren bat, inbisiblea bada ere, iradokiko lukeen, belikoa izateak ardura ez lukeena, orduan zeregin argia bainuke ira-bazteko ahaleginean; galtzeko kasurik okerreanean, suposatzen da akabatu egingo nindukeela, berari ere lagunen bat edukitzea komeniago ez bazaio, non orduan amaituak lirakekeen nire flotazio guztiok. *Kakazaharra! Hainbeste espekulazio, azkenean norbera bezalako izaki zirtzil batean islaturik aurkitzeko, pen-tsatuko nuke nik, deskubrituko luke berak.*

Besoitako aldasgora erripe, estu, bihurrian, aurrez ager litekeen edonor, edozer, ez jotzeko ohiko prekauzioak sasira jaurtirik (*bahator, hementxe ge-ratu beharko dok hik be*), etxea bistan darakusen lauan aurrera noala, seinale baikortzat hartu dut, ez hainbeste Atxareneko behi piriniar dohatsuek euren intxaur gerizpetik iragaile ustegabetzat ez begiratzea (beste batzuk ere ikusiak bide dituzte, beraz), nola etxe bereko zakur beltzak, burdinsare

barrutik, egunik txarrenetariko gorrotoz ni zatikatu gura izatea, zerak esan nahi duela dirudien baduela norbait defendagarri. Eupadarik egin gabe, aurrera jo dut, 'norbait' hori aurkitzeko nahimen dudazkoan, neure larrua, ez geratzen den bakarra izan daitekeelako, neurea delako baizik, gal ez dezadan. Patari hagintsu hori bakartasun egiazkoan dagoela susmatzeak amorratu badu, txakurren usnak huts egitea hain zail den moduan, ez du bere burua maitatzeko jokaerarik egoistena hautatu. Oraintxe ez dakit txakurrek zer zaintzen zuten haserreago, etxe hutsa ala biztandua. Atxareneko atezain ernegatu horrek ez dirudi argitzeko borondaterik daukanik. *Segi heure katea defendatzen!* Nik, bertako hustasun definitiboak gehien hagaranduko nindukeen etxean, gurean, inor aurkitzeko itxaropenik ezin dut izan, andre-alabak Miamiako senideenean eta ama Bediako arrebarenean baitira hilabeterako, fenomenoak gertatzen hasi aurretik joanak, hori ere pre-determinazio aluren baten mugimendua izan ez bazen. Nolanahi ere, joan diren lekuan darraitela konprobatzea eta egoera argitu arte ez itzultzeko telefonatzea besterik ez daukat, etxera hel nadinean. Ez berehala, noski. Zer inprebisibleak daragien atzerakadaz (edo denbora-luzatzeaz) baliaturik, Agarregoiti gaineko zubian, autoa inork agindu gabe geratu zait, sarritan tentatu arren, obeditu behar izateko bezain basak izaterik lortzen ez zuten oroitzapenen gainean; erreka zuloko lamiategira begira.

Idiaren adarrak apalduko lituzkeen bero hau eta daroadan egun zoroa odolberritzeko murgil-gogoari ezin diot ohiko ageritasun erreparorik jarki; nire lehen-minak (lehengoak eta lehenengoak) tiraturik, larru-gorritzeko eskatzen zidan gogoak gaur ez dauka norbaitek soinekoak aluki xixkatzeko arriskuaren aitzakiarik; aitzitik, arrisku horixe bera bihurtu zait argumentu nagusi, telefonoari heltzeko irrikak bainoago premiak hertsatuko ez banindu, baina premiak ere ez dauka denboraren berehalakora lotu beharrik. Nire eskueratik guztiz at dauden gertaera kezagarrietan, jakite atzeratuak ez dit berak zaurituko lukeen denbora bikain bat babestu besterik egingo, era berdinean, non, eskelarik ez irakurtzeagatik, nahigabe ziur bat labur nezakeen, ez baita segurra lehenago hasten diren minak lehenago amaitzen direnik. Telefonoak, hemendik ordubetera ere, edo lehengo zalantzan utziko nau, edo gertaera kontsumatuak aurkeztuko dizkit, onera eraba-

kiak izatekotan, inoiz berankor izango ez direnak, zeragaz lortzen baitut, gainera, itxarote tentsoaren ondorioz, geroko unea bizikiago dohatsu gerta dadin.

Pentsakizunok lagundurik, neuzkan soineko apurrak, erantzi eta uretan es-tutu batzuk emanik, erreka bazterreko haltz adarrean eskegi ditut, iragan izer-ditik garbi daitezen, haltzaren bihotzik ezak ez baitu esan nahi lagun zintzoa izan ez daitekeenik. *Erreka bazterreko lirio lorea, ez naz ederra baina bai ederzalea.* Hartaz behinola neure lotsa nuen eta aspaldian kezkatzeari utzia nintzen nire gorputza urak ez du arbuiatzen; eder iruditzen zaiola ere esango nuke, ate-ratzen dizkion ondulazio neuretzat behintzat gozoetatik. Aurretik, bide er-dian lasai utz nezakeen autoa ondo baztertu dut, uretan ez baitzait, igeri ere ondoegi ez jakinik, endredu posibleen kezkarik komeni, ez hainbeste, igaro ezinik gera ledin desiratu behar nukeen norbaitek era barregarrian aurkituko nindukeelako (*adin horregaz errekazuloan, zapaburuenak egiten?*), baizik pentsa-tuz, hark *zer egiten dok hor* galdetuz gero, nola azaldu behar niokeen, elkarriz-keta aritze ulertezineraino bortxatu gabe, zer fenomenoren atzetik edo aurretik nabilen. Apaburuen konparazioak euren itsustasunagatik balio dit, noski, hobe bainuke haien trebetasunaren buztan-punta bat banu. Errekan, beti ere sarrerra freskoa opatzen dizun uretan, txerrikumea bezain purrustari eta dontsu sartu naizenean (konparazio horrek ere neure aldetik beharko du egokia, txerrikumea, igerian, elegantziaren logotipoa baita), neu ohartu gabe bistaratu diren anfibiokumeek, irabiorik txikiena aztoragarri zaienek, lehe-nago penatik higuinerako sentipen likina sortzen zidatenek (abarrez edo ira trukutzez zirikatuko nituen, inoiz ere ez eskuz; are gutxiago, lagun inkon-ziente batzuek bezala, potean etxera ekartzen saiatuko, gauez ohea infesta-tuko zidaten beldurrez), neuk nahi nuen garai, modu eta lekura transportatu naute, sarritan pentsatu eta aspaldian ezin osaturiko miraria burutuz. Mirari zoragarria, gertatu zenean sumaezinak ziren zirrarak gero eragingo zituen, pentsarazteraino: *Kendu eidazue etorkizuna, iraganean nasaiago ibili naiten.*

Mirari-lekua Etxano zen. Elizaldetik gure jaiotetxe Torreburura bideko trokan, Abeletzako errekan, bost-sei urtetik hamalaura bitarteko mutiko aldra batek, kakatza guztiak jada azalean zituen uretan, igerian bainoago

elkar zikintzen eta deskuidatzen zena urperatzen geniharduen, txerriku-meen jantzi konpletoan, eta bertsio baldarragoan. Arratsaldean, eskolatik etxerantzean, arropak eta oinetakoak bazterrean utzita, denak putzura plasta hasi zirenean, txikienetarikoa nintzen neuk ere gauza bera egin nuen, obligazio eskolarraren antzik hartzen ez nion, baina helburu garbirik ere (horixe gutxien, sagar ustel kolorea zeraman salda hartan) aurkitzen ez nion ekintzara biltzeagatik baino gehiago, haserre gaiztoren baten deitzat har zitekeena ekiditearren; ez, noski, basapiztien edo sorginpiztien deia, zeintzuen eremua kohabitatzen eta maitatzen ikasita nengoen, baizik mutil nagusiren batena; nire orduko buruan, hamalau urteko mutila gizateriaren gailurra zen, beste aldeko heldutasun arrotzerantz jaustear. Beldur nintzen halako batek bere arropak gordetzeko aginduko ote zidan, gero, ekarri ere ez zuen sudurzapia, astegun buruzurian marikeriatzat joa izango zena, galdu ei niolako, biharamunean, ordainez, golko bete txokolate eramana-razteko aitzakia aurki zezan, belarriak kizkurtzerik nahi ez banuen, behin ederki eskarmentatu eta gehiagotan ere deskuidatu nintzen bezala. Txokolateak ezin zuen izan 'Chobil' zeritzon eguneroko askalgai zakar hura (Chernobil puska bat), hagineta kri-kri, edozeri heltzeko grina zeukan txakurrak ere hondar-harria bailitzan jaurtitzen zuena, baizik noizean behingo okasio, jaiegun handi edo urrungo ahaideak zetozeneko, gordeta egon behar zuen txokolate ez finegia, baina finagoa; Zahor bat, adibidez. Abusatzeko aukera aurkitzen duenari onena exigitzea urguilu kontua iruditzen zaio, oraindik kontzesioak egiten hasteko moduko aginpiderik inon aitor dakion lortu ez duen mutiko zapoari batez ere.

Niretzat, litxarreriarra jo beharra ez zen kezka moral handia, derrigorrak denaz eximitzen duenaz gainera, sen manipulaturen batek baitziostan norbere etxean egina ez zela lapurreta. Banekien txokolate inbidigarri haiek non zeuden, eta sarritan egona nintzen zurezko komoda zedenak dezente zulatura begira, batzuetan uste baino disimulu txikiagoan, zeren logela hartan (oro har, baserriko logela guztietan) ez baitzen suposatzen loaz eta jantzi-erantziaz, eta noizean behingo jaiotza-heriotzez beste denborapasarik, are gutxiago jolasik. Motibo jakinik gabe, oin txikien hotsa goian sumatzen bazen, ama susmaberak, amama esperimentatuak, baita inoiz aita arrotzak ere, bere

argitasunagatik bainogo andrezkoei entzundako solasengatik, laster emango zuen abisua: *Peru! Zertan habil hor?* Hori nahikoa zen, *Peruk, ezertan be ez!* erantzunik, eskailerak barandila gainean astiro-astiro jaits zitzan, goragoko bidaiaren batetik bueltan presa gabe bailetarren; edo unean bertan ez-entzun eginik, agudo jaitsi eta *zer esan dozu, ama?* itaun zezan, zeinurik txikienean, agindupera etortzeko grinan bizi bailitzan. Inprobisazio sarritan arrapalatsu eta sintomatikoegiok ekiditeko, bakarrunea harrapatu behar zen, non aita lantokian, ama ortuan, neba-arrebak kanpo-zereginetan izango ziren, eta txakurra ere ingurutik urrun, kapaz baitzen, etxeko errespetudunen faltan, bera ere hain gogoko zituen eskaileretan gora abiatzeko, gero haietaz neuk erantzun beharreko oinatzak nonahi utziz eta konplikaziorik aurreikusgaitzenak sortuz, bertatik zaunkaka hasteraino. Umeekin jolasean ohituta dagoen txakurrari klandestinitate arauak asko kostatzen zaizkio.

Txokolatea non dagoen badakit, *baina non jagok giltza?* Hori ere gutxi gorabehera badakit, komoda gaineko tapiz azpian hortxe nonbait, zeinaren gainean, halaber, portzelanazko ontziak dauden, aitaren gerra aurreko erlojua, eta Kubako gerra ondoko iratzargailua, inork inoiz martxan ikusi gabea; azpil bat erdi-erdian tente horma kontrara, gaileta birrinek gaixotua dirudien (uharturik alegia) busto femeninoa eskainiz; intxaurrak zehatzeko zurezko katilua eta mazutxoa; ezkutuan egoteko baino dotoreagoa den kafeontzia; kristalezko fruta-ontzia, Andremarietan edertuko duten laranja-platanoen orde, urte barruan kartilak, diruzkoak (urri) zein doktrinazkoak (ugari), eta zerga-paperak gordetzen dituen; anaia-arreba zaharragoen lehen jaunartzeko liburutxoa eta eskularru zuriak ere hortxe, noizbait zilarrezkoa izan ei azpiltxoan. Alboka bat ere bada ahoz gora, atzera idiaren adarrera itzultzeko desiratzen, inork ezin baitio hotsa ateratzeko moduko putzik egin. Beste gauza asko ere badira, egote hutsean baino intentzio handiagoan daudela dirudien tapiz gainean; horietakoxe baten azpian egon behar du giltzak, tapiaren azpitik.

Komodara iristeko, aulkia ekarri behar zen, logelan bertan nekez aurkituko nuena, arropaz okupaturik ez bazegoen, zeraren kasuan denak ohe gainean maratz-maratz ipini behar ziren, gero, txokolateaz jabetu ondoko abiadan, berriro

aulkiratzea ez ahazteko mirariaren zain, edo aurretik zer ordenatan egonak ziren gogoratzea handiagoa izango zen mirarian, aulkian geldituko ziren oinatzena jo gabe. Hauei, tu burloso batzuk jaurtirik, bazegoen ukondoagaz igurtzi zirkularrak egitea; arbelean noiznahi eta paperean nahi baino maizago, esku-alboagaz, inork irakatsi gabe, hain trebeki egiten genituen borroien handidurak, planetak kondentsazioz sortaraziko zituzten gas-hauts kosmikozko espiralen antzekoak. Espiralon ikasketa oso geroagokoan, euren baitara entzerratu beharrari ezin eskapatuzko suminean bihurkatzen ziren odol-suzko begi haiek ikusi zituenean, ikaskide ez ni baino borroietan trebeago baina bai gutxiago beldurti batek hots egin zuen: *Nik badakit horreek egiten!* – *Jainkoa beste haz* – erantzun zuen maisuak haragoko intentzio gabe segurrenik, nahiz eta geroago nik, retrospektiboki, neure susmo bati autoritate bat aurkitu guran beharbada, konparazio hari malezia suposatuko nion iradokitzeke ezen Jainko inespertuari kreazioa borroi bat irten zitzaiola, lehen saialdian harrizkeoa ere ez den moduan. Esku-alboa edo ukondoa barik, pintzela izan balitz, aro nebularrerako regresioak (ezta, Laplace?) pintura modernoan ezarriko ninduen, edo nahi izanez gero, postmodernoan; total, aurrizki baten gorabehera, hizkuntza inteligentetan, onomatopeia bat besterik ez dena bera, post, kokotean kosk. Zertarako jaikiarazten gintuzten (hain biolentoki, gainera) ez genekien goiz batez, egunari nolabaiteko hasiera emateagatik beste gabe, espetxe-lagun bati *egun on, zer egin behar joagu?* galdetu nionean, *post!* erantzun zuen sikuan, ez dakit eginda ala egiteko esan nahirik, gero biak eginda eta egiten agertu bazen ere. Hots egin ahala, esatea bainoago madarikatzea izan baitzen, begiak itxi, matrailak puztu eta belarriak atzeratu zitzaizkion, barruko zerbaiten lehertze bezala. Aurrizki beldurgarriak badauka, noski, bigunkera bat, kontsonante emakoi baten bitartez, plost, eta horixe zen tintontzia pupitre gainera iraultzean egiten nuena, pintura plost-modernoa, hamar bat urtera arte eskolan gerta zitekeen katastroferik handienetarikoa berau, gero handiagoak agertu ez balira, hala nola, armario ondo giltzatu batetik goizean atera eta arratsaldean gorde beharreko bandera espainolarri (ukitzeak maitatzen irakatsiko ei zigun) estufan puntaren bat erretzen deskuidatzea.

Zailena ez zen, hala ere, komodara heltzea edo alde egitea, baizik kalkulatzea haren gaineko zein trepetxuren azpian zegokeen zorioneko giltza, zerak behartzen baininduen, gordetzailleak ere lehenengoan asmatua izateko

kasualitateari aurea hartzeko adina argitasun bazuenez gero, denak banan-banan mugitu eta haztatzer, eta aurkitzeko zorterik bazen, tapiza altxatzer, herdoil-figuratxo miragarria hatz artera hel zedin. Kostako zen, hala ere, komodaren atea irekitzea, giltza-zulo metalezkoa jausia edo apurtua izanik, okil-zulo txiki bat bezalakoa geratzen baitzen zurean, zeinaren barruan ez zegoen erraz, lehenbizi, giltza sartzeko mihitxoaz azartatzen, eta gero, ez gutxiago, zabaltzeko behar zen puntua harrapatzen, ideia pertsonalik ez daukan burua baino holgura handiagoz alde guztietarantz. Pazientziak ez, baina denborak laguntzen bazuen, marrazki tailatuak erakusteko luxu zaharrari oraindik eusten zion ate-orri bata irekiko zen, gero besteari goi-beheetako barne gako-txoak aise aterako nizekion, eta han agertuko ziren, beheko apaletan izarak, kanpokoentzat bakarrik zabaltzeko gordeak; goikoan, zamauak eta ezpain-zapiak, urtean dozena erdi bat aldiz mahaia galanki jantzi ondoren, berriro ilunpera itzuliko zirenak; erdikoan, portzelanazko platerak eta zilar itxurako (itxurak salbatzen zuen izatea) tresnak; eta, noizbait ere, hauen artean kamuflaturik, edo beren beregi ostean ezkutaturik, neure jenero desiratuak, azukreak, gailetak, txokolateak. Hauek denek irribarre mihizkagarria egiten zuten orduan, nahiz eta bildukirik zaskarreanean etorri, zertatik gero aterako nuen aurkezpenaren artea baino askoz erabakigarriagoa dela harreraren desira. Tableta irribera haietariko bat eskuratzea ekintzarik exzitanteena izango zen, ez, hasita zegoen ondoko azukre-paketea, hatz erakusle ahoan bustia azukretzan hainbat aldiz sartu eta xurgatu gabe, beste behin, bestetxo behin, bestetxo behintxo, gorputz osoaren kili-kilian. Hasitako paketerik ez baze- goen, nork eutsi berria bortxatzeko tirriari?, gero lehen bezain txukun uzteko konfiantzan, nahiz eta azkenean uste baino lan zailagoak agertu beti eta, pre- sarean desgupidan, paper-muturrak erdi airean abandonatu behar, bataila go- zoan ziharduen jenerala potrozorrien izurriak jotzean bezala. Eta, jakina, hurrengo noiz izango zen Jainkoak zekien aukera hartara iristea hainbeste kosta eta gero, ez nuen alde egingo dozena bat gaileta poltsikoratu gabe, gero iluntzean, iturri bazterrean jango nituenak, ekintza dohatsuki burutuaren ur- guiluan eta niretzat arriskuen segida heroikoa izandako arrapaladatik libratu izanaren patxadan eta biltasunean, txakurraren inbidia lagun: *Nik gaileta, hik talo zatitxoa; ez haz kexatuko, diminutiboduna euri izten deuat eta*, nahiz eta jakin neure lagunik onenaganako gogorkeria uste nuenari ezingo niola azkenera

arte eutsi, *tirok, ba, eutso gaileta zatitxo bat, baina bat, eh!*, txakurraren aurpegi zelebren eta insistenteak gehiago ere lortuko zuen baina.

Gero amak, ez egunean bertan, bai aste barruan, nire burua episodio hartatik mundualdi batera zebilela, bat-batean itaunduko zuen, inolako kontesturik gabe, ez neuri bakarrean, zorionez, denok batera afaltzen ari ginen mahaian baizik: *Nork mogitzen jozak komoda gaineko trepetxuak? – Nik ez dakit ezer* –erantzun nuen, porrusalda-koilarea ahotik ateratzeko asti gabe, bizkortasun beharbada susmargarria edukirik baporosoenean zabalduz, oso geroago ohartuko nintzenez, zeren, haurrik gehienek (neuk ere gehienetan) bezala, *nik ez* erantzun banu, ondoren nondik etor zitezkeen ez nekien ebidentzietara arriskatuko bainintzen, amaren aldetik baino ez gutxiago, zeharka salaturik sentituko ziren anaia-arreben aldetik. *Nik ez dakit ezer* horrek, ostera, haurrak hain berandu arte, guztiz inoiz ere ez, eliditzen ikasten ez duen subjektu nabarmen eta guzti ere, ez zion erremedio gabe baieztatu beharrean aurki nintekeen okerrari perjurioaren astungarrik ezarriko, zeren, neu izanaren kasuan, beti zegoen, sinetsi nahi ez bazuten ere, erabat ezinezkotzat jotzerik ez zegoen ahanzturaren eskapua. *Nik ez* borobilen erreskada ordeztu, eurengandik itxaron zitezkeen beste senideen isiltasun burumakurra, bekoki guztiak plateretan ezkutaturik, unean bertan, hitzen ezagutza edukitzera, inhibizio insolidariotzat jo izango nukeena, euren buruen defentsan izan zen, antza, denak ere behin edo behin intentuan ibiliak izanik, inork ez baitzekien zein kasu zehatzi zegokion ama, zeinak isilaldia goitik behera, ikusi gabe sumatzen genuenez, obserbatu ondoren, konkluditu zuen: *Gurean inoiz ez da ezer jakiten!* Bazirudien epaia denon gogokoa zela. Hark ez zion auziari harago tiratu, dudarik gabe ondorioen sobrako aurrejakile; zigorraren eginkizunean eta ondorengo bete-arazpenean ez lanpetzea justifikatzearen, bazitekeen berriz halakorik ez zela gertatuko sinetsi zezan ere, giltza toki arras aurkiezinean gordeko zuelako, zuelakoan. Hartantxe amaitu zen nire litxarrerria behartuaren, nahiz eta, bide batez, ez guztiz kontsentitu gabearen, abentura zaputuz-hurrena, anaia-arreben inakzio segurrenik interesdun, baina niretzat behingoz guztiz salbagarriari esker.

Nire beldur nagusia, ez oharkabearren gutxiago aurreikusia, ez zen, noski, arestiko gertagai kezagarria, haur baten ikuspegi orokorrik ezak bakarrik burura zezakeena, baizik biharamun goizean, etxetik eskolarako oinezaldi lu-

zeegian, txokolate tabletari golkoan gertatuko zitzaion transformazioa. Far-
dela bizkarrean eta goitik behera ohi baino kontuzago, ni jaus eta bera puska
ez zedin, ez nuen atera nahi, baina atera behar nuen, bigunduko ote zen bel-
durrez; edo ez nuen atera behar, baina atera nahi nuen, beldur ondo zehaztu
gabeak ez baitzekien beharra eta nahia nola ordenatu. Ordu laurdenera, Mu-
nozelaiko laugune lasaia zetorren, bidaldia bitan banatzen zuena; beherantz,
Etxanoko elizaldea bistaratzen eta Etxano aldea erabakitzen bazuen, atzean
Torreburu aldea utzirik, gorantz alderantziz behar zuen. Zelai hartan, bideko
nahikari eutsi guztiek, batez ere tentazioaren figurara luzatzen zirenek, bai
etxe aldeko biltasunetik, bai Etxano aldeko (mundu aldeko) ageritasunetik at
zeudela, hots, inorena ez zen eremuan zirela baliatuz, *hementxe edo inon be ez*
hots egiten zuten, kosk ere bai, jaramonik ez zitzaieela egingo sumatzen bazu-
ten. Munozelai leku aproposa zen, izan ere, bere bidezidor lau, belar apatzez
eta goroldioz aldameduan, pinadi gazte berde-beltz joria ebakitzen zuen
zinta gorriska luzean, golkoko tableta nola zetorren ikusteko. *Ikusi bakarrik
eta barrero sartu*. Atera nuen eta haren zimurrei, berezko letra eta kolore alaien
gainean, alkoz begiratzen nien, hain baitziren graziosoak, batez ere angelue-
tako tolesen azpitik hatz txikia sartzeko moduko bitartetxo haiek, *sartu eta
ikutu bakarrik*, gero lehen baino dotoreago utz nitzakeenak. Buruak pentsaki-
zunak mailakatzen ziharduen bitartean, hatzek egina zuten euren lana: le-
henbizi haztatu, golkoaren epelean biguntzen hasia ote zen; gero, ezetz
erabakirik, baina goian zabaletara ageri zuen solapatxoa paperik apurtu gabe
desitsasten ahalegindu ondoren, tableta ertza han agertu zen, ezkututzen
zuena ikusgarriagoa zela iragarritz. Kontuz-kontuz, punta bat libratu zenean,
begien atzetik hortzak arin hurbildu ziren, eskuin letaginaren aldetik.

Zatia ahalik astiroen xurgaturik, egintza makurraren kezka dastamenari
erasten dion gainplazerrez, tabletaren punta jana, beste aldekoaren osota-
sunak nabarmendua, ez zegoen inorako aurkeztarri; laster erabaki nuen beste
haginkada batez biak berdintzea, oraingoan ezker letaginez. Bigarren ha-
ginkadak zati handiagoa kendurik, alde biak berriro ezberdin geratu zirenez
gero, eta batez ere letagin markak nabarmenegi ageri zirenez gero, aurreko
hortzekin berdinduz eta janez joango nintzen, ustez itxura naturalean uzte-
raino, zaila berau, itxuratik harago, gogoak ere, puntu hartara iristen hain-

beste kostatu eta gero, nekez onartzen baitzuen ezpainetara hain erraz eta gozo hurbiltzen zena bertan behera uztea. Laukizuzenaren alde txikiko bi erpin horzkatuak linean berdintzea ere pentsatu nuen, atrebentzia handiegia izan ez balitz, zeren orduko txokolateak, lodiak eta gogorak, ez ziren, orain-goak bezala, azpi-laukizuzen txikietan atalkaturik, ia nahi zen tokitik klakatzeko modukoak, karratu sendoak eta azalki markatuak baizik. Zabaletara bi eta luzetara lau karratu edukiko zituenari ilara osoa kentzea lartxo begitandu zitzaidan, eta hortzekin alderik alde berdintzen niharduen, ahosoinuaren forman utzi arte, esan nahi baita hortz markak oraindik ere bistan geratzen zirela eta, alderik alde mihizkatuz, leuntzen jarraitu behar nuela, bizi guztian hartu dudan obligaziorik gozoenetarikoan. Ez zen txarto gelditu, baina guztiz ondo ere ez, eta arestian lartxo begitandu zitzaidana soluziorik onen bezala intsinnatzen hasi zen, hots, bi karratuak eskuekin osoan kenduz gero, ilara guztiz berdindua eta hortz-markarik gabe geldituko zela, fabrikatik hara bezain natural, nondik lantzean bat akas dun etortzea ere gertatzen baitzen; gure amak erdi prezioan halakoxeak erosten zituela esatea ere bazegoen. Argumentu handiegiak ziren horiek, gozo-min erreprimitu hura Munozelaiko gordetasun inbiolableaz apur bat gehiago balia ez zedin; tabletari papera atzerantz korritu eta belaun gainean moztu beharreko zati irtenari, ahur-albo luzatuagaz lehenengoan beldurrez, bigarreanean zart emanik, ezpal bikaina jausi zen lurrera, ez guztiz linean baina.

Alde horzkatua bustiaren bustiz biguntzeaz zeukan txokolatean, imanera bezala itsatsitako pinu orriak kendu bitartean, mihia txistutuzan itotzen ari zen, begiek bidean zetorren langintza zoragarriaren erretratua bidali ahala. Katagorriaren irudi ezin bilduago eta dotoreagoa, intxaur mami artoski liberatua janez, ez zitekeen nire egintza baino gozatsuagoa izan, hatzez, mihiz eta haginez gainera, gorputz osoagaz ari bainintzen (arimaren aipua sobera dago hemen) txokolatea jaten, zertaz oroitzeak gero, grina guztiak garatutakoan, susmaraziko zidan orgasmoa ez ote den organismoaren redukzio bat besterik, erdian jan zaion subjektuaren desagerpenak bakarrik balio-handitzen duena. Amak ilara bat gutxiagoko txokolateak erdi-prezioan erosten zitu-elako argumentu trebea bururatu zitzaidanean, ez nuen aurreikusitako nola justifikatu nezakeen tableta berriro biltzen hasitakoan agertu zen paper-sobra

luzea, artaziak ekarri izateko argitasun imposiblea izan banu, txukun ebaki izango nukeena, nahiz eta letra batzuk mutilatu, eskolakidearen burugogortasunak (abusatzaile izateari, zorionez, gaitz txikiago bezala bada ere, gehienetan dagokionak) igarriko ez bide zituenak; gaiztoa eta argia batera denen bat ondoan egokitu bazaizu, zure zoritxar infantilarentzat ez dago eskapurik. Hatzekin ebakitzen hasita, nolako baldar-lan nabarira arriskatuko nintzen sumatzeko (edo beldur izateko) adina sen izan nuen behintzat, eta paper-sobra ahalik estuen eta txukunen tableta gainera tolesturik, berau berriro golkoratu eta, denbora galdua berreskuratzeke baino ez gutxiago, ezpainetatik oinetaraino gozo sentitzen nintzelako, trosta saltariari eman nion, harik eta, Munozelai gurutzatu ondoko aldasbeheran, Etxano bistaratu zenean, eskolaren irudi zapalean eta eliza garaiaren ez-ikusian, Blas 'Trauku'-ren (hala zituen izen-gaitzizenak) aurpegi mugerra eta bigungaitza hauteman nuen arte. Hantxe aurkituko nuen bera, eskola osteko eta hilerri aurreko zelai aldasginean, denak haserretuta ziruditen eta jokutzen bainoago oihukatzen ari ziren futbol-partiduan. Denen artean ezin zuten ekidin gomazko erdi-baloi berdeska eta zimelduak beherantz eskapa zezan, Blas Traukuren ahotik taldekideei aginduak eta arerioei mehatxuak tonu berean irteten zirela.

Erreparatu zidanaz batera, dena eta denak bertan utzi (zertatik ateratzen den haren aurreko garrasiak behargabeak edo inefikazak zirela) eta arbitroa entrenatzailea amonestatzera oldartzen den moduan hurbildu zitzaidan, nahiz eta berehala, bi eskuak nire sorbaldetan ezarri eta askoz gorago zeukan bekokia nirearen parera makurturik, ia ahapeka itaundu zidan:

– *Txokolatea ekarri dok?*

– *Bai.*

– *Goazen komunetara*–. Bakarleku gehienik urgentziazko bezain azpikoi hartan, neure tableta maitea golkotik eskura eman nioneko, mehatxu egin zuen: *Honek zatia falta jok!*

– *Gure amak horrelakoxeak erosten ditu.*

– *Amak honelakoak erosi? Eta mustur bueltan daroaazen txokolate hondarrok zer?*

– Nondik gainditu ez nekien isilaldi pozoitsu baten ondoren, ekin zion: – *Honaino ez al jak mihinik heldu?*

– *Ikututxo bat egin deusat, baina egia da. Gure amak horrelakoxeak ekartzen ditu, erdi-prezioaz baliatzearren.*

– *Esaiok hemen osoek bakarrik balio dabela. Bihar badakik zer egin behar doan. Beste honelakoxe bat, baina osorik. Amari berba erdi esan badeiok, heuri kenduko deuat narru osoa–. Ezarriko zidala susma nezakeen obligazio berrian, eta berak ematen zidan beldurraren gainetik, ez dakit nola izan nintzen erreklamatzeko gauza:*

– *Bihar osoa ekarri behar badot, bihurtuidazu gaurkoa.*

– *Ez, Pontoni! (zertatik neugandu nuen ez dakidan gaitzizen italiarrez). Hau irabazi egin behar dok, bihar goizean tableta osoa ekar daiaanean.*

Ez neukan itxaropenik, hain historia luze eta estuaren amaian, gozagarri hura behintzat eskura nezan, zeina, hala gertatzera, berriro komodara itzultzeko asmo zintzoan abiatu arren, senak ematen zidan, gero bidean, bidearen luzeagian, tentazioa indartsuagoa izango zela aldasgorak makaldutako nire gogoan baino; eta halaxe komeni, okerreanean ere, gutxiago bainintzen amaren beldur, Blas Traukuren baino. Bigarren lapurreta egin beharrak ez ninduen hainbeste larritzen egintzagatik beragatik, nola biharamuneko eskolara bidean, berriz ere tentazioari ezin eutsi izango ote nion susmo fatalagatik.

Txokolatearen abentura dohatsu-dohakabea errepikatzetik libratzeko modurik naturalena, dudarik gabe, neu ere Blas Traukuren eta beste guztien atzetik errekaratzea izan zen. Ohiturak lagunduriko inkontzientziak historia hori bezalako hamaikaren segida posibleari putzura saltatuz aurea hartzeko sena garatu zuen, izaera probidentzialki beldurtiari esker. Uretan geunden, genbiltzan, menperatzen ez dugun medioan, mutikoen gangarreriak balentriarako aurkitzen duen nahasmenean, haien grina jainkotxoek, ezen ez talentuek, suposatzen baitute eurei beldurgarri zaienagaz besteak gehiago ikaratuko dituztela. Lohiak sakonera ikusgaizten zuen arren, besteen gorputzetatik ur meheko ageri zen erdi aldera sartu ala ez, haltz adar bati heldurik, bazterrean dudan nengoen, mazia purrustari haren inbidia baino handiagoa baitzen jainkotxoren batek burua urpera ziezadan beldurra, *hator hona; ez jak ezer pasatuko*. Berez ematen zidan konfiantzaz gainera, besteen apokerietatik babes-

tuko ninduela fidatzen nintzen mutil nagusi bati, Asen Alakari, jaramon egin nion eta hantxe nenbilen neu ere, lupetz hondakinak garbitzen, Jainkoaren eskutik hara lehenengoz ibairatu zirenen berritasun hozkirrian. Orduan bertatik bertara ikusten baino sentitzenago nuen plisti-plastaren gaineko zarate-riak, mende erdi honagotik, gortu egingo ninduke, beste erreka handiago eta neuretzat bakarrik den honetan burua aldizka murgilduko ez banu; oroimena ez da beti indargetuz doan uhina, handituz datorren olatua baizik. Burua be-rriro azaleratzean, Blas Traukuren ahotsean, *neskak!* oihu ezin zorrotzagoa dantzut, beste guztiak berehala darraiotena, *neskak! neskak! neskak!*, tximino begiralearen alarma-irrintzia aldra guztiak errepikatzen duenean bezala, mezua argi jaso dela adieraziz. Horrek ez ninduen hainbeste harrituko, hanka-joko zoroari eman ez baliote, urak bat-batean irakin bailuen. Denak, nire babesle Asen Alaka barne, baita aldran zebilen anaia zaharragoa ere, erreka bazterreko norbere arropa multzoa harturik, pinadian barrura edo arroan gora ezkutatu ziren, begiek aurrenen erakutsi zieten ostera, ez atze-rantz ujuen erretagoardia bat utzi gabe, tartean aieneak eta negarrak ere bai, oin gorrietan harkosko edo trukutzen bat sartu zitzaienen aldetik.

Amen batean, handik mende erdira nagoen bezain bakar geratu nintzen putzuaren erdian, nahiz eta, mende erdi lehenago, sakabanatze biolento haren esplikazio uler-zailagoz, oraingo inor-ez jabalaren baino. Putzua azkar garbi-tzen ari zen, eta neure atsegin txaplarian, lagunengandiko zaskarrerien beldu-rretik libre, gustura gelditzeko moduan nengokeen, beste beldur batek jo ez banindu, ez lagunek katu hila erdira jausi zaien untxiek bezala ihes egin zu-telako, bakar-bakarrik geratu nintzelako baizik. Bakartasunak, bost norabi-deetan itsas-izarra bezala luzatzen zen etxe inguruko neure eremuan hain lagun min nuenak, eta handik at ere ikartzeko aurpegirik ikusten ez nionak, bat-batean gertatua bazen, arriskupe gordinak bezala larritzen ninduen; nire-tzat orduan arriskua ez zen inminentzia ezezagun bat, edo oker generikoen deitura bat, oso forma zehatza baizik, begiak eta belarriak zeuzkana, bela-rriak batez ere, nahiz eta gizateriak artean sortuak zituen deitateen entzute-rik ez izan. Begi-belarri haiek ez ninduten ezagutzen; besteen artean nengoela, ez ziren nitaz ohartzen; bakarrik gelditzen nintzenean, ostera, agerian batez ere, pinu soil baten osterik ere gabe, ez zeukaten neuri erreparatzeaz beste

erremediorik, euren lana nahitaez burutu behar izateko. Orain esan dezaket bakartasun batzuetan gogaideen eta beste batzuetan ihestunen konbinazio egoki batek naukala bizirik, zoratzekoa bailitzateke ohartzea konbinazio horrek kasualitateak deritzegun zenbat arrisku fatalen albotik pasarazi gaituen.

Oraingoan, hain alarma nabarmenaren motiboa *neskak* izan zitezkeenik ez nuen sinetsi, eta pentsatu nuen, nik ikusi gabeko beste mehatxu izugarriren baten aurrean, laguntza-eske baten oihua izan zela; baina orduan gutxiago ulertzen nuen zergatik neskek etorri behar zutenaz guztiz besterako norabidean ezkutatu nahi izan zuten, izugarriaren ikuspenak koherentzia oro itsutu ez bazien, zeraren kasuan hobe nuen neuk ere errekatik lehenbailehen alde egin, ez hain ikaraturik ere, aurretik berbaroa entzuna nuen eta konfiantzaren ordezkartitza zirudien neska-taldea oraintxe ageri baitzen Abeletzako bidegurutzean. Neure arropetarantz nindoala, pinu osteetan eta sastraka kontretan, apenas zeukan inork bere zokondoak lehertzeko astirik; hankek praka-zulorik asmatu ezineko arrapalada tximistatuak nekutsen, azkar ibili ezik, hastera doan batailak bertan harrapatuko dituela abisatu zaien pailazoan antzekoak. Janztea laster burutu zuten bakanak azaina handi batetik bueltan bezain harro eta papartsu zetozen; horrek are zurtzago uzten ninduen, erantzitik jantzirako bitarte hain ezerezean, zer klabe egona ote zitezkeen, iheslari joan zena bat-batean garaile itzul zedin.

Bi mutiko, ni baino pare bat urte zaharrago, tema bizian entzun-ikusten nituen elorri mehatz baten erdi-transparentziazatik, borroka gordinerako zorian, batak besteari arropak ostu zizkiola eta; hirugarrenak, kazkonduagoa berau, hurbildu eta bulto bat erdira jaurti zien, hots eginez: *Eutsue, txorokilok, kaka-moltzo hau, ea nes karen bat inketan jatzuen!* Honek ere neskak zerabiltzan ahotan. Ni, bitartean, neure arropak atondu ezinik nenbilen, ondo lotzen ikasi ezin nuen tirante haiek, atzean gurutze eta aurrean zubi egin beharrekoek (sekula osorik ez zeudenak, gainera), behin jaregin, behin trabatu, dena zailtzen baitzuten. Abarka kordelekin ere bazen nahikoa endredo, eta errazena hautatu nuen: hartu arropak eta neska-aldran etorri behar zuen arreba zaharragana joan, janzten lagun ziezadan. Esku artean soineko eta oinetako multzoa elizan eskaintza egiteko posturan zeramala, han zihoan nire larrugorri

tantakaria, txikia baina osoa, nesken taldera zuzen, ur bazterretik joateko arduraz, erditik berdin zen arren. Errekastoa besterik ez zen, inklinazio oso txikiko tramuan eta oinezbideagaz ia bat eginez, goragoko harrobitik hondar gorria kostata arrastatzen zuena, bidean hondartza ñiminoak eta tarteka putzuak deitzeko adinakoak sortuz, harik eta, Abeletzako bidegurutzean, amildegia sakonera bertikal jausi arte. Hondartza haiek sobera handi ziren nire hatz potoloentzat eta palutxo behin zirikatzaile, behin marrazkigileentzat (marragileentzat, alegia), eta, batez ere, euritea han behera nola joango zen imaginatuz harritzen zen (berak imaginatu, bera harritu) nire pentsamarentzat, zeinak burua apurtzen zuen (inoiz ere ez doikiago esana) bitarteko euri mardulak bezperako marrazkiak osoan eraman ote zituen, eta, hala bazen, nola moldatzen ote zen, halako lanak gauzez egin behar zituenean. Eurite handian, erreka loditzea ez zen hondartza txikientzat kaltegarri, zera mana baino gehiago uzten baitzuen atzean, euri txiki eta mehatzen alderantziz, zeintzuek ezer gutxi eraman, baina bat ere ez zuten ekartzen, haize ez oso eraginkor baina bai ekinkorraren laguntzaz ahaztu gabe. Hondar ezaldiek ez ninduten hainbeste kezkatzen, aitzitik, maiz desiratzen nuen azpiko harri-zoru zabala eta leuna ager zedin, plater, katilu, lapiko eta etxeko tresna guztien formako kofaguneak erakusten zituena, zeintzuetan esperimentu moldatzaile guztiak egingo nituen, apaburuak eta zapatariak preso hartzea barne. Azkenean, haietaz abusatu ez ote nuen kezka bizirik eta sano bidaltzen nituelako eskuzabaltasunean ezabatzen zen, dena neure harridura zoriontsurako, zeina ez baitzen orduan jabetzen kointzidentzia bitxi hura ez zela errekek gure etxeko tresneria erreplikatzeko adeia zeukalako, nire talentua figura haiek etxeko gauzez beste ezerekin ez asoziatzeko bezain primarioa zelako baizik.

– *Zer egin dok?* –hots egin zidan neska taldetik bide erdira irten zen arrebak, etxeko txikienarentzat (geroago beste bat jaioko zen, zeinaren berririk oraindik probidentziak ez zeukan) itxaroten ez nuen ahakar publikoan.

– *Erropak ezin dodaz jantzi.*

– *Erantzi, erantzi dozak, ba!*

– *Denek erantzi ditue.*

– *Busti-busti hago barren!*

- Errekan ibili gara.
- Nortzuk?
- Denak. 'Salto hik be!' esan deuste, eta salto egin behar izan dot.
- Egik buelta. Sartu eskua hemendik. Hori ez, bestea! –Erdi belauniko zegoen arre-
baren sorbalda gainetik, neska taldera begiratzan nuen, neu ere euren barre-
etan sartu guran, nigatik egiteko baino handiagoak ziruditenak eurak–. Orain
prakak. Altza hankok!
- Biak zelan altxatuko dodaz, ba?
- Belarrietatik eskegita. Sartu hemendik! Bestea. Eutsi prakoi, tiranteak lotu arte.
- Kezkatzen nintzen lanak amenean amaitzeko arrebaren presaz, iheserako
motiboa gainean bailegoen, neuk inondiko alarma motiborik ez nekusela–.
Imanol non jagok? –itaundu zidan, anaia ni baino zaharrago eta bera baino gaz-
teagoagatik.
- Besteekin joan da.
- Besteak non jagozak?
- Ez dakit. Denak osteetan ezkutatu dira.

Orain haiexek etortzeko beldurra besterik ez genuen behar, denak izutu-
rik barreiatu ondoren, ia mutur-zirkulu perfektuan zeuden txerrikumeen er-
dira galdara bat jausirik bezala. Mutil jantzien buru jariatsuak, goroldio
berdeska eta guztiko, bistaratzen hasiak ziren pinadi ertzetan behera, neskei
jajaika eta axutka, hil-biziko altxorren bat doi-doi gordetzeko balentria buru-
tzetik bailetozen; neskek, lantzean batek bere neba gazteagoei jaurtitzen ziz-
kien destainez harago, ezer garrantzizkorik galdu zelako penarik edo falta
zitzaielako ernegurik ez zerakusten, aitzitik bazirudien askoz gehiago esti-
matzen zutela ustezko ondasun desagertuak bueltan ez etortzea.

- Abarka kordelari zer egin deusak? –ari zen nire arreba bere lan beltzu-
rian–. Ezer be ez!
- Honena non jagok, ba?
- Hortxe egongo da.
- Hortxe non? Hemen ez jagok lupetza eta txarrikeria besterik.
- Sasiren batean kateatuko zen.
- Belarririk ez jak sasian kateatu?

– *Itzion, kordel bat gora behera!* –esaten zion neska taldeko nagusietarikoak, pozik entzun nituen berbak eurok, baina bazirudien gure arrebak etxeko autoritatea osorik beregaintzeko unea zela erabaki zuela, ipurdian zaplada bat, beragatik baino inoren aurrean hartzeagatik mingarriagoa, emanez, agindu baitzidan: *Joan eta topatu arin! Heuk jakingo dok nondik nora ibili hazen.*

Arropak utzi genituen erreka gainerantz bueltan nindoala, gordelekue-tatik, mahats-janera deituak liren azeriak bezala, animoso zetozen mutile-kin gurutzatzen nintzen, hauek saltari eta ijuilari, ni burua golkoan sarturik, negar isil eta ia ugariz, inguruko zalaparta alaian tristuraren bi-dazti bakar. Lantzean-lantzean, parean pasatzean, *zer jazotzen jak, txotxo?* galdetzen zidatenek ere aurrera egiten zuten presaka, nire erantzunaren arretan (lortuko ez zutena, bestalde) apur bat atzeratzeak ospakizun oroko-rretik kanpora jaurtiko bailituen.

Nire negarra benetakoa zela esan dezaket, axanpa baten sakonetik ha-rakoa, hots, motibo argirik eta jakinik gabea, haurrak gehien beldurtzen dituen hutsune iluna bezalakoa, nondik malkoen mutismoa besterik ez da-torren. Beste negarrak oso ondo identifikatzen nituen, hala nola belarriko minarena edo mailuagaz atzamarra jotzen nueneko. Edo amorrutarena, zerbait ustez bidegabeki debekatzen zidatenekoa, esaterako: afal ostean amamarenera joatea, edo txakurrari ganbarara deitzea, han galtzu artean lehertu arte jolasteko. Edo engainuarena, zerbait garrantzitsua lortzeko, negarrari emango niona, negar ondo estudiantua, zotintsua, minberatua, ez eskandalosoegia, errukarria hitz batez, esaterako: neba-arreba zaharrago-ekin txitxi-burduntzira edo Urte Barri kantatzera joaten utz ziezadaten. Edo alarmarena, negarra bainoago arrantza zena, esaterako: behiak galdu-rik, inpotentzia urrunera aldarrikatu behar zenekoa. Edo, beste gabe, erru posibleari (neu guztiz bestera konbentziturik egon arren, hala har zezake-enari) babes-kanpai egingo ziona, zeren hain ozenki negartzen denari zer zigor ezarri behar diozu, negar handiagoak egin ditzan? Hauetan eta beste modalitaterik gehienetan (ez naiz 'guztietan' esaten ausartu, haur baten negarbideak bere inkontzientzia sortzailearen egintzak bezain kontaezinak izan baitaitezke), banekien zeri eta nola negar egin, eta horixe izan dai-

teke negar haiek gerora gomuta pozgarrizat etor dakizkidan arrazoa: neure kreazioak ziren.

Baziren, ostera, negarrak, urteen buruan ere mindura gabe gogoratzen utziko ez zutenak, sorreran bertan mingarriegiak izan zirelako, mingarriena izanik zerena edo zergatik zen ez-jakinean sentitzen zen atsekabea, Abeleztan gertatzen ari zen bezala. Izen gabeko tristura gorputz burugabe bat agertzea bezala duzu. Nori mintzo zaren ez dakizula, ihesari damaiozu, baina atzetik derraizulako sentipenak abandona zaitzan lortu gabe. Itzarkera triste horietan bezala, non erruduna dela ziur zauden ameskaitz etenberriak, osorik eta zehaztasunez ekarri ezinik zabiltzan horrek, harimutur iheskorak eta inkonexoak bakarrik erakusten dizkizun, oihan trinkotik kuku eginez batera ezkututzen diren piztiak bezala. *Hor konpon! Agertuko zarie, gura badozue,* diozu garaile guran, baina ez du balio, oihana zeu baitzara eta sentipenak hortxe baitirautzu. Zure begirada esentzialki esternoak ezin zaitu inondik ere zeure barnean sarrarazi.

Neskengandik urrunduz nindoala, bueltan zetozen mutilen kontrabidean, neure baitarantz muskiltzera ninderamana ez zen mesprexu-ustea ere; sentipen horrek, bost urteko haur batengan dedukzio garatuegien ondorio izanez gainera, zerbaiten objektu edo mira sentitzea zekarkeen, orduan ausartu izango ez nintzatekeen mendekuzko erreakzioa ez izanik ere, gutxienez kontramesprexu sekretu baten neutralizazioa eragin zezakeena. Hondakin sentimendu bat zen, hain halakoa, non arriskuak ere nitaz desohartuak ziren. Adibidez, nire burua erremedio gabe txikitzen-txikitzen zihoalako sentipen ezerezleak, eltxoaren tamainara uzkurturik ere, ez zuen lortzen, ez enara bedeinkatuak, baizik ezta txepetxa bezalako txoriska arruntak ere irents zezan, errakuntzaz ez bazen, zerak ere apenas dirudien aintzat hartzeko era norgarria. Txepetx hori zientifikoki 'Troglodytes Troglodytes' izanik, ez da harritzekoa burdina gainean "seguru ote dagan" tentatu behar izatea. Sugeak lepora edo zakurrak paparrera salto egin balit, edo, beste gabe, jausi eta muturrak apurtu banitu, arrebak eta neska guztiek, mutilek ere bai agian, bihotz-erdituraturik altxatu izango ninduketen. Ostera, neure territoriotik kanpoko bakar-tasunetan elkarren lehian beldurtzen ninduten arriskuek ere abandonaturik,

abarka-kordel uger baten bila nindoan, makila batek joa eta baztertua izateko arretarik mereziko ez zukeen sasian eskegita bera.

Aipatu hondakin sentimendua izango da inexistenziara (existentzia ez daiteke, haur baten oraindiko norberatasun kontzientziaren faltan, besteen-gandiko islapena besterik izan) gehien hurbiltzen dena, irits zoriaren esturak guztiz iristetik libratzen duena; nik orduan bezala, zergatik garbi ez dakiela, arranguraz negar dagienak bakarrik errepresenta lezakeena. Esplikazio hauek nire orduko buruan guztiz ezinezkoak izateak ez dio ezer kentzen gertakariaren egiari, zentzugabeki onartu nahi ez bada esplikazioa dela gertakariaren sortzaile, nahiz eta, beharbada, onartuko nukeen, eta dudarik gabe onartzeko desiratzen nagoen, gertakaria bere esplikazioan osatzen dela, zeina, halaber, bakarra eta osoa sekula ezin izatetik, memoria artatsuak gertakaria bizi guztira luzatu ahal izateko ondorio dohatsua ateratzen duen.

Nire arrebaren jarrerak ere, ez beharbada zaskarra esateko adinakoak baina bai mukerrak, osatua izateko, esplikazio bat behar izan lezake, berak segurrenik ez orduan ez inoiz bilatuko ez zuena, maiz gertatzen baita batengan sortu ekintza beste batengan esplikatzea; edo biengan bada, oso era ezberdinetan, pasioren bat tarteko denean, mortalki kontradiktorioak izateraino. Eta dena berriro ere memoria bati esker, zeinak gertakariak, sentituak diren neurrian, bere baitan gertatuak baino ez gutxiago naturalki inorenean gertatuak, ez dakit gogara handi-txikitzeke, baina bai bere erara atontzeko ahalmen deabruzkoa daukan; hori Jainkoaren ahalguztia ezingo luke eduki. Gakoa asma-tzeko moduan nagoela uste dut. Neba txikia denen aurrean biluzik hain bakun eskuetara etortzeak, beste neskalagunengan, Torreburuko mendian beti halaxe ote genbiltzan susmo apalgarria sor zezakeen (herri guztian zabal zitekeen) beldurrik ukatu gabe, ia ziur nago, urrunean begiztatu nindueneko, haren hamar urteko buruaren estura nagusia galtzontziloak zirela, *ene ama! zerk agertu behar ete jon hemen oraintxe!* Ez noski, oraingo hiritar argiak bizitzaren aldakuntza hain azkarren gainetik ere aise igar lezakeen moduan, haie-tara kaka eginda ote nentorren beldurratetik, baizik galtzontzilo gabe agertuko ote nintzen lotsariatetik; nire oroimena ez da arduratu, benetako gertakarian, eza ala baia izan zelako osagarri ezdeusa gordetzen, suposatzen

baita, nire arrebaren gogoan, galtzontzilo gabe agertze posiblearen susto antzipatu huraxe izan zela gertakariaren gorputza.

Hurreratu nintzenean, edo bera bidera irten zitzaidanean, soineko multzoa antsiaz arakatuko zuen, errekatik atera berri duen arraina orbeltzan ezkutatu zaion txakurak bezala, baina umore minagoz, zorioneko prenda hura ba ote zen; bestela, hantxe agertuko zatekeen oraindik galtzontzilorik (eta auskalo zer besterik) ailegatu gabeko gizarte-hondakinak ginela. Prakak janzten hasiko zitzaidan eta neska kokolaren batek ohartaraziko zion, maleziaz baino hain gabe mingarriago izateko moduan, kasu honetan deskubrimendua txokanteago gerta baitzitekeen, galtzontzilorik ez zidala jantzi; orduan arrebak, ahotsa nondik etorrarazi ez zekiela, azaldu beharko zuen gurean ez zela galtzontzilorik ohitzen, lehen-jaunartze eta halako egun handi-handietan izan ezik. Neskalgun kokolek, hots, etxean ikusi gabea posibletzat imaginatu ezin zutenek, *aahh!* auhen egingo zuten, dezepziotik penara; maleziadunek barre egingo zuten, kasua euren etxetik ez zutela ezagutzen fingitzeko era gangarregian. Arrebak, egitekoak eginda, abarka-kordelaren bila bidal nindezanean, *hau don txiza-larria sartu jatana!* –hots egingo zuen–. *Estaldu naizue mutil zaskarron bistatik*, eta gonak okozperaino jasorik, lotsa haginkatuz, hankazabal kokorikatuko zen, pantaloiak orkatiletaraino jaitsita, bazeuzkala argi uzteko, txiza ekartzea kostatzearen larritasuna erakusketa luzatzearen abantailak konpentsatzen zuela.

Galtzontziloekin eskolaratzen hasi ziren mutikoak etxe onekotzat jotzen ziren, baina okasioa inoren bizkarrean gertatzen zenean, hain gabe zebiltzan gizarajoak ere burlagaitzat hartzen ziren. Batzuk zein bestetzuk, prakak apurtzean (ohiki higatu samarrak izanik, maiz gertatzen zena berau), ez ginen hain beldur geure berezko zokondo guri, ez garbiegiak ikus zitzaten, nola praken azpian beste prendarik eza nabarmen zedin; baita, tamaina batean, bueltan etxean izango zen haserrearen beldur, non, *ikusi egin al haue?* galderan, gure gordegaiena baino handiagoa izango zen beste gabetasuna azaldu ote zen kezka. Prakak gehienez atzetik lehertzen zirenez, batzuetan tarratada bata (oihalezkoa) besteagaz erratzeko moduan (beren beregi ere bai inoiz, disimulatzearen, ez-tul-metodoaren maleziara iritsi aurretik), ulertze-

koa da gehienok aurea baino atzea erakusten lotsago izan gintezen, orduko komoda-ispiluen laguntza eta guzti ere, inoiz ganoraz ikusterik lortu ezin genuen jakintza maila hartan, ez baikeunden segur zer erakusten genuen, besteena ikusi izanaren analogia burlagarritik ez bazen. Banaka batzuk, ausartagotzat zeudenak, arrazoi beraz baliatuko ziren, atzea nabarmenki luzaturik, uzkitik eguzkirainoko (hura honen kontrakzio) zirritu guztiak anpliatzeko, zer erakusten zuten garbi ez jakitearen lasaitasunean.

Gizarteko bizi-mailen banakuntza ere galtzontziloen erabileran islatzen zen. Etxean aititak bakarrik jantziko zituen, errespetura iritsi izanaren aitormen aitzakian, aldekoak (laxoegiak) hobeto biltzeko (feriatik bueltan batez ere), eta amamaren bista imaginatiboa larregi ez desorientatzeko. Orduko soinu txikien baxu elementalak ziruditen bost-sei botoi handi eta betiko josien ilara bertikalak (zein zeinetan inspiratuak ziren jakin nahi zuenak bi aldeetara aurkituko zituen motibo musikalak) ez zeukan, noski, behinolako (hain gutxi oraingo) ezein gotorlekuren aurrealde pretentsiorik, baizik etxeko prenda errespetagarrien ohiko jostuna zen amamaren bistak eta hatzek, hura laburtzen eta hauek dorpetzen has zitezenean, orratz geroz lodiagoak sartzeko, zulo nasaiagoak eta, beraz, esfera handiagoak beharko zituztela. Eskolan, batzuek bakarrik gehienetan, gehienok batzuetan bakarrik, erabiliko genituen galtzontziloak; esaterako, Gabonetako antzerki egunean edo urtean behingo Gorlizera txangoan, non amen ardurua nagusia, *galdu barik ibili gero!* betikoaz hurrengoa, *galtzontzilorik ez galdu gero!* izan ohi zen, bai baitzekiten, uretara sartzen baginen, gero janzterakoan, ohiturak praktetara zuzen eroanik, galtzontziloak haitzean ahantziak izan zitezkeela, naufragio baten hondakin, hurrengo itsasgorak bazterrerago jaurti edo ur handira atera zitzan, ezpata-arrain katxondoren baten buruan munduari itzuli lasaia egiteko, lau-rogei egunen konpromiso gabe.

Jaiegunetan beldur handiagoa genion prakak apurtzeari (arrazoia ez dut errepikatuko), batez ere elizkizun aurretik bazen. Eskola sasoiak ez eze, geroago ere, korutik meza kantari, aldare gainean baino santu ez beharbada ogijaleago baina bai alegreagoak ikusita nago mutikoen bankuetan, baten bat aurreko ilarakoari azpitik bernetan zirri egitera makurtzean, berak atzekoei

nolako agerpena eskaintzen zien ohartzen ez zenean. Urteko dozenaren bat egunik handienetan (agorrileko Andre Maria, Erramu, Ostegun Santu, Ostiral Santu, Bazko Igande, Eguberri, Urte Berri, Erregen, San Jose, San Pedro, Santiago –‘cierra España’ barik bestea–, San Inazio, Santa Luzia, Santa Denadela... zeintzuongatik ez izatera, inoiz ez genuen prakarik aldatuko), uste dut gehienok (bizitzak sobera irakatsi dit ‘denok’ sekula ez esaten, jeneralen artean ere gertatu izan baitira salbuespenak) osorik janzten ginela, aitita defunturen galtzontzilo luzeak mozturik bazen ere; botoiak zarratuago, hori bai, eta txikiagoak, hots, amamak barik amak moldatuak, beti ere haren onespezez, aititaren barruko prendei ez baitzegoen ukitzerik, amamak nondibait batua zuen jurisprudentzian, hil eta hiru bat urtera arte gutxienez; lutualdiko biak gehi beste bat, badaezpada. Kasua da orain ‘praketara kaka egin’ esamoldean hizkuntzaren irudimen sorpresiboa aurkitzen dutenek (halakoxea behar bailuke galtzontzilorik zikindu gabe hartarako gauza denak) ez dutela pentsatzen euren oraingo ‘hortzak erakustea’ zer fantastiko eta barregarri gertatuko den hortzak irteteko ohiturari aspaldi utziak diratekeen irakurleentzat. Egia da nesken kasuan zailago zela, arrazoi moralez eta biologikoez gainera (hauengatik baino haiengatik gehiago), mutil okerren jokoetariko bat (zein mutilek ez zeukan egunean okerraldi bat?) nesken gonak astintzea baitzen, zeintzuek euren etxeetan leherrak egingo zituzten, eskolara pantaloigabe joan baino lehenago. Neuk ere, gona-jasotzen ibiltzeko ez-ausardia ikusmira egokien senez ordeztzen nuenak, aurkitu izan nituen halakoak, irrirts bainoago erruki ematen zutenak; neskato kozkonduak inoiz, gona haizetsuen indefentsioan, ganorabako familien estigma zeramatenak, etxerik pobreentan ere ez baitzitekeen izan, nondibaiteko oihal zatiekin, alaben iztai inguruak gorde ezinik.

Hamaika urte egin berri nituela, fraile joateko arrea prestatzeko komentutiko zerrendan, ‘pare bat pijama’ eta beste hainbat prendaren artean, ‘lau galtzontzilo-pare’ etorri zenean, gure aita fantasiosoak ez zuen nonahi kontatzeko eszenarik galdu, esagerazio handi gisan: *Gure mutikoa dozena erdi galtzontzilo behar diren lekura joak. ‘Dozena bat morroik zerbitzatzan daben jauregira’* esan balu baino harrotasun ez txikiagoz. Edonon zeuden komentukada haien berri, zaila bazen ere, ez zekitenen aurrean, harridura guztiak lortzen zituen,

batzuk egiazkoak, beste batzuk paluaren jarraitzaileak, haize teatralaren azpi-intentzioek ardura ez zietenentzat berdin efektiboak, ez baitzuen argitzen euren mutikoak, 'dozena erdi galtzontzilo-pare' haregaz, urte osoa igaro beharko zuenik, jan, lo, ikasi, estasiatu, ibili, arrastatu eta dena eginez (egintza dekorosoak bakarrik aipatzeko), komunak ilaran zeuden barnetegi zorrotzean.

Ehun eta berrogeita hamar bat buruko komunitatea (disziplina armatua gainera deskargatu ezik, ugerrak eta logurak jango zukeen zaparroteria in-tsektukara hari 'komunitate' deitzeak esan nahi du literaturan ez dagoela mugarik), paseo eguna tokatu zen batez, Zornotzatik Autzaganeko mendatean gora zihoan, pinguinoen ilara otzanean. Ni lasai lehenengotan, kilometro bat ingurura, Ategorri parean ohikoa zenez, Larrarantz hartuko genuelakoan, non ordena bereko nobizioen komentua zegoen. Ez, bada! Autzaganerantz jarraitu behar ei zen, eta orduantxe ni larri, han goian, mendiaren eskuin aldera, geure etxea baitzegoen, nondik mendate guztia begizatzen zen, alde-rantziz ere bai, beraz, eta zeinak, hurreratu ahala, nire sentimenaren urradurarik mingarriena abiaraziko zuen. Neure objekturik maiteena, behar-bada egiazko maite bakarra, bere inguru bereiztezina barne, denei erakusteko izan beharko nukeen irrika irentsirik gelditu zen, *han bizi haz ahuntz artean?* burla imaginatuaren aurrean, ez hainbeste burlaren hartzaileagatik, neure gairik kutunena zenaren irainagatik baizik. Mina gordinago bilakatzen zen, onartu beharra baineukan, inpotentziaz, etxearen kexu salatia: *Lotsa ekiditeko egoismoarren, ez-ezagun egin behar al deusak heure maiterik behinena ei noken honi?* Larritasun horiek estaltzeko, ohi baino berbaldunago nindoan, barruak eskatzen ez zizkidan okerreriak eginez, eta gure etxea zein zen bazekiten fraile jagoleengandik ahalik urrunen. Bat-batean, errepedearen beherakada txiki bat hasten zen Katiako bihurgunetik hurrengo bihurgune berriro goranzkoan, fondoaren goienean gure etxe Torreburu ageri zela, emakume bat hauteman nuen, eskutik umetxo bat zekarrela.

Gure amak etxe gaineko horizontetik frailekume pinguinoen komunitatea Autzaganerantz ikusi zuenean, bi urteko anaia txikia preparatu eta biga-dera irteteko buruera xarmagarria izan bide zuen. Esan gabe doa gutxien

itxarongo nuen agerpen hark aurretik irabioan zebiltzan erraiak ahoratu zizkidala. Bihurgunetik bihurgunera bitarteko barregunean, orduko trafikoa mehatz eta mantsoan, fraileak bazterretik eramaten saiatu arren, errepidea alderik alde hartua zuen bruzateria txiliotsu haren gainetik, ume bat ageri zen, praktaxo labur, urdin eta tirantedunen azpian niky zuria eta oinetan zapatila gorritxoak galtzerdi zuriekin zekartzala, baso-bidean dudarik gabe lepoan ekarri izango zuen amaren eskutik; atze urrunean, gure etxe xotil eta tentea ageri zen, edonondik bistan egoteko maleziarik gabea, udaberriko argitasun berdearen berdez ilunkaran. Laster ibilbide hura guztia, bakarrik eta maleta handia bizkarrean, udako opor laburretarantz egingo nuen pentsamenduan, mertxikak loratzen eta enarak ailegatzen nekutsen, bideko baserrietan ezker-eskuin, batean *banator, bai*, bestean *banator noizbait* esanez nindoala. Hori guztia malkoberago izango zatekeen niretzat, aipatu bruzateria gupidagabea neuri begira ez egotera. Behingoz, samurtasunak burlari gehiago egin zion. Buru zihuan fraileagaz hizketan ziharduen emakumeak, mutiko-korru begiluzeak inguraturik, ume hura noren anaia zen esan zuenean, mezua olatu ozenean oldartu zen atzerantz: *Amuriza, ahí está tu madre, ahí está tu hermano*. Neure burua kalbario osoan sentitzeko, *ahí está tu hijo* bakarrik falta zen, baina, behingoz, ez zitzaidan mezu aztoragarria iruditu eta, lekura iritsi nintzenean (txaloak ere jotzen zituzten euren amak eta etxeak hain urrun egotearen alderantzizko miraria nigan miresten zutenek, bekaiztea debekaturik baitzegoen), lehen-lehenik, umea aupaka lepoan hartzeko bulkada justifikatuak ederto salbatu ninduen amari musurik (gurean haurtxoei bakarrik ohi zenik) ez ematearen ebidentziatik, noizbehinkako bisitetan obserbatua nuenez, etxeok musuka jan beharrean ibiltzen zirenen aurrean. *Aitzol! Geure pitxintxo! Nora etorri haz? Ene! Bai zapatila politik be!* Errepidearen hegala markatzeko konoharri gain-biribiletariko batean eseri ginen, etxerantz begira eta komunitateari bizkar emanez. *Etxea non jagok?* Umeak 'glu-glu-glu'-ri kontsonanteak erdi-jandako hots liluratua egiten zion denari, bi eskuak luze. Zaila zen etxearen posizioaz ohartzeko ote zen jakitea, aurreko guztia seinalatzen baitzuen, dena etxea bailitza, hurreko basoetatik urruneko mendi eta denen gaineko ortziraino. Haren eskuek oraindik ez zekiten banan mugitzen, eta nahikoa zen norabait luza zitezen, dena berea izan zedin, hots, ezeren be-

harririk izan ez zezan, ez baitzegoen argi bere hatzetatik haranzko mundua egiazkoa zen ere. Altzoan egon eta tripatxoa beterik edukiz gero, enparauak ez existitzea zeukan. *Nondik etorri haz?* –galdetu nion, ea gutxi gora-beherako orientaziorik hartzen zuen, eta berriro ere eskutxoak hego lumatuak bezala astindu zituen, uuka, *dena neurea, hortik, handik, denetik etorri naz* esanez bezala. Belauntxoetan kili-kili egin nion, gustatuko zitzaiola pentsaturik, baita gustatu ere; gero bi hatz izterrean gora prakapetik sartzeko plantetan hasi nintzen, kirkira bat bezala aurrera-atzera, beti ere apur bat aurreratuz; horrek izugarrizko grazia egiten zion, barre boro-bilak borbor ateraz.

Eskua praka nasaien azpitik sartzan ari natzaio. Oraintxe ez dakit kontaketa bertan etengo ez dudan ere, mende erdira hainbesteko lotsa emango didana saihestearren, baina behin honezkero argitu beharko dut ezen, eskua iztertxotik kontuz-kontuz aurreratu banion, bakarrean lasai egingo nukeena inguruko frailekume-aldraren obserbazioak estuturik, ez zela izan haren haragitxo aspaldi haztatu gabeen zirrara eta etxe-gozoa jasotzeko, edo, fraileek ikusiz gero, ukitu desegokien konfesiara ('lizunak' lartxo zatekeen haurtxo bategaz) behartuko ninduten kili-kili betikoekin jolasteko, baizik soil-soilik eta garbi esanda, galtzontzilorik bazeukan konprobatzeko. Lasaitu nintzen, praken azpian, azal guriaren eta iturritxo azaltsuaren lekuan, enbarazu bat aurkitu nuenean, adinari ez zegozkion galtzontzilo petoak ez zirena, paketea ere ez zena, mantarrak izan zitezkeena; zerbait bazen behintzat, oraindik txiza etorri ahala egiten ahaztu gabe zegoen seinale. Salbatua nintzen lehentxoago edo gerotxoago agertuko zen ezaren susto ziurretik eta lotsari gorritik, ez bainekien ama zenbat denborarako etorria zen, edo utziko zioten. Beharbada Autzaganeraino lagunduko zigun, edo bueltan Zornotzaraino, edo fraileek geugaz askaltzera gonbidatuko zuten, hain zelai edo pinaditan 'hermano le-goak' bere furgoneta negargarritik, arraziozko opilen gainean, amerikar gazta zati hori bana jar ziezagunean, handitzean, bera ere beharbada fraile joango zen umea (joan zen, baina beste ordena batera) txikitarik has zedin komentuz xeratzen. Denbora hartan guztian, txiza-larria etorriko zitzaion, edo amak eragin gura izango zion, praketara egin ez zezan (oraintxe ere 'praketara', azpian ezer ez balego bezala), eta orduan denen aurrean agertuko zen bekatua,

zeinaren inexistentzia egiaztaturik, orain lasai segi nezakeen munduaren azkeneraino. Ama han egonik, derrigorra zen gogoratzea eguna zabaldu aurretik lanera handixek oinez pasatua izango zen aitaz, zeinari tematu ohi nion berak mundua aurrerantz barik atzerantz zihoalako arrazoitzat ematen zuena: *Gure sasoiaren ez jegoan horrelako larritasunik, gantzontzilorik inork ez joan janzten eta – Hilek izan ezik, zuzendu zuen amamak, hauek bizien artekoak liren ahoskeran. Hilek zertarako gantzontziloak?, itaundu nuen sarkasmo plantan, motiboa argiegi ez ulertu izana disimulatzeke. Gero gainekoak kentzeko – argitu zuen aititak batere sarkasmorik gabe–. Ez dozak prakarik onenak beste mundura bialduko. Orduantxe ulertu uste nuen zerbait, inoiz monagilotan ehortzaileari laguntzen niharduela (hi, mutiko! hator hona! arima animoso bialdu dozue hainbeste kantuz, baina honi be lagundu behar jakok joaten, gorpuari prakak erantziz), iruditu baitzitzaidan hilek zerbaiten lotsa bezalako aurpegia zera-matela.*

Bihurgunetik bihurgunera ama-umeei erreparatu nienetik, zintzurrean ka-teatu zitzaidan estutasun hura onez askatu ez balitz, ama etxera arin bidaltzen ahaleginduko nintzatekeen: *Fraileei ez jake gustetan kolegiaren artean inor luzaro egoterik, hain gitxi andrazkorik; Autzaganen Bizkargi mendirantz hartu behar dogu, eta han umeak ezin dau ibili.* Halako asmakizun ez guztiz sinesgarriak. Edo behintzat adi eta zain egongo nintzen, une konprometitua hel zitekeela susmatu baikoz, beste mutikoen artean bistatik aldentzeko, edo txori baten atzetik desagertzeko, edo pinadian barrura ezabatzeko, lagunei sakosta bat erakusteko aitzakian, non leienda bat gordetzen zen, edo asmatzea zegokeen. *Begira harrikurutze hori. Hor-
txe agertu jataan egunkera batez unikornioa – Unikornioa Grezian ez jagok? – Hemen-
dik joanda – Baina hori antzinako kontua dok – Orduan, etorri egingo zoan.* Dena ez zen gezurra, nire irudirik beldurgarrieneritakoa osaba bateneko behi beltz ipilu-zuri, txima gorriskadun adarbakarra izan baitzen, gosearren baino ez guxtiago gaiztoarren, adar bata borrokan galdu eta bestea urkilatu zuena; ez saltzeko ez berez hil arte akabatzeko atrebentziarik izan ez zutenez gero, lehen-bizi trapuzko tokor odolbelztuan, gero adarrondo agerian, jenio txar guztiak pilatu zituen. Jatorrizko aurpegikera, berau ere ez lagunkoiegia, adarragaz batera galdu ondoren, nire umezaroa bigarren adar jauskor eta, azkenerako, begiraino makotuaren bisaia amesgaizti harexek jazarri zuen.

Abeletzan ulertzeko itxuratik ere urrun egon nintzen gertakariaz gogoratzeari nahitaezko izan dut komentuko pasarte honetan. Zer gertatuko zatekeen, anaia txikia soinekoak eskuan zituela errepidera irten izan balitzait, amari ihes egin ziola edo amarik ezin zuela aurkitu eta? Konparazioaz hobeto jabetzeko, diferentziaz ohartzeari komeni da: komentuan, Abeletzan arreba zena baino urtebete zaharragoa naiz, eta Abeletzan nintzena oraingo umea baino hiru urte zaharragoa. Zenbakietan, Abeletzan 5–10 urte, eta komentuan 2–11; denak ere umeak, baina bat orain Jainkoaren ahalak sendotu eta haren graziak argitutako hautatuen komunitateko kide duntsua, urteak geroago, gertakari bata zein bestea bere buruaren posizio bikoitzetik ozenki sentituko duena, baina zehazki ulertzea kostako zaiona. Urte horien talaiatik, nire aztorameneren gako nagusia etxearen ikuspen hurbila zela uste dut. Ezin nuen arterik hartu, ikusten ninduela sentitzen bainuen.

Badirudi etxea, izaki baten gordegu baino ez gutxiago, segurrenik askoz gehiago, izate baten barne-forma dela, hots, umeak barruren sentitzen duen (barrurago ez dago sentitzeko gaitasuna besterik) edo barrurantz dakusen irudia, bere buruaren hipotesirik sinesgarriena. Etxe askotan bizi izan banaiz ere, denengatik ezin dut 'gure etxea' esan. Hori bakarrik gertatzen da, etxe-ari neure antza hartzen diodanean. Ezin dut neure burua ikusi, baina ezin diot etxe-ari neure burua bertan ez dela begiratu; azkenean, bera bihurtzen da nire irudi; horretaz ohartzeari, berriz, ezin du gertatu sentimenaren hondorainoko zirrara gabe. Neure aurpegia ikusi nahi dudanean, etxearen aurrealde-ari begiratzea besterik ez daukat. Neure buruaren angelu ezberdinak sentitu nahi baditut, etxe-ari alde ezberdinetatik begiratzea daukat. Barrurantz bakarrik senti eta barrurantz bakarrik uler daitekeelako, hainbeste maite dugunaren, geure buruaren forma original horren, zati bat, fragmentu bat, aztarna bat kanporatzea geure izatearen fuga bat bezala litzateke; gaitz erdi berori, kanporantzko zirritu horrek eragile intrusoaren sarbidea paratuko ez balu, zeintzuen begirada geure baitaratuek gure barne-izadi eskusiboa perturbatzen duten, txori-habian burua sartu duen sugorriak bezala. Beharbada ez du horzka egingo, beharbada barrerik ere ez (sugeak ez behintzat); beharbada irribarre errukior bati bakarrik jaregingo dio, baina biktimak ez daki zein ahalkizun gertatuko den. Horzkada izatera, berak ere arrazoi gordina luke

lantzean behin hain premiazko den erasorako; barrea balitz, barre gangarra-
goz erantzun liezaioke: *Zuenean idiskoak mantarretan jabilzak ala? Zuen amak
santua mantilan batzen jon ala?*

Ostera, nondik kontraeraso behar diozu erruki demostraezin bati, zeinak,
maitasuna izatera ezin iritsirik (utzi ere ez zenioke egingo, zure maitagai es-
klusiboa zeure izatearen forma delako), baina bai erruki izanik, zure senti-
mentuaren objektua, berriz ere zeure izatearen forma (etxearen barne-bista
dela sentitzetik abiatu garena), begiradarik benignoenean ere, errukarri dela
insistitzen baitizu (errukiak erruki izanik errukarri dela... tautologiatik ezin
irten), zeuk maitagarri gisan baizik sentitu ezin duzunean? Zure sentimen-
dua ez da nor, tautologia apurtzeko. Fetoak umetokiaz eta, honen isolamena
bide, bere buruaz eduki ezin izan zuen kontzientzia (baietz ere badiote, baina
berak determinatu ninduela emanik ere, zer maita nezake gogoratu ezin den
existentzia batetik?) etxean hasten zaio islatzen, non aita-amak, neba-arrebak,
animaliak, etxe fisikoaren atal ezberdinak, umetokiaren hausturak eragin-
dako uhin kontzentrikoak besterik ez diren. Atal ezberdinak edo, baserria
bada, etxaldea eta honen gainean diharduten meteoroak eta ikuspegi espa-
ziala, beronen detaile txikiak diren izarrak barne; kaletxea bada, telebista eta
jostagelako aparatu maiteak, eskailera eta igogailua, atartea eta lehenengo
kale-plazak, eta hauen gainean diharduten meteoroak eta ikuspegi espazial
geometrizatua, beronen detaile inperzeptibleak diren izarrak barne. Etxe-
etxetik apur bat urrundu egin gara, baina hain zaila baita etenik aurkitzea!
Uhin kontzentrikoak edo, segurkiago, uhin kontzentriko bakar eta zabalko-
rraren puntu ezberdinak; edo, garbi esanda, uhin lehertu baten periferia za-
tiak, eztanda jaiotzaren metafora bigunegia ez bada.

Ama zein aita, nahinor zein nahizer, beronen garrantzia eta lehentasun
afektiboa nabarmendu guran, uhinaren ardatzean jartzera tentaturik inor ba-
lego, erdian beti bera agertuko da, izateak, apaltasunik mistikoenean ere, ez
baitio bere burua desplazatzen utziko. Etxearekiko edo etxeoketikiko lotsa ez
da, beraz, gure sortzezko dardararen, makaltasun genetikoaren translaziorik
hurbilena besterik, non etxea, gure amorrueen hustuleku izateko zerbitzu esen-
tzialaz gainera (maizegi huste biolentoa ez balitz), kanpo amorrueetatiko abaro

maitekor eskaintzen zaigun. Txakurrak hizketan ez dakielako zaunka egiten badu, hizketan akatsik ez daukan haurrak zergatik egiten du sarritan zaunka? Erantzuna izan liteke, txakurrarentzat zaunka nahikoa den bezala, haurrari hitza labur geratu zaiola; biak ulertzen badizkiozu, arrisku handia dago hizketan atzera eta zaunkan aurrera egin dezan.

Nik ez daukat zerikusirik nire izenagaz dabilen fantasmagaz. Batzuegan balentriak egoera daragi, beste batzuegan egoerak balentria. Ni hauetarikoa naiz, eta bera ere egoera eskapugabeetan. Beldurrak ausardiak baino bihurtzune gehiago eta humanoagoak dauzka. Literarioagoak ere bai, segurrenik. Ausardiari elementu edo oztopo esternoek damaiote barietatea. Beldurrak izaera bera du barietate amaigabeko. Baliteke, hala ere, nire ikuspegiak gehiegi balio ez izatea, motibo jakinik gabe hainbeste aldatzen denean. Zopatik eltxo bat duda gabe kenduko lukeenak, dozena bat aurkitzean, berdin jarrai lezakeen bezala, hainbesteko endredorik ez hartzearen. Gure jaiotetxean zaila zen bereizketa horietara heltzea, haurtzaro eta gaztaro argindar gabe hartan. Beharbada, horrexegatik gara etxea eta ni honen antzeko, diferentziak ilunetan ezabatzen zirelako. Torreburu. Hemendik ez da pasatu Lukrezio, Shakespeare, Marquez, Kafka, Poe, Proust, Aresti... Hemendik neu bakarrik pasatu naiz. Neure eskusiba da.

Urte piloa joan eta gero (zer ardura dio horrek sarritan bizipenak oraintsutasunaren alderantzizko gardentasunez islatzen dituen oroimenari?), Abeleztako oroitzapenak burutzeke darrai, mutilek *neskak!* oihuari hain ihes fulminantez zergatik erantzun zioten esplikatzen saiatzen naizen eta lortzen ez dudano. Zuzeneko saiakerak beti irteera gabeko galerian abandonatzen nauenez gero, proba dezadan nora naraman hipotesi alternatiboak, hots, neskek eurek zer egin izango zuketean, halako trantzean aurkitzera. Hori, jakina, trantze urrunki analogikoetatik bakarrik atera dezaket, oso zaila baita koa-dro famatuetan bekaizten dugun emakume bainularien askatasun artistikoa (pintoreak, beharbada, ikusitik bainoago ikusi nahitik atera zuena) gure eskolako neska moralki hesituengan atrebentziara iritsi izana, nik ikusteko zortetik izateko baino zuhurtzia zoliagoan ibili ez baziren. Komun bakanak (eskolan bat, sakristian beste bat, konfesaleku txatxar baten antzekoa, berbera

ez bazen, utilitatez aldatua) eta eurak gaurko batzuk bezain lohi egoteak ez gintuen txizalari maizkorretik libratzen. Gure eskolako komunetan sartzea, barrua behar izanez gainera, barru larria alegia, batzuetan temeritatea ere ez zen txikia, arriskatzen baitzinen zeure kaka-piloaren gehi aurrekoen gainean entzerraturik utz zintzaten, edo goialde libretik baldekada ura edo asun-multzoa jaurti edo, beste gabe, harrika egin ziezazuten, dena genuinotasun ruralaren grazian.

Neskaren bat edo batzuk hilerri ostera pantaloiak jaistera (edo beranduegi gogoratu baziren, aldatzera, hots, itzuleztara janztera) alden du zirela konturatzen baginen, nahiz eta gehienez neskak aise samar saihesten ziren, mutilen lotsagabekeriari araberrako argitasunak ez laguntzeari esker, zenbat eta geu malezian aurreratuago izan (ez txiki zaratatsuak, nagusien espedizioan traba egiten zutenak), hainbat kontuzago kuku egingo genuen, ea misterioaren puntaren bat hauteman genezakeen neskato gajoen parrastada deserosoan; buruak, kokorikotasun osoaren sinpletasun zaila ikasi arte, belaun artetik ipurdi pareraino edo behe-rago makurtu behar zuen, zipriztinak ekiditeko baino ez gutxiago, zer irteten zen ikusminagatik, txiza zelakoan, arimak eskapa ez zezan armiarmaz kamuflaturik, Axpeteneko Loliri gertatu zitzaion moduan, zeinari gorputz hutsean zebilela (arima txizean joanda, nonbait) susmatu zuen parrokoak, geltoki-buruaren bitartez, Gaztelako komentu batean sarbidea egin zion, predestinaziotzat jotzen zuen beste etxe mota izendaezin horietariko batean sar zedin baino lehenago. Ez genuen joaten ez etortzen ikusi, ez bere oinez, ez oinez aurrera. Bizi izango zela eta bisitaren bat izango zuela suposatu genuen. Hilerri osteko zelatariok batzuetan ez genuen zipriztinik ikusten, gure zaskarrieriak susto intimo bat ematea besterik ez baitzuen planifikatu, zarata bidez defendatzera ateratzen den tximino aldraren antzera, gurea eraso zen baina. Niri, hala ere, ez zitzaidan zorte koxkor hori sarritan egokitu, nagusitzen hasi orduko, frailegai bainengoen komentuan, Gaztelan baino hurrago zorronez, etxetik hurregi zoritxarrez, baina iritsi nintzen apurretik, segurta nezake neskek ez ziotela ihesari ematen, lanak ahalik arinen eta txukunen amaitzen elkarri lagundu baizik, handiagoe txikiagoei mutilengatik esanez: *Astokilo horreei jaramonik be ez! Badira be ez!*

Neskak errekan, larrugorritan... Oraintxe ohartu naiz biluztasunik zurienari hain ilogikoki 'larrugorri' deitzearen arrazoiaz, lerratze semantikoa ez baitaiteke kolore antagonikoetara (zuria eta beltza esan ohi da, baina niri beti zuria eta gorria datozkit) saltatzeko bezain arbitrarioa izan. Arrazoi hori, askotan intrigatu nauena, beharbada izan liteke txorikume oraindik lumagabe haiek, ukitzean, higuin punturainoko gorritasuna emititzen zutela; edo hegazti lumatsua, beroan lumatzean, gorri-gorri geratzen zela; edo urlia azalerauzteak 'haragi gorritan' utzi zuela; edo azoteek berendiari larrua 'gorritu' ziotela; halako eran, non Abeletzako neskato-mutikoentzat larrugorriak inspirazio boluptuosoaz beste edozer iradoki baitzezakeen, baina tira, hori ere ekarriko du eboluzioak.

Auzira itzulirik, neskak, errekan larrugorritan harrapatuak izateko kasu ez ezinezko baina bai mutilentzat eskuragaitzean, ezin ditut ihes itsuan imaginatu, beharbada neu haientzat beldurgarri edo, izugarriri okerrago dena, higuingarri izatearen abailmena ezin sufrituz; lehenengoa, funtsean, gradu bat izan liteke. *Mutilak!* alarma ez oinarrigabea entzutean, batzuk uretan, besteak ur ertzean, korruan batuko ziratekeen, lotsaren irradiazioari, elkarren begietatik, barnerrantz tiratuz; ez dut esango hain gune barnekor hartaraino, non euren buruaz beste bat egiterantz garatzen ari diren; non batzuek barrutik amatasunaren kultura dekadentea bezala, beste batzuek kanpotik konkista-lur erraza ikus lezaketen, nahiz eta naturak jaramon txikia egingo dien kulturei; baita hauek bera suntsi dezaketelako suposamen fanfarroiari ere. Naturari zer axola diezaioke gizateria ridikulu baten planeta ezerezteak, beste milioika lurretan ari bada bera esperientzia duinagoak amaitzen edo abiatzen? Ezin dut imaginatu gure eskolako neskatalde balizki 'in albis' harrapatua (orain larruzuritan) ihes itsuari ematen, igande eguerdi batez Bilboko Gran Via jendeztatuan bezala, non, bat-batean denak misterioski biluzik aurkitzean, gizonezko balianteek hanka-joko deslaiari eman zioten, arratoiek ke-bonba garratza zakartegira jaustean bezala; emakumeak mugitu ere ez ziren egin, atso bat edo beste izan ezik, *zer gertatu da hemen?* galdetzeaz gogoratzeke, pertsekuzioan abiatzeko planta furfuriatsua egin zuena, berriro ere poltsa ostu ziotelakoan.

Abeletzako neskek, izaturik zeudekeela emanik ere, izango zuketen inora ez mugitzeko beste argitasun, baldin arrisku fisikoki erasokorra edo etorburu ez-argikoa ez bazen, ez zedin gerta ezen, ihesera izan beharrean, arriskura zihoazela. Baita izan zitekeen nesken izaerak euren baitan zeramaten alarma orduan areago gordetzera biltzea, handik urteetara baitetsirik bezala ikusi nuena, ikasi nuenean gameto emea geldi-geldi egoten dela, gameto arren izurriak galdu-gordean inguratzen dueno, bakarrak sarrera fatidikoa aurkitu arte, beste milioi guztien genozidiotik. Hil-bizi hartan, zortez baino ez gutxiago bortxaz gailendua zen sena obsesio gisan itzartzen hasi bide zen Abeletzako mutilengan, zeintzuek, gordetzerik merezi zezakeen ezer barruan ezin aurkiturik, ihesa ere balentriatzat bizi izango zuten, eta zeintzuengan itsu-mustuko aberia posibleek, urrakadek, trokatuek, hausturek, epopeia orokorreko gailur bihurtu nahi izango zuten, nahiz eta probableago den haien ihes ezjakinki abruptua urte batzuk geroagoko irrupzio biolentoaren prefigurazio izatea, jada sentitzen hasiak baitziren bazela euren gorputzean lohadar harroxko bat, artean ezdeusago bere ferozitatea lurpean bakarrik balia dezakeen zizare bistaratua baino.

Bat-batean, izter artean eta hatz puntetan dingiliz ibiltzeaz beste jorarik agertu ez zuenak (urte inproduktibo samarren buruan, aurpegira begiratzeko kortesiarik ere geratuko ez zaionak) gorputz osoa asaltatzea deliberatu bide zuen, muga ororen gainetik. Lohadarkide guztiak, eskuak eta izterrak batez ere, hauek praka nasaien tolerantziaren arabera (oraindik ez zen geroago etorriko zen ezin-kabiturik), ikaraturik bainoago espektanteki eraginbera zeuden zizarearen agindu inpentsatuetara, zeinaren tamaina-aldatzeek, zenbat eta kontzientziaz haragoko, hainbat nabarmenagoek, lanbroki baina gartsuki aldarrikatzen zuten inperio irrekonozible eta segurrenik turbulento baten ezarrera. Ez zen harritzekoa ere, artean nork zoruan urrunago edo nork horman gorago txiza egin leihatzeaz beste emendiorik izan ez zuenak orain, kontrolatik eskapatze planeatu gabeen, itxura barregarrien arriskutik hanka egitea, batean *hori dok txitxina!* entzun behar bazuen, bestean *hara zelako abarka-etztena!* izango baitzen, bitarteko gama guztia izendatzeke; nork jakin zergatik 'txoria' esaten zitzaion apur bat ulertzen hasita zegoen (bazen zerbait ulertzea) señorito hari bere burutxoa nola aurkeztea otuko zitzaion.

Abeletzako gaurko erreka zuloa, aldizka berrikusi behar izaten dudana, errekonozitzen kostatzen egiten zait, horretarako maiz eta zerbait maitaturantz (orain bizi ez naizen mendirantz) igaro beharko bainuke. Umezaro eta gaztarotik honanzko harrobi handituan, Epaltzerako bide asfaltatutik gure etxeranzko erramal hormigoituan, lurperaturik doan errekan (nondibait pasatzen dela pentsatu behar dut) eta inguru handi-handika bakarrik berdintsuan, neskek bazetozela entzun aurreko unea, putzuan txerrikume bihurtzen ginen ikuspen ia xehatuergi huraxe, altxatzen zait orain, ertzetik ertzera euren bizi-raupen mankatua elkarri konfiatzera makurtzen ziren haltz eta kurutzeki haiekin batera, zeintzuk, lur hondartsu eta zekenaren zigorraz gainera, umeek, animaliek, gurdiek eta, batez ere, basoak zangatzen hasiak ziren lehen GMC gerrako kamioi hondakin haiek adargabetzen, baita enborzuritzen ere, zituzten. Edo berdatzen ala ihartzen ari ote ziren (lehenengoa beharko, batzuk oraindik ere hortxe baitaude) ezkututzen zuten akazia desesperazio itxurako haiekin batera; edo erreka-estakak auskalo noiztik (gure sasoi umeak Paristik, antzinakoak Auskaliatik) leundutako harrizko plataforma xubeki inklinatuekin batera, hain bakartiak eurok ezen inguru irekien gutxien zale den igela ere bertan eguzkitzen baitzen; gehi txoriak eta txori-habiak; eta batez ere norabideak, ez sarritan hain gozoak (eskolan esturaren bat itxaroten nuenean, adibidez), ez gutxitan zoragarriak, igandeetan elizalderantz, edo bueltan etxeko bazkari astegunez baino oparogorantz. Aipatzen hasi besterik ez naizen horixe guztia altxatzen zait oraingo Abeletzan, eta pozten nau inori erakutsi behararen lotsatik libratu ahal izateak, ziur bainago ez litzaiokeela, erreka-zulo ziztrin bati bezala, begirada ukatzeko arrazoirik faltako, zertatik ateratzen dudan edertasuna, nirea behintzat, begi maitale batzuen ikuskaria besterik ez dela; edo prakak gustura askatzen genituen lekua, zertatik, azkenik, arrazoiz iritsi nintekeen ateratzera On Kixoteren geografian ere edertasuna seguruago aurki zitekeela gobernu ona baino.

Igel huraxe bezala nago orain, harri gainean, Agarregoitiko erreka ondoan, bueltan etxean inor ez egoteko segurantz baino ez gutxiago, ezin egotearen angustia puntuan; nola konprobazio gordinera iristeko gogorik edo behar-bada kemenik ez dudana, eta eguzki honek burdinazko igel ahohandiak ere errendituko lituzkeen, salta nadin berriro mende erdi aurreragoko uretara,

ez Abeletzako putzura, baizik, kilometro bat beherago, Trokarroko ibar es-
tura, non, bi errekaren eta hiru errotaren emariak bat egiten duten lekuan,
beste errota baterako presa luzanga eta geroz sakonago bat taxutzen den. Hor-
txe burutu zen nire eskolaroko, beharbada umezaro guztiko, jazoerarik dur-
digarriena, denok beldur adina txundimen genion mutil bat, fama baino izen
politagoa zeukan Alex, erarik pentsagaitzenez ito zena, hamalau urteko
zezen koxkor bizi luzekoa.

Egun batez, Zinkunegiko Garrorenean morroi agertu zen, inork nondik ez
nola etorria zen garbi ez genekiela; horrek, gure baztertasun txundikorrek
areagoturik, harekiko misterioa sentipen epikoraino jaso zuen. Pare bat hila-
betean oso irregularki asistitu ondoren, eskolara etortzeari guztiz utzi zion, se-
gurrenik ugazabak, haren guraso urrunen ezaxolaz, ezin-axolaz, edo
gizajotasunaz baliaturik (*mantenua eta, ahal balitz, eskola apur bat*, izango zen
tratu), mutilaren gizontasun gogoia onartzetik etekin hobea ikusi zuelako,
susmatu ezen honek, ez bakarrik ez zuela eskola-bindikazioen konpromi-
sorik ekarriko eta, beraz, horretan ez zuela ugazabaren borondaterik inoren
aurrean infamatuko, aitzitik eskolatze balizki obligatuari ahal zuen guztian
taket egingo ziola; lanerako nahi zuen morroia hartarako bakarrik gelditu
bide zitzaion, berak ezer moztan zuelako gaizki-esan remotoak ere ekidinez.
Gerraoste luzeegiak bazuen kontenplazio edukatiboez aurreragoko eskaki-
zunik. Eskolako beirateria eskergetan, posturirik imposibleenei gelako por-
taeraren seberitatea txalogarriro hautsi ahal izatea eskertuz, mundu
inexistenteen, hots, noizbait munduaren jabe izan bide ziren Espainia eten-
gabe dekadenteen mapak kalkatzen ari ginela (irla mordoa galtzen nuen beti,
ez apropos, maistrak gaizki susmatzen zuen bezala, baizik zergatik ez zituz-
ten elkarren ondorago zeudenak konkistatu ulertu ezinik), gure guraririk han-
diena (beharbada, gurari txiki guztien aleazioa zen gurari bakarra) Alex
plazara agertzea izango zen, herriko askan behiak eradatera, batez ere zaldi
zuriaren gainean zetorrenean. Kalkatzaileen zeinura, beste guztiok leihora-
tuko ginen, eutsi ahal izateko baino bulkada azkarragoan, harik eta maistrak
zeri begira zagoze, moko-motzok? hoska (halaxe itsasten ginen kristalen kontra),
disuasio nahikoa inefikazeko bazen ere, beti mahai gainean zeukan meta-
lezko (hala ere, apurtzen zen) erregela luzea, metrotik urrun ez zebilena, as-

tindu eta hienak sai-multzoa bezalatsu (ez luzerako, beraz) uxatzen gintuen arte, etsenplarki bezain alferrik exhortatuz: *Behizain ezjakinak izan gura al dozue? Hobe leuke horrek zuen aukera baleu, errukarri horrek!* Desira bihozkor tonuan akusatzaile horrek Alexenganako gure ederra gehitu besterik ez zuen egingo, ugazabak mozten ziola eskolaratzea ulertzen baikenuen, geuri ere gurasoek debeku bera ezar ziezaguten bekaitzez, nahiz eta, bestetik, gariereite edo jotzeetan, esaterako, etxean geldiarazten ninduten eguna damugarriro luze egingo zitzaidan; baina hori ume-lan gogaikarriei, itaurretza madarikatuari batez ere, esleitzen nien, zeren Alex egiten ikusten genuen bezalako 'gizon-lanak' nik balentriatzat gozatu izango nituzkeen; gerta zitezkeen neke inprobableak (nire buruan, nekea gizon-lanen dohain bat gehiago zen) atseginareen elementutzat eta benetasunaren garantiatzat harrotuko ninduen.

Alexek bazekien, plazara heltzen edo pasatzen zenean, eskolako begi guztiak, ez gutxi bera baino zaharragoenak, gainean zituela; bere mutil libre eta goiz-gizonaren ostentazioan (zigarroak eta behi edaleei errape-igurtziak tarteko, behin, bere lotsarako eta gure barre-eztandarako, ostikoz iraulka jaurti eta, zuzen harrapatzera, bertan akabatu izango zukeena izan ezik), gugana ahalik gehien hurbiltzeko eta txolarteak luzatzeko aukerarik ez zuen galduko, harik eta, egun sargori eta geroztik gupidagabe batez, Garroreneko morroia errekan ito zela entzun zen arte. Eskolatik irteeran, arratsaldeetan batez ere, han egongo zen, batzuetan, eskolanteekin nahasteko zain, beste batzuetan, ezinaren erreminean, ugazabandrea saiatzen baitzen ordu horietan gure bistatik urruno lanak agintzen. Orduantxe ere atondua zuen lagun batzuk beragana iristera nola arriska zitezkeen, beste batzuek, Garroreneko atartean, inozentzia-planta aingeruzkoan, *gaur Alex zigortuta dago ala?* galdetzen zuten bitartean, ugazabandre gizonki samarrak erantzun zezan: *Itzi hari bakean, entzun? Olgetarako ez joagu morroirik mantentzen!* Alexengana bere pandilakideek bakarrik joan ahal izango zuten, eta behin edo behin, txandan sartzeko zortea zeukatenean, neuk ere bai inoiz; besteak haiek han zer egingo ote zuten kalkulazio morbosoa geratuko ziren, bueltan entzuteko: *Ez dakik Alexek zertzuk egiten dakien! Ez dakik zertzuk irakatsi deuskuzen!* Harik eta, egun sargori eta huts batez, Garroreneko morroia errekan ito zela entzun zen arte.

Igande eguerdi-arratsaldeak, elizkizun saihestezinen aurre-osteak, mutil misterioitsu hura Garrorenera agertu zenetik, irrikatsuago ziren, bera ere geuzagaz nahasten baitzen; nik hori beragandiko eskuzabaltasun handitzat jotzen nuen, miresten denagandik huskeriak ere donaziotzat, egoismo soila ere norberaganako maitasuntzat ulertzeko bakuntasunaren arabera, morrontzaren lege zekenetik beste eskapurik ez zeukala konturatu beharrean, batez ere, elizaldetik urrun, elizkizunetatik ere salbuesten gintuzten txangoak antolatzen zituenean, eskailutan, txori-habia bila, marrubitan, hauek gero berak, ausardiaz adinako trebetasunez (etxe hartako zuhurkeria proberbiala zen herrian), ugazabarenean harrapatuta ekartzen zuen ardotan beraturik jateko. Herrian mutil fin eta saladu fama zeukanez gero, elizatik urrun bizi ginen etxe bakar-tietakoen gurasoek ez ziguten harekiko ibileren kargurik hartzen, beharbada etxe-bistatik urrundutako mendi-zidorretan kontrola nahita ere ezinezkoa zelako, edo, kasik segurkiago, txolarte bakarra zuten igande arratsaldea ez zutelako lana bera baino arduza zailagoetan alferrik galdu nahi, harik eta, bestela ezeren markarik gabe ilunduko zuen egun sargori batez, Garroreneko morroia errekatik itota atera zuten arte.

Konturatzen nintzen neskek beste mutilengana ez bezalako jorana zerakustela Alexengana, beharbada haren hanka mehe xuabeki kakotuak besteonak baino lehenago ezkutatu zirelako praka luzeetan, ugazabandarearen ezarpenez segurrenik, ugazabaren praka-hondakin ez gehiegi egokituekin kunplitzearren morroia janzteko obligazioa, zeinak ez zeukan asko saiatu beharrik, berari beharbada derrigorrean sentiarazi zioten gizontasuna lagunek halako ikurtzat bekaitz zezaten. Kontua da, inoiz, harenganako espedizio mugatu eta zehiarretan, ezkutuetan ez esatearren (*bihar Abadebason ibiliko nok iratan; eguerdi ostean behia idiskoagana eroan behar joat Damukortara...* berehala diseinatuko zuen plana, bere oilarkeriak baino askoz gehiago, dudarik gabe, bakar-tasun elkorretik libratu nahiak sakaturik), neskaren bat ere sartu ohi zela, dena askoz misterioitsuago bilakaturik. Beharbada, nesken inplikazio horrek bihurtuko zuen Alex nire gogoan demiurgo txiki bat bezalako, inoiz eskaintzen zidan harrera elizan gurtzen genuenaz beste jainko atsegina baten oparizat hartzen bainuen, batez ere behin, dozena erdi ahizpa zeuden 'Dukienera' behorra eramaten laguntzeko eskatu zidanean (bai askaria Dukie-

neko Felisak jarri ziguna, anis kopa eta guzti, hain gabe ere, zortzitik hama-sei urtera bitarteko ahizpa-ilada inguruan ibiltzeak sobera xarmatzen zuena), harik eta, sargorian ere dohakabe etortzeko motiborik ez zeukan egun batez, mutil ubeldua, surflariak lera bezalatsu andan ekarririk, Garroreneko atarteko gurdi gainean hilotz utzi zuten arte.

Igande iluntzean gertatu zen; hil-kanpaiak herri guztira zabaldu zuen berria gure etxe urrunean ezin izan zen guztiz zehaztu. *Larrabeko Timoteo izango da; Uribeko Engrazi be azkenetan ez al zegoen?*, lagundu nahi nuen, baina ordu-rako jakin behar ei nuena berriro azaldu zidaten, hots, hil-kanpaiak sexua bereizten zuela; eta adina ere (aingeru, ume, gazte, heldu) kanpai ezberdinez edo, kanpai beretik bazen, erritmo ezberdinez iragartzen zela. Eskolako hizkidun ekuazio hasiberriak, esplikatzen bazekiela agertu arren, maistrak berak ere ganoraz ulertzen zituenik guztiz sinesten ez nuenak bezain esoterikoak iruditzen zitzaizkidan kanpai-joko haiek (berez zeukaten baino gehiago, distantziara, bidean batuz etortzen ziren misterioengatik) berriz ere ikasteke jarraituko nuen, oraindik ez bainintzen hilen zientzian barnatzeko bezain bizitzaren jabe. Zendua mutil ezkongea zela bai, baina kanpaiak ez baitzuen zein etxetako zehazten, amak agindu zidan: *Jaitsi hadi elizaldera eta jakik noren hil-kanpaiak diren – Bihar goizean jakingo dot, meza laguntzarakoan*, uzkurto nintzen hainbeste aldatsen aurretiazko gorrotoz. *Bihar ez, gaur baino!* –garraztu zen amaren tonua–. *Beharbada, gaubeila zor deutsalunen bat izan leitekek.*

Haserre marmarrik gordetzen ahalegindu ez banintzen ere, ez nuen gehiago tematu, funtsean gaubeila esentzialagotzat bainean heriotza bera baino, zeina gabe, noski, gaubeilak, alboetan kandela isiotudun gorpuaren forman, ez zukeen indarrik, nahiz eta, gaubeila gabe ere, heriotzak ez zirudikeen imintzio frustratu bat besterik, hilaren presentziak bizien elkarteari trinkotasun exzepzionala ezartzen bailion. Horixe izan daiteke daturik bitalena, eta ez urliak edo sandiak 'bakea eman' duela, halako neurriraino ezen, une batez, hilotza ostu dutela sumatzeak ez bailuke bilkurarik hustuko; bidezkoa, nolabait, gaubelari askok bestela ere ez baitu parte-hartzea hilotza bisitatze-agaz bat egin, zerak esan nahi baitu, bera gutxiena denik ezin esan arren (bailitz ere, nor ausartu aldarrikatzen?), okasioak erruz gainditu duela defuntua;

une jakin batez, hilkutxa etxetik atera aurretxoan esaterako, baliteke mugida guztiaren bere erdigune izaera ilusio iheskorren sekuentzia azkar bat besterik ez izatea, beharbada malko edo garrasi batzuen benetako itxurak apur bat astirotua. Pentsakizun askoz geroago zehaztuon magma inprezisoa, etxetik elizalderako bide luzean golko-janean neramana, azeri-zepoaren kolpe gertatu zen nire baitan, Garroreneko morroi gaztea itota 'salbatu' zutela entzun nuenean; durditze brutaleraino zartatu nintzen, hain irenskaitz egiten zitzaidan Alexen zorigaitza, urragarria, kontudentea, nolako izugarrikeriatik salbamen izan zitekeen ezin imaginatuz. Ez daukat gogoan etxera nola itzuli nintzen, ezta itzuli nintzen ere, baina, amak gaubelara ezin nuela joan mehatxu eta guzti azkenengoz errepikatu zidanean, *gu ez gozak Garronekoekin beilakide!* hots eginez (*neuri joaten ez izteagatik!*, pentsatu nuen zakarki), artean blokeaturik zegoen negarrak amorruan aurkitu zuen leherbidea, mutilaren ezbearra malkoen erresumatik guztiz at sentitzen nuelako edo. Uztaila oporhil izanik, goizeko hamarretako hileta-mezara joan nintzen zuzen, heriotzaren inguruko eta urrungo jakingarri guztien irrikaz, nolako senitarte eta nondik agertuko ote zen, adibidez. Abadeak ez zidan ezertarako astirik eman, herriko plaza zapaldu nueneko, monagilo egitera deitu baitzidan, "Martzelen ordezt".

Bigarren abadeak aldare oinetan utzitako hilotza erretoreak mezako jantzita errezubitu zuen, zeinaren ezkerretik (ni, neure ziriola tente, ezer identifikatu ezineko begirada zulatuan josita nengoen hilkutxara) lutu-bankuak ia hutsik zeuden, gizonezkoenak lehen lerroan, andrezkoenak elizaren heren ingurutik atzerantz, maila bat beherago, hilobi argiztatuen aurreneko iladan. Pare bat gizon eta hamasei bat urteko mutil ezezagun bat baidarik ez ziren ageri, laugarrena Garroreneko ugazaba zela. Lehenengo gizona, segurrenik, elizkizun hartako gorbatadun bakarra izango zen. Bere lutuan ere, gorriskatasuna ezin zuen guztiz estali; okasiorako nonbaitetik halaxe bidali zuten zenduaren aita ez bazen, patronaturen bateko ordezkari ematen zuen; bibote ernegatu bat erantsiz gero, herriko idazkaria ere lasai izan zitekeen, luze samarra eta argala, aurpegian, elizako argiontzi ez biziegien azpian, labanadak ziruditen zimurrak zeuzkana eta, funtsean, gehiegi hunkitzeko itxurarik ez zekarrena. Andrezkoen lutu-bankuan, Ale-

xen ama izan zitekeenaren bila jo nuen azkar, une batetik bestera, ofiziantegaz batera, monagilook ere aldarerantz eurt egin beharko baikenuen; elizkizunak herriari atzea emanaz ospatzeko gizalegeak agintzen zuen oraindik. Begiaren eskapaldi bihurri batez, beste aldeko lehen bankuan, umeak aurretik atzerantz sakaka pilatzen ziren multzoan, erdiko pasabide-tik lehenen, ordezeko egiten ari nintzaion Martzeli erreparatu nion, traje gris-sean burumakur, begiak ezkutatu baino areago, barne ibairen bat ikuskatu guran, ez jakin formaltasunaren ala seriotasun bortitzen baten menpean, hilaren arima bere azal estutzaile bihurtu bailitzan.

Neure jakin-min amaigabeen ezinegonak eternizatzen zuen mezan, monagilook, erdian genuflexio bateratua eginik, aldika elkarregaz gurutzatu behar genuen uneetariko lehenengoan, *Martzel zergaitik ez dok monagilo etorri?* ahapekatu nion lagunari, zeinak *zer?* erantzuteko astia besterik ez zuen izan, esan nahi eza ez-ulertu plantan estaliz, pentsatu nuen neuk geroz irrituago. Ezin izan nion berriro galdetu, binajeretan aldare bazterretik erdirako eraman-ekarriak elkarregaz egiteko unera arte, non zuzenkiago eraso nuen: *Martzeli zer jazotzen jakok? – Ez dakik ala? – Zer jakin? – Alex ito zenean, elkarregaz jegoazen. Bera etorri zoan sokorru eske, garrasi batean.* Abadearen gezur-eztulak tardatzen ari ginela ohartarazi nahi zigun. Une horretatik aurrera, elizkizun hartako nire pentsagai bakarra, Jainkoa baino misteriosoago, Martzel Zabaleko zen, hamabi urtekoa, Alexen lagunik ohikoena izateagatik bekaitz geniona. Alde batetik, nire harenganako bekaitza lilur-araino handitu zen orain, Alexen azken tragikoaren gordailu bakar baine-kusen; bestetik, harekiko lagun-gura grinatsua sortu zitzaidan, onguratik baino areago basa-errukitik harakoa segurrenik, neu ere sentipen bortitzegietan nahasirik bainenbilen, harro eta pozik kasik, neure barrua ere gertaera extraordinarioen gurutzune aurkitzen nuelako. Umeen gogoan arretagairik indartsuenak (denek Martzeli begiratzen zioten, haren ondoan nahi zuten, zerbait entzun, zerbait jakin Alexen azkenaz) azkar indargetzeko lege buruarin eta dohatsuak nigan ez zuen bete nahi izan; bai, oster, bete zen beste lege baten salbuespen bat, zeinaren arabera inoiz gertatzen baita koldarkeriak ematea taktika kontzienteak eta psikologiarik subtilenak bakarrik ematekotzat uste zena.

Agarregoitiko errekatik harri beroaren gainera irten naizenean, burua uretan sartu dioten txakurrak bezala astintzen dut neurea, ea tarteka sobresaltoan kolpatzen nauen orainaldi zenbat joankorrago hainbat terminanteagoa oroimenaren konkomitantzia manipulagarrira bidal dezakedan, baina badirudi oroimenak ere ezin diola bere ahalguzti hegalariari ekin, noizean behin lurreratu gabe. Batzuetan aparatuak, gorputza deritzon oroitontzi horrek, ez dauka engainuari jarraitzeko gogorik eta bertan plantatzen da, zezen ia exhaustoa bezala, edo arrain hegalariaren jauzia amaitzean bezala, zeinak ez dagoen argi airean ala uretan korritzen duen azkarrago. Arropak inork ez dizkit eroan, behinola eskola sasoiaren bezala, edo aldekoak galduta etxeratu zenaren kasuan bezala; nago ipuinetako pertsonaiek ere ez dutela nire ondoan egon gura. Etxera sartzean, giltzak kilisk-kalask egin duenean, golkoango tau-paden errepikagailuak atzeratu nau, ez kanpoan falta direnak etxe barrutik braustean aterako zaizkidalakoan, edo, neu bakarrik egotera, giltzaren zentzugabekeriak kolpatu nauelako, baizik telefonoaren tirrin hotsak aztoratu nauelako. Norberak gertatzea nahien lukeenaren txinparten bat izan ote da? *Hago isilik hi be!* Iratzargailua izan da, 'alua' ala 'gajoa', nola kalifikatu ez da-kidana.

Lehen-lehenik Miamira markatu dut, nora andrea eta umea hango senide-enean hilabete pasatzera joanak diren. *A zer beroa hangoa!* Erantzungailuak iloba neskatoren ahotsean diost: *Hello! Orain ez gagoz etxean, baina laster egongo gara. Itzi, mesedez, zeure mezua.* Ume batek eskatuta, ezin nuen obeditu gabe utzi: *Kaixo, denok. Zelan hortik? Hemen badira nobedade batzuk. Bat. Arratsalde erdira arte etxean nago; deitu, mesedez. Mosu bat, denen artean partitzeko, banak baino gehiago balio dau eta.* Erantzungailua altxatu dut eta, lehenengotako zirrada anatomikoaren ondoren, atzoko mezuak hizketan hasi dira. *Toto! Non-dik nora zabilz? Amak Miamira lehenbailehen deitzeko dino. Astoak ondo dabilz? Mosu bat. Beste batek: Kaixo! Anton Porru nok. Hi harrapetan ez jagok erraz gero! Santanatxu egunekoa aurrera. Deitu eidak.* Horrela erreskada alferreko bat. Gaurko partekorik ez dago bat ere. Bilboko Santutxuko koinatarena markatzen ari naiz, inor inon bada, hark aurkituko ez duenik ez daitekeela izan pentsaturik. Erantzungailua zoli, mugikorra deskonektaturik. *Hartuizue popatik zuek be!* Gizaburuagako amaginarrebarenean, txakur zaunkarik ere ez da na-

bari. Suposaturik erantzungailuek aurrea hartzeko moduko anormaltasun teknikoren bat izan daitekeela, tirrin inpersonalaren truke errepresaliarik jaso ezineko mendeku-gogo orokorra ez bada (*ekin, ekin! gogaituko zarie ni zuek ana atzea galdu beharreetan abiatzerako*, esan izango zukeen gure amak), erantzungailurik ez den etxeetara deituko dut, Bediako arrebarenetik hasita. Jotzen du, neuk bakarrik entzuteko. Soroan edo ukuiluan ibiltzeko ordua ere ez da, baina badakit haiek ez direla telefonoaren adorazioan egotekoak. Zorrotzako anaien etxeetara deitzean ere, eskuak garbitzen edo biagora sarberri ez badira, rin-rina tu-tu-tu bilakatu arte entzuteari eusteak aurikularra epeltzea besterik ez du ekarri. Belarritz aldatu behar dut, bestea ere zuzenean informadadin. Informatu zertaz baina?

Telefonogida mahaian zabal-zabal (Durangaldera deitzen ez naiz hasiko, lehen ere egiaztatua baitut horko mortutasuna), Bilbora ilaran deitzen dihardut, ordu honetan gainezka egon behar luketen taberna eta jatetxeetara. Bar la Tortilla, Euskalduna, Jatetxe Txinarra, Guggenheim, Guria, Bodega Asturiana, Herriko, La Guerniquesa, Bar la Estación... Alda dezagun belarria. Beharbada, nik ez dakidan ebentualitate bategatik, txikitero guztiak etxean egoteko kontsigna dago. Txomin Uriolagoitia, Baltasar Gracián, Miguel Dosamuno, Teodoro Nebrija, Axular Geroarte, Gabriel Arestimuño, Paul Choisenet, Hermanas Mercedes... Inor ere ez. Azken saialdia Otxandiora egingo dut, suposatzen baita lehenago ere bizkaitarrek, vikingoak itsasotik sartu zirenean, edo soilik, Hamalau Handia bezala, fortuna bila abenturatzen zirenean, handixek alde egiten zutela, San Antonio Urkiolakoari kandela bana agindurik, itzulera dohatsuaren kasuan. Federiko Kruwijana, Emilia Lasturgoitia, Eustakio Semantioia, Mario Ortiz de Abendaño, Flora Gezuraga, Katalina Otxandiano, Dorleta Santamaña... Emakume alargunen etxeetan ere ez dago erantzunik; denak senarren bidetik joan dira, antza, hain erraza izanik bake luzean bizitzea, defuntuari urtean bisita bat eginez, hark ez duela etxera itzultzerik eskatuko jakinda. Otxandion inor ez badago, Legutiora deitzeak apenas ekarriko lukeen desokupazioaren mugak haragotzea besterik. Gainera, urrunago inor balego, zertarako balioko lidake? Eta hona, hizkuntza exzepzionala beharko nukeen unean, *hau dok marka!* besterik ez damaidala barruak, ez hainbeste, hitzek ezin dutelako sentierarik inoiz proportzionalki

errepresentatu, baizik nire sentimena ez delako iristen esamolde horrexen esangura gainditzeko gaitasunera.

Nire ulermen gorena begiek dakusten pitinera (bertara ere zalanzkor) mugaturik gelditu denean, gainerako ezin-ulertze guztiarentzat nahikoa dut *hau dok marka*, ulertzen edo erdi-ulertzen nituen beste analogia batzuen karga dakarrelako; eta gure adimena horrelaxe doalako, analogia hurrenez hurren dudazkoen bitartez, ziurtasun bat garatzen, harik eta, bat-batean, kate guztiak ezer esplikatzen ez dizun unea jo arte. Ez da bera unerik txarrena, pentsatzeko komenentzia orotatik libratzen baitzaitu; ez, ordea, pentsaketatik, begiak ikustetik libra daitezkeen bezala. Hauek, noski, ez dute elkar ikusten, ispilu gezurtiaren bidez ez bada, nondik ateratzen den ezinikusia oinarrizko legea dela. Begiak nahikara itxi ditzaket; horixe da pentsamenagaz lortu ezin dudana, lokartzean ez bada. Kanpoko beroaren berroz etxeko kontraleihoak guztiz itxita, sukaldeko ekstraktorearen argi lotsor, koipe-ganduzko horiskatasunaren azpian ezkutatuagaz bakarrean, sukaldeko mahaian eseri naizenean, sarritan jo izan nauen sentsazio deliziosoak, zoriontsua esaten ausartzen ez naizenak, zirraratu nau, segurrenik laburreratik hain sakona bera: iluntasun freskoak babesten nau argitasun mingarritik, bere berezko borazitatetik; argiak asoziatuak leharrean kanpoko oldar eta hutsune orotatik bereizten nau iluntasun freskoak. Beharbada tenperatura kontu hutsa besterik ez da izango, iluntasun beroak torturaren hodeiz beteko bailuke nire burua, nahiz eta une horretan gutxien ardura izango lidakeen nire izatea tenperatura besterik ez ote den pentsatzeak. Sentsazioaren ukaldi zoriontsua amaiturik (ausartzen naiz 'zoriontsua' esaten, jarraitasunean mortala litzatekeena instant bati lotua izatekotan), haren uhinen fereku jasangarria eta alde-rantzitua gozatzen ari naiz. Uhinok, uretan edo airetan urrunkor bezala, denetik bueltan-bueltan, neu naizen erdian amoltsuki hiltzera datoz.

Gozamen hau guztia, izatez, aurreragoko hautu pretentzioso eta erratu batetik dator: etxea, nik ezagutzen edo behintzat maitatzen nituen landare guztien senez, eguzkibegira orientatzen ahaleginduz gainera, leiho handietako nahi izan nuen, beirateak exhibizionismo mediterraneartzat errefusaturik; horregaz ez nuen errakuntza erdibide burlagarrian kokatzea besterik lortu, ar-

giak, gorputz solidoen antzera, bere buruaren tamainako sarbideak behar bazu bezala, sobera nekienean bera baino askoz nagiago eta ez-eteroago den urak leihoska bat nahikoa duela gelarik handienak inundatzeko. Argiaren izen nobleak engainaturik, etxearen gailentasuna leihoen handitasunagaz batu nuen inozenteki, kanpoa barruan edo barrua kanpoan plantatzeko gogo primarioan, zeina, nire kasuan behintzat, ez zitekeen izan kanpotik gorputz osoz eta bizitza osoz ikusia izateko banitate-grina, halako striptease sozial enkubrituan, *gainera mundu guztia geure intimitatera begiluze beti*. Gure etxearen aurpegia haran beherakorrak eta aurrez aurreko (urruntasun hurbilean) Udalatxek eta Anbotok bakarrik obserbatua izateko moduan kokatua dago beren beregi, eta beharbada ikuspegi hori guztia sukaldeko mahaitik atzemateko afanari zor zaizkio leiho handiok, azkenean, leihorik txikiena baino infinituki txikiagoak diren begiak baliatuko ez banitu bezala panoramikarik zabalenak abarkatzeko; baina loria nintekeen, koilarea ahora zetorren bitartean, Anboto osoa platerean neukalako, nahiz eta gero leihoari bizkarra emateko tokia finkatu mahaian, sen primarioagoak defendatzen baininduen janaren paisaia-tik distrahituko ninduten edertasunez liluratzetik.

Anbotok lasaitzen nauelako irudipena ere ez dakit ez ote den haren presentzia infalibleak lasaitasunari eransten dion edertasun bat besterik, zeinak lasaitasun ustez lortua, baina, izatez, prebioa zena, maila sublimera jasotzen duen, edo emozio artistiko bihurrarazten, zeina, halaber, badaitekeen norbere sentimen fina delakoaren suposamen lausengaria besterik ez izatea, beharbada edertasuna norbere proiektzio desiratua baino ez delako. Garbi esanda, Anbotok ondo nagoenean bakarrik laguntzen dit benetan, zeren, esturatik edo nahigabetik begiraturik, haren profil inperturbablea iraingarriago zait lagungarri baino, nik berari jaulkitzeraino, bistatik aldendu nahi ez duelako: *Hi be hortxe beti, ezertarako odolik barik! Ba al dakik noiz hazen ederren? Lainopean hagoenean*. Ez diot luzaroegi ekingo, bere erantzunak gehiago sumin ez nazan: *Astiro, txotxo! Ni neure lekuan najagok, geldi eta mantso. Ez ni heure zirinkeria mentaletan nahasta – Zirinkeriak? Heu zer haz, ba, hatx konkor bat traban besterik, Otxandio ikusten be izten ez dauena? Honelakoetan, elkarrizketa laburrak izaten dira, ez ostera aldikada malenkonikoetan, non orduan bai Anbotok ez dakit ulertzen baina bai magaltzen nauen, edertasuna baino irla bat harago*

dagoen maitemin puntu atemporalera naroala. Egia osoa esateko, abailduran edo amorruan ere lagundu ohi dit, baina, zuzenki eta presenteki barik, oroimenean bakarrik agertzekotan, espetxeko egun bereziki tentso batean, esaterako, non murru gainetik edo barrote artetik hautematen den (baldin bada) izadi hondarrari desintegratzea besterik ez diozun opa (lurrak zu irensteak ez zaitu lurretik libratzen), garbi utzirik artean sentitzen zenion karinoa zeure oroimeneko geografiaren antzen bategatik zela; orduan esan zenezake Anboto beti dagoela hortxe, kontraleihoak itxi-itxirik, kanpo-mundu osotik askatu zaituen iluntasun freskoan ezabatu zaren arte.

Garroreneko morroiaren heriotzaren lekuko izan zen Martzelegaz obsesio-natu nintzenetik urteetara, behin baino gehiagotan xarmatuko ninduena datorkit gogora. Parkeko aulki batean eserita nagoela, besteen jolasari oraindik osoki jarraitzeko gai ez den haur bat ondo-ondoan eseri zait. Gustura esango nioke zerbait, baita xeratu ere, ikara dadin beldur ez banintz, susmatzen baitut errakuntzaz eseri dela nire ondoan, aita-edo naizelakoan. Hankak elkar joz, arnasestuan, barreak egiten ditu laguneren bihurrikeriez. Eskutxoa izturrean jarri dit eta, aurrean dakutsen mugimenduetan arriskurik edo zerbaiten inminentziarik somatzen badu, atximurkadaz darantzu. Noiz behinka, burua alboratzen dut, begiratu behar didala pentsaturik, baina, zorionez, haren baitan ez dago dudarik. Ustez nahikoa atsedean hartu duenean, edo berak ere egiteko moduko zilipurdiren bat deskubritu duenean, etorri bezain otzan alde egin du, inguruan dabiltzan usoetariko edozein bezala. Neu ere zutitu naiz, halako errakuntza dohatsua bigarrenean zapuzturik gerta ez dadin, eta haurraren ama dela atera dudanari (bazen erratzea gero!) diotsat: *Jagoizu umea, edonoren ondoan jesartzeko bizioa dauka eta*. Pasadizoa entzun duenean, emakumeak hots egiten du: *Oh! Horrek non dabilen be ez daki oraindino! – Segi deiola luzaro suberte horrek* –opaturik, urmaeleko ahateengana hurreratu naiz, munduan beste zereginik ez balego bezala. Hainbestekoa ez bazen ere, bazuen bere zirrara lau-bost urteko haur guztiak kalean neuri begira-begira gurutzatzeak, lehenengoz zapaltzen nuen hirian. Nire triumfalismoa asko apaldu zen, Olentzerotzat hartzen nindutela igarri nuenean. Baina historiak, horrelaxe ere, xarmagarri izaten darrai, ez noski, esan ohi denez, haurrekiko edo zer delako xarmagarri. Ez, ez. Edozer ez. Ez dago hain beldurgarri zaidanik

nola haur-kotxe ilarak, txupete ernegatuan datozenak, negarra bat-batean etenda, neugana adi-adi, buru-bihur pasa daitezen nire ondotik, atzean bultzatze konstruktiboan datozen amei 'segi horri!' ulertarazi ezinik, ezagutu banindute bezala. Zertatik?

Martzelekiko neukan portaeran, ez dakit parkeko haurraren konparazioa nondik hartu, neugandik ala haurragandik. Batetik, haur huraxe bezala eseretzen nintzen Martzelen ondoan, isilik, hain jakingogo nuenaz ezer galdetzen ausartu gabe, lagunen mugimenduak bertatik hautemateko base xoil bezala, errakuntza koldarkeriaz aldaturretik. Bestetik, neu hori bera, parkeko haurraren ondotik bezain kontzientzia osoz, apur batean egon eta aldendu egingo nintzaion disimuluan, egote luzeegia inpertinentzia bihurtuko ez ote zen beldurrez. Begiak eta sentimendua zabalik dituela bizi den edonori behin baino maizago gertatu izango zitzaion haur-errakuntzak hunkitu baninduen, txakur batenak aztoratu ere egin ninduen. Parkeko alde bakarti samarrean eserita nengoen, inguruan ez oin-hotsik, ez barbarorik, ez arimarik; usoak ogi birrinenez erakarri eta makilaz ukitu nahian zebilen agure biseradun bat besterik ez zen; eta txakur bat, zuhaitz artetik sigi-sagan agertu eta itzulinguru handi eta itxuraz arbitrarioetan hurreratu zitzaidana. Aulkiari usna bat eginik, niri begiratu ere egin gabe, ondoan jarri da, ia neure hanken kontran, lehenago hainbat aldiz, hainbat mundualditan, halaxe egonak bagina bezain lasai, bere ibilera deslaian eskala orientagarri bat aurkitu bailuen. Halaxe begiratzen du parke osora, norbaiten ondoan dagoela jakinik, baina hartaz interesatu gabe, ezinezkoa baita txakurra horretaraino erratzea; edo gaztea bada, umea nola bait, honen geldi eta ausente egotea, praka-barrenak endredatzen saiatu gabe. Txakur-buru mugikordun igeltsuzko pitxar baten gisan, kolorea ere zuria baitu, bere erreferentziatzat hautatu bide duenaz beste guztia ikusmiratzen dihardu. Beharbada, etorritz batera ukitu banio, jaramon egingo zidakeen, edo horzka beharbada, eta ez ginateke aurkituko egote erdibitu honetan, nire aldetik behintzat, zeren berak igual usteko baitu txakur baten presentzia hutsa badela aski mezu; neu, oster, zer esango dizuet, bada, artegatzen hasita nago, beldurtzen ez esateagatik, disimuluan nola alde egin diezaiokean asmatu guran. Zorionez, egotaldi gratuito bat eginik, aurrea hartu dit alde egiteko erabakian, neuk inondik ere hauteman ez dudana motiboren bat bide; segurre-

nik, orientazio soil bat, norabide imaginario bat, txakurrak irudimenez hornituago baitaude euren usna proberbialez baino. Halako elegantziaz alde egin du (ni ezertarako molestatu gabe, nahiz eta, atzerik hara, ezin duen ekidin ipurdia, joanean, apur bat alborantz eskapa dakion, alde bererantz okertzen zaion isats tenteak tiraturik), ezen pentsatu baitut neu nintzela okerreko lekuan zegoena. Distantzia egokira ikusi dudanean (egokitasun inertzialen bat segurrenik, animaliak ez baitu ez aldeko ez kontrako motiborik eman), neuk ere alde egiteari eman diot, kasu honetan txakurragan suposatzekoa zen norabide baten ere arrazoirik gabe, nahiz eta bai ernegu apur bategaz (azkeanean, sekula gehiago ikusiko ez dudan txakur bat gorrotatzera iritsiko ote naiz?), buruak ez baitit ematen, noraezean esertzea taktikoki normaltzat jotzekoa den bezala, gizona nola altxa zitekeen, nora joan ez jakiteko.

Nahi nuen konparaziotik askoz harago joan zitezkeen kontsiderapenok bertan behera utzirik, Martzelen ondora txakur huraxe bezala inguratzen nintzela esango nuke, nahiz eta ez hurtasun hain zorrozki mutuan. *Nekatu nok hainbeste ostikada emoten!*, hots eginez eseriko nintzen beragandik metro batera, bera jokora sartzeko gogorik gabe zegoela sumatzen nuen horma gainean. Gero ez nion hitzik egingo, berak esanari jarraitu besterik, pentsatzen bainuen nahigabeak eragozten ziola bestean jolasetan nahastea. *Sagar erdi bat gura dok?*, itaunduz hurreratuko nintzen hurrengoan, edo *ikus al dok alkatearenean zelako zakurra ekarri daben?* Edo ezer esan gabe ondoan eseri, eta ezer esan gabe egon, txakur misterioa bezala. Aldi batera, alde egingo nuen, pentsatzen bainuen *nora hoa?* hots egingo zuela, eta orduan nik, galdera horretan bere ondoan segi nezan desira suposatzeak zemaidan konfiantzagaz, *iturrira* erantzungo nion, *egarri nok* gehituz, berak *etorri gura al dok?* uler zezan intentziorik gabe; baina behin halaxe gertatu zen, eta hurrengoetan banekien, hitzen esanahi inmediatea gora-behera, iturrira lagunduko zidana. Ez nintzen sarriegi saiaturiko, ohartzen bainintzen urak, eta Alexen ezbearra gertatu zen kanalaren miniatura zirudien uhaska luzeak, eta amaierako ikuztegi laukizuzenak, asoziazio negargarriak zekarzkiola. Erremedioa askoz okerragoa izan zen, *joango al gozak hilerriari buelta bat emotera?* inozenteki proposatu nionean, hilerria guretzat ez baitzen jolas ezkutuetarako ahalbide paregabeak opatzen zituen hormazko itxitura bat besterik. Aurpegia immobilizatu zi-

tzaion, barne-garfioaren batek gorgoiletik heldu bailion; laster ohartu nintzen izuaren espresioa zela, hilerri osteko harizti umelean Alex agertuko ote zitzaien, ez hilerrietik kanpora salto eginda, orduan bete-betean pentsatu nuen moduan, era izugarriagoan baizik, handik urteetara jakinaraziko zidanez des-tinoak, berez gertatzeko baino ustekabe zartagarriagoak iristean, gure eskul-pazioa sublimatzeko edo, harrokiago, gure huskeria mirari bihurtzeko balio duen inbentzio ahalguztidun horrek.

Iturriaz eta hilerriaz beste hamaika bazter eta ibilbide baziren, Martzelek kezka gabe onartzeko modukoak, batez ere ilunkera batez, gauak beldurra ematen zidalako aitzakia ez guztiz egiazko baina beti sinesgarrian, ea etxera lagunduko zidan eskatu nionean. *Bide erdi bakarrik, Munozelairaino. Handik aurrera, etxeko argia ikustea nahikoa lagun joat.* Ni baino urte bi zaharragoa izanik, obligaziotzat hartu zuela pentsa zitekeena gero bidean balentria bilakatu zen, eta etxeko ateraino lagundu nahi zidan, nik ezezka ekin arren, bai bainekien harentzat mendia eta gaua, batez ere biak batera, niretzat baino arrotzago zirela.

– *Bide erdi ez al deustak eskatu?*

– *Erdi!*

– *Hago isilik orduan; beste erdia neure kontua dok.*

– *Sasoi dok etxeratzeko!* –agiraka egin zidan amak, sukaldean sartzean.

– *Lagunagaz etorri naz.*

– *Nongo laguna?*

– *Elizpeko Martzel.*

– *Zelan ez deustak barrura sartu eragin, zeozer eskaintzeko?*

– *Esan deustak, baina ez dau gura izan.*

– *Topatuko ete jok biderik bueltan?*

– *Hori be esan deustak, baina nahitaez etorri behar izan dau etxeraino.*

– *Heu zer? Gauez bildurtzen hasita? Badaezpada, ez jak akordatu egunez etortzerik!*

– *Abadeak tabakorra erostera bialdu gaitu.*

– *Eta zuek arrasti osoa behar! Kubara bialdu zaitue ala?*

Amaren agirakak baino aitaren bekoskoak gehiago kezkatu baninduen ere, okerkeria hura fortunagarri izan zen nire Martzelenganako hurbilkuntzan,

zeren, neuk azken elaboratu izango nukeen taktika bati esker, hots, abordatze zuzenerako ez-ausardiaren ondorio inboluntario gisan, haren lagun-min-tasun desiratuaren jabe sentitu bainintzen, biharamunean, *atzo ez al heuen biderik bueltan erratu?* galdetzean, argi atzeman nuen bezala haren erantzunean: *Ez najoan erratu, ez; baina, gau osoan galduta ibiltzeko bada be, lagunduko deuat heuk gura doanean; eta neuk ahal dodanean.* Limitazio eskulpagarri horri erantsi zion tonuak garbi adierazten zuen haren ahalegina moldatuko zela, halako zein bestelako laguntzetan, beti ahal izatea gerta zedin. *Errekara joango al gozak? Harrobietara lagunduko al deustak?* Bera arduratzen zen, sarritan, nik jarraitu ahal izateko baino plan gehiago proposatzen.

Errekara joateari beste gabe helburu ebidentearen izaera suposatzen zaion moduan, badirudi, harrobien kasuan, jendea ezbaian geratzen dela, *harrobietara zertara?* esanez bezala; susmoti, zehazkiago, han ezer onik pentsatzerik ez balego bezala. Guretzat harrobiak eszenatoki fantastikoak ziren, non elementu guztiz errealek eta liluragarriek era guztietara elkar hartzen edo ukatzen zuten: hondar mota guztiak, garbiak, nahasiak, duntan pilatuak, hedatuak; tamaina eta forma guztietako harriak, nahi adinako kopuruan; orgak, errailak, bagoiak; arrapalak, suabeak eta malkarrak; hormak, zuloak, gordelekuak; etxean ezagutzen ez genituen erreminta ikusgarriak; barrura erraz sartzeko moduko kasetak, non iltze okerretatik eskegitzen ziren harrobiko langileen arropa zelebreki higatuak; mahai trauskila, aluminiozko edontziak eta txoletak, ardo-garrafoiak ere bai bazterrean, ez beti hutsik, bai sarritan hondakin mingostuan, ajjrr!; hitz batez, lurak, bere azal milenariao erretiratzen hasten zaizkionean, ager ditzakeen dekorazio amorratuak. Erreka ere bertatik pasatzen zen, udako mehaldian hareak hertsaturiko meandrosketan; eta tartekako urlo epela, banan, binan zein multzoan palastatzeko moduko zabalera hautagarrietan, bera ere dudan, aurrera jarraitu ala bertan geratu. Guri, suabe baina ez geldoegi ere, jarrai zezan interesatzen zitzaigun, eta azkenean horixe egiten zuen beti, batzuetan geuk lagundurik, beste batzuetan geuk oztopaturik. Martzel urtxakurra bezalakoa zen, beti urondo guran, baina Alexena gertatu zenetik, ohartzten nintzen (beharbada neuk pentsatu), erreka zeharkatzean, pausoa bizkortu egiten zuela, uraren edo uretako aurpegi beldurrez bezala. Orduan pentsatu nuen gure umezaroko ekin-

tzarik zoragarrietariko bat (beharbada oso tenporala zelako) proposatzea, nola zen mutikoontzat txori-habia bila irtetea, neskatoentzat izan zitekeen bezala... zera... aa, oo... pentsa nolako elkargoan heziko ginen orduko neska-mutilak, jakin ere ez baitakit haien jardun kutuna zein izan zitekeen. *Bihar birigarro habia bat erakutsiko deuat*. Gauza hauek ez ziren galdera gisan proposatzen (*birigarro habia bat erakutsi deiadan gura dok?*), erabaki gisan jakinarazten baizik, ezetzaren ahalbide deferenterik ere aurreikusi gabe. *Topatuta daukaana? – Ondo topatuta! – Heuk bakarrik? – Orain bai – Orain? Zelan dok hori? – Lehen Alexek eta biok genkielako*.

Txori-habiak amodioen antzekoak ziren gure mutikozaroan. Batek neskalaguna eduki zezakeen, batzuetan banan gordetzekoa, beste batzuetan birean artean banatzekoa; informazio mailan, taldean ere parteka zitekeen, inoiz ere ez zabalegi, dozena erdiraino adibidez, albistea jakinegia bazen, banango huraxe ere ukatu egingo baitzen, atzera eginik edo eginarazirik zuzentasun moralaren kontroletan: abadea, maisu falangista, sakristauren alabak (abadeen neskameak, adinean luzatu gabe zeudeno, diskretago izango ziren, esamesen objektu sinesgarria etxean zeukatela jakinik), gaubeiletako arrosario-errezatzailea (gizonezkoa beti, andrezkoek hilaren inguruan ibili behar zutela suposatzen baitzen), herriko txatxala jakina, denek hartaz gaitzesateko zein maiseoak jasotzeko beharrezko zutena; uhin-jasaile ziren etxeokak eurak, bestearen etxeokak... Alexen aipua entzutean, Martzeli somatu nion durduria ez nuen geroago arte argituko, unean bertan barne-talka batek ohartarazi baitzidan nola urte mordoa aurreragoko gertaera mingots bat orduantxe bat-batean eztitu zen. Gero ere behin baino maizago gertatu ohi zait egintza ustez definitibo bat, handik hamar-kada batera-edo, beste egintza intranszendente batean kulminatzea, jatorrizko egintzak inondik ere markatzen ez zuen norabidean, gainera, zeina kontrakoa edo behintzat egintza harekiko gurutzatua izateak, hain zuzen, nabarmentzen duen gehien, burmuinaren ezker-eskuinak gorputzean alderantziz erabakitzen diren antzera. Hori gertatzean, ezin dut halako konmozio bat ekidin, neure burua hain lotura inpentsatuan aurkitzeagatik baino ez gutxiago, bitartean hil izatera, egintza hura erremediogabe eta zorrigaizki mutilaturik geldituko zela pentsatzeagatik.

Norbaitek eragotz lezake ea, behin hilez gero, zer ardura dion lastoa buztanpetik zein esplikazioak enpirismotik, baina, bizi garen, gertagai erabat inposibleak ere gai dira gure gogoak zauskatzeko, esan nahi baita gai garela, sentipen arbitrarioak sortuz (sentipen gisan, besteak bezain errealak eta sarritan bortitzagoak), errealitate inapelablea nahasteko. Izango da aldarrikatzen duenik, gaitasun maneiatazaila horrixe eskerrak zaigula bizitza hau eraman-garri, baita liluragarri ere, baldin, beti ere, mundualdi arrakastatsu samarra egokitu bazaigu, miseriak edo zorigaitzak ez bailuke distintzioen hautemate-rik jasango. Ohartu nintzen Alexek behinola egin zidan zapokeria bat erarik dohatsuenean burutzeaz zela oraintxe. Geroztik, honelakoetan, neure buruari nola agintzen ikasia dut, *ez hadi lar poztu, alderantzizkoetan jausteko dohaia garatu ez dakian*. Ez dut nahi izaten gauza onegirik gerta dakidan, gero, auskalo noiz, alderantzizko kulminazioen batek jo ez nagan. Datorrena datorrela sufritzera mentalizaturik nago, baina ez ekiditen ez saiatzeko bezain inozenteki. Badakit egintza bat, denboraren ñabardura salbu, beste egintza batean osatzea ez dela hainbesteko misterioa, idazle zuhur asko (irakurle kokoloez ohartzeko gai direnak, alegia) horrelakoxe asmazioekin ospetsu egin badira ere; pellokeria atraktiboki aurkeztuak, edozein amesgaitzek hobeto erabaki ohi dituenak, salbu *Txoriak* filmekoak, bele beltzak zenbatzen hasi nintzenetik: hilak hemen, biziak hor, hilak hemen, biziak hor... baina hori ez da idazmena, bidentzia baizik. Egintzek, nahitaezko zaien segida batean gertaturik, bata-bes-tea esplikatzear beste erremediorik ez daukate, esan nahi baita ez dutela, propietatez hitz eginda, inolako esplikaziorik behar. Halako zerbait nola di-txosozko zoriona delakoa, zeina posible dela suposatu duena esplikazio infi-nituetan eta argibide inposibleetan ahituko den, denok amaigabeki zorabiaraziz dibertitzen den Prousten bat ez bada. Benetako zoriontsua, horrelakorik bada pentsa baliteke, nekez arduratuko da ezer esplikatzen.

Gertaeren segidak esplikazio suzesiboen irudipenik ez sortzeko era ba-karra denak batera gertatzea litzateke; horixe da, hain zuzen, denbora kan-potik ezarritako gorputz arrotz gisan baizik asimilatu ezin duen memorian gertatzen dena, zertarako garbi ez dakigula, zeren gero, denak batera pen-tsatzeko ezgai izanez gainera, gehienak ezin ditugu azaleratu, hortxe dau-dela jakin arren, gure kontzientzia beste arrangura irresoluble bat gehiagoz

kargaturik. Aurrekoz atzerantz zein atzekoz aurrerantz, egintzak nahitaezko elkarloturan gertatzearen salbuespen bakarra heriotza dateke, zeinak, aurre guztiaren esplikazio izan eta gero, atzeko ezer ez duen esplikatzeko, eta, *hau be badok, ba, kasualitate alua!*, bera izan benetan arduratzen gaituen bakarra, zeragaz, kasu horretan, salbuespenak ez duen noski araurik baitesten, baina bai dena izorratzen, norbera barne, liberame domne. Eta hona nola iritsi naizen, bide guztiek Erromara bezala, denak haraxe naraman ondorio praktikora, pellokerietan induska hastearren, zeren zilegitzat jo baita pentsatzea, batez ere ospeari txintxin hotsa gehitu bazaio, bakoitza libre dela nahi duena sinesteko, ohartu gabe sinesteak fideltasuna eskatuko duela, zeinak halaber, beharbada txintxin ospetsuari kategoria profetikoa aitor diezaioten lortuko duen arren, sineste horren jarraibide mugatutik beste posibilitateak (infinitu posible oso bat) galaraziko dizkion, askatasun ondo hautatuaren alardean. Hortik ez da nahitaez atera behar idazlearen kalitatea bere zenbat-sinestearen alderantzizkoa denik, baina halako sate-lite bategaz majo konponduko nintzatekeela uste dut, orain berandu da baina.

Zer hauek guztiak ez nituen pentsatzen, Martzeli, durdura-habiaren ondoren, Alexena aipatu nionean, baina ziurtzat jotzea komeni zait hauek ezingo nituzkeela haiek gabe pentsatu. Martzeli somatu nion durduzatik hain aparte eta kasik hain batera sentitu nuen barne-talka berri egin zen, baita indartu ere aurrekoaren gainean, esan zidanean: *Durdura-habia hori badakidala uste joat* – *Zelan, Alexek eta biok bakarrik bagenkien?* – *Neuk be horixe uste najoan: berak eta biok bakarrik genkiela* – *Ez dok izango!* – hots egin nuen, benetako harridura pozera itzultzen ezin ausaturik, barrutik pentsatzen nuela: *Joño! Hemen biziak eta hilak, denok gozak tranposoak!* Niretzat ‘tranposoa’ gogorrakoa zen ‘traidorea’ baino, eta oraintxe ere ez dakit, bat beharrean, zein nahiko nukeen azken entzun. *Goazen, orduan! Honezkero, umeak lumatzen hasita jagozak* – presatu nintzen, abiatzeko plantan, behinolako oker guztiak hain erara berrosatzeko okasioari lehenbailehen heldu guran; baina, interbenitzeko, gauzak ondoegi irtengo diren unearen zain beti egon ohi den jeinu bekaiztia hauteman nuen Martzelen aurpegi penatuan, niri jarraitzeko beldur zedin lortzen ari zena. *Tirok, Martzel! Zeri begira hago? Txorikumeek alde eta gero ailegatzea ez dok ganora*

izango! Jeinuak nire aurpegian intentzio asasinoa ikusi zuelako atzera egin zuela sinestea harrogarriago litzateke, baina durdurakume ihesgarrien xarma irresistibleea besterik ez zela izan uste dut. Ezbaiune laburrean luze baten ondoren, kanalerantz abiatu ginen, biok isilik, Martzel atzetik tiraka bezala, txorikumeen ikustea ikusi nahi ez zuen beste zeretik nola bereiztu pentsatzen, eta ni txorikumeen zera hartarako deigarri bat besterik ez zen hura lortuko ote nuen urduritasunez. Hark oraintsuko gertaera batetik urrundu nahi zuen eta nik antzinako desengainu bat gaurkotasun dohatsura itzuli nahi nuen.

Ur-zentralaren parera zetorren kanal luzea elizaldetik pare bat kilometrorra zegoen, Oiz mendikatearen apalgune batetik zeharretara. Zentral gaineko hodi ia bertikaletik abiakerako urtegi biribil handira, beste pare bat kilometroan igotzen zen, goranzko xuabeen, mendiaren zokon-ganbil guztiak eginez. Kanal harexen gain aldeko basoetara jo genuen behinola ere, bizpahiru urte lehenago (hori nahikoa 'behinola' da, astea gizaldi bat izan litekeen umezaroan), txori-habia bila, igande arratsalde garden batean, bezperan hartarako plana eginik, gurera etorri ziren Alex eta 'Raku' deitzen genionak, eta gure anaia zaharragoak eta biok. Lauretarik txikiena neu izanik, poza ere handiena neroala uste dut, urtean behin San Martin baselizako erromeriarantz pasatzen ginen paraje amesgarri haietan zehar, nahiz eta niretzat orduan egunerotasun kutunetik haragoko urruntasun oro zen amesgarri; batez ere hala, baso-koipetsu egiteko askari eta guzti, espedizioan gindoazenean, gero Afrikako safarietarantz berdintzerik lortuko ez nuen ilusioan. Alex eta nire anaia begiztatzaileak ziren, Alex batez ere, txori-habiei erreparatzeko aparteko begia zeukana; Rakuren eta nire zeregina haiek aurkituriko habiara igotzea izango zen, niretzat mundua hartarako sortua izan zitekeen egitekorik zoragarriena, xarma eta azaina-kutsua nahastean, zuhaitz batzuetara igotzea ez baitzen kanpandorretik begiratzeari, batez ere, habia punta samarrean egonik, haizeak eta norbere pisuak zorabiozko kulunka eragiten zutenean, zuhaitzak berak ere, emozioa alar-maz handiesteko, batzuetan karrak eta inoiz beldurgarriro karrask egiten zuela. *Jaitsi hadi hortik, apurtu behar jak eta! – Txorikumeak hatz bitara daukadaz! – Dagozela bertan! Jaisteko esan deuat!* Nik banekien karraskada aparatoso haiek zuhaitzen mintzaira zirela, eta nahiz eta, okerrean pentsatzeko

beti izan dudan sen husgabeagatik, neu ere batzuetan azkenaurrean sentitzeraino beldurtzen nintzen, orduantxe zen nor-nongoa nintzen erakusteko unea, basotarra alegia, ia basatia, niretzat orduan basatasuna bikainagoa baitzen gizatasuna baino.

Joan eta joan, ez genuen ezer ganorazkorik aurkitzen, lantzean begiratu-saririk ere ez zeukan txori txiki habiaren bat besterik, berau ere aurreko urtekoa ez bazen. *Urrunegi ez al goazek? Eurt egin beharko joagu* –esan zuen Rakuk, zeinari Alexek erantzun zion: *Ez jagok eurtik, motibo on bat aurkitu arte* – *Gaua ez dok motiboa?* – *Hago isilik, oiloki hori! Oraindino eguzkia altu jagok.* Itxaropena txikitu ahala, irrika handitzen nabari nuen, Alexek noiz iragarriko ote zuen, halako batean, nire gorputza lehenik dardaran eta berehala ikotika ipiniz, aldarrikatu zuena: *Hara! Hauxe bai! Oskilazo habia dok, gainera!* Bere arkitektura trakets edo abarrerria rustikoki ordenatuan, oskilazoa gure umezaroko txoririk estimatuena zen, jangarrietan handiena eta gozoa. Ba ei ziren belea jaten zutenak ere. *Hamaika listok eskertu jeustak usorik gozoena jatea, eta nik 'ez horregaitik' erantzun behar, belea jan ebelako.* Harrotasun horregaz jubilatuta zen Arriandiko Josepak ez zeukan irakurtzen ez jakiteaz akonplexatu beharrik, gerra osteko gosekilak ez ezik, baialdiko gizaseme ilustre eta ahofinak ere kontsola zitzan, zertatik ateratzen den ezjakintasuna ausartagoa dela ausardia eleganteen kasuan. *Edarra, Josepa! Bihar be holakoxea ipini zuk* – *To! Zuek zer uste dozue? Gurean usoak ate-joka etortzen direla?* Jaiotzatik bertatik etxe inguruko izan genuen belearen ipuin bat gehiagotzat jo izango nukeen esamesa hartaz ez neukan dudan jarraitzerik, Josepa bera ezagutu nuenean, *hi be uso usainean hator?* esanez, non laster ulertu nuen arrianditarrak zergatik zebiltzan hain artega. Beleak auzoan albokera mugitzen ei ziren, autodefentsa inozoan eurok (parterik txarrenekoak izanik ere –ei ziren–, horien inteligentzia ez zen maleziaraino iristen), ez-ikusi egiteak destinetik libratuko zituelakoan, ohartu gabe saiheskera haiek ez zutela Josepa engainatuko marionetek euron maneiatzailea baino gehiago, eta hark nahikoa zuela bere agente efikaz askotariko edonori iradokitzea: *Hi! Aspaldion baltzune lartxo ez al jabilk gure landetan?* Agenteak horregaz bazekien ehiza beltzari ekin behar zitzaiola, Josepak aste barruan bazkaltiar eleganteak itxaroten zituelako.

Pinu enborraren erdi inguruan gora, ni astiro eta kontuz, adar iharren bel-
durrez baino gehiago, hurbilkuntzaren zoramena luzatu guran, atzetik zeto-
rren Rakuk nahita ere ezingo zidala aurrerik hartu jakinik (neureak izango
ziren oskilazokume haien gainera jausiko ziren lehenengo giza begiak), bagin-
doazen igotzen, hankarteko urradurez ohartzeko; oskilazo aita-amek, zein
zen arra eta zein emea ezin bereizterainoko hara-hona karrakarian (hauen
kantu normalak zurezko eskailera oinpean apurtzen zaizula badirudi, pentsa
desesperazioan), alarma posizioak txandatu besterik ez zuten egiten, susmatu
gabe, erasotzen ausartzera, gu euren ingurunean ahultasun guztiz menpera-
garriak ginela; haiek ere, gaizoak, lehenengoz jarkitzen zitzaizkion, antza, ha-
lako harrapaketari, eta ez zitzaien otu, are gutxiago larritasun hartan, euren
metodo milenarioak egoera berrira egokitzerik. Ni, alde batetik, desiratzen
nengoen benetan eraso ziezaguten, hala gure akzioak bataila epiko baten
duintasuna har zezan, zeren, egia esan, ikusle jarririk, kosta egingo zitzaida-
keen noren alde nengoen erabakitzen. Neu ez beste bat izanik, Raku bera,
esaterako, ziur txorien alde egin izango nukeena, geroago, heriotzadun korri-
detan, barruak beti zezena animatzeko aginduko zidalakotik atera zitekee-
nez. Arbolan gorago eta beherantz gutxiago begiratzen ahaleginduz, lurretik
goiak hur samar iruditu arren, goitik lurra oso urrun ikusten baitzen, halako
batean, *hor daukak! hor daukak!* deihadarrak entzuten nituela (haiek ere euren
bitartekotzari esleitu nahi iritsiera), arnasa estutuak eta bihotz azkartuak gel-
dialdi bateratua egin zuten, begiek habia-barrua ikustea lortu zutenean. Hain
ikuskitun zoragarriak bazuen, hala ere, dezepziotzat jotzen ausartzen ez,
baina gogoaz uzkuritu zidan alde bat, paraxutari lurra ukitzean gertatu ohi
zaion antzera. *Zenbat jagozak?* –galdetzen zidan Rakuk, bernalatik tirakadak
eginez. *Zenbat?* –hots egiten zuten behetik Alexek eta nire anaiak. Ahotsez
erantzuteko adore gabe, hatzekin adierazi nuen. *Bi?* Bi bakarrik zeuden! Ga-
lant eta potolo, habia osoa betetzen zuten eta, euren ongizate konfiatuan, gor-
putza kankailuki inarrostean eta mokoak zabal-zabal irekitzen zituzten,
aho-ganga gorriskak hunkiarazle erakutsiz. Rakuri berak eskatu aurretik
eman nion bat, eta golkoan izaki epel-epel eta dardarati bana gereramala, go-
ranzkoan baino kontuzago jaitsi ginen, oraingoan Raku aurretik, ni atzetik.
Alexi eta nire anaiari eskuratu genizkien. Haien bi eskuak, ahurkadan hartu-
rik, txorikumeak haztatzen eta ferekatzen ari zirela, ezinegonak galdearazi

zidan: *Orain zer egin behar joagu? – Nolako zer egin? –kontragaldetu zuen Alexek, ahoskera bihurtuan eta begirada bekoskotuan. Txorikume bi jaukaguzak eta geu lau gozak – Ohoho! –barregangartu zen –. Hori beste habia bat topatuta konponduko joagu – Eta topatzen ez badogu? – Topatzen ez badogu, honeek biok euren habian itzi eta bakea – Ez litzatekek txarrena –onetsi nuen apalki, biharamunean, behizain nindoala, behiak galtzeko arriskuan bazen ere, eskapaldi batean, zer ederto altxatuko nituen burutapen kilikorra disimulatuz, beste guztiek ere antzeko zer bait pentsa zezaketenik erreparatu gabe.*

Arratsaldea aurrera zihoan; itzuli beharra zegoen. Mendi zikin eta sasi-tsuak ez zuen joaneko bideaz beste itzul aukerarik ematen; haranzkoan arinki samar pasaturiko zokondoak zehatzago ikuskatzea baino ez zegoen, beste habiarik aurkituko bagenuen. Ez zen zorterik izan. Anaia eta biok Torrebururantz eta Alex eta Raku Etxanorantz apartatzeko bidegurutzera iristear ginel, kezkatuik esan nuen:

– *Orain oskilazokumeok zelan itziko joguzak euren habian?*

– *Hi zoratuta hago! –haserre egin zidan Alexek.*

– *Heuk esan dok lehen! –tematu nion.*

– *Ohoho! Sinistu egin dok?*

– *Orduan, zelan banandu behar joguzak?*

– *Beste habiarik topatu ez dogunez gero, zotz egin beharko.*

– *Zuzenena guk biok bat eta zuek biok bestea litzatekek –esan zuen nire anaiak.*

– *Bai argia be 'Torreburu'! Zuek etxe berekoak zarie eta gu ez. Zotzaz beste zuzenik ez jagok hemen, biak neuk eroaterik gura ez badozue.*

Laurok korruan jarri ginen eta, *bat, bi, hiru, lau!* hots egindakoan, bakoitzak esku bateko hainbana hatz atzetik atera genuen, eta Alexek *hiru eta bost zortzi, eta bi hamar, eta hiru hamairu* kontatu zituen. Segian, bere hurrengoagandik eskuinerantz hasi eta bakoitzagan zenbaki bat husten joanik, hamairugarrean, orduan ohiko genuen zotz-formulagaz jarraitu zuen: *En un / café / rifa-ron / un gato / al que le / toca / número / cuatro / una / dos / tres y / cuatro!* Ia erdaraz tutik ez genekienok gaztelaniazko formula erabiltzeko bitxitasun hori pentsa liteke zoria, onean zein txarrean, arkanotzat baino gehiago, arrotzat

sentitzen genuelako zela, komedianteak eta txarlatanak bezalatsu, denak hiz-jario zelebrea agertzen eta aldentzen zirenak, ofizioa ere hizkuntza hartako eksklusiboa bailitzan. Nik neure baitan induskatuz gero, aurkitzen dut arroz-tasuna ulertezinagaz lotuago zegoela, zeina (beste bitxitasun bat) zuzentasun objektiboagaz lotu ohi nuen. Adibiderik gorena Jainkoa zen, latinez errebelatzen zitzaiguna; benetan errebelatu ere, adin hartan latina ulergarriago zitzaidala esan izango bainukeen, gaztelania baino. *Pater noster, zulora laster. Kirie eleison, Kriste eleison, sei andre eta zazpi gizon. De fame et bello, dinbi-danba Domine! Sursun corda buzkantzu gorda. Mea culpa, mea culpa, katua ohapean eztulka.* Hauek guztiak errazago ulertzen nituen, *Iparragirre abila dala edo etorriko da bueltea baino. Andrea gaztea daukazu gero! – Baita alaba be! – Ez deusut esan horregaitik – Ez, baina nik komeni dena atoan ulertzen dot. Una, dos, tres y cuatro, zeruan be egon lei txarto. Zer barri herbeheran? Joan eta ikasiko dok erderan.*

Nire haurtzaroko egirik fantastikoenetariko bat ‘Larrosia’-ren (‘Larruzea’ izan behar zuen) txolet-txosnan tiratzea izango zen. Lehenengo ikustaldian, begiratze hutsez ere nahikoa lan eta zorte izango nuen, txunditurik bazter batean, halako gizakume gerakaitza, isilgaitza, aurpegia gari-jotzeko harria baino zailduago, euskara hutsean entzunez. (Bilboko San Frantziskon, Mariaren Bihotza plazako gurutzea On Kixoteren berrinkarnazioa iruditu zait, baina bera izan da). Tiraldiko bost txakur txikitan, distantzia jakin batetik trapuzko hiru pilotagaz jo beharreko txolet-piramidea baino (denak apal osteria ezkutatze zailaren saria litxarrerriak, panpinak, metalezko trepetxu txikiak ziren) erreklamua deigarriagoa asmatu zuen, txoleten lekuan, bere aurpegia eskainiz itutzat. Barregarriro ikusgarria zen nola saihesten zituen, suge tentearen burua bailitzan, gehienez jarraian eta ziztuan, ez gutxitan errabiaz, jaurtitzen zizkioten pilotakadak, keinuz eta aldrebeskeriaz beteriko hizjario inberosimilez, tiratzailea errarazten edo bizimoduari aurpegi ematen saiatzen zela: *Jaurti, jaurti pilota gozatsuak! Amamaren kirruzko kamisoi-mozkinez eginak; aiteitaren belarri sobraz forratuak. Jaurti, jaurti sua uragaz nahastean! Burua egosi premian jaukaat.* Burua ezkututzen bazuen, beste tiraldi bat eman behar zuen. Aurpegia azartatzen zitzaion bakoitzeko, bazen zerbait sari, baina saririk onena azartatzea bera zen. Umeeekin hainbesteko arriskurik izan ez arren, mutil kazkonduak eta apunteria zorrotzekoak hari aurpegia handitzeko

leihan etortzen ziren; pilota inofentsibo samarren aitzakian, jaurtitzailerearen grinari ituaren begia harrapatzea gehituz gero, aberia gerta zitekeen, batez ere beti izan ohi den gaitzerako jeniodunen batek, dismuluan, pilotak ardotan edo limonadatan astuntzen bazituen. Egitekoak behin egingo zuen azioa, Larrosiak, bat-batean, berez ere hartarako askorik falta ez zuen gepardotasunean, txosnatik jauzian kanporatu eta erromeria guztian zehar jazarriko baitzuen grazioso. Harrapatzen zuenaren errukarria!

Tiraldi haiek txoletenak baino garestiagoak izan arren, aurpegikoen hartze-ematea hain desfaborableki konbinatzen zen bizieran, aukera legitimo hark sekula ez zuen bezerorik falta izaten. *Horrek irabaziko jok diru piloa!*, pentsatzen nuen, txunditurik. Gerora jakingo nuen dozena bat neba-arrebatarik hamaikagarrena zela, non amak, taloak egin ahala, airera jaurtitzen ei zituen, lurra jo zezaten beldurrik gabe, atzean hienakumeak bezala zain zeuden umeek airean harrapatuko baitzituzten; non, etxean ez urik ez garbitzeko astirik izan ez arren, amaren oinak bonboiak baino garbiago egoten ei ziren, umerik txikien biek ohean bular bana edoskitzen zioten bitartean, besteek ilarran behatzak xurgatzen zizkiotelako (*ekin deioela* –pentsatuko zuen ama ahi-tuak–, *entretenu alde bada be*); non umeekin argi ibili behar ei zen, patatak, heldu aurretik, soroan bertan atera eta gordinik jan ez zitzaten, bareekin untaturik. *Nongo txarrikumeak ibili dozak gure patata-soloan?* –galdetuko zuen aita ernegatuak, beti beranduegi ohartuak, eta oraingoan ‘txarrikumeena’ azeptzio iraingarrian barik laudagarrian zioen, txerriaren muturra patata ateratzaile artosoa baita, lanak kurioso egin zale ez bada ere. Amak, geroago, soro espoliatua erresignazioz ikustetik bueltan, *auzokoetan ez zinien ibiliko, eztok?* galde-tuko zuen mehatxu-airean, lapiko zaharrei eraginez, hauen zaratak erantzun bekataria entzuteak aldatu izango ez ziokeen transigentziatik libra zezan. Orain ia ipuintzat gogoratu arren, orduko egoera orokorrak hain sinesgarri egiten zituen zertzelada hauen guztien ezagutzak ez ninduen, noski, Larrosiaz liluratuko, komediante erdaldunen mundu urrunetik euskaraz agertu izan ez balitz, ez bainekien horrexegatik hain zuzen ez ote nuen, bihotzak harrenganako eskatzen zidan harrotasunaren lekuan, estrainoagotzat jo behar, parte txarrekotzat, garbi esanda, harik eta geure jaiotetxetik bistan zegoen auzo batekoa zela jakin arte. Eskolan ikasazten zizkiguten zerrendetako

konkistari basakoak, Lope de Aguirre eta abar, errazago imaginatzen nituen Boroatik irteten, *Larrosia txoleteroa* baino.

Urte batzuk geroago, prosperaturik edo desesperaturik, txinberazko tira-keta ere ipini zuen aukeran. Zizpa txiki hark perdigo bakarra jaurtitzen zuen, itu biribilaren ninia joez gero, goiko partean mozolotxo baten irteera akzionatzen zuena, sari seinale. Tiraldi hari ez zegoen aurpegia jartzerik, benetako tiroa baitzen. Tiratzaileak ere adin bat behar zuen, hartan jokatzeko. Ni baino urte batzuk zaharragoa zen ikaskide batek, tiratzaile trebea ei zenak, bi begiak zabalik zituela jaurtitzen zuela ikusi nuen harriturik. *Horrela zelan joko dok, ba?* hots eginez, begi bat eskuagaz estali nion. Tiratzen jarraitu zuen, eta Larrosia deabruak harturik bezala oldartu zitzaigun, garrasi gorrian: *Zertan zabilze belakume madarikatuok? Txosna guztia birrindu behar al dozue, neu eta guzti?* Abadegaiak ('belakumeak') ginela ikusi ez balu, zehatuko gintuen, noski. Izuturik gelditu nintzen, sustoagatik baino gehiago, gertatuaren ezin-ulertuagatik. Handik urteetara jakingo nuen nire lagunak, halakoxe txinbera bategaz umetan izandako ezbeharretik, begi bateko ikusmena guztiz galdua zuela. Begi sanoa estali nion, antza, baina hark tiratzen jarraitu, auskalo norantz, bere akatsa ez deklaratzearren.

Lehenengo oskilazokumea Alexi berari tokatu zitzaion. Ondoren, bera zoztetik kanpora geraturik, gauza bera egin zuen beste hirurokin. *Bat, bi... hamabi, hamairu. En un café... uno / dos / tres y / cuatro!* Niretzat *tres y... zapla!!* izan zen. Bigarren oskilazokumea Rakuri tokatu zitzaion. Zozketa ondorioz hain desiguala ikusteak ostentzear zen eguzkia zauritu egin zuela iruditu zitzaidan. *Gabon, bilhar arte.* Hantxe banatu ginen. Anaia eta biok burumakur gindoazen etxerantz, ni haur batek jasan dezakeen atsekaberik handienez (handia baita haurren atsekabe ahalmena!), mendian behera laurak imaginatzen nituela, bi lagunak eta bi oskilazokumeak, hauek haiek baino inportanteagoak noski, Jainkoak bestela-ustean egin bazituen ere. *Alexek ez euskuan tranpa egingo?* Galdera horrexek altxatu zuen noizbait isiltasun zapaldua, zeinak anaiaren ahotik erantzun zuen: *Hago isilik, txorokil hori! Tranpa zelan izango zoon, ba?* Beharbada engainatuak izanaren lotsatik (kokolotasun nabarmenegitik) libratzearren esan izango zuen hori, baina nik ezin nuen susmorik eki-

din, gure alderanzko zortetik eza ez ote zen beste alderantz bapo estudiantua izan, nahiz eta denborak pentsarazi didan neu ez ote nintzen, zozketa triste hartan, zortetsuen irten, zoriari hartu nion higuinagatik.

Urte mordoia geroago (zortzi, alegia, gizaldi oso bat adin hartan, nahiz eta geroago berrogeita hamarreko aldia saltotxo bat iruditu, bitartean hiltzeko zoria –ona ala txarra?– gertatu ez bazaizu), mundua zoriz sortu izango zelako teoriak entzuten hasiz batera ezetsarazi zizkidan oskilazokume oraindik ere galeragatik maiteegi haien gomutak; Jainko sortzailearen argudioek, berriz, gehiago atzeratzen ninduten, zoriaren aurpegi kilikagarriaren iruntzian, hain ahalguztidun bihozgabea nor izan zitekeen kalkulatzeko ez bainuen hasi nahi, Alexena hain tristeki amaitu zenez gero. Aldi beretsuan, biziaren agerpeneko teorietan, sorkuntza espontaneoaren zeritzona ere laster errefusatuko nuen, nahiz eta Jainkoaren egintza direktoa ere umekeria begitandu; baina hori ez zen objekzio larria, edo, bazen ere, xarmagarria zen, orduan eta orain molestatzen nautenak ez baitira umeak, batzuetan belarrietatik eskegita politago iruditzen zaizkidanak. Gero, neure ofizio txiki baina eman-korretariko, Larrosia txoleteroaren antzeko izango zen bertsolaritzan ere, hara non topatzen dudan ‘berezkoa’ zelakoaren teoria ia dibinoa, Jainkoa tartean zegoelako baino ez gutxiago, neu tartean egon nintekeelako hunkiturik irentsi nuena. Itzela zen, izan ere, norberak zer zen ez zekien eta besteak jakiten saiatuko ez ziren bikaintasun baten kutxa sentitzea, batez ere lehen miresmenak batzen hasten zinenen. Hainbeste kostatako (denborari eta batez ere gurasoei) karrera amaitu duzu, eta inork ez dizu txalorik jo. Bertso koskor bat ‘botatzeagatik’, ostera (zer ez ote litzateke ‘kantatzeagatik’?), errebelazio bihurtu zara. Azkenean, nago ez ote dudan berezkoarena berronartu beharko, zeren, nahiz eta bere bururik esplikatu ezin, beste gauza nahikoa esplikaezin batzuk uler-itxuran jartzen baititu.

Biharamunean, *zer? oskilazokumeak jan zenduezen?* nik galdeturik, Alexek darantzu: *Hazi egin behar joguzak. Biak Garrorenean jaukaazat. Pena hartu heuen, ez tok?* Apur bat albokera eta burukamur, ez erasorako, ez erretirarako posizioan nengoela, ni obserbatzen ari zela sentitzen nuen, gero zer egin larregi ez jakitea sarrera sendoz fortifikatzeko, begirada luzean inguratzen zaituen

psikologoak bezala; edo ezer ez denak, baina, hartara jarri izan balitz, egundokoa izan behar zukeenak bezala. Ez. Alexek ez zuen ezer fingitzeko premiarik sentitzen, beso bategaz nire sorbaldetara uztarturik, abiatzera sakatu zidanean, esanez:

– *Tirok! Ez hadi triste egon. Beste habia bat erakutsiko deuat.*

– *Zerena?*

– *Zozoarena.*

– *Edarra ordaina! Zozoa eta oskilazoa konparatuko dozak!*

– *Lau ume jaukazak gero!*

– *Ezta hamalau baleukaz be!*

– *Ez dok ikusi gura?*

Nire urguiluak, edo arinegi ematu nahi ez zuen bezperako minak, ez zuen baietzera errenditu nahi, baina nire gorputzak eramana zela sinesteko baino erresistentzia txikiagoa jarki zion Alexen eskaintzari. Harrobi zahar bateko urritz trinko batean, lau zozokume oraindik gorri samar ikusi nituenean, atsekabeak ez zion bere motiboari uko egin nahi, baina irribarrea zara-zara etorri zen; ez dago halako habiakada baten samurtasunak, edo ez dakit bizitasunak, une batean behintzat leunduko ez duen adaporik. *Inori ez esan gero!* –agindu zidan, ukabila altuan–. *Honen barri biok bakarrik jakiagu.* Bi egunez behin joango ginen zozokumeak ikustera. Nik, bitartetan ere, neure kabuz eta isilki, ahal nuen guztian bisitatzen nituen neure lehengusutxoak, amesgarria baitzen nola lumaz janzten zihoazen ikustea eta, euren aho irekietan sarturiko nire atzamartxoa irensten saiatzen zirenean, moko-ertz horien zorrotasun kilikorra sentitzea. Haietariko batean, Alexek esan zuen: *Hurrengoan jaso egin behar joguzak; honeek hanka egitear jagozak.*

Joan ginen eta habia hutsik zegoen. *Nor ibili dok hemen?* –galdetu zuen zakarki Alexek. *Ni ez, berton hiltzeko!* – *Orduan nor, beste inork ez bazekien?* – *Sugeren bat izango zoan – Sugea? Hanka biko sugea, eztok?* Une batez ikaratu egin nintzen, Alexen suminaren ondorio inprebisibleengatik baino ez gutxiago, pentsatuz neure baitako indar gaizkileren batek ez ote zidan jaulkiarazi *berton hiltzeko!* zin erabateko hura, une batetik bestera bertan egia merezi bihur

zedin. Zorionez, beldurren konbinazioak ez zuen bere buruaren lorratza besterik utzi, Alexek mehatxu epea luzatu egin baitzuen, ekintza inmediatearen utziera denboraren gaineko domeinura proiektatu guran edo. *Ahalegindu heintekete suge hori lehenbailehen topatu eta... han-ka-bi-ak-moz-ten!* –nabarmendu zituen hitzok, neure hanketara adi-adi–, *nik topetan bajoat, belarrietatik hasiko nok eta; susmoa jaukaat suge horrek belarriak be galantak izango dituela.* Orain belarrietara begiraten zidan. Kontua zen ezen, handik egun batzuetara (bitartean, konpondu nintzen haregaz topo egitetik libratzeko, herrira ez jaiste mingarriz bazen ere), *zer? hanka biko sugea agertu dok?*, edo era direktoagoan eta behetik goraino begiraturaz, *zelan jabilk gure hanka biko sugea? gogorki galdetu beharrean (denboragaz leunduz joango zen gogortasuna, bestalde, hura ere ez baitzen arrenkura hartatik bakarrik bizi), hanka biko sugea zelakoa gure adiskidetasunaren pasahitz xerakor bilakatu zela; hark koñaz esanari nik barrerxoekin erantzutean, gaineratzen zuen: *Hanka biko suge majoak jabilzak, bai, hemen!* Ateraldiari garrantzi txalogarria esleitzeko senez, barre esageratua bainoago gangarra atera zitzaidala uste dut gaur, orduan pentsatu bainuen: *Baita buru bikoak be! Barriro heure alde urtetekotan hintzen suberteari inork aurrea hartzetik ez jak gustatu, eztok?* Oskilazokumeak eroan zituen zoriari zozokumeak zozketa aurretik kentzeko zolitasunik izan ez banu, giza-egintzen segida itxuraz zorizkoa ez zen iritsiko niganako sinpatia joriagoa garatzera Alexengan, zeinari, zapokeriak baino areago, uste gabeko atrebentziak, mendiaren barkartasun-isiltasunek bakarrik nigan aktiba zezaketenak, errespetua ezarri bide zion; edo kezka soil bat, sugearena ez ote zen izango, bere asmakeria puntuala baino gehiago, nire izatearen propietate bat, orain zozokumeak bezala, gero zoriari auskalo zer disputatzeko gai izango zena; eta handik urtetara, haren lagun Martzel neuk nahi nuen eremura erakar nezan balioko zuena.*

Bide bazterrean txizaginan geratu naiz, ea atzetik geroz bitarte luzeagora derraidan Martzel aurrera pasatzen den. Ipurdia paparra baino gorputz erdi aurrerago, zirristadagaz alanbre bat gainditzeko indarka nabilela, jaulkitzen diot: *Barbarik ez al joagu egin behar? – Zer esango joagu, ba? –*aitzakia eman du Martzelek, neu beldur naizena ez ote den izango susmarazteko moduan. *Hara bestea!*, pentsatu dut, berbertan gogoratu bainaiz, aukerarik txikienean hu-

raxe gogoratzea maite dudalako segurrenik, nola duela urte batzuetako erro-merian gauza bertsua entzun nion mutil bati, neskagaz paseatzen irteteko moda abiatu berritan. Dantza-lagun okasionala baino zerbait gehiago behar zen hartan, eta plazaren ikusterretik ostendu gabe beti ere, exhibizionismotzat jo ohi zen egintzak (*horra hori be txuloarenak egiten, beste inork nesarik ez baleu legez*) noiztenka harremana publiko egiteko balio zezakeen; gehienetan, erro-meria ustez kontrolagaitzetan ere, begi zaintzaile edo mendekatzaile bat gabe (ez beti abadea) gauzatzerik ez zegoen atrebentzia hura sobera motibo izango zen protagonistei infernua preparatzeko. *Hi, Justo! Neskatilari berba egiok, ba!*, zelaitik entzun zuenean, *zer esango jeutsaat, ba?* ihardetsi zuen mutilak; parean joaten asmatzen ere nahikoa lan zuen gizajoak, plazatik urrunegitzen ari ote ziren beldur zen neskak esan arte: *Eurt egingo joagu, eztok? – Eurt egingo jo-nagu* – izan zen haren pasealdiko pentsamendu boluntario bakarra. Oraintxe ez dakit zein litzatekeen egoera hutsagoa, *zer esango joat*–en hustasun orokorra ala *zer esango jeutsaat*–en ezdeustasun etsia; hemen behintzat ‘nori’ bat ageri da, atzerago edo aurrerago joan daitekeena, baina, posizioak aldatzekotan, behin edo behin parean ere gertatu behar duena. Ez dakit. Erlojuaren orratz handiak orduro estaltzen du txikia, inoiz ezer sortu gabe. Segundo-orratza, berriz, ezer efektiborik lortzeko baino bizkorrago pasatzen da bien gainetik, nahiz eta berriro berehala (*eurt egingo dogu, ezta?*) saiatzeko itxaropenean beti ere. Ez naiz harritzen gero Justo bezalakoek, bikote-lagunari oinik ez zapaltzearren, dantza lotuak txakur-gorotzetatik bezala apartatzen ikasi beharra ekarri dienean, mundu futurista batean bizi direla kontatzea, hitz-ahalmena ere, gehienbat, moldabehar horrexek askatuko baitzien.

Durdura-habiaren hurbiltasunak berbagura ekarriko zigulakoan, kontu-ratu naiz neure gogoan ere ez dela besteetako kilikadurarik gertatu, *pinu horretantxe jagok, adar-moltzo zarratuago harexen erdian*, esan diodanean; bai, ostera, ikara-puntu bat, hainbeste luzatutako isiltasuna nire traizioaz mende-katu nahiko zuen piztia ikusgaitz bihurtu bailitzan. *Igon egin beharko joagu, eztok?* –diotsat, pinuari pare bat buelta eman ondoren. *Igoik heuk; nik behean itxarongo deuat – To! Heuri erakustera etorri nok barren! – Tirok, ba. Hasi igoten. Nik atzetik jarraituko deuat.* Durdura, oskilazoa baino txikitxoago, biligarroa baino handiago, txori intrigantea zen, bere urrian miraria baitzen haren habiarik

aurkitzea. Arrautzetan topatu nituenak kume bihurtu zirenetik, egunero igoa nintzen pinura, txori aita-amek kumedun habia nekez zapuzten dutela baliatuz. Arrautzei ez diete nonbait errukirik hartzen, euren buruen antzik, alegia. Hortik atera daiteke obiparoak ere umeez zuzenean erditzen hasi zirela, gero suge ahozuriak metodo ustez erosoagora limurtu zituen arte, berak arrautza gozoak (zaporez bainoago formaz) jan ahal zitzan. Begiak itxita ere iritsiko nintzatekeen, adarren distantziak, heldulekuak, oinlekuak ondo ikasiak nituela, baina astiro eta kostata bezala goratzen nintzen, atzetik ozta zertorren Martzelek atzera egingo ote zuen beldurak beherantz tiraturik. *Beste dozena erdi bat adar eta bertan gozak.* Biok pinuaren altuera berean batera egoteko oreka kezkarriak eginik (amak ikusiko bagintu!), hemen gaude, azkenean, hiru durdurakume kikilduei papar bat goragotik begira. Eskua ahalik gozoen habia gainean kokatzean, ahurra haien burutxoan kili-kiliak korritzen du, eta kentzean, hiru moko irekiek jarraitu egin nahi diote, lepoak bat-batera luzatuz eta batuz, guk genekarren asmoaz guztiz alderantzizko jakaren bila, euron intziritxoak ez ditut zehatzegi ulertzen baina. Beharbada esaten ariko dira: *Alde hemendik, jan egingo zaituegu eta!* Edo: *Ama datorrenean, zuen begiak txitxia eginda emongo deuskuz.* Edo: *Begitu zelako estrazuhaiztar kankailuak agertu jakuzen!*

Txorikumeen hizkera intzipientea interpretatzen ahalegintzeak Martzelen eta bion hitzik ezaren hutsune gauden altueran arriskutsua ezin baitu bete, esan diot:

- *Datorren domekan, altzatzer a etorri geintekozak; ordurako jantzita egongo dozak. Niretzat bat, hiretzat bi.*
- *Hator heu bakarrik. Niri txoriakaitik ez jeustak hainbeste ardura.*
- *Durdurakumeak dozak gero!*
- *Bardin dok. Ni barik be bajagok zuenean nork jan.*
- *Hazi egingo joguzak.*
- *Heu bakarrik etortzeko esan deuat.*
- *Orduan ez nok neu be etorriko.*
- *Ondo egingo dok. Honeek be bizi-aukera bat merezi jabek.*

Buruan txoria besterik ez zeukan Martzelengan, itxaroten nuen entusiasmoaren ordeztan, bidaia hartarako aitzakiatzat moldatu nuen durdurakume-ikusteak halako ezaxola eragiterik ez nukeen inoiz ulertu izango, hain gutxi barkatuko, neu ere bat-batean jangartasun antzekoak jo ez banindu; arrain bati haitzean bihurka erreparatu eta erpe guztiakin (zenbat?) saltoan gaineratzen zaion katua bezala: arraina petrolioz untaturik aurkitzean (hain zale izanik, sardina zaharrak jan dituenaren logelako atez kanpotik, gau guztia miauka egiteko persistentziaraino, nola ez dago katu arrantzalerik?), tentuz eta zapuzti, zirkulu geroz handiagoetan erretiratzen da, zekarren eraso-grina dezepzioan diluituz; edo hondartza leun-leunean etzanik, oinutsak freskoki kilikatu dizkizun uhin xaflaren atseginean, hurrengo, doidoi ukitu eta atzerantz egitean, iheserako konfiantzarik ez-eta, hondarpera ezkutatu den bezala, zein baita unea behatz potoloak, beldarrarena baldarki eginez, itsasoa domeinatzen duela sinesten duena, gezurra ere ez dena bestalde, distantziaren sena zainduz gero. Pinuaren kulunka bertigo-puntuaren nabaritzen den unetik gora geundela, enborrari heltzeko elkarri heltzea ezin ekidinez, burua jiratu nuen, nire gogoaz kanpoko ukazioren batek han uztea erabaki zuen durdurakumeei begiratzeko adore gabe. Nire begiek ezin zioten eutsi gorpuzño luma-mehatz xume haietan hauteman nuen mesprexu-salapenari, eta orduan honelako azalpenik moldatzeko gauza ez banintzen ere, neure buruaren aurkako krimen afektiboa sentitu nuen, bizi guztian nire nagusi izan ziren eta betiko izango ez zirenik suposatzen ere uzten ez zidaten sentimenduek airean abandonatu nindutenean. Nire durdurakume maiteak bizi ahal izango zirelako ondorio dohatsuak ere ez ninduen poztu; eta hori txori-amaren zarrapasta garrasitsuak jo gabe, zeinaren inozentzia desesperatuak ere ez zeukan beste meriturik, naturak ez ziola eman baizik ni bezalako amoros harraparia bertan akabatzeko gaitasunik. Orduan bereizteko premiarik txikiarik ez neukan sentimenduen konplexutasunean, nahiago izango nukeen, geroago, naturaren samurtasun kriminala neugan aurkitu, askoz ulerterrazago ez balitz sentimendu onak eta gaizkintza ez direla hain inkompatibleak.

Kontuz-kontuz, enborrera ahalik atxiki, beherantz abiatu nintzen, ulertezinki habia hutsera igoa zitekeen sugarean antzera, neuk beterik utzi izanaren derrotak sakaturik; berriro lurrera saltaerak bakarrik itzuli ninduen neure

buruarekiko laketasun lehenago inoiz kuestionatu gabera. Martzelen jaitsieraren itxura penagarriak berriro ere salbatzaile sena piztu zidan; lurrera saltatu eta burua eta soinekoak apur bat astindu zitueneko, *goazen!* hots egin zuen, *etorritako bidetik*, gaineratuz, nire buruan egon zitekeen bideren bati aurrea moztu gura bailion. *Hago apur batean, mutil!* –kasik aldarri egin nuen, in-tonazioaren hanpadurari ingenuitatearen jitea emanez. *Barrero etorriko ez bagara, ez gaitezen behintzat joan sagar bat bertan jan barik*. Jertsean korapilaturik neukan ale baten erdia opatu nion. *Orain ez joat sagarrik gura* –moztu zuen sikuan, jaitsi berri ginen zuhaitzarekiko zerikusi analogikorik ere gorde nahi ezta bezala. *Orduan itxaroik neuk jan arte* –agindu nion, erdi bana jaten baino denbora luzeagoa behar izatearen asmo maltzurrik gabe. Ni ttunttur batean eserita, berak zutik zirauen, buru eta gorputz egonezinak kontrara erdi-biratzuz, elkarrri eskapatu nahian, baita lantzean bira osoa ere lortuz (horietan ez kontrara, noski!). Abarka puntaz pinu-orrian zirkuluak egiten zituen, norabide guztietarantz baino areago, zeinahi norabidetatik etor zitekeenaren zelatan, maitemina zein jazarpena eragile izan zezakeen artegatasunean; horrela ezin diozu bati igarri maitale berandutuaren ala poliziaren zain dagoen. Zutitu, sagar-muskila jaurti eta, haren parabola luzeak lurra jo zuenean, *bueltan kanaletik joango gozak* esan nion (esan banion!), eta belarriak, txikitzen-txikitzen, sartu egin zitzaizkiola ikusi nuen, gerotxoago irten, naturalaren hiru halakoraino handituz. Beldurturik, neureei heldu nien; bat behintzat kanpoan zegoen. Haluzinazio labur hartatik itzuli nintzenean, ez dut esango maitale agertua polizia bihurtu balitzaio bezala begiratzen zidanik, baina haren sene-tik irtenda bezalako espresioak, goranzko konparaziorik asmatzerik ez nukeenak, adierazten zuen ezin zuela ‘kanala’ baino hitz beldurgarriagorik entzun. Beharbada neure esakuneak ere izan zezakeen espantu hartan zerikusia, arratsalde guztia hitz huraxe noiz esango igarorik, esateko unean bertan ez baitzitekeen ahotik otzan irten. *Zer gura dok?* –orro egin zidan, samatik heldu behar zidala pentsatzeko adina hurreraturik. –*Burua txikitu eta kanalera jaurti haidala?* –*Martzel!!* –txilio egin nuen, ikaratik atzeraka. Ez zidan jarraitu, baizik, eurt eginda, gurpidean behera abiatu, kanalaz beste aldeko isurirantz, pausakera finkoan, bat-batean nor eta non akabatu aurkitu balu bezala. Lehen bihurgunean ezkutatu zenean, zutitu eta jarraitzen hasi nintzen, distantzia laburtzen ahalegindu gabe, zeina bitarteko pauso-hotsak bakarrik betetzen

zuen, nire aldetik ez baitzegoen (harenetik nork jakin) ezeri begiratzeko ahalmenik.

Trokaz beste aldetik, kanal mendia atzean utzita, Elizaldea bistaratu zenean, eta laguna inor akabatzeko itxuratik at iruditu zitzaidanean, atzerik hara harrapatzen ausartu nintzen. Arnasaren eta turbazioaren estugunetik apur bat nasaiturik, esan nion: *Martzel! Ez hadi hasarratu. Nik pentsetan najoan ze...* Izatez, nire pentsakizun bakarra, durdurakumeen pozean bidaia guztia atonarazi zuena, Alexen heriotza zen, Martzelen bitartez berregina, baina hori nola esango nion, bada, berari? Ibilaldi luze samarra parean isilik eginik, ekin nion: *Beraz, gehiago inoiz ez dok kanalera joan behar?* Erantzuten apur bat tardaturik, *ez jakiat!* esan zuen lehor eta ebakor, eta hori ezetza baino gogorrago begitandu zitzaidan. *Ezetz? Bada, oso ondo. Ez! Badakigu zertan garen. Ez jakiat* bortxatu bat esan duenak, ostera, ezetzak ukatu duenaz gainera (eta aurretik, segurrenik), beste hamaika ahalbide irekitzen du, hala nola: *Ez jakiat biziko nazen be, eta ez joat esango zergaitik.* Edo: *Fraille joango nok eta izorra denok!* Edo: *Munduari su emon eta Frantziara alde egingo joat.* Edo: *Kalabazan sartuko nok eta ez joat urtengo, behiaren tripan ez bada.* Jarraipenaren zain iruditu nartzaiolarik, burua amorruez astindu eta haginak ilaran erakutsiz (hori ote da likantropia?), jaukitzen du: *Ez jakiat, entzun? Ez jakiat!*

Ikaraturik egon ez banintz (Martzel ni baino zaharragoa eta indartsuagoa zen), eta gaur adina jakin izan banu, lagundu ahal izateko superioritatean etorri ohi zaigun eskuzabaltasun zientifikoari (hain kale non dagoen galdetu eta hiri guztiaren planoaz azaldu dizutenena bezala) ezin izango niokeen eutsi, esanez, adibidez, hain ulergarri eta bidezko zen shock hartatik tokian bertan bakarrik deskarga zitekeela; kanala, hiltzailea barik, betiko laguna zela bertan egiaztatu behar zuela; lehenengoan dudarik gabe sentituko zuen larritasun hotzikaratua bisita suzesiboek ematuriko zutela, eten gabe zetozen ur berrien joanean; oroimen hutsean jarraitzen bazuen, tragedia eta kanala banaezinki lotzera iritsiz gainera, azkenean kanala heriotzaren osagarri bat besterik ez izatea gertatuko zela; oroimena hain aktiboa dela, ezen, erreakzio nuklearren antzera, bere edukia tai gabe konposatuz-deskonposatuz, sorkuntza berrien prozesuan oldartzen dela; bere apetara uzten baduzu, berriz, hain dela bo-

raza ezen, oroit gaitezkeena garen arren, azkenean subjektua ere bere ehogai bihurtzen duela, kurrun-kurrun biraka doan hormigonera tripaundiak aldagoran kamioia bera jan balu bezala; oroimenari despotismo sortzaile hori deklaratzeko tentazioak motz dakizkion, bere sortzaile, hain zuzen, izan ziren egintza-tokiak erakustera eramane behar dela, egintzak hilak izan arren, tokiak hantxe bizi baitira, egintzen sortzaile izanak halaber; hitz batez, kanalera joan eta bertan beti bezala jolasten jarraitu behar zuela. Honako edo antzeko arrazoiak ematen saiatu izango nintzatekeen, kontrako efektuen mirari psikoanalitikoan oinarritzen ei direnak, nahiz eta, hainbaten, ez zuketen lortuko zientzia-kolpe lagunkoi bat aprobatazea besterik; eta neu kontsolaturik gelditzea, jakina.

Gaur ez dakit horrelako txaraketan sartuko nintzatekeen, baina orduan esan nion: *Ni joateagaitik ez haz hasarratuko, eztok? –Ez jakiat – Honeri ez jagok gaur ezer jakinarazterik* –pentsatu nuen, apur bat aurreratuz, parean isilik joan beharretik libratzeko. Bera eta bere soslai mamutua ez ikusteak tripa barrenak nasaitu edo libratu egin izango zizkidan, estarta dorpe eta oinostunaren arri-mura, neure atzea, xuabeki baina fluidoki, fra-fra nabari bainuen. Barruan *goazen geu be* zioten putzak, kanporatzean, *geu be bagatozak* esaka entzuten nituen, unerik deigabeenetan agertzeko daukaten grina infantil horregaz, nahiz eta, eurei esker, atzera begiratze zirkunstantzial itxurako baten ondoren (*ikusit egingo doala uste dok ala?* pensatu izango zuen Martzel armindua), bestela beharbada sortu izango ez ziratekeen hitz garrantzitsuak jaulkitzeko kuraia izan nuen: *Kanala kanala dok. Harek ez jaukak Alexenaren errurik.* Martzelengan ere lekutik geroz urrunagotzeak zerbait askatu zuen, antza, esan baitzuen: *Ez dok beragaitik – Zergaitik dok, ba?* Beharbada ni izorratzeko intentzio premeditatuan, ez zuen ezer erantzun, neuk berriro ekin arte: *Zer dok, Martzel? – Eskua!!!* –oihu bainoago birao egin zuen. *Noren eskua? – Berea!* Geratu, biratu, itxaron egin nion, parera heltzean (ez zekarren geratzeko asmorik), esku bata haren sorbaldan ipinita esateko: *Martzel! Ez naik zoratu, eh! Ez eidak gauza arrarorik aitatu, espliketako ez bada – Ken hakit aurretik, bertan zapal haidan gura ez badok!* Berriro bera aurretik eta ni atzetik gindoazen, ilunabarra gau osoz betetzear zela, laster banatu behar genuen Abeletzako errekarantz, non nik *gau on!* datorren domekara arte esanik, eta hark *txirringola ahaztu barik*

ekarri erantzunik, hura elizalderantz eta ni, alboranzko bidetik, mendirantz ezkutatu ginen. Horrexen sinpleak ziren gure agurkerak, oraingotik ikusita, dezepzionanteak eman lezaketenak, halako arratsalde uste baino bihurrago baten ondoren, non gutxienez esan genezakeen:

- *Egongo gozak* (astebetean etxera joan ezinik ibili zirenek elkarri agindu zioten moduan). *Hurrengoan gehiago eta hobeak.*
- *Mundu honek ez jok hasarratzerik merezi.*
- *Hilak hil eta biziak aurrera.*
- *Egia dok! Hil gaitenez, ez daieela esan: 'bizitza nasaitasun handi barik joan jaikoan horri be, gizajoari'.*
- *Esan daieela: 'hil dok, baina ez alperrik bizita, alua!'.*
- *Bitartean be zeozer egin behar joagu, eztok?*
- *Ez ahaztu datorren domeka hilaren laugarrena dogula.*
- *Gau on, aldatzeko itxura jaukak baina.*
- *Ondo joan.*
- *Izan ondo.*
- *Onegia be ez izan. Larra dena dok txarra.*
- *Baita ona be.*
- *Horrelaxe berba egitea gustetan jatak niri.*
- *Goraintziak etxean.*
- *Bardin zuenean.*
- *Mogitu hadi, osterantzean neuk mogitu behar joat eta.*
- *Gau on, orduan.*
- *Egongo gozak.*

Berriro ere 'egongo gozak', agurtzen eta txiza egiten beste ordubete egin ondoren. Guretzat nahikoa ziren 'gau on' eta 'txirringola', hau batez ere, bestea zertarako balio zuen ez genekien obligazio gisan esaten baikenuen; obligazioek orduan denbora laburra egiten zuten gure buruan, non astebete, batez ere nire mendiko erdi-bakartasunean, ez huts baina bai luze igaroko zen, baldin hurrengo igandea zerbaitegatik desiratua bazen, beti gertatu ohi zenez, igandea berez baitzen desiragarri. Hargatik, agurrak xinplea behar zuen, astea ahalik ariren joan zedin, oraindik ez baikenuen denboraren kontzientziarik, gaitz termi-

nalaren kontzientziarik alegia, denbora pasatzen bainoago gastatzen ari zela konturatzeko. Kasu horretan ezin izaten dugu despedidarik amaitu, oraina hurrengoagaz lotu nahiak gastatzetik libra dezan, ondorioa ekiditeko ezen, denboraren onena pasatzea bezala, txarrena amaitzen ari izatea dela. Horrela, giza bizitza ohiko hiru adin konbentzionalekin zerikusi remotoa besterik ez daukaten hiru alditan zati daiteke. Lehenengoan, denbora ibaia bezala joaten sentitzeak poztu egiten zaitu, ur joanari datorrenaren elikurik inoiz falta dakiokkeenik bururatu gabe. Bigarrenean, ura gastatzen ari dela igarriko duzu; hirugarrenean, amaitzen ari dela. Ibaia laster agortuko da. Egingo du berriz ere euria, baina zu ez zaitu bustiko.

Hurrengo domekan, txirringola eta guzti joango nintzen, noski, hamarretako meza nagusira, askoz goizago, Martzel ikusteko premia irrituan. Herri-tarrak bazetozen, beste eskola-lagunak ere bai, eta Martzel ez zen ageri. Goizeko mezara etorria ote? Mezaren hurtasuna ziragarten kanpaiekin batera, abadeak monagilooi janzten hasteko deitu zigunean, ezin nuela esan nuen, belaunean min nuela eta. Belauna monagiloentzat pilotarientzat eskua bezala zen. Artean, adin hartan ez baitzen praka luzerik, takoak ipintzerik ez gogoratzeagatik (gogoratzea Jainkoari zerbait osteko intentzioa bezalakoa zatekeen), halako porrila santuak dauzkat orain, izaki estingitu baten hondakin inertzial gisan. *Madari lapurretan izango zoan!* esanez, marmarka onartu zidan abadeak aitzakia. Meza hastera zihoan eta elizara sartu beharra zegoen. Umeen bankuetan, azkeneko ilaran sartu nintzen, etor bazedin, atzera begiratzeko pekatu gabe ikusi ahal nezan. Meza hasia zen; behin bakarrik gogoratzen dut hasitako mezarik ez amaitzea, abadeari, estasia zelakoan, infartoak eman zionean. 'In nomine patris' eta gainerako, hara non oinots bizkor batek aste guztian burutik kendu ezinik ibili nintzen Martzel ekarri zuen. Arrapaladan etorri izanaren buruz-aurreran, aurreneko bankuan jarri zen, berandu iristearen okerra fintasun piadosoan ezabatzeko senean. Abadearen aldareko mugimenduak abere bat kate korrituan bezalatsu ikusten nituen, esan nahi baita, honelakoak maiz ikusiak nituenez gero, hari ez niola jaramon handirik egiten, bere soineko jaukal eta guzti, hori ere maiz ikusia, bestalde. Nire pentsamendua Martzelek noiz atzera begiratuko zain zegoen, aho-zeinu markatuekin esankizun inportantea neukala adierazteko. Diru batzen zetorren

monagiloari *esaiok Martzeli atzera begitzeko* ahapekatu nion, eta berak ere aha-
peka erantzun: *Handik pasatuta najagok – Pasa hadi barrero – Pasa hadi heu!* Ser-
moirik gabe ere (abadeari euskaraz egitea kosta egiten ei zitzaion, baina
bizigin samarra zelako ere izan zitekeen) astea baino luzeago egin zitzaidan
mezan ez zen aukerarik gertatu, Jaunartzea heldu arte, non, Martzel abiatzen
ikusiz batera, neu ere zart irten nintzen erdiko pasabidera; lerroan bere atzean
jarri eta bizkarrezurra hazkozkorragaz marruskatuz, belarri ostera xuxukatu
nion:

– *Gauza bat esan behar deuat.*

– *Orain hago isilik.*

– *Oso inportantea dok.*

– *Gero esango deustak.*

– *Gero noiz?*

– *Ba, gero!*

– *Mezatik urtekeran?*

– *Bai!*

– *Ez eskapatu gero!*

– *Egongo haz isilik!*

Bitartean, bi lerroak, gure aldekoa eta bestekoa, aurrera zihoazen, eta aba-
dearen kopoi gorri distiratsua gainean ikusi nuenean, konturatu nintzen ezen,
jaunartzeko, konfesatu gabe ez ezik, bekatu mortalaren pean nahitaezko zen
baraua ere hautsita nengoela, nire anaia-arrebek eta atzean, emakumeen hi-
lobietan, zegoen amak ondo zekitenez. *Ene, Jesus! Salba naizu!* Gure Jaunagaz
batera, bekatu mortala irenstea handiegia izango zen, erretiratzea berriz, na-
barmenegia; erabaki salbagarririk agertzerako, abadearen eskuak, ‘Corpus
Christi’, neure ahorantz luzatua zuen hostia xumea. Bueltan, tokatzen ez zi-
tzaidala, Martzelen ondoan belaunikatu nintzen, ez postu-aldatzearen trans-
gresio txiki hark ahoan nekarren bekatu handia askorik ez zuela astunduko
pentsatzeagatik, nire adimena kalkulu moral haietatik urrun baitzegoen
oraindik, baizik, soil-soilik, harengandik bereizteko ahalmenik ez neukalako.
Zertan hator hona? –marmartu zidan ukondoka, Gure Jauna irenstea lortu zue-
nean. Neurea ere orduantxe zihoan zintzurrian behera. *Gauza bat esan behar*

deuat – Barriro be? – Baina inportantea dok! – Egongo haz isilik, lotsagarri hori? Abadearen begiak eta gezur-etzula gure gainera jausi ziren. Isiltzeko moduan nengoen, orain Martzelek ez baitzidan eskapatuko. Inpazientziak zenbat eta nolako konplikazioetan sarrarazten gintuen, denborari apur bat joaten uzteak dena hain erraz bidera zezakeenean!

Kanporantzean, elizako atean sortzen zen motroiloan, aurretik irtenda-koen barbaro ozenaren babesean, goazen *hilerri ostera* esan baino aginduago nion. Martzelek *nik ez jaukaat kakalarririk* erantzun zuenean, mehatxu egin nion: *Etortzen ez bahaz, gehiago ez deuat barbarik egingo – Zer dok gauza inportante hori? –*galdetu bainoago mehatxu egin zuen Martzelek, nitaz higuindurik bezala, hilerri osteko bakardadean buruz buru aurkitu ginenean, eta hasi nintzen: *Lagundu egin behar deustak. Zoratu egin behar joat amesgatxekin. Esku bat agertzen jatak, besaurrearen erdia baino beheratxoagotik ebagia, airean haztamuka; zerbaiti heldu guran ibili ondoren, ikusi nauela emoten jok, hurreratzen hasten jatak, hatzak borazki zabalik; bidean mantxuaren metalezko esku-garfio bihurtzen dok, samatik heltzera datorrena, neu itotzeko asmoz duda barik, bertan itzartuko ez banintz. Lokartzeko bildurrez, denpora luzea joaten jatak, harik eta, nekeak errenditurik, barriro esku madarikatu bera agertu arte; azkenean txatarra altzetako balio dauen burruntzali bostagin horreetariko bat bihurtzen dok, burua erauzi eta eroatera jatordana, bertan itzartuko ez banintz – Horrelako burruntzalirik ez dok existitzen – Ba, existituko dok erantzunik, jarraitu nuen: Eskua geuk ezagutzen dogun saharde edo bostortz bihurtuko balitz be, baina beti horixe bihurtzen dok, esku-garfio edo txatar-burruntzali. Edo Picassoren Gernikatik eskapaturiko esku bat, esan ahal izango nukeen, ordurako aspaldi sortua zen koadroa ezagutzeko, eskolaz kanpoko malezia klandestinatorik izan bagenu. Martzel ikaratuak erantzungo zukeen: Horrelakorik ez eik aitatu hilerri ostetik kanpora!*

Handik urte askotara ikustea lortu nuen 'Gernika'-k eskuaren pasarte horrexegatik inpresionatu ninduela hainbeste atera izango nukeen, bi eskuen arteko leihoska absurduak gehiago deprimitu ez banindu.

– Eta batean garfioa, bestean burruntzalia, begiak eskorpioi bihurtuta jagitzen nok goizero, aste guztian holantxe. Txarrena dok, itzartu eta gero be, gauza guztiak neu-

gananzko esku forman ikusten dodazela, soloko kalabazetatik, altarako santu-santen buruetaraino. Martzel! Zer dok, joan zen domekan, gero ezer ez espliketako izentatu heuen eskuarena?

– Ezin deuat esan.

– Esan egin behar deustak, lagunak bagozak.

– Lagunak bai, baina horretan ezin deuat lagundu.

– Bai ahal deustak! Eskuaren misterioa argitzen badeustak, nire amesgatxak aldendu dozak.

– Ez dozak aldendu.

– Zelan dakik hori?

– Neuk be amesgatx bardinak izaten dodazelako.

– Nire bardinak?

– Bardin-bardinak!

– Ba, orduan... –ez nekien zer ondorio zegokion, Martzelek galdetu arte:

– Hire lehenengo amesgatxa noiz izan zoon?

– Astelehenean.

– Nire azkenengoa, domekan.

– Orduan ez jagok dudarik! –aldarrikatu nuen, zertarako dudarik ez zegoen ez nekiela. Kategorikotasun inkontziente hark Martzelen zuntzen bat jo bide zuen, agindu baitzidan:

– Esan egingo deuat. Hor konpon, gero amesgatx bildurgarriagoak izan badaizak.

Orduan neu hasi nintzen beldurtzen, ia ezer esan ez ziezadan desiratzen (egia esan, ez dakit zertarako esan behar zidan), nigana pasatu ziren amesgaitzak atzera beragana itzul zitezen arriskatuz. Badirudi, ostera, berak pentsatu zuela jadanik ohizera eta ia maitatzera ere iritsia zen amesgaitz haiek ez zi-rela euren kabuz nigana pasatu, ostu egin nizkiola baizik, eta horrek hainbesteko ezbaitek eskegita utzi izango zuen, ezen eskuren aurkitu zuenari heldu behar izango baitzion, buru-makurtze derrotatuan kontatzen hasteko: *Alex urpean ezkutatu zenean...*

Martzel konporta jaisten hasi zen, tornuari galdugordean biraka; guztiz ixtea eragozten zion oztopo bat aurkitu zuen. Zer izango eta Alexen esku bat ukondotik kanporantz ageri zen, hatzak uraren presio biziaren kontra itxi

guran, edo zerbaiti heldu guran, nire amesgaitzetan lepoari edo buru osoari bezala, nahiz eta nik, artean, historiaren berri jakin ez. Konporta zabaltzen bazuen, Alex osoa amilduko zen uragaz. Ixten ez bazuen, gorputza ezingo zen urgaineratu. Nola itxi, esku hura moztu ezik? Martzelen larritasuna ez zegoen hain efikazia radikaletarako argitasunean, eta ez zitzaion besterik otu, kanalaren kanpoaldera ahal bezala itsatsita, uraren indarrak amilarazteko arrisku zuzenean, eskuari barrurantz sakatu eta konportaren kontra barrualdetik tente uzten saiatzea baino. Lortu egin zuen. Kanal gainera igo eta konporta guztiz itxi zuen. Uraren behearantzko tira amaiturik, Alex flotatzen azaldu zen, metro batzuk harago; bazihoan astiro-astiro kanalean behera, jada hilotz; Martzelen ahalegin izutuek ezin izan zioten denborari aurrerik hartu. Orduantxe abiatu zen garrasika, laguntza bila baino ez gutxiago, geroztik begietan itsatsita geratu zaion esku harengandik ihesi.

Eguerdi ondoko bigarren ordu erdiak daun jotzean, neskato-mutikoak, putz egindako inurri multzoaren antzera, norabide guztietarantz ezabatzen hasi direnean; nesken korrutxoak, ireki nahi ezta dauden ekiloreak bezala, elkarri azken barreak eskaintzen ari direnean; eta gizonak eta mutilek (andreak aspalditxo joanak dira) tabernako ateetan, barruko ala kanpoko grabitateak tiratzen dien ez igartzeko moduan, amaiera nekezeko agur-hitzak esaten dihardutenean, *arratsaldean etorriko haz, eztok?* galdetu dit Martzelek eta nik erantzun: *Ez jakiat. Gure aitak ganadu jiraren bat daukala uste joat eta, seguruenik, beragaz joan eragingo jeustak.* Arratsaldean banekien ondotxo ere zer egin, aitak ezertan molesta nindezan beldur gabe. Amari txoritan nindoala esanik, kanalera joango nintzen, nahi beste denbora aurretik nuela, neu bakar-bakarrik, txakur abenturazalea etxean erdi negarrez utzita. *Ez, Ruby! Gaur bakarrik joan behar joat. Bueltan prakak apurtzen itziko deuat.* Durdurakumeen azpitik pasatuko nintzen, haiek euren bizi-legean uzteko erabakia berriturik, neure samurtasun-sakrifizioaz oihan guztiaren aurrean harrotzeko, nahiz eta gero bertan, bakartasunaren babes infaliblean, damuaren tentaziotik promesa hautsiaren ezbehar-beldurak bakarrik eta ozta apartatuko ninduen. *Agur, durduratxoak! Aldeizue arin habiatik, hanka biko sugeen kontzientzia traidorea dok eta.* Kanala goienetik hartuko nuen, ur mehean, barrutik, plisti plasta, unada lodietan, horma gainetik, astiro guran, baina gorputzari jarraitu beharrean, ki-

lometro eta erdi inguru beherantz eginez. Bihurgune batzuetan, gorantz zela tematu izango nukeen, urak besterantz jarraitzen zuela ikusten ez banu, ordurako ikasia bainuen urak ito bai, baina ez duela engainatzen. Kanalean beherantz, konporta fatalera iritsi arte. Kasu honetan, 'fatala' materialki exaktoa zen, horrexen irritsak baininderaman. Ez nindoan hainbeste Alex dohakaberen bila, ez haren esku amesgaiztiaren tiran, ez Martzelen esperientzia erreproduzitu guran, ez gertaera tragiko batean, atzerapenez bazen ere, partaidetu guran. Tragediaren beraren bila nindoan zuzen; Herio deritzon horren larrua, aurpegia, besarkada sentitzera; bere kutxa torazikoan sartu eta barrutik hanpatzera, bere ordezeko utzi zuen sakongune, konporta, tornu eta konposizio osoan, bera beti joana izaten baita, ondoren nabariak eta ondorengo fidelak utzirik. Baina nik, oraingoan, gertaeraren berrikitasunean fiaturik, edo, sentimendua txikitzen ez deno, gertaera ez dela erretiratzen suposaturik, banuen bihozkada bat hantxe harrapatuko nuela, beharbada kate oraindik epelak animalia berriki ostua salatzen duelako egintzatik analogia okerra aterata. Azkar ibili behar nuen, kateak hoztu aurretik.

Lekura heldutakoan, denari eta egintzaren osagai bakoitzari banan-banan begirada orokor astitsua emanik, bat-batean berak ehizatu gabeko gorputz bategaz topo egin duen lehoi-emeak, hagina sartzen hasi aurretik, ingurubira usnakariak egingo lituzkeen antzera, konporta jasotzen hasiko nintzen, tornuaren birakera nekezean, ura arriskugarri ez izateko uneraino hustu zedin; kontua ez zen Heriok ni harrapatzea, neuk bera ukitzea baizik. Uztailko eguzki prepotenteak ere hariztiko lurzoru ura bera baino hotzagoaren kontratik erauzi ezin zuen freskuran etzango nintzen, biluz-biluzik, Alex aurkitu zuten bezala. Esku bata konportapetik aterako nuen, eta neure baitako dobleari, urruneko zein osteko behatzaile beti bidali ohi nuenari eta, eskola erre zutela ikustetik bueltan etorri zenean bezala (gerra amaitzear zegoen eta etxean ez zuen aitarik aurkituko), beti pozik joaten zenari (maisua hiltzeak ez zuen hainbeste poztu, ez baitzegoen hurrengo ez zela okerragoa izango itzaroteko motiborik), horma gainera igotzeko aginduko nion, nik barrutik harako bitartetik ezin nuena berak kanpotik ikus zezan. Han ikusten zuen nire eskua errazegi errenditzen zen ur turrusta lehenengotan uher baina berehala garbituaren erdian, itxi-irekika. Batzuetan hatzak erreskadan ixten

ziren, sokorru eske baino areago, paretik pasatzen ziren tximeletei *etor-etor!* esanez; edo oihan gainetik, egunean pare bat bider Londrestik Bilborantz (artean ez zitzaidan bururatu ere egin Sondika Bilboren izen bat gehiago ez zenik, Atxuri edo Begoñako eskailerak bezala) pasatzen zen hegazkinari, golde handia hegan bezalakoari, agur-agur eginez. Hurrengo puntuan, ahurra, barruranzko grina berezkoetik zabaltzeko ahaleginari bertan behera utzita, masal-masal laxotuko zen, turrusta indargetuaren igurtzi voluptuosoaz nabariki plazertuz alua, kordegabetzen ari ez bazen. Orduan kanal barrura begiratu zuen, non nire esku librea pitilin puntako azalari gorantz tiraka aurkitu zuen, honek urlaster mantsoaren kilikortasuna gorputzaren barrualde guztira bidal zezan. *Herioren bila etorri eta begitu zertan dabilen hori be, urari temperatura hartzen ez badihardu.* Halaxe zati batean, nire doblea bere barne-egoitzara itzuli eta abertitzen hasi arte: *Hi! Altza hadi hortik, kanala total hustu aurretik. Itxi eik konporta! – Et et et! Niri ez agindu toketan ez jatan beharrik.*

Eskua konportapetik barruratu eta, Alexen azken larritasun alferrekoaren dardaratik Martzelen kokapen inpotentearen izura zutiturik, tornuburu uhartua ezkererantz birakatuko nuen, konporta zurezkoak adulatzen bezala, edo azpiki infiltratu guran zetorren joaira mehea geldiaraz zezan; kanala berriz betetzen gau osoa eta beharbada biharamuna beharko zen. Hondoko lupetz harri traketsez, egur zatiz eta orbel ustelez nahasiaren gainetik, zapatarien hanka handien mugimendu ezin koordinatuek ohartaraziko ninduten Herioren altzora jaitsi nahiak nolako disparte eragin zuen. Erlaminoei iheska bezala alde egingo nuen ingurutik, eta oraindik gautzeko falta zen ordu mordoa amamarenean pasatuko nuen, harrigarriri goizegi etxeatzearen susmotik libratzeko; eta batez ere, behar izanez gero, bizpahiru orduren gorabeheran, arratsalde guztia amamarenean igaro nuela esan ahal zedin. Halabeharrak gutxigatik ez ninduen kanalean txilibituari zirrika harrapatu; herria ur-salto koxkorren argi sarritan balizkoen mende aurkitu zen; eskualdeko fabrikarik handiena hornitzen zuen zentrala gai gabe gelditu zen; kanalera aberia bila arrapaladan oldartu ziren; zentraleko guarda bat, lehenago ez ohartu izanagatik, lanetik bidali zuten; erdi-bideko konporta ignoratutik beherako uholez nabariegi loditutako errekek, alderantzizko bidean, tokira zuzen eramán zituen; herriko mutiko aldra guztiak interrogatzen hasi ziren; abadea ere, fa-

brikako kaperau edo kaperauaren lagun, kolaboratzaile aktibo zebilen; inori ez zion buruak eman Torreburuko mutikoak halako okerkeriarik egin zezakeenik.

Egia esan, Torreburuko mutikoak ez zuen ezer egin, heriotza baten oroitzapenari leialki jarraitu besterik; hain leialki, ezen aurreko bertsioa, gogoan pasatuaren pasatuz, literalki errepikatzeko ziurtasun osoan iritsi baitzen kanalera. Zorionez, ostera, lekura heldu zenean, gutxien pentsatua zuena zen konporta eta tornua segurantzarik totalenez itxita aurkitu zituela, herriko zaparro guztien bakerako, tentazioa ere zapuzteko moduko giltzarrapo eta kate bromagabez. Pentsatzekoa zen Alexen zorigaitzak kanaleko istripu-leku posibleak errebisatzea eragingo zuena, baina umeez tragediari ondoriorik ikusi gabe begiratzeko daukaten gaitasun dohatsuan, hantxe gelditu nintzen taket, dezepzio handiegirik gabe, bestalde; halako ur piloagaz bakarrean enfrentatzeko erreparotik, koldarkeriara jo beharrik gabe libratzen ninduen derrigorrak. Eta umeez, huskerietan temoso bezala, handikerietan substituziorako daukaten gaitasun berriro ere dohatsuan, gorputza hankartetik gerriraino tornura atxikirik, pareko urbildu zabalago eta sakonagora (noizean behin kanalaren goialdea garbitzeko erregistroa bezalakoa ei zen) adi-adi nengoen, bestela ere hartarako inarrote handirik behar ez nuen lilura-puntuan; itsasoan, aparrezko zurrunbiloaren ertzetik, ur handiko gorritasun distiratsura egon nintekeen moduan, harik eta horka-aldra feroza eta erdiko itsas-elfante etsi-hurrena azaleratu arte, non instante bat aurreko edertasun espektakularra krudeltasunaren izaera berezkora berritzultzen den.

Ur nahikoa gardenaren hondoa, konporta barrenaren kontra, Alexen gorputz etzana nekusen, ahotik zerizkion burbuila terminalen azpian, Grekotik Boterora aldatuz. Ondoren, hankarteko tornuan bira erdi emanda, trokara begira jarriko nintzen, konportapetik kanpora besaurre bat ikusteko, hain esku izutuagaz, ezen sei hatz kontatzen nizkion, handik urteetara 'Gernika' koadroko eskuetariko batean, paralelismoaz ikaraturik, aurkituko nuenaren antizipazio ez ulertuan. Hainbeste urez inguraturik, larri gabe ere arauzko zen txiza zarrastada bat eginik, sen basatiak bat-batean abertitu zidan konportan halako segurantza-lanak egin zituztenek bigilantzian ere zorrotz ibiltzeko

agindua izan zezaketela, eta lehen ere belarrietatik eskegita egona bainintzen (*turbinako guarda hementxe agertzea besterik ez joagu behar*), Martzelen lekukotza larriaren konposizioan nahi adina pausatzeko sosegu gabe, orbeltzan dza-dza ostendu nintzen hariztian gora, geziak buka lekizkion indioa imitatuz, enda horrek piztu zidan faszinazioaren omen inkontzientean; ikasturte amaierako txango ailegaezin batean (Bilbo ere zeharkatu behar zen trenetik trenera, gero Plentzian autobus kankailu bat hartzeko), Gorlizko zinema gaixo-usaintsu batean ikusi nuen lehen filma zen bera, nondik pena handia ekarri nuen gorrien eta zurien arteko hilen balantzea alderantzizkoa izan ez zelako.

Hamabost urte geroago, Gizaburuagako abadetxeko sukaldean, larunbat ilundu berrian, gazteak Lekeitiora eta umeak etxera ezabatu ondorengo une kritikoa (*oraintxe nire faltarik ez jok inork hartuko, bihar goizeko meza-kanpaiek jo arte*) Bibliako esaldi optimistekin gantzutu guran nabilela (kosta zait bat aurkitzea, sinesten asko kostatzen den askoren artean), kanpoko atea krin-kran dihardu, indartsu, aurreko joaldia edo joaldiak entzun ez banitu bezala, abadetxeko oihartzunen ezaugarriak bereizten oraindik ikasi gabe. Pasilloan zehar traun-traun (zapaten ohol gaineko taun-tauna ber azpiko ukuiluko hutsune amaraundua), gaixoren bat hilzoritu izanaz beste albisteren bat izan dadin desiratuz noa, motibo ez nireak bezain debekuzko baina bai berdintsu insalbableak bide, antzeko egoera erdibanatzera letorkeen sakristau ilunzalea baino ez bada ere. Atea ireki dudanean, hor erreparatzen diot palmondopeko argi-ezkutuan giza bulto bati; atari gaineko bonbila pizteak ezustea handitu egin du. *Martzel! Zelan hi hemendik? – Etortzea pentsatu eta etorri*. Nire hurretratze airosoan, neure buruan ere nekez intentzio izan daitekeen besarkada susmaturik edo, bostekoa luze eskaini dit, nik, adeitasunean beti besteari nagusitu nahi izateko joera neofitoan, bi eskuekin hartu diodana, harengan iruditu zaidan esku-muinerako intentzioa mugimendu astinkor batean desarmatuz. Haren esku laztuaren eta nirea baino askoz gotorragoaren zurrunean nabari dut bera ez dela efusioan kidetzen, segurrenik nigan ez delako ikusi sotana batetik irten zaion esku bat besterik, zeinaz eta gorgoileraino estalitako lepotik gorakoaz gainera, azpitik zapatak ozta ageri dituen belztasun bat agurtzen duen; sotana jantzi berritan, oraindik abadegai gaztekondo,

pasaeran erreberentzia egiten zidatela ikustean, aldi berean hanpatzen eta kiltzen ninduen belztasuna. Nire eskola-lagun minak ere ezin du efektutik libratu, antza.

Gure Martzel!, esklamatzen dut bigarren esaldian, inkontzienteki ere auzerik ez nukeen 'nire', are gutxiago 'neure' horren ordean, esanahia posesibo komunean leunduz. *Baina zertan gajagozak hemen erdi ilunetan? Hator barrura, mutil!* Urrats bat aurrera eginik, bigarrenaren erdian, hankak ez dio aurrerantz lagundu; ate barreneko harmaila agudoegi zapaltzen ote duen erreparoa (neuri iruditu) abadetxea ia jotzen dagoen moleari begira disimulatzen du.

– *Eliza galanta!*

– *Elizak, denak dozak galantak.*

– *Etxanokoa baino handiago emoten jok honek.*

– *Ez joat uste. Gertatzen dena, gu haren inguruan jolasten ginela; jolasak bolumenak alteretan jozak. Tirok! Sar gaitezen barrura. Hau ustebakoa!*

– *Beharbada zer egina izango...*

– *Ez, mutil! Esan be horrelakorik!* – *Aditza zelan amaitu ez zekielako airean geratu delakoa daukat, izango heuen hik esaten ausartu ez, eta zenduen zuk barruak eman ez–. Hi, eta mesedez! Umetako lagunak betiko izaten dozak, eztok?*

– *Halan ei da.*

– *Eta dok! Esaidak trankil, beraz, 'izango heuen hik'.*

– *Ez naz atrebitu 'izango eban berorrek' esaten.*

– *Horixe behar genduaan! Goazen barrura, heuk be hemen nik beste errenta pagetan dok eta.*

Sarrerako harmailatik pasillo estuko oholean taun-taun natorrela, atzeko bere oinots behartuekin batera, nortasun-nahasmen bat abiatu zait gogoan: Hi, zu, berori... nor naiz ni? Trinitatea esplikatzean, ulertezina edertasunaren garantia iruditzen zait; inork ez dit haragoko argitasunik eskatzen. Neure buuruaren hirukoiztasun honetan, ostera, zeinegaz identifikatu behar dudan ez jakiteak apur bat zorabiatu egin nau, ez baita neure sentieran erabakitzeak, sarbiderik ez daukadan bestearen baitan baizik, zeinari ezin diodan bortxa-

rik gabe ezarri neure hiru nortasun horietariko bakar jakin bat; eta bestea gehi bestea gehi bestea nahasten direnean, zorabioak zoramendu bihurtzeko abioa hartzen du. Ez da, noski, neure problema propioa, atzean datorren horrena baizik; besteei laguntzeko abade egin banintzen, euren baitako problemak euren kabuz konponduz joan daitezten utzi behar dut; har benaza berak nahi duen hiruretariko edozeintzat, eta ager nadin ni ere neuk sentitzen dudan hiruretariko bat, kasu honetan 'hi', hau ere bestearen nirekiko sentiera bortxatzea ez bada. Hasieran apur bat noraezean edo nor-ezean nenbilena, banoa geroz lasaiago hartzen abade naturala izatea zailagoa dela trinitatea izatea baino. Eurt egin, atea itxi eta berriro pasilloan barrura aurea hartu diodan, atzera begiratu du, ez dakit ihespidea moztu zaiola susmatu duen animaliak bezala, ala klandestinoki sartu denari atea ez giltzatzeak sor diezaiokeen insegurantzaz.

– *Hementxe bizi nok ni* –esan diot sukaldera sartzean.

– *Etxe galanta* –dio buru-keinu eta guzti, edukazioak edo arrotz-senak denera begirarazten diola.

– *Zahar samarra esan gurako dok.*

– *Ez, ez! Etxe handia esan gura neban.*

– *Etxe guztiak dozak handi, bakarrik bizi izateko. Jesarri! Ate hori komuna dok, sukaldetik arraro samarra izan arren. Varsoviako printzesaren gerria zurean imitetan dauela dirudien horma-erloju horixe be ez dok edonor. Zutunik hiltzen dakieenetariko.*

– *Ez al dau jotzen?*

– *Norberak eraginda.*

– *Kapritxosa samarra orduan.* (Berak esan du ala neuk entzun dut femeninoa?)

– *Nik ez joat ordurik behar, erlojua baino. Erloju osoa, ez orratz bako esfera oniriko horreek.*

– *Orratz bako erlojuak be badagoz?*

– *Baita zenbaki bakoak be, baina ordua ez jabek zenbakiak egiten, orratzek baino.*

– *Egia esan, inoiz ez dot pentsatu ordua zerk egiten dauen.*

– *Entzuik leihotik zelako ur hotsa datorren. Ibai handia eta garbi-garbia. Eta bai izen polita! Lea.*

– *Neska izena dirudi.*

- Ni abadea nok, hi! Ez dok pentsatuko ibaira begira egoten nazela...
- Nhh-nhh!
- Txapa oso zaharra dok, baina ederto tiratzen jok. Butanozko sukaldetxo hau be he-mentxe jagok, ugerrari kontra egiteko adore barik. Formikazko armario ertzak pio-rrreak jaten hasita legez jagozak, baina barruan egongo ahal dok zeozer, ardaoa, garagardaoa...
- Ez, ez! Ez ibili ezer ateratzen.
- Hoba ez! Gero elkarregaz afalduko joagu tabernan, oraindino ez dok berandu eta.
- Ez da derrigorra afaltzea.
- Ezta afaltzeke geratzea be! Orain zer gura dok? Ez joagu mahai hutsean berbetan jardungo, eztok?
- Basobete ardao estimatuko deusut.
- Marka gozoa jaukaat, joan zen astean moja sartu zen neska baten familiak oparitua, komentura zer autobus-konbinazino zegoen enteratzearren.

Asko poztu nau, nire hirutasunean, *berori*-tik *zu*-ra saltatzen ausartu delako. Konfiantzaren progresioak jarraitzen badu, kapaz da berton akaba nazan, bihar goizeko meza-kanpaiak arte inork ez duela nire faltarik hartuko baliatuz. (*Pentsakizun hau be etorri egin behar jakok gizonari, eh!*). Garbi esanda, neu ari naizela uste dut, berbagai edukitzearren, sukaldearen eta etxearen deskribapen ia ele-meletiaz baliatzen, seminariotik etxeranzko oporretan eta batez ere haranzko tunel inoiz damu-hurrenean, bekaitz tristaberaz gogoratzen nuen herri-mutil prestigioso haren aurrean soseguz eseri ezinik.

- Zelan etorri haz bakarrik, behin gogoratuko eta?
- Etorri beharra.
- Lagunekin etor heintekeen (ez naiz ausartu singularrean iradokitzen).
- Bakarrik etorri beharra neban.
- Beharra?
- Konfesatu egin gura dot.
- Oh! Estimetan joat horixe. Ezkondu egin behar al dok?
- Ez ezkondu, ez urkatu. Konfesatu egin gura dot bakarrik.
- Herriko abadearen bildur ala?

Nire banitate oraindik ez lar aukeratsiak edo nire gaztetasun bai eder-
gurak *nik zeu gura zaitut* bezalako deklarapen lausengari bat erasotzeko
moduan preparatutako galderari erarik intriganteenean erantzun dio: *Nik
daukadana zeugaz bakarrik konfesatu neike*. Orain neu naiz beldurtu naizena,
golkoan igar niezaiokeen sastagai batek *nik egitekoa zeugaz bakarrik egin neike*
esan balu bezala. *Botila ardaoa mahairatzea ez dok hain azartatua izan orduan*
–ahalegintzen naiz ahalik inozenteen esaten, bere esakeran *kontu zahar ba-*
tzuei ekiteko gogoa neukan bezalako topiko batena baino karga handiagorik
ez dudala atzeman fingitzeko baino ez gutxiago, neure sentipen segurrenik
proporziogabea ezkutatzeko. Umetako lagun mina izan nuen Martzel
honek harrezkero nolako biziera eta batez ere sentiera morala garatu duen
guztiz ezezagun zaidanez gero (lagun urrunden elkarrekiko arrotasuna
ezezagutzatik harakoa baino moldagaitzagoa izan daitekeela jo gabe), ez
ahal zait zailegi egingo, ofizioak hartarako prestatu nauelarik, neure pru-
dentzia adeikor guztia abian ipintzen.

– *Elizan konfesatu gura baheu, bertara joan geintekozak, ez dok hain ordu ohikoa
baina.*

– *Zeuk dakizu gauzak zelan egin behar diren.*

– *Ni han bezain abade nok hemen, eta Jainkoa leku guztietan dagoela sinisten badogu,
sukalde honetan ezin jok falta izan; ardaoak, barriz, azken afaria gogoratzuz gainera,
konfesinoa samurtu egin leikek.*

– *Holan be bardin balio leikeela uste badozu, zeu zara Jainkoaren ordezeko.*

– *Bitarteko areago. Ordezko, Gotzainaren edo Aita Santuaren bakarrik.*

– *Ni ez naz horreekin berba egitekotan etorri.*

– *Berton egingo joagu, beraz?*

– *Zeuk ondo baderitzozu, ni kasik berton trankilago.*

– *Ederto. Holan barriketan legez egin geinkek, agindurik agindu barik: ‘Lehenen-
goan?’ (Jainkoa denen gainetik maite izatea) ‘Aitatzeko modukorik ezer be ez,
jauna’. ‘Bigarrenen?’... ‘Lantzean birao txikiren bat ernegualdietan’. ‘Hirugarren-
en?’... ‘Ezer be ez, jauna’. ‘Laugarrenen?’... ‘Bosgarrenen?’... Konfesoarentzat
praktikoa izan leitekek, baina niri kanpantorrera igoten goazela emoten jeustak.*

– *Igotea baino jaisteia arriskutsuago zen, Etxanon behintzat.*

– *Gogoratzen al haz, artabizar mingotsa kapatxa zakarrean batuta, zelako keak atera-*

zen genduzen, behin Garroreneko atsoak abadeari alarma eroateraino, kanpantorrea sutan zegoela eta?

- Gure talentua be halakoxea baitzen orduan: txingarra ezkutatu eta keari jaramonik e ez.

- Inoiz, eztul-atakea disimuletako, kanpaiei eragitea besterik ez jakuan otu, herri guz-
tia aztoratuz.

- Ito ez ginenean! Baina konfesinoan ez al gengozen?

- Hik esan heuk gura doana, heuk gura doan lekutik, astia sopra jaukaagu eta.

- Oso urrundik hasi beharko dogu orduan. Kanpantorre inguru haretatixe, hain
zuzen.

Isilik geratu da, burua okerkera makurturik, posizio zentzugabean gera-
rutako estatua erdi bat bezalatsu, beste erdia ganberrismoak edo metrailak
erauzi ziolako. Buruz buruko isilune hauek, sakramentalak izanik ere, ezin
ditut tripalak baino gehiago jasan; leihora altxatu eta burua inspekzio plan-
tan luzaturik, izarratu jagok esan dut, izar mamalok atzoko lekuan jagozak gaur be
esan nezakeen moduan.

- Alex gogoan daukazu?

- Nork ez, gure eskolakoen artean?

- Neuk be ondo gogoan daukat, ba!

- Haren ezbehar dohakabean, penarik handiena, luzaroko obsesino bihurtzeraino,
heuk emon heunstan. Oraintxe be hotzikaran sartzen nok, hire lekutik Alex konpor-
tapera jausten ikusiz.

- Ez zen jausi.

- Zer izan zoan, ba?

- Neuk bota neban-. Isilik geratu da. Ez datorkit hitzik. Halako batean nik:

- Heuk bota?

- Horixe da nire pekatua!

- Deskuidoa esan gurako dok.

- Ez, jauna. Premeditazino osoz eta amorrurik totalenez bota neban.

- Zer dinok, Martzel?

- Ez dozu sinisten?

- Sinistu zer?

- Esan dodana eta konfesatzera etorri nazena. Urteetan daroat barruan lupua, handitzen-handitzen, gibela jan eta buruaren bila; konortea haustu aurretik, libratu egin gura dot, Jainkoak parkatzekoa bada.
- Egia esaten habil?
- Berton hiltzeko!
- Baina...
- Ez da sinistekoa, ezta?
- Ez dok erraza, baina etorri hazen moduan etorrira...
- Aurrekoa bazenki, erraztuko litxakizu.
- Aurreko zer?
- Zergaitik sakatu neutsan eta zergaitik eroan neban sakatzeko lekura.
- Heuk eroan heuela esan gura dok konporta gainera?
- Eroan-eroan ez, baina bai plan guztia harildu, jakinik harentzat konporta inguruan zer tirriagarri zen, batez be okerreriaren bat tarteko bazen.
- Astiro, hi, astiro! Gero kontatuko deustak hori, preminazkoa balitz. Lehenik, argitu daigun auziaren muina. Hilketak bat konfesatu gura doala dinostak?
- Hatarakotzat etorri naz.
- Baina orduan umea hintzen!
- Baina gero ume izateari itzi neutsan.
- Baina egintza umetan egin heuen.
- Baina ondorioa nagusitan daroat.
- Baina ondorioa ez dok hobenaren osagai.
- Baina nik ezin ditut bereizi. Ondoriotzat egintza bera geratu jat betiko.
- Baina, egintzaren egile materiala izan hintzela onartuta be, nik ezin deuat parkatu egin ezin heuen pekatu rik.
- Neuk uste izatea ez da nahikoa?
- Hara, Martzel! Nik esan gura dodana dok ume baten oroimena izan daitekeela traumatikoa, abailgarria, hilgarria, heuk gura doana, baina ez erruduna. Ezin deuat lagundu ez daukaanetik parkatuta gelditzen, daukaan morapilotik askatzen baino.
- Neskekin medikuka jolastea pekatu mortala genduen, eta lagun bat akabatzea morapilola?
- Oh! Ez naik moral klase horregaz nahastatu. Bajakiat pentsamenduak be oraindino pekatutzat epaitzen direna, baina Jainkoaren bitartekotzat nigana jo doanez gero,

neure erizpidea onartu behar dok. Neu egiten nok erantzule, hi ez hazela hiltzaile, tragediaren esku dohakabe baino.

– Estimetan dot zure ongura, baina Jainkoaren bitartekotzat zeugana jo dodanez gero, emoidazu parkamena eta berak erabagi daiela nigaz zer egin.

– Horregaz baketuko bahaz, niretzat errazena dok kunplitzea. Ego te absolvo ex omnibus peccatis tuis, in nomine patris et filii et spiritus sancti. Amen.

Neure memoriako hari galdutzakoei handik eta hortik tiraka, azkenean liburu zaharretara jo gabe osatu ahal izan dut formula, eta baliokoa izango ahal da gaur ere, ahalmen horiena ‘usque ad mortem’ bada. *Zer esan gura jok horrek, Amuriza?*, itaundu zuen Don Aureliok. Horrela esanda, ez naiz beldurtzen, baina *¿qué significa eso, Amuriza?* entzun nuenean, oraintxe ere larruak brrrrrr egiten dit, batez ere neure burua imaginatuz pentsamenduak orduan eman zidana (*usque ad mortem... uzker mortala?*) gela guztiaren aurrean esplikatzen.

Penitentziarik ez al deustazu agindu behar? – Egik aitaren zintzo bat, neugaz afaltzen hasi haitenean. Solas arinean darraigu, haren barrua nasaitu eta argitu dudalako pozari behin baino gehiagotan dudak jotzen nauen ofizioaren harrotasuna nahasten diodala; errazetak zailena ekarriko zuenik susmatu gabe, eskari baino mehatxuago dirudiena begi-begietara jaulki didan arte:

– Hori baino penitentzia astuntxoagoa behar dot nik, baketzeko.

– Hi! Penitentiaren agentea neuk nok, eh!

– Orduan, parkatu barri dozun pekatua publikatu egin behar dozu.

– Publikatu zer? Alexen hiltzailea hazela?

– Horixe, gitxi gorabehera.

– Baina, Martzel! Hori zelan egingo joat, ba? Nik ezin joat konfesinoan entzundakorik zabaldu.

– Jagokonak eskatuta be ez?

– Martzel! Ezin deustak eskatu konfesinoaren gauza eder ia bakarra den (ezingo diot esan neu ez naizela, abade egin nintzenetik, behin ere konfesatu) *konfidentzialtasuna apurtu daidan.*

– Ni ezin naiz parkaturik sentitu, araberako penitentzia bat bete barik, eta horrek izan behar dau herritarrek jakin daieela halanbeharrak barik Martzelek hil ebala Alex.

Haren arimak ez dau merezi denak sinistuta egoterik fama zeukan halako gaiztakeriak heriotzara merezita legez eroan ebala.

– Hire barru urratua neure baitarutzen ahaleginduko ez banintz, superbia penitenteak harabilela esango neukek.

– Ni ez nator pekatu kapitalak desafiatzera. Nik bakarrik behar dot Alexen gomutak jaso daiela autormen bat, berandu bada be, bere lagun baten ezaguerarik kontzienteenak akabatu ebala.

Berbak harri zatiak bezala jaulkitzen ditu, barruan hargin bat apurtzen ari zaion estatuarenak; une batez neure golkoan ere zauskadak jo nau bortizki, haitzuloetan izerdia bezala denean zokoturik egon ohi den beldurrak abertitu didanean: *Hori benetako hiltzailea dok gero!* Sotana barrena aulkiaren hankapetik destrabatzeko plantan (lepotik lurrerainoko gona barren-zabal honek edozein mugikera justifikagarri irudiarazteko abantaila dauka, dekoroz egiten bada), burua haren begiradatik makurtzen dut, Arkimedesen balankari heltzera banindoa bezala. Burua altxatu dudanerako, nire barruko beldur-kolpea (haitzuloetan ez dira aldakuntzak hain bizkor gertatzen) erruki-jariora lerratu da, non gizaki bat dakusun, biziraupenak krimen baten zama publikoa eskatzeraino deuseztua. *Gauza bat egingo joagu. Ez dok inoren barne usnaketa maite dodalako, eta hain gitxi konfesinoan, baina gogoan al daukak, nik durdurakumeen atxakian hain obsesiboki gura nebanaren aurka, zelan hik ez heuen ezergaitik be kanalera inguratu gura izan, ia betiko hasarratzeraino? Haserre kontuak irribarrea atera dio, umetasun hondarren baten iraupen seinale. Gogoratuko ez naz, ba? – Kontaidak, ardura ez badeua, gertaera dohakabe haren aurrekoa.*

Astiro, luze, xehetasun guztiekin kontatu duenerako, tabernan afaltzeko beranduegi ez balitz ere, lagunaren jende arterako ukoa iraultzen ez nintzateke saiatuko; neuk ere ez daukat gauerdiko urrumetarako gogorik. Sukaldean bertan ez diot gehiegi ekin, zerbait onar zezan: *Gaurko ogirik ez jakiat egongo den, baina osterantzean denerik hornituta najagok; herri honetan ez dok erraza abade kokot-mehea izaten.* Zutundu eta lehenengo basokadatik oraindik gehiena bertan zeukana gizalegearren edanik, sikuan esan du:

– Nire gorgoilean bada nahikoa traba, aduana-lan barrietan hasteko. Otamen hori datorren zapatuan egingo dogu. Neuk ekarriko dodaz pare bat txuleta eta etxeko lukainka-txorta bat.

– Ez daukak ezer ekartzen ibili beharrik.

– Zu isilik. Esan doguna egin badaizu, lukainkak berari emon eta txarri osoagaz etorriko naz.

‘Esan doguna egiteak’ bere gakoa dauka. Ahalegin guztiak egin ditut laguna konbentzitu guran, umetako egintza bat, areago bere zirkunstantzietan, ezin dela krimentzat jo, eta balitz ere, orain agertzeak ez lukeela zentzurik, ez humanorik, ez dibinorik, gogo torturatu baten etsenplutik ondorio moralizante okerrak eta zapalgarriak ateratzeko ez bada. *Ikusten? Begitu sasoian egiati ez izateak zelako zigor amaibakoa ekarri leikeen atzetik.* Konbentzitu gura nuen Jainkoak ez ziola barkatuko hain adibide morbidoa eta zikinki manipulagarria isilik ez gorde izana, bere herritarren onerako. Neuk ere mehatxu egin nion, Jainkoaren bitartekotzat hartzen ninduenez gero, ez niola absoluziorik emango, bere obstinazioari eustekotan; nahiago nuela bat bere tormentuan iraungi zedin, munduko infernu hau handitzen laguntzea baino; eta, gutxieenez, hartzeko astia, gauak bitarteko, behar adina eta lasai hitz egin genezan, hainbeste urtean golkoan ei zeraman lupua egun batzuk gorabehera ez zela askorik handituko eta.

Azken obligazio hori nahikoa erraz onartu zuen, aurreko bere lehen asmoak hausten ez zituelako segurrenik; neuk ere banuen konfiantza, astirik ematen bazidan, gehienetan arintzaile bezala, batzuetan pilatze inhumano bihurtzen den denbora lagun, haren kontzientzian garaturiko adabegia bigunduko nuela, bat-batean beste arrakala bat ireki ez balu, esanez: *Neurea gorde neike, baina Alexen gomuta ezin dot garbitu barik itzi. Herriak jakin daiela behintzat ez zela ezbeharrez hil, eraila baino – Garbitzea barik zikintzea ez al dok izango, batzuek horixe merezi izan ebala pentsatu daieenean? – Baina beste batzuek erruki hartuko deutsie, txarrikume bat legez ito ebela jakin daieenean – Hori baino ez badok, neuk esango deuat zelan egin –bururatu zitzaidan bat-batean, berriro arazoiketa alferrekoan tematzen hasteko higuinagatik gehienbat. Enkarguzko bertso jarrietan egin ohi den antzera, neuk idatziko nuen egiazko historia, na-*

rrazio labur bat bezala, non neu izango nintzen hiltzaile, zera inork ez baitzuen sinetsiko eta, sinetsita ere, ez baitzidakeen ardura izango, umetako historia errukarri, errugabe baten erantzukizuna besterik ez bainuen pairatuko, eta non, okerreanean, enkarguz niharduela igarrita ere, inork ezingo zidan, benetako hiltzailearen izen truke, konfesioko sekreturik hausteko eskatu.

Alex, Garroreneko morroia. Ezagutu zenuten, ezta? Hamalau urteko mutil gorrista pekazto hura, ontziren baten atrakaldian sortua izanaren itxura guztikoa, eskolagun guztion inbidia zen; sasi-eskola egin beharrik ez zeukan, guk ikasi ezin genituen gauza guztiak jakiteko. Zabalaundiko kanalean, okerreria fatal baten ondorioz, azkenik merezigabeena aurkitu zuen Alex 'Matxino' gureak. Gaitzizen hori egiazko izenek mihia erretzen bide zioten Garroreneko aititagandik hasi zen, zeinak Alexi 'Matxin' deitzen zion. *Ez dela Matxin, ba, Alex baino!*, agiraka egiten zion amamak, doitasun inertzialagatik gehiago, inor zentzatzeko konfiantzagatik baino. *Orduan, Matxino!*, zuzendu zuen aititak; inork ez zion tematu. Amamak ere ez zuen txintik erantzungo, ez komoda kankailu etzana zirudien ohean, ez kanpoan. Aititak, alkantzu juridiko eta guztiko esaeraren ezjakitun ('isilik dagoenak baietz dio'), isiltasuna Jainkoaren bikaintasuna baitzen (*orduan, zu ez zara Jainkoaren ahaide!*, ziotsan amamari), bertute dibinoa baieztapentzat hartu zuen, eta aurrerantzean beti 'Matxino' esango zuen edonon, bataioko aitabitxi bera izan bailitzan. Alexi apenas ardura zion, aititak lantzean eskupeko bati jaregiten zion, bere asmakizunari oztopo gabe korritzen uzteagatik beharbada. Azken triste hura Alexena berea izan zela uste duzue denok, pozik, destinoari bere gaingizatasun etsenplarra beste behin aitortzeko okasioagatik. Ez dago, bada, hainbesteko edertasunik. Alex neuk erail nuen, Nunbaibeko Nordan honexek. Biktimari berari baino erruki handiagoa hartu zenidaten, ezbeharraren leku-kotzak betiko sakaildurik utziko ninduelakoan; berriro erratu zineten, hala izanik baino askoz larriagoa izango baitzen ondorena, nola edo hala publikatu gabe ezin uzteraino estutu nauena.

Nork txiza urrunago egin! desafiatu ninduen Alexek mutikoen jokorik maizkorrenera, Abeletzako errekan. Egunean hainbat bider bezala, pare bat lagun txizaginan hasten baginen, gure hartarako arretarik txikienik gabe (behar-

bada egabera marrari *–begitu! begitu!–*, behin ondulatuki, behin angulariki, miragarriri aldatuz zihoanari, eta beste kontinente batetik, hots, itsasertzaz handik zetorrenari, gora begira geundela), zirriztadak berez-berez ahaleginduko ziren bestearnak baino atzerago ez gelditzen; ezta parean ere, berdintasunak berriro sorburura kondentatzeko arriskua bailuen. Hatzek geisertxoahalik ondoen maneatuko zuten, estutze-askatze teknikoki txit landuan, parabolarik efikazena lortzeko; halaxe ikasi genuen distantzia indar-altueren konbinapen optimoan zegoela. Ipurdiak, aurreratu beharrez, belaunak okerraraziko zituen, jaiotzaren aurrean belaunikatzera bezala; nahikoa zen tanta batek, Zizeroni ohiki behatz nagusiaren hatzazalera jausten zitzaionak (sandaliakin ibiltzearren), bestearen sestra gainditzen bazuen. Bera nagusi. Bakarrean ere berdinarjardungo genuen, beti zirriztada gidatzen, alantzerik ezin ikusiz gaintetik edo bitartetik pasatzen saiatu gabe; beti posizioaren egonkortasun tentsoari eusteko ahalmena lantzen, edo prezisio-kolpeak entseiatzen, tximeletarik hiru metrotik behera (lepidoptero xarmagarriak!) kokaturik hautematen bagenuen. Ahotik higuinez jaurtitako txikleaz bezala jausten zen gaizoa. Handik laster, seminarioan sartzean, ohartu nintzen gehienekiko inferioritatean nengoela, haiek pitilinera begira txiza egiten baitzuten. Hortixek ateratzen nuen nortzuk ziren menditarrak, nortzuk kaletarrak; hauek, gehienik zoko ezkutuan edo etxeko komuntzuloan ikasita egonik, aiseago betetzen zituzten seminarioko txizagintza arauak; alboraz begiratzeko, bilduki, errespetoz egin behar zen egintza hori, zipotzari gehiegi tiratu gabe. Kontuz eragiteaz, eta areago, intentzioaz!

Ezin nuen asmatu, dozenaka lerrotzen ginen txizategi haietan, txiza azkar egiteaz beste zer intentzio egon zitekeen, baina zirelako intentzioetatik prebenitu beharra zegoen; beti airera ohituta gentozentzat, aipatu arau guztiak batera egiteaz gainera, uniformea ere libratu beharra tximeletak hostoan azartatzea baino zailagoa zen; nire txirritxirri azaltsuak ez zuen bere kaputxatik irten nahi izaten; bere nostalgia entzerratutik tximeletekiko samurtasuna garatu zitzaion, zeintzuei gehiago ez zuen, oportetako askatasun ordain-gosean ere, txiza egiterik probatuko. Geroagoko urteetan, nerabezaroa, pairatuz baina ohartzeko bertatik pasatzen ginen aro hura, amaitu zenean, kastitate-bakulua agertuko zen, sotanaren botoi-lerro bertikaletik, bost tekla-ilarak baka-

rrean lituzkeen akordeoia bezalakotik, pitilina eskuekin ukitzeke sar-ateratzeko balio zuena. Ni neure zintzotasun ezjakinak libratu ninduen trepetxu haren bikaintasunetik, zeren zorionez, gogo-zuzendariaren aurreango erabil-praktika zehatzez harago (*jabetu al zara orain ganoraz, seme? – Bai, aita! Ez dut uste beste jardunaldirik beharko dudarik*), neuk ez nuen, egintzaren sekretasun nahitaezkoaren babesean, sekula arauz erabili. Makilatxoa bera kurioso bezain material ezaguna zitzaidan arren, kastitatea zer zen ez nekien garbi. Badaezpada, bestela gaixotasunen bat etor baledi ere, ohean eseri eta mesanotxeko kaxoia izter mahaian azpiz gora jarririk (sotana gainean efektua transformatu egiten zen, preso hartutako haizearen autismo agortezi-*nean*), danbolin ariketa nahikoa trebakor, guztiz ebokatzaileak (herriko plaza bertara nerakarren) egiteko erabiltzen nuen, gogo-zuzendariari aitortu ohinionez. *Kastitate-bakulurik ba al darabilzu, seme? – Bai, aita! Hartu diot maneiua.* Biok pozik geratuko ginen, hura bere obsesioa garaile ikusi zuelako, ni gezurra esatetik teknikoki libratu nintzelako.

Arestiko eszenara itzulita, egabera aldra ezabatu bitartean (ezkutatu, ez zen sekula ezkututzen, horizontearen parean bizi baikinen), bigarren zarrastada ere helzitekeen, zeinak, hutsik gabe, aldamenekoa ere abiaraziko zuen; atzera lehenean gaude, lepoak apur bat luzeago, ezabatzeaz doan marra hegalariai jarraitu guran.

- *Kaben zotz! Ez jakuk egabera kontatzerik gogoratu, parean zetoze.*
- *Ni gogoratu nok hankak kontatzeaz, balio badeua.*
- *Hankak zelan kontatuko heuazen, lumatzen batu-batu eginda bajeroezen?*
- *Hegoak izango zoazen orduan.*
- *Zenbat hego?*
- *Berrehunda zazpi.*
- *Baten bat hegobakarra ete zoan, ba?*
- *Buztana izango zoan beharbada.*
- *Orduan, ehunda hiru gehi bat, ehunda lau hegabera. Piloa, eh!*
- *Bat hori ez joat uste ondo kontatu doanik.*
- *Halan be, piloa!*
- *Bai, bai. Ilada!*
- *Nhhh! Ni baino gehiago haz –diotsat Alexi.*

– Ez dakik eta! Hator hona, txepel hori! –diost berak.

– Tirok, ba –nik–. Galduko joat, baina bardin jeustak.

Hasi ginen eta Alexen hankartetik erregadio turrustak bezalakoak dispartzen hasi ziren, hurrenez hurren handiagoak, nire parabola ez hain lotsagarriei alde umilgarria ateraz. *Larririk be ez najeukaan handi-handirik eta*, salbatu nahi nuen ohorea azkenerantz. *Ez dok horrena!*, moztu zuen biribil, ni beldurtzea lortuz. *Zerena dok, ba?*, aurre egin nion, kemena fingituz. *Begituio!* Gutxien itxarongo nuena egin zuen: pitilinetik helduta nindeukan. Hain inpentsuan harrapatu ninduen, ezen ez nintzen gauza egintzak bere kabuz jarrai zezan uzteko baizik, zerak noski beldur identifikatu gabea sentiarazi zidan; baita bigarren beldur bat ere, hartaraino ausartu zen lagunari erabakia mozten banion, ondorio okerragoren bat ez ote nuen eragingo. Hori guztia pentsatzeko astirik eman aurretik, min egiteko beste tiratuz, gaineratu zuen:

– Zelan jaurtiko dok txizarik urrun, azala besterik ez daukak eta?

– Zer egingo joat, ba? Ebagi?

– Ez, ez! Hori guztiori beharko dok, barruko beldarra behar den beste hazten bajak. Hau, hau! Hauxe dok txatxarra–, beste eskuagaz hondoragotik haztatuz–. Jokatuko neukek honek ez dauela sekula argirik hartu. Ikusten nirea?

Nasaitu nintzen, nireari jaregin eta bereari heldu zionean. Prepuzioa atzeratzean, berakatz atal zuritua bezalako burutxo bat agertu zen aurrerantz, *nor da?* esanez bezala. *Horrenbeste neuk be egiten joat*, demonstratu nion. *Hori txitxina dok!* –hots egin zuen mesprexuz–. *Handitzen laguntzen ez badeutsak, usteldu egingo jak azalpean. Harrak egingo jakozak – Handitzen lagundu, zelan? – Honelaxe: azala aurrera eta atzera, aurrera eta atzera. Erakutsi egin behar jakok kanpoa. Horrela, horrela!* –baitetsi zuen, neu ere bera imitatzen ikustean, bestela berak egingo zidan beldur nintzenari aurrea hartzearren gehiago. Alexen aurrean zemaiddan lotsa eta guzti ere, ariketa polita begitandu zitzaidan, etxera bidean eta etxean jorantsu errepikatuko nuena. Edozein bazterretan, brageta gabeko praka motzen alde batari ahalik goren tiratuko nion, pitilina ondo libratu arte; ariketa ondo ikusteko, apur bat bizkar-makur eta hanka-zabal geratuko nintzen, hurrengo Alexegaz bil nendinerako, aurrerapen bizkorrak eroan guran.

– *Ganba zurituaren tamainukoa daukak oraindino, –esan zidan handik hiru egu-
nera–. Gitxienez, otarrainska bestekoa behar dok, neskatan hasi haitenean, otarrain
baten modukoa eduki daiaian.*

– *Zer dozak horreek?*

– *Mariskoak. Ez dakik?*

– *Mariskoa zer dok?*

– *Itsas piztia bat, sandinzarrak edo makailaoa legez.*

– *Makailaoa itsasokoa dok?*

– *Zer zelakoan hengoen?*

– *Beti txarrikien eta zezin-zatien ondoan eskegita ikusi joat eta.*

– *Ona hago hi!*

– *Heuk be nonon ikasita jakingo dozak gauzak.*

– *Itsas-mutil hasi nintzoan, baina hanka egin najoan. ‘Ur gainean gura ez badok, lur
gainean beharko dok’ esanez, aitak baserri gosekil batean morroi itzi ninduaan. Nik
handik be hanka. ‘Hori be bai? –aitak orduan–. Eroango haut, ba, bueltarik ez tope-
tako lekuraino!’. Holantxe etorri nintzoan Etxanora. Hemendik be topatuko neukek
ihesbidea, baina Garrorenean ez najagok hain txarto. Ugazabandrea frankua dok, apur
bat mamalatxoa, eta ugazaba ez dok hain zitala. Egingo al joagu txiza nork urru-
nago?*

Hortixek hasten ginen beti. *Ganba hori bape hazi dok? – Baietz uste joat –ez
nengoen batere segur baina. Ea hona! –nire pitilin-azalari atzera-aurrera era-
ginez–. Ño! Oraindino txatxar jagok hau, baina hazi guran emoten jok. Suabe-suabe
ikutzea gustetan jakok, puntatxoa zirikatuz. Inoiz ez al dok txirritxirrik zulotik
atera, bedar luze bategaz ziri eginda? – Baita txiza eginda be – Honek be horrelaxe ur-
tengo deua, minik egiten ez badeutsak. Sentitzen dudan kilikilia benetakoa eta
diferentea dela esango nuke, baina, tamainua handitu beharrean, txikituz
doala uste dut. Artogatzen ari naizela oharturik, Alexek lasaitu gura nau:*

– *Normala dok, apur bat lotsatuta jagok eta. Neureari be kostatu jakoa mogitzen, on-
tziko marinel gorri batek iniziatu ninduenean. Orain desiatzen egoten dok, ikuturen
bat noiz ailegatuko. Gauza bat egingo joagu. Pitilin punta biak elkar kilikatzen ipini.
Holantxe! Zer sentitzen dok?*

– *Kilikilia.*

– Kilikilia bakarrik?

– Zer sentitu behar dok, ba?

– Ikusten dok nirea zelan datorren handituz-handituz? Beste gauza bat egingo joagu. Heldu hik nireari eta nik hireari. Eragin holantxe, puntak elkar laztanarazoz. Gozogo, presa barik. Nirea bajatork. Hirea oraindino koldartxo jagok.

Orain ez dut kilikilirik ere sentitzen, neure hatzetan zentratu bainago, zeintzuk harritura dauden, Alexen pitilina miragarriro loditzen, gogortzen, luzatzen nabaritzen. Inoiz neureari ere tenteago erreparatu izan diot, ohean erdi lotan batez ere, baina zimeletik gogorrerako iragaitzaz sekula ez nintzen konturatu. Egoera independenteak zirela uste nuen; zimeltasun-gogortasunen artean jarraitasunik egon zitekeenik ez nuen inoiz pentsatu, orain, ikusten ez ezik, sentitzen ari naizen bezala. *Estutu bildur barik, hori be gustetan jakok eta*. Presa barik esan du lehentxoago, baina niretzat denpora laburregian gertatu da transformazioa. Apur bat deseroso, biolento ez esatearren, aurkitzen naizen arren, Alexi kontrarik ez egitera naroa, ausardiarik ezak eta, batez ere, *usteldu egingo jak!* iragarpen hark baino gehiago, sekretu zoragarrien atarian ote nagoen irudipen kitzikagarriak. Koska bakarra da bakarrean hartara aise iristen naizena (batean ziri, bestean heldu, eskua bete-bete nabari dudanean, mundua baino zerbait garrantzitsuagoaren jabe sentitzen naiz) Alexen aurrean ezin dudala inondik ere lortu. Behin diost: *Gaur beste gauza bat egin behar joagu. Hirea oraindino berdetxo egon leitekek, eta neureagaz egingo joagu.*

Puntekiko ohiko ferekuak zutik eginik, Alexen pitilina (zakila ere esan da-kioke horri) probeta arinki bigunaren haztaraino hanpatu denean, *etzun egingo gozak* esan du, eta horixe egin du, erreka bazterreko hondarrune lehorrean. *Neu be etzun?* – *Bai, gura badok, baina jesarrita hobeto ikusiko dok*. Nire eskua bere mastatxoari helduta ipini eragin dit eta, bereagaz gainetik apur bat estutuz, *holantxe, holantxe –dio–, gorantz eta beherantz, eskukada osoan, azala atzera-aurre-ratuz; lar tiratu barik, atzerantz batez be. Holantxe!* Bere eskua erretiratu da eta neurea bakarrik gelditu da lanean, osinetik ura ateratzen ari bailitzan. *Ondo habil, astiro, suabe, ondo!* Begiak itxi egin ditu; orain lasaiago nago, ez dominatzaile sentitzen naizelako, baizik berak ez dakuselako zer dominaturik nau-

kan. Besoak zabal, hankak luze, gorputza mugitzen hasi zaio, nagiak atera guran bezala, behin ziraunaren okerkeran, behin bizkarrean ukitutako barearen arkukeran, tiratu beharrean zast egin banio bezala; orain burua ezker-eskuin okertzen hasi zaio, mistikoa ametsetan bezala, aurrez daukan tentazioari ezezka, edo jeneral bat amesgaitzean, berak agindutako izutik burua lurperatu guran. Hau ez dakit izutzen ala zorutzen ari den; ziraun- eta arku-mugimenduak azkartuz doaz; Jainkoari ezezkoa erregutzen ari naizen bezala, oraintxe begiak irekiko balitu, uste dut ihesari emango niokeela, bihar, eskolarantz edo eskolatik etxerantz, aise harrapatuko ez banindu. Orain aingirabaten lepo ingurua estutzen ari naizela ematen dit, irenste edo irentsi gurako kolpeak sentituz; kolpeoi, dzuk-dzuk-dzuk, ezin diet igarri goranzkoak ala beheranzkoak diren; agitatzen hasi da, *heldu, heldu!* aginduz; konbultsioa dirudi, agonian ikustea gertatu zitzaidan Don Samalio parrokoaren azken ostiakaden antzekoa; orain ezin diot eskuari jaregin, bere bi eskuekin gainetik estutzen bainau; aingirak ez du ito nahi, buelta guztirantz desesperatuki nasaitsu nahi du, hiru eskuek gehiago estutuko ez balute; urrumaka hasi da; dzip, sugeari eskapatu zaion miztoa bezalakoa; esku ikaratua bortxaz erretiratu dut, atzerantz jausiz, baina ez dirudi konturatu denik; auhenka ari da; lehenago jakin izan banu!; bi eskuak zakilean itsatsirik, bihurkaturik dauzka; dzip-dzip berriro; zirriztada etenak, zuriskak, barrutik norbait txistu-jaurtika ari bailitzan, aurreranzko inklinazioan disparatzen dira, metro bat inguruko altuerako arkuetan, paparrera eta ahal duten lekura jausiz, aurpegia barne; orain orroak dira, mortalak benetan; geroago pentsatuko nuen ez zela harritzekoa haurrak negarrez jaiotzea. *Alex, zer darabilk?*, dzip-dzip, makaltxoago eurok; orain esango nuke plazerrak aurpegi horriblea daukala, torturak bezala; badirudi orroak berriro irensten diharduela, mmh, mmh, *zer gertatzen jak?*, eskuak askatzen, zabaltzen, laxotzen zaizkio; apur bat albora eginean datza, hasperenka, arnasa sakonagotik, osinetik hartu guran, masaila lurrari emanda, mmh, mmh, bandiduek hilzoriraino jipoiturik utzi duten asaltatua bezala.

Pare bat metroko distantziara isilik eta geldi nago, begiradarik erretiratzaren edo urratsik atzeratzen ausartzeke, zaratarik txikiena Alexen gorputzaren eztanda konektaturik legokeen beldurrez; aratinik gelditu da,

noizik noiz hagin-ilarak elkar betiko despeditzen bezalako aharrausian, bikerika topetik harago nasaituak berriro itxi ezinik geratu balira bezalako begi zurri laburki hilurrenak erakutsiz. Noizbait begiak normal samar ireki ditu, baina existitzen ere ez naizen eremu transespazialerantz, non ezer ez dagoen ez egon behar duen, begiradaren beraren sentsazio abiarazlea besterik; hurreratu naiz, eta gainerantz makurtu natzaionik ere ez da konturatzen. *Alex! Ondo al hago? – Itzi naik apur batean. Habil hortik. Deituko deuat.* Ez zaio hitza tonu konbintzenteegian itzuli, faringe-hormetatik barekumeak igotzen bezala baizik, baina obedituko dut.

Hau aprobatu egin behar dok –dio halako batean–. Osterantzean, usteldu egingo duzue. Usteltzea hiltzea baino beldurgarriago zen batentzat, abisu latza zen, baina lasai hartzea erabaki nuen, Alexen enajenazio baten ondorengo zentzugabetzea izango zela eta. Hala ere, galdetu nion:

– *Usteldu zergaitik?*

– *Ez dok ikusi nire pitilinak zer jaurti dauen, eta zelako amorruz? Hori guztiori barruan geratzen bajak, bera eta dena ustelduko hau.*

– *Kolore zuri samarra ez jeukaan?*

– *Edukiko ez jok, ba, zornea zoan eta?*

– *Zeren zornea?*

– *Barrabilena! Honeek barruan odol espeziala jaukiek, bertan luzaroegi edukiz gero, zorne bihurtzen dena. Lantzean-lantzean hustu ezik, potroak usteltzen hasten dozak, eta astiro-astiro hireak egin jok. Inoiz ez al dok potro-zorririk eduki?*

– *Entzun izan joat, baina ez nok gogoratzen inoiz eduki dodanik.*

– *Eduki be ez dok egingo. Hori guztiori ez dok potroak usteltzen dagozela enkubritzeko asmazinoa besterik.*

– *Horreek zer guztiok non ikasi dozak hik?*

– *Hantxe! Ikasiz eta zuhur ibiliz.*

– *Eskolan ez jeuskuek ezer esaten.*

– *Esango be ez.*

– *Hoba neska jaio banintz!*

– *Oh! Neskena txarragoa dok. Batzuetan ustel-ustel eginda ibiltzen dozak, saneamendua lehertuta legez.*

Etixerakoan eta gaineko egunetan, pitilinari mintzerainoko ukitu mota guztiak egingo nizkion, baina ez nuen lortuko apur bat gogortzea besterik. Hurrengo domekan Alexek, eguerdian, meza ostekotik etxeranzkoan, Abeletzako erreka ir-tenda, esan zidan: *Arrastian egingo al joagu? – Ez, nik ez. Nik ezin joat – Ez hadi-larritu, mutil, oraindino gaztetxoa be bahaz eta. Nahikoa dok niri laguntzea eta horrela, astiro-astiro, heu be trebatzen joango haz.* Baietz esateko jakin-minik ez zitzaidan falta, baina uste dut ezetzik esateko adorerik ezagatik agindu niola arratsaldean hain ordutan hementxe egongo nintzela. Bolada batean ekitaldi batzuk bagenera-matzen, aste barruan ere geroz maizago, eta behin diost: *Arrastian joango al gozaka kanalera, eguna be zoragarria jagok eta?* Kanalean, ez purrustadarik ez txaplastada-rik gabe, egitekoak eginda, hura begi itxiak eguzkiari erakutsiz eta ni haren zakil-inguruei azkura eginez, ur gainean igel hila tripaz gora bezala ikusi nuenean, ezin izan nuen ekidin, haga bat eskueran edukitzera, bertan enpalaturik uzteko sentipena. Alderantziz ere izan zitekeela pentsatzen saiatzen nintzen arren, uste dut hartzen ari nintzaion higuinak eragozten zuela neure gorputzean ezer lor-nezan, baina mozten banuen, Alexen mendekuak nahi adina hondabide zeukan niganako; ni baino handiagoa eta askoz gizonduagoa zenez, edonoiz edozein bazterretan, zafraturik utz nindezakeen, edo, bere prestigioaz baliaturik, eskola-lagunen artean kakazturik utziko ninduen, nire hitzak harenaren kontra ez bai-tzuen fisik balioko, ezta nire egiak ere haren gezurren kontra, nahiz eta denek halaxe zela jakin. Amesgaitzean entzerraturik bezala sentitzen hasita nengoan, nondik ez duzun nola libratu-rik aurkitzen, zeren irtenbide bakarra, itzartzea, ez zaizu posibilitate gisan ere bururatzen, zeraren kasuan, zeure burua itzartu ezi-naren larrian, itxaropen bat behintzat bazenukeen, norbaitek (poliziak), zerbaitek (etxeak su hartzeak) iratzar zaitzan. Beharbada, sakonaren sakonagoan, Alexen lagunik handiena izatearen harrotasuna eta horrek eskolalagun guztiekiko ze-maidan gaintasun bekaiztua izan zitezkeen nire atxikitasunaren eragile nagusiak. Behin, konfesioan zeozer hitz erdika adieraztera menturatu nintzaion abadeak (zeozer egin behar, usteltzetik ez bazen, infernutik libra nendin) halako putzekin galdetu zidan *zer esan dok?*, ezen pentsatu nuen: *Zerak esango jeutsak honi dena, konfesalekuak su hartzeko!*

– *Alex, gaur ezin joat*, –esan nion behin, eta erantzun zidan:

– *Gaur ezin badok, aste barruan birritan egingo joagu.*

- Nire ezina ez dok astirik ezarena. Alex, nik ii...
- Baten bati zeozer esan deusak?
- Ez, ez!
- Komeni jak sinistu deiadan; osterantzean, hire akabua.
- Egia. Ez joat ezer inon esan.
- Konfesoareari be ez?
- Ezta.
- Ez gero?
- Berton hiltzeko!

Egia esatekotan ere, nola hasiko nintzen zeozer erdi-esan nuela, baina ez niola eta baniola eta abar, eulia amaraunean baino lorrinduago eta, azkenean, harrapatuago gelditzeko? Alexek jaki estimatuak (lukainkak, urdaiazpia, txokolatea, inoiz menbrilu lata osoa ere bai) ekartzen zizkidan; gurean baino askoz handiagoa zen ugaritasunean, eta ugazaba-ugazabandreen transigentzia edo inozentzia zela bide, ia edozer harrapatzeko bitarteak aurkitzen zituen. Dirua ere ematen zidan, nik behar baino gehiago, haritz marroan gordetzen nuena bera, etxean gordeleku ustez seguruak eduki arren; teilape berean zerga haregaz batera lo egiteko beldur nintzen.

Aita! Gorozikako eskolara hasi gura dot, esan nuen behin, herri hartako jai batetik bueltan gentozela. Hori eginda jagok, onartu zuen berritasun orori abentura gisan heltzeko beti prest egon ohi zen gure aitak. Zoratuta zagoze ala?, erremuskatu zen ama, gertaera baino ondorioak lehenago ezagutzen zituena. Eta zu be ibili beti umeen buruak asmukeriekkin berotzen!, haserre egin zion lazki aitari. Etxanora jarraitu beharko dok, esan zidan gero bakarrean aitak, obligazioa nire eta erresignazioa bere gain legokeen makurmenean. Etxean zeuk ez dozu agintzen, ba?, zorroztu nintzen. Berak, erresignazioaren azpitik, txitoak oilalokaren hegopetik bezala, irribarre ihestunez hurreratu eta eskua oso sekretu lizuna aitortzeko moduan muturreraturik, gaineratu zuen: Amagaz ondo konpontzea komeni jakuk. Hurrengo astean ez nintzen ausartu Alexi ezetz esaten. Domeka iluntzean etxean esan nuen:

- Ni gehiago ez noa eskolara.
- Eskolara gehiago joan ez? –aztoratu zen ama–. Zergaitik?

- *Ikasi dot nahikoa.*
- *Ikastea sekula ez dok nahikoa.*
- *Nik baino gitxiago dakieenak asko dabilz hemen. Zeu bat.*
- *Ai, txotxo! Ni hire sasoian antzinatik nengoan neskame, eta aita morroi.*
- *Neu be morroi joan neinteke. Amamak beti esaten deust nire moduko mutil bat pozik hartuko leukeela.*
- *Honek ez ei dau gehiago eskolara joan gura, –esan zuen amak, aita sukaldera sartu zenean, zeinak bururik itzuli gabe erantzun zuen:*
- *Orduan, pikatxoa eta pala hartu eta Astepera joan beharko da. Gure aitak, hain siku eta irribarre gabe, pikatxoi-palak eta Astepe (Zornotzako auzo bat, non, haren esakeratik, etorkin apalenak gosea kentzen hasten ziren) aipatzen zitue-
nean, kontua seriotzat hartu behar zen; ez nuen tematu; bistatik alde eginik,
etxe ostean negarrari eman nion. Denbora aurrera zihoan. Alexek batzuetan
asteen birritan, inoiz hirutan eginarazten zidan ‘eragile’ lana, behin esan nion
arte:*
- *Alex, nik gehiago ez joat hori egin gura.*
- *Zergaitik ez, heuk be gozatu egiten dok eta?*
- *Ez joat gozetan. Higuina emoten jeustak.*
- *Hik baten bati zeozer esan deutsak! –neuri paparretik helduta.*
- *Nik ez jeutsaat inori ezer esan, baina gehiago ez joat egingo.*
- *Ondo jagok!*

Beste gabe apartatu ginen eta askapen totalaren pozak lantzean bide bazter batean saltoak eta garagararak eragiten zizkidan, urrats baten dohatasuna buelta okerragoaren erakarle izan ohi delako eskarmentu gabe oraindik. Alexekiko harreman sekretu eta intentsoari hartu nion ez dakit higuina ala beldurra hain zen handia, ezen aspaldi utzita nengoen neure gorputza ukitzeari, ustel nendila ere ardura ez izateraino. Alex, intentziorik onenez eta paziente-enez, hori ezin dut ukatu, zenbat eta gehiago saiatzen zen nire gorputzean eklosio txiki bat gertarazten, hainbat minberago eta inutilago aurkitzen nintzen. Pare bat aste lauki igaroak izango ziren eta, umeek daukaten erregenezazio ahalmena edo inkontzientzia babeslea bide, artean ezer izan ez balitz bezalako adiskidetasun freskoan nenbilen berriro Alexegaz. Garrorenekoek

bazuten borda bat gure etxeranzko mendi aldean, eta haraino, ardiren batzuk moldatu behar zituela-eta, lehenago ere behin baino maizago bezala, erdi bide batez lagundu nion. Borda polita zen benetan, halako bat gurean zergatik ez zegoen aitari beti ekiten ari zitzaionaren begientzat. Itxita zegoenean ere, sarrreran atarte modura zeukan aterpea nahikoa zen, nik haren inguruan bizitza paralelo bat antola nezan, su txikiak eta txitxiburduntziak barne, neure barkartasun faszinatuan. Sartu ginen eta, oholezko tabikeaz beste aldean, ardiek zapaldu gabeko ira-zorua seinalatuz, Alexek esan zuen:

– *Horixe dok geure zeregintxoak egiteko zoko aproposa. Sarritan ez joat aprobatu, baina egin dodanetan, uff!*

– *Esan neuan gehiago ez nebala egingo.*

– *Lelotu egin haz ala?*

– *Lelotu edo melotu, ez joat horretan jarraitu gura.*

– *Gaur bakarrik.*

– *Ez gaur, ez inoiz! Ulertzeko moduan esan deuat, eztok?*

– *Ba, neuk be ulertzeko moduan esango deuat. Edo egin edo ez dok hemendik urtengo!*

Mehatxua entzun nueneko, giza formako belztasun batek, hormen profil kebratuzko atearen bi alboetara eskuak gurutzean zabaldurik, kanpoko argitasunera bidea ixten zuen. *Apropos ekarri nok, eztok, txarri horrek?* Nire tonu gogorak, iraintzaileak, ez zuen besterik nahi amorru angustiatua estali baino, batetik ala bestetik zer gehiago zen bereizteko ahalmen gabe. Ira gainean eseri nintzen, belaun-beso-buru bat eginik, eternitate bati aurre egiteko jarreran eta erabakian. Atea giltzatu eta aldendu egin zen, tarteka *zer? oraindino be eze-tzean?* itauntzera sar-irteten zela. Gaua gainean zen eta nire beldurra, handituz baino gehiago, pentsakizun mota guztiekin katigatuz zihoan, errendizioaren hari puntak agertzen hasi arte. *Alboan jesarrita egotekotan bakarrik*, amore eman nuen noizbait, ilunetan ezer ez ikusteko itxaropenean. Alex sartu zen, atea giltzaz itxi zuen, alboan eseri zen. Gero etzan zen eta ez zen saiatu nire burua belaun artetik aterarazten. Haren urrumak eta gordinkeriak entzuten nituela, hurrengoa azkena izango zela banekien. Berak hain kutuna zuen kanalean eta hain exzitantea zitzaion eran, ur gainean luze, kaiman pozoitua tripaz gora bezala, birgeriarik kapritxosoenak egitea ez zitzaidan ba-

tere kostatu, asmoaren superioritate infinituak mekanizatzen baininduen. Zirri-robot perfektua izan nintzela uste dut. Lehorrean epileptikoa zena, kanalean parrastari gertatu zen. Arnasa lasaira itzuli zela iruditu zitzaidanean, konportatik hots egin nion: *Hi! Hau erraz jasotzeko moduan jagok – Oraintxe najoak*. Banekien okerreria dilubiano hura ireresistiblea izango zela Alexen gogo oraindik hesitu gabearentzat. Etorri zen, jaso zuen, jausi zen. Hots, bultz egin nion. Gainerakoa uraren inozentzia irensleak egin zuen, konportapetik bistaratu zen esku amesgaiztia barne.

– *Horixe da nik gura nebana* –hots egin du Martzelek, eserita gauden mahaitik sukalde erdira jaikiz–. *Noiz publikatuko dozu?*

– *Publikatu?*

– *Horixe ez al genduen berbatu?*

– *Historia hau ezin joat publikatu, Martzel!*

– *Abadetza kenduko leuskizuelako?*

– *Inork ez leuskidak ezer kenduko egin bako hobenagaitik. Ez neukakek, hik daukaan moduan, inongo lotsarik ez arrangura moralik, krimen derrigortu bat burutu izanagaitik.*

– *Derrigortua...*

– *Hik derrigorturik egin heuen, umea hintzelako. Eta, zorionez, heure burua hiltzerik otu ez jaalako.*

– *Horixe be pentsatu neban, baina norbere buruari bultz egitea gatxagoa da, antza, onerako zein txarrerako.*

– *Historia hau pozik publikatuko neukek, baina...*

– *Besterik ezean, panfleto klandestino moduan, orain modan dabilzenen antzera. Entzutea daukadanetik, zeu be ohituta egongo zara horrelakoetan.*

– *Lehengoan, hain zuzen, Leikeitioko kuartel aurrean alto emon jeustean. Sarjentoaren aurrera eroan nindueenean, entzun behar izan najoan:*

– *Zer? Berori be, sotana eranzkeran, propaganda ilegalez forraturik aurkitzen direnetarikoa al da?*

– *Ez, ene sarjento. Uniformea eranzkeran, ni be ez naz, zeure moduan, narrugorri bat besterik.*

– *Gorria ni? Ekardazue abadetxo honetaz daukagun ebangelio apokrifo guztia.*

- *Nork esango eban –dino Martzelek– abadeak atxilotzen hasiko zirenik!*
- *Horreek ez leuskioek Jainkoari be parkatuko, bere isiltasunetik urteten hasiko babiliz.*
- *Gure historia ez daukie propaganda ilegaltzat hartu beharrik.*
- *Klandestinoki zabalduz gero, bai. Beste zeozeren klabea dela pentsatuko leukiek. Horreentzat ulertzen ez dabene guztia dok ilegala, eta ezer ulertzeko obligazinorik ez daukienez, gaitasuna be joan egin jakek.*
- *Orduan, zelan publikatu geinke?*
- *Kasu honetan problema ez dok ez ni, ez sarjentoa, ez Erromako zubia. Anonimoen eta klandestinoen zabalduta be, Alexen izena egiazkoa dok, eta Etxano guztiak bajakik heu ez beste inor ez zela egon han, Alex ito zenean.*
- *Orduan neure izenean publikatuko dot.*
- *Ostera be? Zertarako biztu behar dok hilda dagoen historia bat, inongo errudunik ez aurkitzeko? Ala Alexen memoria zikindu gura dok, orain heriotza errukarri bat besterik gogoratzen ez dabenek krimen merezia izan ete zen pentsatzen ipiniz?*
- *Pertsekuzino honetatik zelan edo halan libratu beharra daukat. Bart bertan, amesgatx itzulkarian, betiko mehatxua entzun dot barrero esku baten ahotik: ‘Bahabil? Bahabil? Etorriko haz egunen batean!’*
- *Hara, Martzel! Nik ezin joat hire amesgatxaren barrutik berba egin. Saiatu nok alde guztietatik arrazoitzen eta hire barrua libratzen. Gehiago ezin joat egin. Eutso historia hau. Heurea dok eta egik heuk gura doana. Inoiz publikatzerik otuko bali txak, egidak aurretik eupada bat.*

Koadernotxo eskuz idatzia, errazionamenduko kartilaren tamainukoa, golkoan gorde zuen, bihotzaren beste aldean, hau ez baita dokumentu inportanteen konfidente segurua. Geroztik, jaioterrira joan naizenetan, maiz elkar ikusi dugu, beti norbaitzuen artean; nigaz bakarrean aurkitzea saihestu egiten duela uste dut, eta neu ere ez naiz gehiegi ahalegintzen. Solasaren une bare batean eta geu hiztun ez ginela, nire begirada zuzen baten zain egon ondoren, keinu txit diskretua eta mantendua egingo zidan, zeinari nik beste keinu berdin diskretu baina instanteko batez bihurtuko nion mezu ulertuaren konformitatea, hots, sekretuaren partaidetzak eta estrategiaren aldebitasunak hortxe jarraitzen dutela, hautsiak izateko posibilitate inoiz ez berankorraren aktualitatean. Kontrako nobedaderik ez zait iritsi. Etxanon ere Berrizko ezabapena gertatu

bada, Martzel sekretu osoagaz joan dela pentsatu behar dut; nire partaidetza zelakoak zertarako balio lezake, nori kontaturik geratu ez bada?

Literatura zen giza miseriari geratzen zitzaion azkenaurre aurreko balia-bidea. Azkena eta azkenaurrea ezagutzen genituen. Nik hegoekin hegatu nahi nuen, ez hegazkinean. Horretarako bazen lurra bera, airean ginderabiltzana. Unibertso guztia airean? Baina hegoekin, hegaztiak bakarrik. Euskal Literatura? Hagineko mina daukat. Ez zait interesatzen bere batezbestea arbuia-tzen dudan masara iristerik. Mundu guztia mongolitoa izan balitz, zorion askoz gehiago zegokeen. Eta, batez ere, gaizkia fabrikatzeko ahalmen guxtiago; hortik ere beste zorion bat, beraz. Halako puntura heldua nintzen, non urguiluak anbizioa ito zuen. Filosofia? Beste genero literario bat. Zer ulertezinari izena jartzeak ez du zera bera ulergarriago egiten, nahiz eta bide ematen duen, beste izen ulergarri batzuen gainean errodatu, ulertze-bidean goazen sentsazioa izateko. Abiapuntua ez da argituko, baina entretenigarri ona izan daiteke, baita dibertsioa ere; horrexek salbatu zuen filosofia. Ez zen gutxi, giza izate murriz hartan, dibertsioa ulerkuntza baino oinarritzakoago baitzen. Beraz, ez zen egia filosofiak ez zuenik ezertarako balio. Beranduegi konturatu naiz.

Mahai gainean olibak, esparragoak, york urdaiazpia, gazta eta menbrillua batera ikusi ditudanean (latako antxoak, urdaiazpi gordina eta zezina falta dira, osorik edana izateko irrikaz dagoen botila ardoari laguntzeko), ez daukat dudarik zoriz osatu uste nuen menu hau behinolako patata-tortilaren koipe-empagu batek hautatua izan dela, hain gertaera aspaldikoa oraindik ere nire galeak erabakitzeko gauza dela sentitzea atseginaren errakuntza ez bada. Oraindik irauten dit, tortilara joz, arrosesnea baztertu izanaren pozak, anaia baten eskarmentuagatik ez izatera, itsuan tematu izango nintzatekeena bera, pototik hara azukrea parrastan eginda. Arrozez eta esnez beteriko galdaila txikia laratzean eskegi izango nukeen, eta egosi beharrean, gainezka hasiko zatekeen. Lapiko-estalki bategaz, gainezkina arrapataka jaso izango nukeen, erdia gora, erdia su gainera; nik erremuskadak eta suak txirristadak egin ondoren, hau berriro bizitu ahala, laba zuriak sukalderraino eskapatu nahi izango zukeen. Gainezkatzen zenari aurrerik ezin harturik, galdailakada erdia

hustea otuko zitzaidakeen. Hala ere, gainezka jarraituko zukeen, txakurra-
ren pozerako eta lorrinaren apoteosirako, zeina menperatu ezinean, eragiteko
astirik edo akordurik ezak barruan geraturiko apurra errearaziko zukeen. Zu-
ritasuna beztu, sua itzungi. Orduantxe hasi izango nintzatekeen dudatzen,
arinki bazen ere, inoiz, pare bat kikarakada arrosez, familia osoarentzat arro-
zesnea egiten hauteman nituen eskuen izate mirarizkoaz. Ulertzen ez dudana
da nola bazter nezakeen orduan arrosesnearen aukera desiratua, anaiari han-
dik berrogei urtera entzungo nion esperientziaren eraginez. Iraganik ez exis-
titzeko arrazoi bat izan daiteke ezen, bertan, gertaeren ordenak ez duela
emaitzarik aldatzen, zera, aldi berean, bere existentziaren arrazoi borobila
izan daitekeen, etengabeko berrordenatzerik ez baitaiteke izan, direlako ele-
mentuak gabe.

Oliba freskoak hirunan janez (launan harrapatzen ezin dut ikasi), marka-
rik oneneko botila ardoa ireki eta basoerdiari klink egin diot, drink. Hasteko
ez zegoen gaizki. Ardoaren marka ere esan nezake, baina zertarako? Inor inon
ez badago, presentea amaitua da eta etorkizuna zalantzan dago; iragana ba-
karrik gelditzen da ziur. Sukaldea ia iluntasun osoan egon arren, izerdi arina
mugidarik txikienean zain dago, mardultzeko. Ke-kanpaiaren bonbila xumea
urrun dagoenez, kandela piztua mahai gainean ipini eta beste guztia itzungi
dut. Kanpoan txoriak lurjorik eta euliak, berun bihurturik, jausten irudika-
tzen ditudala, mozkor erdirako (osoak ez du ezertarako balio) baldintza an-
biental eta sentimental guztiak pilatzen ari zaizkidala uste dut. Irratiak
probatu ditut; gehienek musikan edo iragarki amaigabeetan dihardute. Arrate
irradiak bakarrik darrai normal hizketan, iazko grabazioekin aktualitatea gain-
ditzeko dohaina bide. Kuriositatez korritu dut sintonien banda osoa, azke-
nean, gehienetan bezala, musika-disko klasiko samar batean pausatzeko,
gustatzen zaidalako bainoago ez nauelako agreditzen, ez bazkaririk nahasten,
eguneko hitzek edo etziko kantek bezala. Orain betikoa: neuk kantatzekotan,
beti elkar-gainka datozen dozena bat doinu horietariko zeinetatik hasiko
naiz? Ehundaka ibili ohi zaizkit buruan, autoan hara-hona, tresnaren bategaz
hartan-horretan, sega, aitzur, erratz; edo distrakzio mentalean, soilki. Kantu-
gogoak benetan jotzen nauenean, ostera, neuk ez baitut gogoa hautatzen, pre-
sarik gabeko dutxan, esaterako, edo sukaldean paseatzen, etxean ez inguruan

inor ez dagoela, orduan ez dago pentsatu beharrik; hutsik gabe, dozena horretako baten batek saltatuko du, marraskiloari beti adar berak luzatzen zaizkion bezala, ez dakit beti ordena jakinean, txandatuan ala aleatorioan. Nik uste dut... beno, gero ehizatuko dut marraskilo bat eta obserbatuko dut astiro-astiro (nola, bestela?), bareekiko portaera konparatiboan (astiroago, beraz). Ondorioek baliteke inor txunditzeko aukerarik ez ekartzea, baina ondo etorririko zait gastropodoen tratura ohitzea, herrestari mukizuak jan beharrean gerta banendi, ihes egin ez diezadaten.

Denak ere (doinuak) gaztetan maitatuak izanik (seminarioan edo kartzelan, egoera desafiatzeko indarra banuela edo behar nuela aldarrikatzeke, segurrenik), hainbeste aldiz kantatzeak finkatu izango zituen betiko nire baitan, ia organismoaren beraren lohadar bilakatzeraino. Ez nuke, noski, reklusio haietako esperientziarik errepikatu gura, hala dela konprobatzearen, baina eskertuko nuke natura, txoriak, piztiak imitatzea hain maite zuen musikak marraskiloaren ibilera lubrikoa adieraz lezan, oskol bedeinkatua ezkututzen den isilune biziosoak barne. Dozena doinu beraren barruan ere, gatazka sortzen da zein lehenen, bigarren, hirugarren... eta azken, hori ere izan behar baitu baten batek, nahiz eta nire buruan eta sentieran denak lehenen egon, gogoarentzat daitekeena baita denak onenak eta aldi berean bata baino bestea hobeak izatea; baina, aparatu dorpeki lineal honetan, ezin dut bat ipini, beste hamaikak baztertuak edo behintzat posposatuak ez izateko moduan. Kontua ez da hamabi aparatu edukitzea, denak batera berezituak jasotzeko ahalmena izanik ere, lehentasun indibiduala multzotasunean arruntuko babilizateke. Azkenean, dozenan zein mozenan, baten batek ezin azken izatetik libratu, zeina alferrik kontsolatu nahi izango duzun argudiatuz ezen, mila eta bateko zerrendan (oso selektoa, musikaren historia osoa jomez gero), bederatzihun eta lauogeita bederlatzi lituzkeela atzetik. Utz ezazu sufri dezan. Azkenak aurrekoei begiratzen die beti, ez atzekoei. Ala ez? Bakarrik gelditu naizenean, erlazio horiek ere ez dute balio.

Arratsalde osoa bazkaltzen egiteko gauza banintz, ez legoke hainbesteko problemarik denak ilaran pasatzeko, ordenaren balorapenak hautazkoak direla baliatuz, printzipaltasunaren posizioak kontrajarriak izateraino: hilku-

txa aurrenen bezala, ezkonberriak azken sartu ohi dira. Gehienez, ostera, disko bakarraren denborara mugatzen baita otordua (jan, jaso, kafea, zigarratxo), egunero neure sentimenduekin teman ekin behar izaten diot. Higuin dituzunak, denak pakete unitarioan izorra daitezen (akaba daitezen!) desiratzea hain erraza izanik, maite dituzunen artean hautatu beharra maitasunaren beraren aurkako agresio iruditzen zaizu. Nire bazkari hasierek ez zeukaten maite-liskar bihurtzeko arriskurik, jana mahaian baldin bazen. Baidira maitasunik lehenenen aurretiko gauzak, pare bat arrautza txorizo banagaz, esaterako; edo komunaldi oparo bat. Bakarrik gelditu naizenez gero, sentimenduak lasai adieraz ditzaket. Gaur hautu erraza daukat, Verdiren *Nabucco* disko-jogailuan baitago, egunotan etengabe entzun dudana, lagun batek oparitu zidanetik, soinu-probak egitean, beti *Va pensiero* kantatzen ei nuelako. Koru hori seminarioko Schola Cantorum-etik josita geratu zitzaizkidan bakanetarikoa da, italierazko hitzek zer esan nahi zuten jakiteko ardurarik txikiarik gabe jarraitu dudana, harik eta, obra osoa eskuratzean, oraintxe ohartu arte *Nabucco* delakoa gure Nabukodonosor lagunzahar hura zela, eta koruak testamendu zaharreko israeldarrak direla. *Arpa d' or dei fatidici vati...* Hitzak ulertzeak oilarkerian apuztu nau, baina doinuaren edertasun pertzepzioari ez dio eragin.

Une hauxe aurreikusi izango zuen musikari parmatarak, non, oliba eta esparrago fresko-freskoen gainetik, urdaiazpi egosiz eta gordinez nahikoturik, ogi xerra luzearen gainean gazta eta menbrilloa, lodi-lodi ebakia, ahoa betean jaten ari naizela, botila ardo amai-hurrenari zirri-keinuak egiten dizkiodan. Burlatzen naiz erdia bakarrik geratzen zitzaiolako penatzea ala oraindik erdiraino zeukalako alaitzea zegokion ez zekienaz, ez bainago ahaztua botila honen apalean berau bezain kolega alegreak gelditu direla, joate orokorren aurka, *gu hemen gajagozak* aldarrikatuz leialki. Gazta eta menbrilloan hasterako, ia topera neukan Verdiren *Nabucco* kendu egin dut, aho-zarata eta guzti jatea maite baitut, zarata guztiagaz alegia; bakarrean bakarrik egin nezakeena berau, gizalegean ezarria baitzen jate zarataduna ineducatua zela. 'Aurrekoarekiko errespetu falta' ere bai, eskubide sekundarioetan aditua den norbaitegaz aurkitu bazara, nahiz eta gero, araua bete ahal izateko, ahoa tximino-uzkia bezala modulatu behar. Hori ere bakarrean, tira, zeren aurrez

aurre, zenbat eta eleganteago jantzita, hainbat eta tximino-uzkiagoak jaten ikusteak ez dirudi atseginago izan behar lukeenik. Jateak eta bere antipodak egintza korrelatiboak izan behar badute, ineducatuok ez gabiltza korrekzio tik urrun. Elikatzen edo gorputzaren premia zerri bat betetzen ari naizenean, ez dit ardura arrapaladan, zapore gabe zein distrahiturik nabilen. Jatera eseri naizenean, ostera, hots, astia, gustuko jakia eta markako botila lagun ditudanean, ez iezadazue gozamenaren musika naturala ken. Ikusi al duzue naturan ezer inportanterik zarata gabe gertatzen, sortzea bera barne? Bekaitz dut txakurraren jan-edakera, inor hartaz molestutzen ez dena. Eskertzen dut gizalegeak, oraingoz behintzat, konpartitua izan dadin asmo aberasgarririk ez duela dirudien 'bakartokiak' zarataren plazerra garantiza diezadan, zeinaren tamaina kalkula daitekeen, entzuna ez izateko arduraz ari zarenean, isilgai-luagaz jardun beharrak ematen dizun sufrimendutik, batez ere biolento samar badator. *Ez nok, ba, beren beregi ibili haize guztiok irunsten!* Laster ikasiko duzu bonbaren tirakadekin sinkronizatzen, nahiz eta horrek ere ez dizun garantizatzen hurrengoak, alua bada, arauzkoa alegia, pentsa ez dezan: *Zerrien atzetik ibiltzeak zer dakarren!* Edo, sanopotroa bada, hots egin ez dezan: *Ño! Honelakoxe mokotsa nork egin leikeen!*

Kartzelan ere, aurrea libre eta metro bat altuko tabikeak alboetara, makurtzen ikasi behar izan genuenean, apalmendua ez zen hainbeste tripapea hazkatzen diharduen saiaren jarrerara zelebren hartan ikus zintzaten iragaile guztiek, berdin zuzendari zein kaperau (salbagarri ere gerta zitekeen, susmoren batetik libratzeko maniobratu behar zenean, egoera hartan kartzeleroak ez baitziren eskurik sartzera dignatzen, hil-biziko emergentzia ez bazen, ihesa, esaterako; hilzoria ez zen emergentzietan sartzen), baizik entzun beharra: *Hori dok hori turboa daukiena basko zerririk!* Pozik, horrelako puntada irain-garriren bat jasotzen zenean, orduan norberak ere araberrako ihardespentetan azaskatzako aitzakia baitzeukan, *eta zuek, Santiagoren ezpata-punta baino atze-estuagook!*, eta abar. Etxeko bakartokira itzulita, jakerako fintasuna aplikatze-kotan, gorputzari bidean lehertzea kasik gehiago interesatuko litzaioke, baina, zorionez, ez dirudi globalizazioa horrantz doanik, bakoitzak bere komuna edukitzera baizik, telebista eta guztikoa, nahiz eta nik neuk, unerik gorenean, ahaleginaren kolorean beherantz sakaka bezala lerratzen den malkoak

gehiago exzita nazan, ispilu bat alazo letorkeenean, oraintxe musikagaz egin dudana egingo nukeen, telebista itzali eta entzun. *Etxeko-andre mondrongo, hik ez don asko emongo. Etxeko-gizon txorongo, ez haz hor luze egongo.* Jateari dago-kion ekimen pertsonaletik libre, soil-soilik gorputza entregatu, berez-berez gertatzen den fenomeno multiplera.

Arestian aipatu seminarioko Schola hartatixe datorkit Häendelen *Alleluia* ere, zeina bezalako pieza bat egin zuenak ez baitakit zertarako segi zezakeen gero, nahitaez txarragoak izan behar zutenak egiten. Esplikazio bakarra dateke artista sortzeko bakarrik dela gai, ez sortuaz ohartzeko, zerak bakarrik esplika baitezake, halaber, zergatik sortzen den hainbeste gauza txar, ez bada hurrengo ahalegina behartzeko, beharbada jeniala izango dena. Nik neuk *Alleluia* hura ohartuki sortu izan banu, aurrerantzean hamarratzen arrantzari ekin izango niokeen, ez honen zopagaz bazterrak higuintzearren, baizik, hainbeste hatz eta hain itsaskorrek dauzkan piztia zulotik ateratzean, itsasoari potroak erauzten dizkiodala sentitzearren.

Häendelen musika unibertsoa espantsio konfiatua iruditu zait beti. Doi-nua adarkatzen da, adarrak foliatzen; ahotsetik ahotsera entregatzen zaitu, tresnatik tresnara jauzi etengabeaen zoaz, hankak trenbideko errailetan banaturik bezala. Edo Parisko geltokian (inoiz egon ez naizen bat aipatzeagatik) batzen ala banatzen ari den ez dakizun erraileria kontaezinen gainean lasterkatuko zinatekeen bezala. Azkenean, errailetatik goraturik, airean sentitzen zara, inprobisatzen alegia; esan nahi baita, Häendeli ihes egin diozula, hots, unibertsoatik at zaudela, zeinari itzuli eta diotsazun: *Hartu eik hik be popatik, dena popa besterik ez den bolarentzat gatxa be ez dok eta.* Orain unibertsoa planoan da. Nigatik oboidea edo artazia izatea dauka. Galileo hil zen egunean Newton jaio izatetik atera daitekeen ondorio zientifiko bakarra da Aristotelesezag ere ez dagoela guztiz fidatzerik, zeren emakumeak gizonak baino hagin gutxiago daukala uste bazuen, bi aldiz ezkondua izanik, pentsa gai metafisikoetan zer ikusiko zuen. *Dominus exercituum regnat. Gaur umoreko dirudik, Amuriza!*, entzuten diot patio gaineko barandilatik begira egon bide den kartzeleroari. *Banago, bai, ihesean noa eta – Ihesean? Ihes?, oihu egin du, hitz madarikatuak aztoraturik. Unibertsoatik ihesean! – Ah! Hortik heuk gura doana, he-*

mendik ez den bitartean – Eta zure ama put(re)ari kaka egingo baneutso, hemendik eskapatzerik ez den bitartean?, erasotzen diot parentesi gabeko pentsamenduan, ez baitaukat umorerik beste hilabeteko ziegara ‘jaisteko’. Sinonimo kartzelarioak: arrastatu, jaurti, bota, amildu, ehortzi, usteldu... Ez, ez. Hil ez! Sufritzen jarraitu behar da.

Sinonimo seminariotarrak: apaldu, makurtu, berbaitaratu, hilduratu, gurutziltzatu, ezereztu, haustu, hustu, biluztu... (*Et! Hori ez!!*), gogo-biluztu... (*Ah!*), transbestitu... (*Et! Trans... zer?*), transbestetu (*Ah!*), gehi sinonimo kartzelario guztiak. Egun hartan, seminarioaz baino gehiago pentsatzen nuen, hamabost egun lehenago, muna hartantxe eserita egon zen neskato neu baino urtebete gazteagoaz. Zornotzan bizi izanik, maiz etortzen zen auzo bateko izebarenera eta handik gurera, inguruan ia bakarra nintzen jolaslagun bila. Etortzen zen, baina orain, oporretan neroan hil osoan, behin bakarrik agertu zen, eta berriz ager zedin itxaropenik ez neukan. Niri neskekin tratatzea (‘arrebekin errespetuz, lehengusinekin kontuz’ zioen lemak) debekatu zidaten bezala (‘debekatu’ ere ez zen zehazki, ‘Jainkoa hautatzen lagundu’ baizik), Helenari ere, hala baitzuen izena, esan izango zioten ez hurreratzeko, ahal zela, apaizgaiengana; zergatik galdetu bazuen, ‘harexegaitik’ erantzun izango zioten. *Zer da haxe?* ekiteko inozentzian jausi bazen, zehaztu izango zioten: *Haxe don haxe, eta esana esana don! Gainera, abadekien gerizak suberte txarra ekarri leiken*. Beharbada, era astoagoan esan izango zioten: *Horreek, komentuan sartueran, irendu egiten jabezan. Ez al don ikusi Torreburukoak zelako aurpegi kandelarioa ekarri dauen?* Segurrenik, Helenak ez zuen ezer galdetuko, eta ez zioten ezer abertituko, portaera sozialeko arauak, harreman mistoen moralitatera hurbiltzen zirenean, berez-berez transmititzen baitziren, inork azalduak ez aldarrikatuak izateko premia gabe. Izurri inbisible horiek bezala, hain isil eta bizkor inguratzen gaituztenak, ezen gaeuz eta lo geundela sartu izanaz beste aringarririk ezin baitiegu aurkitu.

Oraindik ez nintzen izurri-eroale izatearen hain ohartun, eta Helena agerzitekeelako ilusioak Epaltze izeneko auzune ez hain hurbil, bai bistapeko etxe batera ninderaman, non neure eskola sasoiko ‘neskalaguna’ irudikatzen nuen, mandioko atze-leihotik, pare bat urte aurrerago burutua genuen isil-ezkontza

berritu gurako seinaleak eginez. Nire frailetzatiko lehen itzulerako nobedade nagusia (lehen urtea fraileetan egin nuen) horixe izan zen: hura eta auzune bereko beste neskato bat, bi monagilokideren laguntxo izanak, jada ez zeuden herrian. Ez zeuden lehen Torreburutik hain jorantsu begiratzen nuen Epaltzen. Haurtzaroa aitita-amamen etxeetan egina zuten, nik bertakoak zirela uste izateraino, eta hara non, fraileetatik bueltan, desagertuak ziren betiko, orduan sekula iristeko buruerarik ez neukan Arratiako herriren batera. Nire salbamen infaliblea pentsaketa zen. Neure ameskizun apur bat goibel, oraindik gutziz jipoitu gabeetan, noizbehinka Jainkoari eta Ama Birjina Karmengoari niotsen: *Zuen lagun izateko, beste guztiekin hasarratzea ez da derrigorra izango, ezta?* Denbora ezitan zihuan nire konposizio amaigabeki politetan, Larrako komentutik arratsaldeko lauretako kanpaiak entzun arte. *Ene, Trotski! Laster ama etorri behar jakuk eta gu oraindino ezertan hasi barik.* Ezer hori ez zen gauza handia, baina bai zorrotz agindua, ez baitzen batere nire gogokoa, egurketa batez ere, zeinari gero aizkoraz txikitze luze eta gogaikarria gehitu behar zitzaion. *Ni natorrenerako, pare bat bizkarkada egur ekarririk eta txikiturik eduki* –agindu zuen goizean amak–. *Egun osoan ez dok egin ezinik izango, eztok?*

Gaitzien nuena pinu-egur zikinaren zaskara pikantea kokotean behera sartzea zen. Tarteka, zama lurrean pausatu eta, burua belaun arteraino sarturik, garbitzen saiatu arren, azkura zabaltzea besterik ez nuen lortzen. Inoiz, ernegaturik, soineko guztiak erantzi eta itzuleztara astinduko nituen, ermitaukume larrugorriak dama bat existentziatik uxatu guran bezala; txakurrari grazia egiten zion, nonbait, hiru-lau metrotatik zaunka eragabeak egiten baitzituen. *Gura dok ala?* esanez hurreratuko nintzaion, pitilinari eraginka; usain egiteko konfiantza hartzen zuenean, muturrera txiza egingo nion, zerak bortizki inarrosten zion burua, ez hainbeste, erretzen ziolako, eskarmentaturik egoteko sobera motibo zeukan intzitzazioan berriro jausi izanaren erneguagatik baizik. Amak bi bizkarkada agindu zidana bikoizteko joranean nenbilen, ekintza bikain baten ederra irabazi guran. *Azken batez, dena be ez dok kurutzea kalbariora eroatea,* pentsatzen nuen lanak mentalki burutzeko neukan erraztasunean.

Bero egiten zuen. Ekarrri ez ezik, egunerakoak txikitu behar zirenez gero, izerditsu niharduen, zaskara itsaskorrek kokotetik eta belarri osteetatik ezin

astinduz; iratzaz hegalduriko bidezidorrean atzera-aurrera bera, aurretik hatorka, atzetik hoaka animatuz bezala, ia pausoro pasatzen ninduen txakur txilibrin huraxe bezalakoa ez jaio izanaren erreminez, batetik, haren zorte oharkabearen penaz, bestetik. Etxetik ehun eta zenbait metrora, apur bat aldasgoran zegoen basotik, laugarren kargarako, ez neukan adorerik, txakurrari *atzera-aurrera baxotxean abar bat eroango baheu!* destainatzeko. Ezta *bota behar nok!* auhen laburra egiteko ere, zidor berez estuaren unada estuagoetan nire belaun etsi-hurrenak jotzen pasatzen zenean. Ondoegi lotu gabeko karga bazterretan trabatzenago eta zabaltzenago eta alderantziz zihoan, bertan behera jaregiten nion arte, egur-sorta berriro ordenatu beharraren amorruan atsen egiteko aitzakia ezkutatuz. Berezioki trebea nintzen aitzakiak asko eta txit arrazoizkoak aurkitzen, aurreratzeke moduen alderantziz, bauruhauste insolubleraino: *Zergaitik nok honen argia norabide baterantz, eta honen motza besterantz?* Garraioa noizbait amaiturik, ama etorri aurretik dena eginda eduki guran, txikitu ere heriosuhar egingo nituen, *aititaren burua balitz legez!* Erlazio bitxia eta krudel samarra berau, beste esaera honena, segurrenik: *Jo, jo, aititaren burua be ez dok eta!* Nik orduan 'Jainkoaren burua' errazago jo izango nukeen, bi aititak hilak baintuen, baina grazia egiten zidan (indarra eman ere bai) egur lodiak aititaren burua bailiran aizkoratzeak, *gaur amamak larri behar jok!* pentsatuz. Bi karga txikituak harraska ondoko zokoan edo 'bazarrean' pilotzea amaitu nuenean, bere buruaren tamainako iruditzen zaion kaka-pilo egin berriari begiratzen dion haurra bezain ahalguztidun sentitu nintzen, ez egindako lanagatik, handiagoak askotan egina bainintzen, kakalanetik onez libratua nintzelako baizik. Beharbada horrexegatik, edertasun bat nabari nuen barruan, etxea eta etxe inguruak atsegin gailenez ikuskarazi zizkidana, sor-kuntza gerta berria bailitzan, nondik ateratzen den kreazioa, hondamena bezala, ez dela ekintza amaitua, agerpen errepikatua baizik. Jainkoa horrelakoxe espejismoren batek jo izan bide zuen.

Txakurraren bat-bateko poz aldikadak amaren etorrera hurbila ziragarren. Hark bere astoagaz etorri behar zuen biderantz abiatuz eta itzuliz, handik zaunka autoritarioak eta hemendik zinkulin lausengariak eginez, berari jarraiarazi nahi zidan. Nik, txakurrak ondo zekien bezala, normalean egin izango nukeenaz eta egina nuenaz bestera, etxe aurreko jarlekuan esertzea

erabaki nuen, lanegun handi baten ondorengo atsedenean bezala aurki nintzan. Txakurrari niganako leialtasunak baino gehiago tiratu zion etxeoan-dreaganakoak, eta tximistan aldendu zen Urdinbide izeneko zelairaino, etxetik bostehun bat metrora, nontsu etorri behar zuen amak, animalia-erazamenari erantzungo ziola: *Etxea ondo zaindu dozue? Okerreriarik ez dozue egin? Guzurrrik ez esan gero, badakik igarriko dodana eta. Tirok, itzidak aurrera egiten, etxe bete zeregin jaukaat eta. Hik denak eginda edukiko dozak! Arre! Hiri be oraintxe ez janan askorik falta. Ugazaba txikiak be denak egin jozak?* Berbaroa entzuten hasia nintzen neure jarlektatik, baina ez nuen zirkinik egingo, ezta etxe kantotik, astoa aurretik eta ama atzetik, atarira agertu zirenean ere, entseiatu beharrik ez neukan ezaxolan eta *bazatoz?* soil baten harreran, gorespen inbertsoki desiratuaren esperoa gordez.

Astoak ez zeukan lotu beharrik geldi egoteko; bazekien bere nekearen motiboa deskargatzear zela. *Egurrak txikitzeke astirik ez dok izan?* –galdetu zuen amak, asto-otzarak husten hasita, atariko horma kontrako bi egur-kargei erreparatu zienean. *Etxera ailegatu baino ez eta hasi gara kontu-hartzaile?* –hots egin nuen iraindu plantan, motiboa azaltzera makurtu gabe. *Tirok, eutso platano bat, honezkero txokolateak alde egingo joan eta. Nire indiferentziaren teatroa ez zen iristen begiak bakarrean bildu zituen beilegitasun luzanga kurbo samar hartara eskuak zapla ez eskapatzeraino. Zenbait pakete eta jenero besartean zeramala sukaldean sartu zenean, hitz karanak, zain egonagatik nire gorputza gutxiago dardaratu ez zutenak, entzun nituen kanpotik, bazterra egur txikituz beterik aurkitu zuenean:*

- *Joño! Baten bat fin ibili dok hemen. Etxetik sarritxoago alde egin beharko joat.*
- *Zer marmar darabilzu?* –galdetu nion astora itzuli zenean, sobra ere argi ulertu nuena beste bertsio batean entzun guran.
- *Egurrak polito ipini dozak, eh!*
- *Biharkoak be hortxe dagoz mantso-mantso horma kontran.*
- *Bai gero! Laster abanikua erosi eta kerixapean egotea besterik ez jaukaat hemen. Beste platano bat gura dok?*
- *Lartxo ez da izango?*
- *Jaik, askari ordua be badok eta.*

- *Hmm!*
- *Ganaduak ondo gobernatu dozak?*
- *Murrusarik ez dabe egin behintzat.*
- *Txarria be bai?*
- *Mazuagaz buruan jota baino isilago dago.*
- *Ekarriok artaburu bat astoari, honek be zeozer merezi jok eta.*
- *Oraindino behinena falta da.*
- *Behinena?*
- *Oiloa ahaztuta al daukazu?*
- *Zer oilo?*
- *Habia topatu deusadana.*
- *Oilo nabarra? Habiakada edukiko joan.*
- *Sei arrautza.*
- *Bakarrik?*
- *Dozena erdi! Inoiz plazara be joan izan zara horrenbestegaz.*
- *Egunero ez jok errun orduan.*
- *Azeriak jango eutsazen.*
- *Azeriak jatekotan, denak jango joazen.*
- *Sugeak, beharbada.*
- *Sugeak be modu askotakoak jabilzak eta.*

Gorputzean dardaratxoa sentitu nuen, azken hitzok susmoren bat iradokitzen ote zuten, baina gehiago izan zela uste dut praktikan eskapa zekiokena domeinu teorikoan abarkatzeko joera, neurri bateraino, ahalmen dominatzailea ere bazuena, inoiz ez baikenuen zehatz jakiten amak noraino zekizkien gure gauzak. Argi zegoen teknika hark, malezia gorpuztu gabeko adinean, igartzeko ez bazen, erasotzeko balio zuela, nahiz eta neu ere, komentuko desbabes edo autobabes nahitaezkoan urtebete eginda, igartzen hasita nengoen sare zabalegitik konkrezioaren arrain txikiak aise pasatzen zirela. Horren ziurtasun osora heldu nintzen, neure sei arrautzen (aurkitutako hamarretatik geratuen) zapikada ireki nuenean, amak esan baitzuen: *Portatu haz!* Afaltzeko, arrautzatxo bat prijituko deuat – Ez da behar – albo egin nuen, amaren inozentziari pena harturik–. *Ni konforme nago, patata prijitu batzuk janda – Batzuk? Kontsolatuko haut gaur!* Hark bazekien niri patata frijituak nahikoa agin-

ztea edozein lan protesta barik eragiteko modurik efektiboena zela, nahiz eta urriaroan maizegi agintzerik ez egon, are gutxiago arrautza eta guzti.

Helenaren hamabost egun aurreragoko agerpenaren gomutak (edo burutik kendu ezinak) pare bat urte geroagoko zoriona aurreratu dit, non maitasunak istorio baten gorputza hartuko zuen, fantasiaren halako legez ezen, errealitateak ukitzen ez dion bitartean, denborak edertasuna handitzen baitu, aireak sagar erdibitua koloratzen bezalatsu. Nago nire amodio potentzialek, egiazkoak bezain apasionatuek eta askoz anizkunagoek, maitegaiari berari gutxien bezala (hutsa, izatez, nigana zantzurik iristen ez zeno), behiei eragin zietela gehien, abantailarako, hain zuzen, nire balizko zoriona, izate atmosferikotik inoiz lurreratu ez zena, oso era materialean baliatu baitzuten, eurek ere garaiko urritasun kintzailearen mugetan, noski. Eguneroko larrealdi aldakor eta errutinazkoa (terminoen kontraesanik gabe, aldaketen multzoa barruti haratezina baitzen) osatzen zuten sei aukeretarik (hego etxondoa, ipar etxondoa, Urdinbide aldea, Handiko basoa, Esturo basoak, Etxano basoak) lehenengoa zuten maiteen; huraxe harrapatzen zuten maizen, nire ditxosozko amodioei bera komeni zitzaielako gehien. *Gaur be behiak etxe azpira?*, haserre-tuko zen ama, bai baitzekien, nire arreta ezin-iraunkorrari esker, tamainak aparte, sugandilak bezain bizkor mugitzen ziren behi antsiosek (goseti ere esan nezake, orain ama hila denez gero) soroetan sarraldi gozatsuak egingo zituztena. Baina nire amodio-ilusioak alde hartatixe etorri behar zuen, baldin bazetorren. Eskerrak amak hori ez zuen imaginatzen, bere kautan harrogarri izango zitzaiola ziur esango nukeen nire arrakasta-gaitasunaren baino bel-durrago izango baitzatekeen, nire distrakzio amorosoetan, behiek artatzen egin zitzaketan triskantzen. Mendi hartan maitasunak ez zuen oraindik artoak adina ematen, gurean ere, nobia baten amarenean bezala, etxean behar zena ekartzeko moduko astotxo bat egon arren.

Behiak etxe azpian larratzeko nire seta amodioa handik agertzeko ilusioari zegokion, eta noiznahi ager zitekeelako arrazoia ez zen, aipatu auzora bisitan etorritako neska bat behin handixek agertu zela baizik. Udako oporraldi guztian, beste behin agertuko zen, baina itxaropenak beso luzeak dauzkanez, etorriko zen hurrengo urtea, non beste agerpen beti posible batek uda bakar-

tia transfiguratu ahalko zuen. Ziurra zena zen, behi-zaintza alde hartatiko bideaz besteranzko basoetara baneraman, neskaren etorrera posiblea galdu egingo nuela, samin erantsiaren arriskuz ezen bueltan irentsi beharko bainuen ez zuela ni itzuli arte itxaroteko interesik izan. Basora bila etor zekidan erromantizismoa ipuin mailan ere ez zegoen irudikatzerik. Baina ni ipuina ez nintzenez, suposamen huraxe modelatzen emango nuen arratsaldea, baso urrunetan zehar, txakurraren ulermen osoz eta txorien zoriontze koralez, haren kasuan, lantzean txokolate punta baten eta, hauenean, ogi birrin batzuen truke. Behiak bakarrik zebiltzan gure konposiziotik at, pinupeko iratze-tan krokodiloa uretan baino artosoago nabigatuz, soro edo belardiren batera nondik sartuko, harik eta, bueltan, Etxanosoloko erromara gainditzen saiatzen ziren arte, handik etorria izan zitekeen neskari –pentsarazten nien neure burutik– bisita edo intentzioa itzuli guran.

Etixerakoan, *honeek behiok ez dakit zer ikusten daben Etxanosolon* –kexatu nintzaion amari ernegu itxuran, ea etxe izenaren asoziazioak aiparazten zuen bestela ematerik bururatuko ez zitzaion berri pozgarria, behin, benetako deskuido z duza gabe, egin zuenez: *Etxanosoloko iloba bisitan izan joagu* – *Zein iloba?* – galdetu nuen ergel plantan, eta ergelki. – *Bakarraz besterik ezagutzen dok ala?* Ez zen premia zko izan nik amari *ez al dau nitaz galdetu?* edo *hurrengo noiz etorriko dela esan dau?* ekitea, horrexen gogoia intuitu bide baitzuen nire burumakurkeran, erantsi zuenean: *Gautu aurretik jaitsi behar e bala-eta joan dok.* Amak huskeria prezindible gisan jaregin zion azalpen horrek nire eraikuntza fantastikoa baietsi zuela esan beharrik ez dago, aski baitzen ez deuseztea. biharamunean Etxanosolotik pasatzeko aitzakia aurki nezan. Auzo eta ahaide izan arren, arrazoi batek aurretik joan behar zuen beti, susmo gaiztorik eragin ez zedin. Esaterako: *Gure behi adar-makoa ikusi dozue?* (*Ez! Hori ezin joat galdetu, hareen soloetako kalteen eta beharbada euren etxeo animaliek egindakoen errezelo guztiak gure behi makarren bizkarrera jausi ez daitezen, halakoak dozak, ba, eurak!*). *Badaezpada, ez zeuntsien zeuena ez den oilaloka bati hemendik erreparatuko, ezta?* Arrazoi hori ere ezin nuen sinesgarriro jaulki, zorotzat edo zoroen mezularitzat har nintzaten arrisku gabe, ez oilaloka bat, izenak berak sinetsaraziko lukeenez, hura baino bide galduagoak egiteko gauza ez zelako, baizik ezinezkoa zelako haraino iristea, txakur edo piztiaren batek harrapatu gabe.

Habil gero, abade zoro batek, maiseozko pekatuagaitik, oiloa bidean lumatuz ekartzeko agindurik, hegaztia entregatzea izango zelakoan, itzuli eta luma hareek guztiak batuz etortzeko penitentzia jaso ebanaren moduan.

Banekien zer egin: labanagaz hainbeste zain alferrekotatik txiki bat ebaki, oso haurra nintzela, handikerietan hastearren, hatz erakuslea ia mozturik, etxe hartantxe atenditu nindutenean bezala, etxerako beldur bainintzen, segari ez ukitzeko hainbeste aginduren gainetik, okerkerian ibili ondoren. Umeen inozentzia esan ohi da, baina areago zen okerraren eta okerkeriaren arteko larritasun konparatiboa neurtzeko ezgaitasuna. Hatz bat mozteko esperimentziarik ez bainuen sekula izan, egintza horren balorapena gurasoen buruan ez nuen kalkulatzeko. Kontua da ezen beheko errekan karramarro harrapatzen zauritu nintzela esatea pentsatu nuela, eta beldur nintzela etxera aurretik odolustuko ez ote nintzen. Banekien mendikume bati hori sinestea ez zela erraza, baina odola ikusteak eragin zezakeen aprentsioa erreazio ez susmagarrien artean sar zitekeen. Etxe hartarantz hurreratu ahala, seminarioan sentimenduen deskonposatze mistikoan landutako introspektzioari esker, argi agertu zitzaidan nire iguripen hunkibera bitan banatzen zela: batetik, neskatoren ikusguran, bestetik, etxe hartan egiten zen marmeladan; beronek gehiago tiratzen ez ote zidan susmoak eragindako irain-sentipena garbitzerako, kateko txakur intratablearen zaunketara irtena zen Leari, neskatoren izebari, ebakiaren kasua esplikatzen ari nintzen. Etxe hartan gurean ez bezalako bendak zeuden, bat batez ere, efektiboki baino gehiago, nire begi ez dakit mesfidatian ala alderantziz, txundigarriro itsasten zen hura, gero seminarioan esparadrapoa deituko ziotena. Seminariotik oporretan joan nintzenekoa kontatzen ari naizen hartan, banekien, noski, esparadrapoa zena, baina, jakinaren azpian, izenik ez nekien lehenagoko aldiko dardaratxo hura bera sentitzen nuen, beharbada engainuan ari nintzelako kontzientziaren ondorioz. Eskerak odol-jarioa egiazkoa zen, zain garrantzitsuren bat izan ez ote zen alarmaraino. Engainuaren damurik igar ez zekidan egin behar nuen, arantzeko koroiak bekokian behera odolduriko begiak, gurutzeari eusteagatik, garbitu ezin zituen Jesukristok (magnitudo eta intentzio ezberdinak aparte) azkene-raino jarraitu zuen bezala, *Aita!, ahal balitz, bihoa kaliza hau nigandik entzutea zegokionak ez zuelako beste alternatibarik aurkitzeko modurik edo astirik*

izan; baldin, semea ere bera bezain jainkozko zela jakinik, ahalguztiari ezezagun zaion askatasuna utzi nahi izan ez bazion. Jakina da askatasunak gehiengan zailenera jotzen duela, ezinezkoa barne. Alderantzizkoari zehatzago da, koldarkeria gordinegia ez denean, prudentzia deitzea; edo egoismo biologikoaren beste edozein goitizen.

Odol gorria daukak gero!, hots egin zuen emakumeak bendatzean, zer anormala bailitzango tonuan; horrek kezka handitu zidan (*baltzek odol zuria ete jautkiek?*), baina ez pentsaturik nekarrena nondibait ez aipatzeko adina. *Atzo bisita izan ei zendueen*. Senak ziostan konstatazioa eraginkorrago izango zela galdera baino, zeina beti ere intromisiotzat hartua izan baitaiteke, *galdetzen dauenari guzurra esatea libre da* esakune axiomatikoaren arabera. Konstatazioak, beti ere, zehaztasun-ohiturarik ez daukan solaskideari beste baieztapen ondroso baten aukera uzten dio, onenean, edukiaren paralelo joan daitekeena, pasoa alegia, eta okerragoan ('okerrenik' ez zegoen gure komunikazio gainzientifiko txit praktiko hartan), hain norgarri dirudien mehatxuairean har dezakeena, Learen kasuan bezala: *Txoritxo barritsuak gehiago dozak, bai, kantariak baino – Bera izan zen txoritxo, gurera etorri zena, nik ez neban ikusterik izan baina – Bajagok nork ikusi, batek huts egin arren*. Nik ikusiko dok gaineko egunen batean edo horrelako iradokizun bat nahi nuen, hurrengo hitzetan data ere apur bat zehaztuko zelakoan, baina jaregin zion argitasun gorena izan zen: *Hor beheko kaleetan be, batzuetan zer egin ez dakieela bizi dozak, antza*. Horregaz esan gura zuela ulertu nuen, zerbaitetik ihesi bainoago zerbaiten bila etorri zela, haren suposamenean zaila baitzen, kontzientziaren geruza iritsezinen batean ez bazen, maitasun edo antzeko sentimendu errukarririk izatea. Neu ere ez nintzen haren mihiari garbiegi tiratzen ahalegindu, iloba uda guztian gehiago ez zela etorriko entzuteko beldurragatik baino ez gutxiago, pentsatzeko ahalbide gozoa gorde nahi nuelako ezen, inkonkrezio berariazko hartan, nire apaizgaitasun ustez babestu beharrekoaren erespetuz, ez ote zuen ezkutatu nahi izan neskak agertu izango zion ni ikusi ezinaren pena. Hori bat zetorren amak esandako *gautu aurretik jaitsi gura izan jok* haregaz, non garbi uler zitekeen ni itzultzerako joatea mendiko gaua bezalako arrazoi indartsu bategaz desenkusatu nahi izan zuela, segurrenik ni ikusi gabe aldentzea baino mingarriago egingo zitzaiokeelako laburki ikusi behar izatea. Hala, kastitate-

aren ontzigai batentzat desonestegia izan zitekeen nahitasun direktoaren ordeztu, itxaropen amestian geratu nintzen ezen gaineko edozein egunetan gerta zitekeela behin behintzat dohatsuki gertatu zena; neure aldetiko saiakera ekinkorregiagatik, bigarren gertatze ez hain dohatsuan deusezteko beldur nintzena.

Etxe azpiko sagastitik basora bitarteko sorondoan behizain (beste soroak zaindu beharrekoak ziren), behin sagar-adarretan abildadeak probatuz, behin behe urruneko Zornotzara munduaren atari gisan begira entretenitzen nintzela, barreneko pinadi ertzetik, ostertz inpenetrabletik ezinezko iruditzeko moduan, agerpen sinestezin bat bistaratu zen: tximeleta ikusgarria, tamainuak hegatzera eragozten ziona, baina koloreak airean zekartzana. Oraintxe ere, oroimenaren eliminazio gupidagabeen garaile, koloreak nabarmentzen zaizkit pinu-masa trinkoki ilunaren kontra, hori-zuri-gorrien artean banatzen zirenak. Itzaletik eguzkitara sartzean, giza figuran zehaztu ziren, gaztetasun femenino baten bihozkadak aurretik ere joa ninduen arren. Kolore haiek euren izakiari nagusitzen darraite, urteak joanago eta areago esango nuke, elurrak espazioaren gaineko denbora ere okupatzen duen bezala, hartaraino non bere oinekin elurrik inoiz zapaldu ez duenak ere negua zuri gogora baitetzake, bere izateari ote dagokion dudatzerik ere otu ez zaion azpi-izaki baten zentzumen inertzialen arabera. *Ama Birjina inoiz ez dok behetik gora agertzen*, asperen egin nuen, posibilitate horren nahikunde nahibakoaren barkamena zerura eskatuz. Pinadia eta artasoroa banatzen zituen munan gora, haren etorrera, hurrean ezingo nuela sumatzen nuen ikuspen direktoaren atseginerako astirotu gura nuena, oraintxe ohartzen naiz zergatik bizkorregi iruditu zitzaidan: hain ez nekien neure burua harrera hartarako nola prestatu (maitasun egiazkorako presta zaitezke, balizkorako inoiz ere ez behar adina), ezen nire gogoak ezin baitzuen era imaginariorik ere begiztatu, porrot inebitablara zeramakeen larritasunean ez nahaspilatzea zaila izango zenez gero, behintzat hiru-lau minutuko aurre-lilura hura eternitatearen kondentsaziotzat balia nezan. Eta eternitatea neure ondoan eseri zen.

Sagastiaren hego-mendebal angeluaren erpinean eserita nengoan, hango sagarrondo beste guztien ikusgura mozteko baliatuz bezala; bekatuak eta

aurkikunderik ospetsuenak eragiteko gauza diren sagarrek urrunera usain hartzen dute. Aldatsaren norabidean eseri beharra alazo zetorkidan, etxe inguruari eta hark suposatzen zuen guztiari bizkar emateko, goialdean zebilen behi amama (alaba eta alabatxia behetik ziren) egoera berriaz berehala ohartu ez balitz, gero abere mamalagorik ez dagoela esan dezaten. *Behi horrek triskan-tzak egin behar deuaz artotzan*, esan zuen edonora begiratzeko askatasuna hartzen zuen Helenak, zeinaren izena galdetzen ez nintzen ausartu, gero neure kapritxora bataiatzeko atseginagatik. *Barrabana!* (abadegai bati ez zegokion 'alua', 'putazila' eta gisako hizkera biziosorik). *Patari denominook nahikoa jaben berbaroa sumatzea, euren grina lizun guztiei jaregiteko – Grina lizuna behi zahar-rak? – Lizunena, esperientziaren kargak bizitua.*

Behiak, euren bulgaritate esentzian ere, amodioaren ofuskazioaz berehala jabetu ziren dispertsio antolatuari ekiteko, bat kontrolatzen nuen bitartean, bestea kontrako muturretik eta hurrengo bi aldean angelutik artotzan barnatuz. Izan nuen argitasuna, adimenak bainoago komenentzia beroak emana bazen ere, errebelioa soro artean menperatzen alferrik saiatu beharrean, abereak itxituraz kanpoko basora ateratzeko. *Ea hor zer topetan dozuen orain!* Soluzioak aurreikusi gabeko ondorio dohatsua ekarri zuen, pinadian urrats bat geldi ez egiteko ernegua hartu zuten animaliei atzetik jarraitu beharrik bisitaria ere neugaz baitzekarren, basoan geroz barrurago, nahiz eta saiatzen nintzen behiak urrunegi barik ibilarazten, neskari ez zekion erreparoren bat sor, *banoa etxera* edo *banoa zuen ama ikustera* esateko. Batzuetan txakurra harrapatzeko plantak egin behar nituen, oilarkeria eutsiezinak pizten zidan exhibizio grinaz baino gehiago, neure koloreen gorritzea disimulatzeko, nire golkoan zebilen erreboluzioa une batez harentzat gardendua zela suposatzearen lotsaz. Helenaren geriza beste gerizak gainkatzen ikustea neskari zuzen begiratzearen ordezkoi kasik kilikagarriagoa zen, gerizari hutsik gabe segitzen zion gorputzaren fidelitasuna neuganantz desbidatzeko egokiera aurkitzen bainuen. Nire gerizak behiei jarraitzen zien, nik neure gerizari, Helenaren gerizak nireari, eta Helenak bere gerizari edo nireari edo neuri; ez nintzen zehazpen horiek eskatzera menturatuko, bera norabide beretsuan zetorreno. Hura nigaz zebilen denbora eternitate futuro bat zen, oroimenak nahikara luzatuko zuena, baldin denbora originala neure nahiaz kontra eten

zedin ekiditen banuen; bestela, oroimen futuroak mozketan bat edo, gehie-
nez, zalantza bat aktualizatuko zuen, nondik nekez dagoen garantiazko atse-
ginik. Hala, *behiak etxera eroan behar ditut*, aurrea hartu nuen, edozein unetan
abandona nintzan beldurretik libratzeko.

Gurean egingo zuen denbora neugatik luzatzen zela ahalbide logikoen ar-
tean sartzen zen, kontrakorik agertzen ez zeno, eta zorionez, azkenean, arra-
zoi kontudenteak erabaki zuen erromantzearen abiapuntutzat ez jotzeko
motibo garbirik ez zegoen bisitaren amaia: gaua gainean zen; etxera joan
behar zuen. Neuk laguntzea ere eskaini izango niokeen, plan amestiegiari es-
perientzia bertan amaitzeko arriskua ikusi ez banio, noraino abarkatzen zuen
jakiterik izango ez zen ezezkoa bazetorren. *Hurrengoan be etorri holantxe*, opatu
zion amak agurrean, neure desira transmititzen ari bailitzan. Uda guztian ez
zen segurrenik gehiago agertuko, baina posibilitate maiteminkor bat
oso-osorik gelditu zen, bere izatea intimitate librean mugagabeki handituz
eta edertuz joango zena, batez ere gero seminarioan, neure kondaira samurki
handitua dena begi-bero eta sines-gogo entzungo zuen ikaskide erromantiko
bati kontu niezaionean. Behien jarraipenak, mendiko bakartasunak, pinadie-
tako zidor-sareak harridurarako predisposizioari komeni zitzaion bilgarri ma-
giko guztia eskaintzen zuten, non latineko klasean interpretazio xoxoki
mistikora ekartzen saiatzen ziren mitologia amodiozkoari euskarri direktoa
aurkitzen nion. Maitasunezko literaturak hainbesteko arrakasta izatea ez da-
kioke beste ezeri zor, ez bada, amodioan, kontatzea zoragarriago dela bizi-
tzea baino.

Txoriak ez dizu beti adar beretik kantatzen. Metro batzuk luzeago, geriza
zeure norabidean doa. Ez dakizu geriza aurreratzen zaizun, ala eguzkiak alde
egiten dizun. Horretan, etorbide sakon eta zuzenean, espaloi beretik, ema-
kume bat zeuganantz dator, bakarrik dator, gerizarik aurrean ez dakar. Ai-
tzakia gabe begira diezaiokezu, behar diozu, elkar ez jotzeko. Hurreratu
ahala, irudia zehaztuz dator. Inoiz ezuste hunkigarria, prebisioen gainetiko
edertasuna izaten dena, gehienez abiapuntuko irudi orokorki ederraren az-
pitik zehazten da. Dezepzioak maiz ekarri dizu hasperena. *Hobe albora begira
pasatu banintz!* Oraingoan zer egingo duzu? Pentsakizunotan ari zinela, ema-

kumea igaroa da. Zalantza baten ondoren, atzera begirutzen ausarturik, haren geriza zeure oinetan daurkizu, hura zeugana lotu nahirik, baina, azkenean, geriza ere joan da, aurpegirik erakutsi gabe. Zoriontsu izateko, arrazoi askok bat egin behar dute. Zoritxartsu izateko, bakarra da nahikoa. Maitasunaren destinoa dezepzioa izatea ez da hain ezbidetzko, pentsatzen bada gizakidea maitatzea, litekeen maitagarriena delako bainoago, dagoen maitagarri bakarra izateari dagokiola.

Händelen espantsioaren kontrastez, Bachen musikak ordena intentso-rantz datorren unibertsoa dirudi. Honen *Toccatà eta fuga* hura,



unibertsoaren mugan, itzulera aldarrikatzen eta zentrorantzko oldar amorratuan irudikatzen dut beti. Tontorrik gorenean, *la-sol-la-sol-la* oiuhu mordentea jaurti, eta aldasbeheran irauli, *sol-fa-mi-re-do*. Geldiune bat, oktaba bat beheragoko gailurrean beste oiuhu bat, eta berriro beherantz, tarteka gorantzko kosketan pausatuz, jaitsiera ez dadin suizida izan. Beti behera eginen, harik eta, arrapala suzesiboen barrenean, fugari bizkar luze amaigabea emango dion zelai geldiezina jo arte. Ihes egin behar da! Iheslari guztiak zistuan, gehituz, gurutzatuz, kontzentratuz doaz, mendi bizkarrari jarraituz. Maldetarantzko okertze txikiak berriro gailurrera atxikitzeko dira. Zentrorantz irazian goaz, gorantz, gatoz, beherantz. Inork ez du une supremotik, beherengotik, kanpora geratu nahi. Nik, azken metroetan, eurt egin dut disimuluan (disonantzia bat esango dute), ez baitut hain sentsazio zoragarriok errepikatzeo aukerarik galdu nahi, ezta, bide batez, aitzakilari zebilen bati zuloraino sakatzeko ere, izorrai! *Betiko, eh!* Loriatuko ninduke organorako toccata eta fuga hori bi bertsio (behintzat) orkestraletan entzun ahal izateak, bata Lisztena (barka, Berlioz), bere orkestra guztiagaz, bestea Stravinskirena, metal hutsezkoa. Tamalgarri da bi zentauro musikalok gozamen hori gizaldi eternalsi ez antzipatu izana, baina ezingo ditut larderiatu, ameslari potentzial batek, eurenganako mirespen gehie-

gizkoz segurrenik, post mortem (longam) aurkeztuko zien gutizia aurrei-kusteko zailtasunean (neu ere zazpigarren errepasoan –azkenengoan!– ohartu naiz gabezia), inondik ertz hobegarririk ez zeukan original bat uki-tzeko temeritatea airean utzi zutelako. Bego iradokizuna, itxaroterik bada musikari handiak ez direla denak hilak izango.

Antonin Dvoraken hura:



Egunen batez, gure herri zaharraren zaharrez ia sorreragabe honetatik urrundu behar izan zuten guztiak munduko bazter eta denboraren geruza guztietatik sorterrira itzultzeko motibo handiren bat gerta baledi (motibo ga-beko gertaera ere aski litzateke), orduan martxa horixe mundializatuko nuke satellite potente batetik, itsasoz eta lehorrez datozen (demagun Urdaibairantz) bide guztien gainera. Haranetik datozen iladei horizontetik erantzungo ge-nieke:



Seminariotik etxerakoan, Autzaganeetik Torrebururako erdibidean, bidetik bi harrikadara bada tontortxo bat, nondik, beheragune suabeen abiada har-turik, bostehun metrora ageri den etxe aspaldikorantz, atzez ere irribarrez di-rudienerantz, maletak bertan jaurti eta heriosuar lasterkatzen naizen, pozaren pozezko propulstioan, beti Vivaldiren doinu honen gainean:



Musikari hau abadea ei zen, orduan ez nekien baina. Ez nekien ezta, gaixotasun bategatik, abadetza utzi behar izan zuenik ere. Behar edo. Gu saiatzen ginen gaixotzen eta, saiatuaren saiatuz, lortu ere egiten genuen inoiz, dena hamabost bat eguneko etxerako baimenagatik. Hilabetetik gorakoa izateko, gaixotasun hilgarria behar zen, kontzientzian bekatu mortal bat bezalatsu; orduan hobe zen bertan hiltzea. Etxera heltzerako, txakurra bidera irtengo zitzaidan, gitarrajole ona berau, arkakusoak mugitzen zitzaizkionean. *Arkakusoak zelan joango jazak, ba* –esaten nion– *horren alegre tratetan badozak?* Hark ere, pozaren pozari nolakoa ipini ez zekien aurpegikera, maleta gabe nentorela pentsatu zuen; biok tximistan itzuli ginen tontorrera,



bueltan, definitiboki etxerantz, pausatuki abiatzeko, *Maitia, nun zira* kantatuz:



Ordu haietan egon zitekeen bakarria, ama, iturri gaineko sorora edo urruneko basora joana zelako, inkontrurik ederrena etxean inor ez aurkitzea izango zen, fruta-arboladitik hoge metroko distantziara, etxearen aurrealde osoa begiztatzeko moduan, poz geldiezin gozamen atxikian luzatu ahal izateko.



Etxean bakarrik gelditu nintzeneko lan bat, ama itzulitzakoan, iluntzeko freskuran behiak zaintzea izango zen, zeregin luzea eta gogaikarria, munduan bat izatekotan, baina egun hartan muin emanda bezala hartu nuen, ez afaritako patata frijituen pozean bakarrik, baizik, batez ere, eguerdiko balentria neure kautan bergozatzeko, egitate bera ez zen hain garailea izan baina. Patata-tortila bat egiteko, jenero piloa lorrindu nuen (arrautzak, batez ere, ene ama!), azkenean, txakurrak ere jan nahi ez zuelako, sasitzara jaurti behar izan nuena. Tortilaren porrota zenbatean handitu, hainbatean biderkatzen

zen haren ezkututasun inpenetrablearen plazerra. Antzeko plazerrak lehenago ere probatuak nituen, dimentsio guztietan eta ohikotzat jotzerainoko maiztasunez. Eskolatik kakazturik etxeratzea, esaterako, ezbeharra barik, pozkari handi bilaka zitekeen, baldin inor konturatu ez bazen; hots, kiratsa zabaldu arren, jabea identifikatu ez bazuten. Hori bera, denok jaiko jantzita, igandeko elizkizunetik bueltan arrakastaz gertatu bazen, ez zegoen alaitasun zerutarrik, prakak amari eskusiban entregatzea lortutakoan (amak jakitea ez zen sekretua haustea), nire zoriona gaindituko zuenik. Edo geroago, seminariotik etxeranzko maleta dohatsua Atxuri geltokiko kontsignan utzirik, Doña Kasildaren parkeko hegaztiak eta urmaelak ikusteko irrikaz, *'Jesusen Bihotzera'* esanda, autobusa hartzen nuenean. Ibil-kutxa jendeztatu hartan oker kokaturik edo alde okerrera begira, Jesusen Bihotz ditxosoa noiz ikusiko, pentsatzen hasten nintzen: *Joño! Horreek beirateriok lehen beste aldean ez jegoazen?* Zurtz eginda nengoen, Bilbon gertatzen ziren efektu bitxiekin, harik eta, Atxuri ezagutzean, itzuli osoa egin nuela konturatu arte, baina ez nintzen lotsatik irteten ausartu; igotako toki berean jaistea, norbait konturatzen bazen, eta hala abadegai jantzita, ridikulu lebitikoa iruditzen zitzaidan. Hurrengo bueltan ere Atxurin aurkitu nintzen berriro. *Ez, ba! Orain ez nok jaitsiko!* Desorientazioak ez du, antza, burugogortasunik biguntzen. Aurrera jarraiturik, denbora ustez prudente batera (*Jesusen Bihotza kendu egin ete jabeak?*), arrosario asko errezatu izanaren itxura hartu nion andre bati, ia konfidentzialki, ingurukoek entzun ez zezaten, galdetu nion:

– *Aizu, emakume! Jesusen Bihotzerako asko falta al da, mesedez?*

– *Zer?* –hots egin zuen, berak ez beste guztiek entzuteko moduan. (*Asko dok, ba!*).

– *Jesusen Bihotza, plaza eliptiko honetatik hirugarren geraldia dozu* –erantzun zuen ahopekoak entzuten ikasia zirudien beste andre zutun batek.

– *Esango al deustazu bera noiz den, mesedez?*

– *Sobra be ikusiko dozu, ia zerurainokoa da eta.*

– *Orduan ni inpernuan ibili ete nok ordubetean bueltaka?* –pentsatu bitartean, erantzun nion: *Halan be, abisaidazu mesedez, inguru hau ez dot ezagutzen eta.*

– *Zer jinok horrek?* –hots egin zuen lehenen galdetua nion andreak, erabat gorra ez zela erakutsi guran.

- *Jesusen Bihotza non dagoen jakin gura dau* –erantzun zioten.
- *Judasen bihotza?*
- *Jesusena! Jesusen Bihotza.*
- *Ah! Neuk jaitsi behar joat bertan.*
- *Orduan zeuri jarraituko deutsut.*
- *Hobe dok aurretik joan, nik ateraino heltzen denpora behar joat eta.*
- *Eskerrik asko.*

Lotsatuta nengoen, autobusaren atzealde guztiak entzun baitzuen autua, baina, zorionez, inork ez zuen susmatu hirugarren itzulian nenbilenik. Egun hartan, antzarak, ahateak eta, batez ere, edertasunean nagituriko paumak inoiz baino amesgarriago begitandu zitzaizkidan. Hurrengo seminariotik etorreran ere, ezin nuen trenik hartu, parkeari ikusmira on bat eskaini gabe, baina hartan, badaezpada, Bilbon ibiltzen bazekien lagun bategaz joango nintzen. Atxuriko kontsignan maleta astunak seguruan utzirik, Erruki Etxerako autobusa hartu genuen. Harritzen nintzen, batzuetan sakaka, ia zapalka, lehertzeaz hanpatzen zen barrika hura (leku onean zegoen seminarioko gure ‘*noli me tangere*’ edo ‘*ez ni uki*’ hura) nola bat-batean husten zen, bazterrak ikusteko moduan jartzerako, berriz gainezkatuz. Bidaia luze samar ote zihotalakoa neukan, baina seminariotik etxerako zorionak (hau ere existitzen baitzen) eta parkeko animaliak ikusteko irrikak denbora bera ere hegazti planeatzaile bihurtua izango zuen, harik eta, autobusaren atze aldean, kaiola zoologikoan bezala, geu bakarrik gelditzean, baina han ez genuela jaitsi behar ziur, txoferrak, zutik eta eurt, hots egin zuen arte:

- *Zuek, belakumeok, nora joatekotan zarie? Hau tiobiboa dela uste al dozue?*
- *Jesusen Bihotzera goaz.*
- *Jesusen Bihotzera, bere azpitik hiru bider pasatuta?*
- *Orduan, orain non gagoz?*
- *Atxuriko abialekuan.* (Konkortuta nengoen. Autobusaren barrutik, gauzak ez dira berdin ikusten, antza).
- *Parkatu. Jaitsi egingo gara.*
- *Ez dinozue, ba, Jesusen Bihotzera zoazeela?*
- *Oinez joango gara.*

– Oinez haraino? Eroango zaitue autobusak, txartel barria ordainduta. Halan be, buelta oso bik doan urten deutsue–. Geure dirutxoan bila, sakelak errekiatzen hasi ginenean, agindu zuen: *Gero aterako dozue. Orain segi kanpora. Hamar minutu barru urtengo jok.*

Autobuseko atea zabal-zabalik zeuden, eta kanpoan zeudenek (*Bilbon beti jagok baten bat kanpoan!*) burumakur jaisten ikusi gintuzten, gaztagelan harra-patutako txakurra bezala. *Hik ez hinoen Bilbo ezagutzen heuela?*, jaurti nion haserre lagunari, eta berak: *Heuk esan heuen parkera joaten bahekiela, igaz be joan hintzela eta.* Joan nintzen, bai, eta orduko sekretuaren goza-balioa biderkatu egiten zuen oraingo lotsariaren handiak, hain handia izan beharrik ez zeukanak, Bilbon inork ez gintuela ezagutzen aintzat hartu bagenu. Txofer krudel baino ahohandiago hura gehiago ez genuen ikusiko. Gainera, laguna ni baino pare bat urte zaharragoa zen, nondik suposatu behar zen, bilbotarren begietan, berea zela okerraren jabegoa eta bilatzea zeukala bere kontsolabidea, askorik eragin zionik ez zuen ematen baina. Neu ere ridikulu hura ia eskertzearenengoan, kontraposizioz, aurreko urteko paseo triumfala nahi adina aldiz eta nahi adinako tamainuan berritu nezakeelako mentalki. Norbere ezagutza esklusiboko lotsariak gure baitan zernahian dabilzan piztia txit ederrak dira; kanporatzeak erauzten die larrua, alde guztietatik minberatuz. Ezin dut imaginatu izaki errukarriagorik, tigre lerdan edo lehoiame gailen bat larru gabe baino, begiak bertan dituela.

Gordetasun inbiolable horiek haurtzaro samurreko edo nerabezaro zauri-korreko ahultasunak zirelakoan, adinak ez dituela gutxitzen ikusi dut, araberu ugaltzen eta anizkoitzen baizik, goizalde batez, Mendexatik Gizaburuagara bidean, Karraspioko hondartzara saihestu nintzenean bezala. Uda amaierako gau zoragarri eta zorarazle horietarikoan, ilargia ezteietara andan zeramatela zirudien. Mendexako abadelagunaren sukaldean, mundua biharamunean konkistatzen hasteko moduan utzi ondoren, Lambretta gorri obedienteak, planeatzen bezala, hain garbi bereizten ziren olatu zurien eraginez, edo argitasun baporosoaren gainean, aldatsean behera ninderaman, astiro-astiro hartutako bihurtune bakoitzak Lekeitio ikuspegi ezberdineraren biratzen zuela. Barrenean, 'Mendexako zubia' izeneko bidegurutzearan, azke-

nean galtzaile izango zen zalantzari aurrea hartuta zetorren erabakiari ez zitzaien askorik kostatu Ondarroarantz hartzea, Kurlutxuko bihurgunearen oin-ean, arrapala luze eta erdian boluptuoski okertuan, nerabetasun lotsorrera bazterturiko hondartza adonikoaren (ez nuen 'edeniko' nahi) aurrean jar nindezan. Soldadutza guztia Ebro baino handiagorik ez zitekeela izan tematzen igarorik, itsasoa lehenengoz ikusi zuenak *hau zabalagoa izan leitekek, baina luzeagoa ez kontzeditu zuenaren aurrean*. Beste erdi desesperatu batek, hura hain brabo aurkitzean, *bahabil? bahabil? mantsotuko haz hi be, ezkontzen hazenean!* hots egin zionaren aurrean. Inor ez dagoenean, bazter guztiak apurtzen eta, jendez inguraturik dagoenean, mantso-mantso egoten den itsaso koldarraren aurrean. Seminariotik txangoan joanda, Sopelan lehenengoz ikusi nuen (izatez, lehenengoa eskolatik Gorlizerako txango bat izan zen, bertan egoten baino joan-etorrian gehiago tardatu genuena, baina orduan ez nintzen itsasoaz ohartu, galtzeko edo ostua izateko beldurrez), egun osoa, haitzean josituta, berari begira egin nuenaren eta, harrezkero, miresteko baizik begiratu ezin diodanaren aurrean.

Isuntza irla, itsas-lehorren adiskidetasunaren kontza egiten; itsasoa, bere ongizate mugagabearen adurra pausatzen edo haitzei 'geldi hor' agintzen; hondartza fin-fina, leun-leuna, oinpeetatik gorputz osora gozotasuna igortzen; hodei mehatz xume batzuk, altueraren domeinuan desplazatzen; ilargia ere horra, begirale bainoago gozatzaille, inork ez duela bigilatzen baliatuz. Hortxe agertu naiz ni, harmonia eternoki insuperablean sartzera noala sentitzearen giza distortsioa leundu guran. Sotana erantzi eta haitzostean multzoturik uzten dut, ez aurretik bakartasun totalean nengoela ondo ziurtatzeak eskaini didan asaskuagatik ('askatasunagatik' jarri izango nukeen, hitz horren zentzua inoren aurrerako bakarrik sentituko ez banu), baizik, ilargian islaturiko uhin suzesiboen marra gainean, neure belztasun ibiltari arean konikoaren kontrastez irudikatzen nuen edertasunari eusteko gauza ez nintzelako. Pisua arindu behar nuen. Sotana erantztean, figura barregarria bistaratu zen, gauez gauzak hobeto ikusten baitira, inork begiratzen ez dizunean, edo inori begiratzeko irrikatik libre zaudenean. Abadeon benetako 'txorimalo' itxura zen, sotanagaz esleitzen zigutena barik, hain gabe nabarmentzen zena: prakak berna erdiraino moztuak edo doblatuak, alkandora lepogabea, eta bo-

toirik ezberdinenak, erdiak falta ez baziren; berdin jertsea ere, jantzi beharra zenean, zeinak, bizkarra eta paparra (hau botoi-tamaina guztiekin) itxuraz babesten bazituen, besapeak eta ukondoak zulaturik eduki zitzan ez zuen hainbeste ardura. Habituak dena estaltzen zuen, gizatasun urria barne.

Sotana konparazioz soineko garestia izateari amek laster aurkitu zioten etxeko bazterkin guztiak haren azpian enpliatatzeko abantaila mirarizkoa. Inorako ez zeuden aitaren praka nasaiek, neba-arrebak etxerako ere haiekin lotsatzen ziren jertse-alkandorek, baita amaren beraren kamisoiak ere, barrenak apur bat laburturik, sotanapean ederki luzitzen zuten, ad maiorem Dei gloriam. Auzotik edo senideenetik, hamaika prenda izengabe pasatuko zen disimuluan gure sotanen azpira, ez beti igarri gabe. Inoiz, kutxa zaharretan agertutako ezkon-traje berri-berriek ere (noiz erabiliko zituzten, bada, ia galazko egun bakarrak ziren ahaide hurbilen hiletetan lutua jantzi behar bazen?), euren antigoal usain lizun eta guzti, sotanapean aurkituko zuten bigarren eztei-bidaia, lehenengoan norabait joan zirela emanik. Zapata lustratuekin, belaunetarainoko galtzerdiekin (orpoan 'tomatedunak' izan ez zitezen zainduta beti ere) eta ile ondo orraztuagaz irtenez gero, beste guztia sotanak bikain irents zezakeen, tentaziorik bortitzenak barne, horretarako ere gordeleku handia eskaintzen baitzuen. Eta, jakina, mahuka-muturrak, txukunak, inoiz gemelodunak ere bai, horrek ez zuen barrualdearen kuxidaderik garrantizatzen baina. Egia da, apaiz berria edozein herritara joanik, familia baten edo arropa-garbitzaile baten eskuan zorionez jaustean, barruko soineko eta prendek beste berritasun bat eta beste usain bat hartzen zutela, baina hori areago zen haien meritu, sotanaren bertute baino.

Bitxiena prakena zen, oso zakartzat eta indekorosotzat jotzen zen barrenen edo tuboan behetiko ikustea ekiditearren, behin mozturik, behin doblaturik, soineko hibrido gertatzen baitziren, ez labur, ez luze, ez erdiko. Kristauak, praka-barrenik ikusten bazizuten, harritu egingo ziren, piadosoenak aitarrenka, denak euren artean marmartuz norberak entzuteko moduan: *Abadeek be prakak darabitez ala?* Prakei eskandalua bazeritzoten, ez dakit nola imagina zezaketen gure sotanen azpialdea, zeren galtzontziloak ere, saxofoiarenak bezalako botoi bakan haiekin, ez zitezkeen erreberenteagotzat hartuak izan, lu-

zeak eta belaunetan galtzerdietara sartuak ez baziren, zaldun versaillestarren antzera, haiek ikusgarriago euren maiestatean, gu dibinoago geure baldarrean. Prakok aurretik zein atzetik apurturik lasai ibil zitezkeen elizkizunik solemneenetan, baldin aldareak maltzurituriko monagiloren batek, inozente itxurako errakuntzan, kasulagaz batera sotana ere altxatzeko jokaldi bistosoa burutzen ez bazizun, ondo emandako belarrondoko bat irabazi arte. Arriskua hantxe zen noiznahi, eta aurrea beti presente dugun bezala, atzea bigilantzia eten gabe aktualizatuan erabiltzerik ez denez, txakurra bere isatsa harrapatzen bezala beti ibili ezik, praken atzealdeak tarratadarik ez edukitzea obesiboki jagongo nuen. Aurrea libre uztea gutxiago kostatzen zen, batez ere sotana kremaieradunen miraria iritsi zenean, ez berez segurragoa zelako, fimosiarena bertan konpontzeko ez bazen (pentsa kardenal gorri bat, txizagintzako zirri-zarra kanonikoan, txori santuaren moko-azala bitartean harrapatzen deskuidatua), baizik goitik beherako botoi txikien lantegia eliminatzearen, nahiz eta, hala, argumentua galdu, *berorrek ez dauka egunean ehun ardi bi bider jetzi beharrik* zioen kristau destainosoari erantzuteko: *Ezta heuk be egunean berrogeita hamar botoi hamalau bider askatu eta lotu beharrik.*

Oraingo andrazkoen pantyak ezagutu izan bagenitu, esaerak dioen bezala, bi txori batera (ez, mesedez! ez ezazue txoririk hil!) elikatu izango genituzkeen, baina, gutxienez, bai iritsi ginen emakume ez dakit guztien baina bai askoren intimitate-zentzu itxuraz aldrebesa ulertzer: eskua txortarantz bota diezaiezun zerean, zakarkeriatzat errefusatzea badagokie ere, euren altxorren irresistibleaz hanpatzeko motiboa senti dezakete; oster, inondik ere ezin dute jasan ipurdian uki ditzazun.

Hondartzan alderik alde batzuk eginez, Karraspioko bakartasun totalaren jabetasunaz ziurtatu nintzenean, biluzteko aukera probidentzialak tentatu ninduen, zaila baitzen, gau argiegi hartan ere, Lekeitioko portutik begizta zitezkeen larrugorri bakarti hura Gizaburuaga eta Amorotoko abadeagaz identifikatzea. Tentazioa aise gailendu zen ekintza sublimeki extraordinario bat bezala, ez barne-grina erreprimiuen bainoago erreprimitu beharrekoen askatze mendekatiagatik, baizik ilargiari bere ezpainen mugimendu eta guzti entzun niolako: *Zelan ausartzen haz, nire biluztasunaren liluraz, adur zuridun*

itsasoa eta altaragaina bezain hondar-zoru leuna zarpailtasun horregaz profanatzen?

Ilargia umontzi gardena zen, barruan ia bera beteko fetoa zerakusela; artean inoiz planteatu ez zitzaidan haren sexua egun hartan eme agertu zen. Behin soineko ministerialez gabetzera menturatutakoan, emearen desirak agindu sakramentalak baitziren, Eba biluziaren pintura sakratua (biluzia eta sakratua bat zirenekoa) argi-argi ikusarazten zidan, bere mahats-hosto zorioneko eta guzti, artista guztiek halaxe pintatzeko irrika zuten baina ausartzen ez ziren. Ama Birjinaren ordezeko bezala. Ebak bekatu egingo duela badakigunez, lasai biluz genezake, baina Ama Birjina irudika dezan nahi dugunez, hostotxoa jarriko diogu, bide batez, mahatsaren apologiarik pasionalena eginez, zeina pintoreak ez zuen han ipini, beharren zena ezkutatzearen, edo fokurik beroena seinalatzearen, baizik bazekielako ikuslearen pentsamenari gutxien kostako zitzaiola hosto hura erretiratzea, zeragaz biluztasuna askoz efektiboago gertatzen baitzen, gero aurkikuntza abangoardistatzat aldarrikatuko zen ikuslearen konplizitatea delakoari mende mordoan aurrea harturik. Nahikoa pentsakera txotxoloa, bestalde, zabalik edo ikusleagan garapen sortzailea izan dezaten uzten diren obrak egilearen ezgaitasun terminalaren erakusle izan baitaitezke. Artista bat eroa izan liteke, baina ez berak hobeki buka dezakeena ikusle inespertoen pentzudan uzteko bezain negligentea.

Beste kontu bat dateke denok nahi genukeen jenio-puntuak, hots, obra bikainek, ikusle eta garai ezberdinetan, aktualizazio ezberdinak eduki ahal izatea, batak Eba eta besteak Ama Birjina, edo bere desiren kimera ikus dezan, urte batzuk lehenago, gogo-zuzendariagaz izan nuen endredoan bezala, Ama Birjina agertzen zitzaidala jakinarazi nionean. Nire ustezko ilusio mistikoa fenomeno arruntera ekarri nahi zuela igartzean, *zergaitik ez jat agertu behar niri?* tematzen nion, miraria kanonizatu arte, neu baino bidente arruntagoak izandakoen kasuak aduzituz. Bat-batean, haren konprentzio paternala erabat kizkurtu zen, azaldu nionean Ama Birjina biluzik agertzen zitzaidala. Orduan gogo-zuzendaritzaren manei guztiak neuk hartu behar izan nituen, haren aurpegi desfiguraturatik begiek izaturik alde egin ez zezaten. Beharbada, Ama Birjina barik Eba izango zela; beharbada, hostoa barik eskua izango zela; beharbada... Ez nion ematen, antza, hark tentazio biolento soiltzat jo zuenaren funtsa biguntzeko argudiorik, igartzan bainion pentsatzen zuela zer axola

zuen agertua nor zen, axola zuena bestea bazen. Apur bat bere onera itzuli ahala, eta jestuak beste apur bat menperatzera ez dakit baina koordinatzera hurbildu zenean, platika murduskatzen hasi zen, eskema arrazionalik gabe, haren lanbide espiritualean halako kasurik nekez izango baitzen aurreikusia. *Jesus, Jesus! Ama Birjina biluzik! Bai inpietate satanastarra! Hau be ikusi behar!* Begiak ixten egiten zituen ahalegin kontraktiboek zerakusten bera ere biluztasun birginala, irribarrez eta hostoa eskuan, begietan ipintzeko eskainiz bezala, bistatik kendu ezinik zebilela.

– *Nik zer egin neike, berak halan agertzea erabagi badau?*

– *Hago isilik, otoi! Ez najoan pentsatuko deabrua horren krudela izateko gauza zenik.*

– *Ba, halakoan, begiak ixtea be errespetu falta begitantzen jat.*

– *Vade retro! Hoa zeruaren parkamenean. Jarraituko joagu beste batean, Jainkoaren graziak indar handiagoa dakarrenean.*

Karraspioko hondartzara, berezko haitz-ahur altu batetik, Ama Birjina txiki batek begiratzen zuela banekien, baina, ilargiaren laguntza inkondizional eta guzti ere, ur ertzetik ezin nuen bere harkaitz-oin handiaz beste xehetasunik hauteman. Gainera, hondarrean zeutzan soineko eta sotana multzotik urrundu ahala, neure buruaren agerpen bistosoan imaginatzen ere banuen aski lantegi. Hondartzan, ikus gaitzaten ari ez garenean, denok gauza berdintsuak egiten ditugu. Olatu xumeei aldenka-segika, alderik alde nenbilen, hankak geroz barrurago, jauzi gangarrak eginez eta ostikada zentzugabeak jaurtiz. Askatasunaren sentsazioa zentzu- eta norabide-faltan biltzen zen, azkenean haitzen eremuan ostendu arte. Bakardadean ezinezko dirudien ezkutatzak nire golkoan bazuen justifikua, zeren, hondartza irekian inork ez ninduela ikusten eta, ikusita ere, ezin niduela ezagutu jakin arren, ezin nuen ekidin Lekeitioaren ikuspegi materiala, pertsonalizaturik, neuri begira zegoela sentitzea. Banekien hori, teorikoki, praktikoki, metafisikoki, ezinezkoa zena, baina zertarako behar nituen denbora eta aukera neure irudikerien aurkako borrokan galdu, haitzetatik harantz, zegoen itsasbeheran, nahi adina hondar eta zokondo liluragarri bazegoen? Zoriona une bat bada, badakit definizioa: Karraspioko haitzak, gau epel ilargitsuan, abade biluz baten larruan. Zorionaren akats bakarra da denboraz gabetzen zaizula, eta hastea eta amaitzea une be-

raren ikuspegiak direnez, ez dakizula bitartean zenbat denbora arautu igaro den, niri orduan gertatu izango zitzaidakeen bezala, ilargiaren desplazamenduak iradoki izan ez balit bizitza zuhurra bizitza konbentzionalera itzultzen hastea izango zela.

Zirudienez bestera, ez zen itzulerarik errazena izango. Soineko multzoa eta sotana ez daude utzi nituen hondar tontortxoan. Perpendikularrak eta diagonalak korritzen ari naiz, geroz luzeagoan, eta lorratzik ere ez. *Put!* *Barka. Ene Ama! Oraintxe najagok ona! Iruntzietara maite nauen norbaitek apropos egin jeustak hau.* Geroz joanetorri bizkorragoak eta urrunagoak egiteak emergentziaren dimentsioak handitzea besterik ez daragi, ohartu naizen arte itsasoa bera izan dela lapurra, ez isila, bai engainatia, itsasgora nagian inguratu eta arropa multzoa eramane duena, gorago uzteko, pentsatu dut lehenik, baikortasuna ezkortasuna baino fidagarriago delako jarrera maiz predikatu, gutxitan sinetsi eta gehienetan inutil samar horretan. Suposamen baikorrak errealitate gordina jo arteko denbora behintzat jasangarriago egiten dizulakoa abantaila handia izan liteke, errealitateak gero errakuntza hori osokiago kolpa zaitzan baliatuko ez balu. Uretan sartu naiz, gerriraino, paparreraino, okotzeraino, nire salbamen-multzoa inon ageri denetz, eta halako batean, urgain motelki islatsuan, orban bati, belztasun bati erreparatu diot, neure sotana izateko itxura guztia daukana bera. Itsasgorak eramane itsasbeherak itzul dezan itxaron behar al dut? *Hau potro-jana! Nondik zeharkatu behar joat orain Lekeitio, Oletan zehar Gizaburuagako abadetxeraino ailegatzeko? Amoro tora itzul neintekek, hor elizalde handiagoo eta arriskutsuagoo ez balego. Puta, puta, puta! Parka, parka, parka! Ene Ama Birjina Oibarko, Antiguako, Begoñako, Arrateko, Arantzazuko, Urduñako... ipini deusueen izenik politeneko, guzti eneko! Baita Pilareko be, trantzetik libratua izatekotan! Ez e idazu pentsarazo hau zure mendekua dela, nire orain arteko zintzotasun handiegiagaitik. Lehen daukagun famagaz, honelakoxe eskandalua behar genduen!*

Pentsatzeak ere hezurak urtzen dizkit, episodio suntsun hau jakitera, nolako bertsioak zabalduko diren gure indar bizi eta bizilarien hortzetan. Ez dut konfiantzako aterik non jo aurkitzen, haietara salbo iristea baita gakoa; telefono kabinak ere zabaltzeko daude oraindik, gure Franco bedeinkatua (Pio

XII.ak) kuartelak eta katedralak inauguratzen lanpeturik dabilelako. *Itsaso traidore hori! Gehiago ez joat predikatuko Moises pasetako erdibitu hintzenik, putaren putaz zabaldu hintzela baino.* Badirudi amorrak, lur ostikadek, buruaren kontrako ukabilkadek, abadearen biraoek eurek ere, egiten duten bakarria konponbidea denboraren esku uztea dela, zeinaren joateak emergentzia larriagotzea besterik lortzen ez duen, bat-batean itxaropen sinesgarri batek jo nauen arte: *Hondartzako zerbitzugunean derrigor egon behar jok zeozer. Beharbada, aterean bat zabalik, non estalgarriren bat topa neikeen.* Dutzak, komunak, kafetegia, otartekotegia, izozkidenda, Parrape izeneko tabernatxoa, kioskoa, Gurutze Gorria... denak ditut irritsez pasatzen, sakatzen, ostikatzen, ukabilkatzen, eta deskuido ez ere ez dago pertsiana muskil bat zabalik. Sonbrila puta bat ez dago kanpoan, ezta ahaztutako bandera zikin bat ere, bere oihal puskatuekin zer-bait intentatzeko. Aldagelen inguruan setio antsiosean nabil, bere umeak edo bere gosea barruan geratu zaizkion txakalaren antzera, eta ez dakit zergatik gogoratu naizen ezagutzen ere ez dudan animalia horretaz, zeren zer ardura dit niri orain txakalak bere umeak jan nahi baditu ere, edo Afrikari su eman eta misiolari guztiak Urkiolan konfinatzen badituzte ere? *San Antonio, San Antonio!* –belaunikatzen naiz eskugoran erreguka–. *Ez eidazu txarrikeria hau egin!* Larrialdi estremoetan aurren egiteko gomendatzen dena egiterik ere ez daukat, zigarrotxo bat piztu eta lasai-lasai erre, hau ere sotanaren naufragioan baitabil, *baina nor dok hemen naufragoa, bera ala neu?* Olatu errukituren batek nire salbamen-multzoa atzera ertzerantz hurbilduko zuen itxaropen ziritutik, hondartzan zehar berriro itsasorantz noala, ilargiari begiratu diot eta deskojonatzen iruditu zait; horretantxe ari da madarikatua, lehenago fetosamur bat zirudien deabru egurketaria (*hobe karga guztia popatik sartu baleutsie!*) barruan kabitzen ez zaiola. *Barre egiten don? Jaitsi eta egidan aurrez aurre, kapaz bahaz! Horretarako inspiratu heunazen Ebak eta Birjinak eta inon diren tentazinoak?*

Hitz horiek existentzialismoaren beroaldian ñañoakeria iruditu zitzaidan eta iruditzen segitzen didan azioa gogoratu didate. Existentziaz jabetu den nori ez zaio behin edo behin hura mozteko erabakirik bururatu, ausardiak huts egin ez balio? Uretara oldartu naiz, estali nau, aurreratzen tematzen naiz; inor ikaratu ez duen dozenagarren purrustadan, ur gainean igel tripagora naiz,

sotana noiz hurbilduko, astiro, pal-pal, berak merezi zuen, beharbada berak bakarrik maita zezakeen edukiaren, gorpuaren bila. Gorpu hori, ordea, txalupa batek aurkituko du egusentian, gero azokan, baxurako arrain oraindik kasik bizien prezio barruan, mundu guztira zabal dadin (niri interesatzen zaidan mundura, bestea turistentzat) fideltasunaren kasu erdiragarria, Giza-buruaga eta Amorotoko abadearena, zeinak, 'labainkada' hipotetikoki askotariko baina zeinahi ere ulergarri eta kontrastez ia probidentzial baten ondoren, bere salbabida eternoa berreskuratzeko lehia apokaliptikoan, arima entregatu zuen. Horrexen polit eta efektiboa da norbere buruaz beste, edo norbere buruarena besteari egitea, behin baino gehiagotan burutik pasatu baino gehiago ere egin izan zaidana. Hona orain, benetako motiboa iritsi denean, beti sortzen dela atzerakizunen bat: batean igeri ez dakizuna, bestean altuerari bertigoa diozuna, armen erabilera oro gaitzetsi duzuna, sokaren laztasunak hozkia damaizuna, trena berandu datorrena; gainera, kostalde honetatik ez da pasatzen. *Horretarako potrorik ez badaukak (inor hiltzeko, edonor dok, ba!), hemen egoten jarraitzeko gitxiago eduki behar dok. Halandaze, heldu motorrari eta aire hemendik!*

Mendexara igoko naiz zuzen, bide horretan ez baitago arrisku handirik. Izatekotan ere, plazara sarreran, dozena erdi kale-bizitzen artean. Taberna nik handik alde egiterako ere itxita zegoen. Orduotan nork egon behar du leihoan, motor zaratara ikusmiran jaikitzeko zain dagokeen insomneren bat ez bada? Berrogeita hamar bat metro honago, motorra eskola ostean utziko dut eta oinez hurreratuko naiz isil-isilik, oinutsik hori ere errazago; abadelagunaren atea kox-kox joko dut, eta amenean jaikiko da, oleazio eske datorrenen bat delakoan. Atea desgiltzatzen has dadinean, bi eskuekin ahoan isilgailua eginez, shhh, bis-biska esango diot: *Roman! Neu nok. Ez eik argirik biztu. Modu zelebrea naja tork, baina ez hadi ikaratu. Laster jakingo dok dena.* Hartuko duen sustoa ez dateke handiagoa, txapelokerrak ez direla ikusteak emango dion nasaitasuna baino.

Mendexako aldasgora erdian, Santa Luziaren ermita paretik pasaeran, aurreko bere egunean, sermoilari deitua izanik, gizon bategaz meza ondoren belarritik belarrira izan nuen elkarrizketa laburra gogoraturik (*Holan berba*

egiten badozu, sermoi askorik ez dozu egingo – Egia ez da ala? – Egia antzina kurutzifikatu eben; gero bera biztu zen, baina egia ez dakit, ba, bertan geratu ez ete zen), pentsamenaren beroenetik hots egin diot: Ene Luziatxo! Begiak atera eutsuezelako bazara ikusmenaren zaindari, horixe eskatzen deusut orain: ateraiezuz begiak denei, neu nonon salborik aurkitu arte. Motorra eskola ostean itzungi dudanean, txakur-aldra baten zaunkak geratu dira martxan; horrek ez nindukeen bereziki kezkatuko, abadearen atera irteten, ama ez dela, arreba imaginatu ez banu. Eta bera lo, aita-amak eta etxeakoak uzten ez dituen ez da nire duin delako pasarte ebangelikoari potroak hazkatuz. Hara! Badakizue zer egingo dodan? Batean zein bestean, suberteak erabakiko dauenez, hobe joat neure etxerantz zuzen jo. Han behintzat atea zabalik egongo dok.

Berriro motorra abiarazi eta ahalik suabeen aldentzen naiz. Santa Luzia parreko bihurtunean, ezentrikotik ala ezinetik gehiago daukan ez dakidan buruera bat heldu zait, baliagarri ere izan daitekeena, begi guztiak aterata ez badaude, zeren, hala egotera, ez al naute hobeto ikusiko? Ordezko hortzen ondoan, begiak uzten ikasi zuenak gaueko berri majo jasotzen zuen, berak lo egin bitartean.

– Begiak hortzekin utzita, lo zegaz egiten joan?

– Begi bat uzten joan, eta besteagaz lo.

– Eta bitartean hortzak hozkailuko jenero guztiak jaten?

– Horixe ez joat inoiz pentsatu, baina egia izango dok; inoiz hozkailua aurkitu izan joat goizean hutsik.

– Ohera aurretik ez heuen heuk jango?

– Burua sartuta egon nintzoan, baina freskatzearren bakarrik.

Motorrak manilarpean itsatsita daroan poltsa handiak ernarazi nau. Dokumentazio eta erreminten zorroaz gainera, kremaileradun atal nasaia dauka, non jenerorik ezberdinenak sartzen ditudan, batzuetan denak batera: gabonetan etxera eramateko opatu didaten lapikokada marraskiloa; eliz liburuak eta ez hain elizakoak; Txit Santuaren urrezko ontzitzoa, hilaren lehenengo ostiraletan, baserrietan sakabanaturiko gaixoak zerbitzatu behar direnerako; ostiagaiak eta meza-ardoa; umeekiko mendi irteeran, hantxe sartu eta ateratzea

ahaztu zitzaigun arropa izerdituak eta otarteko hondakinak; bateko eta beste fotokopiak tinta-jarioan, tartean ilegaleen bat ez ote dagoen inoiz seguru egoten ez naizenak. Poltsaren hondoa bihurkinez zulaturik (ez kostatzen gabe, barrabana!), bainujantzi gogorra eta latza ateratzen da. Hanka bakoitzarentzat zulo banatarako tarterik ematen ez zuenez, minigona gisan egokitu dut gerrian, ondo kostata hori ere, estu-estu, lakar-lakar. Motorrean esertzeko okertzean, kremailetan giltzurrunak zerratu nahi dizkit. Potroak-eta (eta zer?) airean geratu dira. Zoritzarreko inkontruren bat gerta baledi, ustezko ezbeharrak konpontzeko zintzotasun aszetikoa aitortu beharko didate behintzat.

Lekeitio erdi-erdiatik zeharkatu beharrak ez nau hainbeste beldurtzen (nork ezagutu behar nau biluzik, burua parabrisean itsatsirik, badaezpada kentzea erabaki dudan betaurreko gabe? Gehienik ere pentsatuko dute: *Makarraren batek Gizaburuagako abadeari motorra ostu jeutsak*), guardia zibilaren kuartel aurretik nahitaez pasatu beharrak baizik. Han ezagutzen dute, noski, Gizaburuaga eta Amotoko abadearen Lambretta gorria, nahiz eta gaur ez duten izango argiaren kontrako bereiztu-ezina gaitzen duen sotana-barren solterik, hanka artean ahalik gehien batzen ahaleginduta ere, haizeak zabal dezan eragozte ia ezinezkoa dena bera. Angula gutxitxo harrapatu badu, bidaia kakote ederrez hornitzen duen Milloiko 'Kalabria' naizela pentsatuko dute, zeinari alto ematea arrisku-tsua den, ez baita segurra, geratzen bada, berriro motorrean esertzeko gauza izango den. Edo beneméritoen borondaterik onartuko duen, behin esan zienean bezala: *Ez, ez! Zuek eroan naizuen baino gurago dot kuartelean lo egin*. Bazeramaten derrigorrean, eta Oletako bidegurutzean, haren parajerantz hartu zutenean, eskatu zuten: *Itzi naizue erreka barrenean. Hortik oinez joango naz – Fardelen bat daukake etxean ala? – Ez, jauna, baina ezin dot etxera honelako sustorik eroan*.

Nire azkenekoa fortunosoagoa izan zen, kabuak 'itxoin hemen' agindu ondoren, sarjentoari pasilloan honantz, zapaten bainoago oholaren meritua zela nabaria zen oin hotsekin batera, entzun nionean: *Utzi neuri abadetxo errebelde hori. Motorra ondo arakatu al diozue?* – itaundu zien gero neure bistan laguntzaileei-. *Bai, jauna. Ez dugu ezer ilegalik aurkitu – Ez, eh? Egunen batean aurkituko diagu, ba – Bila eta aurkituko dozue, gaineratu nuen, ez aldean ez kalkuluan ezereen kargarik ezaren lasaitasunez, trantze egiazki larrietarako patxada en-*

tseiatzen ahaleginduz.

– *Zu isilik, neuk galdetu arte!*

– *Hemen ezin al da ebangeliorik aitatu?*

– *Hau ez da Gizaburuaga edo Amorotoko pulpitua... aita!* (Hitz honi eman zion hartarako ezgai banintz bezalako tonuak mindu ninduen, baina betoz zartada psikologikoak –pentsatu nuen–, besteak saihesteko diren bitartean).

– *Zueri be nire sermoiak interesetan ei jatzuez.*

– *Interesatu? Habitu kondenatu hori daroalako, niri ez dit abadetxo batek barrabilarik igurtziko gero!*

– *Badaukazunik be ez deusut galdetu.*

– *Auzia alderantziz ulertu duzula uste dut. Gainean da eguna, sotana horren azpian zer dabilen xeheki konprobatuko duguna.*

– *Oraintxe altzetako be ez daukat eragozpenik.*

– *Niri, maitale pulkroari bezala, lagunaren prendak neuk erantztea gustatzen zait, azken aurkikuntzak beroturik harrapa nazan.*

– *Nik ez neuke espektazino handiegirik garatuko. Beletik muskerrera aldea salbu, nire eta zure uniformeen azpian, txakiltasun bardintsua agertuko da.*

– *Hori ikusiko dugu. Itzul dokumentuak eta doala!* –agindu zien numero menpekoei (jerga matematikoa berton). Kuarteleko atalburutik kalea zapaltzera nindoala, atzean entzun nuen: *Hurrengoan, larrua preparatuta ekarri, badaezpada.*

Lekeitio erdiko bidegurutze perpendikularki ebakian, norabide fatidikoki obligaturantz okertu naizenean (*alperrik dok, Gernikatik bueltan, Munitibarren behera saia naiten, han be kuartelaren ahotik pasatu behar joat eta*), liskarrean ziharduena txakur-aldra batek atzetik derrait, ezagutu nautelako baino gehiago, alga usainak erakarrita segurrenik; horrek animatu egin nau, txakurren libertateak gizakumeen erretira berresten duela ulerturik. Berrogeita hamar metrora, kuarteleko piperpotoa bistaratu zaidanean, atean inor ez hautemateak ez dit larritasunik bigundu, ia parean zoazenean, zapla irteten baitira bidera. Argiak itzalita pasatzea ere bururatu zait, aurrerik hartu ezin zaion ikara handikorak iradoki ohi dituen zentzugabekeriarik dibertsoenen artean.

Azkenean (beti izaten da azkenean), Lambretta gorria, kuartel berdexkatik hiru metrora, ez hotz ez bero pasatu zen, hilkutxa bat defuntuaren betiko

taberna aurretik elizarantz abantzaten den bezain segur, nire kasuan itzultzeko itzaropenez. Herri bateko punturen batez galdetzean, zaila da elizaren erreferentziarik eman ez diezazuten, nahiz eta herri handi samarretan, haren ondotik pasatu gabe, tokirik gehienetara irits zintezkeen. Kuartelik ikusi gabe ere ibil zintezkeen herrigune askotan, baina nekez egingo zenuen herritik herrirako biderik, kuartelen baten aurpegiaz larritu beharrik izan gabe. Hilerriak hurbiltasun airoso baina diskretoan bizi baziren, kuartelik bazterrenak ezin zuen aurkitu traban ez egoteko modurik. Apropos kokatuak ziruditen (estatu-auzietan, dirudiena bai da, badenik ez dirudi beti baina), bat sahiestu izanaren pozak bestean erorraraz zintzan.

Berrehun bat metro harago, Arrapaingo bihurgunean ezkutatu nintzenean, Lekeitio osoa atzean utzi izanaren euforia lehertuan, neure hanka kikilduak haizeari zabaldurik ehunda hogeita zazpi graduako urkuluan (gero etxean exaktoki neurtu nuenez), esku ezkerak esaten ari nintzenari lagunduz eta eskuinak azeleragailua topera estutuz, *hartu eizue poparen popatik!* –orro egin nuen–. *Orain ez jeustak ardura motorra aberiatuta be; errekatik ailegatuko nok abadetxe azpiraino, bide batez, butroe furtiboei kordelak ebagi eta hareek be popara bialduz.* Oletako konpromiso-gunea (hiru jatetxeko bidegurutzean ez dago ezusterako ordu inhabilik, kontrol intenpestiboak barne) inkontzientzian bainoago aurreko pozaldiaren jarraipenean igaro nuen. Behin Gizaburuagako elizalde txikian, neure eremuan, bat-bateko abade-premia urgenteren bat atean zain aurkitzeko beldurra motibo gabea izan zelako azken lasaituan, elizako bizilagunari, pasaeran, *eskerrik asko Herodesengandiko ihesak nire estualdia ulertzen lagundu deusun horri* mentalki hots eginik, eta ohiki giltza gabe zegoen atea motor gainetik martxan zabaldurik, harrapariaren jazarpenetik uretara doi-doi iritsi den urtxakurra bezala (bai dela seta bitxia sentipen direktoak ezagutzen ere ez diren ustezko analogiekin esplikatu nahi izatea), abadetxeko ilunean murgildu nintzen, ihesbide konbintzenterik ezak hainbeste aldiz ito ninduen bakartasunean gordeleku inbiolablea aurkitzeko.

Azkenean, edozein okertze txikik ondorio inprebisibleetako episodioan bukaraz zezakeen pasarte hori ere neure erreserba eskusiboa anpliatzera dator, nondik askotan porrotera eta gehienez arrakasta intzertura kanpo-

ratu beharrak ez didan kentzen nahi dudan guztian bertara itzultzea; ez bakarrik oroitzapen sekretuki neureen, literaturarentzat ere inpenetrableen, bai-zik zorion-puska presenteen sortzaile ziur horretara. Nire neutasun inkonfesablea osatzen duten egiteen segida amaigabe eta kanporaezin horientatik ez balitz, ez nuke askatasunaren noziorik izango, ez bainuke beronen eremu inbentzibleki errealik ezagutuko; hots, ez bainuke neure buruaren kontzientziarik ere izango. Jabeagandik bereiz, itsasoak jitoan daraman sotana soil bat, kasu, zeina ziurrenik urak itsas bazterrera, beharbada Lekeitioko portura, itzularaziko duen, eta zeinean, zabalduko diren esamesa morbosoen artean, Gizaburuaga eta Amoritoko abadeak ere tarteko beharko duen, nahiz eta gehiago izango den akusazio gremial bat, non bakoitzak bere desbegikoak larrutzeko eta begikoak defendatzeko dialektika osasungarria gara dezakeen. Prakenak gehiago kezkatzen nau, kartera eurek baitaramate dokumentu eta guzti. Beharbada, paper konprometigarriren bat ere bai. Itsasoak ondo laskiturik entregatuko ahal du. Potinen batek tratatik jaso eta zaborrera zuzen botatzea ere itxaron daiteke; edo aurkitzailea ez izatea gorroto nautenatarikoa, hauek, gehienbat, lehorreko masta-puntan ibiltzea maite dutenak izaten baitira. Hor konpon! Problemari azaltzen denean bakarrik aurre egiteak alferreko sufrimendu asko ekiditen duela sinesteak, eta arrisku erreala hainbat posibilitateren artean zatitzeak, uneko plazerrari intentsitatea ere erants diezaioke, zeinaren osagaiak lirartekeen iraganiko larritasun onez amaitua eta gerta litekeenaren aditasuna.

Badira uneak, non neure buruaren pertzepzio hain totala daukadan (programa fribolo bat ikusiz gerta daiteke), ezen beste uneez balio oro galduko luketen, aitortu behar ez banu, gehienbat, ia orobat, beste une horiexek naizela. Ardurak betetzen bizkorra naiz, ez arduratsua naizelako, ardurak bizkarretik kentzearen baizik; era atraktiboagoan esanik, desarduraren askatasuna sentitzearen. Askatasuna alegatuz gero, ondorengo guztia bidezkatzen dela dirudi. Bertsolari baino poetago naizela entzuteak loriatuko ninduke, debaluatzearen diotela sumatuko ez banu. *Bagarela, bagarela, hamaika lekutan egoten gozak sopra, gaur hemen legez – Pentsa zelako arrakasta, sopra gagozen lekura be deitzen badeuskue!* Ez da erraza zergatik idazten dudan jakitea, zeren, neure buruarentzat egiteak zentzurik ez badu, ez dauka handiagorik askorik

interesatzen ez zaizkidanentzat idazteak. Garbiegi ez daukadan zerbaiten kontrako mendekua izan behar du, garbi ez daukadan zerbait berri nahia ez bada. Auziak ez nau gehiegi arduratzen, ulertzen ez dudan beste hainbat nahikariz egina bainago. Eta zer? Nahikaria bada, hain zaila al da nahi izatea?

Gure etxetik, horizontea parean edo beherago ikusten zen. Horrek, munduaren dominatzaile baino gehiago (pretentsio pentsaezina, beldurrak eta saldukeriak edonondik jotzen zuten garaian), munduarentzat harrapagaitz sentiarazten ninduen; ez zen berau domeinu txikia. Dohatasun neurrigabe horrek ez zuen kentzen sakonune batetik horizontea gorago ikusteak, egunsentian edo ilunabarrean, agerpen jarraigarri baten zirrara eragiterik, etxerantz, noski; nire edertasun-esperientziak beti etxera bidean gertatzen dira, pozak kontenplazioa eraldatzeko duen eraginean. Une horietan horizontea ez zen marra ilusorio bat, begian bakarrik existitzen den figura bat (zertarako behar da existentzia gehiagorik?), etzantasan biziduna baizik, nondik zaldi baten irudi beltza (koloreak bereizteko adina argitasun ez dago) lauhazkatzten den, Mozarten honako melodiaren gainean:



Zaldi gainean neu noa eta melodia izter artean sentitzen dut, zirrara jarraikor eta etengabeki berrian, nahiz eta beharbada kaikukeria bat esan dudana; zirrara, mina bezala, izatea zeharkatzen duen sentipena izanik, ez daiteke badeno zahar, edo rutinario bihur. Batzuetan, zaldia bakarrik doa, ezin baitut batera zaldun eta begiratzailerik izan. Bat-batean, etena gertatzen da, zirraran suspentserik posible bada, zaldia horizontean, ez dakit harantz ala honantz, ezkututzen



eta berriro agertzen denean (idem). Egia da irudikapen horrek zirrara ederragotu egiten didala, baina ez, sarritan, zorte emankorra lagun, melodiaren beraren gainean muntatzea lortzen dudanean adina, neu zaldi, neu horizonte naizela. Ez dit ardura Mozarten pertsona apur bat xoraldatzat aurkez dezaten, miserian hil zela jakiteak penatzen banau ere. Haren inspirazioak zorabiltzen nau, eta zorte hori ez zuen berak ere izan, gizajoak, jenialitate bat barneratzerako, beste baten gainean baitzihoan. Luzaroago bizi izateak ez ziokeen gaitz hori handitu besterik egingo. Eskerrak gazte hil zen, bestela ez baitzuen ezer egingarririk utziko.

Non eta nola agertuko ote zen kezkatu-rik nengoen sotana, azkenean, pentsa nezakeen eskurik xarmagarri-
nietan jausi zen. Lekeitio aztoraturik zebilen, itsasotik harako ahalmenen batek burua sorgindurik. Aparteko jaramonik ez niokeen egingo, itsas herrietan horrelako aldikadak bizilege direla ikasia bainintzen, tala muturreko faroaren oinetan sirena bat agertu ez balitz, sotana zabaldu baten gainean. Gogorik sinestunenei ere ez zitzairen Ama Birjina izan behar zuenik bururatu; hau beti lehorrean oso barrura agertzen ei zen, artzainei eta horrelakoei; kresala lasziboa izan daiteke. Konturik handienez, urrats bat besteagaz ezkutatu-
tuz, ur bareko algak bezala hurreratu zirenean, izaki miragarri hark ez zeukan uretara eskapatzeko asmorik; harritu ziren, esergarritzat sotana bat zeukala ikustean. Sirenak sotana haren jabea nor izan zitekeen galdetu zuen; lekeitiarrek erantzun zuten hura ez zitekeela herriko ezein abaderena izan, sotanari hala galtzeko baino atxikiago zeudela eta. Ba ei zen kasu bat, neskameagaz lo egiteko ere erantzten ez zuena. Alberrietan ere zaila zen bestelako kasurik, susmagarria izan zitekeen bakarra, Gizaburuaga eta Amoro-
toko abadea, aspalditik baitzebilen trajez eta lepago-
raz. Sirenak Lekeitioko portutik eta kalerik luzeenetatik pasatzeko gogoa azaldu zuen, sotana bedein-
katu haren jabea, bere edertasunak ez bazen, bere lurrinak erakar zezan, eta eskatu zuen ea pasearaziko zuten kaxarranka gainean, ez hainbeste bere ger-
rri-
z beherako arrain gorputza lurrean tatarrez maluska ez zedin, baizik halako goieratik, interesatuak bera barik, berak hura ezagutu ahal zezan jende ar-
tean, denen aurreko lotsarira aterako ez bazuen ere. Lekeitiarrek, dirua au-
rrezteko baino kaxarrankarako beti prestago, laster antolatu zuten ekipo osoa, dantzariak ez ezik, arraunlari mordo-
a, eta halaxe, denak ortozik eta bi arraun-

lerroren erdian, sotanaz estalitako kaxarrankaren gainean erabili zuten Isuntza izeneko sirena, honako melodiaren, aireak bere kontura ateratzen zuen sonoritatearen, azpian:



Prozesioak herriaren erdi-erdiko bidegurutzean beherantz hartu zuenean, aurreko espaloietako jende artean, neuk ere, Lekeition zer misterio berri ote zen jakin guran sartu nintzenak, burua makurtu nuen, kaxarranka gaineko izaki liluragarriak irribarre pertsonala egin zidala iruditurik. Denak kaxarranka gainera begi zirela, eta neu ere, buru makurra salagarri gerta zitekeela pentsaturik eta jendetzan nahasturik, bururik tenteenez eta tarkeka behatz puntetan nindoala, kalean behera jarraitu genuen, melodia honen azpian:



Azkenean, nork esango, nire sotana neuretzat amesten ausartu ez nintzen duintasun mitologikora iritsi zen. Oraindik baliteke neuretzat ere ez izatea guztiz berandu.

Euskal melodia horretara beti saltatu izan dut oraingoan alderantziz egin dudana Brahamsen honetatik:



Lezaundietako haitzulo deskomunalean gaude; bertan bizi da, haitzean markak egiten hasi baino askoz lehenagotik, zibilizazio oso bat. Gure geneen sen gisan bakarrik gelditzen zen memorian, suposatzeko aztarna edo extrabagantzia izan dugu ezen pertsekuzio esterminatzaile batetik ihesi babestu ginela lurraren golkorik sakonenean, eta kanpoaldeak jada bareturik egon behar duela jorik, mezezi lukeela berriro argiaren edertasunera irten gaitezen. Abiatzea erabaki dugu, haitzuloaren bi aldeetako hormetan isioturik dauden zuzien artetik, atzekoek azkenak jaso ahala aurrera pasatuz:



Bagoaz pasagune estuetan, denboraren izaera longitudinalala errepresentatuz, eta ez dakit zergatik dakusdan beti elefante bat martxaburu, animalia hori sekula ez baita harpetarra izan, irten gaitezen animatzera sartu ez bada, bere mole onpuskaren kontraste nabarmenagorik pentsatzea zaila den tronpa enpagosoagaz aurreranzko seinaleak eginez. Beharbada, melodia horri itsatsirik datorkidan errepresentazioa ez da Brahmsen sinfonien inpresio abismala besterik izango, non, baxuen magma trinkoaren gainean, masa musikalak mugida orogenikoen antzera garatzen diren, euren kontudentzia presagabean, goraguneak eta beheraguneak efektu sekundario bezala eraginez.

Kafea gozo joan da bere zintzurretik, lurrin guztia kanpoan utzita. Zigarroak ere, kearen atzetik, osorik irentsia izan nahi duela dirudi, hatz pareak ezpainen kontra eutsiko ez balio. Bigarrena astiroago eta ohartuago joan da; hirugarrena, izerdiari pasada bat eman ondoren, ondorio guztiekin erretzeko aldarlean nagoela uste dut. Hartzen dudan plazerrak ez ahal du osasunarentzako kaltegarritasunik etengo, ea berez hiltzeko zentzugabekeriatik libratzea lortzen dudan. Eskaileretan gora, lehenengo zortzi mailak harriturik igoz noa, eskapatu nahi didan gorputzari ozta jarraituz. *Nora hoa, to! Txapligua nazela uste al dok?* Truinean biratu eta bigarren zortzikoari heltzean, oster, gorputzak atzerantz tiratzen du. *Lehen gora eta orain behera? Hiri gertatzen jaana nigaz ez doala ibili gura, eztok? Tentel jartzen bahaz, bertan itziko haut luze. Tirok! Goazek polito-polito, hi barik ezin joat biagorik egin eta. Heuk be ni barik ezin dok ardan-degirik topatu, horretarako jaitsi gura badok. Gainera, jausi egingo haz, eta ni ez najagok orain inor altzetako moduan. Eta, gainera, hik uste baino argiago najagok; handaze, ez eik ni engainetako plantarik egin.*

Mozkortu eta txizaginan, bi upelen artean: *Urten egiten jok! Mirakulua nok! Uuhuhuu!!* Soineko bat probatzean, zergatik tentatzen dugu ilea? Bularrak edo hankartea, tira, baina ilea? Gau batez, bazterrean aparkaturiko auto baten leihoa tak-tak jo nuen. *Laguna non dozu?* – *Itziko al deustak lehenik neurea egiten?* Bakarrik zegoen. Zertan? Ipurdia garbitzera zoazela, kakarraldo bat bertan

aurkitzea bezala izan zen niretzat. Txakurrari kanpaia joaraztea erraza da, baina kondoi eta guzti, ez hainbeste. Eh, Txurtzil? Segurrenik, bakarra naiz hori bururatu zitzaiona, pauma ireki baten aurrean. Zaila da pauma emeak hainbesteko edertasuna behar izatea, naturak aurreikusi ez balu arraren marru dezepzionantea konpentsatu behar zuela. Dohatsuak badira animaliak (txakurrak, esaterako), euren zakila xurgatzeko gai direlako, zer ez ote dira izango, naturarekiko zor guztiak gozatutakoan, arra jateko gai direnak? Maite dut manifestazio horietara joatea, non gomazko pilotaren bat beti harrrapatzen dudan, txakurrari ekartzeko. Paternina urdina. Bakarrean mozkor-tzen bazara, mozkor guztia zeuretzat da.

Honelako kasuetarako estutxoegi egin genuen pasilloak komunera narama zuzen. *Onena jesartzea izango dok, azartatu ezinik ibili barik.* Botila bat ardo edan dudan lehenengoa ez da, eta uste dut ziur esan dezakedala ez nagoela moz-korturik, ez mozkor guztiek, hitz egiteko gauza diren bitartean, horixe esaten dutelako, egoeraren elementuak argi ikusten ditudalako baizik, normalean baino areago. Gertatzen dena elementuak mugitu egiten direla, euren ale-grantzia kutsatuz. Niretzat benetako mozkorra ez da neure txahalaren gai-nera zerraldo jaustea (orduan amaitu da dena), soinean hilkutxa bat, hila barruan dela, neuk bakarrik eroatearen sentsazioa baizik, non egiteko onena norbera ere hiltzea den, pizkundearen itxaropen inkontzientean; alfer-alferreko esperientzia, biharamuneko txakur zuria salbu. Elegantea bes-tea da, gorputz hegalaria (alboetarantz) eta adimen zernahikorra sentitzea, dela arrazionalista jartzeko, zein enpirista, idealista, errealista, mortuetako predikari, gerezi-lapurretako teknikari. Eta ohe gainean etzatearen plazer guztia sentitzeko gauza izatea, larrugorritan eta begiek ilunetara proiektatzen duten unibertso dizdizkariaren lilurapean, zakila tente-tente, gogorra-ren gogorrez min egin guran, ea berari arreta apur bat eskaintzen zaion; egoerarik berezietan ere, bere airera beti.

Unibertso dizdizkaria esan dut. Hain zuzen, oraintxe otu behar inoiz ikus-terik lortu ez dudan iluntasun totala, belztasun purua, derrepentean ikusi behar dudala. Ez dateke erraza. Batetik, ezinezkoa da gela bat guztiz ilun-tea, argitasun beroak kanpotik halako presioz sakatzen duenean, nola otso

aldra hegalaria batek (hemen badirudi gaur denek hegan egin nahi dutela), barrura guran. Kontraleiho irekitzen deskuida banadi, begiak aterako dizkide. Argia ez da, noski, izaki biolentoa, baina gezurra dirudi, hain elementu miragarria eta desiratu izanik, kontra egiten zaionean, nola izan daitekeen hain temoso, zirriturik ezerezenetik eta norabiderik inberosimilenean muturra sartzeko. Ala sudurra? Zer ote du luzeago argiak? Bere lagun ura, oster, hain da subreptizioa ezen, beragandik guztiz inpermeabletzeko sistema aurkitu duzunean, gorputzetik erioten zaizun. Begiak itxi ditut eta ez nago ilunago. Zenbat eta betazalak indartsuago estutu, bekokiak eta matrailek ia bat egiteraino, hainbat argitsuago dakust iluntasuna. Argi-ontzia ote naiz? Noizbait ikusiak ditudan zer guztien irudiek, ostetik denak batera pantailara agertu guran, artxipelago bertikala osatzen dute, non ez baitakit ziur batzuk kolore langidoko, beste batzuk biziagoko diren irlen sare bera ez ote den fondoko belztasuna dirudienaren flotarazlea. Berdin iruditzen zait apaburuz jositako urmaela, mardul ari duen euri-istilak harrapatzen, nola kuartozoko harkaitz erdibituaren aurpegi pixka bat fosforeszentea, granitoa ere esan nezakeena; ez bataren ez bestearen barruan ez bainaiz egon, hobe fosforora zuzen jo banu, begiak erreko zizkidan beldurratetik izan ez balitz. Batzuetan, figura geometriko handiak agertzen dira, irudi txiki etengabe aldakorren aurrean ala atzean dauden erabaki ezin dutenak, ertz ez zehatzegiz, beste forma batzuetarantz errazago transformatzeko. Begiak zabaldu ditut eta ez dut alderik igartzen.

Gauza itzelak ikus nitzake, zakila ikusmiraren pareraino luzatzen tematuko ez balitz, eskuek ere apur bat laguntzen diotela. Ez da temperatura bakarrik hainbeste motibatzen duena; orpoan eta inguru bilotsuan hartzen dituen ferekei gorgoileraino bidaltzen duen kili-kiliagaz erantzuten die. Zer gertatzen den ikustera pozik makurtuko litzateke, hodiegan leher-zoriraino pilatu zaion odolak atzerantz begiratzen baleki. Zezena horrexek galtzen du. *Hemen denak joan dozak, hi! Nire lagunak eta hireak be bai. Aurrerantzean, heuk jakingo dok zelan konpondu, parasito irremediable horrek. Azkura batzuk egingo deudaz, baina hortik aurrera heuk egin beharko dok dena.* Fereka distrahitu eta mekaniko samarrei legokiekeena baino mugida handiagoa bertan abiatu den tripa-barrena zentzumen guztien arreta koordinatua eskatzen hasi denean, bi eskuak gurutzean

zabaldu dira ohean, gehiegi inplikatzetik jaregin guran. Nire buruko pentsakizun ez ugari baina elkar topatzea kostatzen zaienek, eta batez ere zintzur oinuan nabari dudan larri-puntuak, oraindik korapilo bihurtzen ausartu ez arren, txistuaren irents-kolpe maizkorrekin gurutzatzean, epiglottiak edo dena delako bidelapurak gorantz pasatzen uzten ez dionak, baita konfiguratzen hasia den logurak ere, kontzentziora bainoago abandonora tiratzen didate. Gorputzak, ostera, biriketarik beherakoak batez ere (arnasak goialdeagaz lotuago dirudi), sarritan independentziari ematen dio, edo ganberrokeriari beste gabe, tentsio orokorrari albo eginez, edo jakinki desafiatuz: *Burua apurtu gura badok, ekiok, baina ni ez sartu nahastean*. Agindu inozente hori subjektuaz jabetzen joango da, eta berak, lurralde askatu ospatzaile ez ezik, konkistari hutsezin gisan jokatuko du, zenbat eta inguruko depresioa sakonago izan, hainbatago gailentzen den tontorra bezala. Orduan, subjektua neu naizela ohartzeko gauza banaiz, gorputza errekonozitzen ere ez dudan arrotza da, gainera oldartu zaidan martzianoa, zenbat eta osokiago menperatzen nauen, hainbat eskertsuago errenditzen natzaiona, hegaldi migratzaile batean, gorputz lumatsuan inbisibletu den burua bezalatsu, premiak konfiantzari eman dion temeritatezko irudirik brutalenean.

Egia da gorputzak badakiela gogoaren menpean jartzen, hondaldian batik bat, baina susmoa daukat askotan ez dela giza izatearen batasunari arrazoi emateko izaten, gogoari bere derrota hain guztizkoa ez dela sinetsarazteko baizik, gorputza arrastatzeko ahalmena baduela ikusiz. Egoera hori sinesgarria dela pentsatzen hasteko adina finkatu deneko, gorputzak gangarbidetik ihes egin dizu, gogoaren unean desolatuago utzirik, baina, aldi berean, norabide bat badelako itxaropenez, zeina azken galtzen dena izateko arrazoia ez den besterik gorputza egoeraz aldatzen dela baizik. Orduan, itxaropena da ezen aldakuntza, txarrera bezala, onera ere ez izateko argumentu definitiborik ez dagoela, heriotza salbu. Baina heriotza ez da kontzientziaren objektu. Beraz, bera ere onerako aldakuntza ez den argumentu definitiborik ez dagoela esan daiteke. Animoso bizitzeko motibo estudiagarria, besteak huts egiten hasteko beldurra denean. Nire oraingo kasua ez da itxaropen kontrajarrien dema, gorputzki batek gorputzetik alde egin guran dirudiela baizik. Hiru gara tarteko, eta hirugarren horri 'anaia txikia' deitu ziona edo ez zen neurtzaile ona, edo

etxean ez zegoenean bisitatu zuen. *Luzatu! Geratuko haz, sabaia jo aurretik – Sabaia ez da nire norabidea, baina gero ez esan abisatu ez deutsudanik – Norabide debotoan hoala esan gura badok, antzina kendu najoan kurutzea oheburu gainetik. Ala beste zeozer abisatu gura heuen? – Zuk egin lo trankil.*

Gomendio hori, nire lo onaren desiratzat baino gehiago, bitartean zerbait gerta litekeen abertentziazat hartu dut, neuk ere belarriosteak belarrondokoak hartzen hasi aurretik soilduak baitauzkat, lagun bati entzun nion kasuagaz. Inoren etxean lo egitea, arreta eta garbitasun guztiekin, urduri puntuaren intentsitatea gehitzen zitzaion dohatasun mundanoa bazen, hori bera, artzapezarenean, ohore dibinoa izan zitekeen, hogeituro urteko apaizgai batentzat lehenengoa behar bada desiragarriago baina. Goizean, kasik bere leiho-burutik zetozen albako kanpaiek iratzarri zutenean, bustitasuna nabaritu zuen kastitatera destinaturik zegoen eremuan. Izara-mantak albora jaurti eta ikaraturik jaiki zenean, plastoia aurkitu zuen ohe zuriaren erdi-erdian, lehortu ahala, kolore lizunagoa hartuz zirudiena. *Behin, Txit Santuaren argiontzia iraultzen deskuidatu eta altarako estalki zuriaren gainean zabaldu zen orio mantxaren antzekoa, azaldu zuen. Oheburu gainean zegoen (han bai) gurutzeari Jauna, zuk badakizu hau gura barik izan dena!* auhen eginik, lau hatzak gorgoileraino sartu zituen. Okadak eta karraskadak ugari, baina ez zetorren hura goitika izan zela pentsatzen laguntzeko materialik, nabarmenago jar zezaketen bilis-hariak baizik. Komunean aurkitu zuen bizar mozteko xaboiagaz ezer konpontzeko modurik ez zuen ikusi, usain barregarria zabaltzea besterik. Izarari buelta eman eta ohea eginda uztea erabaki zuenean, gaineko izara bustita, azpikoa ere bi aldeetatik berdin, eta koltxoia lingirdaturik agertu zen. *Nondik urten jok honenbesteko lorrinak?, lasaitu nahi zuen bere burua, bi eskuekin heldurik. Ohea, arrotz-ohiturak hautsita dudarik gabe, ahalik kuriosoan eginda utzi zuen. Sukaldean egun on opaturik, zelan lo egin dozu? – oso ondo, eta halakoan ondoren, artzapez neskamearen kafesnea saihestu zuen, abiatu beharra zeukala eta. Zartagineko gozo-gozoa atoan ipiniko deutsut – Eskerrik asko. Ohetik jagikeran ez dot goserik izaten. Gainera, lehenbailehen joatea komeni jat.*

Horixe egin zuen, arrotz batek lo egindako ohean ohitura izango zen izara-aldatzea artzapez neskameak ala abadetxean egun batzuk pasatzen zeuden (eurekin egotearen gozoagatik batez ere onartu zuen geratzea) bi iloba neske-

tariko batek egingo ote zuen arduraz. Xehetasunok ez baitziren inoiz argitu ez inork ezer intsinuatu (gutxienez, gaineko egunetan, artzapezak *zer zikinke-ria erabili heuen lehengoan gure ohe santuan?* kontu hartu izan balio, azalpen bat eman ahal izango zukeen, edo barkamen ulerkorra eta batez ere sekretupekoa lortu izango zukeen), betiko geratu ei zitzaion lotsari bat, kasuak zer bide egin ote zuen, edo agian oraindik ere egiten ari zen jakin ezin zuena. Lotsari hura bide, aurrerantzean, etxe hartako emakumeengandik dena hartzen zuen hitz-erdi edo begirada-erdiat, maleziarantz ala inozentziarantz osatu behar zuen sekula ezin erabakiz.

Oporrean etorri arren, behar apur bat eragingo deutsezue nesko, ezta?, itaundu zion behin artzapez neskameari, zeinak orokortasun airean erantzun zuen: *Lantzean behin oheak egin, korua garbitu eta horrelakoak. Dena jai izterik be ez jagok – Egun hare-tan eurak izan baziren ohegile, biak batera gainera, a zer txitxia-saltsa aurkituko eben!*, pentsatzen zuen kezkatu, abantaila remoto bakarragaz ezen, beharbada, eurek ere desira-puntu bat sentitu izan zezaketela, hartan deskuidatu zen gorputza (nork jakin nahita aritu zela pentsa zezaketena), sotanapean guri-guri kontserbatua, beste modalitate batzuetarako ere eskuragarri egon zitekeelakoan. Inoren kasua izateak, sarkasmora lagundu beharrean, gehiago larritzen ninduen, de-lako subjektua neu izatera, zer ekimen burutu izango nukeen pentsatuz, egintza bera ez bazen, itxura behintzat leuntzeko. Larritasunak lehen-lehenen gogoratu ohi didana ekarri izango zidakeen orduan ere, marroia fisikoki irentsi edo izara jan, alegia, inoiz trenean, ez hain gaztetxotan, esku artean eta ahoan oharkabean lorrindutako txartela interbentoreari entregatzea baino jatea gurago izaten nue-nean bezala, segurantza totalaren senak emanik ezen, norbere nia garbi lokalizatu ezin dugun osinean, inork ezer topatzea ezinago izan behar zuela, doble ordain-durik eta denen aurrean lotsagarrikeriak entzuteko bazen ere. Izara orbandua irensteraino balioko ez zuen metodo hori beste larrialdi mota batzuetarako efek-tiboa izango zen geroago, uste gabeko (nahiz eta ez itxaron gabeko) atxiloketan, paper konprometigarriak ezkutatu behar zirenean. *Orain, gura badozue, produktua digitaltzea daukazue.*

Lagunak lotsaz eta lagun-mintasun handitzat kontatu zidan pasadizoak
unean bertan ohartu nintzen baino eskergarritasun sakonagoa izango zuen

(orduan gazte baino apaizgaiago nintzen, bestela, segurrenik, aurkitua izango bainukeen nasaibide naturalagoren bat), noizbait neuri gertatu beharreko kasu berdinak prestatuago harrapatu ninduenean. Izararik eta are gutxiago haraino ere likina pasatua zen koltxoirik irensten ez nintzen hasi, baina ba fingitu ahal izan nuen ondoez bat, inoiz seminarioan, hain ordu zentzuga-beki goiztiarrean eta eginkizun ez zentzudunagoetara jaiki beharretik eximitzen gintuena bezalakoa. Ohean geraturik, artzapez neskameari, lehenik, ezer hartzeko desgogo plantak egin nizkion, azkenean kafesnea onartzeko, gailletekin etorriko zela banekiena; beharbada, iloba neskek ekarriko zutena eta, nork jakin, ekartzeko desiratzen egon zitezkeena. Eskatu gabe etorri zen aspirina pareta hartzeko, gehienik pare bat zurrutada egin nituenean, basokada kafesnea eta 'Maria' gailetak, hemeretzigarren mendeko plater filigranatuan eta puntilladun ezpain-zapiz lagunduak, gau-mahaian geratu ziren. *Gerotxogo hartuko dot, burua apur bat arindutakoan*. Nik hori esanik eta burua mantapean sartzekoa eginik, laster utzi ninduten ilunetan, ate-leihoak ondo itxirik. *Hoberatzen ez bazara, goiz erdian medikuari deituko deitsagu*. Nire sendagaia orduerdi batera iritsiko zen. Dozena erdi gailetagaz, kargatu samar gustatzen zitzaidala neuk aurretik berariaz esan bainien, berez ere nahikoa beltz zegoen kafesnea, ia ore bihurtua, neure plasto zorionekoaren gainean zabaldu nuen, koltxoia ere ondo beratzeko moduan. Ohearen barren aldera izatea susmagarri gerta ez zedin, parrastada burkoraino ekarri nuen, gaixo erdi-zorabiatuak ohe ezezagunean hainbesteko deskuidoa izatea, ulergarritasunean ez ezik, maitagarritasunean ere sartuko zen itxaropenean. Nork jakin ezbehar harexek ez ote zuen eragingo, iloba neska haietariko batengan edo biengan, handik urteetara, ur handiago bihur zitekeen kinadaren bat. Horrelakorik ez zen noski gertatu, osorik behintzat, ez handik laster apaiztu nintzelako, artzapezaren bi ilobak neuk ezkondu nituelako baizik, baina tira.

Abiapuntuko gertakaria nire kasuan ez zen hain gaizki itxuratu, hurrengo non gertatuko ote zen kezkatik aparte, edonon ez baitzen artzapezareneko kafesne eta gailetarik izaten. Lehenengoa ezustean eta braust, hots, neure nahitasunetik guztiz at izan bazen, bigarrenak, alerta guztiekin ere noiznahi gertatuko zenak (loaren territorioan, norberea izan arren, ez duzu aginpiderik), askoz abailduago utziko ninduen, aukeran egintza fatala aurre-

hobesterraino, zigor eternal eta zer horien guztiengatik. Ergelkeria bat jaulki dudala uste dut, egintza fatalean kontrazentzua bailitzateke bigarren aldirik pentsatzea, zertatik atera behar den ezkontza ez dela hain maila supremoan kontsideratzekoa, praktika berrerorlea ugalduz doanez gero.

Pentsakizunokin lortu dut min egiteraino gogortutako zakila apur bat malgutzea, edo erreinu likidorantz bideratzea, tripa barrenetik gorantz bidaltzen dituen uhinkada desiros eta handikorren, diafragma geroz hanpatuagoaren kontra jo eta harripeetako plazerrei altxatzeko aginduz jaisten direnen izaerara bera ere apur bat egokituz. Une arriskutsua, esan nahi baitu odol itsua elementu labainagoari bidea preparatzen ari dela. *Zer asmo daukak?* –hots egin dut, zakila suabeki inarrosiz, igotzera noan madariondoari ihintza astintzeko bezala–. *Erretira itxura hori ez jatak bape gustetan.* Tripa barreneko uhinak zokondo guztiak ernarazten darrai. Artzapez etxeko arriskurik ez itxaropen indirektorik ez badago ere, ez dit bat ere graziarik egiten haurtxoa bezain melaturik itzartzeak, haize-errota batean (halakoa dirudi orduko arnasak) ala istil batean nagoen ez dakidala. Gorputzak, aharrasketa ito zoriraino esageratuan kontzentratzeko, bertan-beheratasun osoa eskatzen duenean, jaiki hadi lorrin hartatik, gerri bazterrak garbitzera eta prendak inork ez igartzeko moduan lehortzera, uretan pasada bat eman eta, multzomultzo, ikuzgailura zuzen sartzea hobe ez bada. Hori guztia auskalo zer ordutan, eta ilunetan, andrea ez dela itzartuko itxaropen gehienik banoan, nahiz eta bere aldetik sinesgarriri itxuratuan. *Badakik zer egingo dodan? Mozaltxoan ipiniko deuat eta gero heuk gura doana egingo dok.* Gau-mahaiko tiradoreko kondoi paketetxo atera dudanean, ‘control’ hitzaren logotipoa behingoz hain tristeria iruditu zait, ezen ez baitakit, bere lehenengo \mathbb{Q} erdi bana gainjarrian, goranzko geziak ala beheranzko gurutzeak errepresentatzen nauen; ez hainbeste neugatik, motiboak baditudala argi samar egon arren, baizik utilitate noragabean geratzerik merezi ez zuen predatxo lirain eta birginal honen beronengatik.

Ahalik kuriosoan ipintzen ahalegindu arren, lehendik gutxi beharrean zebilen txoriak kantuari laster emango ziokeen, pentsamenak beste egoera antzeko baina mingarriagoetara eroan ez balu, esaterako, hamahiru urte zituela,

pare bat urte zaharragoa zen lagun batek, ilunabarreko basobide bazterrean, prakak jaitsiarazi eta metxeroagaz puntatxoia erre zion hartara. Ez ei zion nahita erre, baina zerbaiten bila izango zen. *Elegante hago Ameriketako Pope Noelen txano okertu eta guzti* –diotsat, ilunpeak daragien handitze-ustez gainera, berez ere espeziez aldatua dirudien txoriari (*hau gutxienez pelikanoa dok*)–, *baina gauza bat otu jatak. Bakarrean egiteko beroturik habilen hori zergaitik ez joagu elkarregaz errematatzen?* Etorkizun inmediatean hain itsuturik dabil, ezen ez baitu ez baieztatzeko ez ezeztatzeko astirik hartzen, aurrera-kontua izan daitekeen edozegaz biziagotzen baizik. Bere borondatearen alderantz sekula kontraditzen ez nauen beste ni horregaz egitekoak egiten erraz dago, eta horixe egingo dut, inori esplikaziorik emanenik eza baliatuz, elkarrez beste interesdunik ez dela gelditzen dirudienez gero. Norbait gartsuki besarkagarria berehala eta puntuan ager ez baledi... *Buf! Hau badoala uste joat... bajoak... hoa, hoa!... korri!... joan dok!!* Arrapaladan, beti legez. Errekorren bat ondu guran legez. Atzean hutsunea gur-gur utzita. Artzapezik ere ez dabil.

Hutsunea laster bete da loz, zeinetik ez itzartzea desiratzen ez naizen auzartu, jaiki beharraren tribulazio indefektibletik libratuko baninduke ere. Ez dagoela libratzerik dirudi. Apendizitis terminala izan daitekeela pentsatzeak izuarazi nauen min bizi-bizi batek, prostatarena izan daitekeela suposatzeak erresignaziorik onartu nahi ez duenak, konorte intzipiente batera trasbasatu nau, itzarkeraren oharmenetik oraindik urrun, lotaldi hondogabetik azaleratu naizela doidoi sentitzeko; hain lotaldi luzea, bestalde, ezen ez baitakit gizakide guztiak banan-banan ezabatzeko adina denbora joan den ala, berdina baina totalago litzatekeena, neu naizen denengandik ezabatu naizena.

Zirkunstantzia normaletan horri heriotza leritzoke, elementu bateragaitzen esplikaziorik zentzuzkoena bera. Teoria sensitibo guztien aurka, oster, une honetako kontzientzia fetalak hartatik preserbatzen ez nauen minak urgenteki bizirik nagoela dio, zeren, gorputzadar moztuaren sentipenak handik luzera ere atzemana izaten jarrai dezakeen arren, ez da litekeena, akabatze totalaren ondoren, bere inolako oharmenak irautea, heriotza zorion-egoera perfektua dela atera nahi ez bada. Ez dut uste naturak (edo bere edozein pseudonimo jainkozkok) horrenbesteko zorterako hautatu izango gintuenik. Pen-

tsakizun lausoon lainope sargorian, komunean txizagintza estua (hain estua ezen, biderik aurkitu ezinik, burua horma kontrara jausi zaion gorputz okertutik etenka eta leher zorian turrustatzen baita, *azkenean, txizalarria izan dok dena!*) laxotzen eta mina arintzen hasi denean, hortxe ohartu naiz goizetik barik biagotik natorrela. Pentsakizun lanbro horiek egiak izan daitezkeela pentsatzeak berriro ohe gainean eratzan nau, jaikitzeke mugarik ezaren atsegin inpekablean flotatzeko. Atsegina bainoago atsegin guztien bilduma dela uste dut, neure adimena, abandono osoaren bainoago mugimendu ororen ez-premiari araberako ez-gogoak laguntzen dionean sortzen den alerta egoerarik goreneko arrazoiz inguraturik nagoela diostan hori, joko kanpoko mezulari iruditzeraino, argitasun kontenplatibo baina ezertara obligatzen ez zaituenaren atsegin erantsian.

Nire kinka, une begi-itxi honetan, auzi pentsagarri edo nahigarri guztien aurrekoa da: ez dut jaikitzeke arrazoirik bat ere ikusten, kaleak ipintzeke baleude bezala, edo trenak tuneletan hibernatzen; mundua gomuta soil bat besterik ez bailitzan; gelditu den zer tangible bakarra, radiografiako fondo atmosferikoan bera bakarrik bisibletzen den tumorea bezalatsu, ohea bailitzan, zeinetik jausten saiatzea alferrik den, ez baitago non kolpaturik. Era gizatarragoan esanda, insufizientzia sexuala. Ez daukat jaikitzeke barrabilarik. Goizean-goizean, areago, itzarkera bakoitzean, ezgaitasun absolutu horretantxe murgildurik aurkitzen naiz, gozo-gozo, gehienez ere deseroso egiten hasi zaidan posturatik abandono osoagora naroan beste batera aldatuz. Gozamen ohartuaz beste guztiaren anikilazio egoera hori, bost minutu barru, aurpegia garbitzetik berehala, bizitasun berriturantz eta dohatsurantz transformatzen hasiko delako oroimen estadistikoki hutsik gabea ez da inondiko arrazoi eragile, ezgaitasunarentzat leize berdin gaindiezinak baitira eternitatea zein bost minutuko tartea. Ezgaitasuna hain ausarta da, gainera, ezen, jaikitzeke aldetik krokodilo baten ahotzar irekia balego, ez uste beste aldetik edo ohadarretik ihes egingo nukeenik. Lehena onartuko nuke krokodiloa ohean sar lekidan, jaikitzea baino. Mundua konkistatzera bezala jaikitzen ei direnek ez naute bat ere bekaizten, nire orduko nahi bakarra mundutik alde egitea baita; horixe ere ez, horretarako ohetik jaiki behar bada. Doala krokodiloa! Ezin dut esan nire zera, loaren gauetik egunera jaikitzea, adikzio prenatalen bat denik ere umontziarekiko, nondik garrasika

eta ostikoka irten nintzen, belarrietatik eskegitako untxia bezala, *zelako antro aluan eduki nozue?* ulukatuz. Eskerrak hortzik gabe jaio nintzen, bestela ziur gure amak ez zukeela hurrengoaz erditzeko aurre-lanik konsentituko. Une horretan, itxaropen arrazional bakarra da, negua bada, egun zorrozki laburrak berehala dakarkeela gau oheratzailea, oheratzea bera ez balitzait jaikitzea baino gehiago kostako, hainbestean ezen ez baitakit jaikitzetik libratzeko senak uxatzen nauen oheratzetik, ala ez oheratzearen plazerrak jaikitzeko ezgaitasunean luzatu nahi duen, elkarren inbertsio direnik ere ezin suposatzeraino, ezin baitut plazer baten jarraitasunik kontzibitu, norabide berean ez bada. Nire pentsamen azkar eta gardena suak apur bat kiribildurik baina osorik eta letra guztiak argi irakurtzeko moduan utzitako papera bezain indargea dela esango nuke, beronen ukituz baterako ezereztea, bere irudikapen inposiblearen izate-rik hurbilena hautsa duena, faunegia ez balitz sentitzen ari naizen gozotasunerako.

Areago esango nuke nire pentsamena barazki igokarien zelai exzitanteki delineatua dela, zeina, bat-batean, zurkaitz inbisible guztiak desagerturik, frahetzaten den lurrean, frondositateak berbera eta trinkoago jarraitzen duela. Gertatzen dena da biziaren irudirik hurbilena den berdaro horrek ez daukala zutitzezko gogorik, pentsatzen dutenen kontra ezen tomatea, adibidez, nola izan daitekeen janari indartsua, bera bakarrik tente egoteko gauza ez bada. Areago oraindik, pentsamenaren frondositate etzan hori askoz anizkorrago bihurtzen da, pentsakizunen elkar ukitze estimulatzaileari ametsen sare gertaberriaren berkonposizio malenkonikoa gehitzen zaionean. Orduan, jaikitze arrazoirik ez ikusteaz gainera, arrazoi guztiak ez mugitzearen alde pilatzen dira. Ametsen ibilbide etenen, sentsazio exhaustibo baina irudirik heltzen ez zaienen; helaraztea lorturik ere, euren izaera aldatzeko bainoago kuriositatea baretzeko besterik balio ez dutenen azpi-korronte bateratzaileak bortizki tiratzen dizu irrealtasun hura gertatu den zelaira, sekuentzia gozoak izan badira, atseginean kuzkurtuz; kezkarriak izan badira, haien abiagunea liberazio gertaezinenaren ahaleginean deskonposatu guran.

Oizko tontorrean gaude, ilargiak itxaron ez digun orduetan, motxila bizkarean, zahatoa eskuan, egunaren zabalerako ikuspen handiosaren zain. Barna-

gaitz zirudien gaua hegal batetik, itsas aldetik, amore ematen hasia da. Ostean, andere egunsentia itzartzen ari da, nagiak ateratzen, garbitzen, apaintzen, zutitzen, bere mandatari eguzkiari agintzea erabaki arte: *Ager hadi heu. Ni bertonez etzungo nok bihar arte.* Hori guztia leun-leun, zabal-zabal gertatzen ari dela, argituz doan horizonte guztiaz handik, bera ere denerantz zabalduz eta egunari gorantz sakatuz, entzuten da:



Oiz tontorretik, hasieran oinetan genuela zirudien argi-soinuzko agerraldiak astiro-astiro inguratzen eta gaina hartzen digu, buruei gorantz tiratuz, zeruko urdinean nabigatuz, Wagnerren aurpegi formako hodei gorriska beltzez erremataturiko batetik entzuten baita orain:



Ez naiz edertasunaren adiktoegia izango, honen eskura neukan esperientzia berritzerako, urteak joan zaizkidanean; ez daiteke bigarreanean defraudaturik gelditzeko beldurratik izan, hori naturaren aldetik ezinezkoa izanez gainera, denbora joanari pilatzen zaion nostalgiak sentimena bizitu egiten baitu. Alferkeria ere esplikazio bulgarregia dela emanik, pentsatu beharko dut edertasuna, esperientzia pertsonala baino gehiago, neure harekiko exhibiziotik itxaroten dudan ederrespena dela, izaki ulertezina naizen konklusio kezgarrian jausi gura ez badut, segurrenik berau izango da denaren esplikazio baina. Orduan Bozkarioaren Odak salbatzen nau.



Ez dut aurkitzen melodia hori errepresenta dezakeen, edo berori haren errepresentatzaile izan daitekeen giza egoerarik.

Gogapen heroikoegira deskuidatu naizela uste dut, egilearen estiloak harripaturik, segurrenik. Orain, urguiluak ez baitit uzten baieztapena leuntzen,

ea arrazonatzeko gauza naizen. Naturaren bat-bateko mugimenduak, eboluzioa denbora musikalera transformatzeko baino ohartzeginagoa dela emanik, biolentoak direnez, katastrofeak alegia, ezin dut melodia hori asoziatu lurrikara bategaz, itsasoaren portu-irenste bategaz, eztanda espazial bategaz, zeintzuok, bestalde, uholdeak edo elurroldeak bezala, ez baitakit zertarako behar izan lezaketen euren berezko sonoritate perfektua minimizatzeko musikaririk. Animalien erreinura jaitsirik, edo igorik (ez dago argi norantz den gorakoa), lehorte luze eta indibiduo askorentzat hilgarriaren erdian, bere itxaropena ere galdua zen eurite salbagarria bide, sabanako fauna osoak espezie arteko etsaigoak elkartasun bihurtu eta ibairantz daraman martxa berpiztua, edo iritsierako murgilera zoragarria, ezingo nuke melodia horregaz akonpainatu, aipatu bozkario selbatikoa probisionaltasun antsiosegian gauzatzen baita. Oda horrek inspiratzen duen egoerak ezin du izan aurreko ezeren gainditze, ez ondoren intzertuari aurre egiteko potentzial. Giza esparru edo espazio materialaren zokondo marginal honetara mugaturik, berriz, gutxiago ahal dut, iragan urrunari denborak fabrikatzen dion izaera mitologiko eta guzti ere (hil-hezurrek badakite malbaz, ruinek untzorritz, krudelkeriek poesiaz janzten, mitologia ere giza miseriaren ederkuntza besterik ez den bezala), enperadore garaile bat, etsaia lur eta guzti errausturik, bere konbatienterik gehienak krokodiloen ahoan edo saien zain uztetiko itzulera aintzatsuan, himno horregaz Erroman sartzen imaginatu:



Sarreran eta garapenean, giza bihurtasunean inkurritzerik ekidin ezin badu ere, Odaren aireak bozkario purua, hots, bozkario inexistentea errepresentatzen du, non sufrimendurik ez den ageri, ez oroimenean, ez perspektiban. Gutxiago errepresenta dezake euforia esaten zaiona, zeinaren oldar leherkorrrari iraupenak eskatzen duen egonkortasuna falta izaten zaion. Giza bozkarioa ez bazen, zer sortu zuen 'gor dibinoak', Jainkoaren barkamenez, zeinari zegokion atributua belarri hilkor bati aplikatzea aski redimitua izan den hainbeste Requiem-en segidagaz?

Biagotik itzartzean, ohearekiko lotura tiranoago bilakatu ohi zait, ez baita, goizean bezala, gauetik eguneratze soila, argitatik desagertzeko saiakeratik berriro argitara jaurtia izatea baizik; pozik eta garaile urperatu den arrain potoloak, gerotxoago, berriro kaio-burua gainean aurkitzea bezala. Biagora leihaz etzaten naiz, argitasun akosatzailea buruz behera perforatu eta gau go-gaidearen aurrerapen intentsoa den ilunaldian murgilduz; berriro azalera-tzeak, goizeko ezgaitasunaz gainera, ahalegin frustratuaren behazuna ahoratzen dit, zeina garbituko duen hortzorerik ez dudana aurkitu. Horrexe-gatik erresistitzen nuen biagotik hara ere hortzak garbiarazi nahi zituzten presio guztien aurka, une horretan hozkarako neukan amorruaren arriskuan ezer ez ipintzeagatik, hortz artetik minik hartu gabe pasatzeko abildadea zeukan sangria trago luzea edo txokolate zatia izan ezik, zeina, hozkatua izatetik, zupatzeko grina sakonagoak libratzen zuen. Ez daukat subtilkerietan barnatu beharrik, dependentzia bat aztura luzeak ala inposizioarekiko kontrakarrak ote daragien; nire kasuan, biak elkargain oroitzen ditut, izaera bat taxutzeko edo destaxutzeko ahalmena esleitzen zaien adin egarberetan.

Komentuko lehen urtean, hamar urteko umeak hain goiz jaikiarazteak goizago oheratzerik ez zekarren hartan, otu ere ez zitzaidakeen egingo ohean jarraitzeko ondoezik fingitzerik, ehundaka ikaslek goren solairu lepo betean lo egiten genuen areto erraldoian, mendian galdu ondoko abandonoa baino larriago irudikatzen nuen bakartasunaren beldurragatik. Burutxoa jaso eta begiak dena hartzekoa izatera, beharbada beldurrak ere izan zezakeen perimetro bat, baina L-an bihurtzen zen lotegiaren alde ostendutik zer izugarrikeria ager zitekeen, hutsik gelditzean, ez zegoen prebenitzerik. Hori guztia atzetiaz deduzitzen dut, noski, orduan eguna praka apurtuak disimulatu ezineko lotsarian lehenago igaroko bainuen, lotegi urrun hartara (hain urrun ezen, eraikin guztiak neure etxearen konparaziora ekartzeko neukan oroiminagatik, ganbaragaz asoziatzeko ere, solairu gehiegi bainekusen bitartean) muda bila igotzeko baimena eskatu baino; eskerrak, nire nahimena izate futuroa moldatzeko gai den bezala (omen), adimenak ere baduela iragana bere erara gertarazteko ahala.

Hurrengo urtean, nire gainetik aliatu ziren zirkuntantziek seminariora aldatu nindutenean, imitazioz hasiko nintzen ez jaikitzeo aukera txeratzen,

lantzean baliente bat, ondoezik zegoela eta, ohean geratzen ikusi nuenean. Beste guztiok, burumakur eta sotanak tatarrez (baldin oinak bernetaraino luzatu ez baziren, abitu berrien itxarote etsi-hurrenean), meditazio eta elizkizun idorretara gindoazen, gero 'gaixorik' gehienak gosaltzeko jaikiarazita ager zitezten. *Harrapatu habe, eh?* ahapekatuz ondotik ukondoka edo atzimirka pasatzen ahalegintzen zirenei *heu ez hindueen atzo harrapatu ala, txorokil hori?* ihardetsiko zitzairen, ahapeka baita, isiltasun esternorik ezin baitzen hiltzeko ere hautsi. Sukarra zen ohean geratzeko garantia bakarra, eta horretan ez zebiltzan zentzugabe; hagineko minagaz, adibidez, edo noiznahi harrapatzen genuen zirineriagaz, ea norik eutsi behar zion ohean. Han ez zuen balio gero emakumeek beste zenbait intentzio ezkutatzeko erabiltzen zekitela entzungo nuen buruko minak. Sukarrak ez bazen, beste gaitz guztiak martxan hobeto arintzen zirela erasoko zizun prefektu erizainak edo erien prefektuak; kokoteko zorrotz bategaz, *altza porru!* aginduta bidaliko zintuen komunitatearen bila, ez oso ulergarriro adierazi gabe (arlotzuetan, pedagogia diafanoan bizi ginen) hurrengoan kokotetik gorakoa izango zela. Ikasle artean, nire zirkuluan behintzat (komunitate osoarekiko erlazioa zenbat ginen jakitera mugatzen zen, gutxi gorabehera), entzun nuen, sen eskolarrak premia larriei zein hutsalei aurre egiteko zabaltzen dituen erremedio infinitu eta miragarriro efikazen artean, berakatz gordinak, galtzarbeak ondo igurtziz gero, termometroa berotzen zuela. Ahoa berotzen bazuen, zergatik ez kristaltxo bat? Irudimen nerabeak, sortuz bainoago sinetsia modalizatuz egiantzak multipikatzen dituenak, okerra ere, apur bat konpondurik, aurkikuntza berri gisan pasatzen baitio hurrengoari, berakatzaren konkista mentalean aurkitu nuen existentzia penatuaren irtenbidea. Seminario inguruko ortuak, edo paseotan hurretik pasatzen ginenak, begizatuko nituen, areago ilusioari egiantz bat emateko, berakatzak bazeudela ikustea (hainbeste ortuari handiago eta urrunen artean burutxo lurperatu haiek bereizteko, bidentea izan behar zen, eta banintzela uste dut) euren ustezko dohainen hastapen-garantia bat baitzen.

Baserritarren ortuetan inork ikusi gabe sartzea, ostera, falta larria izanez gainera, beharbada etxera bidaltzeraino, nire, ez talentutik, bai ausardiatik harago zegoen, nahiz eta posibilitatea hantxe zegoela jakitea bazen nahikoa

aurrerapen. Banekien berakatzok non ziur egongo ziren, seminarioko sukaldean, non 'berdezkoak' (uniforme berdeko neskameak) ariko ziren lanean, nagusi moja baten agindupe uneka ausente baina beti inplakablean. Hamalau urtegaz hainbeste malezia eta plangintza bagenuen pentsatzeko ezen, apaizgai bat ezustean sartuz gero, haiek, izaturik (eurak ere gaztetxoak), burua biratuko zutela; eta, nahiz eta, lehen sustoaren ondoren, zehar-begiratzeko posturaren bat aurkituko zuten, intrusoaren hazpegirik (haiek ez zekiten gure izenik, ez guk haienik) ez zutela salatuko, apaizgaien aurpegira begiratzeko debeku goragokoa hautsi zutela agertzeko beldurrez. Haiek ere euren beldurrak gonapean gorde behar, guk sotanapean bezala. Baina operazioa bertan behera uzteko arrazoa, beste arrazoi guztiak aproban ipintzeko balentria babilzikotik libratzen ninduen, zen nola aurkitu behar nuen, bakarrune ia imposiblea lortua nuela emanik ere, berakatz buru bat, bizkortasun fulgurantea behar zuen intrusioan eta jantokiko lehiatilatiko begirada furtibo eta izorratuki partzialetatik baizik ezagutzen ez genuen sukalde erraldoi hartan. Denbora amaigabea zen internatu hartan, pazientziak ere arabera behar baitzuen, Gabon oporretatik bueltan berakatzak etxetik eroatea erabaki nuen, Erregen osteko itzulera negutar, abailkor eta azkengaberako gordeko nuelarik goiz bat behintzat jaikiera madarikatutik salbatzeko itzaropena. Galtzarbeak berakatzez mintzeraino igurztetik laster, bekokiaren kontra estuturiko esku ahurrak tenperatura gorantz zetorrenik apenas igartzen zuen (galtzarbea berotzea nahikoa izango ahal zen), baina bai aurpegia berakatzu. Total, azkenean, gaixo bati urtarrileko hotzean zegokiokoen moduan, sudurrak ezin zuela burua barruan atxiki, halako sunda likina sortzen baitzen mantapean. Hori ez zetorkion egoerari hain kontra, sukardunak freskura nahi duela suposatzen baita, baina tirrin fatidikoak jo ondoko minutuetan, estalkiak berakatz-usainok uxatu guran haizatuz, jaikitsetik baino pneumoniatik hurrago nembilela uste dut. *Ez al dok jagi behar?* –galdetzen zuten aurpegia garbitzera edo garbitzetik zetozen mutikoeak, isiltasun-legea haustera gusturago arriskatzuz, inor inkordiatzeko bazen. *Sukarra daukadala uste joat* –erantzuten bainoago hasperen egiten nuen.

Denek alde egin zutenean (azken mamutxo ugariak tirrin-tarran), lotegi handiko hustasun isilean (badaude hustasun ozenak) gozo-gozo kiribildu

nintzen, etxeko ohean izango nukeen lasaitasun bera sentitzen ahaleginduz. Loa bainoago loerdi bat izan zenaren ondoren, prefektu erizainak, termometro txalina irakurrita, agindu zuen: *Gure Jauna eta gosaria ohean hartuko dozak baina gero hasi jagitzen, lehenengo klasera heltzeko moduan*. Lehenengo klasea berea izango zen, orduan kimika antza hartzen nion latina, perpaus guztiek formulak ziruditena. Jaiki ondoko lehen lana berakatz hondarrak komunetik behera botatzea izango zen, bihotzik hilenez, oroitzapen inmaterialaz honago, etxearekiko lotura ukigarri (kasu hartan usaingarri) bakarraz gabetzen nintzelako. Esperientziak, emankorregia izan ez bazen ere, hurrengo urteko Gabon ostean hobeto irteteko itxaropenean geratu ahal izango zukeen, hilaren azkenean, komunitate osoaren aurrean, banan-banan zutiaraziz kantatzen eta arrazoitzen zituzten notetan, kohorteko beste prefektu batek, urbanista esango genukeenak, ikaratu ez banindu: *Portaera: hainbat. Estudioa: hainbat. Pietatea: hainbat. Urbanitatea: 0. Garbiketa pertsonalean, xaboi ordez berakatz erabili*. Apalmen hartatik, izaki ez-hilak bere burua erabat entzerraturik ikusteari dion erresistentzia-senak sakaturik duda gabe, oker baten zirrituak biziraunarazi ninduen, hots, hain engainu-ahalegin premeditatutzat jo zezaketenaren dongekeria, noten kasila guztiak 0-an ipintzea zor izango zitzaiokeena, garbitze-sistemaren alde onberatik interpretatu zutela. Beste intenturik ez nuen egingo. Bosgarren urtetik gora logela indibidualetan eta, beraz, jakiera ez bigilatuetan bageunden ere, gero elizan bakoitzak banku jakina okupatu behar genuen, zeinean ager zitekeen hutsunea prefektu matinalaren begiak, baitaratze osoko posturapetik eskapatuak, korutik hutsik gabe begizatuko zuen, bera ere lokartzen ez bazen, trantze mistikoa eta loaren aurreko erdi-kontzientzia eztiki ezerezkorra oso antzekoak direla baliatuz.

Ezgaitasunaren gainetik, nire goizeroko jaikiera urteetan garantizatu zuten arrazoi beldurgarriagoek (ez dago ezgaitasunik, arabera beldurra sentitzeko gai ez denik) ez zuten, hala ere, persistentzia anikilatzaile eta guzti, nire gogoan egintza material hartara erabat errenditu; aitzitik, ordea, halako urradura zeragidan ohetik bereizteak, ezen orduan benetan sinesten nuen eta maitatzen saiatzen nintzen Jainkoak oso ondo ulertzen baitzituen gero otoitzaldian emango nizkion azalpenak. *Ez al eutsun zeure Semeak berak esaten: 'Aita, kendu eizu, ahal bada, kaliza hau nigandik, baina ez bedi nire gogoan egin, zeurea baino'*? Nire gogoan ez

zen, inondik ere, obligazioari marro egitekoa; aitzitik, harrotzen zen, Jainkoari sakrifizioz latzena eskaini ahal izateaz gainera, tristura menperatuak merituen bildumari gaintasun heroikoa ezartzen ziolako, nahiz eta gero, urteen eta us-teen buruan, meritu haiek alferrekotasunaren kontzientzian ezabatzean, tristu- rak espazio osoaren jabe gelditu nahi izango zuen, argiztapen berdaileko urmaelean ebaporazioak lingirdazko azala uzten duen moduan, hondoan apa- buruek metamorfosiaren amaia buztankatzen duten bitartean.

Jaikiera ez nuen gorroto egun hondogabera jaurtitzen ninduelako, salbue- zin zen aldetik baizik, gaueko ekaitzean galduta dabilenari pasadan lekus- keen izarñoak keinutuko liokeen salbamenaren posibilitatea ere kendurik. Aukera libre bakar bat eman izan balitzaigu, ziur naiz neureari xahutzeke eutsi izango niokeela, itxaropen konbertible bat eskueran izateko ahalbide permanenteagatik. Gero, Filosofian, hamazapi urtetik gorako adin azelera- tuki leherkor haietan, logela indibidualean jarraituz gainera, elizan aldiro pos- tuak libreki hautatu ahal izateko heldutasuna esleitu ziguten, edo, zehazkiago, probatu nahi zuten, pentsatuz beharbada (hainbesteko malezia- rako argitasuna suposatzea lartxo ez bada), edo geure ohiko tokira atxikiko gi- nela, abereek egin ohi duten bezala, edo aldatze etengabeak ez zeukala tartean zerbait ezkutatu nahiaz beste esplikaziorik. Behin izen jakin baten bila abia- tuz gero, haren ausentzia detektatzen ez dago zail artalderik ugarien eta na- hasienez ere, baina susmoa daukat susmagarri potentzialok ez ote ginen, aldizka, susmogabe zintzoak baino gehiago. Kontua da goizeroko gatazka iluna, gehienez eguna zabaldu aurretik gertatzen zenez gero, erremedio gabe galdutzat emana nuena, berriro irribarretzen hasi zela, lurraren sorrera- ren ulerkuntzatik, hain zuzen. Nik ez neukan zazpigarren egunekoa beza- lako atsedean azkarren premiarik; eskertu izango nukeen hilean behingoa ere, ez egun finkoan, beste obligazio bat gehiago bilaka ez zedin; are gutxiago es- katu izango nukeen gehiago lanera ez itzultzeko pribilegio dibinorik. Baina disziplinarekiko deskonbikzio progresiboaren teilatuan, artean gutxitxo ustia- turiko temeritateak geroz teila solte gehiago aurkitzen zuen, ostikatzeari eus- teko baino eskurago, hankarago. Etxegintza teilatutik hasterik gomendatzen ez bada ere, desegintza inpertzeptible bezain bueltagabea abiarazteko, ez di- rudi berak aukerarik gutxien efektiboa.

Gosarira aldran eta aurpegiari garbitu-berri itxura kenduta iritsiz gero, jantokiko seiko mahaietan toki jakinak baitziren, egunaren puskarik ez hostilena baina bai ilunena janda zegoen. Oroimen luzearen distantziatik begiraturik, garaian bertan baino harrigarriago ematen du goizeko seietatik bederatziak arteko denbora kasik geologiko hura zertan eman genezakeen, bekatuak ere hartatik kanporatu ezin gintuen presentzia dibinoan barnatzeko ahalegin supremoan. Egia da halako komunitatea mugitzeak, armada bat translatzeak bezala, bere denbora behar zuela, batik bat bidea ere berbaitan edo arrosarioa errezatuz egin behar bazen. Laster ikasiko nuen prefektuen begientzat hain gogoko zen arrosarioaren bihiak bertsoekin pasatzen, kanpo-debozio berdinez eta barneko beharbada handiagoz, pentsaturik Ama Birjina ere alibiaturik sentituko zela, *bedeinkatua zu andre guztien artean* egunean ehundaka aldiz entzuteko kaparraden orde, *maitia nun zira* bezalako benetasunak jasoz. Bitarte-denborak ere eurokin lotzen ziren jarduerak bezain probetxugarri izateko moduan insuflaturik zeudenez gero, biziera hura, lotan zein itzarrik, continuum gisan gogoratzen dut, jaikitze seismoak bakarrik etena, zeina, jaikitzerik lortzen banuen, beste seismo alderantzizko bategaz gaindituko nuen: negurik gordinenean ere, obligazio izan ez arren, bikaingarri baitzen, ur hotzagaz dutxatzen zirenekin lehiatuko nintzen, Jainkoari 'gerrarako' nengoela adierazteko. Ez zen eginbehar soil bat betetzea bakarrik. Muineraino barnatua nuen, hezitzaileen metafora gaitasun militarki urriagatik beharbada, egun emankorra ohetik jaikitze batak irabaztetik hasten zela; greziar, erromatar edo ertarotar enperadore miresgarriro, ia lirikoki aurkeztutako haien azaina belikoetariko bat bezalako zerbait. Haiiek, ordea, zenbat bataila jokatuko zituzten, ez egunean, bitza guztian baizik, onenek ere lantzean bat galdu egiten zutela jo gabe? Edo denak irabazteko jainkoen begiona izan zuenak ere, azkenean, bere biziarena galtzen zuela, agian menpekorik leialenaren sastakaian? Batailarik gehienak irabazteko prest nengoen, epikoki gainera, dutxa gelido eta guzti, lantzean bat galtzeak atormenta ez nindezan baldintzaz, zeren, jeneralik suharrena eta trebeena izanik ere, ez baitago hain zori burugogorrik, egunean bataila bat irabaztera behartzekorik, ordu exaktoan eta, gehienetan, egunsentiaren isuri gauezkorantz.

Ni Jainkoari, jaunen Jaunari, portzentaia orokor nabarmenki garailea aurkezteko moduan nintzen, neure ahalegin gehiegizkoaren burgoikeriagatik

barka eskatuta bazen ere. Ez nekusen, absurduan jausi gabe, kondentatua ala salbatua izatearen artean erdibide posiblearik, non jainko ganorazko baten aldetik indiferentzia edo predilekzio graduatua itxaron zitekeen. Azkenean, Jainkoa ikuskera antropomorfista orotarik garbitzea hainbeste kostatzen eta gero, gertatzen zen hura errepresentatzeko zentzuzko bakarra gizabidea zela, hala nola, sentiera minimoki sanoko gizakume batengan kontzibitza ez dagoen krudelkeria ez zegoela izaki infinituki onbera bati esleitzerik, ahalguztia kontingentzia guztien zaborteia zela atera nahi ez bazen. Pentsakizun hauek guztiak, nola ez, gerra-adarra baino estridenteagoa zen tirrinak jo bitarteko (luze jotzen zuen, bere egitekoaren porrotaz mendekatzeko bezala) segundo mentalki konbultsoetan gertatzen ziren, batailari errendizioa aurkeztu ondoko gogarte bestalde gozoan, zeinaren argitasun erdiloa gainerako legioaren hanka-, lababo- eta ate-hotsen astrapalak klaribidentziaz penetratzen zuen, arrazoi handien anulaziorako argumentuetan. Urteekin batera, jaikitze motiboak indargetu ahala, batailak irabazteko gailenkeria apaltzeak ez zuen, hala ere, salbuespenak orokortzerik ekarriko, ez hainbeste, zegokion tokitiko ausentzia sarriegiak, komunitaterik predeterminatuenean ere ez sortzea ezinezkoa litzatekeen kasualitate ugariak bide, bigilantziarik kamutsenari noizbait eskapatu ezingo liokeelako, baizik transgresioak ere ohitura bihurtzetik libratu behar duelako, merezigarri izaten jarraituko badu. Ohituraren kontzeptua bera ere erlatibo samarra dela ahaztu gabe, noski, halako eran non, Filosofiako adin gazteetan, hilean bizpahiru huts ohitura txarra ez ote zen kezkatzen nintzen bitartean, Teologiako adin helduagoetan, astean hiru-lau gatik ez neritson errutinan jausten ari nintzenik. Urteen esperientziak ez zekarren segurantzaz aurrerapenik, heldutasuneango progresioak arrisku-eremua areago handitzen baitzuen. Zehaztasun eskolastikoak kasualitateak ere aurreikusteko sena garatu zigun arren, norbere inprudentziak saihesteko sistema filosofikorik ez teologikorik ez genuen aurkitu.

Hala behin, gosarira arteko tarte ostua ez ezik, egun osoko oherakuntza onarrazteko arrakasta izan nuenean, deskuidatu nintzen halakoetan gaixoei banatu ohi zitzaizkien komuniorik ez eskatzen, bakean utz ez nintzaten motibo bat gehiago ekiditearren. Jaunartzea bezalako debozio-ekintza sublimeek, benetako balioa ukan zezaten, guztiz libreak izan behar zuten, omen, baina libertate hori

beste norabide batean erabiltzea hautatzen bazenuen, orduan inpietatearen hoben eskergan jausten zinen, batez ere Ostegun Santua bazen, Euskaristiaren sortze-eguna berbera, hain zuzen. Horretan benetan txakil jokatu nuen, nire insufizientzia sexuala (jaikitzeke barrabilarik eza), ezintasun espezifiko horri baino gehiago, oheko edozein erabakiri eragiten zion ezgaitasun orokorra zela frogatuz. Deskuidoa erreparatzeko, hamaika damu-erakutsi egin behar izango nuen ondorengo egunetan, nahiz eta, prefektuen juzkua errotik garbitzerik ez zegoen bezala, nire erru-sentimendua ere apenas zen deskuido futuroak mozteko bezain garantiaduna, behintzat etsenplartasun baliosaren errepresentazioan partaide esanekoa nintzela sinesteko moduan.

Idazle batek, ohetik jaikitzeke nire motiborik inoiz ez ikustearen berri eman diodanean, 'bitxia' iruzkindu du irribarre planobikoitzean, goizero bizitzara saltatzeko irrikaz uste ninduenaren paradoxan korapilo literario interesgarria atzeman bailuen. Nik, 'bitxi' horri garbi zehazten ez dela ausartu iruditu zaidan 'triste' usaina harturik, gaineratu diot nire ezgaitasun matinala areago dela 'dohatsua', esan nahi baita, maizegi jotzen nauten tentazio fatalei sinesgarritasun itxura hartzen diedanean, ohean ehorzten naizela, badakidalako han ez dudala erabaki sendorik hartzeko gaitasunik izango. Orduan, irribarre planobikoitza begi esferikoetan amildurik, inspirazioa eten zaiola eman dit. Izan ere, nire jaiki ezina bizitzarekiko desgogo edo desengainuaren ondorio balitz, ez nintzateke gauean alderantziz aurkituko, oheratzeko sekula motibo konbintzenterik gabe. Azken sen honek beste sen ustez esentzialago batzuk baino lehenagokoa izan behar du, zeren, berari esker, edo erruz, beti porrotera destinaturik egon beharrik ez daukan atsegin bat baino gehiago galdu edo galarazi dudala ateratzen baitut, ez hainbeste neure gailenkeriagatik, baizik ustez une urkor eta promeskorra heldzear ginenean, maizegi entzun behar izan dudana *orain ez daukat ohera joateko gogorik* delakoagatik. *Orduan berton ekingo diogu* proposatzeko baino arrazoi konpletoagoa berori, aurreko ibilbide desiros guztia ondo alferrik galdutzat sentiarazten didana, zeren, zubiek beti xarmatu banaute ere tentazio fatalak nola atzeratzen diren probatzeko atseginagatik, zubipeek ez didate, igeri ez dakidala gogoratzean (hori burualdirik galduenean ere ez zait ahanzten), euren kontra etzatera tiratzen, norbaiten azpi samurrean bada ere, gero txakurren bat usnan hurbil

dakizun, beretzat ere parteren bat izango delakoan. Jaramonik ez diozula egin ikustean, edo mugimenduren bat gaizki ulertu duenean, belarritik horzkatu beharrean, tinpanora zaunka egin dizu, une horietan distantziak suspenditurik daudela baliatuz; halako sustoa hedatu dizu larruan, ezen ez baitzara gauza hitz horren bigarren azepziora itzultzeko. Eta dena, lehen zubi gainetik pasatu naizenean, neure burua jaurtitzen ez ausartzeagatik; kasu hone-tan, igeri ez jakiteagatik baino gehiago, itxaropen baten gerritik nindoalako, behinola, *hau bizimodu txakurra!* esaten zutenean, ulertu ezinik ibiltzen nintzenari esplikazio probisional egoki bat aurkitzear nintzela susmatu gabe. Gaueko hamaiketan, geletako argi guztiek arauz itzalita egon behar zutenean, eta pasillo amaigabeetako argi hondarrak, argia joaten deneko emergentziazkoak bezalakoak, gau guztirako bakar gelditzen zirenean, minutu loriosak neuzkan gela luzangan atzera-aurrera, edo leiho handitik ilargiari begira, honek, bere goieratik, ni eta gure etxea batera ikusten gintuela jakinik. Ilargiaren zentrotik irteten ziren alde imaginarioen angelua neurtzen saiatzen nintzen, nahiz eta, izatez, dena zen begirada bakarra, nigandik ilargia eta, honengan islaturik, jaiotetxe atariko harrizko jarlekua zuzen jotzen zuena; handik gauaren nirekiko domeinu osoak, edo hemendik ilargiaren posizio ezberdinek, angelua zenbat gradutan eta aldeak zer proportziotan aldatzen zituzten kalkulu inexaktoetan aritzea zen nire gozamena.

Ilargirik ez bazen, hura ere ez baita, batere banitosa ez delakoan, beti eskura egoten, hodei edo hodei-zuloren bat aurkituko nuen, neure geometria sentimentalari (inoiz erresolbitzen ez zenari) ekiteko. Niretzat orduan zerua ez zen nire begirada edozein puntutatik etxerantz errebotatzeko konkabitate errukior bat besterik. Hala, hamaika eta erdiei badaezpada apur bat aurrerago joaten utzirik, eta prefektuek ere artean erretiraturik egon behar zutela emanik, zapa-tilarik isilenen gainean (oinutsik ere ez gutxitan, kasualitate alu baten kasuan, susmagarritasun doblera arriskatuz), ateari zaratarik txikiena eraginez (bisa-grak mututzeraino olioztatzea susmobide suizida bat izan zitekeen: *Jakin al zitekek ate honen isiltasunak nora eraman nahi duen?*), komunetarantz irtengo nintzen, gero handik, azken orduan, tak, dutxategira sartzeko, eguneko ekin-tzarik debotoena burutzerat: zigarrotxo minuzioski bildua nahi baino azkarrago baina ez nahi baino gutxiago gozaturik erretzera. Komunetan saiatzea beste

suizidio bat zatekeen, usain guztia bertan geratuko baitzen. *Ene Jainkotxo, di-minutiboa onartzeko umorean bazagoz! Zigarrotxo purtzil batek zelako suizidio-ilara ekarri leikeen subjektu beraren gainera!* Hantxe esperimentatuko nuen zorionaren aldikada bat, eraikin handietan ilunetan ere, nondik garbi ez dakigula, beti sortzen den argitasun elementalean. Muturra ez zen leihotik nabarmendu behar, beste hainbat leihotariko batetik insomneren bat zigarro-txingarraz ohar ez zedin. Kea ikusi egin nahi nuen, ordea, bestela gustuak ez baitzeukan formarik. Ahalik kanporen ere bota behar zen, usain barruan geldituak biharamun goizean susmorik sor ez zezan; baina kanporegi eta bat-batera ere ez, beste ikasle zintzoegiren baten leihoa jo ez zezan (*ni banabil! eta zu?*). Haizearen eboluzio eta une guztiak kontrolatu behar ziren. Lan subtila baina sublimea, suizidio bat edo beste merezi zuena. Duxtetan egotea debekatua zenez, atea ireki eta argia pizten bazen, prefektu berantiar muturluzeren bat izan behar zuen. *Geldi eta isilik hemen!*, kirkira-zulora bezala, txak, dutxa batera sarturik, denak banan-banan ikuskatzen hasiko ez zen itxaropen ez beti efektiboan. *Zer egiten duk hemen ordu honetan?* Mutu eta burumakur desfilatzea onena, ondoriorik okerrenak ere hainbestekoak ez izatea desiratuz, nola prefektuaren suposamenik perbertsoena (bikotea duxtetan!) izan balitz. Atea irekitzeak argia pizterik ekarri ez bazuen, norbere antzeko ilegalen bat izan zen, nahiz eta neu behin baino gehiagotan egina nintzen duxtetako atea pasaeran ireki eta argi piztuari segundo batzuetan eutsi, barruan egon zitekeen gaizkileari, susto galantaren gainetik, salbazioaren poz handiagoa gozatzeko aukera ematearren.

Zigarro muskil bat erretzeko, zolitasun handiagoa behar zen, aingeruek puxikarik ez zutela behar demostratzeko baino. Duxtetan egoteko debekua, areago gauez, berez ere nahikoa beldurgarria zen arren (aipa berri dugunez, erretzearen hoben larria bera baino galgarriago izan zitekeen beste 'adiskidetahun' izendaezin batzuen suposamena), behin han sarturik, eremu mugatuak kontraditzen duen askatasun noranahikorra ez, baina gizatasunaren neurri txikiari beharbada aiutuago datorkion jaregintasuna goza nezakeen; arau gabeziako rarifikazio dohatsua nolabait, arauen okupaziorik inplakableenak ere ezin baitu iritsi menpekoen existentziarik irudikatzen ez den eremuraino. Nork pentsatu behar zuen ordu aingerutar hartan halako zokondo demoniozkoan Jainkoaren ezein umek egon behar zuenik?

Minutu liberatu horien ondoren, gau-lapurren tentu guztiagaz bergelatu eta atea barrutik garaile itxi dudanerako (bide erdi-ilunean gurutzatu den kasualitate itzalez jantziari ez-erreparatu sinesgarria egin diot, hark ere, behar bazuen, bere klandestinitate osoaren lasaitasunean segi zezan), gauerdia gainditua da zorionez, baina, lotaratu beharrean, pijama jantzi eta ohea apur bat desegin dut, komunitate handietan sekula hartatik guztiz libre egon ezin duzun ezusteren bat gerta baledi ere (esaterako, ikaskide bati aldikada mistikoak eman diola *-ai ama, ai ama, birjina izatea besterik ez zenduena!*- abisua hartu duen prefektuak, solairuz erraturik, zeure atea ireki duela), hagineko minaren beila errukarriaren plantan aurki zaitzaten. Ohean eseri naiz, leiho handitik Bilbo enigmatikoa ostera kondenatu duen mendilerroaren barkamenez. Zuzen leihora nintekeen, baina badirudi okerkeria ondo amaituak ere gorputzaren biltasuna eskatzen duela. Harrapatua izan ondoko nahigabea bezala, poza ere, bakartasun segurrean aurkitzeango beso-hanken lehen astintze gangarren ondoren, kiribildu egiten da, nonbait, atrebentziaren atal suzesiboei oroimen oraindik urduria aplikatzeak gozamina beste hainbestean biderka dezan. Hots, batu-baturik lokartzen diren animaliek berotasunari eskapatzen uzten ez dioten moduan, nik, itzartasunik ernaienean, poza bera baino gehiago (izatekotan ere, urria berau), poz-gogoa kontzentratu nahi nuen, beste zenbait jardun espiritualetan, nahiak ahala eragin zezakeelako miraria (eragin 'behar zuela' ziotena, baina nigan ahaleratik pasatzen ez zekiena) ea orduantxe gertatzea lortzen nuen.

Bakartasun ilunak maitale infalibleki harkor egiten zuen ohean eserita, zeinaz, pozez zein nahigabez malkotzeko konfiantzatik harago, abusatzeraino goza nintekeen, minutu intentso bat edo bi igaro ondoren, eginda nengoen pilotatxo zabaltzen hasiko zen, loreen alderantziz, argirik ezak kitzikaturik, iluntasun iraunkortuaren azpian abiatzen diren labezomorroak bezala. Ez diot konparazioari jarraitu nahi, labezomorroi, oinpe oinutsean krisik zapalduak izateaz beste errurik ez badute ere, higuina baitiet; beldur naiz, haiekin konparatzen hasita, azkenean, euren usain mingotsa neure gorputzari ez ote diodan hartuko, bere burua Napoleonegaz konparatzen hasirik, azkenean Alexandro Haundia izaten amaitu zuenaren antzera, ordena historikoa al-

datu zuenik ohartu gabe. Saguak ez zidan hainbesteko higuinik ematen, euskal hiztun praktikanteak ordenagailukoari 'arratoia' deitzen entzun arte. Brrr!! Horrek higuin dardaratua damait, aparatua zabortegira botatzeraino. *Arratoia behar dok? Hortxe kontsolatuko haz!* Eta dena euskaldun kopiatzaile mekanikoak (bulgarki esanda, defizienteak) ez direlako ohartzeko gai gaztelaniaren inkongruentzia batez, non 'rata'-ren handigarritik askoz izaki txikiagoa atera duten. *Izorrai!* 'Bomba' eta 'bombón' bezala. Edarra bonboia! Kasu horretan ez bide da horrela, baina hala uste duenari zergatik zapuztu behar diozu bere ingenioaren presuntzioa? Arratoiak ez dizu begiratuko; hura berrera doa; lehenik disko gogorra jango dizu; gero garunak jan nahiko dizkizu; jan bakarrik, liseritu ez, hurrengoaren bila joan behar baitu; joaterakoan, eskuan muin eman nahiko dizu; izuturik, jauzi egingo duzu, gaixotasun extrakontinentalen bat dakarkizulakoan bainoago arratoitasun hutsagatik. Segi orain ordenagailuan 'arratoia' daukazula pentsatzen. Karraskari zikin estoldatar horrek badu dohain salbatzaile bat: kartzelatik ihes egiten lagun diezazuke; jarraitzen badiozu, ibaira zaramazke. *La oskua! Eta orain igeri jakin ez!* *Buelta lehengo lekura.*

Saguari, nonahi uzten duen gorotz-izurriagatik ez balitz, golkora sartzen utziko nioke, grrrrr!, bera ere ilunzale, neure moduan. Gizakume handiak eta balienteak haren aurrean sapaia jotzeraino izutzen ikusiak ditut, eta ez nuke inor hain era biolentean uxatu nahi, baina saguak ezin dio nigan gatazka sentimental bat sortzeari utzi, harekiko sinpatiak, konparazio soil batean bada ere (neure burua zerbaitegaz konparatzeko, harekiko sinpatiaren bat behar dut, errealki ez naizena literarioki behintzat maitagarri gerta dadin), bera baino maiteago dudan antagonistagaz jarkitzen bainau, katuagaz, zeinaren gaueko ibilera luzeak eta bakartiak bekaitz ditudan, seminariotik etxerainoko joan-etorriak inork igarri gabe egiteko. Ez dut metamorfosirik eskatu gura, irudimena bezain katu efektiborik apenas baitago.

Nahikoa dut katakume hunkigarri eta inbisible hura irudikatzea. Eguna ganbarako galtzu artean ezkutaturik igaro ondoren, gauez mugitzen eta garbiunera irteten menturatzen zen, baita, konfiantza hartutakoan, artaburuekin jolasten ere. Inoiz, berak ateratako zaratak ikaraturik, galtzupera ziztuan

ihes egingo zuen, alditxo batera, berriro abentura berera eta zabalagora ausartzeko, dena gauaren gordepe bizkorgarrian. Nik haren mugimendu kilikariak azpiko logelako ohetik emozioz eta ezinegonez jarraituko nituen, egunez hura ikusteko hainbat igoaldi alferrekoren irrirts erantsiagaz. Gurasoak eta senideak zirritu gabeko loan zeudela pentsatzeko beste denbora joaten utzi ondoren, hartarako beren beregi gordeta neuzkan kandela eta pospoloak eskuan neramatzala, ganbarara ahalik isilen igoko nintzen. Gurean ez zen argindarrik orduan; ilunetan oheratzea egunez gereziak arbolan jatea bezain naturala zen. Ganbaran ibiltzeko edo handik gauzak ekartzeko ere ez zen argirik behar, baina egun hartakoa ikusi egin nahi nuen. Sukaldean geratzen zen etxeko argi bakar itzaliaren (kriseiluaren) bila jaistea arriskutsua zen, oholezko eskaileren kirrinkada inebitableagatik. Txakurrak ere, maleziaz bainoago ezustearen pozez, norbait beherantz zetorrela sala zezakeen. Kandela eskailburuan pizturik (pospolo indiskretoaen txirristadak katakumea alertaraz zezakeen), atea tak ireki eta zabalunean zebilela banekienari erretira mozteko lekuan kokatuko nintzen. Ganbara handiari hil-kolorea besterik ematen ez zion kandela-argi ahulean, noizbait han hautemango nituen bi argi-pikor, galtzupera ihes egiteko aukera gabe, noraezean josita gelditu zen katakume graziosoaren baino gehiago, fondoko iluntasun minduaren begiak ziruditenak, txitxarroen burezurreko amabirjinen antzekoak. Katamak ez beza arrain usainik suma, kapaz baita bere umeari begiak ateratzeko. Katakume xarmagarriak artaburuekin jolasean segi dezan nahiko nuke, nigaz batera ez bada, neuk ikusteko moduan. Batzuetan lortzen dut bazterretik bazterrera zulo bila mugi dadin, bufada bere ustez beldurgarri eta niretzat zelebren horiekin. Nik, ordea, desira goren eta dohatsuentzat ekarri dudana ikustea gozatu ondoren, orain neure lagun egin dadin nahi dut, eta ez nitzulke ohera, bihar goizean, ordubeteko bidean, eskolara elurretan joan behar balitz ere, helburua lortzerako, kandela amaitu ez balitz. Edo, askoz segurrago eta bizkorrago dena, ama ohartuak azpitik hots egin ez balu: *Zertan habil ganbaran? – Katakumeak ez deust lorik egiten izten!* –darantzut arrazoi biribila izateko moduko aitormen bestalde guttiz egiazkoan. *Barrabana! Jatsiko haz hortik behingoan?* –mehatxu egin du lazki, ganbaran kandelagaz ibiltzen nintzela igarri zuenetik, etxeak su har dezan larritasunez. Gai horretan pentsamendurik urrunena ere arrisku beldurgarria izan.

Handik urteetara, seminarioko iluntasunean, katakume huraxe bezala hasiko nintzen neure ohe inguruan mugitzen, logela halakotzat irudikatzen nuen ganbara txiki baina gauari esker liberatuan, zenbat eta isilago ibiltzeak gozamen infraktoreari intentsitate handiagoa zemaiola. Azkenean badakit katakumearen konparazioa zergatik nagusitu zaidan. National Geographic-ean, nire pizte gautarra egokiago deskriba zezaketen piztiak erreskan aurki nitzakeen, baina neuk ukitu gabeko animaliek, xoratzen bai, baina ez naute huntitzen, haiengan ez dudalako neure izate puskarik aurkitzen. Eta, batez ere, nire ohera-ezina, arautegi itogarriaz barruragoko harrapaezin deliziosoaren oinarrian, etxeminak eragiten zuelako. Konparazio direktoa nahi nuen, zeinaren gainean ibiliko nintzen etxean, ganbaran, sukaldean, iturrian, gerezi puntan, nahi nituen lekuak eta norabideak hautatzeko abantaila errealtatearekiko funtsezkoan, halako eran, non, esaterako, beti eskolatik etxerantz etorri ohi nintzen, ez alderantziz. Selektiorik faborableenak eta guzti ere, irudikapen gozatsu haiek guztiak errealtasun une bategatik itsuan trukatu izango nituzkeen, baina errealtatearen puska maitagarritiko erauztura hain barneratua genuen, ezen desira eliminatzen genuen, horrela sufrimendua ekidingo zuelako uste gehienik alferrekoan. Une erreal hori iristeko urruntasunaren kontzientzia azkenean angustia bilakatuko zen, eta horrexek bakarrik oheraraziko ninduen, loak sentipen hori ezabatu edo, gutxienez, zokoratuko zuelakoan. Hori guztia ez zen biharamun goizean airoso jaikitzeke preludeorik alazoena, tristurak, landurrak bezala, lanean baitarrai, Jainkoaren graziarik osoenean lokartu den ariman ere.

Falta den botila hondarrari eta ondorengo kafe eta bizpahiru zigarrotxori musikak asko lagunduko diela pentsaturik, Verdiren *Nabucco* kendu eta zein ipini hautatu ezinik nabilela, gorputzak ere zalantza imitatu nahi du. *Hi geldi! Hau erabagi espirituala dok.* Beti gertatzen zaidana. Askoren aldetik maitatuena zarela sentitu ahal izatea baino zalantza erasaileagorik ez duzu, bakarraren aukera materialki obligatuak enparauen baztertze globala badakar. Bihotzari maiteena baino maiteagorik sentitzea ezinezko zaion arren, badirudi, buruarantzat, hamaika maiteenetariko bakoitzak maiteen bakarrak adina pisa dezakeela. Politeista bati zein jainko kenduko lukeen galdetzea alderantzizko kasua bada ere, inoiz ez litzateke ezein kentzerik proposatzen ausartuko,

nahiz eta beste jainkotegi guztia geratu, kengai hura bera suntsitzeko bezain ahalguztiduna dela sinesten badu. Beldurrak fedea baino gehiago dezake, antza. Azkenean, bigarren botila irekitzen deskuida banendi ere, Brahms erabaki dut, jauskera probablean araberako izenak lagun nazan.



Musikari frustatua izanaz, edo behintzat hartarako egokierarik ez aurkitu izanaz, zorte handia izan dudala uste dut, honela hainbeste edertasun eta hain handiak euren osoan goza baititzaket, inbidia sortzailetik edo antsietate leihakorretik at, eta limitazio gaindiezinen aurka burua apurtzerainoko ahaleginari ia fatalki utzi ezin dion kontzientzia minberatik libre. Euren osoan eta neure lasaian; auzotik herrira bueltan datorren ume taldetxo auto-stop egiteko balentriara ausartu denean, batek geratu zaion autokoei, ukondoak leihatilan bermaturik, *gaiztoak al zarie?* itaundu eta, gidari ezezagunak ezetz erantzun ondoren, denak konfiantza osoz barruratu diren inozentzian. Edo Asteasutik Atxagaren hilobia ikusiz pasatzea maite dutenen liluramenean.

Baliteke kontsolapen obligatua izatea, baina ez faltsua, zeren ezinak edo ahalaren pertzepzio gutxituak (jainko batentzat zailena ez litzateke ahalguztia, honen kontzientzia baizik) ekar zezakeen desesperazioaren lekuan, orain, edertasunak okupaturiko eta denbora presiogabeak mugaturiko lakuan neuk nahi dudanean murgiltzeko zorionik errazena baitaukat. Zer aportatu izango niokeen nik laku horri, zeinaren edertasun osoaz ohartzeko, bestalde, produkzio guztiaren zati nimino bat aski dudan, itsasadarra barneratzen den haranaren liluragarritasun agortezinak lurbira osoa helarazten didan antzera, auzia ez baita zergatik gauden geldi, jendea zergatik hainbeste mugitzen den baizik? Zer aportatu izango niokeen bariazio koxkor bat besterik, onenean ere, osotasunari ezertan eragin izango ez ziokeena? Burua sano sentitzen dudanean (beharbada, ez dateke oraingo kasua), pentsatzen dut gizateriak badiela jadanik nahikoa edertasun sortua, eta mende batzuk hartaz gozatzen dedikatzeak lurbira honen aurpegikera amorratua leundu egingo lukeela. Naturan, berak jakingo du zergatik, bidezko da heriotza unibertsa sor-grina

etengabeak ordezkak dezan, baina zer zentzu dauka heriotzak erasaten ez dion artea pilatuz eta pilatuz joateak, bera baino mingarriago den ahanzturan erortzeko? Heriotzak sormen antsiosera bezala, ahanzturak ez du ezertara tiratzen, nahiz eta ahanzturari, batzuetan, pizteko ahalmen paregabea aitortu behar zaion, autorearentzat alferrik izateko berantasun ankerrez bada ere, obra mingarriro gehiegiren kasuan gertatu izan den bezala, artearen hilezkortasuna heriotzaren osagai bat ez ote den konklusio deprimenteraino.

Oheratzea ez zen, noski, gauerdian iritsiko, non, ukondoak leiho handian kokaturik eta eskuek, okozpean ukabilean, buru astunari eusten ziotela, inoiz ez nintzen nahikotzen mundu egiazko eta balizko guztiak errepresentatzen Santo Domingoko mendilepoaren ostertz omen lasziboan, Bilboko bikote iheslarien sodogomortegian; eta nondik, halaber, prefektuen gelak ere, eraikinaren irtengune biribil-erdietan, ikustoki bezain ikusgai zeuden. Haiek ondo itzaliak zirela segurtatu ondoren, mahaian eseri eta argia pizten ausartuko nintzen, kontraleihoak ahalik ondoen itxita, nahiz eta arriskua leihotik bainoago atetik zetorren, honen kristalezko montanteak ez baitzuen uzten pasillorantz ilun geratzen. *Hori be asmatu joan talenturen batek!* Kanpotiko ate-irekitze posibletik ez zegoen defendatzerik, isilka hurreratzen bazen. Gauez zapatila 'mutuekin' ibiltzea logileak ez molestatzearren zelako aitzakia era-erara zetorkien arau-hausleak sorprenditzeko betebeharrak adina grina eta batzuek bizioa ere zutenei; sarritan, haien ikustokigelen itzalitasuna garantia bainoago susmobide zen, ez ote zuten handik begiztatua pasillotik burutuko. Gure aldetik, oso prebentziobide urria zegoen, ate giltzagabeak ez baitzuen uzten, ate giltzatuak bezala, segundo salbagarrien aukerarik; ireki zezanak untxia belar jaten bezala harrapatuko zintuen. Nik horretarakoxe neukan hagineko mina, zorteak edo trikimailuek oraindik erabili beharretik libratua nindutena. Trikimailu nagusia liburu espiritualen bat (Teresa Donea, Teresatxo Donea, edo horrelakoren bat hobe Biblia baino, ipuinzaletasunagatik zela uler ez zezaten) mahai gainean zabalik edukitzea zen, delako hagineko minaren kasuan, edo insomnio puntualaren arrazoi izateko atsekabe sinesgarri batean (etxeko ezbehar bat, aita zezenak harrapatu zuela, arreba Espiritu Santuak), arimako tribulazioaren kontsolagarria irakurtzen ari zinela aduzitzeko. *Baina, semetxo! Jainkoak saiatzaileari laguntzen badio, ohean gertu egon behar duk, loa eman diezaan.*

Saiatzeak merezi izateko moduko ametsik aurreikusten ez zenez, liburu espiritual potoloaren gainean, *Euskal Kantak* liburuska egongo zen, emergentzia kasuan, mahai gaineko liburu-lerro ez urri, bai errukarrian, aise ezkutatzeko moduan disponiturik. Adi egonez gero, zapatilarik mutuenek ere zail zeukaten igarriak izan gabe hurreratzen, hustasuna isiltasunari hotsa ateratzeko aflikzioan bizi zen pasillo tunelkara haietan. Banekien, ordea, kanta haietan barnatzean (gehienak bertsoak, batzuk ia hizketagaz batera ikasiak, nahiz eta soinu gisan bakarrik ulertuak), nire baitaratze iheslariak ernaitasun iraunkorraren sen hori airean utz zezakeela, zeren *Gernikako Arbolak*, *Otxandioko Astotxoak*, *Bizkaiko Txerriak*, *Komedi Tokiak*, *Pello Josepek*, *Matxalen Busturikok...* kablezko zubian transportatuko ninduten, nire logela kabina eskegi bihurturik, non neure poz malenkonikoaren bertigoaz beste sakanik ez nezakeen pentsa. Langilearentzat eskorga edo astoarentzat zorroa bezalako-tzat hartzen nituen ikas- edo eliz-liburu behartuez gainera, hamaika urtez geroztik, jolasorduetan eta batez ere aisialdi luzeagoko jaiegunetan, igartzen nuen 'lanketa pertsonal boluntarioa irakurketa entretenigarritz garatzea' ondo ikusita zegoela; denak kontzeptu eta adjektibo erakarleak, inork espreski formulatu gabe ulertzen genuen 'ondo ikuste' horixe izan ezik. Beldur nintzen, egunik euritsuenetan ere hartaz baliatzeko premiarik inoiz ez sentitzearen kezka hara ninderaman liburutegi hilerri antzekoan, noizean behin irakur-zale porrokatuaren plantarik ez egitea txarto ikusia ez ote zen izango. Hala, seminario tridentino batean izan zitezkeen aukera ondo iragazien barruan, abenturak eta eleberriak irensten hasi nintzen, baten batek *bahator ping-pong-gera?* edo *joango al gozak sotanura paseatzera?* noiz tentatuko zain, neu aurreratzen ausartzen ez nintzen planak, inori laguntzearen elegantzian, irakurketaz goragoko kualitatea hartuko bailuen, nahiz eta, funtsean, *ni banajoak!* esanez, beste gabe alde egiten zutenak bekaitz nituen, haiei esleitzen nien inkontzientziari (hori ere beldurgarria niretzat) askatasunaren itxura harturik. Askatasun hori haiengan hautematen nuen, ez irakurgelara nahi zutenean jotzen zutelako (hori neuk ere egiten nuen, irakurketa 'gutziz boluntarioko' espirituairen arabera), nahi zutenean alde egiten zutelako baizik. Pentsatzen nuen, azken batez, haiek, luzera, ilesoago aterako zirela euren inkontzientziatik, ni neure segurbidetik baino. Geroago neugan ere konprobatuko nuen temeritateak sahiesbide gehiago aurkitzen zuela araupe zehatzak baino, zeinari, lu-

zera, edozein huskeriak (arrosarioan lokartzeak, esaterako) perfekzio gutzia desitxuratzen zion. Eta, gainera, barregarri gelditu behar, arauaz indirektoki (inoren bizkarrean), nahiz eta ez gutxiago krudelki, mendekatzeko modua aurkitzen zutenen aurrean. Denen aurrean, alegia, neu ere berdin gozaten bainintzen inoren bizkarreko estualdiekin. Nire kontzientziak edo moztasun soilak ez zidan uzten, ordea, hainbat lagunengan aurkitu uste nuen jaregintasun berdinez jokatzeko; neure buruari ausardiarantz sakatzea askoz gehiago kostatzen zitzaidan koldarkeriaren ondorioak jasatea baino.

Harrezkero, norbere burua gainditzea delako kalakan zetozenak erreze-
loz hartzen nituen, ez hainbeste neure burua buruagotzeko erronka ustez
ederrean haien niregango domeinu sen bat usna nezakeelako (orduan ho-
rretarako adinako ezaguerarik ez genuen), baizik neure buruagaz kon-
forme nengokeelako (zertarako gainditu, beraz?), etxera joaten utziko
balidate. Hori ezinezkoa zenez, derrigorrera makurtzekotan, gainditzea
baino gehiago, tristurari eskapatzea bilatzen nuen, neurri bateraino irakur-
ketan lortzen nuena. Sentitzen dut Julio Vernegatik edo Strogof kapitaina-
gatik, literaturaren tanatorio hartarako egokitzeak jotzetik bereizi ez
zituztelako. Niri ez zidan ardura munduari itzuliak, ez munduaren erdira
bidaiak. Nik etxera nahi nuen! Strogof kapitainak desafiatzen zuen itsa-
soak ez ninduen ez beldurtzen, ez harritzen, ez hunkitzen, nik begiratu
nahi nuen itsaso bakarra etxe inguruko mendietatik ikusten zena baitzen;
edo udan, oso behin edo behin, lagun batek bizikleta alokatuan zeharka-
tzen nuen Urdaibai, paduraz eta hondartzaz ñabartua. Gure etxeak eta in-
guruek itsasotik nolako ikuspegia egiten zuten esperimintatzeko aukerarik
ez interesik inoiz ez bainuen izan, ez zitzaidan batere kostatzen barkua
mendian gora gidatzea. Nire irudimen ahalguztiduna ikasita zegoen ibil-
gailurik eskuragaitzenak (trenak eta hegazkinak kasu), edo fantastikoenak
(eskuragaiztasun guztiekin preparaturiko konbinazioak), ibilbiderik inpo-
sibleenak eraginez gozaten. Harrotasun paregabea nuen etxe ondotik bar-
kuan pasatzea edozein astegun goizetan, sorotik lapikoa zaintzera zetorren
amagaz estartan gurutzatuz, *nora hoo?* galdetzeko baino harrituago bera.
Horrelako barkuan, ontzia ez da inoiz hondatzen, eta norberak ere ez
dauka igeri ez jakiteaz beldurtu beharrik.

Banindoan lemazain, mendilerroak ezker-eskuin eskaintzen zituen malda desiratuak ikusiz, unada hartarantz, nondik, behizain hasi nintzenetik, haranaz beste aldeko mendi bitartetik eta egun bereziki argietan, urdintasun txatal bat ageri zen, itsasoa ei zena. Laino bazegoen, denbora apur bat gal zitekeen ikus-teko ahaleaginean, baina argi samar bazegoen, zeruaren ziria ala lur-bitarte baten tapotza zen bereiztea zaila zen triangelu urdin-uhar hartan barkua arriskatzerik ez baitzuen merezi, Oiz tontorreraino brankatuko nintzen, berau ere angelu batzuetatik, gailur luzanga guztiek bezala, barku inbertituaren forma zeukana. Handik bai; handik itsasoa bere urruntasun inmobilizatuan ageri zen, huts-hutsik, itsasontzien izpirik gabe; barkua neugaz zegoen Oizen, irakurtzen ari nintzenagaz zerbait loturan jarraitzeko. Itsasoa beldurgarria zela ziotenak bisionarioak iruditzen zitzaizkidan. Nik banekien Oizeraino ez zuela salto egingo. Burla ere lasai egingo nion: *Hator hona, kapaz bahaz!* Zer denik ere ez. Uste dut itsasoak ez duela entzuten. Horrexegatik izango da baleak hain buru handia eta belarririk ez izatea. Uste dut arrainek ere ez dutela askorik entzuten. Horrexegatik maite dut arrain-ontzia sukaldean, irrati-kasetearen ondotxoan. Maite ditut edozer esan eta jaramonik egiten ez dutenak, ez niri, ez irratitari. Horregatik, sukaldean sartzen den edozein arrotz berriri lehen-lehenik arraina aurkezten diot, beti ere izena aldatuz, badaezpada. Arrainari ez dio ardura izaten, baina nik arrotzaren aurpegikeratik kalkulatzan dut gizon fidagarria ala emakume maitagarria ote den.

Zirraratzen nau uraren ezaxolak, indiferentzia osoak. Jar denak, dena, berari begira, eta ezer ez balitz bezala dagoke. Hara, hona, geldia, ibil, beste existentziarik badenik ere ez. Aurki beza bitarte bat eta badoa, ez agurrik, ez itzuliko denik. Ez da harritzekoa ezer esternoz ez arduratzea, irudi guztiak beragan baitaramatza. Ibai zabal, señoriala, une jakin batez, zintzur estu-estutik min hartu gabe pasatzen zaizu, harago berriro zabaltasun handiagoan nasaituz, lehengo bera dela onartzea fede-egintza bihurtzeraino, dedukzioz zailegi baita. Plano berean egonik, itsas maila baino zergatik iruditzen zait bere horizontea askoz altuago? Norbait lagundu-zalek esan dit, plano kurboa izatean, osteak altuera sentsazioa sortzen duela, ez baikaude ohituta ezer zuzenetara ezkuta dakigun, begirada objektu gorago batek oztopatu ezik. Erantzun diot horrelako kalkuluetan ez naizela aritzen, apar gaineko

haitzean eserita nagoenean. Sua eta ura dioten baino kideago izango dira, biak belaunetik behera komeniz gainera, txiza-larria ere biek baitaragite. Elurte ondoko pinu gazteak zabal, harkor ageri zaizkizu, enbor zutean eraztun horizontalak gainkatuz, maitasun orotarako prest bezala, beleak ere, erresistentziaren gerrileroak, pausatzen ez ausartzeraino, hainbesteko emanguraren mesfidati. Hegaletan, palatuetako oteek erreberentzia dagizute pasaeran. Sasi gaiztoek ere bai, mantso-mantso, apal-apal. *Zer intentzio daukazuen ez baneki!* Makilada bat eta aurrera.

Ur gazira itzulirik, urrun zaudenean, itsasoa geldi-geldi egongo zaizu. Abia zaitetz beraganantz eta laster ohartuko zara urduritzen ari dela, hurrago eta ezinegonago. Alde egiten badiozu, ez dizu jarraituko, nire lagun batek bezala, zeinak, ustez distantzia segurretik 'kakati-makati' esan niolako, mendi guztian zehar jazarri ninduen, azkenean sasitza baten kontra harrapatu arte. Halako arrapaladaren ondoren, apur bat dezepzionaturik gelditu nintzen hain belarrondoko barregarria hartzeaz, baina itolarria markakoa izan zen, biona berdintsua. Itsasoak ez dizu horrelakorik egingo, txakurrenak esanda ere, esaterako, ez daukala ganorarik, ez bererik ez inorenik; lurraren bi herenak inundatu besterik ez duela egiten; lantzean ontzi bat irentsi truke, arrain guztiak ostu diezazkieten uzten duela. Ez. Itsasoa ez da hain gaiztoa; apur bat autista samarra esango nuke. Oizen nengoen eta handik bueltan, etxean gelditu ahal izatera, oinez ere pozik jaitsiko nintzatekeen, barkua tontorrean utzita. Badirudi intentzioa harriren batean itsatsirik gelditu zela, mendizaleek hurrengo nortzuk pasatuko diren ez dakitenei bainoago sekula pasatuko ez direnei uzten dizkieten mezuak bezala.

Handik berrogei urtera, antenak jorik, hegazkin bat hantxe amilduko zen ministro eta guzti (ez zeukan horregatik izan beharrik), neure eskapaldian, bat-batean hurrengo ekitaldirako tirrina jo zutenean, abandonaturik utzi nuen barkuaren ostera. Euskaldunoi irakurzaletasuna bereziki inkulkatze hura (*zenbat eta erdara heureagotu, hainbat nota hobeak aterako dituk*) nire hautu boluntarioa hartara bideratzeko modu bat gehiagotzat ulertzen nuen, oraindik bakunegia bainintzen susmatzeko, gureganako jarrera bereziki arduratsu hartan, euskararen estintzioa eztitzen ari ez ote ziren. Orduan ere jabetzen nin-

tzen debekuaz, baina areago ulertuz saiakera disziplinarioaren aldetik, txarrantza kultural ez baina, nahiz eta portaerako nota baxuen arrazoi nagusietarikoa, komunitate osoaren aurrean entzun beharrekoa, sobera adierazgarria izaten zen: *Jolasorduetan, lagun euskaldunekin euskara gehiegi egin*. 'Gehiegi' hori hilean birritan harrapatzea izango zen, lehenengoan oharra, bigarrean txartela; horia ala gorria, bakoitzaren antezedenteen eta prefektuaren txera pertsonalen gorabeheran zegoen. Euskararekiko erdeinua (gorrotoa baino galgarri efikazagoa) patro horretatik interpretatzen ausartzea errebeldia ezinezkoa izango zen, noski, harik eta, *Euskal Kantak* liburuska xumean, gauerdiko ondoko lehen ordu hark, aspiragailu erraldoi baina isilean, emozio baikor guztiak bildu zituen arte, teoria artean inexistentea (bere egoismoaren bulgatasunagatik segurenik) deduzitzen hasi nintzelarik ezen literaturak ez dizula batere lagunduko, zeure burua bertan aurkitzen ez baduzu, ihes egiteko zirrituren batean bada ere, zeina falta izateak galduta sentiarazten zaituen eta non, orduan, literatura beste galera bat gehiago izan daitekeen.

Nik kanta haietan neure buruaz gozatzen nuen, bere sentimenduen gainean zorionsu ibiltzeko ezer gaituzten beharrik ez zeukanaz; etxe, animalia, soro, iturri, baso, txori, zeru, ikuspegi... jakin eta ordezkazinez osaturiko buruaz, ausentzia gaituzten ematen duen intentsitatearen abantailatik, nahiz eta itxaropen, urrunegiarren, kasik marroaren axanpan. Literaturan sartzeko baimenik eskatzen ausartuko ez zatekeen liburuska hura gaur ere hementxe dago ordenagailu zurixkaren ondoan, urteek eta etxe-aldak ugariak maitagarri horixkaturik, hamazortzi urtegar haurtzaroa erreskatatzen bezala, orain gaztaroa berbizarazten didana, bizitzaren jarraipena justifikatzen duen oroimenaren berrelkatze azeleratuari esker. Hortxe aurkitzen nituen aitari edo inguruko kantuzale rudimentarioei ikasitako bertsoak edo fragmentuak, denak ikasgarri irudi. Egun batzuetan buruan erabiliz, berehala memorizatzen nituen sorta haiek hizketaren baitan etorriak iruditzen zitzaizkidan, oroimena bera baino aurrerago; neure ikaskuntzaren azterketa kritikoak bakarrik argitzen zidan, ilungune handiekin, zer noiz ikasia nuen. Edertasun artistiko oro artifizio bat dela aurkitzetik oraindik urrun nintzela, sorta neurtu, errimatu eta kantagarri haiek, neure buruaren osagai eta, oroitze soilaz besterik ezinaren nostalgian, hizki bihurturiko maitemingai izanez gai-

nera, aise buruz ikasten uzteko propietate dibinoa zekarten, eta inoiz ere ez adjektibo hori alazoago aplikatua, apur bat profanoki bada ere. Izan ere, bihararumun amaigabeetako isilaldi ugari, luze eta aukeran piadosoak nik Jainkoaren nonahitasuna bere presentzia etengabeen bizitzeko idealak irudi zezakeen itomena goren atsegin bihurtzeko ahalegin karnalean beteko nituen, batez ere ekitalditik ekitaldirako pasilloaldi luzeetan edo irakasle suzesiboek bi hormen kontrara ilara banatan eragiten zizkiguten itxaronaldietan (eurak aurretik, samalda beltza atzetik sar zedin), non 'avemariak' zenbatzeko arrosario-ale ondo bisibleei *Loriak udan* edo *Zortzi nobio* edo *Bizkaiko bazter baten* ahapaldiak eransten nizkien, biltasun itxura berberaz, baina kontzentrazio askoz lortuagoan. Irakurtze hunkigarri baten ondoren, memoriak jarraian bertan probatua izateko eskatuko zuen, argia itzali eta logelako atzera-aurreren oinotsik furtiboenean, ahapaldiak nola hatzak gaztanberan bezala itsasten ziren sentitze bigunaz gozatzeko. Beste piztualdi bat, beste ahapaldi bat, berriz ilunpera, testua memorian nola argizatzen zen ikustera. Arriskua txikitzen eta abiadura handitzen zuen intermitentzia hark komenentzia perfektuan txandatzen zituen baieztokoak eta ezeztokoak; bere desaraua ezkutatu nahian, ia orrialderaino okertua zen flexo jasankorra piztu eta, bai: *Beste bertso bat burura*. Itzali eta, ez: *Ez nok harrapatuko!* Pasillo muturreko kantoitik agertzen irudikatzen nuen prefektuari, ez: *Hau ez deustak kenduko*. Bai: *Orain hartuik popatik!*

Argitan, neure buru-puskak aurkitzen nituen; ilunetan, neure buru-puskak gogoratzen. Alternantzia zoragarria, noiz behinka, txapliguen abiakerak bezalako kontzientzia-zarrastek presentera josi izan ez banindute, non nire atsegin-sorburuak desira inpossibleekin talkatzen ziren. Presente huraxe ere etorkizunean, euren unean hain doatsuak izan ez ziren iragan presentek bezala, atsegin-sorburu bilakatuko zela pentsatzea boluntarismotik ozta hara inditzen zen, baina era eder bat zen, presentea norbere gainetik txikituz pasa ez zedin, batez ere nire buru-aurkitze beharbada ilusorio haren gako handi bat hizkuntzan egon zitekeela susmatu nuenetik; eta batez ere, erdararanzko instigazio ia Jainkoak inspiratu haren azpian, euskararen estintzio-plana deskubritzen joateak errebeldia handikorrerantz oldartu ninduenetik. Artean saiatua nintzen erdarazko irakurketez gozatzen, baita gozatu ere, saiatzek norbere burua egin-

kizun betearen lizarrez edertzen duen neurrian; baina hala zen nola litzatekeen, itsasadarraren bokalean, ertzetik ertzera pasatzeko untzi lokalaren lekuan, erraturik, transatlantikoan enbarkatu denaren kasua. Inguruan zer arraroak sumatu arren, errakuntzak ere ziurtasun osoak bezala agintzen baitu, harik eta kontrako ziurtasun handiagoak aurreko eraikuntza guztia elur-jausia bezala eraitsi arte, bat-batean (sarritan berandu) ohartu zara, hots, onargarri izateko baino errakuntza handiagoaren forma hartu duen itsaso zabalak agertu dizu beste aldeko kaia eta kosterrria horizontean ezkutatzera doazela. *Noiz itzuliko gara?* galdetzen ausartu zarenerako, inguru guztia itsaso da; hobe galdetu ez bazenu, ez hainbeste, *barkua ez dok txintxona, atzera-aurrera ibiltzeko* esan dizutelako, zeragatik baizik: *Nork jakin! Untzi honeek, beti joanean, portu batzuetara inoiz ez dozak bigarrenez iristen.*

Konparaziotzat ekarritako errakuntza hori ez dela lar sinesgarria pentsatu duenari esan behar zaio, batzuetan, banaka ezinezko diruditen zirkunstantziak elkarrengana arrimu bila bezala pilatzen direla, azkenean, obserbazio hotzak emaitza fatidikotzat kalifikatuko lukeena erarik naturalenean gertaerazteko. Hamar urteko umea, ama gaixorik dagoelako, aita gerran hil zitzaiolako, edo biei eskapatzeko okerkeria otu zaiolako, lehenengoz menturatu da bera bakarrik ontziratzen; erraturik sartu den ontzian andere elegante batek, abortua izan berri duelako edo abortatzera doalako, edo bigarren senar petroloak antzeko bat kendu diolako, txera egin dio, ontziko arduradun suzesiboei bere semea dela pentsaraziz; edo agian arduradunok zer guztiak zuzen pentsatzeko baino goiz okerragoa izan dezakete, irteera egun batez aurreratu dietelako; denak arrapaladan eta ernegaturik dabilta. Eta, gainera, zer kristo! Errakuntza arrazionaldu egin behar al da? Horrela jarririk, ondorio bigunagoekin bada ere, sinesgarritasun txikiagokotzat jo behar da, *komuna non?* galdeturik, *han!* entzun eta, atea irekitzean, txanpon-makinen ilara bategaz topo egin duenarena. Dirua bueltatzeko askatxoak pizontzi modernoak iruditu zaizkio; ez du atsedean makala hartu, argi koloretsu eta keinukarien handik lehenbailehen irteteko gomendioa ulertu duenerako. Estuasuna, inguruaren ezezagutzagaz batzen denean, irudimena baino askoz trebeagoa izan daiteke egoera pentsaezinak sortzen, hainbestean ezen ez baita ziurra bera ez ote den irudimenaren garapenaren motorra.

Kontua da mutikoa itsaso handian aurrera doala eta bururatzen zaion zerik beldurgarriena igeri ez jakitea dela, oraindik ez baititu ur haiek marrazoekin edo tripulanteak piratekin asoziatu. Negarrari emateko gogoak baino lotsak, errakuntzaren ondorioek baino ridikuluaren beldurrak indar handiagoa daukanez gero (sarritan sentsazio psikologiko sekundarioek errealtate gordinari aurrea hartzen diote, zorionez, alderantziz hilgarria bailitzateke; batek bi auto elkarren kontra burdina-multzo bihurturik aurkitu ditu eta, barruan jendea dagoela esan diotenean, besterik ez zaio gogoratu autook zer markatakoak diren edo zeinek zein lehenen jo duen galdetzea baino), eta etsipenerako heldutasunik edo desesperaziorako kemenik oraindik apenas daukanez gero, noiz behingo soraioaldi argiagoei esker, destinoaren objektu kutuna izatearen handitasunean tinkatzen da. Hizkera homerikoan edo nahimen dibinoan, neu oraintxe nagoen egoerara, zeinari, badaezpada, ez diodan galdetzen ea Adan eta Ebaren lehen hizkuntza benetan euskara izan zen, niretzat nahikoa paradisu baita *Bizkaiko bazter baten, Anboto partian* ibiltzen utz diezadaten.

Zarata batek flexo makurra berbertan itzali du, esan nahi baita eskua bera arduratzen dela nire oharren sarritan abstrahituegiari aurre hartzen, halako eran non, inoiz, argia zergatik itzali den deduzitzen dihardudala, oinots leunleunak, dzz-dzz-dzz, somatzen baititut ate aurretik pasatzen, sotana bueloaren haizetxoagaz batera. Esku ezkerrari, muin guran, haginka egin diot, mina isiltzen ahalegindu behar izateraino. *Portatu haz!* (Piztu, eskuinagaz, itzali, beti ezkerragaz). *Orduan, zergaitik egiten deustak haginka?* –kexatzen da eskua, berriz entzutearren hortzeria gehiago estutuagandik: *Inoiz huts egin badeidak, jan egingo hautala jakin daiaan.* Ezkerrak salbatzen nau beti. Zaratatxoan hasi dena burrunba bihurtu du gaueko isiltasunaren hutsune kolosalak. Jarraian, ura kil-kul-kil-kul hustubidean behera oldartu denean, iratxoetan banaturik, *goazen hor behean dabilenez deskojonatzera* esanez, eta nire paretik *bajatozak, bajatozak!* karkaratuz pasatzen ari denean, konturatu naiz baten bat goiko gelako lababoan txizaginan ari dela, lotaldi luzetik itzartu den seinale. Honezkero bada, beraz, ordu bata, edo beharbada biak. *Sancta Dei genitrix! Inori txarrik egiten ez nabil, ezta?*

Orduan erlojurik izan banu, segundero eta guzti, klaseetan ez nintzatekeen hainbeste lokartuko, orraztxo gerakaitz eta nerbioso hark beste bi nagiak nola pasatzen zituen ikusiz, *oraintxe... oraintxe... txak!* Aukera horrek udako oporrak arte itxaron beharko zuen, non anaia zaharragoaren erlojua, Saharako soldadutzatik *merke-merke erosita* ekarri zuena, *eta ibiltzen dakiena!*, behin edo behin, berak ez zekiela eta amak ez-ikusi eginik, mahukak erremangaturik jantziko nuen, eskuturrari biratxoak eraginez, islada miragarriak zabaltzeko. Ordua jakiteko, hain ez nion ia inoiz begiratzen, ezen, norbaitek, orduगतिक bainoago erlojua ikusmiratzeगतिक berak ere, *zer ordu da?* itauntzen bazuen, *eskerrik asko* erantzungo nion, apaizgaiok denean etsenplu emateko genekarren ongura labainaren arabera, zeina, esker ona alegia, geroago konturatu naizenez, mesede egiteko asmorik ez dutenek baino ukatu dizuteneke gehiago laudatzen duten, baina hori erlojutik asko urruntzea litzateke. Kontua da, gaineko soilairuan edo goragokoan, baten batek lababotik txizaginan ziharduela, eta orduak erlojugabeentzat ere aurrera joaten diren arren, mutila behatz puntetan, lebitatu nahi eta ezinean nekusen, pitilin zimelari tira eta tira, lababoak ez baitzeuden, horretan, inorentzat egoki pentsatuak. Mutilik altuenen kasuan ere, grifoaren azpi samarrera iristeko, hankarteak nahitaez lababo ertzagaz tope egiten baitzuen, lotsa gabe tiratu behar zitzaion mokoari.

Halako une eta zereginen ari zen interfektua nor zen gutxi gorabehera jakiteak eta zehazki imaginatzeak ez ninduen gehiago harritu, tarteka ematen zizkiguten ohar-aholku-mehatxuen jardunaldietan, 'lababoan ez txizarik egin' estreinakoz entzuteak egin ninduena baino. Lehenengotan sinesgogor, aurkikuntzaren handitasuna barneratu nueneko, intrigazko ikerketa apasionantea abiatu zen nire baitan. Lehenik eta behin, nagusiek nola zekiten falta haren berri, euren logeletan bainu eder bana bazeukatzen? Esplikazioa ia galderan bertan zetorren. Ez zen beharrezko larritzat jotzen zen hutsegite hura gogo-zirinen batek konfesatua izan zedin. Hainbesteren artean beti izaten ziren hain bertute goraipatua den sintzeritatean jausteko prest zeudenak, zintzotasunaren eta goikoen ederra irabazteko grinaren konbinazioz eta, ez gutxiago, mistika komunitarioaren onarpenez, zeinaren bidez goikoak menpekoen premiaz edo inozentziaz baliatzen

ziren. Hutsegile dorpeak jo gabe, noski, in fraganti harrapatuak izateko do-
haina edo menustasuna ez bazen, lababoa in fragantzia uzteko inkontzien-
tzia zeukatenak. Banan-banan, ia atsegin inmoderatuz deskubritzen joan
nintzen azalpen egiazko guztiok ez ziren beharrezko, ohartu nintzenean
prefektuak ere ikasle izanak zirela eta jakin beharreko guztia jakin zezake-
tela euren burutik; pitilinetik ez dakit, ezin bainuen imaginatu espiritua
materialki errepresentatzen saiatzen zen gure gogo-zuzendariak, adibidez,
pitilini izatekotan, nola hel ziezaiokeen. Hala gertatzen zen txizakera hura
ere tradizio eklesiastikoaren barruan zettorrela, norbere egintzak hurren-
goei debekatuz expiatzeko moral erpeluzea belaunez belaun transmitituz
eta, ahal bazen, beste atal bat gehituz.

Ez dakit lababoen garbitasuna prebenitzeko helburua ala zer izango zuen,
seminarioan lehenengoz sartzean, oraindik ume-ume, lotegi korrituko 60 ar-
marioetarik, ordena alfabetikoz, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7.a tokatu zitzaidanean, neure
arropa tristeak esku abailduekin eta begi beratuekin banatu ondoren, behe-
rengo kaxoian agertu zitzaidan txizontzi zuriak; txerrikume hila balitz beza-
lako higuin-sustoa eman zidan. Estraineko gauean bertan, ohera aurreko
otoitzaldiaren sarreran, bakan batzuk harrigarriro gerakaitz eta gehienok
mirua gainean birundatzen zaien txita amagabeak bezain kikil geunden be-
rrehundik gora mutikoren harrera moduan, lehen instrukzio oinarrizkoen ar-
tean (gainerako arau ugariak hurrengo egunetan argituz joango zirelako
promesa hain nahigabetsua izatetik erdaraz ondo ez jakiteak libratzen gin-
tuen), txizontziaren erabilera azaldu zutenean, neure intimitatea hain tupus-
tean desartikulaturik ikusi nuen, ezen ez nintzen gauza izan neure buruari
agintzeko, gauez han txiza egin baino lehenago, puxikari lehertzen utziko
niola. Etxean ohituta nengoen, noski, txizontzira egiten; loguraren eta ilunpe-
aren mende, argindarretik urrun oraindik, ukuilura ortozik jaisteak, abentura
endredosoa eta arriskutsua izanez gainera, etxe guztia iratzartzea zekarkeen,
lagun eta animalia. Baina biharamunean, neure ontzi zikina ofrendan erama-
nez, lotegi amaigabea hainbeste begiren aurrean komunetarantz zeharkatu
beharko nuela imaginatzeak gorputza aurretiaz dardaratu zidan, besteak ere
eginbehar berdinean aurkituko zirela pentsatzeak nire lotsariari efektu es-
pantziboa besterik eragiten ez ziola.

Ikasi behar izan nuen, bada, ez hainbeste txizalari sarritan atzeraezinagatik, edo nota publikoki irakurrietan, urbanitatean suspenditzeko hutsegite larrietariko bat bezala, 'perikorik hustu ez' entzuteko beldurragatik, baizik behin, ikaskide baten nota jaisteko arrazoi larritzat, 'perikorik erabili ez' entzun nuenetik, durdituki. *Hau derrigorra dok, antza* –pentsatu nuen, nire ezgaitasun konprensiboak aurkitu ohi zuen arrazoi defentsiborik seguruenera jotz. Txizontziaren argot-izen hori goikoek ere asumiturik zeukaten, egintza desonestoak iradokitzeko birtualtasuna izan zezaketen premia saihestezinen izenek, omititzerik ez zegoenean, zeharbidetuak izateko zeukaten bizioagatik. Alferrik zen objektatzea: *Eta txizalarririk ez bajatort, zer egin behar dot?* Txizontzirik ez erabiltzea nork jakin zeren susmagarri izan zitekeen! Bi ohe harago, gauero ontzikada ozenak egiten zituenari txorrotada batzuk neure ontzian egin zitzaizkizaten ez nintzen ausartu, bestela ere lantzean batek egiten zion burlari (*puxika ala ur-saltoa daukak hik?*) aldaera iraingarriago bat ez ematearren baino areago, honako zerbait ez entzutearren: *Baita zera be! Kolkora egingo deuat!* Hark ere, gaixoak, agresibitatez defendatu behar koldartasunetik puskatuko zioten izatea. Aipatu ikaskidearen 'perikorik ez erabiltzea' krudelago iruditu zitzaidan, gizajoak ohean txiza egiten zuela jakin nuenean, batzuetan neuri ere halakoxe lotsagarrikeria bat gerta zekidan desiratzeak tentatzeraino, inori ezertan onik egingo ez zion elkartasun senagatik baino gehiago, sumatzen nuelako neuk jasan nezakeen eta nire ardura osoa okupa zezakeen errukarritasun benetako bat ez ote zen bigunago gertatuko besteeengan entzuten nituen gaitzen beldurra baino. Hainbeste pitilinen artean, gu txikiak izan arren, zarrastada luzeak ateratzen baitziren, gauez komunera osteraka eta bonbei tiraka ibiltzeak komunitatearen loa asaldatuko zuelako arrazoi egiazkoaren bilgarripean (han bazen argindarra, gauez hil-hurren bihurturik, inoiz kaka koloreko begitandu zitzaidana), apurka-apurka konturaturatz gindoazen hutsegite batzuen izaera satanikoaz. Pijaman elkar ukitzea zantarkeria bazen, komunean bi batera sartzea (edo ohean, ene ama!) etxera bidaltzeko motibo fulminantea zen, ez etxekoei gordinki gomendatu gabe herriko parrokoagana jotzeko, mutilari erreformatorioan egotaldi prudente bat eragin ziezaioten, 'prudentearen' ohiko azepzioan beti, gupida gabe alegia. Deduzituz joan ginen txizontziak, bere zakarrean, misterio handiak gordezten zituela. Loarte laxoan, gogoaz sorgor eta gorputza bero zegoela, gauari

afizio paraleloak hartzen ikastea besterik ez genuen behar, 'beti lagundurik eta inoiz ere ez hirutik behera' lema non eta komunean edo dutxetan apurtuz, zaintzaileek lotan egon behar zutenean, hain zuzen. *Baina, Aita! Jesukristok berak ez eban esan, ba, 'zoaze binan-binan eta...'* – Inoiz ere ez hirutik behera, entzun? – moztuko zuen Don Eliasek ozenki-. *Hirutasun Deunaren errespetuz!* Albokoak ukondokada disimulatuan ahapekatu zidan: *Hirutasunean be tranpa jagok, antza – Hago isilik, begira-begira jagok eta!*

Hilean behin, gutxienez, eta 'premia zegoen guztian' batzen gintuzten oharraidi haietan, prefektu nagusia, edo okasio apartekoetan erretorea bera, beti geure aulkira begira mintzo zela iruditzen zitzaidan. Oraingoan irudipenak asmatu egin zuen, Don Eliasek ohargintza honela moztu baitzuen:

– *Felipe Arinburu!* –Izen-deiturekin deitua izatea beldurgarria zen-. *Zer martxan hion albokoari?* –Nire laguna isil eta kikil geratu da.

– *Ezer ere ez? Izendatua izatean, zutitu egin behar dela ez al dakik?* –Felipe gizajoa bizkarrezurra korapilaturik zutitu da-. *Zer esaten ari hintzen hor ukondotik?*

– *Egia esan behar da derrigor?*

– *Derrigor eta beti!*

– *Kakalrriari eutsi ezinik nengoela.*

– *Egin al duk?*

– *Ez, aita, baina larri nago.*

– *Jarraitu larritzen, baina isilean!*

Gure herrian abadeei 'jauna' eta fraileei 'aita' esateko ohituratik gentozen, baina 'aita' gehi izena beti ere, *Aita Luzio, Aita Fidel* eta horrela; abadeei *Don Luzio* edo *Don Fidel* bezala. Seminarioan denak 'padre!'-ka entzun nituenean, erdaldunak extrabaganteak iruditu zitzaizkidan:

– *¡Padre! ¿Puedo cerrar la ventana?*

– *¡No! ¡Hay que curtirse!*

– *'Hay que cortarse' esan jok?* (Ni oraindik irenduko ote gintuzten kezkatik guztiz libratzeko nengoen)

– *Curtirse!*

– *Zer dok hori?*

– *Leihotik datorren zeozer izango dok.*

- *¡Padre! ¿Podemos sentarnos?*
- *Cuando yo diga.*
- *¡Padre! ¿Me da permiso para...?*
- *¡No hay permiso!*
- *¡Pero si no he dicho para qué!*
- *¡He dicho que no hay permiso!*

Kasik poztu egin nintzen euskaraz egiten ez uzteaz, munduan aitarentzat bakarrik sentitzen nuen hitz hura edonori deitzetik eta batez ere halako hizpide arraroetan erabiltzetik libratzearren.

Ganadua ukuilu mekanizatueta bezalatsu lerrotzen ginen lotegi handietatik gela indibidualetara pasatu gintuztenean, hamasei bat urtetik gora, txizontziaren erabilera alarmanteki jaitsi zen nonbait, kontrako oharren insistenziak adierazten zuenetik, zerak askori euren kabuz deskubritzen beharbada hilak joango zitzaizkiena probatzeko jenioa piztu zien. Txizontziaren dekadentzia ez nuen erromatar inperioaren erorreragaz lotzen, gure ontzia erromatar soldaduen kaskoagaz asoziatzen nuelako bakarrik (haiek ere, noizbait, hura eskuan izango zuten, guk inoiz, jai bezperetan eta, txizontzi hustua buruan genuela pasilloa zeharkatzen genuen bezala), baizik, batez ere, exhortazio arrazoitsu bezain konfiantzagarabe haietan, latin gerlaritik zetorren oihartzun hilkorra atzematen genuelako. ‘Tu quoque, filii mii!’ ospetsua; Julio Zesarren ahoan bezala, gure prefektuenean ere etsipen supremoaren lelo bilakatzen zena. *Hik ere, semetxo, lababoan egiten al duk?* Seminarioan sartzeango txizontzi instrukzioetan, handik urteetara desatxikiz joango nintzen bezala, aise sinetsi nuen inperio handiren baten erraietan sartu nintzela, kapera eskergan buruak besterik ikusten ez nuen jentetza hura, denak uniformaturik, mundua baino handiago iruditu zitzaidanean. Ez nuen imaginatzen gure herriko elizakada baino handiagorik izan zitekeenik. Ez nintzen bakarra izango, beste batek ere, munduan sei mila milioi bizilagun izan zitezkeenetz eztabaida beroan zihardutenei adi entzuten zegoela, ezin izan baitzion albotik argudiatzeari eutsi: *Egon egingo dozak. Lehengoan Laudioko feriara joan nintzoan eta, elizatik urtekeran, bajegoan han jentetan!*

Gure herriko elizan 'mundu guztia' sartzen zela esan izango nukeen, eta hara orain askoz gehiago eta adin berekoak batera geundela, tamquam acies formata, seiná buruko hogeina bankuko lau ilaratan. Durdituegi eta albaterik ba ote zegoen arduratuegi nengoela, infanteria supramundutarren batean sartua nintzen sentipena guztizkoa izango zatekeen, txizontziaren ohar esplikagaitz baina tangible haiengatik izan ez balitz. Ontzi probidentzialak, seminarioko agintearentzat ere, abadegaien egoera animikoa salatzen bide zuen; txizontzi asko apurtzeak komunitatea aztoraturik zebilela adierazten zuen, zegokienak zigortuz bakarrik baretzen ez zena bera. Ekonomiaz eta ikasleen elikuaz arduratzen zen prefektu maiordomoak morroiari aginduko zion: *Hi, Fakundo! Gaur bota palakada bat bromuro gehiago*. Fakundok futbol zelaietatik ahalik hurren lotzeko jenioa zeukan asto eternoari (hamahiru urteko karreran, han aurkitu eta han utzi genuen) belarriak batera erortzen zitzaizkionean, retrospectiboki ohartzen ginen geure moteltasunaren arrazoiak, hark gure hondakinak jaten baitzituen. *Ikusten asto hori? Honeek oraintxe be sartu jeuskuek zeozer*. Gehienek txizontzira txiza egiten inozentzian jarraitzen zuten bitartean, batzuek arrantxotik gutxiago jan eta sotanuan zegoen despentsa erraldoi eta ondo itxitik pikupasak harrapatzen saiatzen ginen, ez inoizko amorruz, geu ere gutxi-asko ukiturik geundela suposatu behar baitzen. Bromuro kontua zenbateraino zen egia gutxiena zen, geuk hala sinetsiz gero. Merzei zuen sinestea, oraindik errebeldiara iristeke baina forma hartzen hasita zegoen indiziplinari arrazoi fisiologiko bat eskaintzeko. Fakundoren astoak (beroni ere Fakundo deitzen genion), bata goian, bestea behean, bazuen lur eginez bezala eta belarriak txandatur egoteko arta txokantea, gero filosofiako irakasle batek 'jarrera pentsalaria' izendatuko zuena, Paskalen kainaberatik edo. Gure zirkulu txikiaren buruetan, osterá, ez zen sartzen, ezta baserri sakonetik gentozenongan ere, astoaren belarriak batera eror zitezkeenik, belarritako eskergak bailiran, inoiz Fakundorenak bezala.

Txerriena beste kontu bat zen, logela eraikinaren atzealdean tokatu zitzaizkien (hainbeste urtetan, batez beste, denoi tokatzen zitzaizkigun atzeakurreak berdintsu) gau batzuetan sobera jasan behar izaten zuten. Seminarioko bi pabilioi eskergen atzean, ehun bat metroko tartean, beste bi erreplika zeuden eskeletoan, gerrako haustura nabariekín. Hausturok ze-

renak izan zitezkeen txarto pentsatzen hasteak deskubriarazi zigun, kostata, sekretismo ofizialaren laguntzaz. Eskeleto itsusiak, mamutiak, zeintzuetariko bataren lehen solairua txerritegiak edo, denean islada dibinoa ikusarazten saiatzen zen gogo-jardunlari batek errebelatu zigunez, 'txerrien komunitateak' habitatzen zuen. Komunitate horrek, aurreko pabilioietako komunitateon hondakin hutsetatik bizi zen arren, ez zion, nonbait, haietatik proportzioz gutxiago elikatzen zen astoak adina igartzen janariaren motelgarriari. Garbi esanda, badirudi ez ziela batere igartzen, ez hondakin nazkagarriei, ez gehikin motelgarriei, txerria bezalako birziklagailurik ez dagoela kimikoki ere frogatuz. Edozein goizaldetan, halako eskandalua altxatzen zuten, elkar jaten barik, elkar erditzen ari bailiran, ezen Jainkoari entregatua genion loa deabruak harturik lehertzen baitzen, batzuegan deskojonoa, besteengan izua, eta luzatzen bazen, denengan desesperazioa eraginez. Handik urteetara, ez nuen ezagutuko rock kontzerturik, txerri-talde haren kemen agitatzaileari hurrik emango zionik, segurrenik protesta-motiborik bat ere gabe, gainera.

Karrera urteak aurrera zihoazela, arautegiarekiko desmenpetasun handi-korragaz batera, eta bigilantziari zuloak aurkitu ahala, afalondoko errekreo laburretik, ohera aurreko azken elizkizunera sartu beharrean, batzuk hasi ginenean (hiruko taldetxoak, gehienik ere, Hirutasunaren errespetuz) kanpoan furtiboki gelditzen, txerritegiak bizi ziren pabilioi zoko edo oste zikinetan, mamurik sartzeko baino paraje beltzagoetan; hasi ginenean geure zigarrotxoak erretzen, amaibako kontuak esaten, astiro-astiro ilunperatuz zihoan komunitatearen plegutasunetik at aurkitzeaz gozatzen, bertsotan entrenatuz asaskatzen, une bat iristen zen, non isilean barruratzeko abentura arriskutsua atzeratu nahiak norbaiti iradokiko zion: *Zergaitik ez joaguz txarriak astintzen?* Harrikada kurioso batzuk nahikoa ziren, rockaldi txerritarra abiarazteko, halako eran non, katen-erreakzioan bezala kontrol orori eskapaturik, amaia baitzen gero zailena, geu ere ikaratzera. *Hau ete dok apokalipsia? – Laster ikusiko joagu.* Seminarioaren atze-fatxada irtengune-sargunez betean, leiho handiak argitzen hasten ziren, lehenengotan han-hemenka, gero erreskan, lantzean gorputz erdi batek besoak gora-goraka jaurtitzen zituela, oihuka bezala, eta oihu eginez:

– Joe! Txarri zikinok! Zuek ez daukazue goizeko seiretan ur hotzagaz dutxatu beharrik, eztok?

– Hori dok hori Palestrina, eta ez guk kantetan doguzen antifonak!

– Isilduko al zarie!? –orro egingo zuen kankailu batek, ipurdia leihora saltarazi eta gorputz erdi kanporantz balantzaka, bigarren solairutik laugarreneantz–. Txarriak baino txarriago jarri behar ete joagu?

– Isildu zertarako? Ekin behar bajako, geuk be ekin! –Biharamunean ikasle bezuldu batek errektoreagana joko zuen, kexatuz:

– Aita errektore! Horreek txarri zantarrok ez deuskue lorik egiten izten!

– Tirok, seme! Horiek ere Jainkoaren izakiak dituk eta euren modua zaukatek, Kreatzailea goratzeko.

– Gero guri urdaia besterik ez emoteko?

– Ez bekizue bera falta.

– Aspaldion falta da, ba! –pentsatzen ausartu nintzen, esateko temeritateari eutsiz.

Ezinak zenbat ahalbide dauzkan! Zaharrek etxeok entzuteko moduan txarto berba egiteko egozten zaien inozentzian estaltzen dute euren txartoesanak entzunak izan daitezen malezia. Txar egiteko ahala moteltzen zaionari handi dakiok txarra desiratzekoa. *Horrenbeste penatzen al zaitu bonbila bat isioturik ikusteak? Hor daukazu eguzkia beti isioturik – Lantzean behin, ha be hobeto legokek itzungita.* Entzuten jakin? Bai horixe! Ezer ez dut ikasten, baina jakinduria gordetzen laguntzen dit. *Zer gertatu zen armairuan gau hartan? – Kontatu egingo al dot? – Bai! – Ba, tente-tenterik, ez baitzegoen etzuterik, ekin bertan – Hori bakarrik? Gehiago ezin izan nuen entzun. Beti jagok aukera bat, gizon! – Nirea aspaldi joana da – Noiz? – Jaio nintzenean.* Jainkoari okerretik zuzena ateratzeko miraria esleitu beharrean, hots, konpromisoa ezarri beharrean, ez al litzateke garbiagoa onartzea Jainkoaren izena ez dela lokatuko oker bat gehiagogatik?

Gure dotrinaldi pintoreskoan, Don Luis zaharra Jainkoaren atributuak erreskan kantarazten ari zitzaigula, mutiko zapo batek haren gonapean ezkutatzeke barrabaskeria zeukan hartan (*altaran be barre? ume barrabanok!*), *Jainkoa non jagok, Perutxo?* itaunari, Perutxok leku guztietan erantzun aurretik,

gonapekoak erpuruagaz *hemen-hemen!* keinuak egiten zizkion, sotana barrutik gorantz seinalatuz. *Zuen txarri-kortan be bai? – Ez, jauna –erantzun zuen Perutxok; ezkutatuari kontra egitearren ezeztatu zuela pentsatu genuen. Oraintxe ez dok esan, ba, leku guztietan zegoela? – Gurean ez dago txarririk, jauna. Eutsi ezinik geunden barreari jaregiteko aitzakia eskertu genuen, benetako motiboa salatu beharrik gabe. Errektore hau ez dok, ez, gure Don Luis behinola-koa –pentsatuko nuen handik urteetara. Txerriengatik kexu joan zenari, azkenean, otzantasunaz eta sakrifizio-espirituaz zorrozaldi latza eman zion, baina, kasu hartan, hitz nordun oro beti hartatik interpretatzeko mania zeukaten errebeldiaren zantzuagatik baino areago izan zela esango nuke urdaia- ren aipua beste txerriki nobleagoen destino hierarkikoaren ironiatzat hartu zuelako (*errektore hazenean, urdaiazpia jango dok*), nahiz eta txerriagan dena izan noblea, Ama Birjinagan bezala, Bizkaiko abade batek alderantziz konparatu zituen moduan; biak hain onak ei ziren, ezen dena aprobetxatzekoa zuten. Abade jatun haren ruraltasun larregiari barre egiten genion, baina astiro-astiro ohartuz etorri naiz, umetan txerri-hiltzeak ikaratu baino barrua urratzenago bazidan, eta kazkondutan begiak itxita eutsi behar izaten banion, ez zela hainbeste egintzaren lazgarriagatik, txerriaren errendiezin terminala- ren erakustaldi jasanezinagatik baizik. Isiltasun negargarrian belaunikatzen den zezen suharrak (inondik ere, noski, koldarkeriaz kulpatzen ez dudanak) loriatu beharko luke azken arnasa kurrinkarik gorrotozkoen eta ostikadarik biolentoen bihurtzen duen txerriaren duintasun gainhumanoaz, zeinaren gainetik ezingo nukkeen jarri, bihotzari zintzo jarraitzekotan, ez danbada hiltzai- lea Gora Euskadi!–ka hartu duena, ez zutik hiltzea hobesteko kemenduna, ez “nire gogoa zeure esku uzten dut” esan zuena, pizteko asmoa daukanarena hain hiltze purua ere ez da baina.*

Gure txerri maitea, bizitza baiki dohatsu baina laburraren ondoren, lu- kaina ilada flipagarrian pizten zen, sukaldeko sabaitik eskegitako hamaka gorri-ilun gisan, zeinaren gain aztoragarriro usaintsuan etzanda kulunkatzea izaten zen, ertzetan dingiliz zeuden solomo gerriluzeei lantzean horzkada bat egiteko lain burua kanporatuz, nire seminarioko ohera-aurrearen atal luzee- tariko bat, goiko solairuko txizagilearen lababoa isiltzen zenean, zeinaren gri- foak, halaber, txerriaren azken ostikadarena entzunik-edo, presio maximoari

eman dion oraintxe bertan, kssssss!!, lababo alboetan ezbaian geratu diren txiza tantak edo haritxoak batzeko. Gaua abantaila handia da, zaratak salatu-tuko ez balu, zeren abadegai beti loti eta gehienez kasto batek zertara jaiki behar du goizaldean lababora, gorputzak behar zuen likidoa sobera hartua baitu afaritako zopa urtsuan edo, zerbitzatzen azken samar ibili bada, ur hutssezkoan? Baina hori geure arteko kontua da, ezinezkoa baita prefektuen gelaletatik, hain urrun egon ezta ere, hodieiek zabaltzen duten anpliazio orokorra pertsonalizatzea. Egunez, halako etxe erraldoian, zaratak zarata handiagoen artean galtzeko abantaila edonork atea ireki ahal izateko arriskuan ezereztan da, normalean kos-kos jo eta 'aurrera' entzun arte ez sartzeko arau zorrotza egon arren, infraktore isilak (pitilin zirriztariak) ezin baitu segurtatu beste bere antzekoren bat atean ager ez dakion, hainbat arau (ahal diren guztiak ez esatearren) elkarrekin hautsi izanaren konfiantzatik datorrena baino ez bada ere; adibidez, ondorioetan pentsatu gabeko bihotzaldi batean, *hi sartu heintekete deitu barik be* esan zeniona, nahiz eta gero ez zaizun askorik gustatuko, lagunik minena baduzu ere, pitilina grifopean duzula harrapa zaitzan. Kasu horretarako dago, hain zuzen, sotanaren estal-aniztasuna, baldin tak jausten uzteko moduan eta ura edaten ari zarelako imintzioan ondo trebaturik hasi bazara, nahiz eta orduantxe ere beti dagoen oihal-barren susmagarriren bat airean edo lababo ertzeko hozkan gatibaturik gelditzeko alukeria. Segurantzaz osoko infrakzioak kontzientzian bakarrik gertatzen dira, eta horrexegatik dira ederrenak, materialki ezinezkoak barne, hala nola gotzaina bahitu eta arautegiaren disoluzioa eskatzea; edo espetxetik ihes egitea soilki, inori gaitzik egin gabe; esaterako, kartzeleroak gauerdiko partxis-partida izorra dakien ez-beharreraino alarmatu gabe. Baina infrakzio materialki posibleak ere behar-beharrezko dira, zeren, kontzientziaren askatasun inpuneaz gehiegi ohar zaitezten eragozteko, materialki arauz enkofratuko baitzaituzte.

Sotanari esker, lababoko txizaldiaren prekauzio guztiak hutsik gabeak izanik ere, nork ekidin zezakeen, hain adin sentikor haietan, aurpegikera instintibo bat eskapa zekion, adibidez, tximinitik burua kanporatu zaionaren antzekoa? Konparazioak ez du balio, errealegia (tautologikoa, berraz) ez izateko, distantzia poetikoa falta baitzaio, zeren, sotana tente bat tximinia baten barne-belztasun iduleztatua izan daitekeelako xehetasunetik aparte, abade

torren hilerarte? – *Idatz ezak gutun bat* – *Gutuna etxera ailegatu aurretik, honantz urtenda egoten dira beti*. Biharamunean, *beste galtzerdirik ez huela, eh, gezurti horrek!* – haserre (ala burla?) egingo zidan prefektuak, baina ez nion argitu nahi izan, han gauzak argitzea gehienez okerrerako izaten baitzen, jertse beltzaren mahukak, kolorez egoki zetozenak, moztu nituela galtzerditzat, hurrengo bisitara arte ondo iraungo zutenak, laster azalduko den sistema progresiboari esker. Jertse mutilatu hori ere ederto estaliko zukeen sotanak, tifusaren kontrako txertoa hartzera deitu ez baligute, banan-banan eta ilaran, halako lan espezialetarako ekarri ohi zuten mediku ernegatuaren eskutik. Prefektu erizain laguntzaileak eta pastilak banatzeko eta termometroa ipintzeko izendatu ohi zuten ikaskide erizainak, konfiantzazkoa behar zuenak, osatzen zuten ekipoa. Gutxien uste onena medikuak sotana erantzeko aginduko zidala. Prefektu erizainak, jertsea ikustean, burlaizetzat hartuko nuen laudorioa jaulki zuen: *Bai jertse elegantea daukaala!* Larritasunak, txertoarenak eta besteak, esplikazio salbagarria iradoki zidan: *Gure herria Otxandiotik hur dagoenez, geu be txaleko estiloan jazten gara* – *Ah!* – konformatu zela pentsatu nuen prefektu erizaina, Otxandio Getxoko auzo bat zela gogoratu bailuen. Biharamunean, ikaskide erizainak, errekreo txikian ezohiki hurreraturik, ez baitzen kuadrilakoa, galdetu zidan: *Otxandio Getxoko auzoa dela esan heuen?* – *Esan, ez najoan esan, baina prefektuak horixe pentsatu ebala begitandu jataan.* (Nik pentsatu nebana besteren batek be pentsatu joan, orduan! Poztu nintzen, hurrengo unean anulatuak izango ziren pozak fabrikatzeko neukan gaitasun irremediablean, zeina balantzean desgustuak handiagoak izango zirelako ziurtasunak ere ez baitzuen errenditzen). – *Otxandiotik ez dok trenik pasetan baina!*, hots egin zuen, esplikazio guztien klabea aurkitu bailuen – *Pasetan zoan, baina tren batek, erdi mozkortuta urten ebanak, trabeskera etorri eta artalde oso bat zapaldu joanetik, trenbidea kendu eta errailekin geltokian burdinola abiatzea erabagi jeeun*. Ni ez nengoen guztiz segur, baina ikaskide erizainak ere asko gehiagorik ez zuela jakingo suposatzen nuenez, jertsearena nahikoa disimuluan pasatu zen. Banekien gero amak *jertseari zer egin deitsak?* kargu hartuko zidana, baina hori lekutako oportetari gertatuko zen, etxerakoan maletak zabalkeran. Ordurako, zerbait asmatzeko konfiantza baneukan, nahiz eta oraindik asmatzeke darraidan, baina bururatuko zait liburuaren errepasorako, erremedioa erraz-erraza baita: ‘tomatea’ agertu ahala, galtzerdiei aurrerantz tiratu eta punta-sobrak azpirantz tolestu. Edo, oinpean

bat aise identifika zitekeen tximiniari itsatsitako buru bat bezala; gehi, nahi baduzu, tximinia ibiltaria izateko dohain exzepzionala, konjunktua sobera salbatzen baitu lantegiaren finkotasun inbertsoki proportzionalak (bi mila urte toki berean, eta etorriko direnak!). Estalgarri handiari estalketa gehiago eskatzen zaio, ordea, eta horixe zen kasua abadegai gerakaitzena, zeintzuen nortasun osoa azpian hartua izatearen karga zirkunstantziak ere halaxe esaltzeari esker arintzen zen, hala nola zeharo higitu arteko prakak, bragetako botoi ilaratik ez beste edonondik apurtuak; botoien kasuan, jausiz batera josi behar ziren, ohera aurreko 'lan pertsonalak' arte itxaron gabe, eguerdiko Txit Santuari bisita janda bazen ere. Erreposturik unean bertan eskura izan ezik ("falta larritzat joko da ordezeko botoi-erreserbarik ez edukitze persistentea", Arautegia, 6. parte, 366. artikulua. Eskerrak oraindik beste 200 eta piku falta diren!), zilegi izango da sotanaren kanpo-ilaratik, barren aldetik, ahal dela, bat erauztea, prakena hornitzeko. *Baina, aita! Barrukoa ez baita ikusten! – Horrexegaitik, hain zuzen!* Edo hamabostaldian dutxatu gabeko galtzarbeak, hautsizerdiz enkولاتuak, zeintzuen efektua adaptazio senen batek erregulatzen zigun, zeren poesia sentsitiboak hain maite duen usaimen finagaz ez dago bizirauterik bostehun mutileko komunitatean, ez espetxean, ez ministroen kontseiluan, nahiz ministro guztiak falta izan.

Horiek eta denak freskatzen zituen sotanak, barren zabaletik sartzen zen haizeak (geldiango metro kubiko erdia zaila zen ibilian neurtzea, abiadura, plegu aldakor, oihal kalitate, higa-puntu eta orain ahaztuta daukadan bariable mordo baten ekuazio konplikatuak egin beharko bailirateke) lepoan ez baitzuen irteerarik aurkitzen. Orduan nola idatzi dut 'freskatzen', horren bibrilki? Ilunpearena izango zen, berau freskuragaz asoziatzeko umetatik nekarren senagatik, zeina, behin, kalabozo ilunean beroaren beroz urtzetik doidoi libratzeak ere ez zidan ezabatu. Badirudi esperientziarik gogorrenek ere nekez ordezten dituztela adin samurrean finkaturiko erreflexuak. Horiek eta denak freskatzen zituen sotanak, galtzerdien 'tomateak' izan ezik, beti orpoan aluak, norberak ez beste guztiek ikusteko lekuan. *Heldu-heldua daroak, hi!* –atzeakoak estudioranzko lerroaldian, kapera paretik pasaeran.

–*Ba, hik ez dok jango!* Hori guztia isiltasun burumakurrean eta arrosarioak eskuan. *Zer egingo dot, aita, beste galtzerdirik ez badaukat, eta bisitarik be ez badator da-*

multzo molestorik forma ez dadin, onen-onena, aurreratu ahala moztu (zapatilen mutur 'gosetuetan' atzazal-hortzak ageri ez badira), harik eta atzetik Akilesen tendoi zuria bistaratu arte. Ikaratuko nintzen gero, grekoko testuetan, Akiles 'beldurgarria' orpoz orpo genekarrela jakin nuenean.

Horiek eta nahi ziren hatz-egite guztiak estaltzen ziren sotanapean, kanpotik oso itsusi emango zuketena, halako zerbaitsu nola orangutana bere ilaje beltzean hazka, punturik lotsagarrietan ere norberari begira. Sotana-poltsikoak ere, gure amamaren patrika baino sakonagoak, hegalen batetik zulatuta egoteko, ez zen intentzio txarregirik behar, denbora soila baizik. Sotana oso prenda garestia bazen ere (Sastrería Eclesiástica Eguilaz, Vitoria), luzera, bera zen merkeena, urteetako iraupenak (hazte-adinean, barrenak bernetan gora lotsagabeegi trepatu arte) aurrezte handia baitzekarren azpiko arropetan. Etxean pozik, sotanapean arriben prenda zapuztuak ere emendia zitezkeela eta. Eskuak ere, haren barruan, ibilbide klandestino nasaiak aurkitzen zituen, denak norbere eremuan. Banengoen, bada, ni zergatik insistitzen zuten hainbeste, sudurzapi edo arrosarioen sar-ateratik at, eskuen poltsikoetango ibilkerak ez zela batere 'dekoratiboa', 'dekorosoa' esateak eman zitzakeen pistak sahiestearren, hizkera jasoan *linotipia batek eman zion* esaten zuenaren antzekoa ez bazen, 'lipotimia bat' zelakoan, niri alderantziz grazia handiagoa egiten zidan baina: *Gure mutilak lipotimian lan egiten jok.*

Sotana bedeinkatuak gain aldetik ere bazuen, txizagintza ez-arauzkoaz harago, balia zitekeen erraztasun bat gorputzaren alterazioak ezkutatzeko, esaterako, txilin-garbitzea edo kanpai-jotzea bera, sokari tiratzen zekienaren kasuan. Platikarik espiritualena entzuten zaudela, eskuak, amama arrosario errezatzen edo indaba garantzen bezala, altzoan pilaturik, hatz txiki inperzeptible bat nahikoa da (banengoen, bada, ni, amamak zergatik ote ziren hain altzolan zale!), azpiko unibertso txikia espantsioan ipintzeko. Erreparatzen hasita, oraintxe ulertzen dut, ez denborak dena argitzen duelako, argitasunak denbora behar duelako baizik, 'eskrupuloso estremoan' (ertainak denok izan behar genuen) irudi mundanoen (ut lizunen!) etorrera extranahimendarra euren nahimenagaz uxatu ezinik atormentatzen zirenen kontortsio ustez errukarri haiek ez ote ziren, behin edo behin, tentazio kontsentitu gabe burutuaren

eta nahiaz kontra gozatuaren (hori ere nahimenaren gainetik gerta baitaiteke) bihurtura patetikoak (bekaizgarriak?), sotanaren gordepe linbotarrean. *Apai-zak eta fraileak, jende izorratzaileak* kanta zaharrak zerbait egiarik badu (izan behar du, bestela ez baitzitekeen asmatua izan), pentsatu behar da ez zirela, dena ikasteko, karrera amaitu arte zain egongo. Norbaitek esan zidan, aurretik neuk esan niona errepikatuz, oinaze eta plazer estremoan hazbegiak hain direla antzekoak, ezen kontestu gabe ezin dela bereizi torturatua izaten ala korritzen ari den. Gehitu nahi nuke, bueltan berriro neugana etor dadin arrisku eta guzti ere, oinaze-plazerren konbinazioa, zenbat eta berdinduago izan, hainbat ez-antzekoago dela bietariko edozein banaka hartutatik, transfixoen une kritikoaz geratu zaidan irudian behintzat.

Goiko lababoa isildu denean, hots, eraikin erraldoi guztian lantzean alanbrezko malgukien kirrinkada ameslari eta irregularrez beste, isiltasuna totalizat jo dudanean, kanpai danda bat dantzut, Zamudiokoa segurrenik, Lezamakoa edo Sondikakoa ere izan daitekeena, segun haizea batetik ala bestetik datorren. Deriokoa inola ere ez, urte honetan aurrealdea tokatu zaidan seminarioaren atzealdean baitago eliza, mendi kontran gorantz ihesi zihoala harrapatua; eta bertan utzia, gehiago inorantz mugitzen ez saiatzekotan. Danda bakarra zein osoren erdia izan ote den pentsatzen oheratu naiz; ordu bata baino beranduago izan behar du. Handik urteetara, erlojurik ez erabiltzea erabakiko nuen, denen eskuan eta denean zegoeanean. Auto batek lasai joan ahalko zuen lagun bakarragaz, lau gurpilen eta bost erlojuren gainean, eskuturrean, kalkulagailuan, mugikorrean, guanteran ahaztua edo botatzerik merezi ez duena, autoarena bera... Gu seminarioan jausi ginenean (fronteko terminologia dirudi), ez zeukan erlojurik, familiako negozioari handituz segitzeko argitasunik aurreikusi ez zioten edo beragaz negozioa santifikatu nahi zuten aberaskumeren batek izan ezik. Uste dut ondoegi ikusita ere ez zegoela, ez hainbeste, austeritatean trebatzen ari ginen (edo ginelako) abadegaiontzat inpropioa izan zitekeelako, baizik eguneko eta gaueko denbora zati banagarri guztiak zehaztasun ez nahitaez exaktoz, baina bai zorrozki obligatorioz markatzen zituen turrina (argia joatean, txilibitua, biak Jainko deiaren aldaerak) gutxiestea izan zitekeelako.

Udako oporretan, behin edo behin, amaren baimen isilpekoari edo ez-ikusiarri esker, eskurtsioren batera neraman erlojuari, anaia zaharrak Afrikatik 'kostata' ekarriari (ez dakit horregaz ez ote zuen 'ostuta' esan nahi), hain sarri begirutzen banion, gehiago zen denboraren errepresentazio miniaturazko haregaz jolastearren, ezertarako behar ez nuen ordua jakitearren baino. Hain orratz polit ezberdinak, hain txikian nola kontorneatuak izan zitezkeen txunditzen nintzenak; hain zenbaki graziosoak, halako biribil perfektuan marrazten alferrik saiatzen nintzenak; zaratatxo irribarre-eragile hura, errota infinitesimal batena bezalako; umetan, ahurra belarriaren kontra maskorturik, haien kilikilia esperimentatzeko ohitura arriskugarria neukan intsektu niminoetariko zeinen antzekoa zen konparatuz (tzi-ki-tzi-ki-tzi-ki) entzumena fintzekoa, nahiz eta, sarritan, jendaurreko belarriratze instintibo hura, ba ote zebilen konprobatzeko plantan, ez zen besterik erlojua exhibitzeko modua edo inguruneaz haragoko zeregin garrantzitsuen subjektu ginelako imintzioa baino, esku-telefonoen mende erdi bat geroagoko prekurtsore. Horregatik, estimatuko nuke, esku-telefono erlojudunak patriketako kukukume bihurtu zaizkigun bezala, hiru aurrerapenen fusio kronologikoa ezagutzea, hots, beharbada neuk jakin gabe modatik pasatzen ari den esku-erloju telefonodun irudiduna, intsektu handiei ordua erakutsiz, euron hegada mozteko ez bada ere, urduri jar daitezen behintzat. Erloju zuria, zilarra ez zela banekiena, baina bazelako dudan begiratu zutela pentsatzen nuena, eskuturrean harturik, lehenengoz herriratu nintzenean, uneka-uneka, oinez ahaztu zitzaidan inpresioa neukan, eskuei nola jaregin ez nenkiela, ez baita askorik pentsatu behar hankak eskuekin dabilzala konturatzeko, frontean bi eskuak moztu zizkioten osabari entzun nionez:

– Okerrena barrero oinez ikasi beharra izan zoon.

– Ikasi zenduen, ba!

– Beste era batera. Orain barrero besoek urtengo baleuste, ez jakiat gehiago mogituko nintzatekeen; era originalak honezkero total ahaztuta egon behar jok.

– Orduan, besorik komeni be ez jatzu orain.

– Ez, seguruenik, eta arrazoi bat besterik ez deuat emon.

Horrela entzunda, gerra dibertsio bekaizgarria begitantzen zitzaidan, anaia zaharrak soldadutzatik ekarri zuen erlojuaren antzekoa. Hain harro sentitzen

nintzen beragaz, ezen, norbaitek ordua galdetzen bazidan, sustoa hartzen nuen. *Ordua? Ah, bai! Hori be badauka, ordu-ordua be ez da baina. Ordu erdia da, bost eta erdiak... beno, bostak eta hogeita... ia zazpi, garbi esanda – Horreek hogeita zazpirok minutuak izango dozak, eztok? – Bai, bai. Ez dira lehoiak izango, izan leitezke baina.* Hark ere huraxe gutxien jakin guran galdetu baitzuen ordua.

Lehenengo erloju gorria kosmologiako irakasleari ikusi nion. Pentsatzen nuen ez zela urrezkoa izango, orduan urre guztia Moskun zegoela esaten baitzen, baina, ordua presentzia etengabea edukitzeko zehaztasunagatik bainoago, segurrenik, erloju distiranteagaz ikasleok txunditu guran, mahai gainean uzten baitzuen, unibertso mugatuaren (mugagabetasuna Jainkoari uzteko) forma esternoak esplikatzen ziharduenean (gauza esplikaezinak esplikatzea baino errazagorik ez dago), harixe begira loguratzen nintzen, klase-ordu guztia lokartzearen kontrako borroka hiperbolikoan neramala, *indigenak hiltzen hil zen, indigenen kontra burrukatzen hil zen, indigenen erasoari eusten hil zen, indigena hiltzaileak, indigena estinktoak...* Lehentxoago-gerotxoago beti lokartzen nintzenez, big bang-a bezalako burukadak itzartuko ninduen. Konparazioa esageratua dela jakiteko, bigarren terminoa nork ezagutzen du? Inguruan itzarririk zeuden barretxoek, karkailak baino mingarriagoek, irakaslea senetik ateratzen zuten. Atzera erlojuari begira, beragaz zer txango atsegina (ez dio ardura beragaz bakarrik bada ere) egingo nukeen pentsatzen saiatzen nintzen, logura atzeratu nahian, hurrengo klasera arte behintzat.

Beste danda bat dantzut eta, *joño!* –hots egin du ahoak mantapetik–. *Erlojuen logika be ez dok lar zentzunezkoa. Ordu osoak bi bider eta erdiak behin bakarrik? Erdiak jo behar leukiezak birritan, osotzeko be!* Eta konforme argumentuagaz, erdia zerbait osoa ez balitz bezala, baina nire kexa-itxura poz handi baten forma besterik ez da izan, ordu batak direla jakitearena, gutxienez ordu batak eta erdiak, edo ordu bi eta erdiak izango zirelakoan. *Honek zigarrotxo bat merezi jok.* Neure burua animatu guran esan dut, ez debekuagatik, urritasunagatik baizik, zeina baino debeku zorrotzagoz ez dagoen. Izan ere, bolada batzuetan, egunean paretxo bat zigarro segurtatzeko, banaketa zorrotzak egin behar izaten ditugu; orain erreko dudana bihar faltako dut, hor konpon; jarraituko du existitzen Jainkoak, edo gutxienez haren nahimenak. Gauaren be-

rezko argitasunean leihora irten eta, inguru-baldintzen egokiera neurtzean, bistan dauden bi prefekturen gelak itzalita ageri dira. 'Ehizan' ez badabiltza, lo egon behar dute. Haizeak apur bat barrurantz sakatzen du. Ospera! Hauxe txarra! Baina zer? *Bihar goizerako, aldeko jabek usainok. Eta gau osoan, leihoa zabalik, hotzak akabatu?* Ez dago hainbeste estutu beharrik. Ate gainean bada montante bat, egunez zabaldua susmagarri izan litekeena, baina orduotan nork pasatu behar du pasillo siberiar horretatik, neure moduko isilpea komeni zaionen bat ez bada? Montantea minutu batzuetan irekita, doala korrontea pasillora, han bihar goizean, gaixoen sukhar-hartzaileak hura ere erregistra dezan. *Oh, zazpigarren egoitzako lagunok! Hau zortzigarrena dok, don!* Bai zigarrotxo gozoa, leihoko kristalean ispilu eginez txingarra bizen, neure burua ere ikusarazten didana. Hori bihar goizeko meditazioan ikusten ez da erraz egongo.

Maite dudan musika-lan bategaz, hain leku, lagun, maitalegaz bezala, ezin dut ekidin atseginaren espiralean eror nadin, halako eran non, entzute suze-siboetan aurreko zirrara guztiak akumulatuz doazenez, berriro entzuteko gogoia handitzen zaidan. Ez naiz ahalegintzen gogoari kontra egiten. Atsegin infalibleen gidaritzaz, denbora galdu askotatiko babesle bezala, beste ezagutza batzuen murriztaile izan daitekeela pentsatzeak ez nau hainbeste kezkatzen, ez berrizale baino onzaleago naizelako, baizik badakidalako nire bizitzaren, sorreraren beraren bezala, zati on bat (ez dut onena esango, joera filosofiko-etan zatika nazaten okerretik libratzeko) zori atseginki kontsentituak gidatzen duela, bide dela, esaterako, konfiantzazko lagun baten (berau ere ez zori txikia) hitza, edo musika-zuzendari ospetsu baten izena, edo kalitateagaz, arbitrarioki beharbada, asoziatu dudan bilduma bat. Zoriari, zehaztu gabe badator, aise aurkitzen diot oneranzkoa, deitu gabeko atzetan jotzen dakien zorigaitzari nondik heldu jakitea kostatzen zaidan bezala.

Halako zerbaitu izango zen Berliozen *Sinfonia fantastikoa* erosi nuena. Bilboko plaza eliptikoan zegoen musika-etxe batean beti geratzen nintzen ikusmiran; egun hartan, disko berriren bat erosi arte ez zidan bakerik eman nahi poltsikoan urduri samar zebilen dirutxoak. Zein erosi erabaki ezinik, harutzian eta ikus-usainduan niharduela (etxe horietan, ez dakit egiaz dagoelako

ala neuk emititzen dudalako hartu ohi dudan musika-usain guztiz identifika-
tuak exzitate egiten nau), Berliozen *Sinfonia fantastikoa* hauteman nuen. Pen-
tsa nire ezagutza musikalen maila, egilea ez ezagutzeaz gainera, abizen txakila
iruditu baitzitzaidan, higuina hartua nion 'pardiez' espainolaren antzetik edo.
Nongoa ote zen, ez nion austriar, errusiar, italiar, ezein europarren usainik har-
tzen. Berlioz! Gaztelaniak eta frantsesak bortxatzeko hain grina aihertia duten
euskal abizen bat, 'Berriotz', esaterako, izan zitekeela pentsatzeak ez zidan sin-
patiarik gehitu. Obraren izenburua gustatu zitzaidan: *Sinfonia fantastikoa*. Pen-
tsatu nuen: *Bere produktu bati horrelako izena ipintzeko atrebentzia daukanak nonor
izan behar jok*. Diskoaren kontrazalean (oraindik ez zegoen CD-rik), frantsesa
zela jakin nuen. Ez zen, beraz, ez austriar, ez aleman, ez poloniar, ez errusiar,
ez nafar, ez... Haren soslaia biografiko eta artistikoaren erreseina luzea gus-
tatu zitzaidan, baina hori horretarakoxe idazten da, ezta? Pentsatu izango
nuen: *Karajaneke zuzendua izateko, ez dok edonor izango*. Izena bai. Izen kontun-
dentea zeukan: Hektor. Beharbada, Philippe Berlioz izatera, jaramonik ere ez
niokeen egingo. Erosi egin nuen. Diskoak liburuarekiko daukan abantaila han-
dia da: gehienik, ordubete gal dezakezu; horrenbeste, txizalarriari eusten ere
maiz egin izan dugu. Iluntzean etxean, disko-jogailua martxan ipini nuen. Ha-
siera delikatuak, intriganteak hozkatu ninduen; jarraipeneko erritmo eta me-
lodien segida zirrargarriak atxiki ninduen; eta bizitzako ordurik
txundituenetariko baten buruan, durditurik amaitu nuen, zutitu eta egongel-
an atzera-aurrera, neure buru agitatuari *zer izan dok hau!* errepikatuz. Musika
entzunaldi batek ez nau sekula halako inpaktu totalean menperatu izango.
Zoria, oraingoan, eskura etorriko zitzaidala amesten igaro nuen umezaroko
hegazti fantastikoa izan zen. Sarritan, pentsatu gabeko bideen ez ezik, kontra-
kora predeterminatuen jarraipen sentitzen gara, paper-fabrika bateko tximinia
luzeetatik, norabide harrigarriro ezberdinetan ateratzen diren ke-txorroak bai-
ginan, haizeari esanez: *Segiok heure popari, gauza bahaz*.

Musikaren usain sartua kafe egin-berriaren usain sarkorragaz nahastu de-
nean, bigarren botila irekitzeko premia ezabatu egin da. Kanpoko bero galdak
setiaturiko sukalde ilun, izerkor, bonbilla nimino batek argituan, aipatu melo-
dien pentagramak begien aurretik desfilatzen zaizkit, behin tira luzean, tele-
bistan bat-bateko albiste aparteko baten aurrerapentzat sartzen dizkizuten

azpi-titulu korrikorren antzera, behin multzo nahasian. Honela irakurrita, munduko gauzarik errazenak iruditzen zaizkit:



Sinpleagorik! Beltzen segida bat, kortxea bakan batek edo bik apaindua, oktaba erdiren barruan. *Hori al dok Bozkario Odaren mirari guztia?* Botilan otzan-otzan zegoena sabelean apartzen ari ez balitz, lotsatu egingo nintzateke, magoaren sarre-rako aproba gezurrezkoari neu bakarrik txaloka aurkitu nintzen bezala, gero berdin lotsagarri geratzeko, egiazkoak badaezpada ez txalotzeagatik. Musikari harrigarritzat daudenen aldra horrek guztiak ez inork ez du lortuko jenialtasu-nik, neure buruaren kaxkartasunaz defraudaraziko nauenik, hain zer sinpleekin honenbeste hunkitzeko xumetasunean jausi naizelako. Badakit xumetasun mota horixe izan ohi dela maitatuena (*gizakume gardena, xaloa, oso-osokoa zen*), batek bere baitan, bera zuzenki aditua den gai bakar edo bakanez beste guztietan (bi-zitzaren osoan, esateko) sentitzen duen ahultasun intimo berbera, malezia hauskorrean ezkutatua, aurreko batengan islaturik errekonozitzearen atseginez; azken batez, maitasunak hartzen dituen norabideak zeintzunahi direla, ezin baitugu geure burua maitatzetik libratu. Badakizue zer? Ez diodala bizitzari bat ere gorrotorik, arte horretarako egokierarik ez gaitasunik eman ez didalako, zeren, one-nean ere, hain gauza sinpleak egitekotan, ez baitzuen ezertan hasterik merezi. Tamal bakarra dut beranduegi ohartu izana, ez akabatzen ari naizenean, denek alde egin dutenean baizik. Orain ez dauka zentzurik ez arteak, ez altruismo plan-tak. Noizbait, neure burua bakarrik maitatzen lasai dedika naiteke, nahiz eta ez dakidan horrek ere zentzurik baduen, obligazio moral bat luzatuz gainera (nor-bere burua ere maitatu ‘behar’ zen), beste maitasun batzuen ukazioa edo mende-kua dela erakusteko modurik ez dudanean. Uste dut hemen gertatu den gauzarik ederrena dela, neuk bat ere ahalegindu beharrik izan gabe, maitasunaren ames-gaitz multifazialeatik askatu naizela. Behingoz, biago hankazabal mugagabea egin dezaket.

Seminarioko goizaldeko leihotik berrogei urtera, eszena hura idaztean, zi-garro bat erretzera joan behar izan dut, eta bi erreta itzuli. Biharamunean,

neure langleletariko batean aurkitzen naiz, euren lan urritasuna (alferkeria banatua?) lantoki ezberdinetan banatzeko jenioa daukatenen antzera. Lehendik ere ohartua nintzen, baina gaur ezin izan diot tentazioari eutsi; preparaturik etorri naiz. Durangaldeko *Anboto* astekariko bulegoan nago, inoiz gau berandura arte gelditu beharra izaten dudanetariko batean. Lankide guztiak, erre-dakzioko zein administrazioko, joanak dira; leihopeko kale ohiki mugitunak ere hilerria dirudi neguko euri giroan, hilerri modernoak egon ohi diren moduan. Jada ez dago harako hilerri bizidunik, non umeok bizi jolasten ginen, txikiak gurutze-osteetan kuika, handiagoak femurrekin esgriman edo burezurrekin bolan, erregeek ezer ez zutela ekarri jakiteko zain egon gabe. Bulegoa gela bat da, seminarioan tokatu zitzaidan baten (han ere denak ez ziren berdinak) antz handia hartzen diodana. Eraikinen antzinatasunak begiei asko laguntzen die oroimenera egokitzen, ez ni nagoen gelak konbentuala dirudielako bakarrik, baizik bere horma lodizko leiho handi eta ondo zarratzen zailetik, kaleskaz beste aldean, Santa Anako elizaren kontraforte esageratuak (bazen norbait, eliza jausterik nahi ez zuena) ia ahoraino datozelako, farolek gorrixkaturiko laino arina zeharkatuz. Eliza kantoiak eraikin erantsi bat pairatzen du, elizaren arkitektura, disimulatzeko ahaleginean, izorratzeari utzi ezin diona, baina noizbait elizgizonei erara etorriko zitzaiena, abadetxe bainoago mojetxe bat eskura baitirudi. Neure grina asetzeko, hots, leihotik burua gehiegi atera gabe, kanpotik inork ez ikusteko moduan, barru guztia lo edo ausente dagoela, zigarrotxo bat ilunetan erretzeko, konposizio hoberik ezin nuen aurkitu, konposizioa bera ez bada apeta honetara ekarri nauena, bera konturatzen ez den kondukzio urruneko barrukira sartzen duten aberea bezala, handik garbi-garbi eta masaje konpletoa hartuta bidalia izateko. Seminarioko zokondo-gelatik inoiz aurrez gertatzen zen kapera pinporta erara zarpiatuaren lekuan, begiak harrizko eliza honegaz talkatzeak egintzari erre-alismo monumentala erantsi diote. Orduko tabakotik (*zeltak, kaldoa*, gehienbat *generra*) oraingorako (*winston* amerikar estraperlokoa; beraz, ez hain amerikar beldurgarria) diferentziak salbu, tengada bakoitzak patio horretako hauts zurrunbiloen inutiltasun hori, behinolako dutxetako dozenaka oin nola-hala garbituen umeltasun mingots hura, hamazazpi urteko gogo-oldartze azele-ratu haien emozioa, dena aireratzen du, ezabakor eta berrikor, ahoak, behin azpiko ezpaina kornisaturik, negarrari ematear dagoen haurtxoak bezala,

behin bi ezpainekin txerrikume muturra osaturik, jaurtitzen duen ke-turrustan, zeinak, behatzetaraino jaitsi ondoren, bueltan bide-zokoetako sentipen hondar guztiak dakartzan. Batzuetan, hamazazpi urteko edo lehenagoko izatea hain da erreala eta berbera, ezen geroztik bizi izandako guztia, presente eskapugabea barne, etorkizun inexistente bihurtzen baitzait, ez etorkizun oro inexistentea delako zentzu ergelean, baizik zauskada brutalki faszinagarri baten gisan. Ez da inexistenziaren ezereza, zeina ez den ezer, hutsunea baizik, zeina baden zerbait: ezerez mugatua, grina bati erreferentzia egiten dion ezereza; baina hau ez da ezerez totala, gabezia enorme bat baizik; nahi baduzu, infinitu bat. Oteizaren hutsunea ez dakit hortik doan, hutsunea errealitatearen ingerada bada, bera bezain bariatua izan behar baitu. Une batzuetan, oso-osorik naiz orduko, adinez, pentsakeraz, lekuz, sentimenez, etorkizun gartsuki ezagutezinez; baina etorkizun hori gertatua da, neu naiz. Zer da, bat-batean, aurrean ireki zaidan hustasun neutar hori? Uneak ezin du luzea izan, desintegrazioa bailitzateke. Zaplada bat da, balearen isaskada bezalakoa, krokodiloaren gorputz osoko inarrosia bezalakoa (konparazio hau ez zaizu gustatu, ezta?), baina askatzen dituen uhinak hain dira trinkoak eta hedakorrak, ezen euroi esker merezi baitu norbera izatea.

Zigarro baten denboran, tengada bakoitzaren keak zer barru-zati astindu duen kontu, horrelako kolpeak mordoa hurrenka daitezke, kontzentrazioaren arabera beti ere, ez lagun artean elkarri puzka, edo kalean hari eta honi agurka, edo haren eta honengatik txarto esaka, edo zigarroa, denborarik erdian, hautsontzian alferrik txingartzen utzita. Keari barrurantz eta kanporantz jarraitu behar diot, barrurantz batez ere, zirritu guztiak nola usnatzen dituen (*hemen zagoze? bai, ondo, ezta? itzel, segi holantxe*) eta, beharbada, barrurantzean ez-ikusian edo bizkorregi pasatu dituen lozuloak bueltan ondo iratzar ditzan zainduz. Zigarroa arin amaitu da, baina ez nago seminarioko neurtubehar kezkatian edo amaitzeko beldur aluan; horretan, etorkizunak onera egin du. Bigarren zigarroa kartzelan erreko dut, bera baino askoz beheragoko zigorziegan, non zigarro debekatu bat lortzeak orain kontatzeko baino trikimaineria luzeagoa behar duen. Beherago ez dago lantzean arratoi bat besterik, komuntzulotik herio-usainez agertzen dena, baina nondibait badela kanporabidea deduziarazten duena. Gaur badaukat zigarroa, baita dozena erdi ere,

denak jarraian erretzea ez da derrigorra baina. *Anboto* astekarian bada komun txiki bat, kartzelakoa baino txukunagoa, noski, baina elegantziari baino premia doiarri gehiago begiratzen diona, nahiz eta ziegarena ez didan horregatik gogoratu, eskailera itsura ematen duen sabaiepeko leihoagatik baizik. Ziegaleiho egin-egina, barrote batzuk balitu, baina horiek neure gogoan daude. Beraz, horretarakoxe beren beregi dagoela dirudien aulkia pare bat ostikadaz horma kontraratu eta gora. *Ez! Ziegan ez jagok aulkirik*. Orduan, komunera igonda iritsi beharko dut. *Ez! Ziegan ez jagok komun alturik*. Egia horixe ere. Zoruko komun beltzuzka bat, desataskadorea ahoz gora bezalako zuloagaz, Vatikanoaren ordezkariak, abade preso errukarriak ('madarikatuen' argot kanonikoa) in situ bisitatzer a etorri denean, amildegira bezala begiratzen diona, Jainkoaren omnipresentziaren fede-egintza berritzen ari ez bada. *Trankil, Jauna! Berori ez dau iruntsiko, arratoiren bat agertu leiteke baina*. Lababora igonda iritsi beharko dut. *Ziegan ba al jegoan lababorik?* Ez nago guztiz seguru, nonbait baldetzar bategaz moldatu izaniko irudiak hortxe baitabilzkit irudimenean, onaren kontraera biguntzeko bezala, txarrarena gogorragotzeko sen bengatiboren bategatik ez bada. *Orduan, igoik baldearen beraren gainera – Ez! Anboton ez daukagu balderik*. Zokoren batean igual egongo da, trastegian-edo, baina etxe guztia arakatzen ez naiz hasiko, zigarro puta bat erretzeko, ezta?

Azkenean, behingoagatik, komunera igota egitea erabaki dut. Apurtzen bada, beste gastu txiki bat gehiago *Anbotoren* zor-inbentario luzean. Eserita apurtu dudala esango dut, ez baitut uste lorratz-aztertzailek ordaintzeko dirurik izango dutenik. Jaiotetxean, osaba tratulariak txahal koxkor bat ekarri zuen, geurean eduki genezan, bere ukuiluan tokirik ez zegoela eta. Nire ume-sen inozenteak ezin zion kezkatzeari utzi, gure ukuiluan ere tokirik ez zegoela-eta, aitak komunean sartu zuen txahal hura guztiz legala ote zen. Abere urduriak gaua leihoan egin nahi izango zuen, Esnebidera begira, bihar mun goizean komuna txikiturik agertu baitzen, zereginak bertara egiten ahalegindu ez bazen. Aitak, 'Luzio igeltseroak', sekula entzun ez genion bezalako 'txori gorri' piloa jaurtirik (*gure aita horrela hasarratzeko, gauza larria izan dok horixe!*) adreiluzko komuna egin zuen, komun apurtuaren estalki zulo-duna, bere gainean esertzekoa (osoko estalkia zinean ikusiko genuen, urte piloa geroago), bertan betiko itsatsita utzirik. Nahikoa oker larria izango zen,

bai, ez bainuen nahi izaten, artean nire gogo nagusietarikoak izan zenaren kontra, inor etxera etor zedin, gehienez ataskaturik egon ohi zen komun hura (etxeminak 'komun nazkagarri hura' idazten utzi ez didana) ikus zezaten beldurrez. Auzoetan *Luziok komun elegantea jaukak* esaten jarraitu zuten.

Noizbait, estalkiak kirrizkada erreminak egiten dituen komunaren gainetik, 71-57 zentimetroko leioa ireki eta burua kontuz-kontuz kanporatzen auzartu naizenean, horra non ageri den, metro batera, hormak eskuaira egiten duen aldeko bazterrean, beste leio bat, goranzkoan atzez eta beheanzkoan eskailera erripen eta barreneko arku baxuaren arduraz, artean erreparatu gabe neukana. Egia da, nonbait, iraganean kokatzea efektiboa dela orainean aurkikuntzak egiteko, baldin etorkizuna iraganera itzulera izateko adinera iritsita ez bazaude.

– *Inor bizi dok hor?* –hots egin dut kurioso, eskailerako hutsuneak bolumena multiplikatze beldurrez.

– *Bizi dok, bai; zenbat denporarako ez jakiat.*

– *Gaurko gauari eusteko beste?*

– *Behar leukek, potroak zimelduta jaukaazat baina.*

– *Hori zorroarena dok. Ni zigarro bat barik ezingo natxakok gauari biziraun.*

– *Ostra! Hik zer uste dok? Niri arratoiek zigarroa musturrean dabela urteteten deustela?*

– *Tirok, pasaidak bat, kartzeleroak urrun diren bitartean.*

– *Halan be hurregi, aluak! Atzera lorrean hasi behar al joagu, ia lo nengoena?*

– *Lotarako, eternitatea daukak gero.*

– *Zaindu hobeto dosiak, Franco hiltzeko oraindino asko falta dok eta.*

– *Bai, disekatuta daukiela egia bada.*

– *Hemen jakingo ete joagu ezer?*

– *Agertuko dozak brazalete gorriak.*

– *Baltzak esan gurako heuen.*

– *Galantak behintzat!*

– *Salamanca entrenatzailea hil dela esanez?*

– *Ez eiek entrenatzaileei burlarik egin, Carrerorena be, kirol-egunkaria goitik beherraino artazitu ondoren ('zer pasatu ete dok, kirolak honela zentsuratzeke?'), futbol-*

partidu ezerez baten kronika ezerezago batetik jakin genduaan eta. "Eta atsedenean minutu bateko isilunea egin zuten Carreroren heriotzagatik".

– Beste zapo txatxar hori berez hilgo dela uste dok?

– Espainiarik gehienak gorroto ei dauen batentzat, ez litzatekek akabera lar patriotikoegia.

– Zergaitik erabili dozak superlatibo bi?

– Adjetibo hori alde bietatik mugatzea komeni delako.

– Superlatiboak ez jirudik mugatzailerik aproposena.

– Neu be ez nok euskaldunik jatorrena, baina begira non nagoen.

– Hago trankil. Hemendik hogeita bost urtera, Espainia osoa izango dok frankista.

– Zati baterako bagozak orduan. Hi gaztea haz, baina ni hasita najagok iraultza ad-bentistari bueltaka.

– Zer dok hori?

– Etortzeko den zerbaiten edo norbaiten zain egotea.

– Orduan geu, beti gagozek nor edo zer etorriko eta.

– Lo apur bat egin gura neukek, izten badeustak.

– Lehenengo, pasaidak zigarrotxo bat, nik horixe behar joat eta.

Anboto-n, leihotik leihora aise pasa liteke, hari bat pendulatuz, baina 'tubo' hartan, metodoak kanpotik ez du balio. Barrutik, ostera, badu bere abantailatxoa, atea, zuzenetara barik, zirkulu eaginean baitaude. Biok alanbre luze banagaz, berehalaxe bat egingo genuke atepetik, hemen alanbreak alanbradetan bakarrik ez baleude (larru-zati lehortuak eta guzti), eskueratik urruntxo aukeran. Zer daukagu, orduan? Haria badaukagu, soineko bat harituta baino ez bada ere, zeinari puntan amu antzeko zertxobait lotuz gero, orratz punta bihurtu bat-edo (eta orratzak non jagozak?), elkar tratatzea lortuko genukeen, baina pisua faltako luke, pasilloan behar bezain urrun jaurtitzeko. Zer daukagu? Orrazi bana, obligazioz hezurrezkoa, metalak burua trastornatzen baitu. Orrazia haritxo bati lotu eta atepetik txirrist, badoa ondokoaren ateperantz, behar bezala zuzendu bada. *Bota joat, hi! Ea orain heurea!* Lehenengoan azartatzea ez da derrigorra, baina dozena erdi jaurtialdiren barruan, bi orraziak elkarregaz trabarazteko artarik ez daukanak ez du preso egoterik merezi, pasilloko oin-hotsek operazioa mozteko agintzen ez badute. Isil-isilik hurreratuz gero, kartzeleroentzat ez litzateke zaila orrazi tratatuak zaskara

kopulanteak bezala zapaldu eta zer? zorriak elkarri pasatzen ala? hots egitea; edo gerotxoago hobe beharbada, merkantzia txikia, meategian bagoitxo minuskuluak bezala, korritzen has dadinean, txiirri-txiirri; oraindik apenas susmatu duten. Edo ahaztua dukete, maitatzeko ez bezala, izorratzeko dau-den milaka moduak denak gogoan edukitzeko, oldar profesionalaz harago, talentua ere araberakoa behar baita, nahiz eta hori ere txarrean gehiago gaza-zen dela dirudien onean baino.

– Ona, hi! Bajatok!

– Apalago ezin dok berba egin? Meategian dinamita lapurretan legez harrapatu behar gajoezak.

– Bigarrenez ez najoek hain otzan harrapatuko.

– Ez joat horregaitik esan, baina dabilenak ez leukek arriskua erdeinatu behar.

– Hartu daieela popatik!

– Norenetik?

– Heuretik, esaterako.

– Ez joat fabore-traturik gura. Heugana bialduko joazat.

– Atsegin handiz! Ea 'zedena' transmititzen deutsedan.

– Hiesa?

– Zedena, zedena! Taketak jaten dituen zeden naturala.

– Ez ernegatu. Hemendik hogeita bost urtera, errekaldeko lizarrak izango dozak.

Behin haria atepetik atepera pasatzea lortutakoan, zigarrotxo dibinoaren irazkiari korapilo segur batzuk eman eta kontuz-kontuz tiratzea besterik ez dago, zeruan biribil bat marraztu eta lehenengo adreilu-ilara berari itsastea lortu ondoren, tximinia goitik beherantz egitea grabitateari jarraitzea besterik ez den bezala.

– Bajatork hau be! Ea polito-polito. Harrotu barik, atepetik pasatu behar dok eta. Irazkia zorrozuta dakark? Kontuz, kontuz, barrura, apurtu barik, hariari haginka egin barik. Holantxe! Irazkia, eta zigarrotxoa bera, zapal-zapal eginda. Aufi! Hemen dok! Eskerrik asko, hi! Honen dohatsu nok oraintxe ze, gorrotorik be ez jeutseat.

– Ez izan be egin. Gorrotoak norbere gogoan zedentzeaz beste probetxurik ez jaukak.

– Geuk be alternatibaren bat beharko joagu, eztok?

- *Hobe dok nortzuk maitasunetik eliminatu jakitea. Horrek asko arintzen jok gogoa.*
- *Ondo jagok. Orain itzi naik bakean, zorionaren kontzentrazino txiki hau azkene-raino erre daidan.*
- *Egia esan dok, heuk gura barik. Zoriona erregai bat dok.*
- *Egongo haz isilik, tribuno potrozorri hori?*

Benetan gozo dago 'Ducados' errukarria, abiatze urrunetik honainoko az-pibide geroz bihurragoetan apur bat muskildurik iritsi dena. Zentra nadin egitekoan, muturra barrote artetik luzatuz, muin emanez ere bai, zergatik ez, kea kanporantz gozo joan dadin, aluak sarritan, ulertezinki, barruan gelditu nahi izaten baitu. Utz pentsatzeari. Ezertan ez distrahitzea komeni da. Arinegi amaitzeak antsietatea lehenean (biziago, alegia) utzi didala ikusirik, beste zi-garrotxo bat pizten dut jarraian, oraingoan gorri amerikarra. *Anboto* asteka-riko komun txikiko leiho altutik, eskaileran gora lankide bati erreparatu diot. Ez daukat buruari atzerantz eragin beharrik, lehen kolpe instintiboan egitera nindoanez, igotunari ez baitakioke inondik ere bururatu goitik inor begira egon behar zaionik, eskailerearen hutsune estuak eta solairu bakarreko altue-rak kea nahitaez usainaraziko badiote ere. Maila erripeak bizkor igoz doa, esku-telefonoan zerbait irakurri nahirik, hitzordura huts egin dionari deitu beharreko zenbakia prestatzen, edo deskonektaturik ote zeukan ikusten, edo pantailatxora begira beste gabe, noiznahi egiteko bizioari jarraituz, hain tarte labur eta estuak eman dezakeen barrufobia uxatzearren. Eskailera buruan, boltso-barrua astindurik, berehala aurkitu ez duen giltza bistaratu denean, haserre-kurrinka atera zaio, hurrengorako mehatxu eginez bezala, nahiz eta boltsoan pilatu zaizkion huskeriak, txapak eta pinak barne, eliminatzea prak-tikoago litzatekeen. Krik-krak, atea ez dio erresistentziarik jarri gauez lan egitea gustatzen zaion neskari, egunez kontzentratzea ezinezko zaiolako. Ko-munera sartzea gogoratzen bazaio, susto ederra aurkitu behar du leihoan. Lau tengada ez nituen egingo, beste bat agertu denean, mutil luzea, hankena gehienbat. Gorputza aurrerantz nabarmen, mailak binan eta hirunan pasa-tzen ditu, eskailera igotzen bainoago trepatzen irudi. Tximino aroko zan-tzuak. Ate aurrera iristean, hutsunean ozta zabal ditzakeen besoekin hegan hasteko moduko keinuak egiten ditu, gimnasia-numero batenak ere izan dai-tezkeenak. Eskuan zekarren giltzaren sartze-biratzeak ere beste numero bat

gehiago bezala egin ditu, bere kautan kantatzen datorren erritmo edo albiteren baten arabera. Ateak ez du, kasu honetan, hain erraz amore eman, hanka luze batak ostikoz jotzekoa egin arte. Gerotxoago, kapelu beltz bat agertu da eskailera barreneko arkupetik, azpiko traje beltzaren kupula txairo. Kapelua-
ren buelo txikiak eta batez ere gorputzaren mugikerak subjektua emakumez-
koa dela adieraziko luke, nor den ez baneki. Eskaileroak kalanbrea damate,
antza, denak hain bizkor igotzeko. Goitik begira, nire pentsamenduaren ha-
riei jarraitzen zuela zirudien mamu txanbelina kapeluari itxaroten nuen uki-
turik egin gabe ezkutatu da atean barrura.

Mutil itxurako beste bat (bularrak eta eskoteak ezkutu samar erodateko mo-
duko urtegarai arropatsuan, goitik ez da hain erraza sexuak eta bitartekoak
bereiztea) murgil-salto inbertsoan bezala igo da barreetik goienera. Edo la-
purretarako une aspalditik estudiantua bat-batean egokitu zaio, edo barruan
lapurretan dabiltzala abisatu diote. Eskailburuan, eskuan prest zekarren gil-
tza, halako distantziatik harritu nauen azarkeran, indarrez eta erruki gabe
sartu dio ateari, barruan aurkituko duen lapurrari sartuko dion sastadaren
entsegu gisan, bera lapurra izateko kasuan ere esperimintutzat berdín balio
lezakeena, inor jarki balekio. Hurrengoak astiro eraso dio arkupeko lehen
mailari, burua biraturik, aurrerako ala atzerako dudan bailegoen, pasillo kan-
toian zabalik utzi duen aterkia mugitzen hasi dela iruditu zaiolako. Ez naiz
harritzen. Inoiz neuri ere gertatu izan zait ura zeriola utzitako aterki irekia
joaten hastea, kirtena ezkutatuz, eta ni jarraitzen ez ausartzea, misterio desa-
tseginen bat ez deskubritzearren. *Aterki bat gorabehera ez joat neure brabota-
suna arriskatuko.* Gizakumea aurrera dator, horman egon behar lukeen
baranda-marrari heltzeko plantan. *Joño! Hori neu nok!* Kostatu zait ezagutzea,
ispilu aurrean neure irudiaren pareko banaizela sentitzen dudán bezala, goi-
tik begiraturik, lurpeko iman bati jarraituz, oinez barik arrastan desplazatzen
den huskeria zapal bat iruditzen bainatzait, bestela ere askoz gehiago izatea-
ren sentipenik ez daukat baina. Hala ere, irudia errealitateari hainbeste hur-
biltzen zaionean, inpaktua inebitablea da, bizitzak esperientzia txikigarrietara
ekandurik egoteko adina zaildurik behar nindukeenaren larruan ere. Eskai-
lera erdian, atzerantz begiratzen du, aterki puta hura mugitu ote den, goitik
ez dut inolako zarraparrarik entzun baina. Barandilak egon behar lukeen le-

kuan, hormari geratu zaion arrastada beltzuskari ez dakit heltzekoa ala bur-latzekoa eginez darrai. Ate aurrera heltzean, giltza ordeztan erdi bat ateratu du karteratik, kabitzeko erdibitua baino areago, espetxetik ihes egiteko edo seminarioko despentsara sartzeko moduan preparatua dirudiena. *Oraintxe ikusiko joagu zer egiten doan!*

Gutxien uste nuena egin du: ileari orraztu arin bat eman, karraskari baten zulotik irteerako mugimendua bezain bizkorra, atea ispilutzat hartuta barik, eskailerarantz itzulita badaezpada, norbaitek, ustekabeen, lan banitos hartan atzeman ez zezan edo. Neuk ere neure leihoko burua apur bat atzeratu egin behar izan dut, umetan desiratzen edo fantasiatzen nuen izaki bikoitza (bata normal zebilela, bestea, ikustezin, noranahi ibiliko zen, bazter guztiak eroso miatuz) noizbait gerta daitekeen segurantza gabe. Sartu da barrura, eta harritzen naiz inor ez dela irteten, ordu hau, astekarian, neu bakarrik egotekoa zela ziur bainengoen. Leihotik jaistera noa, gorputza postura deserosoaz kexatzen hasia baita. Tato! Komunera jaurtitako zigarro mutxikinaren gainera txizaginan ari naizela (ez da azartatzen erraza), aldikada garden horietariko batek jo nau, zeinean neure buruaren esperientzia ez agian direktoa, baina bai litekeenik direktoena daukadan, neuretzat bakarrik gertatu den uneari esker; neu ez beste egile-ikuslerik izan ez duen egintza-kateari esker.

Egintza hauek, zenbat eta ridikuluago, zentzugabeago, ustezko bisibilitate batean txotxoloago izan, hainbat pertsonalago bihurtzen dira, inork ez ikusia izateko garantiak ez baitu zelaian norbere kontzientziaz beste erlaziorik uzten. Badirudi segurantza horrek norbera ere lotsatzeko moduko lelokerietara deitzen duela; norbera edo norbere barruko beste norbera hori, edo horiek. Orduan indartsuago berresten zara, kanporantz hutsune totala, inexistenzia dohatsua izatearen oharmenean, zerak, berriz ere, eragabekeria handiagoetara jaurtitzen zaituen; eragabekeria korporalak (keinu, zilipurdi, burla-plantak, *hartuizue popatik, bai, bai, hortixek, albotik, denetik!*), eta hotsik transkribagaitzenak (*frrrrst, nnggkk, pzzz...*), gogo bere ikuspen propioaz, bere sentipen direktoaz gozatzen ari den bitartean. Gure grinarik sakonenetariko den inbisibletasuna gozatzeko, ez daukagu fikziora jo beharrik, bizitzarik gehiena inbisibletasun horretantxe xahutzen baitugu, oharkabeen bada

ere. Komuna bakarrik ez da gure bakar-tokia. Kanpo begirada soil batek edo begiratua izan zintezkeelako zalantza izpi batek miraria apurtu egingo luke, baina badakizu hori ez dela gertatuko. Zeu ere harritu egiten zara imaginatzen duzun zeure aurpegi itsusiaz, edo, ispilu aurrean bazaude, zeure irudia-gaz nor zatarrago tematzen zaren bikoiztasun inpossibleaz. Beharbada, hau guztia lerrapen bat izango da hainbeste gustatzen zaidan esperientzia mistikoarena, zeinak, geldi-geldi, begiak zuri, gorputzaren zirraratxo etengabea, iharrosaldiak noizbehinka, intxaurrondo astindua bazina bezala, ale parrastadaz gabetu ondoren, arindu ondoren, zeure formaren jabetasunean, kontzentrazio osoan, bildu zaituen. Lo. Lastima, itzartze berehalakoak, orduetara bada ere, ukitua zenuen eternitatetik berriro erauzi zaituela. Beste eternitate honetan (eternitatean ez bagaude, non gaude?) ez dago logurarik, ernaitasun gorena baizik. Publikatzea ere mereziko luke, ridikulua izanez gainera, eksklusibitate xarmagarria galduko ez balu. Hain zuzen, kontzientzia bereziki saiatzeko dela dirudi subjektuari egintza erakustezinak eginarazten, publikatuak izateko garramuratik at, norberatasun inalienableaz beste osagarririk esperimenta ez dezan.

Erakustezin horietariko bat neuk besteak obserbatzea izan liteke, obserbatzen ditudanik ez dakitela, leihotik egin dudan moduan. Inbisibletasunak ez dauka beti fikzio hutsa izan beharrik, propietate hori helburu epikoetan edo justiziagintza handietan bakarrik erabiltzekoa bailitzan, hala nola munduko aginte zentralaren bihotzeraino barnatu eta denak infarto fulminantez akabara. Ez dago heroia izan beharrik. Nork ez du, behin edo behin, bere begiluzea inoren bakardade beronen ustez totalean sartu, edo gutxienez sartzeko irrika sentitu, hartarako atrebentziak huts egin badio? Orduan izaki obserbatuek pertsonak dirudite, norbanako airosoak, norberagan esperimenta berri den kontzientzia gardenaren erreprodukzio maitagarriak. Ikustea eta ikusiak izatea batzen direnean, ostera, kontzientziak transformatu egiten dira. Batzuek esango dute adimenaren gakoa besteengan islatzean datzala, har emanean, ar-emean, beronen egintza gorena ei den maitasunean (nitasun, gutasun, zutasun, zurrutasun, elkartasun), baina hori bezain egia izan daiteke sozialtasunaren osagai nagusia (antisozialtasuna barru) teatralitatea izatea, beronen zentzurik bikainenean. Gertatzen dena da, antzeppen on bat baino

ikusgai ederragorik egon ez arren, gehienok aktore txarrak gabela. Horrela, harremanaren misterio agorgaitza delakoa bestearen bakartasun inbisiblera iritsi ezina asmamenez ordezkatzeko liluratik dator, nahiz eta maila intimo horretan, segurrenik, teatroan baino askoz antzekoago garen. Baina hori, definizioz, zuzenean konprobatzerik ez dagoenez, intentsitate nagusia teatroa pasatzen dugu, zeinetik libratzeak (komuntzuloko, onenean, barregarrikeriekin eta, txarreanean, zerrikeriekin bada ere) kontzientzia biziraungarrira bihurtzen gaituen, zeina gabe, halaber, teatroa, onenean, txepel eta, txarreanean, anikilazio gertatuko litzatekeen.

Komunetik pasillora atzera-aurrera bakarti batzuk egiten ditut, astekariko bulego guztiak begiztatuz. *Ezeri ikutu ezik, ez jagok zeresanik*. Neure bulegoa ordenan eta leihoa itxita utzi aurretik, Santa Anako elizarantz, erretoretza bitalizioan zendu zen abade kirten eta frankista kolerikoari agur biziraunkor bat (betiko ez zela hil suposatzen da) jaurti ondoren, eskailera estu eta erripetan behera, barreneko arku buruagaz ez jotzeko makurtzen naiz, neure erraien osinerantz bezala. Seminario tridentinoko logela altuan, keak eta beronen usainak alde egin zezaten, minutu batzuetan zabalik egon den montantea erratzagaz klik kisketaturik, burua ohean ezkutatu dut, nitasun inbisiblearen esperientziari gehituriko debeku burlatuaren eta inorentzat kalte gabearen gainplazer dobleki inefablean lokartzeko. Bost ordu barru, txirrin belarri-zulatzailleak iratzar nazanean, inbisibletasun berak nitasun arrailduaren erdian estutuko nau, jaikitzeke obligazio madarikatuaren eta arrazoirik ez ikuste bedeinkatuaren arteko gudu bi aldeetara galduan.

Gutxi gorabehera, oraintxe gertatzen zaidana bera, botilakada ardotik arintzen hasia den gorputz abandonaezin hau biagotik jaikiarazteko darabildan arrazoiketa fedegabea. Inoiz neuganatzen alferrik saiatu naizen 'mundua konkistatzera bezalako euforia' delakoak ere ez dit balio, ez inor gabeko munduak apenas mereziko lukeelako (horrelaxe gehiago, beharbada), baizik, denak joanak badira, konkistatua delako. Nagoen tokitik, txiza egin eta oheratze soilez, edo txiza egin soilez, antipoden jabe naiz, handik bi poloen jabe nintzatekeen bezala, haiek bisitatzeko zorrik gabe. *Bardin kementsu jagitzea jeukiean mundua bakean iztera! – Horretarako ez jegoan mogitu beharrik – Egia ho-*

rix be. Jaikitzeke irrika zerbait harrapatu nahi izatearen seinale dela ere pentsatu izan dut inoiz, batez ere jaiki ezinik nabilenean, orain bezala, beti bezala; horrela, mundua bakean utzi eta neure gustua egin, tiro bakarrez bi txori askatzen ditut, ehiztarietan infiltratu nintzenean bezala. Bi uso edo gehiago batera botatzeko unean zeudenean, danba tiratzen nuen. *Zertan habil?* – *Ezin leitekek huts egin ala?* Inork ezin zidan frogatu apropos huts egiten nuenik, txoriak bizirik uxatzearren. Koka dezadan kasua (*kasua dok izan be, gero!*) seminarioan, alderantzizko dzangadan irtengo naizen ohetik, bidaiarako doidoia harturik, etxera alde egiteko. Bidean poliziak alto ematen badit (horiek ez da segurua sailkapen orokorrean joango zirenik; alde egiteko oihu egiten zitzaienean behintzat, ez ziren joan), ospatzen ari naizela esango diet. *Ospatzen zer?* – galdetu didate zakar, aurrean agertzen zaien poz oro gogorkeriara exzitatzeke dela susmatzen ohiturik. Azken minutuetan zezenkoa bezala zelairatzen den jokalaria horietarikoa banintz ere! Taldekideei besoak goraka, markagailu nabarmenki adbersoa lintxatzera doa. *Ospa egiten esan gura neban* – bigundu dut intentzioa. Orduan, euren susmaberatasun profesionalaren berrespen bat gehiagoko irribarrez, eraso nahi didate: *Ospa egiten, zer dela motibo?* – *Jokalaria naz* – *Joño!* *Zer joko mota, kokatzen joan gaitezen?* – *Hanka-jokoa* – *Hara!* *Hanka-jokalaria, beraz!* *Ofizio zaharra horixe, geu be ez gozak bart goizaldekoak baina* – esanik, seminaria itzuli naute, edo espetxera, berdin dio; orain ez nago ñabardura espazialak zehazteko egoeran, esan nahi baita orain etxean nagoela eta ez daukadala ofizio zaharra arriskuan ipintzera irten beharrik. Koiuntura soil bat izateko baino dimentsio totalagoetan gertatzen ari den fenomeno hori iraunkortzen bada, orain arteko bizitzaren kinada nagusietarikoa izan dudan ihes-mina zelai gabe gelditu behar zait. Polizia sailkapen orokorrean ez dela sartu egia balitz, eurekin lagun egin beharko ote nuke, izaki soziala ei naizelako, artean antisoziala izaten tematuta eta gero? Nire ohetik ezin-jaikia amaitzear da oraintxe. Txizalarrira iritsia da eustea gehiago kostatzen den unera.

Komunean, homo sapiensaren kurbaturan, txorrotadak erdiko putzu txikia jo dezan saiatzen naiz (ez da azartatzen zaila, norbere gorpuzkiei edozelan eragiteko eskrupulurik izan ezik), hotsak hustualdia sakonago sentiaraz dezan, pentsatzeko moduan ze: *Hori guztiori nire barruan egon dok?* Logelatik

balkoirako atea ireki dudanean, hodei-nabar agertu den zeruak sargoria zertxobait arindu duela dirudi, argitasunaren freskura ez bada; ez, hala ere, biluztasun izerbera ezerekin estaltzen hasteko bestekoa, ea bide batez, bistan dauden auzo-etxeetatik, norbaitek behinolako emakumearena jaulkitzen didan:

- *Balkoian pasealdi freskoak egiten dozak.*
- *Fresko gurakoak gehiago. Ikusi egiten al da?*
- *Bistan dagoena ez ikustea gatxa dok.*
- *Halako distantziara, ez neban uste ezer bereiztuko zenik.*
- *Panorama emonez gero, detaileak etxean be bajaukaguzak.*
- *Etxean panorama falta beharbada, ezta?*
- *Argia be karutu egin jabek eta.*

Arratsalde berandua nondik hasi edo jarraitu ez dakidala, osorako gutxi falta zuen mozkorraren astunetik arinduko nau, beharbada, beti asmoan neukana egiteak: balkoiaren eskudelak kontatu. Erdiko eskudel nagusitik kantoiko kidera 23 txiki badira, besterantz beste hainbatek behar du. Aurrerantz, $23 + 23$ txiki + 3 nagusi = 49 eskudel orokor, beraz. Bi alboetan beste bosna txiki, 59 eskudel edo barra, guztira. Kaiola handiegia, neureztat bakarrik izateko. *Hasi heinteko urrunago begiratzen, ikusmena be bajoak apur bat deslaintzen eta.* Erdialdean hainbat erpin lerroan direla (Anboto, Udalatx, Untzillatx, Alluitz, Mugarra...), ezkerreko Aizkorritik eskuineko Aramotzerainoko mendizerrak aurrez enkoadratzen duen haran inponentera begira, munduak berdin-berdina ematen du. Nik uste nuen paisaia, biztanle gabe, transformatu egingo zela, baina neu egotea nahikoa da, antza, ezer alda ez dadin.

Egia esan, ezer ez nuen uste. Honelako joaterik nork irudikatu behar zuen, hipotesian ere? Bai probatua dut paisaian neure burua falta izateak nolako deskonposizioa dakarren. Balkoi honetatik beretik, errealitatea, behingoz, guztiz objektibatzea erabaki nuen, ohartua bainintzen dena neure komenentziara moldatzen nuela, neure oroimeneko irudien arabera. Banekusen mendi berri bat, eta nire zeregin nagusia nire oroimenean bizi zen beste mendi baten antzak eta desantzak ezartzea zen; ezin nuen ekidin konparaketa horretantxe

gozatzea. *Horrela gozatzekotan, badaukazak heure mendiak!* –agiraka egiten nion neure buruari–. *Zergaitik ez dok mendi barria, bera den moduan barneratzen, eta horrela beste mendi bat gehiago edukiko dok oroimenean?* Ez dakit ezinak ala interesik ezak eragozten zidan. Etxeak, ibaiak, kaleak, itsasertzak, gizakiak eurak ere, aurretik ikusiek utzitako irudien arabera baitaratzen nituen; aurre horrek gehienez haurtzarora, oso haurtzaro goiztarrera jotzen zuen. Alferrik zen bidaiarik ezustegarrietasan menturatzea; bueltan ez nuen eramandakoaren ilustrazioak besterik ekarriko. Diferentziak handiegiak edo itxuraz eskludenteak baziren, etxera itzultzeko gogoia areagotu egingo zitzaidan. *Irudietan atzerantz jorik, abiagune edo hastapen be izan beharko jaket zenbaitzuek–*, formulatzen nuen argibidea, ebidentzia logikoa, baina irudi original horiek ez nituen aurkitzen, nire oroimena ez baitzen iristen nire jaiotetxe, nire etxe inguru eta handik ikusten zena baino lehenagora. Horiek zeren arabera inprimatu ote ziren oroimenean? Tentaturik egon nintzen Platonen ideiena onartzeko, zeintzuk gure oroimenaren aurre-formak lirakeen, une batean irudi sensiblez jantzen direnak. Gero ikusi nuen ez zegoela idealismo horren premiarik, izan baitzitezkeen, haurraren adimena abiatzerako, haren gogoan iruditeria guztia osaturik egotea; areago, adimena unibertso harexen konplexutasunaren eztanda (ala konfluentzia?) besterik ez izatea. *Orduan, nire ikusmen intelektual guztia adimendun izan aurreko irudiekin edo hareen erreferentziekin elikatzen dela?*

Ez neukan gogorik, filosofiaren historia guztia bezala, irtenbide gabeko labirintoaz biziartzeko, galdurik ibiltzea zerbait aurkitzeko metodoa bailitzan, baina bai saia nintekeen nekusena neure antzetik askatzen, zeren Anboto mendiaren, esaterako, nire ikuskera gehiago baitzen berak ni nola nindekusena irudikapena. Triste banengoen, Anboto tristagarria zen oso, are tristeago ikusten ninduela. Amorraturik banengoen, Anboto amorratzeko motibo bat gehiago bilakatuko zen. *Begitu egiten dok, begitu, hatx konkor bihotz-fosil horrek?* Pozik banengoen, haitz konkor bihozgabeak maitale laztangarriaren gozotasun eternoa zabaltzen zuen. Baina ez zitezkeen izan Anboto objektiboki alda zedin, nire gogokeraren arabera. Nahitaez egon behar zuen nigandik aparteko Anboto hura ikusi nahi nuen soilik, Anboto erreala, nire aurretik hortxe zegoena eta nire ondotik hortxe geldituko dena. Balkoi honetatixe, objektiboa urrunduz baino gehiago, neure buruaren islapena bistatik garbitzen saia-

tuz, une llabur batean, mistikoek lortzen ei zuten trantze horietariko batean, errealitatea zen bezalako hauteman nuen; ezin izan nuen gustatzen ote zitzaidan probatu, izutu egin bainintzen, bai ikusi nuenagatik, bai, beharbada gehiago, aurreko egoerara ezin itzultzeko beldurragatik. Zorionez, ez zen ausarkeria irrebetsiblerik gertatu. Brastako abismal baten ondoren, ikuspegia berriro neure izatearen mintzez baturik aurkitu nuen.

Nolakoa ikusi nuen? Errealitate fantasmala bainoago deskonposizio aurreratu bat iruditu zitzaidan, erditik ebakitako gazta ustel izugarria, non har xuriek, hutsunearen sostengu faltan, elkarren gain-bihurka atormentatzen ziren, kirats bortitzean; higuingarria benetan, non pinadi-muinoek tumore eskeragak ziruditen; non mendizerra haitzezkoa zeru-lurren eskeleto trakeski matxakaturia besterik ez zen; non, azkenik, eta horrexek ikaratu ninduen gehien, neure lurzorua mugagaz identifikatzen ohiturik nengoen horizontea ortziaren ebatura biolentza marra besterik ez zen, zeinaren azpian ezereza baino larriagoa zen kaosak zirakien; neure bizigune zela suposatzen zen errealitateak, hain zuzen. Harrezkero, neure gorputzaren edo gorputzadarren radiografiak ikusi baino nahiago izaten dut medikuen esanera itsuan errenditu, pantailaren objektibitateak, ukatzeko batere setarik ez daukadanak, errealitatearen gaineko esperientzia lasgarri hura berritu ez diezadan. *Bai, doktore! Ni horixe izango naz eta onartzen dot arabera trata naizun, baina laga nire ikusmena bere inozentzia dohatsuan, hori be errealitatearen zatiren bat izango da eta.* Beharbada horrexegatik urruntzen naiz hilotza ikustetik, hilkutxa irekitzen dutenean. Ez naiz errealitatea neure proiektzioa dela pentsatzeko bezain harroa, edo neure ilusioa dela pentsatzeko bezain txotxoloa. Badakit nigandik bereiz existitzen dena eta, nireak egindakoa (zureak ere bai), hortxe betiraungo duena, nahiz eta existentzia irrelebantean. Niretzat, ezinezkoa izanez gainera, alferrik saiatuko dira deskribapen zehatzak edo erretratu fidelak egiten; nire gogoak, Jainkoak gizakia sortzean egin ei zuenez, 'bere irudi eta antzera' itzuliko du dena, zerak, deskribapenari garrantzia kendu beharrean, exigentzia handiagoa ezartzen dion, halako zentzuan non analogia multipleak eragiteko gai izan behar duen, arbitrarioa izan gabe.

Horrela hobeto ulertzen dut, lan-eskola batean, mutil gangar samar baina ez senik gabeekin gertatu zitzaidana. Gaztelania hutsezko eskolakuntza inpla-

kableari nondibait ziria sartzen hasi guran, noizean euskal testu bat, 'gaztelaniaren ulermen hoberako lagungarri' beti ere, tartekatzen ausartu ginenean, errepideaz beste aldeko mojetan zebiltzan nesketara berak nahi zuen isil-mandatu pasatuko niolako saria agindu nion honako pasarte buruz ondoen deklamatzaren zuenari: *Ura zan gizona, ura! Zazpi oin ta erdi bai luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel. Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren beso zaintsuak, txit azkarrak oñak, zindoak bere bular-auspoak.* Marrazketa ikasgai nagusietariko zutenen artean harritzekoa ez zenez, baziren marrazkilari trebeak, bi batez ere, ezin gehiago izorratzen nindutenak. Hain karikatura azartatuz eta baria-tuz ridikulizatzen ninduten, ezen nire arte-senari ez zitzaion beste erabaki abantailosik geratzen, nire buruaren eguneroko esposizio hura neu hobeto ezagutzeko ariketatzat hartzea baino. Testua neska potentzialen pozean ikasten ari zirela, bi ikasleoi deskribapena irudi bihurtzea otu zitzaien. Figura do-tore haiek nortzuk ziren galdeturik, bata *Jesukristo*, bestea *Hipolito* erantzun zuen. Hipolito hori, kaleko mural batean, hominidoen eboluzio-katea errepresentatzen zuten irudietariko bat zen, azpian *Homo Erectus* jartzen zuena eta norbaitek alboan *Hipolito* gehitu ziona. Neure orduko abadetza kontestatarioan ere, Jesukristori eta Hipolitori analogia urrunegiak iritziko nien, beste ikasle batek bitarteko katea-maila deskubritu ez balu, Hipolitori begira oso-osoan hots egin zuenean: *Ene! Hau geure aitita dok barren!* Hura harritzekoa bazen, zer esan behar dut orain, denak joanak direla jakinik ere, haranean ezereen faltarik igarri ezin dudanean? Ez daiteke izan neu bakarria nahikoa izatea, errealitateak bere batasunari eusten jarrai dezan. Auzotik, herritik, itzuli bat egingo dut, beharbada neu izango bainaiz erraturik edo endredaturik dabilen bakarria. Baina orduan, neu ez beste guztiekiko errakuntza bada, nork deserratu behar nau?

Errepidearen erdi-erditik joango naiz. Joko ahal du autoak norbait edo norbaitek autoa, erditik, ezkerretik, eskuinetik, errakuntzarik orokorrenak ere ezin baitu espazioa hainbestean hankaz goratu, ez erdirik, ez aldamenik ez gelditzeraino. Jantzi ere zertarako jantziko naiz, baten batek alto eman diezadan motibo bila banoa? Banoa, baina auzobidetik errepide nagusirako estopean, ez naiz ausartu zuzen aurreratzen, abiada mantsoturik, goitik behera

ziztuan etorri ohi ziren aldera begiratu gabe. *Neure moduko salbuespenen bat dartzat agertzea besterik ez joat behar*. Pentsakizun koldarra begitandu zait, baina ez guztiz zentzunbakoa, handiagoak gertatzen ari diren honetan. Errepidearen erditik joatea kostata lortzen dut, atze-ispilura lapurka begiraturaz, neu ere joanaraz nazaten beldurra norbait ager dadin desiran ezkutaturaz, behin honetzkerok, inor agertzea kasik dezepzioa izango ez banu bezala.

Kilometro bat beherago, herri barrurantz harturik, Mesedeetako Mojen mundu mailako komentu nagusiaren sarrerara begiratzen dut, moja japoniar edo txinatarrik ageri ote den; alde egitea beharbada laterrika izanik, baliteke horiek oraindik agindu nazionalaren zain egotea. Edo, gutxienez, euren sorterrietako albiste berriagoren bat izan dezakete, baldin alde egite unibertsala izan ez bada, zentzuzkoago dirudienez; batzuk joan badira, besteek zer motibo zeukaten gelditzeko, nire konpainia arbuigarria besterik? Ez da ez japoniarrik ez orozkoarrik ageri, eta nasaiaago darrait aurrera, datu agian kontradiktorioen edo, gutxienez, dibergenteen endredotik libre. Berrizko herribarruan, autoa pasonibel barruan luzetara utzirik (trabes uztea errazena da), eta arimarik ez dabilela konprobatu, ernegaturik, balkoiatarantz besoak goraka, *urteizue, kapaz bazarie!* oihu egin dut, mendi bakartiko ekaitz trinkoan artalde guztia galduta dabilen artzainak zerura desafio egingo lukeen antzera: *Bota egiten dok, bota? Jaitsi hadi hona behera, kapaz bahaz! Honek bildurtzen al zaitue?* –jarraitzen dut nik, neure biluztasun ez totala ostentaturaz, oinak fraile estiloko sandalietan erdi-ezkututzen baitira. Behin fraile-oin haiei muin ematera behartu nindutenean, bertan akabatzear jarri banintzen (ez zizare puztuak bezala nagiro mugitzen ziren behatzek jango ninduten beldurragatik, haiek urdailean halaxe imaginatzearen higuinagatik baizik), zer izango ote zen behatz haiek edoskitzera zigortu zuten nire ikaskide batena? Beharbada, on egin izango zion, baldin, irudimenak alderantziz lagundurik, amaren aspaldiko bularragaz asoziatzea lortu bazuen. Biziraun zuen, behintzat. Hemen, ezin dut ekidin zeinu lizunak, oraindik pornografiatik urrun leudekeenak, asko kosta dakizkidan, balkoiek eta atari-zenbakiek arduratzen ez nauten arren, pertsiana erdi-itxiek edo gortina-bitartek aztoratzen bainaute, baina ezin diot neure buruari atzera egiten utzi izaki inexistenteen aurrean, mamuetan sinesteko aitzakiarik ere ez dudanean. Pornografia biolentora hurbiltzen saiatzen naiz, leihoetan bururik agertuko ez bada ere, ea trenen

bat, bere amore propioan ziztaturik, trabeskera etor dadin lortzen dudan, autoa luzetara dagoenez gero. Denei popatik, edo alutik, edo mailutik emateko baino gehiago, denen aurrean kanpai-jotzeko plantak egiten ditut, bueltaka-bueltaka, ureztagailu birakaria bezala; baliteke horrek gehiago izorra ditzan, atakatua izateak baino iraingarriago gertatu behar baitu norbere presentziaz lizunki prezinditzen dutela ikusteak. Dagien beroagaz eta sortzen ari zaidan ernegu puntuagaz, lortu egin behar dudala uste dut kanpaiak benetan jo dezan. Etor-tzea daukate debekatzailleek, nik ez baitiot ezeri atzera eragingo, bai 'urteizue' baino era adeikorrago eta klasikoagoan desafioa jaurti: *Badago!!* Erantzunik ez dago. *Badago inor?* Gehiago ezin da espezifikatu, zakarkeriara baigentozke. Ez dago zehaztu beharrik delako 'badagoenak' norantz egin behar duen; niri orain mugimendua axola zait, ez norantzkoa.

Bizidun, adimendun, sentimendun... Eskertuko nuke honen miragarria ez izatea, egokitasun apur baten truke. Telebisioko onena, iragarkiak. Eulia kostata harrapataturik, leihotik kanpora bota dut, ez bizitzen uztearren, eskuan aplastatzeko higuina ekiditearren baizik. Nahi nuke kemena, sasia bezain tematia izateko, zapaldua edo makilatua izango dela jakiteak bidera irtetetik etsiarazten ez duena. Intxaurrak jaten ari naizenean, beti galdera ergelak datozkit. Bizitzak merezi al du? Hiltzeak merezi al du? Orduan, bitartean zer dago? Hauxe: intxaurrak. Hamarretako ederra egin dut. Tabernaria sukaldera joan da. Bakarrik gelditu naizela ikustean, komunera noa. Bitartean bezero berriak sartu dira. Tabernaria, bueltan, edontziak puskatu beharrean dabil. *Nora joan dok gizon hori? Ikusi al dozue? – Ez – Orduan alde egin jok, zantar alae-nak!* Dena entzutetik laster, komunetik irten naiz. Ikuspen karstikoa. Etxera etorri eta, lehen-lehenik, komuna eskatu eta kaka-piloa egiten dizutenena bezalakoa. Autoa arbolapean utzirik, balkoi natural batetik paisaia-miran erreparatu diogunaren kasuan, solemnitete kontenplatiboak adina esplikatu dezake egoera hanka bitartetik islatzen zaion zirriztadak.

Hau, hau, hau! Hau-hau-hau!! – Txakurrak! Hori dok sustoa emon deustazuena! Egin ditudan axut-orroek gizakiaren lagunak onenak erakarri dituzte, oraingoan etsairen bat eskertu izango nukeen baina; ez daukate barkatzeko itxurarik, umezurtz utzi dituenen neu banintz bezala. Biluzik nagoenez gero, neuk ere hortzak

erakusten dizkiet, eraso-plantak eginez; horrek gehiago sumindu ditu, joak izaten ohituta egoteak ez baitie kendu xaxatuak izaterik jasan ezina. Kalezulo guztietatik irten dira, kutsapen sindromearen atzetik. Batzuek eskolan ibiliak dirudite, zirkulu estukorretan ni inguratzen saiatzen bide baitira, marearazi guran, baina efektu gabe, ez baitira norabidean adosten. Hurreratu ahala, nire hortzak eta zeinu horzkariak hurragotik ikusteak urrundu egiten ditu berriro, arrabots orokorra gehituz kaleen erresonantzia kutxan. *Mihizkatu edo haginkatu naitezue, baina niri zaunkarik ez gero, neuk be berba egin behar joat eta! Non jagozak zuen jabeak? Ez dozue pentsatuko zueri eder egitearren geratu nazenik, eztok? Etor, kapaz bazarie!* Boliadak egiten dizkiet buelta guztirantz, eta horrek biziagotu egiten ditu, hortz zuriei bits zuria erion arte, hortzak erortzen ari ez bazaizkie. Gozamina da ikustea nola ernegatzen diren batera motibo jakinik gabe, hauek ezin baitute oraindik egoeraren usainik hartuta egon. Eurak elkar biluzik ikusten ohituta egonik, beharbada ni larruturik iruditzen natzaie; hori kezagarria da txakurrentzat, zeintzuk uxatu nahi badituzu, txakur larrugabe bat eskegitzea besterik ez daukazu, ez hainbeste, ustezko izugarrikeriatatik, zeren, untxia edo ahuntza, adibidez, altuan eskegitzea txakurrek ez harrapatzeagatik izan ohi da, besteak beste. Badirudi, euren artean, larru gabe ezin dutela elkar ezagutu; izuturik urruntzen dira, txakurren burezur oraindik primitiboan sortzen den nahasmen mentala bide, non ezagutu ezin duten zintzilikaria, bata zein bestea, usnak txakurkia dela segurtatzen diena, euren burua ez ote den zalantzak jotzen dituen; senak aise salbatzen ditu identitate makabroetatik, eszenatokitik aldentze soilez. *Ekin, ekin, txakurrok! Ni rockak ez najok molestetan.* Tren deskarrilatu bat pasatzearen batera besterik ez dugu behar oraintxe, kontzertua konpletoa izan dadin.

Banaka batzuk, hemen ere denerik izatearen arauak hutsik egin ez dezan, lagun guran hurreratzen ausartzen dira, traidore perfektuak bezala; utzi egiten diet, tamainaz ez baitira hain beldurgarriak, eurek besterik uste balezate ere. Batek, barrabila izerdiz tantakarietara kezagarriro begiratzen zidala-koan, bere pasaera gorteiatzailea sandaliak usnatzeko aprobe txatu duela begitandu zait, nire soineko bakarraz harritzeko baino gehiago, euren larruari tentagarri iritzita nonbait, premia ere izan baitezake gizajoak, gizajak, goize-
roko paseotik bueltan, gailetak aurkitzen ohituta bazegoen, ugazbandrearen

altzoan. Berrizko txakur guztiak ez dut esango, baina hementxe batu direla uste dut, trenaren pasaieran, goitik eta behetik mehatxu bizian zaunka egin ohi zuten guztiak, bidaiariek eurei eta trenak berari egiten ziotela usterik; izatez, beste aldeko kideak ikustea eragozten zien tramankulua mehatxatzen zuten, trena ala armairu-lerro ibiltaria zen bereizkuntzan sartu gabe; bitarteko traba erraldoi horrek, drinbilin-dranbalan, nortasun-ispilua apurtu baliere bezala, txakurren ispilua beste txakurren begiak baitira, zeintzuen artean ez duten jasaten ezta modeloen desfilerik ere. *Badakizue zer egingo dodan? 'Nora zoaz' itaunari erantzuten eutsanarena: 'beste leku batera'.* Egonean-egonean, *adiskidetzen hasiko zarie, gizakiaren lagunik onenak izateko dohainera ekarri zaituen argitasun fenizioari esker, baina orain ez najagok lagun barriak egiteko aldarrean.*

Zazpi kilometro bide-alboetarantz nor ikusiko berriro alferrik egin ondoren, Elorrioko plaza nagusira hurreratu guran, zoraturaz besteak egiten nabil aparkaleku bila, edonon eta edozelan uzteko askatasun aroan nagoela konturatu arte. Autoa arrankatu ezinik diharduenaren alderantzizkoa. *Zer? Ez jok gura? – Hotzarena dela uste dot – Izango ez dok, ba, ate biak zabalik direla arrankatu gura dok eta?* Batek ez dauka larrugorritan eta okerreko dokumentuekin kaleratzeko beldurrik, eta gero TAO bila hasten da, tao-tse-tung, tiabara-punbarapun. Elorrioren, Bizkaiko zaindari Berrio-Otxoaren ataria plazatik ikusten ari naiz; etxe eta jauregi galantak bai, baina badirudi hemen ere, urguilu jaunkia Argiñetako hilarrietara bidalirik, plan orokorraren bulgarismoa hobetsi dutela. Bulgaritatea esan behar nuela? Eta zer? Plaza erdian *inor badago?*-ka hasterako, kolore zikin guztietako katuz inguraturik aurkitzen naiz, beti erdian edo traban jartzeko daukadan jenioagatik. Ez ahal zaie irudipen freskorik bururatuko, zeren, arraina gustatzen zaienagaz eta urik gustatzen ez zaienagaz, lehorreko bakailaotzat har nazaten besterik ez dut behar; lehen ere eskarmenaturik nago, sardinzarrak afaltzen nituen guztian, logelako ate kontratan gau guztian ekiten zioten miaulari txatxuekin. Katu ezezagun batek (aldikada jakinetan, eurenetan edo norbereetan, katurik etxekoenak ere ezezagun dira) zuzen begiratzen dizunean, transpasatu egiten zaituela nabari duzu, edo zitalago dena (transpasatzea, azken batez, beste aldetik atera den bala bat izan daiteke, hor konpon, doala bere kapritxoa eginda), haren begirada ninietan barrurantz errefraktatu eta erraietan aloiatu zaizu; edo garunetan, berdin dio;

nik zer dakit barru horretan zer dagoen, hain gutxi non dagoen. Baina plaza huts baten erdian zaudela, bat-batean, kirasberatasun eutsiezin batek erakarrik, katu-aldra batek, bost metrora, zirkulu perfektuan inguratu zaituenean, tipula pintatuak bezalako aurpegi serial horien begirada radialekin topo egin duzunean, kilikadura hotz bat sentitzen duzu, garratz-puntu umelez, izua bainoago hezur barruko destilazio bat; begiak zorura jausi zaizkizu, ez ka-tuenak sahiesteko sorginkeriaz, orkatilei isurki kolorgeren bat ote darien bai-zik, bide batez gogoeta egiteko: *Hau be badok, ba! Berrizen txakurrak, Elorrrion katuak. Beharbada, bizidunak espezieta batzeko esperimentua izango dok, eta gizakiei non tokatu jaken nik jakin ez.*

Katuei ez jarkitzearren, begiak teilatu hegatsetatik gorantz bidali dituda-nean, ortzia lainotzen hasia da, eguzkiari ezarian ezkututzen laguntzeko; bista joaten ari zaiolakoan, iluntzen ari duela ohartzen ez den artista larritua ez be-zala, freskatze naturala gertatzen ari dela jabetu naizenez batera, jantxidenda koloretsu bati erreparatu diot, kafetegi berdeska baten ondoan, koloreen elkar erakarpena indikatuz. *Katuak! Katu bakarti eta izenbakook! Itziko al deustazue pa-setan, marraskiloak bidera urten eta, txanpon lagunkoiak bota arren, ez zela erretire-tan ikusirik, herrira bueltatu zen postariaren balentriak ezeren prekurtsore izatetik libre jarraitu daien? Ez dozuela gura? Urrats ez hain irmoak aurreratuz noan al-derantz, ez listor-senak eman diezaien neure beldur gabe, zirkulua botilalepo bihurtzen ari da, oinez-kale luzeari kortxo eginkizuna ezarriz. Erremuskada ozen bat, kandelabroa gainera jausi zaion katu pare kopulatua-ren marraua bezalakoa, nahikoa izan dut, kasuala baino gehiago zirudien ge-ometria desbanda zedin. Freskatu duenaz gainera, biluzik ez naiz eroso aurkitzen, nahiz eta baden ohitura soinekorik eranztezinena, larruaren zazpi-garren mintza ez bada, batzuetan gakoan eskegitzeko. Telefono kabinentzat exhibitzeak ere xarma handirik ez duenez gero, eskaparatea haustera noa bete-betea, trafikoa mozteko burdinbarra horietariko bategaz. Lehenik, ohi-tura deitzen diogun kasuko senak, ezen ez zibilizazioak (zer ote da berau?), atea probarazten dit, eta kontu hori ere ihesaren ohiko sekuela bihurtzen ari denez, atea zabalik dago, zabaltzeko moduan alegia; penaz, baina neure in-tentuz ezin arnegaturik, eta burdinbarragaz eskaparateko manikiei meha-txuka (irribarretxo bat ere ez?), zaldun bat bezala sartu naiz, biluztasun*

intzidental bat osorik eta haundikiro janzteko dendariaren perspektiba sinesgogorrari sandalien nortasun solbentea jarkiz. Ez dago halakorik.

Behingoz, dagoen lekuan lasai hartzeko aukerara iritsi naizenez gero, noan zuzen emakume-jantzien aldera. Zerbait arina, fina, freskoa behar dut, eta zer nahi dudan ez-jakin plantan, kamisoiaren gakoari ezkerreko hatz puntekin pasada kilibera bat damaiot; bueltan bi eskuekin sortaka estutzen eta igurzten ditut, gogoratzeko eta irudikatzeko gauza naizen gorputz eme guztien posesioan murgiltzeko, hartz eme eta dortoka emeak barne. Denak batera baitaratzen kostatzen egiten zait, ordea, eta bat, zurail distirantea ez bada ere, zetazkoa dela pentsatzea atsegin dudana, esternoirainoko irekieraduna, soineratu dudanean, artean neure gorputzean aurkitzen ez nuen kanpo- eta barne leuntasun bat nabari dut, une batez nitasuna urpeko irudia bezala lokatu duena. Berehala, halako zorion bat sentitu dut, mutikotan arreba nagusiaren jai-gonak ezkutuan jantzten nituen antzekoa, ikusirik berak ere aitaren prakekin ibiltzeko (emakume prakadunik susmatu ere ez zen egiten oraindik) aldikadak izaten zituela, errazago zukeen arren niri bere ohean sartzen uztea (ez hainbeste bera nirean, ni berean baizik), gaixo plantarik estudiantuenez ere lortzen ez nuena bera. Estudiantzearen gozamenik, osteratzen, inork ez zidan kenduko, planak beti infalibleak izaten baitziren, zeintzuok sen ez-ohartu batek zioztan, badaezpada, aurretiaz zukutu behar zirela, gero une errealean huts egiteak gehiegi axola ez zezan.

Beharbada eskolagatik izan liteke, non neskek ez ninduten mutilek bezala jotzen; non mutilek ere ez zuten neskekin antolatzen hainbeste astakeria: borrorak, belarrondokoak, ostikadak, zigor-lanak; beti inoren fardelak jaten, ehun bider kopiatu 'no hablaré más en clase'. *Señorita! ¿No es igual sin el 'más' ese?* Ez nekien astapetroak zergatik nahi zuten espainolentzat agian garrantzitsua izango zen silaba ziztrin batean esaldia laburtu, gero neuri eginaraztekotan; gutxiago nekien nola maistrak ez zuten igartzen edo ez zuten aintzat hartzen zigorrak beste baten letra zekarrela, nahiz eta agintzailearen trazoak imitatzen ere senperrenak eginak izango nituen. Orri batean esaldia behin idatzi eta, eskola osteratzen eramanda, mehatxu egingo zidan: *Hau ikusten? Ba, honexen modu-moduan kopiatu behar dozak denak.* Ez kostatzen gabe, baina orduan

neure abildadetzat jotzen nuena, geroago dena engainua ez ote zen susmatuko nuen, pentsaturik maistrak nahitaez ezagutu behar zituela ikasleon letrak; segurrenik, nahasmen basati samar hartan, zigorra betea izanaz konformatzen zen, zirkunstantzia pertsonalei jaramonik egin gabe. Inoren zigorrak kopiatzea bera baino lan txikiagoa ez zen zigorjabe ezberdinen letrak imitatu beharrak eragin zuen neure letra propiorik ez edukitzea, gero grafologo guztiak noraezten zituena. Hala ere, maistrak lezioa hartzera neskei bere mahi ingurura deitzen zienean, nire haienganako arreta ez zen distrakzio polit bat bakarrik, ezta esker on hutsa ere mutilen kontra defendatzen nindutelako, sentimendu bat baizik, desira bat ere bai kasik, inbidia sakon batetik harago barik geldituko zena. Nik uste dut grina-objektuen erlazioa erratu egiten nuela, haienganako grina neure ezaugarria izan beharrean, haien erakarmen propioak osatzen zuela nire grina pentsatu izango bainukeen. Garbi esanda, euren meritua zela eta ez nirea, halako eran non izaki superiorietzat jotzen nituen, zertan beharbada ez nenbilen hain oker, neure pentsakizun amaigabetan, berriro jaiotze kasuan, nesкатasuna hobesteraino, zerak halaber bihurkatzen ninduen, neure izate errearen arnegua bezalakoa adierazten bide zuelako. Hori ere ez nuen nahi, jakina; fantasiarik imaginarioenean ere ezin nuen lortu neure buruarekiko separaziorik eta hain gutxi zalantzarik, ez hainbeste, superioritate ustez, fideltasun errukiorrez baizik, pena ematen baitzidan neure izate gizajoa txantxetan ere abandonatzeak.

Gero pentsamena fantasiatik arrazoietara jaisten –jausten– hasi zenean, hobespen femeninoa zapuzpen maskulinoaren alderantzia ez ote zen bihozkadak eman zidan, oso bihozkada iragankorra, neure burua ere tarteko baitzen; baina harra hantxe geratu zen, oharkabean pentsaraziko zidana ezen, berriro jaiotze kasuan, nesкатasuna zoritxar txikiagoa izango zela agian, horrela askoz probabilitate txikiagoa izango bainuke, bada, biolatzaille izateko, adibidez, edo torturatzaille, edo gerrango soldadu, edo polizia, edo jeneral, edo konkistari, edo enperadore... Askoz probabilitate txikiagoa, mozkorti izateko, esaterako, edo liskarti, edo pirata, edo kapo, edo bankari, edo intelektual, edo trafikari, edo ministro, edo jainko... Zerrenda luzatzeak (kasu honetan eten-puntuak ez dira elementu gehiago ezin aurkitzearen enkubrimendu txotxolo bat) exhaustibo itxura eman dezake, baina hasi baino ez gara

egin eta hobe bertan utzi, neure burua elimintzeko sailera iritsi aurretik, norbaitek aurreko horietariko batean sailkatu ez banau. Soluzioa ez zitekeen neska jaiotzea, ez, neure izate aktuala uzteko borondatera iritsi ezin nuelako, biak batera izan nahi nuelako baizik; ez txandaka, aldi berean baizik; ez bisexuala, sexu guztiz bereizietan baizik, gorputz beraren barruan eta kontzientzia beraren azpian, ar-emeen sentipen eta kulminazio simultaneoan, kopulazioa barne. Hori gure ulermenak ematen digun bat-bikotasunean. Natura hondogabeak konbinazio ugariagoak eskain balitza, hartzeko prest nengoke, Jainkoaren kasuan erdi alferrik egin duen bezala, zeren hirutasunari osagai bat kendurik, aita seme eta semea alaba bihurtuz gero, esaten ari naitzen bitasun perfektua egina litzateke. Behin honezkero, ez dut itxaroten mirari adina basakeria sortzeko gai izan den naturak nigan horrelako exhibiziorik egin nahi izango duenik.

Zapuzturik eta sokadun arbolei begira hasita nenbilena, oraintxe, kamisoi txit suabe honen barruan, miraria gertatzeaz ote den nago. Kanpo igurtziaren leunetik, eskuek eta hauen kontzientziak azpian emakume bat daurkitez; buruaren kontzientziak, osteraz, barrutik betiko gorputza sentitzen du, astiro-astiro atzera-aurreran dabilena, alfonbra-zoruan oinutsik, sandaliak sarrerako atean utzirik. Transformazioak ezin du ganoraz erpindu, kaleko katueria, lehenik banan eta zalantzan, berehala multzoan eta konfiantzan, denda barrura sartzen ari baita. *Aurrera, katutxoak! Goza eizuez zeuen ointxo zikinak zoru apatzean eta bultzantxo zaurituak arropa dilindarietan, baina nire kamisoiarra hurreratzen ez saiatu metro eta erdiren barruan, nire ostikoak, preminak tiratuz gero, metro eta hirurogeiko irismena jaukan eta.* Kalerakoan atean utzitako sandaliak berriro jantzirik, oinak harkoskorretan mindu ez dakizkidan, kanpoan sartzeaz bezala zeuden katuez gainera, lehen barruratuak nire atzetik irtetea ez dakit zeren seinaleztat hartu behar dudan; abere bakanki gregariook ez dirudi gaiztorako daudenik. Beharbada, Misinda erregina naizela pentsatu izango dute, otseinek beren beregi garbitu eta lurrinduriko katuei laztanka bizi dena, Misingo erregeak, gerrara zihoala esanik, felinoen ehizan diharduen bitartean. Ezin dut lotsatzerik ekidin, zentzugabea dela jakin arren, emakumeen ohe-jantziagaz kaleratzeaz, zentzugabeago bailitzateke intimitate guztiekiko indiferentzian hezita dauden katuengatik lotsatzea, abade egin berritan etxe batera bisitan joan nintzenean bezala. Komunaz

galdeturik, etxeoandreak, pobreen desenkusa apalgarri guztiekiko barkamen eskez, ukuiluko atera lagundu zidan. *Gurean hortxe egiten da* esanik, burumakur erretiratu zen. Txiza zirriztada behien ipurdi ilararen atzeko erretenera apuntatzeko preparatu nintzenez, sotana-barrenak, simaur pilotik hur, paparrera altxatzeak eman zidan erreparoa baino okerragoa izan zen abere guztien buruak neuganantz biratzea, susara usainik somatzen ez zueno, inguruko ezertaz arduratzen ez zen zezen autistarena izan ezik. Arrazoia ematen nien, sotana multzoari okozpean eusten niola, ikuskizun bitxi samarra zetorrela, baina ezin nuen ulertu, neu baserrikume eta umetan beti ukuiluan txiza eginda oheratua izanik, han ez bezala ilunetan bazen ere, nola lotsa nintekeen behi mamala batzuek begiratzeaz, segurrenik albora begiratzen ez zekitelako; nonbait, zerik arruntenei ere ertz mistikoa aurki geniezaien eginarazi zizkiguten gogo-lanen hondar eraginez, behien begiradan etxeoandreaken aurpegia figuratu zitzaidan. Hurrengo igande goizean, senarrarekiko hurbilkuntza ez-txukunegiak izan zituela aitortzera etor zedinean, neuk ere aitortu beharko al nion, sotana zabala ia aurpegia estaltzeraino jasorik, bere begien aurrean txiza egin nuela, behi inozenteak lekuko zirela? Gutxienez, argitu beharko nion nire gorputzak gogoak baino puruago jokatu zuela txiza egitera ukatuz, bestelako arrazoiei albo egingo ote nien beldurrez. Laudatua bedi Jainkoa! Gorputzak nahi ez badu, ez dago zereginik; lehen bestean itzuli nintzen sukaldera, jakinik –arduraturik– gorputza laster hasiko zela kinka larri hura errepikarazi guran. Bazkaltzen gelditzeko etorria nintzen gonbitari bat-batean uko egiteko aitzakiarik itxurosoenak, nahiz eta nabarmenki inprobisatuak, jarkiz, eta eurengatik zerbait desatseginak joanarazi ninduela pentsatzeak haien izate nekatua gehiago min ez zezan, egotaldia ahalik gehien luzatzen ahalegindu nintzen, txizalarria areagotzeko antxoba latak eta sagardo eta guzti; azkenean, puxika gorgoileraino handituagaz alde egin nuen etxe bedeinkatu hartatik.

Geroztik urte batzuk igaroak dira, eta hau alukeria, berriro katuen aurrean lotsatzen naizena! Oraingoan ez dago etxeoandrerik, ager ledin edozein probokaziotarako nire prestasuna baizik, baina badirudi katuen begiradan neure burua islatzen dela, aurrean daukan bere gorputz ridikuluaz lotsatzear. Ez, bada! Tximistada mentalok oraingoan ez naute zorabiatuko, distrahitzen bannaute ere, eta horixe egin behar dut: neure gorputz maskulino-femeninoan

kontzentratu, gainetik leun-leun, barrutik bero-bero, zeren hemen badirudi gorpuzki batzuk, gogoaren ez ezik, gorputzaren disziplina orokorretik ere at dabiltzala. Zenbat eta gehiago laztandu neure zetazko kamisoiaren emakume imaginarioki erreala, hainbat antsiosago nago Berrizko txakurrek moztu ditudatenari Elorrioko katuen aurrean jaregiteko; sentitzen dut, katutxoak, baina ez dut uste behinolako txizalarriarena gertatuko denik. Berriro plazaren erdian, oraindik sargori baina ilunkera aldakorraren ustezko freskura puntuan, saiatzen naiz igurtziak mantxoak eta luzeak izan daitezen, begi itxien betazal zirritutik kamisoiaren barren ireki-hurrenen sedukzioari sartzen utziz. Begiak osorik ixten ez naiz ausartzen, piztiok nola erreakziona lezaketen beldurrez, nire aurpegi deskalabratua ikustean, zeren konbultsio amorosoaren aurpegia zerena den ez dakienak ez luke pentsatuko garun-haustea ez denik. Eta orduan katueria (eurak ere halakoan ez gozoegiak), espantura jo beharrean, begietara oldar balekit? Ur bekizkie erpeak! Soinekoari haizetxo epelera zabaltzen utzirik, zakil mastatuari bi eskuekin heltzen diot, sutea itzaltzera banindoa bezala, sua, ura, sua, ura, arnasa ere bai, 'banoa!' esan ohi da, etorri datorrela dirudi, geldi hi, zentra hadi, betor nahi duenean; nahi duenean ez, oraintxe, oraintxe, nnnrrr! gnnnn! mmmm!... *Buffff!! Etortzea baino bizkorrago egin jok joatea.* Hain segundo laburren aurre-atzeak honen ezberdinak izan zitezkeenik ez nuen sekula asmatuko, esperientzia ez hain oparo baina bai tematiak doktrinatu ez banindu. Jausteko baino ahituago, burua ezer bereiztuko ez dudan ortzirantz jasotzeko ahalmena geratu zait, arnasa sakonaren bila, zeinak lehenengoan aurkitu ez duen aharrausi totala, birika hornei globo leher-hurranen kliskada ateratzekoa, laugarrenean ziur dakarkeen, oldar inkompletoa izan ez bada, ez dirudien bezala.

Hasbeherapenak burua jaitsiarazi didanean, haluzinaturik dakust katu zuri bat istiltxo mihizkatzen, delikazia neurrigabez, gaiaren irteera oldartia-gaz konparaturik behintzat. Arta berezian dihardu, zauri bat sendatzen ari bailitzan, berehala katu-buru piloa puntu berera bildu arte, isatsak tente-tente, lirio-koroi multikolorea osatuz. Airean harrapatzen ikas dezaten besterik ez dut behar, gure jaiotetxeko katuen antzera, zeintzuk afal aurreko kantina hots jakina entzunez batera, ukuilura bizkor abiatuko ziren, ireki beharreko atekontra bakoitzean *neu-nee-neeuu!* presa emanaz, jezteko behiaren aurreko

hanka ingurutik lehenengo esne zirriztadak harrapatzeko. Kriseilua eskuan, argimutil nengoenarentzat ez zegoen ikuskizun politagorik, aitak, zirriztaden direkzio-altuerak aldatuz, komediak eragiten zizkiena baino. Inoiz hartan atzematen gintuen amak ez zuen arrosario gozoa aterako, ez berak ere, erroak garbitu eta bigundu alde, lehen zirriztadak katuei zuzenduko ez zizkielako zehaztasun osoz (eta pertsoneri esaten sekula entzun ez nion laztanhitzez, animaliak eta haur txikiak berdintzen zituen tonuan: *Ea, ba, katutxook, zuek be geureak zarie eta! Edan esnetxo barri epela, behi-hankaren batek zapaltzen ez bazaitue. Sagu harrapetan horrenbeste ahaleginduko bazinie!*), baizik ezin zuelako aita ikusi, esne urri preziatua alferrik galtzen bainoago katuei akrobaziak irakasten, gero euron lapur-jenio inkorregiblea era trebeagoan erabil zezaten. Aitak ez zeukan interesik dibertsioaz haragoko pentsakizunetan; gehienez ere esango zuen gure ukuiluko alegrantzia zenbait etxetako haserrea baino sanoagoa zela, ez, bide batez, ama bistatik furrunka bidaltzeko atsegina gehitu gabe, honek ondoegi jasotzen baitzuen bere aldeko senitarteari buruzko puntada. Ni ere orain, neure hushmanean, katuei hitz egiteko samurtasunak jo nau, zeintzuk, gai dibinoren batek erakarrira bezala eta, mihizkatzen bainoago sen felinoak bakarrik dezakeen aditasun subtilean, iturri misterioso baten detekzioa lekarkeen mostra txit hauta bat haztatuz bezala, zirriztadaren traiektorian geroz lerro handiagoan pilatzen ari diren. *Ea, ba, katutxook, orain zuek be neureak zarie eta! Trebatzea daukazue sagutan, ze ez dozue usteko denok horregaz gobernatuko zaituedanik, ezta?*

Belaunetatik zango osoetara hedatu zaidan dardarak harmailetan eserrarazi nau, Balendin Berrio-Otxoaren basilikaren oinetan, zeinak ez lukeen mezezi bere bizitzari buruzko bertsoak ahantz ditzagun, santu egin dutelako. Mailtan, gorputza ukondoan gainera atzeraturik, hasgorapena guztizko aharrautsi bihurtzea lortu ondoko uzkurduran, udaletxeko balkoiari, neure kamosoian apur bat albokera, Ederne exhaustoa iruditu behar natzaio. Presarik ez daukat (inork 'zer ordu da?' galdetu ezin badizu, denborak berdin korritzen ote du?), baina harmaila erripeok ez dira etzangu lagunkoiak, kokot, bizkar, gerri, denak batera akomodatu ezinagatik bainoago ipurdia lerratzen delako; nire tontor-bikoitza oso gaitzikorra da berak eskatu gabeko mugimenduetara. Elorrio nahikoa ohoratu dudala emanik (ez naiz hasiko meza orduak, udal

bandoak, zinema karteldegiak, merkealdiak, menuak, norabideak, harmarriak deszifratzen; inor ez egotekotan, neu ere sobra nago hemen), etxera itzuliko naiz zuzen eta zoroki, ea lortzen dudan norbaitek jazar nazan, autoa aurkitzen badut, noski, zeren, lehenbizi aparkaleku bila zoroenak egin ondoren, azkenean (*leloa haz ala?*), edonon uztea neukala ohartzekak horixe ekarri baitu, *orain topaik non dagoen edonon hori*. Non utzi dudan banekike, kalea non den baneki, edo izena, kalearena (autoarena Skoda), nori galdetu baneuka. Zertan nabil bueltaka, galdetzeko modua neukanean ere, inori hitzik ez egi-tearren, taxisean sartu eta *nora?* galdetzen bazidaten, *honaxe* erantzun eta bertan jaisten banintzen, galdera batek beste bat ekar zezan beldurrez? Esaterako, *andreak zelan jok izena*, zeinari ez daukazun *zein andrek?* kontragaldetzerik, *zenbat andre daukazak*, *ba?* bergalde ez diezazun, azkenean garbi deklaratu behar izateko: *Hireagaz bi*. Hori gertatu zitzaidan batean, taxista gaizoa hain arraroki poztu zelakotik atera nuen pentsatu zuela: *Nire bigarrenaren barririk ez jakik, beraz!* Gerotxoago, poza bainoago erabateko garaipenaren hanpatasuna begitandu zitzaidanetik, bistan zen *nire beste biak* esan nahi izan zuela.

Beti daurkizu norbait, ernegaturik datorrelako edo futbol-partidua entzuten ari delako, ezer galdetzen ez dizuna, taximetroak tik-tak-tik-tak aurrera egin dezan; zorte apur bigaz, Athleticak gola sar dezakeen bezala, bila zabil-tzan zeure autoaren ondotik pasatzea gerta daiteke, *hementxe!*, zeu ere, edukazioz, futbolea murgildurik ez bazoaz. Taxista ez da, antza, hain hiztuna, eta haren eskuin etsiaren erpuru zuzentzeko baino nagiagoak, *ez dozue sekula ikasten gero, gauzeztanok!* esanez bezala, taximetroa seinalatzen du (*mutu inbalidoa ete dok berau?*, marmartzen duzu zeurekiko), zenbaki gorri biziegiek hamaika euro eta hamahiru zentimo mehatxu egiten dutela. *Kobrantzaren rebertitua izan beharko dau, zentimorik ez daukat eta – Rebertitua zer dok? –* (mutua ez da, behintzat) *Etorri zaren bidetik joan beharko dozula – Mekabuen hire ama putakina, goian bego bera! – Zelan daki honek (pentsatu dut) gure ama goian dagoela?* Badaezpada ez diot argitu ni jaio aurretik hil zela, ni vitroan utzirik, likido zikin guztiak xurga eta xurga, eta zein kaletan nagoen ez badakit ere, *mejoretan goazek!*, pasa nadin beste espalaira, taxista hau beharbada ez da hain inbalidoa izango eta. *Pi-p-piiii!*, atzeko zirin guztiek, bi segundoren aurrerapenak euren atzerapen mentala berdintzeko balio balu bezala. *Hartu eizue popatik! Neu be he-*

*mentxe najabilk autoa topatu ezinik. Noizbait oroitu naiz. Zertan najabilk auto eta mauro, kakatzen sarturiko umea ama-amaka legez, edozein hartuta joatea daukadanean? Itxita, itxita, zabalik, itxita, zabalik baina giltza barik, itxita, itxita, zabalik, itxita, zabalik... giltzaren haginik zorrotzenez, auto ilaran, zabalik, itxita, itxita, zabalik... arrastadarik kirrizkariena eginez noa, dezentzia-indezentzien alde adiskidaezinak separatzen dituen flotazio-marra bat bezalakoa; dezentzia azpian beti ere, bertuteak sakona habitatzeko legeari jarraituz, azaleratzearen desbirtuatzeak arriskutik gordeago; itxita, zabalik... *joño!*, *arrankeko giltza aldean dauela berau*, BMW itzela, gainera. Drin bakarrean arrankatu eta agur, Elorrio, seguruenik betiko, itzultzerik gogoratzen bazaie, haien amorrua imaginatuz, hotzikara damaidan marra ezabaezina atzean utzirik.*

Bidean ohartzen naiz zer probidentziala izan zen espetxean, auto lapurretan irakatsi zidan arratoiki hura arrima zekidan, preso komunak eta politikoak nahasi gintuzten batean, baina zer axola du orain komun-politikoaren bereizpenak eta hain gutxi nire sailkapenak, kartzeleroek ere joanak behar baitute, neuk apur bat gehiago kolaboratuta ez joan izana penagarri da baina? Behin lapur 'adikzionala', behin lapur 'probidentziala' ei zen arratoiki haren ustezko inpropietate berbala noizbait igarri nuen 'profesionala' ahozkatu ezinetik zetorrela, profesio ororekiko inkompatibilitate berezkoa bide zuela. Soineko edozer ostu ziezazun prebentzioz, ez haren inguruan biluztu, kapaz baitzen zure barrabilak zeu konturatzeke erodateko, hezurgabeturik itzultzen zizkizun arte. Dutxa zikinetatik lorratz susmagarri gabe aldendu ziren nire kirol-zapatila eder batzuk, etxekoei ondo kostatuak eurak, handik astebetera ia berri prezioan eta mahukatzen erosi nizkiolako, ziega-lagunak burla arrazoizko bezain mingarriak egin zizkidanetik, lapurretarako klase partikularrak eskatzea pentsatu nuen, konfiantzak gehi klaseen ordainak haren grina inbentzibiletik libratuko nindutelakoan, baina partikulartasun hura neuri bakarrik osteko zentzuan ulertu zuen, antza. Gehienbat beragandik aldentzearen egindako falta larri baten ondoriozko isolamenduak ere ez ninduen haren akzio-eremutik libratuko, hiru egunez behin, kartzelero asekiele tokatzen zenean, zigarrotxo bat pasatzeko bitartekotza lortu baitzuen, gainerako paketekada guztia berak bidean litxartzeagatik; horren jakinean ere, ni irrikaz eguna noiz helduko, zeren orduan,

zigarrotxo bat ala larrua planteatu izan balidate, ez dakit duda metodikoak zer aginduko zidakeen. Dudan jarraitzerik ez, behintzat. Ikasi nuen, bai, auto lapurretan, modelorik hermetikoenak, antilapur informatiko eta guztikoak, Espiritu Santuak Ama Birjina bezain intaktoki penetratzeko dohainaz harrotzen zen 'Arratoi' harengandik, zeinaren arazoa ez ei zen inoiz izan edozer eroatea, bihurtzea baizik. Ikasketa hura guztia espetxean ez zen, niretzat, teoria tamalez antzua besterik izan, baina bazuen zehar-abantaila itzel bat: haren ingurutasunak halako itoguan mantentzea beti erraza izaten ez den ernaitasun etengabera behartzen ninduen, harik eta beste era bateko dohain 'adikzionaldun' baten labankadak ondasun eternoen gelditasunera bidali zuen arte.

San Blas hoteleko aparkaleku betearen paretik pasatzean, teoria praktikatuzeko xaxapenari ezin izango niokeen eutsi, elementu minimoak, alambre pareta eta... (etxean daude nonbait, kutxa beltzean, ez dakit non, aspaldian ez baititut erabili) eskuan izan banitu; inoren autoan datorrenak, beste inoren batena probatzeko, ez du lapurra izan behar, aurrerapenaren kolaboratzailea baizik. Ez da iristea bakarrik: goza zaitetz ibilian... *Audi*-an. Ederra aparatua, errekinaren orratza goraino. Ez da ibilia bakarrik: goza zaitetz amai gabeko joanean... *Galloper*-ean. Ederra aparatua, zortzi plazako 'galeperra'; hitz-joko bistakoegia eta, beraz, desliterarioa. Hegan ez beste guztia daki, airean sentiaraztea barne. Ez txarrena, ez onena: bakarra! Auuuu!! Aui ez. *Audi!* Mundua gurpil gainean, zu munduaren gainean. Mundiala izateko, *Renault*-aren abantailak baliatzea besterik ez daukazu. Edertasuna ederrerako gaitasuna bezala, zoriona zoriongaitasuna baldin bada, bere gainean nabilen munduak zer egiten du azpian? Orain ez daukat galdera ulergarriak izan daitezen saiatu beharrik; *galeper* hegalaria etxeko garajejan okatu naueneko, bihotza ahorraino talkatu zait. *Orain andrea eta umea etxean balegozak?* Galdera ulertu dut; erantzunak ez dauka figurarik. *Put!* *Ernegetan hasi behar joat, eh!* –birao dagiot egin beharrekoari, atea giltzaturik aurkitzean–. *Gehiago ez dok honelakorik gertatuko!* Atea ireki eta, autoaren arranke-giltza apartaturik, gainerako sorta guztia sasitzara jaurti dut, pisuagatik ez izatera, araba-zozo tirokatua emango zukeena. Neure burua jaurtita baino atsegin handiagoan utzi nau. Bata zer den ez badakizu, bes-

tea ez ezazu prejuzga. *Ai, Txirri, Txirritxo!* (Etxeko txakurra) *Ez dakik munduan zer gertatu den! Urten egin gura dok, eztok? Ez dok alde egingo? Seguru? Jaurti orduan pilota hori. Itzi lurrean. Jaregin horri! Itzi hor!!*

Terrazapean eta kanporantz, ehun metrotik gorako itxitura nasaian bizi den txakurrak horrenbesteko irten-mina edukitzeko, toki kontu soila ez dai-teke izan. Entzerramenduaren sentipena badirudi espazioaren pertzepzioari datxekola, gauza bera ez badira, neuk ere zer bera nabari baitut; denek alde eginda, mundua neuretzat gelditu dela dirudien arren, ez nago seguru espazioa zabaldu ala estutu egin zaidan. Gure txakur gorriska elektrizatu horrek badaki, ahoan darabilen tenis-pilota lurrean utzi arte, ez diodala irteten utziko, gero, eraman ohi duen tximistadan, hura edonon galduta itzul ez dadin. Egunean pilota bat ezin diot erosi, ez, noski, modurik ezagatik, inguru-a ez desitxuratzeagatik baizik, pilotak erne eta baloiak ematen has balitez; orduan neu ere penatuko ninduke horiek txerriei eman beharrak, haurtzaro guztia pentagonoz jositako larruzko baloi baten amets utopikoan igaro ondoren. Gure txakurra, inguru guztia usnatu ondoren, haur okerzaleak distantziatik gidaturiko jostailu-autoa bezala, edo lurpeko iman mugikor bati jarraika bezala, txiza martxan eginez, hanka jasoagaz eguratsaren magnetismoa harrapatuz (behin bakarrik geldituko da bide bazterrean, behar den asti guztiagaz gorotza eginez, paseanteak pasatzen ikusteko), etxe alboan behetik gora haizearen tripak zeharkatuz, itzuli eta zelai-arrastan frenatu denean, tristura-kolpe mortalak jo nau: txakurraren konpainia ziotena benetan sentitzen ari naiz, batez ere horren adi eta biziki begiratzeko daukan finkotasuna azkenengoz nakuselako espresioa iruditu zaidanean, ez baitut uste ilunabarra islatzen duen kamisoiak eragin dion aztorapena izan litekeenik.

Txirri! Zergaitik begiratzen deustak horrela? Egia esan, benetan ikaratu nauena bestea da, hots, bere aurpegi ñabarduraz osatuaren begiradatik (beldurri doblatuak, sudurzulo hezeak, ereintz errearen ale-begiak, bekain ilehandiak, ildotxoak erdibituriko bekoki leun-leuna) atzeraka urruntzen hasi naizenean, pausoan derraidala, leloturik, hipnotizaturik, sekula ikusi ez diodan, horren izaki bizkorrak bazeukanik ere usteko ez nuen ibilkeran. *Txirritxo! Zer gura dok?* Aurpegira zuzen begiratzen dit, beti bezala, baina gaur

badirudi halako sentiberatasunera iritsi naizela, non ezin baitut kontzibitu begiradarik, ezagueradun ez denik eta galdetzen ez didanik: *Zeu be joan egingo al zara? Besteak nora joan diren jakin barik?* Txakur batek horren galdera kontzientea egiterik ez daitekeenez, sinesgarriago iruditzen zait: *Botaidazu atzean gordeta daukazula badakidan pilota zikin hori! – Hori bai! Eutso! Galtzen badok, ez jagok besterik.* Pilota harrikada altuan jaurti dut, intxaurrondoan gainetik; halako ziztuan oldartu da aldasbehera erripear, ezen bera lehenago heldu baita pilotak jaiki egiteko gunera; airean harrapatu ez badu, lurrean arraseko perdigo azaoak bezalako zarrapastada aterarik, orbel eta guzti ekarriko du bueltan, galdu-gordeko abiadan, oinkada bakoitzean belarriak lenguetak bezala astinduz, errepikapen bila. Asko lasaitu nau mundua funtsean ez dela askorik aldatu ikusteak. Nik neu eta txakurrak txakur darraigu. Biziena bazen ere, hamar bat minutuan, arrasterako moduan geratu da, hankak igel itoaren (hauek ere ito daitezke) posturan hedaturik, atzekoak zabal, aurrekoak luze, gorputz eta isats errendituen ezinegon guztia mihi gorri hatsantuaren bibraziora pasaturik, dena delako munduaz deskojonatzen dirudien aurpegiagaz. *Kanpoan izten bahaut, ez dok inora aldeko?* Inor egon ezik, inora eskapatzerik ez dagoelako zeinu burlosoa egin du, baina abertitu behar izan diot ni hemen nagoela, eta beharbada oraintxe komeni zaiola gutxien nigandik aldentzea. *Hor konpon! Egik nahi doan bat. Joatea pentsetan badok, hoberako izan daitela.*

Gau lainotuak horizonte guztiak itxi ditu, eta hodeiarte kiribilkorretatik ageri diren izar hutsaren hurrengoak dira zirritu bakarrak, norabaiterantz irtenbidea seinalatzen dutenak, iritsiezinaz beste abantailarik ez duten eremuek aspaldi utzi ez baliote ni xarmatzeari. Ahoan sumatzen nuen gazi premia antxoalata karratu honexek alibiatu du, oraingoan ardo gorri naparraren laguntza doiz; eguna bestela ere nahikoa lurrundurik joan da, eguerdiko alkoholaren irakinaz gaineko beste eaporazioetan. Edontzi bete kafesneren gainetik, zigarrotxo ritualak, bakardadea eskatzen zuenak, garantia osoan korritzen du, ahitzeko beldurrik gabe. Erreko dira berriak. Telebistaren aurrean eseri naizenean, ohiturazko lasaitasuna baino zerbait zehatzagoa sentitu dut, orain lasai aitor baitezaket, iritzi kritikoenganako kezkarik gabe, irudien segida bizkor zein lentoen adiktua naizela, zaborreria jakinak ere biziotik libratzen ez nauela, beharbada eserita jarraitzeko aitzakia besterik ez da izango

baina; kontu harturik, beti ere, euskarazko katean jasan ezingo nukeena (norberea dela suposatzen den zaborreriatik inhibitzea ernegatzea baino gehiago kostatzen da) erdal kateetan kontenplazio arbuia bilaka daitekeela; arbuioa behintzat plazerraren eskalan sartzen da. *Hobe platoak su hartuko baleutsue, ez sorosteko atseginean korritu naiten.* Ez dago hain sadiko jarri beharrik, azken batez, ogia eta ahal dena bakoitzak bere kakatzen irabazteko eskubidea edo txatxubidea baitauka. Beti dago iragarkien tartea iristeko itxaropena, euren laburrean, ingenio ahalegin bat behintzat darakustenak eurak, haien gomen-dioei kontra egitearren, sekula erosiko ez zenituzkeen produktuetariko baten bat soinean daramazula ohartzeko erneguairen bixigarri eta guzti. Kanalak zappinduz (euskal telebistari ukitu ere ez, oso pasadan intsinuatu berri dudan tribu-minagatik, hor ere ez baita dena kirola izaten), denetan iragarkiak aurkitzeko zorte ez hain mehatzak, erremedio gabeko konstataziotik, beste zigarror txo bat erretzera bidaliko zaitu, *berehalaxe gatoz* abisuagaz aurkezlea parodiatzen duzula, zeinak iragarkiei bide eman dien, zuk bera ikusteko opariaren esker gisan. Iragarkirik ingeniosoenak badira ere, aurkezleak ez dizu atxikimendurik eskatu. *Hau dok potrokeria! Gaur, kanal guztietan, sintonia besterik ez jabilk, Jesukristo lehenengoz hil bailitzan. Munduko ohoragarri guztiek hegazkina galdu ez badabe.*

Zigarrotxoari tengadaka ari naizela, ezin dut lainezaren atzikumurkada bat saihestu, pentsatuz nola abiarazi dudan telebisioa, sintoniez besterik aurkitzeko ustez. Badirudi egoera orokor berriaren kontzientziak ezin dituela bere osagai ezberdin guztiak batera menperatu; desdoitze honek luzaro jarraitu behar badu, hobe lehenbailehen zoratu, dena bat etor dadin. Beste zigarror txo bat, gerlaria nintzelakoan oparitu zidaten 'Napoleon' tragoxka bat, eta ohera, bihar ere argituko baitu eguna baten batek. *Egin ez badai, hartzea dauka harek be brankatik beste gehienen moduan, poparen luxua okasino handietarako itzirik.* Noan ohera, komunetik astitsu pasatuz, irakurgaiak ere sintoniaz aldatu ez badira. Gauzek jarri diren bezala badarraite, biblioteka guztiak neuretzat dira, ondo merezita bestalde, neu izango bainaiz munduan bakarra, Prousten *Denbora galduaren bila* osoa (lau mila orrialde, zazpi liburutan; hamalautan banatu izan balu!) komunean irakurri duena (bi aldiz), zerbait txit gozatsua egin bitartean bakarrik posible dena. Lortuko ahal dut gauza bera eserialdi

bakarrean egitea, almorranen asistentzia gabe, zeintzuetarik inmunizaturik geratu bide nintzen, kartzeleroak, eskari bat susmagarritzat jotzean, *hainbeste berakatz zertarako behar dok?* galdeturik, *almorranentzat!* erantzun nionetik. Hark apenas sinetsi zuen, presoak beti gezurra esan behar duelako printzipio sanotik; almorranak ere, sinetsi ez dakit, baina beldurtu egin zirela uste dut, nahiz eta euron mehatxu eta guzti ere ezin izan nuen Ulysses irlandarra amaitu (beharbada grekoaren nostalgiarekiko fideltasunagatik), komunetik apalera eta apaletik komunera hainbat joan-etorri enpeinoso eragin nion arren, segurrenik ez nuelako aurkitu, *Mendi magikoa*-ren altuera erdian errenditurik eurt egitean bezala, Shisha Pangmara jaisteko aukerarik. Azkenean, Ulysses amaitzea lortuko dudala uste dut, bihozkada baitaukat tipo hori lagungarri izango zaidala gelditu naizen egoeran, horretarakoxe beren beregi idatzia izan ez bazen.

Eserkera ondo egokitutakoan (horretan ez gara oiloengandik hain ezberdinak), psikiatriako kasu klinikoak irakurtzen dihardut; jerga teknikoak eta botika-izen haluzinanteak (haloperidol, lormetazepam, jaunazuekin, levomepromacina, burutikerrena, risperidona, ezteritzomol, zuclopentisol, jotakezilinga... zuzen kopiatzen ez zait gutxi kostatu) onomatopeia lantzeko aproposak izanez gainera, kasu laburrak dira eta ez dute kalterik egiteko moduko ezer iradokitzen, izan ezik batek herrenka hasi eta burutik amaitu zuela, edo burutu ezinik zebilen senarragandik eskizofreniak libratu zuela, eta horrelako izorramen ezagunegiak. *Larruz jantzirik, ez beste deusik, ninduen amak sortu biluzik*. Bertso sorta bat mentalki kantatzeak laster dakarke loa; sarritan arrakastaz probatu dudana metodoa, *biluzik, ama, zure azala ere galdua dut kasik*, neurea bada batez ere; inorenak badirudi distrahitu, barreiatu egiten nauela (metodoaz ala amaz ari naiz?), *sastatu naute noiz-nonahi, pozoina sartu ere bai, baina niri zer, ni lasai*, neureak, ostera, neugan biltzen, laburbiltzen nau, kontzentrazioa deritzona, zeinaren gorenua loa den, *haitza golkoan ninteko joan urkabera ere pozik...* (*urkabera, urkabera... non najoak?*), ondorio transzendentaletera deribatzeke asmorik gabe, heriotzako loa eta abar, *ez baitakit nik sentitzen minik, bihotzetik pasa ezik*. Soil-soilik, nire bertsoek lokartzeko balio didate, eta balio horrek oroimena berritzeke balio dit; sorta osoa amaitzeko gauza ez naizela izango jakinik, behin lehenengotik, behin erditik, behin azkenetik aurrerantz

pasatzen ditut, oraintxe bezala, *gutxi nenkien sentimenduen... (ez, hau bigarrena dok)... Oi Anboto, bizkar zorrotz, erraldoi mendetsu hilotz... (hau lehenengoa dok, Anbotori bihotza hatx zati bategaitik trukatu neutsana)... Bihotz zaurikor, sarritan mehar... (hau bai, hauxe dok azkena; hago isilik, osterantzean ez joagu sekula amaitu behar eta)... nola ibili haiz Anboton zehar, hirekin ezin ninduan bizi, hi gabe berriz hil behar... (gaur ere ezin amaitu; ostia santu uger bat –nor izan da txarrikeria hau egin dauen sakristaua?– aldarearen eta horma-zutabearen arteko hauts zokora jausi da; azken orduan arineketan heldutako mutikoa belaunaulkian zain dago, mihia kanpoan duela, neuri atzetik burlaka danganinoa. Hau ezin joat altzatu, makurtzeko ez nok bitartetik kabitzen, zapaldu eta bertan itziko baneu?, baina kopoian ez jagok besterik. Sakristau zikina eta zekena! Makurtu eta –hau lotsaria elizan, denen aurrean!– tuz bustitako hatz erakusleaz ukitu dut (bai itsatsi be alua! Orain hau kristau txiki baten ahoan ipintzeko kuraia behar dok, eh, pekatu mortalean ez badator!), Corpus Christi, doministikun (dios!, lo nengoena... honexek itzartu najok)... penak eta zorigaitzak, ezkutuan gorde itzak, kolpa nahi baduk saihe-tsak (inbentua izorratu dok, agur gaurko loa), baina begioi, begi xumeoi, ez, otoi, era-gin negar (kakazaharra!, sorta guztia alperrik kantatu joat), nik maite dudan inork ez dezan hire minetan parte har.*

Ez da askotan gertatzen, baina gertatzen da. Segidak nahasten, eteten, gal-tzen hastea lo hurbilaren seinale segurua izaten da; hasgorapen-kolpeak, bi-rika betekoak, pentsamena argi-argi, hots, argi-uste argi-argia; ustea pentsamena ez bada, eta pentsamena itzartasuna ez bada, zer dar argitasuna? Hasgorapen kolpea berriro, lobuluen horma-zuloetaraino; ez nahimenaren ondorio, baina gertatu da, gozoa da; hasgorapena eta auhena ere bai, mmmm...nnnnn... Eme ala ene? Ahorik ireki ezik, ez dago emerik. Beste has-gorapen bat, eta nnnnn... Esperientziak diotsu, eta horren kontzientzia argia duzu (itzarrik zaude, beraz) loaren marran zaudela, behin harantz, behin ho-nantz, behin ere ez berbertan, bi sorbatz dituen baina gainean kokatzen uzten ez dizun ezpata bezala, bezala... nork jakin zer bezala, beharbada gainik eduki ere ez baitauka? Nola kaptu zenezake loaren une exaktoa bera, herio-tzako unera entseiatu iristeko moduan? Azken unean, uneak beti eskapa-tzen dizu, segurrenik heriotzak eskapatuko dizun moduan. Loaren unea gertatu izana biharamunean deduzitzen baduzu, heriotzaren uneaz noiz

ohartuko zara? Ad dexteram dei patris, diote heriotza iraganbidea dela sine-tsi nahi dutenek. Inoiz ere ez, diote pizkundea fikzio-literaturan sartzen du-tenek. Ohartzekoa ez bada, unea ez da existitzen. Zeren beldur zara orduan? Nik uste dut lo zaudela, erdi-ametsean; erdi-ametsetik eztulak edo dominis-tikuak itzularaz zaitzake. Ez urduritu. Pentsamenari apur batean dabilela utzi ondoren, badituzu beste sorta batzuk, *Agur, sagar beltzeran, Hilkutxan ere kan-tari, San Fermin bezperie (horixe, horixe, inoiz amaitzerik lortu ez doana) San Fer-min bezperie argittu ezpaleu, biherbada neittiken adarretik salbeu... Galdakaora bidien luzien luzie, leue zuloa zan da zuloa lezie... ixerren begijjetan ha zan gaupasie...* Oraingoan baietz uste dut. Gabon, maite, badator denbora galdua, tori bi laz-tan, tan-tan, tatatan, aldasbeheran, murgiltzen; zazpigarren zentzumenetik gorakoak hasi dira lanean, txakurrak hondartza hutsean elkar gainka bezala, gainerako bizitza guztia erretiratu denean, betieratik gertu dauden olatu otza-nak salbu. Igeri ez jakiteak, edo ez nekien sasoiak, amesgaitz lo-hausle asko eragin izan dit, baina batzuetan ura gaineratik pasatzen zaizu eta haitz barre-nean apurtzen da, inolako bortxarik gabe, bssss, ezta horixe ere, kontenpla-zio purua; haitzetik haitzera aldatzen zara, ez kaioa bezala, hau lentoa baita; beste haitz batean zaude eta ez duzu galdetzen nola, badakizu lo zaudela, nik badakit noiz nagoen lo, pentsakizun bati instant batez ere jarraitu ezin dioda-nean; pentsakizun lokabeen jomuga besterik ez naizenean, arrainik ezberdi-nenek atseginki atakatua den urpeko sagarra bezala.

– *Sagarra urpean leitekeena dok?*

– *Azalean erasotzen badeutsie, norabait ezkutatu beharko harek be.*

– *Urpean arrain gehiago ez jabilk?*

– *Bah! Sagar bat gorabehera!*

Itzelezko atsedena da lo ohartuaren abandono laxo hori, zeure sentipen, iru-dikapen, zentzumenen nahas-mahas iratxoaren kontenplazioa; ez lo sakona deritzotena; hori heriotza da; sakonean horixe dago beti. Nahitaezkoa bada, ez dugu horretaz ere arnegatuko. Utz ni flotatzen, itoa banintz bezala, honelaxe (amaren sabeleko uretan ei nengoen bezala, norbaitek belarrietarik tiraka atera ninduen arte), euria entzunez, zara-zara, zelaia aurrean dakarren uhol horiska-ren transformazio txit natural, txit atsedengarrian, zelai bera aurrera daraman

artalde txit bazkakoi bihurtuz. Eta dena, munoaz handiko haranean, aste osoko txerri-hiltzea izan dutelako; pasillo luze eta txit bakartiko horma kontraz zain, zuk zeuretzat ez zela uste arren, berak zeu zinela uste izan duen emakumea aurkitu duzu, gaztetua bainoago gaztetan gelditu zitzaizuna; ez ausartuz, bai ausartuz, azkenean laztandu duzu, onartu dizu, utzi besterik ez eginez, igarri-rik, nonbait, zu grinaren oldar azkarrera baino aiherrago zaudela luzapen kasik inpertzeptibler. Urrunean burrun-burrin, uda sargoriko trumoi lokartua, San Pedro zero lateral batean artaburu pilo zabaltzen ari dela ematen duena; hotsak hurragokoa dirudi, brun-brun-brun... *ur berogailua isiotuta itzi ete joat?*, bada, bai, martxan dabil, *dagoen beroagaz, hartu daiela popatik*, ur berogailua, berogailua... ez daiteke izan, trrrnnn... prrrmmm... rrrrrnnnnn... *Zer jatork hor? Aibadios! Hori abioia dok! Barku hegalaria!*

Ez dakit koheterik geratu izango den, haregaz konpara nadin, baina uste dut horrelaxe saltatu naizela ohetik, praka bila, alkandora bila, *kamiso haur nork ekarri jok hona?*, zapatilak, giltzak... *giltzak autoan jagozak!* Auzobidean behera posesoa bezala abiatu naiz, hegazkinaren beraren isatsera hari inbisiblez loturik, *ez hain bizkor, hi!, bihurtuneak hartuz!* Abiadurazko istripua oraintxe litzateke absurdoena, inor aurreratu beharrik izan ezin dudanean.

– Dokumentuak, mesedez?

– Kartera horretantxe dauzkazu denak.

– Sentitzen dut, baina abiadura-isuna jarri behar dizut.

– Abiadura? Autoa maximoetatik behera berez erregulatzeko moduan egokitzea hainbeste kosta eta gero?

– Abiadura txikiegiatik.

– Hara! Ba, minimoen seinalerik ez dut inon ikusi.

– Horiek zentzunean egon behar dute.

– Zentzuna obligaziozkoa al da?

– Diogun komenizkoa.

– Orduan, ken maximoen seinaleak ere, errepedeek pintura paranormalen galeriak dirudite eta.

Ez, ez. Bizirik eta sano iritsi behar dut, orain artekoaren gainean, bera baino harrigarriago izan litekeen fenomenora. Nora noa honen itsuki? Nork diost,

egoeraz jabetzen, xerutzen hasia nintzenean, salbuespen berri hori interesatu behar zaidanik?

Nora zoaz horren bizkor, karga horregaz? – Etxera nahi neban, inork harrapatu aurretik, baina bizkorrago ibili zarie. Haurtxo batek, bere orgatxotik, ezagutu banindu bezala begiratu dit. Ikaraturik, amari begiratu diot, bitarteko nahian bezala, zeinaren begiradatik, esan nahi zuela ulertu dudan: Zer gura dok? Berton oinez hasi daiten, heuri haginka egitearren? Bataila bat galdu arren (koldarkeriaz izan denez, osorik irten naiz), kalean behera kantuan darrait.

– Umoretsu zoaz!

– Hileta baterako entseguan.

– Kanta alaiegiak ez al dira horreek hiletarako?

– Bai zera! Hilak ez dau entzungo.

Zakarrontzira begiratu dut, eta inor ez dago. Inor ez dagoenean, iruditzen zait edonon egon daitekeela norbait.

– Merezi dok urrezko hilkutxan eroan haieen.

– Igarriko al deustat?

– Ziur! Bigarren egunean mogimendua sumatuko dok inguruan.

– Zer egiten?

– Eskeletoak ateratzen direnean, urre-hondarrik ikusi al dok inoiz hazur artean?

Aita Santuaren hil-kaperan barru-barrutik irten zitzaidan: *Ene Jainko! Bizirik dirudi barren!* Mojatxo batek hunkibera ihardetsi zuen: *Bizitzan hila baitzitudien.* Ez nuen harrapatu horretan non egon zitekeen mirakulua, baina laurogei urteko andrea tenterik txizaginan ikustean, ohartzen zara zutik hiltzea ez dela hain zaila, makurtzea arazo denean.

Iurretako autopista sarreran, langak alarma-hotsean desesperatzen utzirik (badirudi benetan sentitu dutela ni kontrako norabidean sartu izana), Bilborantz hartu dudanean, oinak azeleragailutik atzera egin du, aginduz: *Pentsaik ondo zer egin, damutzeko lekura joan aurretik.* Autoa, nire Galloper galanta (neurea, beste jaberik agertzen ez deno), kilometro batera dagoen atsedengunera

inork eragin gabe sartu da, nahikoa zentzugabeki, noski, zeren *zertarako baz-tartu haz, autopistaren erdi-erdian geratuta be, inor ez baheuen molestaturko?* Auzia da gero behar-beharrezko gerta dakikedan denbora gal nezakeela, erabakita-ko lekura berandu hel banendi. *Pentsa daigun joanean* (Galloperra oraingoan neuk atara dut autopistara). *Noren bila najoak?* Hegazkin hori nondibait normal badator, segurrenik, panorama berriaz jabe daitezenean, erdiak histeriko, laurdenak infartiko eta besteak nork jakin zer-nolatiko jarriko diren; neuk ere horixe egin izango nukeen, bakarrik barik talde bat geratu izan bagina, familia edo auzoa, esaterako. Batzuek negarrari emango zioketen, beste batzuek larritasunari. *Orain zer egin behar dogu, zer gertaturko da, zer izango da gurea?* – *Handiagorik gertatzea gura al dozu?* – *Zergaitik itzi geu, hain zuzen, destinoak helburu makabroren bat gorde ez badeusku?* Horrela, hitzak hitz larriagoa ekarriz, elkarri izua transmititu izango geniokeen, kutsapen nerbio-soak amenean gara dezakeen angustia kolektiborantz. Neu bakarrik gelditzean, ostera, bizipen guztia neugan hasten, neugan amaitzen da. Indibiduo baten barrutia oso txikia, ia hutsa dela ohartzen naiz, besteenganako irekidurak itxi bazaizkio; ez dantzut auhen larririk, ez dakust umerik negarrez, ez izurik gorputzez gorputz korritzen, sua pinuz pinu bezala; libre naiz multiplikazio kolektibotik. Aldizka, geldiunea behar dut, dardarak arnasa estutzen didanean; katastrofearen jasaile bainoago handiostasunaren subjektu naizelako sentipen oraindik barneraezina dela esango nuke, zeina berbertan suntsituko lukeen giza multzo ikarakor baten katebegi izateak. Hodei soil bat naiz, nahien-nahienean ere, ekaitzik abiarazi ezin duena.

Hegazkin horretako bidaiariengana bil nadinean, eurek egoera ustegabearen aurrez nola erreakzionaturko duten inkognita kezkarria izanik, ba al dakit neuk nola erantzungo diodan elkartzeko bueltagabea dela ohartzeari? Honen mundu zabalean, lor nezake, noski, hain gizateria minuskulotik barkatasunera ihes egitea, baina neure kontzientzian inoiz ezingo nuke bakarria izan, bizi guztiko fugitiboa baizik; ezta haiek denak ezaba litezen suposame-
nean ere, neuk ez bainuke jakiterik izango; jakinda, berriz, ezingo nuke neure bururik askatu, tarteko izatea zegokidan zori orokorra neuk nahita sailhestu izanaren arranguratik. Orain, neuk ez dut ezer egin, ez egiteari utzi. Ez daukat inolako parterik, ez onerako ez txarrerako, enormitate ukaezin baten jabe

bakar eta, beraz, absolutu bilakatze honetan. Hala ere, Galloperrak aurrera darrai, eragozpen guztiak jartzen ari natzaion inkontrurantz. Nolako gizajendea izango ote dira bidaiari horiek? Hegazkin batean oso probablea da, arteko bizikera eta sentimoldeen arabera, nik haiek maitatzea zailegi izateko moduko jendea etortzea, fribolitatezko negozioen interpreteak albora utzita. Nola dezakezu buru bat egin, hain gutxi gogo bat, ohituta daudenekin ez beharbada pertsona txarrak izaten, baina bai pertsonen gainean ibiltzen, hiri erdiko zubia nondik pasatzen ari den ohartu gabe gurutzatzen duena bezain natural? Galloperrak aurrera darrai argudio sendoagoen bila. Eta hori, hegazkineko pasaiari horiek bizi guztian hain gorrotagarritzat sentitu dituzunen selekzio bat izan daitezkeela jo gabe; esaterako, zer militarraz zerikusidun hainbat jardunetariko baten arduradunak, zeren hain fenomeno totaletik at datorren hegazkinak ez dago dudarik espazioaren bortxatzaile izan behar duela.

Egoera osoki eta ezinbesteki berriak gizakia hartara egokiarazten ei du, adaptazioa ezartzeko baldintzen bihozgabetasunari gero gizakiaren adaptagarritasun mugagabea deituaren arabera, baina kasu hau (albora utzirik nire oroimenean ezin dudala ezerekiko konparagarritasun urrunik ere aurkitu) ez litzateke, adibidez, espetxekoa bezalakoa, non inoiz entzerramendua bera baino gogorrago egiten zen elkarbizitza, beronetatik ezin libratzeak maitasun usteraino leun zezakeena, bertuteen sorbururik emankorrena derrigorra delako printzipioaren ondorioz. Espetxean ez zegoen ihes egiterik, beste honetan noiznahi eta arrakasta osoko probabilitatez intentatu ahalko nukeen bezala. Leku ihesgarria bada, *segi bertara, Galloper alu horrek, baina gogoratu orduan nondik edo zertatik ihes eginik ez izatearen pribilegio olinpikoa, Olinpikoa alegia, dibinoa, koño!, galduko heunkeela*. Eta direlako bidaiariak munduko missgaien kohortea balira, Missbournetik Misterburyrantz, edo beharbada neure bila zuzen, gerakin bakarra naizela usnaturik? Pilotuak akabatu eta denak neuretzat, azafatak barne. *Ai, Galloper izorratu hori! Bazter hadi zuhaitzondo baten kontrara, idiarena derrepentean egin daigun, juxtu idiak egin ezin dauena, hain zuzen. Nik pentsatuko najoan idiarenak hori izan behar ebanik, 'galtzua' jaten eta 'adarrak' handitzen baino ikusi ez nebana bera?* Nire txori burugorriak (*purgatzen ez haz ariko, eztok?*) batzuetan biribiltzeko astirik eman

aurretik beragantzen ditu pentsakizunak, adimenak erdi-proposamen bat moldatu dueneko, aurpegira tu egitea mehatxu eginez, *baina orain zelan hasiko gozak txarrikeria horretan, norena den ez dakigun auto batean?* Okasio eder bat (*badok, izan be, edertasuna gero!*) galtzea litzatekeelako horretaz, bere jatorria garbi bereizten ez dudan norbaitek barrutik argudiatzen du orain denbora dela idiak baino bizkorrago korritzen duena, eta beste hori egitea gero ere badagoela, missak ez izatea gertatuko balitz, zeren, izatera, idiarena munizio galera tamalgarria litzateke. Kasurik probableena ezezkoa denez (*marka litzatekek batetik missak eta bestetik neu bakarrik geratzea, elkar aurkitzeaz beste destino barik*), ekin diezaiogun eskura dagoen zorionari, zentzunak datorrenean aprobeatzeko agintzen duenari, *eztok, burugorritxo?* Burua eta gerria ere kanporantz teinkatzeko bitartea aurkitu du nondibait aluak, enborrean gora habiarantz luzatzen den sugeak bezala. *Ez jatak txoketan, burugorritxo, paradisuan sugea agertzea, daukazuen elkarren antzagaz, kolore akzidentala salbu, eztenxo eta guzti; hire zirriztadak forma horixe ateratzen ei jok; une horretan bada-kik ez nazela obserbazinorako egoten.*

Galloperrak aurrera darrai, ez dakit berez ala neurez; argitzerik ere ez zait komeni, abio bat daroadala sentitzen baitut, non ez dakidan ihesi ala bila noan. Zertarako dut gizakiaren dohainik preziatuentzat jo izan duten askatasun osoa, gero haren norabidea markatzeko gai ez den nahimenagaz gelditze-kotan? Azkenean, izaki ridikulu bat sentitzea lortu behar dut; zertatik ihesi etor nintekeen eta natorren ere ez dakidala, hegazkin inprediktible baten apeuak determinatzen nau, hargatik bakarrik ezen probatu ez izanaren zimikorik gera ez dakidan, nahiz eta, probatutakoan, ziurrena damutzea izango dela jakin. Badirudi, nigan, nahimenik egoistenari gainhar diezaiokeela jakin-minak, okerrerako bada ere, Adani eta Ebari gertatu bide zitzaenez. Euren burua bakarrik izorratu balute, hor konpon, baina ondorengo guztiok halako lelokeria bategatik hondatu gintuztela pentsatzeak zorabidera amiltzen ninduen, Jainkoak dena ondo egiten zuela sinesten nueno. Gero Jainkoaz dudatzen hasi nintzen, eta dena konpondu zen.

Missen multzo-ikuspen exzitanteak ez ninduke gure kuadrilako lagun bizioso zeken haren litxarreriaraino beheratuko, zeina, errepideko enbotila-

menu bat aurreikusten zueneko, neska gidari baten aurrean kokatzen saiatzen zen, retrovisorean islatzen zitzaion bularrez gorako irudiari masturbazio transitorio bat dedikatzeko, nahiz eta badiren enbotilamenduak, jaitsi eta dena behar bezala egiteko astia ematen dutenak, beharrezko okasioetan faltako zaizkien maldezioak alferrik xahutzen ibili gabe. Errepideetako voyeur mota hori ez zen iristen, hala ere, aurreko autoko retrovisorean ikusten zuen irudi niminoa aski zuenaren zorroztasunera, zeinean aurretik (ispiluko irudiari) eta atzetik (gidariari berari) batera ekiteko hirugarren bidea aurkitu zuen, biak banaka behar adina probatuak zeuzkala emanik. Nik neuk behin intentaturiko zirriborroak, kuriositatea bizio guztien amama baita, ez zuen emaitza onik ekarri; erreklamu baten aurrea okupatzea (lehenengo kasuan gabilta) oharkabean lortzetik berehala, beste bizioso mota inoportuno bat tarteratu zen, esku bakarra bolantean, besteagaz sudurtzuloetan harrapatu- riko takoak astintzen. Geroztik, inoren autorik erabili behar nuenean, kostatzen zitzaidan hasierako higuin-kolpea gainditzea, bolante hura ere zeregin berdinen jasaile maiz izana izango zelako pentsakizuna ezin baztertuz; neure autoan, berriz, bolada luzean, retrovisorea forraturik ibili behar izan nuen, idiaren bisualizazioa baino irudi higuingarriagoa gainjartzen baitzitzaien beti atzeko zena zelako aurpegiari.

Nire oraingo gako nagusia ez da missak edo julisak ala maitagarriak edo aingeru jagoleak izango diren, direnak direlako izakiekin bakartasun merezigabe hau zergatik hautsi behar dudan baizik. Hegazkin batean etor daitezkeen berrehun eta bi lagunetik biziera tribalak atzera sarraraziko ninduke lehen maizegi eskapatu nahi nion tentsio sozial konplexuan. Beharbada jende señoitoa izango da, aitzurrik inoiz hartu gabea bainoago aitzurrari ihes egin izanaz harrotua. Beharbada jende biolentoa izango da, hots, jende normala, baina egoera anormalak indarrez gainditzen ohitua. Beharbada jende mengela izango da, kaleetan kalefakziorik ez egoteaz kezkatzen zena. Beharbada jende kapritxosoa izango da, bezperako ogiari zahar iritzirik, egunekoa marmeladaz untaturik bakarrik jaten dakiena. Beharbada jende gizajoa izango da, hegazkinaren zurubi barrenean inor ez dagoela ikustean, *ene ama, lurra jo behar dut* esanez bezala elkarri begiratuko diona. Beharbada jende itzela izango da, hots, anormala, ezbeharrean handitzen eta handitasunean xume-

tzen dakiena. Beharbada barik ziur, jendea izango da. Eta nik zer egin behar dut jendeagaz? Beharbada denen animatzaile egiteko ardura ahigarria hartuko dut. Beharbada amodiozko labirintoetan zimelduko naiz berriro. Beharbada eurekin nahitaez elkarbizi beharko dudanekin etsaituko naiz. Beharbada neure ideia iraultzaileak (denak dira iraultzaile, norabideren baterantz) mundu berrira egokitzen eta baliesten berriro desesperatuko naiz. Beharbada gehiegi maitatzearen esturak ito egingo nau. Beharbada barik ziur, beste gizarte bat gehiago izango da, partaideen alderik ustegabeenak jota ere, azkenean lehengoaren antzekoa izango dena.

Galloperrak aurrera darrai eta ezin diot eurt egiteko edo geratzeko agindurik eman. Aukera bakar eta sozialki terminala dirudien horretara iritsiko ez banintz, gero ez al nuke saihestu ezineko damua lepo bueltan hil arte eraman beharko? Bakartasun ezezagunagatik engainagarriak ez ote lidake burua galaraziko, hizketagaz batera, pentsatzen ere ahazturik? Pentsatzea gal badezat, zer geratuko zait, ni ez bainaiz pentsatzen dudalako naizena baizik, hots, pentsatzen dudana naizena? Galloperrak badaki hori gertatzen ezin duela utzi, Derioko azken biribilgunean hauta zitzakeen bost norabide laketgarrietatik (itzulera barne), aireportu hurbileranzkoa argiro hartu duenean; distantzia batetik eta inor ohartzeko (horretan trebatu ninduen, bai, gizarte joanak!), zenbat eta nolako jendea diren obserbatutakoan ere, izango dut zer egin erabakitzeke astia, tarteratu ala aldendu. *Hor jagozak, ba!* Ez daude, baina baleude bezala. Hor dago aireportua, egitura aeronautikoaren zurtasun kolosala, albokera jausitako hego erdizirkulardun hegazkin erraldoia irudi; umeei hegapea ematen ari ez bada, ugaztuna ez denez gero, argiztapen gorriska indartsuak Sondikako fondo ilunaren kontra bistaratzen duela. *Orain zer egin behar dok? Geratu ala joan?* Ostra! Hau arin erabaki behar da. Geratzen banaiz, ez duket segurrenik ihes egiterik, lehen ere joera sobera susmagarriz ibilia bainaiz beste eskapurik aurkitzen ez bide zuten suiziden kasuak estudiatzen. Joan banendi, ostera, damu banendi ere, beti legoke bilaketaren ahalbidea, bizimodu on bat aurkitu dutenek goraiatzen duten bilaketa etengabe hori, bizitza osoa justifika ei lezakeena. Laudatzaileen baitan, baliteke bilaketa, funtsean, erreklamu bat besterik ez izatea euren aurkikuntzak aldarrikatzeko (handiena, azkenean, norbere burua beti; bertan geratuta eginda

zegoena), zeren, zer beharrezko edo garrantzitsuetan, ezin baitut ikusi aurkikuntza urriko bilaketak nondik izan dezakeen grazia. Nire kasuon, behar bada, hipotesia egia bikain gerta liteke, bakartasun neuk hautatuaren maldezioa ez balerama, norberak hautatua inoiz egokia ez izateko fatalitate-agatik, ez aukera txarra zelako, norberak hautatua delako baizik. Izan ere, jakinean ihes egin badezat, ez dateke irtenbide garbia, baizik gaur ausardia, bihar temeritatea, etzi astakeria irudi dakidakeen erabakia. Behin honezkero, egoerak nire interbentzio gabe hartua duen bolumenean, hobe izango dut datorrenari zuhurki aurre egin, nahimen hutsal bategaz harri infinitua maneiatzen saiatzeko zentzugabekeria jausi baino.

Iritsi gara munduko aireporturik handienara. Logikaz, etortunen karriletak hartu beharko nuke, baina hori beherantz eta tunel antzeko azpi baterantz jaisten dela ikusirik, jasoago, hegalariago dirudien joatunen panelpetik joko dut, eskuina ere bada eta; gustua ematen du zerbait arriskutsuaren gainetik pasatzeak, ezer leher dakizun beldurrik gabe. Beldurretik askatzen ari garenez gero (motibo beldurgarrietatik askatzea baino zailagoa berau), sarrera nagusiaren pare-parean aparkatzen dut, ezein motibo bizigatik geratzeko debekurik totalenaren gainean (*zoruko banda-sare hau elektrizaturik ez ahal dok egongo!*), atzetik erasotzear dirudien taxi lerro amaigabe eta inkompletoari aurrea harturik. *Bai, bai, laster aldeko joat! Ez izan zirinak, zuen bezero aberatsak bahitzeko asmorik ez jaukaat eta.* Banoa bizi-bizi eta kristalezko ate eskergak krrnnn ireki dira. *Et! Geldi hemen! Niri ez jatak aterrik inork edegitzerik gustetan, eta gutxiago ostetik.* Geratu naizenean, bi ateorriak ere geratu egin dira, erdi irekita. Urrats bat aurrera, eta zabaltzen; urrats bat atzera, eta ixten. *Joño! Bi urrats honeexen artean misterioen bat jagok.* Oinik mugitu gabe, gorputza aurrerantz zabukatzen dut, eta kristalak atzerantz; gorputza atzerantz zabukatzen, eta krn-krn-krn kristalek elkarrenganako plantak egiten dituzte, besarkatzera beharturiko haurrek bezala. *Ez, horrela ez! Gauzak hobeto elkar hartuta egin behar joguzak. Ni aurrera? Zuek aurrera. Ni atzera? Zuek atzera. Entzun? Entzun izango zuten, baina jaramonik ez. Amorrua damait norbait ostenduk aldrebeskeria hau guztia manea dezan. Urteik, bahaz! Ostetik baztarrak endredatzen? Saltoan oldartu naiz eta bi ateorriak bertan atzeman ditut, alfonbra ginearraren gainean; orain arra-*

pataka doaz atzerantz, farol azpian txapar trukean ziharduten zubi-txirtek poliziarri erreparatzean bezala. *Bai, eztok? Zuen bizkorragaitik izan balitz, a zer musturrekoa hartu behar najoan!* Barrura pasatu naiz, eta atea berriri elkarren bila datoz. Bai parean azartatu ere, hain meheak izanik! *Et, et! Inork ez jok esan barrura noanik. In medio virtus. Oraintxe ikusiko joagu.* Erdiratu naiz, eta atea bi alboetarantz baztertu dira, *ni ez, ni ez kexaka. Sufritzen zagoze, ezta? Itxi zaitze oraintxe, osteko txuringa horrek erraila kurutzatu ez badeutsue.*

Ospitaleko igogailuan gatoz, neguko arropengatik ez balitz, transmisio venereoak inork igarri gabe gauzatzeko moduan. Atea ixten ari zela (hau benetan lodia eta garaunak ehotzeko modukoa da), agure batek burua pasillorantz atera du. Bi ate-orriak lepora datozkio. Txilioak. *Zein solairutara zoaz, gizon? – Oftalmologiara – Eta okulista hemendik ikustekotan zagoz?* Inguruan beti gertatu behar izaten duen salbatzaile horietariko batek, besoa ukondo eran sarturik, atzera bota ditu ate-orri inpasibleak. Agurea, denon harridurarako, barrura egin beharrean, pasillora irten da, handik kaiolakada piztia dirudigunoi begira geratzeko. Erantzun obligatuko galderak egiten ohiturik dirudien andre batek dio: *Ez al zenduen barrurantz egin behar, hirugarrenera markatu dozu eta? – Gorputzak buruari jarraitu behar deuto.* Gizonak inori ezer galdetzeko baino insegurrago behar du, besteen pentzudan jartzea baino norbera erratzea hobe delako senetik.

- *Orduan sartu arin buru hori barrura, igogailuan egotera ez gara etorri eta.*
- *Oinez joango naz. Beherantz igual, egunpasan etorri naz eta.*
- *Ez daukazu osasun makala, eguna pasatzera ospitalera etortzeko.*
- *Hemen zerikusi handia dago. Eta zeozer gertatuz gero, bertan zagoz.*

Buru hura, gilotina lateralean bezala, igogailuan gorputzik gabe ikusi nuenean, gure elkarte gastronomikoko trofeo diseatu bat iruditu zitzaizdan. Pentsakizun horregaz zaila zen nik hura salbatzea, benetan arriskuan bazegoen, baina kasu hark zorrotzu egin zuen ate automatikoekin hasieratik dakardan tema kasik genitala, ganorazko aukerarik sekula ez dut izan baina. Kanean pasadan nindoala, hotelik onenetan saiatu ondoren (*joño, hortxe aprobatu behar joat, Hotel Carlton, Maria Cristina, Tres Reyes...*), azkarregi

hanka egiten nuen, txakurrak autoaren gurpilari txiza egin ondoren bezala; egunez beti dago norbait traban, eta gauez berehalaxe datorkizu gorilaren bat, zer behar duzu-ka.

Aireportuko atok, ni erdian naizela, ernegaturik egon behar dute, sekula ez baitira (deduzitzen dut euren begiradatik) honen jarraiki baztertuak izan; nerbioen atake puntuan ere bai, nik uste, disparate zorian ez bada; ez dakite bertan esertzeko ere kapaz naizela. Gutxiagorik merezi ere ez, presidenteak (ministroak barne), 'iturginak', akzionistak, aktore txarrak, gameluak, txakurrak (autentikoak) eta denak berdin hartzen dituztelako. Ez berdintasuna maite ez dudalako, baina, esaterako, harrera-neska izutzeraz datorren zakur mutur-zapal horietariko bat hurbiltzen denean jeneral erretiratuaren (betebehar profesioetatik bakarrik) barrabilak transportatzera, beste hotel batera erraturik jo duen amorante jada gauezko jantziari inora mugitzeko nagikeriak eman diolako (*ekarri eizak bertora!*), erreberentzian zabaldu behar lukete, ezta? Edo presidentziako ministroa datorrenean. Karranpa magnetikoa gurtzatzean, alarmara ez deitzeko moduko pindarrak askatu dira. Aspalditik zain zegoen prentsaurrea zehar-begirada urdurietan nahasi da; kazetariak, haren plan amorosoaren ala mehatxu mafiosoaren (*terroristaren esango ete joagu?*) uhin fugatuak ote ziren, berriz ere pentsatu dute: *Gaur gure ministroa zirin-bedarrak janda jatorren, antza.*

Aireportu handiok, txikienak ere handiak gure patioaren aldean, konfiantza izugarria sortzen didate, gal-sentipen orotarik libre, zauden tokian zaudela, nonbait zaudela eta batez ere destino jakinera zoazela ematen baitizu; nondik zatozen, inork galdetu ere ez. Badaezpada, honelako norabide azoketara lehenengoz natorrenean, astia ekarri ohi dut. Arrapaladan ibili beharrrera deskuidatu banaiz, bidaia anulatu (ez agertu eta kito) eta izango da medikuren bat, kaxa bat ardo txit bereziaren esker onez (zuk uste), borondatez (berak uste), bat-bateko gaitzen bat sinatuko duena, pasaje dirua erreku-peratzeko. Bestela, itsasoz handik airean dauzkadan gerrak aspaldi galduak daude; esan nahi baita, Kubara mulata bila joateko (*hmm, gozo eta solidario egongo zoan haxe!*), ez dela aparteko prestakuntzarik behar.

Aireportura iritsitakoan, lehen-lehenik kafetegira jo dut, galdetu gabe errazen aurkitzen dudalako edo harako indikazioak ulertzen ditudalako baino gehiago, han, arestian esana dudan asti ugariz, eman beharreko urrats guztiez ezarian informatzen naizelako, taberna-solasean, hots, denborapasan bezala; eta ez, galdetzen hasita, *hori be ez dakik, astakume horrek?* pentsatuz bezala irribarre dagizunaren azalpen despistanteak jasoz. Ez da zorte espektakularrik behar, norbaitek, gogaiturik edo zerbaitegatik ernegaturik zegoenean, adeiz eta arretaz entzun diozulako ordainez, eskuzabalez areago, hegazkineko zurubiraino lagun zaitzan, bera ere hegaldi berean doala eta. Gero hegazkinean, pasajeen arabera, eserleku urrunetara banatu beharko duzue, ez dago arriskurik inozentzia garestiegi atera dakizun, aldamenen jaun xuabeki urrumati bat egokitu ez bazaizu, gizalegalki zerri samarra, ghrr-ghrr, bidaia guztia eztarria garbitu guran egingo duena, eta lotan edo zurrunga betean hasi denean bakarrik utzi zaituena egoera natural samarrean.

Lehen-lehenik kafetegira, han komuna ere nahikoa eskura izaten baita, ha- maika motibo izan litezkeen bategatik ezkutatzea komeni baledi. Leihatil- tan galdezka hasiz gero, azalpen atalkatuak aurkitzera arriskutzen zara, non informazio ustez orokorretik hasita (azalpen atalkatuaren osagai bat berau ere), hara eta hona eta bestera ibiliko zaren, ez ibiltzeko prestaturik ez zaude- lako, baizik, lehenengo leihatilan, adeitasunez bezain bizkortasunez eta hain etxeko ez zaizun jerga-hitzen bat edo bestez azaldu dizutenari eta, errepika- tzeko eskatzen ez ausartzeagatik, baietz esan diozunari (*bajagok hemen nori itaundu, dena leku berean jakiten ahalegindu barik*), bigarrean edo bosgarre- nean antz handiagorik emango ez diozulako, batzuetan esperientziak, edo esperientzien segidak, argitasuna barik itsumena pilatzen duela frogatuz. Gaur ez da lehenengoa, baina izan daiteke azkena, aireportuko kafetegira na- torrena, ez baita arimarik ageri, mahai batean lo dauden beroki eta boltsa batez besterik, honezkero ondo hozturik egon behar duen kikara kafesnearen ondoan. *Joño, ea hementxe zeozeren lorratzik topetan dogun*. Boltsa ireki eta kar- tera barruan dago. Kartera ireki eta harritu naiz, euskal literatura modernoa hain nerabeki zale den izen arrotzen alderantziz, karnetean *Miren Agurne Zu- laibar Gopegi* aurkitu dudanean. Jaioterria: Gorliz. Bizilekua: Bilbo. Kalea: Sa- bino Arana etorbidea. Jaiotze datatik, hogeita hamabost urteko adina atera

dut. Ez litzateke inkontru txarra, argazkiko aurpegiak iradokitzen duen beza-lakoa bada, baina apenas agertuko den, komunak (andrezkoenak, gizonezkoenak, bietarikoak) banan-banan ikuskatu baitituz; irekitzen ez zen ate batean bihotzak saihetsetakoa eman badit ere, azkenean indar kontua besterik ez da izan. Pasajea, Bilbo-Frankfurt-Mosku-Norilsk jartzen du. Hemen izen arrotzak bidezkoak dira, siberiar haur baten adopzio-bidaia ematen baitu. Ezin diot kafesnea edateko sentimen kolpeari eutsi, hark eskatu zuen unea eta ni edaten ari naizena denbora beraren jarraipen abismala izan daitezkeelako zirrarari; edo ikaran, neuk ere ez baitakit, sentipenik bortitzenak nahasteko haraindian ez banago. Eskerrak sintoma hauek zorotasunagaz asoziatzeko psikiatrak ere joanak izango diren, izenik ez daukan gaitzik existitzen ez delako zorionean. Baina ez al naiz hegazkin baten bila etorri, oraintxe hauteman dudana hain zuzen, enbarke atetik hur, zurubia hedaturik, sartzera edo irtetera doazenen zain?

Hegazkinaren argiak, barruko zein kanpoko, bizturik daude, eta helizeek, argiztapen gurutzatuen edo beirateriako irristaden eraginez, behin gelditu, behin itzulka dirudite. Inor ez da ageri. *Gure abioia bajoak!* –alarmatu zen lagun bata, kafetegian zeudela, eta biek, dena bertan behera utzita, hegazkinari atzetik jarraitu nahi zioten, *geldi, geldi!* oihuka. Batak hesiaren gainetik saltatzea lortu zuen eta bestea, muturra eta erpeak bertan amorrutik, biraoka geratu zen, *ni barik joateko asmoa daukaku, txarri horrek?* Ez bata ez bestea ez ziren konturatu nolako arriskura oldartu ziren, ez bertan tirokatuak izateko bazarrik, baizik, okerreko hegazkina harturik, Errusia orduan ospetsu baina siberiarrean lurreratzeke, etxetik Boisera artzain irtenda. *Heugaitik itzi jeutsa abioiari joaten* (hesia saltatzea lortu zuenak) – *Ondo egin dok, gurea oraindino fresko ei jagok eta* – *Beste abioi bat ipiniko jakok ala?* – *Beste bat ez, geurea baino. Zer uste dok, ba? Munduan abioi bakarra dabilela, iretargia legez?*

Ateak apurtzen hasteko trepetxurik ez daurkit inon, denak itxita halabeharrez, segurantza sistema automatikoz segurrenik. Haien azainak (azkenean, bildots sasoirako iritsi ez zirelako ugazabak arbuaturik, alukeriak igaro behar izan zituzten beste arrantxo baten bila, itzultzeko dirurik ezta) era segurua eta bizkorra bururatu dit. Geroztiko aurrerapen terrorifikoari esker, artzain-

gai hezgaitzek saltatzeko baino disuasiboago dagoen hesia badakit nola ederki gainditu, eraitsi alegia, neure Galloper flamantearen gainean. *Arietea izorratuko balitz, bajagok hemen zer hartu, dagoen lekuan hartzea pekatu ez bada. Gainera niri zer, berton geldituta be?* Sarrerako atEEK, orain irteerakoek, bazilatu guran dirudite, ez-bai ez-bai zabaltzen baitira, adieraziz: *Pasatuko haz, baina ez igarri barik – Hartu eizue popatik, material faltsuok!* Uste dot destaina hori transparenteak direlako atera zaidala. Utzitako tokian, formal baina gailen dagoen Galloperrari bi metro eta erdiko hesia ez zaio gehiegizko iruditu. Astiro-astiro, tentuz baina barkaezinki, bi metroka banaturik dauden taket burdinazkoek amore damate, eta sare metalikoa badoa etzanez, kirrinkada minberan, bortxaketari erresistentzia aiuturik jarki gabe, berak jakingo du zergatik. Indarrak apenas estutu behar izan duen, baina aurea batez ere majo markaturik geldituko zaion Galloperrak hegazkinerantz naroa, noiznahi eurt egiteko adi, bat-batean zurubian behera pirata-aldra amorraturen bat, edo nork jakin zer, oldar baledi.

Zelaian ohiko aparatu guztiak ageri dira, oso formazio desordenatuan, handiak, txikiagoak, helikopteroak, kirol-abionetak, zerbitzuko parke guztia, kamioiak, karga-eramaleak eta zertarako diren antzik emango ez niekeen beste hainbat eta hainbat gurgildun, denak isil-isilik, elkarri begiratu nahiezta, *harrapatuta gajagozak pentsatuz, edo mundua barriri hastera doala emoten jok, edo horixe izango dok izan beharrekoa, kontrol-dorrea asaltatzera datorrena, edo beti geratu behar txotxoloren bat, atsedean ederrean gengozena.* Zurubiaren oinean zalantzan nago, ikara puntuan ez esatearren. Aireportuan inor ez badago; hain arin desagertzeko astirik izan ez badute, barruan behar dute, nork jakin zer motibogatik oraindik irteten hasi gabe. Eta hilda baleude? *Fianbrera zarratu eta hegazkina abian. Arazoa bizirik egotea litzatekek.* Mailak astiro eta kontzentratu-rik igonik, Pisako dorrera kanpoko okerru- netik bezala, gorengo eskailburuan, *inor bizi da?* deihadar egin dut, oi- han galduan bat-batean agertu den etxe bakarraren atarte introbertitua baili- tzan. Eskuak ate kurboaren alde banatan ondo atxikirik, burua aurreratu dut, barrualdera oi- hu egiteko: *Eup! Denok falta zarie?* Ez dirudi inor dago- enik, eserleku-ilara burumoztuak besterik. *Bai tripa haundia daukala txori honek!*

Nik ez nuen sinetsi umeak Paristik zetozenik, baina bai hegazkinak txoriak zirena. Orain umeak Olentzeroren gezurraz ohartzen diren baino lehenago, hegazkinak ez zirela txoriak deskubritu nuenean, egunean pare bat aldiz pasatzen ikusten nuen 'Bristol' tartaro edo tartargile hari begira jarraituko nuen, noiz jausiko ote zen, ez zen zorterik izan baina. Ez zidan inbidiarik ematen; nik txori izan nahi nuen. Nire inbentzio frenetikoak aproba guztiak egin zituen, ira sortekin, besoetara hego forman lotuz, etxean leparamozten ziren hegaztien luma gordeekin (inoiz burkoak hustu ere bai, amaren ernegu desorientaturako), etxean hiltzen ziren animalien puxika puztuekin, aterkiekin, amamaren amantalekin... Edozegaz ikusiko nuen hegoa fabrikatzeko modua. Aurrerapen handirik lortzen ez banuen, ez zen asmakarien akatsagatik, besoen makaltasunagatik baizik, zeintzuk dudarik gabe indartuz eta bizkortuz joango ziren, haien lumak pilatuz nindoan oiloei, bizirik zeudela, lantzean arrautza fresko bat osten banien, batez ere gorringo bikoien itxura zeukatenak, halako ustearen arabera ezen arrautza gordinen energia miragarrian oinarritu ohi ziren lehiak, kopuru berdinarekin kasuan (esaterako, jokalarriak egunean dozena bana arrautza janda prestatu baziren), gorringo bikoien proportzioaren alderantz makurtzen zirela. Ez nintzatela jar arrautza pareala gorringo bikoia hautatzeko premia mingarrian, parearen balio handiagorekin ebidentziak ezingo baitzuen lortu gorringo bikoaren xarma errefusanean.

Antzekoa gertatu zitzaidan, errakuntza handiz, gainera, norbaiti 'potrobakarra' deitzen entzutean, hain tonu despektiboan zirudienari nik fantastikoa iritzi nionean. Harenganako miresmenagaz batera, neure zorrotxo oraindik azal-guria haztatzen nuen, ea, halabehar probidentzialen batez, ohiko parearen lekuan bakarria besterik ez zegoen; inoiz hiruren kontaduria alarmanteak izutu baninduen ere, nire haztaketak hain ziren maizkorrek bezain ez sakonegiak badaezpada, ezen bolada luzean izan nintzen dohatsu, bakarraren uste faszinantetik izaki miragarria nintzelako kontzientzian, inori esan gabe beti ere, handik urte batzuetara, neure gorputzaren sailkapen arrunt eta sarritan dezepzionanteki erkinera aspaldi errenditurik, unikornioaz liluratu nintzen bezala. Ez ei zen animalietan ikusia nuen bi adarretarik bat galtzearen kasu penagarria, itxura beldurgarria edo parte txarrekoa gel-

ditu arren (gehienean, jenio gaiztoko bihurtzen zen, gainera, horrexegatik iritsi ez bazen galera hartara), oker-ahalmena errukarriro mugatu zitzaiona; unikornioarena bakartasun misterioski berezkoa ei zen, izate bakana eta, beraz, bikainagoa ematen zuena, nahiz eta gero ezagutuko nuen inkarnaziorik hurbilenak, errinozeroak, ez ninduen hainbesterik xarmatu, intrigatzen baninduen ere.

Hegazkineko pasilloan aurrerantz astiro-astiro, bi aldeetako eserlekuen goienei txandan kokka-kokka nator. *Polito zagoze, eh! Egon hementxe zuek. Ai, ai, ai! Ez jakiat gerriko hori gehiago lotuko dozuen. Zueri ardura be ez, eztok, ezton? Noiz ailegatu zarie? Nora joan dozak, dozan? Ezin zaituet, ba, denok okupatu. Hementxe jesarriko non. Tokatu jan, laguntxo; ez don luzerako izango, aurretik bialtzen ez banon.* Nire lehenengo hegaldiaren zirrararik handiena, agian bakarra, hodeien gainetiko ikuspena izan zen. Mendian, Oiztik, Anbototik, Gorbeiatik, antzeko miraria hautemana nuen oinpean, gailurra inguruko hodeitzatik gailentzen zenean, baina behin ere ez hodei-meseta trinkoaren, hegazkina bertan aparkatzeko modukoaren gainetik joate zorabiagarri hura. Ikusi beharrekoa ikusia nuen. Ez ni gorago bidal! Bihoaz nahi dutenak, ahal balitz buelta gabe; ni utz nazazue neure lurtxoaren azal maitagarrian, larru izorratuan. Banuen esertzeko gogoia, zerbait inportanteak huts egiten didan guztian bezalaxe. Eseri eta egon, ezer inportanterik ez denean, etzanak tiratzen didan bezalaxe. Begiak itxi ditut, behinolako hegaldi magiko hartan bezala. Lo hartu dut, lehorretik ur gainera sartze guztietan bezala; Australia lekutan dago oraindik. Itzartu naizenean, ezin dut interjekziorik asmatu, zer aurkitu dudana adierazteko. Inor ez dago hegazkinean, ezta piloturik ere. *Ailegatu gozan? Abisatu behar zendueen, mamala alaenok!* Jaistera abiatu naizenean, interjekzio guztiak trumilka datoz batera, hegazkina abian baitoa, airean baitoa, lurretik kilometro mordora. Barruan neu bakarrik nago, ez pilotu ez beste. *Orain zer egin behar joat?* Ezer ere ez. Paraxutik erabiltzen ez dakit, ezta ateratzen ere; hegazkina gidatzen gutxiago. Saia nadin lasaitzen. Oraindik orduetarako erregaiak egon behar du; zerbait bururatuko zait. Larritasunak alde guztietara begirarazirik, atzean atea iruditu zait. Hurreratu naiz beldurraren oinetan, eta zabalik dago, bai. *Hemendixek joan dozak, zerbaiterako balio duen misterio bat argitu banu bezala.* Atearen bi aldeetako heldulekuei deabruari samatik

bezala oraturik, itsasoaren kolorea geldi-geldi hautematen dut behe-behean, hegazkinei intsektu konplexua sartu ohi dien zirkunferentzian. Ate madarikatuaren aurkikuntzak gorputzikara areagotu besterik ez du egin, aurreko larritasunari hautamen propioaren faktore akutxilantea gehitzen baitzaio. Azkeneraino jarraitu ala salto egin? Hauta dezaket, hots, ezin dut hautatzerik ekidin, bietarik bata ez gertatzea neure esku baitago. Eta astia baitaukat, asti luzea, biak eliminatuko lituzkeen hirugarrena sortzen saiatzeko, hauta dezaket batetik besterako errebote dementzian torturaturik akabatzea ere.

Beste aukera bat ere badaukat, lehenen biak hegazkina zalantzaka hasi arte atzeraturik (orduan, bat-batean, ezinbestean erabaki dezaket salto egin ala hegazkinaren patuari jarraitu): lasaitzen saiatu, saiatu eta lasaitu, lasaitu eta gozatu gain-hegatzen ari naizen mirari hori. Zer aurreratzen dut une batean gertatuko den izugarrikeria aurreko denbora guztira ekarrita, horrek ez baitu azkenik saihestuko, ez bigunduko, ez, okerre dena, agian oharkabean gertaraziko, halaxe bat-batean, arnasa batean, kaunk, edo nor jakin, erdi lotan, gabon? Lasaitzen saiatzeko arrazoi guztiak dauzkat, geratzen zaizkidan ordu eder aski luzeok, hemen ere edertasuna laburregi gertatzeko legeak agintzen ez badu, merezi duten argitasun osoz gozatzeko. Arrazoa nagusitzen ari da, lasaitasuna lortzen ari bainaiz, arrazoimena esan nahi dut, adimena alegia, baina badaikit zergatik gertatu den hori. Izularria ere unagarri denez, konmizio bortitzegiek jota utzi naute, sentitzeko indarra ahiturik; orduan adimena agertu da, itsaso ekaiztsuan irentsirik ibilita, baretasunean berriro azalerritzen den oholtxo bezala; itsasoak ere ez dauka indarririk ekaitz etengabean ekiteko. Ahipenaren baretasunaz baliaturik, oholtxo, beharbada hondo abisalak jo dituenak, tak, hantxe agertu da berriro. Inbentziblea dirudi, eta da, nahiz eta jakin beste indarren errendizioaren emaitza dela, baina zer ardura dio zergatiak, berak ur azalean badarrai, ahatetxo bezain txairo, ni orain egebera erraldian bezain ahaltsu? Luzeagoan, bizitza bera ere zer zen, bada? Adibidea aplikatu nahi duenak antz baino berdintasun gehiago aurkituko duelakoan, arrazonatzen segi dezaket; beste ahalmen guztietatik husturik (minik inon ez daukat; beraz, ez da tortura totala ere), adimen hutsa geratzen da, argi, garden, ez berez argia delako, bakarrik geratu delako baizik, desertuko palmondoa bezala; une horixe baliatzen du bere nagusitasun erreala

ezartzeko; unea, zorionez, errepikakorra da; gogoratu oholtzua, ekaitz guztietatik biziraule, bera usteldu arte.

Neure buruaren kasuan lortu dudana lasaitasuna bat-batean tormentu urragarri bilakatu zait, pentsamenak nire lekuan neure alaba nerabea jarri duenean. Ezin dut irudikatu hura hegazkinean, airean, bakarrik, izuari nondik heldu ez dakiela, izutik nora ezkutatu ez dakiela, sen birrinduak azken salbidetzat diktatzen dizkion *ama!, aita!* oihuak ezin ahozkatuz. *Ez, ez, irudimen asasino horrek! Ez ni honela puska orain, biok bakarrik gelditu garenean. Ken pentsakizun krudelok. Ni akabatzen banon, heurreak be egin jon.* Kontrazentzua badirudi ere, irudimenak 'ulertu' egin duela dirudi. Banator neure onerantz. *Buff! Hau izan dok tortura, ez halako...!* Txikiagoranzko konparazio bila joan naiz, baina tortura ezin dut txikiagorantz graduatu. Non ote da nire alaba? *Ez, ez, mesez! Barriro ez!* Honek guztiak topikoa dirudi; topikoa da. Topiko egiazkoa, baina orokorra. Zein gurasok ez luke berdin hitz egingo, era agian literarioagoan? Alaba izan beharrean, beste neskato bategaz probatu dut; edozein neskato ezagun; bere aurpegia irudikatzeko bezain ezagun, soilki. Tormentua ia berdintsu errepikatzen da. Neskatoa izan beharrean, mutikoa, haurra, zaharra, gaztea, edozein probatu dut; behin edo behin, berriz doi-doi errepresentatzeko moduan ikusia dudana aurpegi soil bat. Efektua berdina da. Kontua agian da, ez neu, baizik beste bat izatea. Neure buruaren kasuan, egia eta irudikapena ia materialki banatzen ditut. Ezin dut ekidin sentitzea errealitate bat pentsatzen ari naizela, ez bizitzen. Besteen (edonoren) errealitatea, oster, pentsatzez baizik atzeman ezin dudanez, pentsamena bera bihurtzen da objektibitate. Kasu horretan ezin dut neure buruarengan aplikatu dezakedan bikoiztasuna zehaztu. Hala, neure buruarengan bereizkuntza salbagarria zena, besteekin derrigor saihestezin bilakatzen zait. Inorengatik sufritzetik aska nazakeen bakarra ez-ezagutza da, hots, inor ez ezagutzeak bakarrik libra nazake inorengatik sufritzetik, zera bakartasun absolutuak ere ez didan garrantizatzen, besteen irudiek (joanak, hilak badira ere) oroimenean darraiteno. Horixe da Jainkoagan sinestea zailtzen zidan motibo handietariko bat, alegia, nola zezakeen gizaki amaigabeen sufrimendu amaigabeagoa, ez barkatu, hori erraza baita, baizik pairatu, desintegratu gabe. Auzi bat misterio deklaratzeko ulertzetik libra zaitzake, baina ez sentitzetik. Noan kafetegira, lehen

ausardia faltan utzi dudan kafesneak ea higuinaren poderioz distrahitzen nauen.

Adimena, arrano señorial hori, basapiztia dominatzaileak erretiratu ondoren, hondakinak garbitzera lurreraturik, lautadaren jabe indiskutible gelditu dena; pentsamen purua, exzitatze ororen motorrak iraungitakoan, indefektibleki lotarantz rarifikatzen nauena, han, amets lasai eta lentoan, egian inoiz otuko ez zitzaidakeen bategaz bidaian abiatzeko, autoz, mendarte ibaitsuen paraleloan, gaua bidean egin behar izateko destino urrunerantz. Badakit plan temerarioa dela biontzat, sozialki ia suizida (bere aldetik batik bat; nire adin-ean ez dago zer galdu handirik), mihi-luzeek autoan sartzen ikusi gaituzten begien ustekabea inbidian igurtzirik sozializatuko baitute. Zapiekin agurka hasteko bezain desafiati ez bada ere, disimuluan saiatzeko baino ageriago gabiltza; harrotasun sentsual batek narabil; dena uhin otzaren gaineko bitsetan doa, gure inozentziak edo zorion-kolpeak denetik jaregin gaituelako; irrealaren naturaltasun osoz, baina sentipen amultsuen garapen guztiz errealean goaz; hain errealean, ezen, bidaia abiatzetik laster ezabaturik, konplikazio posibleei sortzeko astirik eman gabe, goizean halako gogaldi samur eta dohatsuak posediturik itzartu bainaiz. Bitsak badarrai egun errealean zehar, hain gratuitate jariakorrean, ezen bidaide maitagarriaren aurpegirik ez identitate-rik gogoratu ezinak ez didan sentsazioa anplifikatu besterik egiten, areago beste aurpegi harritu edo irritu haiek garbi-garbi ikusten ditudalarik, bereiz-tuki opatzeko moduan ze: *Zirindu zaitze hortxe!*

Hegazkina hodei gainetik eta ni bidaiari oroahalgabe, nekez abiaraz neza-keen errealitatea gainditzeko ametsik. Beraz, itzartu naizenean, denbora laburra beharko zuen joana, kuluxka soil bat agian, adimenaren deusezgailu diren izuek berroldartzeko behar zutena juxtu; eta izu bat ondoan eserita agertu zait, ahaltu itxurako gizon bat, ohitua dirudiena Concordeetan ibiltzen, suburbioetako mutiko zapoa goitibehera apurtuetan bezain natural. *Zu be hemen?*, galdetzea otu zaidan bakarra. *Nora gajoazek?*—orro egin du bere one-tik kanpora, *nora naroak?* bezain zuzenki akusatzaile. Nahi gabe, buruera bat iradoki dit, pairatzen ari nintzen izugarrikeria irtenbide zoragarriarantz bihurtzeko.

- Bakarrik joango zara –darantzut–. Ni saltatzera noa.
- Zelako saltatzera? Helduiok hegazkinaren aginteari, bertan esteak ateratzea gura ez badok.
- Orduan nork gidatuko leuke hegazkina?
- Ez ni zoro-amorratu, entzun?
- Ez zaitut, hainbeste kostata, zoratzera ekarri honaino.
- Lurreratu eik hegazkina bakez, eta zin dagiat ez jaala ezer gertatuko.
- Berandutxo dozu eskuzabal portetako. Ni banoa. Segi zeure ahalguztitik mundua gainbegiratzten.

Concordeari horizonteraino lagundu diot. Gizonak izango ahal du ikaraz hiltzeko talentua, hegazkina Andeetan lehertu aurretik. Une batean, hitz horiek premonizio izango ote ziren beldurrak jorik, hegazkinetik ziztuan irten naiz, aireratzen has dadin baino lehenago. Gertatzen ari denaren barruan, ez dago ezein posibilitate bazterterik, lehendik ere probatua bainaiz zer den, presolagun bat bisitatzera Katalunian zehar nindoala, aldasbehera batean paralizaturik gelditzea, aurrean agertu zen haran inoiz zapaldu gabea urteak lehenagoko amets batean ikusiaren berdin-berdina aurkitu nuenean, zerak esan nahi baitu, amets guztiak gogoratzeko gauza banintz, paraje guztiak ezagun nituzkeela, gogoan nonbait hortxe daudela jakitea ere ez da gutxi baina. Esperientzia bortitz bat bizi nahi dudanean, ez daukat aspaldiko (umetako edo gaztetako) lekuetara itzultzea besterik, haien izate aldatuaren eta oroitzen dudanaren arteko haustura amorratuan gogoira iraul dakidan, distantzia batera multzo bakarria diruditen bi txakur burrukariren aldarroetan bezala; hori, droga gogor baten premian nagoenean. Bizitza korrituan, errealitatearen aginterik kuestionatuko ez badut ere, neure oroimenagaz bizi behar dut. Orain dakusdan errealitatean, argien gauaren kontrako interzepzioan, luzezabal abarkatu ezin dudana hainbeste pistatako zelaian, aireportuko eraikin arkitekturaz diskutiblean eta inguruko aparatu sakabanatuetan, ezin dut giza lorratzik inon hauteman. Nobedade bakarria, hesia bortxatzean, Galloperrari geratu zaizkion arrastadak dira, egun argiz, segurrenik, aberia handia emango dutenak. Aireportuko parking eskergetan deneriko ibilgailuak aukeran egonik, ziztrinkeria litzateke auto mankatuan itzultzea. Ea zortetik baden, baten bat zabalik eta giltza aldean duela aurkitzeko. Tom Cruiser. Ede-

rra tramankulua, izena ere west antzekoa. Ez dio ardura amerikarra izateak, tanga beterik badauka; behar luke, zeren orain zer egin behar dut munduko petrolioagaz, beharbada gastatu dena baino gehiago gelditu denagaz? *Aupa, Tom! Hori dok obedientzia, hori dok zarata! Turbo Dei genitrix, tira pro nobis.* Latina Santo Tomasegaz edo Joycegaz amaitu zela uste zutenentzat. *Agur, Sondika eta Loiu, asko erein eta gitxi koiu. Lautada bikaina lotu jatzue, egunen batean porru-landarea sartzeko.* Oraintxe da abagunea, iritzi-korronte batek gizarte berriaren ikurtzat aurreratu zuena ez zela hain estrabagantea erakusteko, hots, autopistak alpapa eta trenbideak alpapa bota behar zirela.

Bitartean, hemen ez da ezer gertatu. Aireporturantz nekartzan pentsakizun bibranteak hutsean geratu dira. Ez dira, noski, alferrekoak izan, zeren, itzulera lasaitu didatenez gainera (egoerari nagikeriaz edo ezaxolaz erantzun ez ote nion izango nukeen kezkarri aurrea hartu diot), pentsamenean gertatzen den oro erre-ala bada, posibilitate burutu gabeak barne, artisten adimenak ondoegi dakie-nez, nor ez da artista, koman ez badago, eta puntua gero, dena aldrebes? Ez dut esango errealtatea pentsamena bakarrik denik (zer ardura dit niri txirikorda horrek guztiak?), baina hortik kanpora zertarako balioko luke?

Oskuri! Zer izan dok hori? Zeruan txalaparta? Hegazkina eta trumoia bereiz-ten ahanzteak ez luke lebarik, egoera honek jarraitzekotan, baina hozkia le-maidake honen arrapalada ustetsua hain errakuntza tribialaren gainean eraiki dela jakiteak. Kalefakzio galdara izango zen, batzuetan etxea dardaratzeko moduko harrabotsa ateratzen duena, automatismo inperpersonalaz ernegatu-rik, *neu be hemen najagok gero! aldarrikatuz. Baina horrek zertan biguntzen jok tribialtasuna? Lurrikara izan ez bada, duela pare bat urte bezala, non bihara-munean ez zebilen beste esamesarik: Ha izan zoan sustua! – Nik entzun be ez najoan egin – A zer lo-zakua hagoen! – Ba, ni ia bertan harrapatu ninduaan, orduan-txe ari bainintzen Eibar kurutzatzen – Eta? – Ez zoan luzea izan, baina lurra oinpean dardaratzten denean, orduantxe damutzen gozak hegazti ez jaio izanaz. Neuk ere zerbait sumatu nuen lotan. Hegazkina ordu honetan?, pentsatu nuen, baina la-burra izan zenez, atzera lo. Banengoen, bai, zarata hura hegazkina lur barru-tik balihoa bezalakoa izan zela, norberak lur barrutik entzuna ez bazen; ez dakit zer gertatzea litzatekeen hobe, lurra oinetan kraska dakizun ala hegaz-*

kinak azpian harrapa zaitzan. Gaurkoa amesgaitzen bat izango zen, horiek ere errimeak baitira subjektua txotxongilotzen, sarritan gertatu izango zitzaidakeen bezala, lo azpiko sen zehar-garatu batek *geldi hor!* agindu izan ez balit, mugitzea arrisku larriagoen erreklamu izan zitekeelakoan; ez baldin bada poliziak atea botatzen ziharduela entzun nuena bezalakoa, atzeko leihotik salto egitera jaiki nintzena. *Baina zertarako jaurti behar joat neure burua iheslaritzara, motiboak izan ditudala sinetsarazteko?* Pentsakizun horrek argitasuna ekarri zidan, ez ote zen izango garajeko atearen kontrara atze-hazkan hurreratu zen auzoko asto iheslaria; zena zelakoari aurpegia ematera irten nintzenean, ez zegoen ez poliziarik, ez astorik, ez auto lapurrik, baina egona izan zitekeen; prekauzioak ez ziren, beraz, alferreko izan, egiazko okasiorako entsegutzat baino ez bazen ere.

Jada bakartasun ia betidaniko dirudien honetan jarraitzeko poza inori kantatu ezinaren penatxoagaz, aireportu ingurutik urrundu naizeneko, Derioko hilerriaren horma-kontran behera nator, non tanpez zauskada batek iradoki didan une mortala bizi nezakeela, hilerrian sartuko banintz.

– *Hilerrian sartu?*

– *Zergaitik ez?*

– *Zergaitik bai?*

– *Gogoak eskatzen deustalako.*

– *Zertara sartu behar joagu orain hilerrira?*

– *Mutikotan, pentsetan bai, baina desietan ausartu ez ginena betetzera.*

– *Mutikotako kontu zorriekin hator gagozen egoeran?*

– *Ba, bai! Oraina eta geroa urpeko irudian legez ikusten doguzen honetan, ez daigula behintzat iragan ziurra galdu.*

– *Hori hilerrian ziurtatu gura dok?*

– *Aurkikuntza ikaragarria egin genduen lekuan, non....*

– *Beharko ikaragarria!*

– *... orduan ez ginen ausartu...*

– *Sasoi oneko kredoa!*

– *...itziko al deustak esplikatzen? ... honen hilerri eskergaz geuk bakarrik disponitzen...*

Nire burua bikoizten denean, nahasmenak gertatzen zaizkit sarritan. Ni batak dioena beste niak ez dantzu ondo, edo ez du entzuteko pazientziarik, edo batak ez du ondo azaldu, edo biak oker ulertu du, edo ez dute elkar ulertu nahi, edo neu izorratu nahian dabilta. Euren artean ez konpontzea ondo jasaten dut, baita dibertitu ere, haserretzen direnean, hezur berari tiraka dabiltzan bi txakur bezala. Baina hezurtzat neu hartzen nautenean, hots, neuk ere argitasuna edo autoritatea galtzear dakusdanean, onena banatzea da; spray mentalezko parrastada batzuk, eta bakoitza bere zulora. Orain, bide guztiak geure eta infrakzioak geureago direnean, banakuntza eroso eta osasungarrian goaz; bata Tom Cruiserrean, bestea Galloperrean, biak elkarren parean, errei banatan edo norabide bakarreko errei bikoitz-hirukoitz-laukoitz... kontrako banatan (ulertzen zail samarra, ezta? eskerrak bakarrik gabiltzan), eta ni aurretik, trizikloan, ni batak, ni biak eta nik neuk osatzen dugun hirukoaren txikitze simetrikoan. Trizikloak, inguruak ikusteko ona eta lasaia izanez gainera, atzekoak baretu egiten ditu. Hauek, banatuta ere, liskarrean jarraitzen edo, hezurra amaitu zaielako, elkar deboratzen hasten badira, burmuinera itzularazi eta pentsatzeari uztea komeni da; erabat utzi ezik, burmuina jan dezakete. Ez da oraingo kasua. Errazenera jorik (antizientifikoki segurrenik), baina lehenago pentsaketa, humanoagoa zelakoan, han sentitzea maite nuen bihotzetik urrundurik (hori behintzat, zientifikoki), ni bata burmuinaren ezker hemisferioan eta bestea eskuinekoan kokatu ditut; sentitu ere baietz esango nuke; ez naiz, beraz, hain burugogorra.

Ezker Hemisferioa: Hementxe jabetu ginen, harrituki, Bilboren handitasunaz, ez seminarioko joan-etorrietan trenetik trenera zeharkatzen genduen harenaz, batez be etxeranzkoan. Bazterretara ikusmin grinatsuz begiratu bai, baina badaezpada desbidetu barik zeharkatzen genduen Bilbo, ez bertan galtzeko bildur ginelako, baizik ezin genduelako kalkulatu zelakoa izan zeitekeen biziherrri bat, hainbesteko hilerria behar izateko.

Eskuin Hemisferioa: Ikara be sartu jakuan, hurrengo Bilbo zeharkatu behar genduenerako.

Ezk H: Txundipenezko ikara, gaztetxoan zer deskomunalekiko lilura higaezina injektatu euskuna. Horixe ez al da arteranzko esperientzietariko bat?

Esk H: Ez eidak popatik emon! Aireportura galdu-gordean etorri gozak, hutsaren

bila. Bilbo bere huskeria bat besterik ez den fenomenoak iruntsita gajagozak. Hilerrian aurkitu gura al dok artearen burujabetza?

Ezk H: Ez zen Bilbo bakarrik. Seminarioko basamortu bibliko baino errealagoan, ez al daukazu gogoan zelan urtean behingo hilerri-bisitak bizirauten ginduzen?

Esk H: Baita Begoñako Amari maiatzeko lora-bisitak be, notejode!

Begoñara joan-etorria luzea zen, Santo Domingoko aldatsa bitarteko, nondik bueltan zankabeak zilizioak urratuta heltzen ziren, Ama Birjinaren Garbitasunaren alde. Hilerrikoa, ostera, bi joanean, bi etorrian, lau kilometroko kontua zen dena, lau-lauan bera, zilizioak ez mankatzeko moduan; han, hilerri bazterrak miatzen (denetan, 'marmolistas Derio'), beste pare bat kilometro.

Ezk H: Zenbat gozatzen, hunkitzen ginen hilerrian, hango bazterrak ikusten!

Esk H: Hik heuk bazter ikusle baino bazterretan egoile, denpora luzeagoa egiten heuen, hilen atxakian biziei begira.

Ezk H: Zelako bihotzikara, familia osoa bere panteoiaren beste aldetik begira zegoela, geuk be hilaren inskripzino sinoptikoaren jakin-mina erakustean, senideak abadegai hunkigarriro unformatu baten auragaz ondaturik sentitu zirenean! Orduan, aho-peko marmartxo labanak ezitzen eban isiltasun laguntzailearen barruan, neskatxoan aurpegiei, kandela biztuak bezain otzan ikusten izten zirenei, aurrez eta hur-hurretik begiratu geinkien, eurek be beharbada, zeremoniaren ferboretik distrahitzeko gitxi beharrean, irribarre egin ete euskuen amesteko moduan.

Esk H: Ete, etc...

Ezk H: Eta zer esan, panteoiaz beste aldeko emakume oraindik gordinak, nongoa zara zu itaundurik, ah, bai?, ba, neuk be amama... hasi zenean; auzo haretakoa zara zu?, zenbatgarren urtean zoaz? Geuk be seme bat korazonista daukagu (geure turbazinoan 'akordeonista' ulertu genduen); karameloak gura dozuz? (malbabisko adurgarriak) – Eskerrik asko – Abadetxo polita izango zara zu. Eta azkenean esan ebanean: Alabatxoak! Emoiozue, agurtzeko, mosutxo bana ia zeuen lehengusu dozuen abadegai ule-kiribil honi. Horrelakorik ez zen jazotzen Begoñako Amaren bisitetan, denok komunitate trinkoan, norbere uniformearen erreplikak besterik aurkituko ez genduen bidean.

Esk H: Eta zelako inbidiaz eta malenkoniak bueltatzen hintzen hilerritik seminaria, zilizio sastatzailearen akordurik barik?

Ezk H: *Neskatxoen irribarrea gogoan, oso-osorik.*

Esk H: *Zer balio jok heure desioaz beste oinarri segururik ez daukan irribarre batek?*

Ezk H: *Batek eta denek!*

Esk H: *Irrealago orduan. Grina inutil baten gomuta besterik ez.*

Ezk H: *Pentsa gura dozuna, baina oraintxe hilerrian sartu eta grina haren emozino puntual guztia barriztatuko bagendu, ez zeunke esango hain inutila izan zenik.*

Esk H: *Esaik egia, gehien begiratzen heuena beste azpi-hilerri jentil ha zela, 'hilerri paganoa' esaten genduena, non kristauki hiltzera ukatu zirenak Elizaren parkazino eta ikur orotatik at ehortzita zegozen.*

Ezk H: *Ez dozu dena azaldu. Bazter sorgindu haretan irakurtzen genduzen izenak Jainkoaren erruki hutsaren pentzudan zegozen; inor egotekotan, hareexek behar eben infernuan. Baina bisitariak bardin etortzen jakezen, errespetu berberagaz mogitzen ziren, eta guk ez geuntsen halako lotsa itxurarik hartu. Aitzitik, jente adeiberagoa begitandu jakun; berba egingo ete euskuen bildur ginen, baina ahots gozoa zeukien, neskatilek batez be. Jainkoak pentsakizunak irakurtzen zituelako ez izatera, lepoa jokatuko geunkeen politago be bazirela, seguruenik, arima teorikoki kondentatuen gainean, Jainkoaren bigungarri izan zeitekeen seinaleren bat ikusteko geunkan beharrizan kasik biologikoagaitik.*

Esk H: *Bai, eztok? Eta gero, mosu eta fedebakoen kasu, eta Bilboren handitasun eta hilen ugaritasun, eta zilizioaren zauri eta malbabiskoien gozo, eta panteoien opulentzia eta hilen ongarriz gehiago hazten ei ziren zipresen ikusgarritasun, eta sotana-sakelak ikopasaz koipezto eta txizalari eutsiezinari disimulu gatxean eta profanazino-kezkaz jaregiteko zokotasun, eta zerrendak hartuko ez leukeen hainbeste sentsazino handi-txikiren artean, borborrontzi itzuliko hintzen seminariora, negua azkordinak uxatu ezinik eta galtzerdiei orpoak josi ezinik pasetako. Hori barriztatu gura dok?*

Ezk H: *Horixe dena, oroimenak hain ondo moldetan dakien moduan, hunkipenezko sentipenak bakarrik aurrerako iragazita. Besteak ez dagoz ahazturik, baina begoz euren zoko etsian. Betoz neurri batean aseak izan zirenak; euren sorburuzko grina bulnerable haren edegitasuna kontserbetan dabenak.*

Esk H: *Orduan zer egingo joagu? Sartu ala aurrera?*

Ezk H: *Sartuta ez al gagoz, ba, hilkutxa ibiltarian, Tom Cruiser hilezkorrean?*

Azkenean, horixe gertatzen zait beti: kontrako arrazoiek gutxienez berdinketa merezi zutenean, iritsia naiz hurrengo ekitaldira. Orduan egoera be-

rria bera bihurtzen da arrazoi nagusi, ez dezadan, zorionez, egindako ezertaz damutu beharrik izan, nahiz eta horrek ez duen esan gura bizitzan dena pentsatuta nabilenik. Ez du esan gura atea zabalik zegoen hilerrira sartzea arbitrarioa izan denik, horretarako arrazoiak ere berdinketan baitzeuden; eta horixe da kasua, non, gorabehera txikiko zein handikoak izan, prozedura berdinsuz garatzen diren egintzetan, arrazoen korrelazio alde baterantz konbintzenteagorik ezari askatasunaren mito exzitantea esleitzen zaion, zeinak, maitasunaren mito ederragaz batera, bizitza zortetsuak saritzen dituen gehienbat; edo non, segurkiago agian, errakuntza apasionatu batek aireportuko mugimendu inexistenteetik hilerriko gelditasun materialera eramanez lezakeen. Uste dut oraintxe ari direla hilerrira sartu izateko arrazoi erabakigarriak agertzen. Hautua, izatez, neure jaioterriko hilerritik txikiaren gomuta salbatzailerari dagokiola sentitzen dut (oraingoan txikiak handia irentsi du), eta horixe da kasua, non, bizitzako jauzirik gehienetan bezala, ondorengo arrazoiek onesten duten aurreko egintza, ez ezer justifikatzearen, berreraikitze retrospectiborik zorrotzenez ere ezingo bainuke neure iragana posibilitate alternatiboekin errealki konparatu. Beraz, beharbada egia izango da beti onena gertatzen dela, ez onena delako, gertatu delako baizik.

Seta txiki bat ere izan zitekeen, hilerritik aurretik pasatzean, beti tentatzen nauena, hots, ez dagoela gauza zentzugabeagorik hilerrira hormatzea baino; kanpoan dabilenik nekez sartuko da hara, barruan dagoenik nekez irtengo. Nik zentzugabekeria horri zentzua eman nahi nioke, eta orduan hilerritik itxietan sartzeko planak egiten ibiltzen naiz. Zabalik badaude, atalburuan esanez *'gaur ni, bihar zu'*, *'pixkat itxoin biharko diazu'* erantzun eta aurrera; edo: *'hemen gagoz, zeu noiz etorriko'*. Orduan, *'hau be badok, ba! sano bagara, denok honaxe etorri behar!'*, eta berdina aurrera. Hilerritik hormak beharrezko izan daitezke, bazuetan kartzelan ez bezala, non kanpoan dabilen askok haraxe sartu arte ez duen bakerik izaten, gero handik irtetzeko nahi ez izateko, *total zertarako, bihar barrira etortzeko?*, bitartean egundoko berotua hartuta, beharbada. *Gainera nora joango nok, nik akabatu beharreko guztiak kandelapean bajagozak?* Hemen zentzugabekeria handiagoa iruditzen zaidana da hilerritik handitu egin zutela, populazioa gutxitzen ari zenean. *Hilak umeginan hasi ete dira?* Aireportuari bidera irteteko ez bazen, entzun izan baitut, Derioko hilerritiatik ez balitz (hilak

mugitzea asko kostatzen da), aireportuak honezkero Txorierri guztia jana zukeela, jubilatuen bazkarian andre jangartzuaren platera gizon erpe-handiak garbitzen duen moduan.

– *Atzo be jan bakoak ez gozak, baina gerran gosea burura pasatu jakunok hil arteko ase-ezinean bizi behar. Nik goserik handiena ezteguetatik bueltan izaten joat.*

– *Aurretik be bai zuk, lotsagarri horrek! Esan leiteke ze etxean ez dogula jaten.*

– *Jaki honeei guztioi zer egingo jeutsenagu, ba? Txarrirei emoteko itzi, gero txarrikoa galazo deiskuen?*

Seminarioan, hamabost bat urtegaz, kontzientzia politikoa eta desobediencia baino mingoskiago madarikatzen zuten beste grina aipaezina nabarmentzen hasi zitzaizkigunean, paseoan sarriago pasarazten gintuzten hilerri ondotik, bizi-mina amortiguatzeko edo. 'Hautsa zara eta hauts bihurtuko zara'. Beti saiatuko nintzen barruratzen, baita lortu ere batzuetan. *Aita! Sar gaitzke hilerrira?* – *Sar eta irten, aitaren baten.* Aitarena dezente luzatuko zen, baliatzen ginelarik ez zirela ausartuko, errespetuarren, ardi galduak batzeko bezala, hilerri erdian txistuka deitzen, prrr-prrr-prrr! Inozente plantako harahona batzuen ondoren, banekien norantz galdu, *hi, goazek harako bazterrera,* eta hantxe zegoen fusilamenduetako inpaktuekin bera ere sarraskituriko horma, *adi!, prest!, su!,* elkarren gainera jausten imaginatuz orduan, ikusten ere bai orain, bizirik libratu zen bati entzun nionetik. Tiroak ez zuen, nonbait, beste guztiak bezala guztiz akabatu, eta bere azken biziraun-senean, gorputza hain hilda uzteko antzea edo zoria izan zuen, ezen 'tiro grazioso' (itzulpen-eskolan ikasia) ematera gaineratu zitzaion soldaduak, gorpuari ostikoz buelta erdi eman ondoren, *hau Omarko otsoa baino hilago jagok* esanez, errematatu gabe utzi zuen, bere apunteriaren harrotasunean. Ehortzailea heldu aurretik, hiltzako hilobi artera arrastatua zen, ezinetik ahala ateraz, bere kide hilotzen gainetik; pare bat egun hilzoriagaz norgehiago isilean eginik, egunsentietan beste fusilamendu batzuen danbateria entzunez, hirugarren gauean, ondo kostata arrimatu zuen oholtzar baten laguntzaz, horma gainditzea lortu zuen. Hilerritik inor ez dela eskapatzen gero! Hurreneko baserrian atea galdugordean jorik, laguntzaileak gertatu eta bizirik libratu zen, bizitza luzeegirako ez bazen ere.

Sakon-sakonean, hori ere ez dut uste nire hilerrri-grinaren esplikatzaile askia denik, arestian aipatu jaioterriko hilerrri txiki salbatzailea baizik, herri-barruaren mugan, harexen osteria iristea izaten baitzen nire salbamena, eskolaro basati samar hartan, mutil handiago batek edo inoiz aldra osoak jazartzen ninduenean, burla egin ei nielako, edo, soil-soilik, derrigorrean atezain jarri nindutelarik, neuri sartutako golekin galdu ei zutelako. *Zeuek be ez dozue bes-teen atean askorik sartu!* esaten deskuidatzen banintzen, *baina hik sartzen itzi ez baheuntse, gitxienez bapezna bardinduko genduaan!!* orroka oldartuko ziren, non hanka-jokoari emango nion, San Bizkorri bederatzaurren belaunikatua aginduz, hilerrria sano harrapatzen banuen. Beti ez zen graziarik izaten, eta orduan jipoi doblea izango zen, komisaldegian bezalaxe, non ihes-ahaleginak (txakurrak ere horrexek berotzen ei ditu gehien) larrua bertan utzi beharra ekarriko dizun, tiro 'grazioso' horretaraino, barrabilak apur bat iluminatu bazaizkie, beti 'berotu' ez esatearren.

Hilerrria harainditzen banuen, banekien atzera egingo zutela, euren terriorioaren mugan geratzen diren txakurren antzera; aurrerantz sumatzen banituen, hilerrri barrura salto egingo nuen, nora eurak ez ziren menturatuko, hain gutxi iluntze aldera. *Urten hortik!* Ni isilik. *Bihar belarriak ondo preparatuta ekarri heinkezak!* Ni isilik. Eguna salbatzea zen kontua; biharamuna beste mundu bat zen. Ez nintzen ulertzen saiatzen, hartaz baliatzen baizik, biziekin hain kirtanak izanik, nola hilerrriari hainbesteko erreparoa izan ziezaioketen. Errespetuagatik ez zitekeen izan, elizpeko 'hezur-ganbara' librean, elizan ehorzten zirenetik gelditutako hezurrekin harrika ere berdin ekiten baitzioten, nahiz eta gero hezurak euren tokira hutsik gabe bildu; baten bat kanpoan deslai gelditzea augurio arriskutsua izan zitekeen. Hilerrriak badirudi benetan haragoa markatzen zuela, eta neu ere haragokoa nintzen, hilerritik mendiranzkoa. Ez zegoen munduaren beldurrik, hilerrria bitartean zeno. Izaradunen bat agertzen bazen, jo eta bertan zuloratzea zegoen, gero ehorzlearen etxera joan eta andreari esateko: *Adriana! Esaion hire gizon koxkor horri hilerrria hobeto zaintzeko, denak aidean jabilzen eta.*

Batzuk hilaren garunak mihizkatzen bezala makurtzen ziren elkarrengana; beste batzuek garrasi egiten zuten, hilaren hezur irentsiak diafragman pitzatu

balitzaizkie bezala, artean hila nor zen ez zekitela. Inork ez baitaki heriotzari nola aurre egin. Onena ahanztea litzateke, baina ez dizute uzten. Heriotzak ez nau kezkatzen, hiletetara joan beharrak baizik. Elkarte eta erakunde guztietatik ezabatzen ari naiz, zerbaiteango kidezak haien hiletara huts egitea eragotz ez diezadan. Banago inork ezagutzen ez nauen laterrira exilatzeko ere.

– *Hilagandik ihesi ala?*

– *Hilek ez nabe larritzen; eurekin lo egiten dot. Biziakandik noa ihesi, euren aurpegi-
giko simulazino hilkorra ez ikustearren.*

– *Gustatuko al litxakik heure hilotzari inork ez laguntzea?*

– *Orain gustetan ez jatanari apenas hildakoan gusturik hartuko deutsadan.*

Maite dut heriotzaz pentsatzea, ez hainbeste hartaz mintzatzea. Pentsatzean, neure baitan daurkit. Mintzatzean, zure aurpegian dakust, eta ikusteak aztoratu egiten nau.

– *Etorriko jak, ba!*

– *Ez da neure meritua izango*

– *Inoiz desiatu be egin dok.*

– *Bizien pribilegio bat dastatzeagaitik.*

– *Ala desioa kemen bihurtzeko ezgaitasunagaitik?*

– *Etorriko da gaitasun hori be, berez-berez. Nire kolaborazinoa behar badau, bildur naz
kemen barik hilko ez ete nazen.*

Zerraldo mozkortu arte ekin genion Heriori. Seneratu ginenean, nire solaskidea beragaz joan zen. Hilerrria miragarri iruditzen zitzaidan. Mundu handian kabitu ezinik ibilitako herri osoek hain eremu txikian bakez-bakez elkar hartzen zuten; bisitarik ez zetorkieno, sasiak janda ere ez zien ardura. Barruti airosoak, biziak hilen lepotik dibertitzeko eginak, 'Marmolistas Derio', 'erreipe' (R.I.P.), *erre hik be... sasoi ederrean! Aita gurea... Nigaitik, dantzaidak charlestona gainean; arimak ez deua pausorik erratuko.* Hain dira graziosoak hilak, barbaroak, maitagarriak, akats guztiez gabetuak. Eskatu gabeko loreak eramanda ere, ez dira haserretzen, ez geroago kexatzen: *Eh! Loreok zimeldu dira. Ekarri barriak.* Haiek euren dabilta. Beharbada zeure ohiari errezatzen ari

zara, eta bera alboko panteoian dago, zu harekin infidel izan zinenagaz kartetan. Edo egunkaria irakurtzen. Gure osaba batek ilusio itzela zeukan lurperako, egun guztia paperak irakurtzen egiteko, betaurrekoak jantzita. Hark uste zuen betaurrekoek maila sozial baten jasotasuna adierazten zutela, irakurgaiei ez zeukaten garrantzia eransten zieten. *Hau be joan dok!*, esaten zuen, bizi zela, eskelei begira. Asebetetzen zuen norbaitena bazekusen, gehiago ez zuen irakurriko, ezta kirolik ere. Orain imaginatzen dut esango duela:

- *Hi be bahator? Eutsoz betaurrekoak. Higuindu nok betibat-betibat honegaz.*
- *Apur baterako badaukazu, orduan, betiko hori egia bada.*
- *Ez dok hainbestera; deshiguintzeko astia emoten jok.*
- *Hasi baino ez gara egin, eh!*
- *Horixe jaukak eternitateak ederrena; beti hasten gagozela.*
- *Horrela ikusiz gero!*
- *Seguru, ba! Betaurrekoak zertarako zirela uste heuen?*

Hil baten alboan, egin beharrekoak egin ondoko maitale lokartuaren kontran bezain lasai egon zintezke, baita biren erdian ere, pizten ez direno. *Lo zagoz?* Ni beldurtzen nauena deskonposizioa da. Horixe ezingo nuke jasan, ezta biziengan ere. Hilkutxak ere graziosoak dira, bel-beltzak, txokolatezkoak, franbuesazkoak, banillazkoak, barruan gizon alegre bat daramatela, *baina ño!, oraingoan apenas dagoen ondoegi, tabernan sartu barik elizara zuzen joateko*. Etxe etsenplarretan, ardurak erdirakoan banatzeko entendimendua izaten dute: batzuek biziak zaintzen dituzte, besteek hilak, hain beharrezkoak eurok haientzat. Turbo potens, goazen hemendik, denak banan-banan agurtzen ibili barik, *preminarik daukien be ez jakiagu eta – Goiko bidetik ala behekotik?*

– *Ni, bizi nintzanean, beheko bidetik joaten nintzoan*. Andariek, izaturik, hilkutxari jaregin eta ihesari eman diote. Barrukoaren burua kraunk durditu da kutxaburu ertzaren kontra; hau krask apurtu da lurraren kontra, baina batzuk izutu direlako, bestea lasai itzul daiteke etxera, goiko bidetik badaezpada; eramaleen intentzioagatik, zipresen gerizpea ondu beharko zukeen. Azkenean, praka-istripu suntsun batetik jadetsi zuen heriotza definitiboa (*bestelakorik bajagok ala?*). Prakak erantzten hasi, inolako intentzio txar gabe, eta tubo bata ez zitzaion luzatzen, multzo geratzen baizik, korapilaturik bezala,

baina berak kurioso atera nahi, egunero plantxatuko balitu bezala. Prakak oinari jarraitzen, aurrera, atzera, hantxe ezetz eta baietz, geroz indartsuago, *praka zoro bategaitik burua apurtuko ete joat?* Balantzada guztiak beste hankaren gainera zihoazen, ernegatu zen, setatu zen, ez zion prakari aurrekari kapritxosorik kontzeditu nahi, beste hanka ere nekatu zen berak eskatu gabeko numeroari eusten, eta, kabendios, azkenean praka garaile, garondoa ohadarraren kontra. *Ederra egin joat! – Egin dok, bai, andreak, astrapalara arineketan etorrita. Ekarri eizan artaziak! – Artaziak zertarako? – Artaziak ekartzeko esan deunat!* Praka zantarrak artaziekin kris-kras kris-kras zati-zati egin zituen, egingo zituzkeen, andreak, intentzioari igarrita, artaziok ekarri bai, baina eman ez egin ez balio. Gizona ohadarretik ohaburura altxatu zuten, denok dakigun ohorera. Kanpai bueltako hileta solidarioan (orduan kanpaia urrun iristen zen, hainbeste zarata ez zegoelako bainoago geroko belarriak asko alfertuko zirelako; ‘alferra’ piropo, ‘gorra’ irain), andrea ahalegindu zen senarraren galeraren nahigabea gehiago nabarmentzen prakak salbatu izanaren poza baino; biak batera zaila zen, prakan-prakan ez dagoela gizonik jota. Beraz, alargun guztiengan ere ez dago sentimendurik zertan egon.

Zahartzaroa, gaitz sendaezin progresibo hori, beti gazteekin ibilita ez da gutxiago zimeltzen, baina ez dizu behintzat bere existentzia aurreratzen. Orain, bakarrik gelditu naizenean, inguruan ez daukat giza gaztetasunik, baina ezta hiletetara joan beharrik ere. Horrek merezi du egintza txukun bat, lehen, bakar-lanera isolatzetik bueltan, ondo orrazturik itzultzen nintzenean bezala, eginkizun ondo betearen segurantzan. Larria larri izango da, baina pitilina pasilloan ateratzeak ez du egiten zirriztada ontzira lehenago heltzerik. Bat ez da konturatzen isurkiaren koloreaz, elurretan txiza egin arte; edo analisirako ontzitzoa erizainsaren eskuan jartzeko unera arte. Nola zitekeen, ereinotz tailandiarraren lorean sudurra lehenengoz sartu nuenean, usaina hain ezagun egin zekidan? Eztiaren unibertsaltasuna esango didazu, baina ez zen hain ebidentea, zeren ezti-jaleari ere begira nolako elaborazioa ateratzen zaion. Ez har zakartzat, edertasunak ondo hartzen baitu higuin puntu bat (sugea, erraiak, herensugea...), beldurraren proportzio aldakor bategaz nahastean, zeina sentimendurik barrukoena izanik, beragaz bilduta datorren edertasuna sakonago sartzen den, Van Goghen begiradetariko bat edo gu-

duzelaiko bota bakartia bezala. Higuinak edo beldurak bista alborarazten dizu, berbegirada bakoitzean gezia haragian barnagotzeko, harik eta, jarraian eusteko kemenera heldutakoan, ez begiratuta ere berdin zaizula sentitu arte, irudi inpresoa gogoan itsatsia baitaroazu. Konparazio brutal batera jorik, kao-kolpeak baino lesio sakonagoa utz dezake toki berean errepikatu den direkto arinagoak, agian konbatea irabazterik lortu ez duenak.

Aire tun txikitun, aire Tom! *Derioko marmolista gautegundarrrik inon agiri ez izateko, egia izan behar jok inor ez dagoela ez kanpoan ez barruan*, ni ez bainaiz inor, neu baino, gero nitasuna besteekiko kolisioa dela esan dezaten. *Egoera honek zer bat behintzat bajaukak ona, gehiago ez dodala pellokeriarik entzungo*. Kilometro batera, biribilgune batean sartu naiz, itzuli osoa egiteko baliatzen dudana; aurrera jo beharrean, Mungiarantz hartu dut, hemen, ehun metrora, seminariorantz hartuko ote dudan ezbaian. *Lehen be nahikoa denpora eginda ez hago hor?* – *Baina, Trum! Hilerrian izan barri haz. Harako urteerak hain pozgarri egiten heuazen seminarioari muzin egin behar al deusak?* Biribilguneak maitagarriak dira (beste itzuli bat gehiago), nahiz badiren batzuk, non sartzea errazago den irtetea baino, batez ere atzerritar hiriko norabide guztiak (hegoiparrak, eki-mendebalak, probintziako herriak, departamenduko hiriak, autopistaren aukera internazionalak, hondartzak, hiribarrua, golfa, aireportua...) eta azpinorabide ia guztiak (katedrala, udaletxea, gendarmeriak, ipar-hego-eki-mendebalekoak, maxidendak, minikiroldegiak, industriaguneak, XVI. mendeko monumentua, VII. mendeko aztarna gotikoa, Buda aurreko erromatarrek egin ezin izan zuten zubia, gero Napoleonek apurtu zuena, pizzerien kalea...) markatzen dituzten horietarikoan sartu bazara. Hainbeste letra eta geziren artean, zeurerik ezin duzu irakurri, eta sarrera bakarra izan den arren, irteerak dozena erdi baitira, eta irten zaitezkeen okerrekoa norabide bakarrekoa denez eta, beraz, hurrengo eurtera heltzeko, infernuko lekuraino joan beharko duzunez (bitartean beste biribilgune bat agertu eta han berriro oker hartu ez baduzu), segi biribilgunean itzulka, behin kolegiaren autobusak, behin oiloen kamioiak ikusten uzten ez dizun zeure irteerari erreparatu arte. *Ez joat urtengo, ba!* Halako batean ikusi duzu, baina ezin duzu eskuinera hartu, zu baino listoagoak ilara etengabea baitatoz albotik, intermitentea ahaztuta daroazulakoan; errotazioa blokeatzeko barrabilarik ez daukazunez, beste

itzuli bat gehiago. Ez da ezer gertatzen, harik eta norbaiten, ruedoan sartzeko burua amorruez atera duenaren (bere aurretik hirugarrenez pasatzen zarela ikusi du), orroak entzun dituzun arte: *Eh!! Ruletan habilela uste dok ala?* Zeuk ere alukeriaz: *Itzi urtetan, sartu aurretik!* Hurrengo itzulirako, hura ere sartu da edo irten da nonbait, eta zu, azkenean, *Sorter Biltegiak* (hizkuntza originalean nola zen ez zara gogoratzen) seinalatzen duen alderantz irten zara; han eurt egiteko tokia egongo zelakoan, berriro biribilgunean sartu zara; nondik irten ondo begiratzen saiatu arren, esperientzia ez errepikatzekeo segurantzarik ez daukazu. Egia izango da ruletan nabilela.

Hori guztia ongintza sozialean sartzen da, ongizatean ere bai, halako zentzuan non talentu apur bat daukanak gozatu egiten baitu zure errakuntza agerian, nahiz eta bera, beharbada, bizi guztiko lanetik datorren, bizirik iritsiko ez den erretiro mardula kobratzearren, edo lanari iheska doan, buruhauste amaigabeen bila; baina zu ruletako bola gisan imaginatzen zaituelarik (ahalmen metafisikoa behar da gero, bat apartatzearren, halako uhol mekanizatutik abstrahitzeko), nagusi sentitzen da; matrikula arrotza ikusi dizu, gainera, pentsatuz: *Hori be izango dok iretargi beteaz beste biribilik ikusi ez dauenen bat, bera be hilbeheran.* Gehienentzat, ostera, zure errakuntzak euren ernegu ahalmenaz jabetzeko balio du; hori ere oso ongarri, ongizangarri da, konturatu gabeko erneguak ez baitu ezertarako balio. Besterik ezean, bare baino kontserbadoreago direnen artean, lehia askatzailea abiarazi duzu, nork txorigorri handiagoei jaregin, gero nabarrei, azkenean beltzenei. *San Zilindriori promesaren bat eginda ala? – Bolantea blokeatu jat! – Kabendioskurokaltziko! Urtengo dok hortik, potrozorri horrek?,* marea guztiaren ekoizlea zeu baizinan (*'zorri' ala 'zorro' esan jok?*) – *Sartu hadi heu, gauza bahaz, zorripotro hori!* (*izorrai, hori kaltzikoa baino mingarriagoa dok*).

Aupa, Trum! Majo gabilzak, baina mareatu egin behar joat, nonorantz urtetan ez badok. Seminario inguruak argiztaturik daude, baita leiho handiak ere han-hemen, goren solairuko hotelekoak eta izarrak barne; galdua dut argien atzean inor egon daitekeen ilusioa. Autoak ere ia hutsune gabeko ilaretan daude, bueltara arte uzteko lekurik onena berau zela pentsaturik joan balira bezala. Hor konpon, ni ez naiz barrura sartuko. Nahiago dut

hartzarena, zeinak, bere bakar-bidean etxe bat aurkitzen duenean, habitatua zein abandonatua, astiro-astiro inguratuko duen, usnatzeak axola ez bailion; noizbehinka koskak atzaparrarekin haztatuz, kamerari begiratzen dio, munduaren hasieratik bere burua hortxe ikusten ohiturik bezala. Leiho bat adiago usnatzen du, mihizkatzeko plantan, beharbada zartagin garbituak bertan uzten dituztena, zituztena; ez dirudi inor bizi denik, argia ageri bada ere, beste aldeko etxearena, segurrenik. Hartzaren beso handiegarrren kurbatuak, ilaje apatzez, laztankorrez leunduak, leihoz leiho aitzinatzen dira, gorputz osoaren lentotasun uniformeki konbinatua kristalei opatuz.

- Zertan habil, harzko?
- Ikusmiran.
- Ala janmiran?
- Izokinei urgoran laguntzetik nator.
- Ez al dok barrura sartu gura?
- Zertara?
- Neu jatera.
- Horreekin praka zaharrokin?
- Erantziko joadaz.
- Ikusi-makusi?
- Makusi bakarrik.
- Orduan ez erantzi prakarik.
- Hartzarra ala hartzemea haz?
- Umeek ama deitzen jeustek.
- No! Oker ari nintzonan, orduan.
- Lagunduko deuat zuzenketan.
- Zer ikusi gura don?
- Etxe hutsak usnatzea maite joat. Leku onik aurkitu ezin daben biziliarrek samurtu egiten najabek. Etorri, egon, joan. Artistak.
- Leku hobea aurkituko jeuenan.
- Jakina! Hona be ez zoazen leku hobetzakotik etorriko.
- Ni ez non, ba, inora joan. Bakarrik gelditu non.
- Orduan ez daukak inora joan beharrik.

- *Baina aireporturaino arrapaladan etorri non, hilerria zeharkatu jonat, eta oraintxe be begira non nagoen, ezorduotan.*
- *Ez dirudik horren desesperaturik.*
- *Baten batek jan naien estimatuko neuken.*
- *Nik hi janda, etorri egingo direla uste dok?*
- *Ez, baina badaezpada.*
- *Beste era batera ezin geinkek aprobatu? Behin jana izanez gero, badakik zer datorren.*
- *Hi urrun bizi haz, ni haraino joateko, eta hau be ez don hiretzako parajea.*
- *Bide erdi egingo joagu.*
- *Hi Alaskatik eta ni hemendik, bide erdia ez don osoa baino samurragoa izango.*
- *Astia sobra jagok. Lehenengo hik niri lagunduko deustak bide erdian, eta gero nik hiri. Edo alderantziz, gurago badok, estura handiagoan heu hagoela jirudik eta.*
- *Ez najagon esturan, baina bakarrik geratu nazenez gero...*
- *Zer?*
- *Beti izan non hartzemearen nostalgikoa, neure maitemina hire izeneko izarrei eskaintzeraino. Gainera hi, ez guztiz zuri, ez guztiz gaztaina...*
- *Aproba bat egitea ez dok ezer kostatzen.*
- *Eta gero, hartzarra datorrenean?*
- *Hori urtean egun batzuetan baino ez dok izaten.*
- *Baina heuretzat be urtean egun batzuk bakarrik izango dozan.*
- *Hori be konpondu geinkek.*
- *Zelan?*
- *Gauza horreek konpontzen diren moduan. Oiloekin ez zinien ibiltzen?*
- *Oiloa puta samarra don.*
- *Eta oilarra txulo perfektua?*
- *Baina kantuan artista. Zelako kurba melodikoa ateratzen dauen pavarottiak!*
- *Eta zelako orduetan!*
- *Holakorik! Plan zoragarriegia begitantzen jatan, egiazko gertatzeko.*
- *Zoragarriegia delako, albo egin behar al deutsak, hagoen egoeran egonda?*
- *Heuretzat be apur bat gozatsua izan beharko leuken.*
- *Oh! Hartzok bajakiagu gozetan, beste kontsideroei begiratzeke.*
- *Eta gero, onenean, kapaz haz neu bertan jateko, armiarma hedonista horreetariko batzuek egiten dabenez.*

- *Lehen jateko eskatu deustak, orain jan haidan bildur haz. Ez dok izokin bat balio.*
- *Badakin irritsen eta bildurren kontrakarra giza dohain bat dela.*
- *Niri ez ipuin txotxolorik ekarri, zuek baino askoz lehenagotik gabilzak munduan eta.*
- *Zergaitik ez haz barrura sartzen, solas promeskor honi nasaiago ekiteko?*
- *Eta mahai gainean dakusdan rifle hori?*
- *Ez jaukan balarik. Bakartasunik inpotenteenean itzi najaben.*
- *Botaik arma hori ibaira. Hori dok eta! Orain... gabon!*

Hartza, etxe-bira osoa amaiturik, etorritako bidetik urrundu da, goragoko mehatxuen inkonsistentziarekiko irrixuri azalean, sakonagoko erruki-zoria ezkutatuz. Joko nion, ba! Baina zalantza gaindiarazi dit. Neuk ere horixe egingo dut, hartzaren arrazoi guztiz kontrakoengatik, segurrenik. Hark, etxe barruan bere umea hauteman izan balu, jan baino okerragoa egingo zidan, umea atera aurretik. Ni neure buruaren umea ikusiz noa, eta ez dut sartu nahi; inguratu bakarrik, irten ez dadin. Bebil bere sotanuetako gordelekuen pozean, bere elizako belaun-minetan, bere klaseetako logura inbentzibleetan, bere pikotako nahigabeetan, bere beldur prebentiboetan, bere estura gehienik ez berretsietan, bere laguntxoekiko ixil-mixil emankorretan, bere pasillo handietako pentsakizun susmaezinetan, bere ispiluko zeinu zein burlatiagoetan, bere oporretatik itzuleretako koko kontsolaezinetan, bere etxera-bezperetako zorion adimenaz gaindikoetan... Sartzen banaiz, ez dut ezer egiazkorik aurkituko. Pikupasen biltegian, fotokonposizio bat, sarrera nagusitik hegaleko sukalderaino, jantokia barne; abiazio subenpresen bulegoak; kapera nagusian, luxuzko jatetxea; organoa zegoen tokian, barra bat; beirate txit altuetan, gortinoi gerri-estuak, beirak mokor femeninoetan moldatuz; Gotzaingelan, Aldundiko semen-laboretegia; gimnasiako terraza azpian, hotel ikusgarria (izena ere *Andrea*, izorrai). Ai gimnasia, purutasunean gotortzeko arima-soinketa hura! Ariketa konplexuetan baino hotzaldi komunitarioetan zailtzenago gintuena, gosaria hozten, izozten zen bitartean.

Irrealitate horretan barnatzen banaiz, nire oroimen txit sentibera lokatu egingo da; ez du ulertuko zergatik bortxatzen dudan horrela. Gustatzen zait, noski, oroimena aproban jartzea, bere gaineko geruzetan patinatuz, sentsazio bortitzen ekitaldi moduan, gero berriro bizitza errealer, oroimenaren egitura jatorrizkora

itzultzeko, baina orain ez nago inkurtsio apurtzaile horietarako; bestela ere baidabil nahikoa agitazio nire baitan. Organoak bere tokian segi dezan behar dut; beirateak euren birgina-irudiekin behar ditut, fede eta guzti, masturbazio aha-
legin mistiko eta guzti; hantxe behar dut presbiterio erdizirkularreko aulkia, non gregorianisten koru txikikoa izatearen harrotasun kasik sentsualari (zer kasik, batzuetan gorputza plazerrean hezetzen bazen?) gehitzen zitzaion, aurrez eta lasai-lasai, biltasunik osoeneko espresioan, elizakada osoa ikusi ahal izatea, meza oraindik herrirantz bueltatzeko zegoela. (Jesukristoren azken afaria popa posizio hartara ekartzea otu zitzaionak bazuen berrikuntza sena, arrakastatsua gainera, ia bi milenio irensteko). Albora begiratzerik ez zeukaten komunitate gregario sufritunek, koruperaino inkrustatuek, ematen zidaten pena pozak eza-
batzen zuen, batez ere igandeko meza solemnera kanpotik etorri ohi zen komunitate laikoa jaunartzera hurreratzen zenean; hain berbertatik ikusteak irrikatzen ninduen aurpegi mundutar haiek, pinturetan ikusien antza hartzen ahalegintzen nintzen haiek, lau metrora belaunikatuko ziren, begiratzen zizuten, zenien, neska ugari tartean; banan-banan erreparatzeko astirik eman gabe joango ziren. Zorionaren kukuak. Inoiz, debozio puruzko aurpegikera bat, introbertsio mistikoaren islapen, zeuganako irribarretzat hartzeko lizurkeria izan zenuen. Zeuk ez bestek inork ez zuen igarri.

Guarda-itzulian dihardut, hartaz ahazturik, astiro-astiro, ihespide posible guztiak itxiz, gomutagai horiek eta denak hantxe egon daitezen, bakoitza bere tokian eta besteekiko posizio jakinean, denen artean sentimen bakarra eta zatiezina osatuz (adjektibo beldurgarriak, beste ente bati aplikaturik), non denbora elementu esterno eta arrotza den. Besteen aurpegiak, urtaroak, uholdeak, espezie galduak... ikusi izan ez banitu, hots, besteengandik defendatu behar ez izan banu, denboraren noziorik ere ez nuke, oroimenaren nukleoa, ni, aktu bakarra eta (adjektibo beldurgarria ez errepikatzearen) aktuala baita. Giza historia bat: *Hura da ni, ni naiz hura, bitarterik ez dago*. Giza historiari luzeena: *Lokartu zen eta ez zen itzartu*. Giza historia ilun samarra: *Ez zen ohartu itzartu zenik*.

Nik erabat ohartun izateko zortea daukat. Zorionik izatekotan, niaren kontzientziaren kontinuum horixe izan behar du, zeina gabe zoriona ipuin er-

gela litzatekeen. Nork esan behar zidan lau urte nituela, *hi nor haz?* galdetu zidatenean, artean neure burua izen-deiturekin identifikatzen ikasi gabe, *nor izango naz, ba? neu!* erantzun nueneko ni hura oraingo kontzientzian esperimentatzen dudan nitasun exaktoki berbera izango zenik, gizateria gabe gelditzeraino aldatu naizenean ere? Orduan jaiotzatik bezain orain heriotzatik hur naizen arren? Heriotzak bainoago haren kontzientziak beldurtzen nau, noizbait gertatuko baita unea, etxe aurretik dakusdan guztia sekula gehiago, sekula-sekula-sekula gehiago ezin ikustearen penaren penak joko nauena. Petralaldi batean hiltzea besterik ez dut eskatzen, edozein huskeriagatik erne-gatzen garen horietariko batean, non benetan ere ez didan ardura izaten bertan akabatzea. Horrela, heriotza kontzientea segurtatuko nuke (nitasunik biziena amorrazioa izaten da), eta, aldi berean, tristuraz ez hiltzea. 'Beretarrek inguraturik' eta abar esaten da, baina ez nuke nahi nitasunaren azken esperientziatik distrahitu nazaten; badut, beraz, beste arrazoi konbintzente bat, gertatzen ari denaz gehiago pozteko.

Goazen, Tom, hartza be joan dok eta. Itzi daigun umea bertan, bere etxerako pozo eternoan. Deriotik pasaeran, astirik izanez gero, beti egin ohi dudanez, seminarioaren atzetik aldenduko naiz, geure eskapaldi guztiak egiten genituen oste lagunkorretik, gaeuz gaur ere, bueltarako orduaren obligazio eta sarritan esturen kezkarik gabe. Erreka txiki kikileko zubitxoaz handik, Aldundiko abeltegiko aldasgora laburra igo eta libre. Gain honetantxe zegoen azken garita, espetxetiko ihes-ametsetan. Seminarioan, etxeaz, herriaz, munduaz, ametsak etengabe errepikatu arren, subkontziente zintzoegia (beldurtuegia, beharbada) ez zen ausartzen ihesik konsentitzen. Ahultasun harexen ordaina izan zitekeen gero, ihesaz beste burutapenik ez generabilen espetxean, saialdi guztiak beti inguru honetantxe kokatu beharra. Seminariotik ihes egin, espetxean itzartu. *Benoa, zeozer irabazi joagu.* Gu janguran eta Aldundiko zezenak zerguran puztuta zebiltzan gainaldeaz handiko erreka, bertatik seminarioan ez ikusteak askatasun usaina zemaionaren kontraraino sarturik (ibai guztiek Edendik ihes egitera jotzen bide dute), teknologia-parkea aurkitu dut, zeinaz abstrahitzen saiatzen naizen, neure oroimenaren aztarnategiak ez bortxatzen jarraitzeko, bestela ere nahikoa marroian sarturik bainabil. Hainbeste eraikin kristaltsuz, argitsuz, distiratsuz, kosta egiten zait behinolako bihurtu-

neak, neure pasealeku eta ihesbide originalak, oroimenetik begietara ekar-
tzea; gustatzen zait dema hori. Badira aldiak, non oroimena, tentu handiz,
atzeratu, ezkutatu bezala egiten den, ahots bat bidean utziz: *Ikus, begira lasai,*
nik atsedean hartu bitartean.

Eraikin ikusgarriak benetan, museo monumental bat osatzen bezala, des-
kribatzeko gauza ez banaiz ere. Izanda ere, zertarako, ikusita daukanaz bes-
tek ez bailuke irudikatuko? Hitz erdi batek bestearen oroimenean irudi bat
aktibatu du; hortik aurrera, azalpenik zehatzenek, ugarienek, ez dute lehen
inpakturik aldatuko, errakuntzaz ez bada. Esaten hasten banaiz, adibidez,
Guggenheima dela barku... izorratu diagu. Inoiz barkurik ikusi ez duenak,
edo entzunez edo marrazkiz bakarrik ikusi duenak, beti barkuan ibili denak
bezala, badu bere barku irudia; edo barkua beste zerbaitegaz asoziatu-
rrik dauka, goldeagaz, esaterako. Oso ideia ezberdinetan deslaitu ondoren (ba-
tzuek barkua itsas hegazkin hegamotoza dela uste dute), ikusiko dut inor ez
dela jabetu nik ikusarazi nahi nion Guggenheimaz; ikusia dutenak, berriz,
muzindu egingo dira: *Hori ez dok holan; zereko zera ez dok aitatu.* Edo hunkitu
gingo dira: *Hori dok berba gitxitan dena azaltzea* (beharbada, orrialde osoa da-
roa eta oraindik ez naiz iritsi Proustek jelsiaren hari baten deskribapenari
eman dion laurdenera), baina nik badakit nire hitzei euren barruko irudia
gainjartzeko espejismoak liluratu dituela; euren buruak alegia, ez nik. Eta zer-
gatik ez? Edozein hondar-montor ez da espejismoak sortzeko gai. Goza deza-
dan dakusdana, ulertzeko ahaleginean distrahitu gabe.

Nik uste nuen hormek harrizkoak-edo izan behar zutela, baina bai direla
exzitanteak kristalaren lineak, barruko inor transparentatzen ez dutenean, ar-
gitan hain dzistagarriak, ilunetan hain enigmatikoak. Harriak gauez lo dagi;
kristalak transformazio etengabea dihardu. *Dirua artista dok.* Neuk ere maite
dut dirua kopuru txikietan, zuk baino txikiagoetan. Petrolio putzutxo bat, bi-
zitzeko lain, eta erretiro soil bat, artxipelago ez frekuentatuegi batean. Zaku-
tik ematen dit, baina kapitalari ken diezaiokedan bakarra edertasunaren
atsegina bada (bai, bai, esan, nahi baduzu, 'eman diezaiokedan'; eman
gehiago oraindik, hobeto menpera zaitzan, bai, bai, eman, kendu... eta zer
axola dio hari?), ez naiz neure buruari harrika hasiko, baina dios!, oraintxe

harribiltza baten gainean banengo, a zer kristal hotsa, apurtzeko baino gogorrago egongo dira baina. Jaurti eta jaurti eta markarik ere ez. *Dirua artista dok, bai*. Eta zer? Beharbada, hariztiak atzea zaintzen eta iturriak alboa freskatzen dion horrako baserri afrodisiako horretan, etxeoandrea ratizida-infusio bat prestatzen ari da, antzinatik merezita daukan senarrarentzat. *Seintxo bat sabelean, beste bat besoan, gizona tabernan da uruna auzoan. Hiru ilinti ketsu suaren ondoan, harik datorrenean, hirurak lepoan*. Dirua doilorra bada, miseriak ez du askorik bikaintzen, kalte egiteko ahalmena mugatzea salbu, baina zertan ari naiz, denak joanak badira? Konpon bitez euren artean, *biba Rusia!*, handik ez dakit nora irten litekeen baina. Beharbada, aberatsak aberatsetara eta pobreak pobreetara banatu izango ziren (kasu horretan lehenengoez okerrago behar dute, aberats pobrerik gabea tristeago baita atrakatzaile desarmatua baino), zein bloketan nahasi ez zekitelako; inora ez mugitzea erabaki duen beste urliateria zalantzati hori jo gabe, neu barne. Hauek gutxiago interesatzen zaizkit; beraz, hobe dute eurak ere, ez ni barne, joanak izan daitezen, neurri gogorragoak hartzera behar nazaten baino lehenago.

Kristal bati keinu, besteari harri, eraikin orbel-gorriska baten aurrez aurkitzen naiz, non begirada eliptikoak eta buru kristalinoak bizi diren, edo dauztan, goian beude, baldin behean... Ospitale psikiatrikoa. *Hau geratzekoa dok. Egon hementxe, Tom; laster etorriko nok*. Ate birakaria, neuri gustatzen zaidana; zorotasun dosi bat denentzat. Ate honetatik irteteko gai dena sano dago. Etxera. Efikazia sendatzailea. Angelu ez denak zuzeneko lau dibisio dauzkan tornuan, bigarren biran noa. Arraro samar begiratzen didate. Ez dago astirik inori jaramon egiteko, nahikoa baitaukat atek zapaldu nahi dizkidan orpoak libratzen. Hirugarren biran dantzut: *Zer, txotxo? Tiobiboa delakoan ala? – Dios! Hemen sartzea erraza dok, baina urtetea!* Harritzen naiz nola besteak txak irteten diren, aulkitik salto egiten duen katua bezala. Kanporako urratsa non eman erabakitzerako, ate-orriak bidea itxia dit. Beste bira bat. Hemen ibili beharra dago, atek atzetik sakatzen baitu. Mareatzen ari naiz, zoratzen beharbada. *Ezin al da irabiagailu hau gelditu, neuk urten arte behintzat?* Erabaki azkarra behar da. *Hementxe! Noizbait be!!* Sartu naizen lekuan irten naizela uste dut, albo-alboka. Inor ez da arduratzen zer gertatu zaidan galdetzeko, zehar-muzinka pasatuz. Segurrenik pailazotzat hartu naute, baina hau zoroetxea da. Ez nago

ikaratuago, igogailutik irteteko atea irekitzean, hormagaz topo egin nuenean baino, artean, kutxa horietaz mesfidati, atean itsatsita igo ondoren. *Haor ba! Harrapatu najabek!* Horman plastoi hezeak, urdintzen hasiak. 0-ri ematea gogoratu eta atzera behera. Eskerrak! Hemen, zorionez, inork ez du bitartean hormarik jaso. Eskaileretatik gora tipi-tapa, laugarrenean txirrina jo dudanean, niretzat ardura handiko bisita batean, inork ez du ezer igarri, eta horixe da behinena. Erromaraino galdetu gabe joan zintezke, Lisboagaz erratu zarela erakutsi gabe. Jaistea igogailuan egin behar izan nuen, ez lasai, etxeakoandre bisitatuak hantxe sartu ninduelako. Behean berriro horma atean. *Ospera! Eta orain barriro gora?* Laugarrenera barik, bigarrenera emateko argitasuna izan nuen. Lehenengora ez badaezpada, oraindik ez dut 'badaezpada' horren arrazoirik ulertu baina. Atzera tipi-tapa, eskaileretan behera, herriko kanpandorean eta seminarioan ederto egiten ikasia nuen moduan. Lisboan nago. *Izorrai! Inoiz ez dozue ezer jakingo.* Egunen batean deskubritu behar nuen igogailuko hormen misterioa, hain sinplea. Etxearen egitura zelebrenen bat, edo arkitektoaren baten futurismo arkaikoa bide, behe oineko sarrera eta solairuetakoa ez zeuden alde berean.

– *Horrelako igongailurik ez jagok!*– burla egin zidaten lagunek, pasadizoa konstatzen ausartu nintzenean.

– *Ezetz? Amesetan egin ete joat?*

– *Ezta! Amesak ezin jok ez den gauzarik asmatu.*

– *Edarra bota dok! Orduan nik zelan ames egin najoan txarrikume berbaldunena?*

– *Makerak berbetan jakin barik?*

– *Ezta kurrin esaten be.*

– *Umeeak berbetan jarraitzen jabek?*

– *Koño, itzartu nintzanean, ez!*

– *Ah!*

– *Ah, zer?*

– *Zer izango dok, ba? Makera, hi lokartu aurretik mutua bazen, gero ez jeukaan zertan berbetan hasi.*

– *Makera mutua? Itzik jatordu bat emon barik eta ikusiko dok.*

– *Heuk dinok dena. Hormarik bajegoan ala ez?*

– *Badakizue zer pentsatu dodan? Hormarik ez jegoan, amesik ez najoan egin, ez nok existitzen, hartu eizue tangatik!*

Zoroetxean ez ahal da inor egongo, esateko: *Koperniko be bajatork*. Ate birakarian nahi adina itzuli egin dudanean, ez denak batera, txanda librean bai-zik, sei eta arnasaldia, zazpi eta desmareatu, zortzi eta mareatu, eta horrela, nire buru multiplearen deribazio batenganako zor zahar bat ondo kitatutzat jo nezake. Oraintxe, beharbada, galdutzat zeuden kontu egingabe guztiak honelaxe garbituz joateko zoria izango dut, zeraren kasuan etorkizun infinitua daukadan.

– *Laun! Hor zagoz? Ala noizbait lortu dozu zeu be joatea?*

– *Joan nok, baina itzuli egingo nazela uste joat, denak neure atzetik jatozak eta. Honetarako, hobe najoan bertan geratu.*

– *Non zagoz?*

– *Ez jakiat. Hainbeste jente jagok, ezen lekuari ez jakok antzik hartzen.*

– *Ezer gura badozu, ni hemen nago.*

– *Zelan hi hor? Plana ez al zoan, ba, denok joatea?*

– *Niri inork ez deust ezer esan.*

– *Izorrai! Orduan, oraingoan be ez joagu lortu salbuespen bako araurik.*

– *Koperniko ikusi al dozu?*

– *Erizain-neskaz inguraturik najagok. Zurgatu egin gura deustela jirudik, baina nik gurago joat xiringada bat.*

Holleko baldosa noizbait koloretsuek marguldu dirudite, oinetakoak desnora luzean tarrastu bailiran; ez dut uste horrena denik zorotasunaren espazioak tristura griskara bat gabe nik zapaldu ezin izatea, neu zoratzea hainbeste aldiz benetan desiratu ondoren; ez erdizka zoratzea, kontrako bandazoen bidegurutze affliktiboetan higitzeko, osorik baizik, gutxienez bi eskaileraren exigentzia minimotik ez amore emateko lain, bata igotzeko, beste jaisteko. Hau ez da zoro osoen egoitza izango, eskailera bakarra ageri baita erdian, petril gabeko dorrerantz daroana, behean, bi alboetara, norabide bakarreko pasilloa barrualde ezkuturantz galdu ondoren.

Ez naiz jarraitzen ausartzen. Beharbada, beste salbuespen baten aurkikuntzaz, arautasuneranzko zirrituren bat ikusi nahiak baino areago, zoro-min latenteak sarrarazi izango ninduen hemen, baina, gero, zorotasunaren inkarnazioari berari begiratzea kosta egiten zait, zalantza kezkarri horregatik, zeinaren arabera ez baitakit berak kanpotik begiratzen didan ala neure barrutik begiratzen duen, gorroto puntuan. Hortik etor dakidake, zoratzekotan, progresioaren une intzertuetara arriskatu gabe (honako pentsakizunak zorotasunaren abiakeraren seinale ez badira, beste zer batzuetan probatua bainago, pentsatzen-pentsatzen, azkenean berak harrapatzea zer den), tanpeztan eta osorik zoratu nahi izatea, inorengan beldurtzen nauen irudia neure buruagan ez errekonozitzeko moduan; edo ispilura begiratzen jarraitzeko suposamenean (ez nuke ilea orrazteko gozamenik galdu nahi), hango irudia bekaitz nauen norbait errendiezina dela segur egoteko moduan, horregatik inolako pertsekuzio-maniaren kontzientziarik izan gabe. Nahikoa nuke, segurtasun minimoki zentzudunean bizi izateko, denak anormalak direla pentsatzeko moduko diferentzia bat besteengan atzemateko gai izatea. Badirudi inor aurkitzeko probabilitatea ere amaituz doala, zeraren kasuan zoratzekak jada ez lukeen zentzurik.

Desirak ez nau engainatzen, menpera nazan uzten badiot ere, larritasun estremoan inbertiturik zela ohartu nintzenetik. Kakalarria gaixotasuntzat daukanak erraz du larriago aurkitzea, pare bat ordutan eusten badio. *Hau urgentzietakoa dok! Ospitaleko lehen datu-hartzean: Zer duzu, gizon? – Kakalarria. Itzela! – Eta zergatik ez duzu egin? – Egin dut, baina larriak ez dit alde egiten – Horixe gauza arraroa! Kasu bakoitzik iristen da ospitaletara! Desira itsua bada, ilusioak ez dio emaitzari begiratzen; hots, ez du beharrik ere emaitzaren. Zortedun jaiotzea deritzo horri. Hain da zaila lasai egotea! Gerrara oldartzea baino zailagoa, antza. Baretu nintzen apur bat, sentrazioen oinarria ontologian bilatu nuenean, ohartu arte ontologia sentrazio bat gehiago zela. Abian berriz ere, etorkizunaren harrapari, aurreikuspenak edo iragarpenak gertaera destamainatuko ez balu; edo handitzen duzu, ez dadin gerta prekauzioak funsgabeak izan zirela, edo txikitzen, geroko minimo onargarriak zorion sentrazioa eman ahal dezan. Neurri errealean datorren bakarra ezustea da, bera ere osoaren faktore alteratzailea ez balitz. Ez dakit gertaerak baduen ere neu-*

rri objektiborik. Balu, nik atzematekoa ez denez, ez daukala suposatuko dut, beti obligazio pendiente baten zamapean bizitzetik libratzeko. Errealitatea ez da ikuspegiarentzako motiboa besterik; bere lehengai. Pentsatzen jarritz gero, ezer ez da posible eta dena gertatzen da. Etxe-orratzen artean oilar kantua entzuteak pleistozenora itzuli nau. Ez dakit zergatik, pleistozenoa oso aro jostaria, alegrea iruditzen zait. Kostata baina, hura ere amaitu baitzen!

Eup! Inor bizi da hemen? Borondate faltagatik ez bedi gera behintzat. Oihartzunak, hutsune totaletik eta totaliki entzerratutik bueltan datozen horietarikoak, zoro begiradaren kezkarritasuna zertan zetzan ulertu guran nenbileneko bertsio ozena eman dit, gorputzikara intermitenteak eraginez. *To! Inor ezak ikaratzen bahau, ona hago baten bat datorrenerako. Eeeeup! Inork ez al dau bistara urten gura? Berton itziko zaituet gero! Ez pentsa barriro hona etortzen ibiliko nazenik, nik, nik, nik... (hik, hik, hik zer, pitilinari heldu barik txiza egiteko be ez hazen horrek?) Ez zariela inogaz fidatzen, tzen, tzen, tzen?... (Hona berton nire lehenengo errima metodoa, "zuek beti zabilze tzen da tzen da tzen"). Inor be ez, be ez, bez, bz, zzz?... Nagoen kinkan, oihartzunaren erreakzio ezberdinak esperimentatzen jarduteak fribolitate handiegia lirudike, hain polita ez balitz oihartzuna hizketan askatzen hasia den haurtxoa bezalakoa dela probatzea. Hitz solteetan edo esaldi labur-laburretan, tira, baina, apur bat luzatuz gero, mihipea iraulkatzen zaio, amaren biraketarik imitatu ezin duen krokodilokumeari bezala. *Esan astoa. 'Atoa'. Esan astotxoa. 'Atotoa'. Astoak arrantza. 'Atoalanda'. Astoak arrantza egiten dau. 'Atoalalilu'. Hortik gora ez dago solasik, ez haurragaz, ez oihartzunagaz, naturak efektu berezietarako prestatu duen parajea ez bada.**

Oker nabilela uste dut. Gaitasunak zergatik izan behar du parajearena, eta ez oihartzunarena berarena? Zientzialariak hor ari ziren, txunditurik, txorien kantua, ohiko biziraupen edo selekzio funtzioetarako adierazpenaz gainera, estetika soila ere izan zitekeela egiaztatu nahirik. Hara non, kanta berriak ikasteko ez ezik, inprobisatzeko ere gai zirela aurkitu zuten. Banengoen, bada, txoriek ezin zutela, premiagatik bakarrik, hainbeste ordu kantuan eman, hain kantu ederrean gainera, non eta kaiolan. *Txoria kantari jaio, mendiak eskatzen dio, kaiola ere kantatzekoa iruditzen zaio. Kantua dela medio, penak arintzen zaizkio.*

Gure kaiolak kantatzeko ere ez al du balio? Penak arintzeko kantatzen, pintatzen, idazten duenari ez al zaio artista esaten? Badakigu artista ez dabilela penak arintzearen bakarrik, baina, horiena kenduz gero, zenbat geratuko ote litza-teke arte unibertsaletik? Beharbada, ez txorien artetik adina. Hauei igarri egi-ten zaie estetika puruan dabiltzala; gozatzen ari dira, eta ni eurekin, urte guztian doan kantatzen baitidate bariazio guztiekin, udan gereziak heldu ahala jaten utzi truke. Natur harmoniaren garaipen absolutua da gerezion-doak landa nitzan, gero ale guriak eman zitzaten, gero haiek txoriak jan zitza-ten, gero hain arte sublimea sor zezaten, gero musikari jenial guztiak imitatzen saia zitezen.

Txorien liluran lantatu naizena ez zen, hala ere, oihartzunari sarrera ema-teko aitzakia besterik, susmoa baitaukat sorburu ozen baten espantsiotzat zeukaten oihartzunak, une batetik aurrera, bere ibilbide propioa egiten duela, subjektu independente bihurtu bailitzan. Bailitzan ez. Bihurturik! Oihartzu-nak doinua eta erritmoa transformatzen zituena banekien, baina nola liteke nik kantatuari hark tonalitatea aldatzea, maiz egiaztatu dudan moduan? Hori guztia ez da ezer, aspaldion darabildan beste susmo intriganteago baten al-dean, uste baitut oihartzunak inprobisatzen ere badakiela, asiar zozo kan-tuontzi horrek bezala, zeinak isats koloretsuagaz gorputz osoa aterki ikusgarrian estaliz, uzkia eta zangoak bakarrik bistan, melodiarik pentsagai-zenak asmatzen dituen, naturari burua ezkutatz bezala, haren aurreikus-pen guztiak gainditzen ari delako arduraz. Egiazkoa dela ez baneki, fantastikoa dela esango nukeen txori horrek bere kantuaren oihartzuna estu-diatzetik garatu duela uste dut bere artea. Txorien misterioa argitua da, baina oihartzuna airean gelditu zaigu. Zaigu, zai...gu...gu... Ez dakit gutasun hori betiko joana ez den. Alferrik da fenomenorik apartenak, harrigarrienak irents nintzan. Egoerarik sinpleenean utzi naute. Bakarrik nago. Nor inpresionatu-rik ez bada, ikusgarritasuna amaitua da. Nik ezin dut neuretzat espektakula-rra izan.

- *Gure izatea amaitu dok.*
- *Izatea amaituta zer irabazten joagu?*
- *Geugan balego legez?*

- *Amaituko dok berez!*
- *Aurrera orduan?*
- *Edo albora. Bakarrik bagagoz, edozer dok aurrera.*
- *Geldi egotea barne?*
- *Bardin-bardin.*
- *Aurrera, beraz?*
- *Ni bai behintzat.*
- *Neu be bai orduan. Orain ez jakuk banatzerik komeni.*

Zenbat eta, inertziaz, emozio bortitzagoak pilatu, hainbat absurdoago naiz. Zer zentzu dauka neure buruarentzat bero nadin?

- *Lagunzaharra! Hemen inor agertzeko dagoen itxuragaitik, hasi heinteko hozten.*
- *Urrunaren urrunez, izoztuta gelditu zen izar bakartia legez?*
- *Hainbeste be ez, jode! Hotz puntu jasangarri bat.*
- *Urruntasunaz ari nintzoan.*
- *Oh! Urruntasun kontuan, gurea kasu latzagoa dok. Zientzialari eskrupulosoek zi-noenez, planeta honetatik kanpora bizi adimendunik ezin bada suposatu, unibertso guztian bakarrik gagozek.*
- *Igarriko geunkek alderik unibertsoan bakarrik egotetik planetan egotera?*
- *Horrela hasiz gero, planetatik kontinentera be ez.*
- *Zehaztu eizak, orduan, distantziok hobeto, ze uste joat Euskal Herriaren mugetara be ez garela helduko.*
- *Mentalki, arraioa! Ezingo joagu, bakarrik geratu garelako, adimena mozten hasi.*
- *Unibertsoari buruz, gizateria oso batek be zenbat gehiago abarka leikek adimen bakarrak baino?*
- *Laster jakingo joagu. Orain, behintzat, zoroetxean gagozek.*

Sartuko naiz? Ez naiz? Azkenean, ezezko arrazoiek euren posizioa loka ikustean atera ohi duten azken argudioa (ez-ausardia) izango ote da erabakitzaile? Gutxitan gertatzen baitzait baiezko arrazoiek, egoera berdintsuan, ausardiari dei egitea; hau, datorrenean, bakarrik eta papar-zabal agertu ohi da, segurantza-eskolta pintxo-janean utzita. Ez dakit hemen jarraitzeak hustubidearen beldurra sartu didalako ala bat-batean etxe-gogoak jo nauelako (be-

harbada hantxe egongo dira, denak neure zain, arduraturik), behintzat, ate birakarian hiru bira oso eta propinazko erdi bat eginik (zergatik ez osoa?), gustura erori naiz Cruiserrera, ate-zabal itxaron didana bera, mendia igerian korritzetik bezain indar-hustua neu.

– *Goazen etxera, Tom. Hemen ez jagok inor. Inor ez jagok inon!*

– *Inor inon ez badago, zergaitik etxera?*

– *Hik be eritzi-emoile hasi behar dok?*

– *Todoterrenoa naz!*

– *Edarto! Segi izaten, baina ez eidak eskatu sentimendu guztiak kolpera desmuntatzerik.*

Cruiser flamantea garajejan sartzen ari dela, ezin dut ekidin besteengan sarri penatu nauen superioritatezko aura bat sentitzea, ibilgailu ostua izanaren konplexurik ezari esleitzen ahalegindu naizena, ergelegia bailitzateke inor ezaren aurrean harrotzea; kontrakoa ere apenas balentriatzat jo daitekeen, baina, gutxienez, lapurreta, ahal dela, inor ez dagoela burutzen saiaten zara. Argiari eman diot eta, joño, klik-klak, klik-klak... falta! *Linterna non dok, Tom? Orain ez al daukak berbetarako gogorik? Izorra hadi! Ez joat hire laguntasunik behar giltza sartzeko. Giltzak aise aurkitu du, ilunetan, etxe barruranzko atearen zuloa, lehen ere sarritan bezala, argi eta guzti ere, bistaz baino taktuz gehiago fidatzeko moduan nentorrean. Haztamuka, lehen ere batzuetan bezala, bazterrik jo gabe ez abantzatzeko moduan nentorrean, despentsako apal jakinean zegoen linterna bigarren kolpean aurkitu dut; lehenengoan, plastiko fin-finez baturiko letxua-buru guriari heltzean, eskuak tzart atzera egin du, katu larrutua zelakoan, edo zaldi-fetoa, edo garun-boltsa bat, edo txerriaren 'jaungoikoa', odoloste artean heretikoki etorria. Klik-klak, klik-klak, behera klak, gora klik, denei klik-klak. Interruptoreak ondo daude. *Asko dok, ba! Argindarra be joan dok, antza.* Fenomenoa aurrera doan seinale. Linternaren argia indartsua da. Hozkailuaren atea ireki dut, bete-beterik dago, ez dut ezer hartu, zertarako ireki dut? Beharbada, sarritan sumatu dudana senagatik izango da, zeinaren arabera aurrez ezin dudana aterik itxita ikusi, eta atzez ezin zabalik jasan; hots, atez hemendik, gogoak irekitzeko eskatzen dit; atez handik, ixteko. Non dago atea? 'Non nago ni' baino galdera zentralagoa.*

Sukaldera itzuleran, linternak arrainontzi borobila entzimerara gainean argiztatu du, edo kristalean distadak egin ditu. Barruan arraintxo gorria dabil, lagunak hiltzean, tristurak hilko zuela pentsatu genuena. Bakartasunak bizi luzea ekarri dio. Elkarbizitza higagarri ote da? Ez du hil nahi, jaten ematea ahaztuta ere, zera ez zen mehatz gertatzen, umea arduratzen zenean. *Neuk zainduko dot! Neuk zainduko dot!* Noiztik noiz esan behar ze! Linterna ontziaren irekiduratik enfokatu dudanean, aztoratu egin dela eman dit. Ontzian jai, ontzian hazi, ontzian mimatua izan arren, oroimen genetikoak arrantzale artisaua gogorarazi bide dio. *Entre las angulitas hay un pez gordo, arrimamos el farol, es un...* Ontziaren kanpotik argi eginik, erraldoitu egiten da, iluntasun ambientalaren efektua ez bada. Beharbada, eguzkia itsas hondotik irteten iruditzen zaio. Nondik irteten da, bada? Segurrenik, bost axola dio bere untzitxotik kanpora zer gertatzen edo pentsatzen den. Hatz punta bat alpiste uretara bota dut, eta bere ahotxo itxi-irekika azaleratzen da, mutikotan txorikumeek egiten zidaten moduan. Arraina ahotik hiltzen bada, nondik bizi ote da? Ahoa irekitzeko modua unibertsala da, antza, bizitzeko nahiz hiltzeko. Ixtekoa ere bai, hozka egiteko denean. Inork ez du alborantz edo zabalerantz hozka egiten, natura inprebisiblea zela baina. Ez ozenegi esan, izango baita salbuespenik. Dali ez zen bibote hura asmatzeko bezain originala, piztiaren bati ikusi izan ez balio. Aurrerantzean, neuk zaindu beharko dut, itsasoa urrun dago eta. *Ni ur gezakoa naz! – Ah, bai?* Ezingo dut etxe ondoko erre kara bota, tenperatura, harrapariak... *hik ez dakin (dakik?) ur-lasterrean ibiltzen, hain gitxi jana topetan.* Egun oso batez ez luke iraungo. Eta zer, arrain bat gorabehera? *Lasai! Zainduko haut. Majo henganon bakarrik, baina neuk be zeregina beharko jonat.* Arazorik emango balu, jateko ez dateke inoiz berandu, bi arraultzatxoren erdian. *Ez don tokirik txarrena.*


Linternarik ez gastatzeko, kandela lodia badakit non dagoen; metxa laburra eta inguru zokondua, behinola (gaur ere hala izango) Txit Santuarena bezalakoa. Modak liturgia erligiosotik mundutarrera eta alderantziz dabilta, nonbait. Metxa motxak ez du surik hartu nahi, erpurua erre barik, *puta! gehiago ez non harrapatuko!* Mutiko potzoloa negar baten, eliza guztiaren aurrean, gakoagaz Pazko Zirioa itzaltzea ezin asmatu. Eskuagaz saiatu da, eta eskua bertan itsatsi, *gozoa izango dok, ba! – Kenduko al dok eskua hortik? Mu-*

gigaitz bera, hipnotizaturik bezala, baina negar, astoak bezala. Eskerrak monagilo-soinekoaren mahukak ez zuen surik hartu nahi izan, bestela bertan zen mirakulua, bata piztu, bestea akabatu. Badaezpada, kandela berri mehe eta metxa-luze bati heldu diot, apalean tartera batzuk endredatuz. Sukaldeko mahaian, botilan sarturik, elegantzia dominatzailea zabaltzen du, argia hobe to bantzeko ikasi genuen moduan: *Altza gora argi hori, arkondarari sua emon behar deustak eta!* Alkandora barrenak, pluralean, beti airean zebiltzan, suak harrapatuak izateko desiratzen, kanporatzeko baino zirtzilago zeudenak izan ezik. Metxa berri luzea bere neurrian iraunkortzeak argitasuna txikitu ahala, sukaldea handituz doa. Beste kandela bat isotuko dut, honelaxe, aurrekoagandik sua hartuz, su eternoa; nik ezin nuen imaginatu sutan eternalki erretzea zer izango zen, baina bai su hura mantentzeko egurketa zer izan zitekeen, hain gaitzi nuena bera, pinu-orriak eta zaskarak kokotean barrura. Jendeak sutan erretzeari erruki hartzen zion; beno, pena apur bat, kondentatuek mezezi ez zutena errespetatzearren. Hauengatik ezin zen sentimendu positiborik kontsentitu, Jainkoa ebidentzian utzi nahi ez bazen.

Bi kandelagaz, sukaldea ez da txikitu, bai gerizak bibidertu, zerak argitasuna gutxitzea eman beharko lukeen, baina ez da horrela ere. Zigarrotxo bat erretzeko une-unean nago, kandlek babesturiko hutsaltasunaren erromantizismo guztiagaz, bera erretzeko amorrugatik ez balitz. Eguerdian garbitu dudana mahaia zikin samar dago; neure erdi-mozkorrean desbistaturiko birrinak txoriek leihotik mokatatu izango zituzten, kristala zulatzerik lortu gabe. Markak utzi dituzte behintzat, neuganako eraso ez bazen, neu konturatzeko. *Beste apur bategaitik, segi zaskarok hortxe egoten.* Ogi-birrinak mahaian direla, ezin dut zigarrorik gustora erre; desbaitatu egiten naute, eurak golkotik behera jaustearen sentsazio txit molestoan. *Laster egingo joat, ba, zuena!* Sor-kia osoan astintzeko moduan heldu eta mahaia zipli-zapla jotzen dut, hilak hanka egin didan kirofanoa azotatuz bezala. *Bai garbiketa eroso, deskubritua izateko arriskurik ez denean,* hor doaz birrinak eta azalak horma kontraraino, handik zorura deskontzertaturik jausteko, *hor konpon, hegaz egin gura badozue be, beti garbitzen eta garbitzen!* Gehienez, jausi egiten dira, airea apur bat nahi ondoren. Zoruan ez ditut ikusten, baina badakit hortxe daudela. *Erratzagaz pasadatxo bat ez emoteagaitik, ez ete joat zigarro historiko hau trankil erreko?*

Niretzat zigarro guztiak dira historikoak, une hartan historia guztia huraxe erretzea baita. Garbitu egingo dut, ez bainaiz txerria ere, aspektu horretan animaliarik polifazetikoena bera; berdin zuk bera jan dezakezu, nola berak zu jan zaitzakeen, hil-buru egiten baduzu; derrigorrean, bizirik ere jango zaitu. Helduz batera, erratzak golf-teknika eskatu dit; inor ez dagoela-eta, orain denek nahi dituzte hemen kapritxo guztiak. *Tiron! Hori baino ez badon!* Kurioso-kurioso, potxirako azken batekada bezain emeki, zaskarak sukalde erdirantz pilatzen ditut, lainoa batzen ariz bezala. Montortxo zikina baina arina, erratzaren zirkinik txikienean berriro noiz zabalduko bera, geldi-geldi, otzan-otzan jartzea lortu dudanean, shhh!, utz nazazue kontzentratzen, golfeko lehen batekada dator, bsist! (a zer sustoa armarioak!) *Zer zela uste zenukeen enamoratzea? Batu-batu eginda elkar tapatzea?* Zikinak bazterrean egoten jakinez gero, garbitasuna egina da, areago kandela-argiokin zoruaren bereiztasuna ezabatu denean. *Garbituko zaituet, deprimituago nagoenean.* Zigarroa piztera noala, zoruan, txapa kontratik, Samsa bati erreparatu diot ertzari segika (*Gregor! Nora hoa?*), beste muturrean zerbait badagoela entzunik bezala; joan gabe ez dago jakiterik. Txapa, beltza; bera ere, bel-beltza. Laster azuleiu-tira batetik pasatu behar du; hortxe deskubrituko dute. *Hi martxan? Neu be bai orduan.* Saiatu nintzen Samsa soil bat zela pentsatzen, baina geroztik ezin dut Kafka sukaldetik atera. Ez uste konpainia gozoa denik, edukazioz hornitua izan arren. Kasik nahiago nuke neskame garesti bat.

Sukalde erdian saltoka dihardut (*nire zigarroa jagok ona!*), eragabeki, teknika ikasien alderantzizkoenean. Lohadar bakoitzak nahi duen alderantz tiratzen du, elkarrengandik apartatu ezinaz beste loturarik gabe; ez dakit zertarako, baina salto, mutikotan belarrez bete berri zen mandio astinean bezala; zoru azala metxa esplosiboen sare bihurtu balitz bezala; luzaroan eutsi diozun poz handiegia, bakartasunera iristean (*nire kasua ete dok?*), bere erara eztrandatzen zaizunean bezala. Orain opera apur bat, baritono ahotsez,



oooo... (eutsi) ooo... oaurrrr!!, txakur ernegatuak bezala, hortzak erakutsiz. Entzuleriak ez daki nola erreakzionatu. Bakarlaria izan beharrean, orkestra osoa izan liteke: Haëndelen *Aleluya, aleluya, aleluya...* (hurrengoa azkena) *Aleeeeluyyyy-aaaa* (tutti, eutsi)...*aaau!!* Sikuan moztua. Zuzendaria jakitun ez baze-
goen, likantropiara zuzen. Tronpeta-joleak apenas zekien ezer; aulkitik sifoiari
disparaturik jausi da mezzoen oinera.

Samsak, ilun bila, bere bazter-bide predeterminatuari derraion bitar-
tean, nire saltoak gangar bainoago badaezpadako dira, antza; kandelaren
gartxoek metxatik eskapatu guran dihardute. Berriro edan dudala uste dut.
Non dago orain desintoxikazioko teknika? Ez, bada! Ez dut edan, neuk
dakidala. Haurtxoaren gaurkotze bat izango da, non ur potxira txiza
egin eta gainean ikotika zoratzen ginen, txipli-txapla, txipli-txapla. Neu-
reaz ez naiz gogoratzen, baina besteak ikusiz gozaten nuenak (hori go-
goan dut) esan nahi du nire pozen gakoak (nahigabeenak hurrengoan)
oroimenare hartantxe daudela. Ez dut edan, baina eguerdian husturiko
botila harri ondoan dago, bere kortxo ondo sartu eta guzti. Ez dakit non-
dik datorkidan, mozkortutakoan, botila hutsak enkortatzeko grina. *Egin,
egin salto! Hik be nonon asaskatu behar dok, botilan geldi-geldi egon ondoren.* Zer
akzidental guztiak eginik, zigarroa substantzialki erretzeko moduan nago-
ela uste dut, ezkutuan erretzen hasi nintzenean bezala (nola hasiko nin-
tzen, bada?), bi kandelaren erdian. Kandela aparadore gainean dela, ohe
ertzean eseri naiz; kandelaren eta bere ispiluko irudiaren argitan (ispilu-
koa argiago dakust), kearen berezko eta neuk eragindako eboluzioetan ha-
luzinatzen naiz, amak ate zuloatik obserbatzen nauenik ohartu gabe. Ez
zuen nire zorionik apurto nahi, apurtoak berria (ondo kostata) eskatzen
zuelako legeagatik, edo, beharbada, bere pertsonan atsegin hartzeko zeu-
kan erresistentziak, berezko bainoago adkirituak, eragozten ziona bere
umeagan gozatzegatik; edo zelataren atseginagatik soilki. Ez zen, behin-
tzat, in fraganti harrapatzera aurreratzen, orain egin duen bezala. Sukal-
deko atea ireki da eta mahairantz dator, gorputz okertuxea oinak baino
aurrerago, hankei urrats bakoitzean *zatozte, enetxoak* esanez bezala. *Orain be
horretan? Bat be nahikoa ez dok?* –haserre egin dit ahulki, kandela bat itzaliz.
Beste gabe, mundu honetan egiteke utzi zuen zeregin bakarra bete bailuen,

ate itxiaz harantz ezkutatu da, oroitarazteko moduan ezen aterik ez dela alferrik zabalik eduki behar.

Hormako eguzki formako erlojuaren barreneko termometroak zenbat gradu markatzen duen irakurri ezinak ez nau eraman hain erraza nukeen argi handiagoa piztera, iluntasuna desegiteko penagatik baino ez gutxiago, ekstraktoreko argitxoa ez zapaltzeagatik, bera izan baitaiteke iluntasun ingurutzaille honen atsegin-guruin; bere xumetasun zurbilean, umetako kriseilu petrolioizkoaren erreplika elektrikoa. Beharbada, bi argi mota horiekin bizi izan ez denari asoziazio arbitrarioa lirudikeo, baina oroimen berean bizirautek gauzei eta gertaerei ezartzen dien elkarren antz nabariagatik ez ezik, kasu honetan, petrolio usaina salbu, eta kriseilua ahalik bistaren bezala, ekstraktoreko lanparatxoa ezkutuan egotetik aparte, bi argitasunen izaerak, iluntasunari azkura besterik ez dagoitenak, hain berdinak iruditzen zaizkit, ezen ezin dut ekidin, bere gogoz lehertu arte korritzen uzteaz beste ahalmenik ez daukadan presente ukiezinari, iraganaren koexistentzian, abantzaera paralelo laketagoa aurkitzen saiatzerik. Etxeko gela guztietako andereño ez ezik, zokondo guztien ezagutzaille zehea zen kriseilua, ezer aurkitu behar bazen, debekuak segurtatuko ez zituzkeen giltzapekoak barne, bera joango zen beti aurrelari; eta bera izango zen bakarra, guraso-umeen harreman goranzkoan nahiz senideen alboranzkoan, etxeko bakoitzak, oinez eskapatzen hasten zenetik, isil-zoko guztiak konfiatzen zizkiona, esaera bilakatzeraino: *Ez daurkienik kriseiluak, ez daurkike egun argiak.*

Orduan ulermenez bainoago senez praktikatzen nuenaren argibide ugari emango zidan gero bizitzak, hala nola, besteen begiaren beldurrez, Jesusengana gauez hurbildu zena; edo norbait arriskutsuagaz, ez beharbada beragatik, baizik geure izurrren bat ezkutatzeagatik (maitasun paralelo bat edo), gauez zitatzen garena; edo norbait ez hain maiteari egunez etortzea debekatzen dioguna: *Ez joat gura higaz ikusi naieen! – Ederto! Gehiago ez hau nigaz inork ikusiko.* Bertan garbitu ninduen. Kriseilua gauaren dohain estaltzaille horietaz guztietaz baliatzen zen, etxeko orojakile izateko, zeren, argiontzi bezala, pizten ala itzaltzen ari zen argi ez zegoen haren izaera zalanzkorra, haize-korronte mengel batek edo parera deskuidatzen zen

hasbeherapen xoil batek zeramakeena, argitasunaren bainoago iluntasunaren kontzientzia zela esango bainuke; kontzientzia bizidun ibiltaria, iluntasun maitekiro babeslea gehiegi zauritu gabe, etxearen barne-anatomia guztia korritzen zuena, berari esker bakarrik, nahiz eta doidoi, identifikatua izan zitekeen eskuan. Esku hori sarritan neurea zen, huraxe baitzen gure umetako lanetariko bat, lan gogaikarria, eskatzen zuen arretagatik. Ontzia tente-tente erabili behar zen, petroliorik ez jausteko, eskua luze samar, distrakzioan, behin baino sarriago gertatu ohi zenez, arrokek su har ez zezaten, aita esne-jezlea behiaren errapetik saltoan oldartu zenean bezala, *nora begira hago, mozolo hori, paparra sutan daukak eta?*, idiskoak azpian hartu banindu baino susto handiagoan. Batez ere, behar zen tokira argi egin behar zen, zeina ez baitzen beti niri tiratzen zidana izaten, hala nola, zomorro bati horman gora gar puntagaz jarraitzen nionean, edo ohol bitartetik agertzen zen txerri-mutur kurrinkariari hurbiltze-esperimentuak egiten nizkionean; inoiz ukitu eta gaineko oiloak izutzeko moduko irrintzak jaurtiarazi ere bai, bitzuen eskandaluak (txerri eta oilo) ukuiluko beste abereak aztoratzen zituela. *Ooo! Kaben San Apapusio! Zertan habil babo den ganino hori?*, deihadar egingo zuen ganadu artean bera ere arriskuan zebilen aitak, gero, abade nintzela, inongo santu-izendegitan aurkituko ez nuen martiri inofentsiboagaz birao eginez, nortasun jakinik eza bera ez bada aski martirio. Nik uste, berari Luzio zeritzenez, eta edonon kantuan hasteko nagirik ez zeukanez, askotan entzuna zuen eta entzutea hain maite zuen *Aupa, Luzio!*-ren egokitzapen ernegatua zela 'Apapusio' hura.

Edo hanka artean abarka-kordelei tiraka tematzen zen txakurkumea enfokatzen nuenean. *Argi egitera ala baztarrak endregatzera etorri zarie, txaramelok?* –hots egingo zuen aitak aska ertzetik edo behien adar artetik, txakurra ere ofizioan sartzeko adeian; agiraka egiteko ere ez zekien fantasiatik libratzen, honela errematatzeko: *Edukik argia patxadaz, mahaiPETIK ohera joan gura ez badok*. Oraingoan agindua neuretzakotzat hartu nuen, baina 'mahaipe' haren mehatxua (berandu zetorrena otordu gabe geldituko zela esan nahi zuena, batez ere denok ontzi beretik jaten genuenean) ez nekien afaldu gabe oheratzeagaz ala mahaipeko bernei erpeka ekingo zien txakurkumeagaz lotzekoa zen; une batez poz-ikara batek astindu ninduen, pentsatuz

ezen, beharbada, afaririk eza txakurkumeagaz oheratzen uzteagaz batera joango zela; hala izatekotan, ondo etorriak mahaipeak eta eurok lortzeko argi-egite dohatsuki okerrak. Oh felix culpa! *Felixek erru guztia*. Txakurkumeagaz oheratzen bestela ere ez nintzen beti gabetuko, nahiz eta biharamunean, lorratz oro ezabatzeko nire ahalegin ustez zehatzen eta esperientzian hobetuen barregarrirako, oheak egitera igotzean, berehala igarriko zion amagandik entzungo beharko nuen:

– *Bart nogaz lo egin dok?*

– *Inogaz be ez!*

– *Txakur-usain hau zelan etorri dok, ba?*

– *Sartu-urten bat baino ez da izan.*

– *Sartu-urtena? Eta bitartea?*

– *Bost minutu gehien be.*

– *Zelan dakik minutuen barri, etxeko erloju bakarra konpontzen bajagok?*

– *Seguru ordu erdirik ez zela izan.*

– *Hik ez dakik txakurrek ez dabela logeletara igon behar, ardiak eta uleak zabaltzera?*

– *Bera etorri zen ohean sartuta nengoela.*

– *Bai, eztok? Oraindino behiak oheratzen saiatuko haz hi!*

– *Itzi kortan lo egiten!*

– *Heu be katean?*

– *Bai, bai! Katea soka baino guriagoa da samarako.*

– *Judasek ez joan hori uste izan.*

– *Ni ez naz Judas, eh! –muxtuko nintzen buru-albo, Judasi nion benetako beldurra bide (Judas eta Barrabas ez nituen bereizten), amaren haserrea ongurantz birarazi guran.*

– *Ez haz, baina izango haz, txakurrekin lo egiten tematzen bahaz –baliatu nahi izan zuen amak ere Judasena, auzia ondorio praktiko egokietarantz bideratu guran.*

– *Txakurkumea ez da txakurra! –mindu nintzen oraingoan benetan.*

– *Judas be izango zolan judaskumea.*

– *Zeu umetan ama zinen ala?*

– *Tirok! Ekark pitxar bete ur iturritik, erdia bidean galdu barik.*

Buelta erdi eman eta alde egin zuen, haserretik ongurara igarotzea ageriegi gera ez zedin baino gehiago, irudimena nekatzeko gogorik edo ahalik ez zeukalako, derrepenteko amatasunaren azalpen metaforikoetan.

Kriseilua arretazen eroan beharra eskaileretan gertatzen zen, gorako edo beheko mugimenduaz gainera, uste gabeko korronteak sortzen baitziren; batez ere ganbaran, teila bitarteetatik eta teilatupeko gapirioarte zabaletatik, haizea, mantsoturik izan beharrean, min harturik bezala sartzen zenean. Orduan argi egitea baino behinagoa zen (zailagoa ere bai, noski) gar txikia itzaltzetik salbatzea, eta hori nekez bat etorri ohi zen behar zen tokirantz argi egiteko posizioagaz, zertatik atera daitekeen etxe guztian agintzen zuen argitxo hura bera ere ez zela, behar ziren lanak burutzeko, hain nahitaezkoa. Areago oraindik, sarritan itzaltzea sukaldetik urrun samar gertatzen zenean, aitak esango zuen: *Itziok! Ez nok hemen mozoloenak egiten egongo, hi ezkaratzetik bueltan etorri arte*. Lanek berdin jarraitzen zuten ilunetan. Hori lehenengotan nahasgarri egiten zitzaidan, *orduan nire argi egiteok zertarako balio jabek?* pentsatzeraino, baina laster hartu nion gakoa: argimutiltzan gogaiturik, oso lan kontuzko eta arretazkoa baitzen, edo zerbaitegatik (txakurkumeagaz jolasteagatik, esaterako) arin amaitzeko irrikaz nengoenean, apropos uzten nion itzaltzen, berriro piztuta itzularaziko ez nindutelakoan, beti gertatzen ez zena berau, zeren aitak ere, argi premiagatik baino ez gutxiago nire amarruen susmoagatik, *hoa eta hator, han hazelakoan hemen* agintzen baitzuen. *Falta denagaitik, argi barik be egingo dozu*, tematzen banion, berak, azkenerako, argumentu labainki izorratzailea gordeko zuen: *Hik ekarri argia isioturik, amatetan ez izten ikasiz joateko be*.

‘Ikasiz joate’ horrek bereziki gaitzitzen ninduelakotik ateratzen nuen har-tarakoxe apropos esana izango zela, oraindik deskubritzeke bainengoen efektu batek, giza harremanean ia lege gisan, bere kausan inkluditzen ez diren estensioak har ditzakeela, zeren, ‘ikasi daiaan’ esan balit, saiakera bakarrera mugatzen zelako ilusioa izan nezakeen, baina ez. *Ikasiz joateko*. Hots, gaur eta bihar eta hurrengoan, eta ‘beti!’, pentsatzen zuen nire gaitzidurak, kondena eternoa berrentzunarazi bailioten, nik ez bainuen argimutiltza inoiz behar bezala ikasteko asmorik. Aita-amek, onberatasunarren bainoago erosotasuna-

rren, lan hura niri ganoraz eragiten saiatzea alferrrik izango zela etsirik edo, sarritan, *aldeik bistatik, zirin horrek!* esanez, kriseilua zurezko zutabeko iltzean eskegitzen utziko zidaten; anai-arreba zaharragoek, berriz, eurei argi egitea tokatzen zitzaidanean, ez zuten tarterik ere onartuko.

- Txiza egin behar dodala, ba!
- Egingo dok, argi-lanak amaitutakoan.
- Eta larriari eutsi ezin badeutsat?
- Egin bertara, petrolioa be ez dok eta.

Ezta izan ere, baina behin, dena zeriola, su hartu nuelarik, jezten ari zen esnea burutik behera parrastatuz itzali ninduen anaiak, *etxeari su emotea pentsatu dok ala?* oiuhu eginez. Horrek min handia eman zidan, etxeak nire gorputz sutuak baino gehiago ardura ziolakoan, neu ere etxearen baitako nintzenik ohartu gabe. Senide zaharragoen zorrotzetasuna senide gazteagoa izorratzeko gaizto-grinagatik baino gehiago, etxeko argi bakarra eta argi-mutila norbere zerbitzu eskusiboan edukitzearen jauntasuna sentitzeagatik zela uste dut; baita beharbada, geroan, despotismoren bat garatzeko aukerarik ezari aurrea hartzeko ere. Hori guztia praka luzeetara iritsi aurretik gertatzen zen, orain euren gorputzean dabilen jantzia innatoa ez denik uste ez dutenek jakin dezaten belaun zurien (zikin ez bazeuden) eta izter agerien intzitate gure eguneroko modernitatea zela, behin estalita-koan, gehiago bistaratuko ez baziren ere.

Kandela eta biok geratu gara, behinola bezala berriro. Orduan inori argi egitekoa (*edukiko al dok artez argiontzi hori!*), edo haurrok bere ahultasunean ezkutatzekoa zena (*urtengo al dok bistara? non hagoen ez baneki!*), orain neure bizi-lagun bilakatu da. Errealismo kolpe batean, bera da ni naizena, hots, nire kontzientzia, hain xumea, hain ezerezkorra, putz txiki baten kontrako indefentsio osoan. Bakartasunera zaleturik nengoen, konpainiaren antitesi gisan, baina orain, tesia desagertu delarik, zer da beste terminoa, inorengandik bakartu ezin badut? Bakartasuna bera da tesi, bera da errealitate. Eta nik ez daukat errealitate osoa izateko indarririk. Oraintxe ulertzen dut Jainkoaren bakartasuna, ahalguztiak hornitu ezin duena. Beharbada, laguna beharko du.

Ikusiko dugu, neuk ere ez baitakit zer behar nezakeen; premiak elkartzen ez duenik ez dago.

Bat-batean ohartu naiz nire kandelatxoak ez daukala argindarra itzuliko den itxaropenik. Lehenago ere pentsatua behar nuen argiak jarraituko zuela, dispositibo automatikoak zebiltzano. Horiek denek amore eman dezatenean (eman dutela dirudi), gaua gau izango da berriro. Auzoetan ere ez da argirik ageri. *Banengoan, ba, ni Iurreta eta Durango, honanzkoan, ilun samar zegozela!* Etxe honetan gehiago ez dagoke hozkailurik, ez berogailurik, ez sukaldetik, ez ordenagailurik; ez dagoke ezer, oinarrizkoa zela uste genuenik. Kandelatxoa bakarrik dago, putz baten zain, itzaltzeko. Eguna ere egun izango ahal da! *Eguzkia joan da bere amagana, bihar etorriko da, denpora ona bada.* Derrigor etorri behar du. Kandela negarrez dago, oineraino iristen ez diren tantekin. Bizkorregi abiatzen dira, bide erdian gelditzeko, bertikaltasunaren alderantzizko dezelerazioz. Bai bihotz insensiblerik kandelarena, malkoei horrela gogortzen uzteko! Piz dezadan beste zigarrotxo bat, negarrari eman aurretik. Larri nago. Nire malko bakanak mahaira, zorura iristen dira, banan eta lodi. Zoruan ere ez dira gogortzen. Bat-batean etorri eta kontrolatu ezineko negarraldi horietariko baten zorian nagoela sumatzen dut.

Piz dezadan, bada. Kandelatik zuzenean ez, zigarroari kerua uzten baitio. *Txiskeroen argirik ez dok joango, behintzat.* Txirrist, klak. Lehen tengada behatzen jarraitu joan da; bigarrena zuzenean putz dagit, nahi gabe ia kandelatxoa itzaliz; hirugarrena birika baten (ez dakit ezker ala eskuinaren) erdi-erdian gelditu da; han, ahoaren jestuek gidatzen dutela, pare bat bira emanik, espirazio leun-leun eta eutsian kanporatzen da, kandelaren garrik mugiarazi gabe. Yogako arnasketak oso praktikoak dira zigarro-erretze intentso baterako. Negar-guruinak hanpaturik nabari ditut, metodo brutal samarrez puzten genituen igelak bezala (*ha be bazoan dibertsino modua!*). Negarretik salbatuko naizela uste dut, eta susmatzen dut zergatik: beldur naiz oraingo negarraldiak ez lukeela lortuko egoerarekiko proportzio ezberdintzailerik, bizitzako beste zenbait kasu bakanetatik nabarmentzeko moduan, nola, adibidez, legebiltzarreko bilkura tentso, ia biolento hura. Gure taldearen hasiera hitzaldia, hartarako beren beregi deskartzelaturiko preso batek eginga, nega-

rra irensteko ahalegin suprahumanoan entzun nuen, atzerapena gero komunean arrantza eta guzti leher zedin, bonbaren eta bakartasunaren laguntzaz; ez hain zirkunstantzia ezohikoen emozioengatik, baizik bezperan auto batek, elur-karrajua apartatzeko tokirik ez eta, larriki zauritutako txakur gorria goizean neuk akabatu eta neuk ehortzi behar izan nuelako. Edo seminarioko ohe beratua mudatu behar izan nuenekoa, egun batzuetarako baimena eman zidaten gauean, amaren neba batek bere burua era urragarrian hil zuelako, non motibo tristeak etxerako poza, indargetu beharrean, sentiberaki magnifikatu zuen. Edo Atxuriko geltokian, autobusari joaten utzi eta elizako ilunpean negar-hustera sartu nintzena (*zergaitik permititu dozu, ene Ama errukior horrek, hori gerta zekion beti zuri eder egiten ahalegintzen denari?*), nerabe batek paira dezakeen atsekaberik handienetariko batetik nentorrelako, maite kontua baino mingarriagoa segurrenik, hori zer zen probatzerik izan bagenu. Edo Zamorako espetxetik Basortuko ospitalera aita hil-hurrena bisitatzera ekarri nindutena, non, inguruaz jabetzen ez zelakoan, ama aipatzen deskuidatu zen 'hileta' entzunik, ahots hartarantz ireki zuen begirada izutua heriotzaren irudi kasik eksklusibotzat geratu zitzaidan; pasillora irten behar izan nuen, burua horma kontrara ezkutaturik, pabilioia negar-ulu bihurtzeko, polizia zaintzailleen bizkar-kolpetxo kontsolagarrien lotsari eta guzti. Handik egun batzuetara berriz ekarri nindutenean, gorputegian jaso nuen irudia (*hau ez, hori ez, hori be ez... hauxe!*) ez daukat gogoan ere. Han ez nuen ikusi hilak berdinak dirrela besterik. Edo astebeteko oporpasan neu bakarrik joan eta herri apartatu bateko zinemara sartu nintzena, non, izenik gogoan gelditu ez zitzaidan filmeko pasarte batean, sentipen pilo baten bateratzeak halako negar eskandalosoa ekarri zidan, ezen bat-bateko este-lehertze baten mina simulatzea otu zitzaidan. Larrialdietara bidean (*nor dok hau? – galdeio berari – nongoa zara? – ez hitzik eginarazo, mesedez!*), afaritan jan nuen valentziar paella doblearena (*de segundo? – otra paella!*) izan zitekeela esatea pentsatzen nindoan.

Oraingoan badakit zergatik ezin dudan negarrik egin, galdetuko bainuke: *Hau zer dok? Beste halako bat gehiago?* Ezingo nituzke nabarmentasun haiek gainditu, ez sentiberatasun haietara hurreratu, honako dilema tristera iritsiz: *Edo nire ahalmena errukarriro txikitu dok, edo egoera hau ez dok hainbestekoa.* Egoerara iristeke ote nago oraindik, neu ere joanda, alegia? Beharbada, argumen-

tuei tiraka jarraituz, iritsiko nintzateke negarraldira, baina hori neure gaitasuna litzateke, ez egoerarena. *Erre daidan hirugarrena, koplak alde batera itzita. Ezton, kandelatxo? Ez bahaz be, femeninoan behar haut. Heure garretik isiotuko jonat. Bpp, bpp, bpp! Holantxe. Behinolako saguzarren moduan. Orain, pfff... Kutsu apur bat ezarri deutsan, baina erre leiteken. Holan gitxiago iruntsiko jonat. Erlojuak goizaldeko laurak jo ditu; duela berrogei urtekoak ere berdin jotzen ditu. Oroimenaren depurazio-lan taigabez, ordukoak askoz gardenago entzun ditut gaur. Hirugarren zigarroa ezin dut amaitu. Zorutzen ez naiz ariko, ezta? Hmmrrrr!!! Itzartu egin behar dok!! Honek ezin jok izan gertatzen ari den moduan!*

Nola lortu baina? Zertatik itzar naiteke? Sarritan gertatu izan zait neure hotsak irartzartzea, barreak batez ere; barre ozenak, lehertzen jardun arren, ametsa mutua baita gehienetan. Itzartutakoan konturatzen zara, oroimenak laguntzen badizu; edo lagunek esan badizute, espetxeko lotegi korrituan bezala, non batzuetan ulu-intentuak entzuten ziren, beste batzuetan barreak (*non eta zertan ete jabilk hori? – hemen ez, behintzat!*), algara mongolikoak. Ohartzen naiz ametsetan ari naizela, ziur, egoera ez baitagokio ametsari derraion adimen-gurmari ere. Edo amesgaitzean nabil, larri, erremedio gabe, ametsetan ari naizela ohartu arte, garbi ohartu ere; horrek erremedio gabetasunetik askatu nauen arren, larritasunak iraun dirau, eta itzartzea erabaki dut; orroka hasi naiz, alarma paleolitikoan bezala, baina orroa ere ametsa da, nonbait. Inoiz, oso bakan, kontzientzia hain da argia eta zorrotza, ezen ametsa ezabatu egiten baita, harrapariak ohartu den tximuteria bezala. Gehienetan, orroa ez da fisikoki gertatzen; gertatzen denean, bere kabuz ari da, nahimenetik at. Probableago da estuasunak berak iratzar zaitzan, hartatik itzartzeko erabakiak baino. Ezinaren aurrean, amore eman duzu, itzartzeko zarelako desetsipen bat sakonean lagun duzula.

Sukalde erdira irtenik, orroka dihardut, opera puskarik abruptoenak inprobisatuz, zoruan iraulka edo mahai-gainekoak eginez. *Ea burua apurtzen dodan hementxe!* Auzia da, loaldi bakan batzuetan, ametsetan ari naizen kontzientzia argia dudana bezala, oraingoan argitasun berdina dudala ezen itzarrik nagoela; suposamen hori egia bada, ametsaren oharmena itzarrikako egoeraren ezinetik harako dedukzioa baita, aproban hil ninteke. Sukalde barruko saioak

alferrik direla ikusirik, leihotik kanporantz gorputz erdi eskegi dut, sabela markoaren oinean, ea esteak ahora datozen, neure burua jaurtitzekoa eginez, geroz kanporago, hegalei ondo helduta:

- *To! Arrisku handiegian ez al gabilzak?*
- *Hori behar joagu, ba! Ea arriskuaren biziak astintzen gaituen behingoz. Komisariako egoera originaletan barnatzen saiatzen naiz:*
- *Zartaginean kantatuko diguk, kalearen kontra tortilatatu ondoren.*
- *Saltaik heuk –diotsu kontzientziak, ez dela obeditua izango jakitearen auzardiaz–, bestela be horixe esango deuee eta.*
- *Horrelaxe, ahh, ohh, uhh, beste bi bokal geratzen zaizkik.*
- *Horiek zailak dira.*
- *Egin orro!*
- *Ehh, ihh...*
- *Ikusten?*
- *Ezin dut!*
- *Ea apur bat eskegiago. Horrela ere ez? Bota egingo haugu. Bizirik irteten bahaiz, libre. Senda hadinean joango gaituk barriro.*

Egoera horren berritzeak amorratzen nau, baina ez izutzen. Eta salto egingo banu? Eta sekulakoa harturik, itzar ez banendi? Kurutx ala pil. Ametsetan banago, itzartuko, ez banago... *Hori hil ala bizi dok!* Urruma handiak, txakur zaunkak bazterretan, apar ugari ahotik; lehen baino okerrago erretiratu naiz leihotik, saiheitsak karraska.

Atsedean hartu bitartean, berplantea dezadan auzia, beharbada berez gertatzeko zerbaiti aurrea hartu guran bainabilke. Itzarririk nagoen seinaleak garbiak dira. Koloreak ere badira. Dena ordenan, bere lekuan, transformaziorik gabe dakust; ez dago sekuentzien hausturaririk, egoera inkompatibleen elkar-gaintzerik. Ez dago zalantzaldi horietarikorik, non, une batez, gertaeratik at geratu naizen, *honek ezin jok izan!* hots eginez baino gehiago (horrenbeste pentsatzeko bereizmenik ez daukat), *ez najoak honetan jokatzer*a erabakita; ohartu gabe erabakia bera ere marroa dela. Atzera berehala korronteratzen naiz, sai bat ondotik pasatu zaidalako hego-zaplada belarrian utzirik, txerrikume aur-

pegiz bera, zeinak halaber kazetari muturra daroan, zeinak halaber julis-makilajea, zeinak pitxar pertsiarra, halaber estalki galdua, zeinagaz biza bere ohitasunera itzuli den. Gauza horiek guztiak pentsatzen, hariltzen, ondorioztatzen dituen kontzientzia hain da argia, ezen kontzentrazioaren erdigunean logurak eman baitit, itzarrik nagoen seinale bueltagabea, ametsetan sekula ez baitut logurarik izan; lokar banadi, itzarrik nengoan. Baina sentsazio horien eta gehiagoren konbinazio posible guztiak ametsetan ere bizi izana naiz, logurarena salbu, itzartasun osoan nengoela argiro pentsatzeraino, harik eta aurreko asteburuko saio batetik bueltako haizeak itzartu nauen arte. *Zer izan dok hori? Kakazaharra! Domeka goiza zelakoan, astelehen eguerdia, eta oraindino ohean.*

Egun bikaina zegoen martxoaren bigarren astelehenean, inauteri astearen oste astun samarrean, ni nenbilen eskolan, behintzat. Bikaina bainoago desiratua, negute gogorraren ondoren. Bi bider bikaina, bi bider desiratua, hartzea komeni den erara. Eguerdian, Gernikatik Zornotzaranzko errepidean, neure betiko Autzagane mendatetik pasaeran, ezin izan nuen asti aitzakiarik ipini mendirantz ez sartzeko. Eskuinetik ezkerrera hartu behar izatean (maniobra hori arriskutsua da beti; alderantziz ere ez hain onuratsua beti, etikaren on txikiagoagatik ez bada, zeinak, gehienean, eskuinerantz nabarmentzeko dohaina daukan), doi-doi libratu nintzen txatarrezko otarteko bihurtzetik, barrenetik gorantz oinez zetorren aspaldiko emakume bategaz hizketan hasteagatik; auttoak goitik behera tximistan, behetik gora ilaran, ni erdian larri, suak inguratuturiko azkonarra legez.

– Ene! Zelan hi hemendik?

– Torreburura bueltatxo bat egiten, aspaldion ez naz izan eta.

– Alde honetan zelan jarri haz?

– Gernikatik nentorren.

– Hemen kontuz ibili behar dok, eh!

– Bizkor esan gura dozu, ezta? Hemen, kontuz ez dago beste aldera pasetarik.

– Beharko dok, beste alderaino heldu gura badok. Gazte-gazte hago gero!

– Zuk behinolako mutikoa ikusten dozu nigan. Neuk be halantxe ikusten zaitut zu.

– Ni halan? Lekutan jagok! Honezkero, neskatxoa hazita izango dozue.

- Hazten, baina ez deuto ardurara, ha baino lehenagokoak be gazte-gazte bagagoz.
- Hi bertsolaria izan haz beti.
- Zeozeri ekin.
- Eta zuen aita? Harena zoan umorea!
- Umorean hobea zen, bai, bertsoan baino.
- Eta mundu honetan zerk balio?
- Egia. Harek ez zeukan bertsolari ona izan beharrik, ondo ibiltzeko.
- Inor baino hobeto!
- Igual bai.
- Ha gure tabernan sartzen zenean, katuak nagi-urtika hasten zoazen sutondoan, mostradorera urteteko.
- Sardinak ekartzen baitzituen, sobra zegoen lekuan erosita.
- Heu be hantxe etortzen hintzen mutiko txiki-txikia, aitaren praka barrenei helduta.
- Sardinak zaintzen, katuek ez eroateko; gure aitari oinpeko lurra be kendu zekikeon berak igarri barik.
- Orain Berriz aldean edo Aramion edo bizi haz, eztok?
- Berrizen. Aramaio aparte dago handik
- Gitxitan inoratzen garenontzat dena jagok leku berean. Gure aitak esaten joan behin Aramaion txarri pareta erosi eta oinez ekarri ebala Autzaganeraino.
- Orduan txarrien alimentuetariko bat denpora baitzen.
- Bidean hiru-launa kilo gizendu ei jakoazen.
- Zer esan dot nik?
- Kanpazarren behera, ezkurra be polito eta. Kanpazar hori Berrizen ez jagok?
- Ez. Hori Elorrio da, baina denak be inguruan.
- Berrizko txuletak famatuak dozak.
- Orain txuletak edonon dagoz onak, behiak zorutzen hasi zirenetik.
- Behia zezenagana dotore ekartzen heuan hik, artean ume.
- Aitaren zain egonez gero, hoztu egingo zela esaten eban amak.
- Ai, zuen ama! Fina zoan ha!
- Behi susarak bildurra emon izan ez baleutso. Neuri be emoten eustan, baina nik, atzean, txakurra ekartzen neban eskuorga gainean, behiak gainera salta ez zeidan, halan be lantzean astrapala batzuk egiten genduzen baina.

Banekien, hizketan hasiz gero, amaitzen gutxien neuk jakingo nuena. Ez kontuz, ez bizkor, beste alde gurgipen irrirtzian harrapatu dudanean ohartu

naiz (bai izango zela istripu ergela, beragaz berba egiteko ilusioa neukan emakume bati eskapatu nahi izanak eragina!) nolako sustoa daroan beheranzkoak, goranzkoak ateratako turutatetatik. Etxetik bostehun bat metrora, autoa pista alboan uzten dut, muturra pinadi gazte trinkorantz sarturik. *Hemen oinez joan behar dok.* Pinu-orri mardularen gainean dzi-dza noa, zidor bihurkoi berdin-berdinetan, mutikotako kaka piloak zehartuz, gaztetakoak ere bai; oinatzak berzapalduz, astegunetako abarkenak, udako abarketenak, edo seminariotik bueltako (haranzkoei begiratu ere ez) zapata estuenak; hauek ez ziren, joanetik etorrira bitartean, oinen neurrian hazten. Maleta handia pinu-ipurdiaren kontrara kokaturik, zapatak erantzi eta oin minduak pinu-orri gainean edo belar xehe bitxiloretsuan kilikatzen zirena zorionaren akabua ez bazan, ez ni gehiago sar kalabazan. Dena bertan daurkit, bitartean izandako ametsek (*hementxe ibiltzen nok ni, beti bertan, beti bertan*) apur bat eraldaturik; usaina lehengo-lehengo da, hartzen dudana zein oroitzen dudana; berdin dio, usaina behintzat. Sasia zarratuago, kartutxo multzoak lantzean-lantzean, ira ebakitako unada bat ere bai, *joño, baten bat ibili dok hementxe, arloa gainera; oraindino ez dok zibilizazino guztia amaitu.* Pausakera, begirakera, usainkera hunkituan noa, baina ama ez da egongo; aita baliteke iluntzean lanetik itzultzea, itxaropena moldatua baitago ezinezkotik bizitzen, bere funtzioetariko bat izateraino. Eta behinena beharbada, txakurra ez dela ageri, beti lehenen agertzen zena, orain noan puntuan baino askoz aurrerago. Harexek irakatsi zidan sentimendua usainetik gidatzen, berak ez zuen horregatik egingo baina; bere txakur usaina barne, bustitzen zenekoa batez ere. Pinadian bakan izaten diren txorietariko bati (txindorra edo papargorria uste dut; ize-nak ezabatuz doazkit, eurak errealago bihurtu ahala) ez zaio euskaraz ahaztu. *Txikimilikil, hemen habil? – Txokomolokol, hemen nabol.* Etxe osteko itxituran behor zuria, bi zipresen artean babesturiko askan, galtzua jaten. Tszio, tszio, tszio! Begiratzen dit, baina ez du etorri gura. Eskura begiratzen didala uste dut, esku hutsera. *Hatz egingo deunat.* Ezta. Igarririk neure betiko amets pendientea, zaldiketa, betetzeko tentaturik nagoela, hemen inork ez gaituela ikusten-eta, penaz begiratzen didala ere eman dit; bere furrustada muzintziak zer esan nahi zuen garbi ulertu dut: *Ez haut barrero besoa apurtuta bialdu gura fraile.* Beste behor bat izan zen arren, honek badaki nola gertatu zen. Tszio, tszio! Ez dago elkar hartzeko modurik, baina orain badakit ametsa non gauza neza-

keen. Oilarrak zerbait sumatu bide du etxaburuko txabola barrutik. *Zeu zaituguuuuu?*, ulertu diot lehenengoan, baina bigarreanean garbi esan du:

– *Torreburuuuuu!*

– *Torreburukoa, bai, orain Berrizen bizi nok baina. Pozten nok baten bat bizi dela ikusteaz.*

– *Geu bakarriiik!*

– *Baina baten bat egunero etorriz. Niri seminariora hile birik behin etortzen jataazan, eta kartzelara hilean behin.*

– *Zer ekartzeeeen?*

– *Arrautzak eroaten*–. Oilo batek eroan-ekarri hori apenas zuzen ulertu duen, galdetzen baitu:

– *Zer-zer-zer-zeeeer?*

– *Etxe ingurua polito zainduta daukazuela.*

– *Zer-zer-zer-zeeeer?*

– *Ez natorrela arrautzak eroatera.*

– *Huuurrrengooooaan!* (oilarrak).

– *Ez hurrengoan, ez inoiz. Ez najatork ezeren bila, sentimenduak euren jatorrira ekartzera baino, zuek horri ez deutzazue emendiorik ikusiko baina.*

– *Zer-zer-zer-zeeeer?*

– *Nire koinatua baletor, ez zeunkie horrenbeste inki-anka aterako.*

– *Ehhrzz horixe!*, purrustada bainoago irrintzi faltsua egin du behor zuriak.

Lehendik hunkibera banentorren, ikaragarritzko poza damait ikusteak, hainbeste urtetara, euskarak animaliekin ulertzeko balio izaten darraiel. Pertsonetikikoak jada ez dit hainbeste ardura. Pozten naiz oilarrak ere bere jatorritzko kukurrukuan dirauela, *kikiriki* afeminaturantz degradatu gabe. *Zer-zer-zer-zeeeer?*, berriz ere oilo eternalki zuntzunak, hain arrautza zoragarriak egingo ez balitu. *Zereko zeren zera!*, darantzut, harrikada bat txabolaren kontra jaurtiz. Solasa luzatu nahi bazuen, apur baterako isildu dela uste dut, eskandaluan hasteko, beste harrikada baten zain. *Ez deutzuet jaurtiko, ba!*, agindu diet pentsamenduz, berriro ez gaitezen solas inoragabeen katea.

Noan amamarenera. Hura beharbada bertan egongo da, orduan ere beti egoten baitzen, meza nagusia ez bazen, baina horra geuk ere joan behar izaten genuen. Amamarenean, bi oilarren kukurrukua dator etxe barruko nondibait, beharbada osaba tratulariak, Kubako iraultzaren berriak entzunez (kainabera lan egin nahi ez zuten fraileak eta mojak honantz bidaltzen ari zirela eta halakoak), irratirik itzali gabe lo egiten zuen gelatik. *Zuk badeko-zuuuu?*, oilar batak. *Bai biher bozuuuu!*, besteak. Solas horreetan sartzeko gogorik ez daukat. Ereinotza, leiho txiki-txikiak, barruko ilunik ez moles-tatzeko adina argi sartzekoak, barrore uhartuak, orduantxe bezain. Muino-bizkarraren hego alde urrunerantz, ikuspegi orogenikoa, besterantz, ozeanikoa; antzinako pinadi inguratzailea falta; ifar haizea, berbera. Landak, behi adar-makur batzuk, ahuntza itxituran lotua, aumeak bizkor amaren okozpera, *nongo otsoko ete dok hori*, pentsatuz. Denera, aldakuntza txikia. Zoriontsu izateko gutxi falta zait. Agur, hutsuneak agertzen hasi aurretik.

Ez naiz beldur memoria galtzeko, memoriaren erliebea baizik. Memoria plana. Esaterako, lehen, atzo, aurreko astean, iaz, kotxea utzi nuen tokiak batera agertzen bazaizkit, nora abiatu behar dut? Horrena ote da arrazoi berdin apodiktikoak dauzkadala, artea egiaren gainetik zein egia artearen gainetik dagoela pentsatzeko? Baliteke dialektika errealitatearen espresiorik objektiboena izatea. Edo egia errealitatearen aparientzia bat besterik ez izatea, maitasuna ere hain baita inkoherentea, ezen interesatzen zaiona bakarrik maite baitu, bere geriza beti gazteagaz maitemindu zenak bezala. Denek apor-tatu nahi didate zerbait errealitateaz. Nork esan ote die errealitatea axola zai-danik? Argi daukadana da memoriak atsegina biderkatzen duela. Txorizo bat jatean, ez zait pilatzen bizi guztian jandako txorizoen gozamina bakarrik, bai-zik baita, umetan, hura jateko egin nituen amets guztien asemena ere. Ez dit ardura historia objektiboa izan dadin, neu existitzen ez naizenean. Izarrak ñirñir eta txuringeriak! Hotzez dardar baitaude! Eta ni azpian, izotz-kandela bero-beroa bezalako zakilagaz.

Berrero errepidean, Zornotzaranzko aldasbeheran, kotxeko erlojuak or-duerdi pasatxo besterik ez dela igaro aurpegiratzen dit. Ez daiteke! Baina bada. Denboraren nozioak berrikusi beharko dira. Etxerakoan, beti bezala

aurkitzen naiz. Jaiotetxe inguruan hautemaniko diferentzia bakanak ezabaturik, berriro oroimeneko etxe-ingurua nagusitu da. Beraz, edo alferrik joan naiz, edo zapaldu dudan errealitatea ametsa izan da (ederra, oraingoan), oroimena gizendu besterik egingo ez duena, joan naizen ere ezin segurtatzeraino. Frogatu bai, segurtatu ezin. Errealitate originalaren gainean, geruza intranszendenten superposizio desmuntagarria besterik ez dut aurkitzen; geruzak ez dira ageri estaldura edertzaile gisan, bai eranskin deformatzaile. Nire oroimenari azpikoa bakarrik interesatzen zaio, hautsak, amaraunak, herdoilak astindu zaizkion bultoan, bat-batean, miragarriri, Mona Lisa bat ager litekeen moduan. Okerrena da errealitate original hark berak ere etengabe eraldatuz eskapatu nahi ziola bere buruari; ez zen, nonbait, bikainagorantz ordezkatu, klandestinoki izan ez bada. Arriskua. Uste dut badakidala zein den erremedioa: igeri ez jakite prebisorea, zeinak, amesgaitzak erakartzeko gaiztakeriagaz batera, haietatik hutsik gabe itzarrarazteko dohaina daukan, itotzen aritzearen sentazioari ezin eutsirik. Paradoxa maitagarria. Igeri ez jakitearren, beti ito-hurren, eta ikasterik komeni ez, erremedioa ez galtzearren. Igeri dakitenak bakarrik itotzen dira. Besteak ito-beldurrak hiltzen ditu.

Eta zuri zer? Igeri ikasi duzu, eta amesgaitzak aurkitu dizu luzatzeko aitakia. Nirea beste kontu bat da. Sar ninteke balearen urdailean (*batel irauli baten antza jaukak honek – zelan dakik hori, inoiz ez badok batelik bizkarrean izan?*), eta behin barruan naizela, berdin dio balea, marrazo zein krokodilo izan, *atera naizue hemendik!* oihuka; edo oihu ustean, egiazkoa balitz, itzartuko bainintzateke. Neuk badela sinesten badut, horixe da behinena, beraz ez dago zereginik. *Hau be badok, ba! Neuk jakin amesgatxa dena eta ezin urten.* Aurrera, beraz? Aurrera norbera ere, sartzen ari direnetariko sardina batzuk janez, egoerak aprobetxatzeko baitira; ez askaltzeko ematen ziguten sardina-erdi bana hura, buruaren aldekoa badaezpada. Txakurrari ere ezin izaten nion janarazi, burua alegia, zeinaren lapurretara katua agertzen zen, eta txakurrak katua jaten zuen; azkenean lortua nuen txakurrak sardina-burua jan zezan, eta oreka berrezarria zen. Lantzean sardina fresko bat jan eta ozeanoak korritu, inolako mirarira jo gabe. Eskatzen dudana bakarra, irtetea ez dadila ahotik izan, marrazoaren barruan banago. Balea bada, zuria zein gorria, eleberri bat abia nezake; beste sardina bat eta oka egin behar dudala uste dut, izorrai, hemen ez

didak horzka egingo. Honezkero Helsinkin gaude, baina ni ez nau hemen-
dik inork aterako, Bermeoko portuan, goizeko ordu bietan ez bada, edo gu-
txienez Edurneren armarioan, senarra atunetatik lehenago itzuliko balitz.
Armarioan be ez dok hori gauza txarra, zorua apur bat hormara egingean egonez gero.
Gidoilari txarrei armarioak jausi egiten zaizkie beti; ezin dute asmatu handik
nola atera hila, senarrak erreparatzen badio.

Oraintxe kargutzen naiz nola egon nintekeen balemarradilo baten urdai-
lean, amesgaitzaren digestioa ziur moztuko zidan uragaz kontakturik gabe.
Ametsari ez eskatu militarrei ere garantizatzea kostatzen zaien koherentzia-
rik. Graziatzko tirorik?, ez, milesker, eta gero hilerriko horma-zulotik ihes egin
die, arau inperturbablea salbuespenean ere berretsia atera dadin. Zer ordu
den begira dezadan, joder! Oraindik ordubete besterik ez lotaratu naizela, eta
bagatoz Alaskatik bueltan. Gernikako arbola bisitatzera ez banoa, Santima-
miñe orduotan itxita egongo baita, ez dakit nola bete behar dudan iratzargai-
luak jo artekoa, *joik oraintxe hik be, koskabilorik badaukak!*, klak klak klak, ez du
jo nahi. Krokomarralea honi ez ote zaio bururatuko ur apur bat irensterik,
itxaronaldia labur dadin? Neuk egin beharko dut dena.

Harriko baldea urez betetzen ari dela (zorionez, ura ez da joan), kandela-
argia mikrouhinaren gainean ipintzen dut, zipriztindua ez izateko distantzian
eta altuera estrategikoan, haren gar xumetik neure buruaren metamorfosi pu-
rrustaria ikus dezadan, argi egina izateak ez bailuke zentzurik, burua urpean
sartu behar badut. Egia esan, ez dakit zertarako presta nintekeen neure burua
ikusteko, ito-sentsazioak desdoblamentu hori onartzeko baino absorbente-
ago izan behar baitu, benetan itzartuko banaiz; egundokoa litzateke, urpe-
koa amesgaitzetik libratu, begiratzailleak lehenean jarraitzea, lehen neure
arimatzat identifikatu badut ere. Orduan ea nola konpondu behar nukeen
egoera hori, krokodiloaren ahotik ihes egiten saiatuz ez bada; aharrasika ha-
rrapa badezat, salbo, bestela atzera barrura. Baldea iturrian betetzen ari den
bitartean, inguruko gauzak erretiratzen ditut; mikrouhina urruntxoago; ber-
din horma kontrara zegoen irrati-kaseta ere, antzinakoa baina modernoak
baino segurragoa bera, frekuentzien banda ikusi egiten baita; ez zenbaki frak-
zionarioekin fidatu beharreko beste trepetxu presumitu hori; beno, biak mu-

gituko ditut, alde banatan horma kontrara zeudenak. Harraskara begira jarri-rik, gaineko armario ateak zabaldu eta itxi ditut; ez dago ontzi arriskutsurik. Baldea harraskaren erdi-erdian kokatu dut, ukondoak alboetara berdin-berdin zurkaizteko moduan; ekidistantzia, baterantz zein besterantz, *ni ez naiz izan* esateko moduan. Fruta-otzara ere apur bat harago, ogi txigortua irratia- ren gainera, ketchup potea mikrouhin barrura, zeinak orain, gainean zeukan kandelatxoa alboan harturik, Txit Santuaren sagrario txairoa dirudien; fedea gorabehera, txapa gaineko zamau gorri koadrozkoa, kemengarria, bustitzea pena litzateke. Erreferentzia zentrala libratu, pare bat metroren bueltan, hormarantz izan ezik, zeinak dena justifikatzen duen, sukalde eta armairuteria guztiari eutsiz. Aitarenik ez dut egingo, baina txerri-hiltze aurea dirudi honek. Eskerrak ikuslerik ez dagoen, eta egonda ere, kandela kikil horrek zehaztasun handirik emango ez liokeen. Baldea gainezka dago; iturria itxi, alboratu; hasteko moduan gaude. Ukondoak harraska angeluen kontra finkatu eta barrura. Eutsi apur bat, gul-gul, eutsi lasai, gul-gul-gul; egin putz, burrunbada handiagoa sor dadin; itzartzen ari naiz, ez balde-hondoak esploratzen, frust-frust-frust, oraintxe ala inoiz ere ez, ook ook oook... *puta!, ez jok balio, kanpora!*

– *Aproba izan da!*

– *Aproba? Hator hona! Neuk esango deuat benetakoa zelan den.*

– *Sukalde guztia lorrindu behar dogu.*

– *Garbituko joagu.*

– *Ur guztia alperrik galdu behar dogu.*

– *Ekarriko dok barria.*

– *Ni gabaz ez noa iturrira.*

– *Zabalduko jok eguna.*

– *Nik ezin dot bururik urpean eduki.*

– *Sartu-urten batzuk bakarrik, xaboia kentzeko.*

– *Eta gero xaboia iruntsi, ezta?*

– *Ahoa itxita eduki.*

– *Baina surretatik sartzen da.*

– *Apur bat ez jak txarto etorriko, mukiak garbitzeko.*

– *Ez dot gura!*

- Zer gura dok orduan? Denek ‘zorritzot’ deitu deuelako negarrez etorri? Bihar Txomin Labainari esango jeutsaat ulea motz-motz ebagitzeko.
- Ni ez noa Txomin Labainagana. Harek uleak atera egiten ditu.
- Urtengo jabek barrero.
- Belarria ebagitzen dau.
- Josiko joagu, komeni bada.
- Abadeak esan dau bihar meza osteko dotrinara ez doanari ez jakola eskolan esne hautsik emongo.
- Egongo haz isilik?
- Aita! Amak ito egin gura nau.
- Ni banintz bai (aitak), baina hi ez joat uste.
- Zu be bere alde?
- Domekan (aitak berriro) tabernara laguntzen itziko deuat.
- Nik domekan barik oraintxe behar dot laguntasuna.
- Itxi aho hori!
- Amaaaa!
- Barrura!
- Trostki, ez joan!

Larunbat gauetako buru-garbitze mugidak sumatzen zitueneko, txakurra, ‘Trostki’, harri koskor tentel baten atzetik erre kara buruz behera saltatzeko nagirik ez zeukana, sukaldetik alden du egiten zen disimuluan, eta horrexek ikaritzen ninduen, Jesukristo Getsemaniko ortuan bezala, *ene Aita! zergatik abandonatu nauzu?* Katu pareak, berriz, ura ukitzea baino bere txistuz garbitzea nahiago zuenak, kristalaz handiko barlasaitik, elkarren aurrez aurreko lisa-burdinen plantan, inmutatu gabe begiratzeak, lasaitu beharrean, aztoratu egiten ninduen, Trostkik miniatura kontenplaztaile haiek uxatzen zituen arte. Banengoen, bai, txakurrak ezin ninduela guztiz abandonatu.

Aprobak ez du balio izan. Balde hau ez da egokia; txikiegia alegia. Burua sartzen deneko, ur gabe gelditu behar dudalako sentsazioak jotzen nau. Erraz aurkitu ez dudan tapotza ipini eta harraska betetzen ari da. Denbora beharko du. Bitartean, txiza egin, etxe aurreko zelaitik mundu guztiari. *Erduze, kapaz bazarie!* Ez zaituet buelta barik itziko. Anbotori eta Udalatxi berbetan ari naiz, el-

karrentzat tontor, niretzat ostertz-puska gotor. Harraska beterik, oraingoa definitiboa izan daiteke. Prestakuntzarik ezagatik ez da izango behintzat, luza-zteko aitzakia ez bada dena. *Hori jakin behar heunke*, diostala igarri diot kandelaren gartxoari, baina nahimenaren askatasuna hain da, batzuetan, potentea bezain atxikiezina, ezen norberak ere ez baitaki erabakia zentratzen ala saihesten ari den. *Santa dana dala, ora pro nobis*.

Birikak bete-bete eginda (ez dakit zertarako, ito-sentsazioa lortu guran banabil), burua paparrerraino sartu dut uretan; oinak lehorrean ez banitu, hura geza ez balitz, itsasoa gainean dabilela nerrake. Eutsi. *Goiari? – Ez, gizon! Beheri, goia jo ez daien, bitartean hago eta*. Erresistentzia, garaipen guztien ama, bizio guztien aita. Arnasa amaitzear da. Itzartu ote naiz? Jo harraska alboak buruagaz, ertzak apartatuz, kolpeak buru osoarenak izan daitezten. Klunk, gul-gul-gul, klonk, xur-xur-xur-ggrr, tapotza irten egin dela uste dut. *Inbentua bajoak!* Irten egin beharko da, dena izorratu aurretik. Bat, eutsi apur bat. Bi, beste apur bat. Hiru, eutsi hortxe! Lau, gora aingurak! Gorputza harraska gainera makur, ura parrastan dario buruari, txakurrarena egiten ez ausartzearren. Ez dut uste itzartu naizenik; lehenean nagoela sentitzen dut. Beste ahalgin bat, oraingoan xaboi eta guzti. *Hau ridikulua dok. Zertan habil heure burua beren beregi galtzen? Saltaik ibaira, horren benetan bahabil!* Ez dut uste ridikulua-rena denik (*bat gitxiagogaitik!*), erremediorik eza baizik. Ibaira salta nezake, bai. Igeri ere ez dakit, ez. Aprobata zintzoa izango da, bai. Beraz, edo itzartuko naiz, edo... Edo zer?

Ez dago irtenbiderik, norbere nahimenez behintzat. Ametsa norbere auketarik at dator, eta joan ere halaxe doa. Nahiz eta, sarritan, ametsetan ari naitzela garbi konturatu (oraingo kasua ote da?), itzartzea gainera datorren fenomeno da, beharbada norbere barreek edo orroek (uste izan arren, oso gutxitan ozen direnek) eragina. Ez dut gogoratzen neure nahiak ekarritako itzartzerik. Ezta lokartzerik ere. Euskarak, kasualitatez ala antzinatasunez, argibide esanguratsua dakar, garbi erakusten digunean *lokartu* aditz intransitiboa *loak hartu* transitibotik datorrela, non subjektua loa den eta gu konplementu soilak. *Lokartu naiz* esapide eboluzionatuaren harrotasun aktiboa bere mailara jaisten du *loak hartu nau* originalak. Ez gara geu lokartzen, loak gu

hartzen baizik, ez garenez geu itzartzen, loak gugandik alde egiten baizik. Itzartzea nola izango zen gure hautua, lo bageunden? Hori bereizten euskara ez da arduratu, itzartasunaz ohartzea itzartze ekintzaren ondorengo baita beti. Inkontzientziatik kontzientziara pasatzea ez daiteke norberak eragina izan, artista jenialen baten kasuan ez bada; norbere kasu posible ederra zabalik utzi behar da beti. Ametsetan ere, nahia posible da, noski; nahi hutsa, eragimen gabea; propietate oro galdua duen polbora; txori guztiek galtzuzkoa dela igarri dioten mamua. *Zelan gura dok belea izutzea, bere amama dela uste dauen txorimaloagaz? Ipinioak barby bat!*

Egunen batean ez da itzartzerik gertatuko, ez da bezperan galdu ez zenik galduko; gau hartako ametsak kontzientziara iritsi gabe geldituko dira. Berrinkarnazioaren argumentua? Berandutxo, aukeran. Zertarako itzartu nahi dut, berriro aurpegi haietara itzultzeko? Zakur aurpegiak? Ez. Zerri aurpegiak? Ez. Armiarma aurpegiak? Ez. Astaperrexil aurpegiak? Ez. Gilotina aurpegiak? Ez. Zianuro aurpegiak? Ez. Eskorbuto aurpegiak? Ez. Femur aurpegiak? Ez. Sastagai aurpegiak? Petrolio aurpegiak? Ez. Falo aurpegiak? Ezetz, ba, koño!! Giza aurpegiak. Ez hadi gakotik konparazioekin urrundu. Pentsatzen hasten naiz eta, beharbada, maite ditudanak gehiago dira, aiher ditudanak baino. Ez da gorrotoa, ez da higuina; diogun aihergoa, erremintopotentea, amorru totala. Haien presentzia mehatzago eta nabariago da, beltz artean zuri bat hautematea bezala. Ezin duzu hau begitik kendu, ikuspegia beltzez inguraturiko zuringo bat bihurtu arte. *Zelan sartu ete dok zuri alu hori hainbeste baltzen artean?* Azkenean, beltzak ez dira existitzen. Azkenean, aihergarri zaizkidanak maite ditudanak baino askoz gehiago dira, nire maitatzeko ahalmena mugatua baita; jasaile pasiboa izateko gaitasuna, berriz, mugagabea. Izaki urrun bati (milaka milioi), ahalegin mental bat eginik, sinpatia-kolpe bat izan diezaioket, generikoa, kasik dedukziozkoa, baina ezin dut maitatu. Urrunena eta inbisibleena denen gainetik eta gehien, ia eskusiboki, maitatzeko agindu zidatenek, naturaren perbertsioa eskatzen zutela susmatu-rik, lagun-urkoa ipini zuten bitarteko tangibletzat. Bego. Maitatzeko bada, zernahi da aitzakia on. Beldurraren, izuaren iturriak, ostera, zenbat eta ezezagunago, hainbat eraginkorrago dira sarritan. Hori guztia horrela ez balitz, maitasuna ahituz doazen kasuak askoz gehiago dira, omen, gorrotoa bigun-

duz doazenak baino. Zenbat elkar bihotzez maitatzaile ez dira iritsi elkar bihotzez gorrotatzera? Penduluaren legean sinetsirik, alderantzizko kasuen bila ekin diot, eta ipuinetara edo mitologiara jo behar izan dut, bat aurkitzeko. Ez dut ukatzen izan daitezkeenik, nire begietara apenas iristen direla baizik; eta begiok ez dira munduan ibili gabeak. Aihergorik abailgarriena eragiten didatenak sekula eurekin hitzik egin ez dudanak dira. Batzuk irudiz ezagutzen ditut; handienak inbisibleak dira. Horiek denak berrikusteko arriskura itzartu nahi al dut? *Gauza bat egin geinkek. Borondatezko itzarkeran dihardugunez gero, hautatu eizak maite daikezaanak bakarrik. Besteak dagozela joan ziren lekuan.* Ez al dugu oraintxe esan, ordea, maitasuna gorroto bihurtzea bihotz-legea dela, eta alderantzizkoa salbuespen mitologikoa?

Egoera berriro okertu arte goza nezakeen onaldiak ez luke proportziorik neuk hautatua izanaren tormentu madarikatuagaz. Existitu gabe hainbeste sufriarazi zidan infernuaren zitalena ez zen su ahigaitza, nire kontzientziak betiraun guztian inkriminatuko zidana baizik: *Heuk aukeratu dok.* Suarena ez zen nire atzemate ahalmenean sartzen, kontzientziarena bai. Gaitza bere kabuz badator, jasatea erremedio bat da; baina norberak nahiki eta libreki erakarria izan denean, desesperazioak ere ez du balio, ez baldin bada... Bai. Badakit, itzulkinen artean, maite ditudanak asko eta maiteko nituzkeenak gehiago lirakekeela, baina nik bidali gabe joan dira, eurek jakin zergatik. Nik deitu gabe etortzerik interesatzen ez zaieno, bidezko da proba dezadan luzapenak zer dakarkion egoerari, nahi duena gertatzen utzirik. Zer axola dio bizitza ametsa ala ametsa bizitza den, neure kontzientziaren jabe banaiz? Eta zer axola dio benetan jabe ez banaiz ere, neuk baietz sentitzen badut?

Ile- eta bizar-sapa lurruntsuari azken lehortua emanik (*zorriren batzuk itotzea lortuko ahal najoan!*), azken zigarroa piztu dut, mahai gainera itzuli dudakandelaurrez. Kandela bata Jainkoari, bestea Deabruari (hau ere zergatik ez maiuskulaz?), oraingoan, zigarro bakarragaz Biak (bata minuskulaz idatzi banu, nola idatzi behar nuen gero biena?) engainatuko ditudala uste dut, biek neu behar bainaute, euren existentziaren kontzientziak iraungo badu, oraindik ez ziren beharbada konturatu izango baina. Pentsatzen jarrita, horiei niri baino oker handiagoa egin diete. *Ai,*

kandelatxo! Ahalguztidunari beila egiten ohituta hagoen hori, niretzat horren maigarri bahaz, neure neurrira eginda hagoelako don. Ahul, xoil, aire-aldarik txikienara sentikor, argitasuna be nire talentua zerbitzatzeko lain, ezarian amaitzen dakin. Begiratuta, nork esango leuken ahitzen ari hazenik? Nire burua zereginen batera erdi-aldentzea nahikoa don, bueltan zatia falta dakinan. Gajoa, heure pedestalginan ahitzen haz, neure moduan, malko hunkigarrietara begiratzen deunenak guztiz engainatuz. Bajakinagu elkarren barri.

Nire nerabegaroko maitale hizgabea. Betidanik ilunetan oheratzen ohiturik, petroliozko kriseiluak gurasoekin sukaldean gelditu behar baitzuen, kandelagaz erretiratu beharra planteatzen ausartu nintzen, aitzakia ia ahalguztidun baten jakitun: urte hartan, seminarioan, oherakoan irakurketa edifikanteak agindu zizkigutela. Gero bueltan, aginduari huts egitea gurean oraindik argindarrik ez egoteagaz justifikatuko nuen. Amak gastuari ipini zion erreparatze indar txikia izango zuen; seminarioko agindu kontraezinez gainera, semearen karreraren aurrerakuntzak ikusten zituzten, aitzakia bazterretan harro kontatuko zuenez: *Gure mutila hasi dok argiagaz oheratzen*. Seinale miragarritzat jotzen zen hori. *Ai, kandelatxo! Neuri be gastuak pena emonik, ez nazonan higaz lar abusetan, baina gu biok, eskilara erripeetan gora, bat, bi, tiki, taka, bost, sei, salan zehar, logela txikian sartu eta, hi mesanotxe gainean, ni oheburuan, elkarri begira jesartzen ginena, ikututxoak eginez, putz xuabea arnasa osoraino mantenduz, musturren postura zelebretan, inoiz hire eusmen irtirina bortxatzeraino –tiron, ez hadi horren usain-zantartu–, hori guztia ez al zonan izan maiteminararen iniziazino bat? Goazenan ohera, Kandelitiñe bihozbera.*

Egun honek nahikoa munduri bira egin dio. Iniziazio hura zergatik ez dugu gaur kontsumatuko? Eskailerak ez dira hain erripeak, bai zabalagoak; albo-kargaz erretiratzeko, haiek hobeak.

- *Nork itzi jok videtean palmolive usaineko mokordo hau?*
- *Niri ez begiratu! Nahikoa zeregin jaukanat hortzeria komunetik ateratzen.*
- *Tiraiok bonbari, madarikatuarena!*
- *Ez don pasetan.*
- *Sartu eskua!*
- *Honeek daukien amorrugaz?*

Hortzak garbitzeko konposiziorik egokiena ez dirudi. Komunean eseri, eroso jarri, liburu potolo bat (kamioi markak diruditen Gunther Grass edo Thomas Man bat) otzaratik altzo izter-bikoitzera jaso, betaurrekoak bainera hegalean utzi (liburu unibertsalak irakurtzeko, ez daukat begiak babestu beharrik), gortina ostean tanpoia agertu, *ño, baten bat ez dok hemendik antzina pasatu*, behin kanutiloan, behin xerran.

- *Eta heure gantzontziloak zer?*
- *Nire gantzontziloak... 'txori-habiagaz'.*
- *Gaur be? Habia horrek ez leukek aurrean behar?*
- *Ahal den lekuan, enetxo. Urteten dauen lekuan–. Tristatzen ari naiz. Txiza egin eta oheratzea izango da onena–. Azartatu ete joat?*
- *Honeek txiza tangadok nork itzi jozak hemen?*
- *Nik ez, hik ez, hak ez...*
- *Baten batek bai!*
- *Zelan dakin denak batenak direla?*
- *Azken pasatu dena ez dok, behintzat, garbitzailea izan.*

Ahalegintzen naiz barrura egiten, depositua estaltzen bezala gorputza aurrrera, baina azkenean beti islatxo, istiltxo biribilak zoruan, ilaran edo multzoan, galtzontziloak altxatzean jasan dituzten zirkinen arabera. Komuntzuloaren parean osoki eragin diozula ziurtatu arte ekin arren, badaezpada bi paper-xerragaz ondo lehortu arren, beti geratu behar aleren batzuk, hodi puntan edo izurretan ezkutaturik, noiz irtengo zain, oraintxe-oraintxe!, asaltorako unean bezala; eta dena, aurretik han beharbada apropos eginda zeuden tanten gainera erortzeko, izerdi-tantak ez badira. *Izerdia buruan daukakat hik! Hartu moltzoa eta garbitu, amama barriro hortxe laban eginda jausi ez dakigun.*

Honelakoak, hamabost urteko txitxilin eguzkitara irten gabearentzat, xarmagarri egiten zaizkigu, pitxia adoleszenteak; praken azken neurrira iritsiarentzat, ostera, higuingarri-errukarri. Gizajoak laster... *Gainera, hankapean zirriborratu, txarriak halakoak!* Ni neu, ahal dela, emakumeen komunera. Oh, barka, aldrebeskoan sartu al naiz? Orain ateetan ipintzen dituzten irudiak be-

reizten jakiteko, sasi-eskola asko egina izan behar baita! Gaurkoagaitik, hagin-
garbitzeari albo, beharko ditudan ere ez baitago argi, egia bazen jateko behar
genituela gutxien. Gabon Zahar. Hamabost urte. Hamar eta erdietan, urteko
afaririk gozoenetarikoaren ondoren (etxeko txerriaren sahieski gorriska eta
lukainka gorriak, etxeko indaba zuritan, handitu arte), gauerdiko mezatara,
ordubeteko bidean, eguraldi txakurren bat ez bazen, auzotik auzora jentea
farolekin gehituz; erromesaldi marmaratsua joanean, gordin samarra buelta-
koan, urte berria Jainkoari errenta seguruan utzita. Bahator ala ez hator?
Banoa! Komodako ate irekiaren aurrean, Kandelilñe da lekuko eta eragile, is-
pilian tximu-zeinuka diharduen irudi gerakaitzaren sentsazio guztiena. Ar-
tesia zuzendu, kiribilak ordenatu, astintxoago, zapaltxoago; ordubeteko bide
negutarrak dena bere ordenan ipiniko duela jakin arren, ahalegina hortxe
dago, Kandelilñek ondo ikusia; orain eskuinetik argi, orain ezkerreko belarri
ondotik, erre gabe, bera atzean dela, nahi den distantzia eta intzidentzia an-
gelu guztietatik; orain aurrean, paparraren parean, irudia behetik gorantz
ikusgarrituz, 'berak' ikus nindezan nahi nukeen moduan, "*berak maite nin-
duen, nik bera ere bai*"; segurrenik inor ez dut ezagutuko, paraje horretara oso
gutxitan joan bainaiz, baina baten batek derrigor egon behar du, 'bera' izateko
modukoa.

Ez naiz neure burua ikusten ari, berak ikusten duena, nauena baizik, lerdena,
ezta?, hmm, ez dakit, pena hartu dit, berdin dio, kontua da begira diezadala;
kontua da ispilukoa 'berak' ikusten nauena dela, nik bera ezagutu gabe. Alda
kandelaren posizioa (*Bahator ala ez hator? – Banoa!*). Orain bai, orain 'bera' dakust,
ispiluko irudi zirrargarria bera baita, ez ni; ez dut ezagutzen, baina garbi da-
kust, neu naiz, zeu zara?, bera da, kandelatxoak ez dauka dudarik; ikusterik
lortu ez banu ere, gauerdiko mezatik bueltan, hementxe aurkituko dut ispilian,
aratz, garaile, orain neu naiz, orain berak nakusena, orain bera da, beti da bera,
kandela magikoari esker. Argindarra zeukaten etxeetan, mirari batzuk ez zitez-
keen gerta. Horrelako etxe bateko ispilian zeure burua maiz ikusten hasi ba-
zara, fase terminalean zaude. Hori hamabost urtegaz, hogeigaz, hogeita laugaz
zen ederra, abade berriari denek debozio obligatuz begiratu behar ziotelarik,
hamar urte aurreko 'bera' nekusenean; ezagutu ez nuena, baina kandela batek
ispilu guztietan barnatu zuena. *Gabon, Kandelilñe, ffff, ondo lo egin. Amesgatxik ba-*

daukan, hemen don txiskeroa. Ohe gainean luze, zabal, biluz, beroaz ahaztuta bainengoen, beldur naiz buruaren abiada kontrolatzeko gelditze-ahaleginak gorputza ez ote duen bizituko. Gogozko jarduerak nahi gabe aurkiarazi zidan metodoaren arabera, gehienetan bertsoak mentalki kantatuz egiten nuena, oraingoan erreztatzen hasi naiz, kontzentrazioa eta loa batzen diren erpinerantz:

*Bazan txakur polit bat, txiki baltzerana
bartzarrak usnatzeko grazia zeukana.*

*Zaunka egiten eban txilin baten gisan
errotan bizi zan da Txilinerrota zan.*

*Behin han abiatu zan basoan gorantza
mendia esploratu gura eban, antza.*

*Txori bat entzun eban kantu arraroan
hain kantu tristea ze negarrez zegoan*

*Txilinerrotak zugatz azpitik dinotso:
"Zeri negar egiten deustazu, txoritxo?"*

(Kontakizunaren erdira ere ez naizela iritsiko uste dut)

*Lehen baino minduago dino txori-amak:
"Azeriak jan deustaz txorikume danak".*

*Txilinerrotak dino: "Zelan umeak ken?
Azeriak ez daki arbolara igoten".*

*Orduan txoritxoa kontetan hasi zan
azeri barrabanak zelan eutsan esan:*

*"Botaidazu ume bat, goseak nago-ta
ostean egingo dot arbolea bota".*

*Ume bat bota deusat minez habiatik
halan beste umeak salbatzeagaitik.*

*Orduan azeriak, zantar barrabana!
ha jan eta dinosta: 'Bota bigarrena!'*

*Eta halan azeri zantar barrabanak
banan-banan jan deustaz txorikume danak".*

*Txilinerrotak dino: "Lasai, txoritxo!
Neuk harrapatuko dot azeri gaiztoa".*

*Txilinerrota arin doa errotara
eta isil-isilik gaztaien gelara.*

*Hainbeste gaztai mota aurkiturik bertan
ederrena hartuta, bizkor dator bueltan.*

(Hasi naiz geldialdiak luzatzen, hitzak galtzen; oraintxe ez naiz luzaroko).

*Gaztaia itzi eban arbolatik hur-hur
bidearen erdian, usaintsu ta samur.*

*Gero bera etzun zan bazterrean trabes
egotez lotan baina, hilda balego lez.*

*Azeria mendian gorantz doa baina
bat-batean hartzen dau gaztaien usaina.*

*"Hau dok usaina! –dino– erreka ondoan!
Noan barriz beherantz, ea zer dagoan".*

*Jatsi eta: "Gaztaia! Hau ustebakoa!".
Ha zan azeriaren poza ta saltoa!*

Jaten hasi zan eta jan eban osoa
esaten eban: "Hau dok bazkari gozoa!

Lehen txorikumak eta gaztaia gainetik
holan ez joat nik jan, jaio nintzenetik".

Ase-ase eginda, musturrez aurrera
lo egitera doa bide bazterrera.

Badoa ta zelako ustebakoa ze
Txilinerrota hilda aurkitu dau luze.

Azeriak ezin dau pozean agortu
Txilinerrota bertan ikustean gorpu.

"Hemen Txilinerrota! -zinoen aidera-
nire areriorik zorrotzena bera.

Txorikume ta gaztai, hau gero postrea
gure Txilinerrota hilda ikustea!

Orain egingo deutsat txiza belarrira
holan bere garaunak garbituko dira".

Hasten da, ba, egiten txiza belarrira
txakurraren begiak tak zabaltzen dira.

Txakurrak heltzen deutso grausk pitilinetik
azeriak ezin dau aldegin gainetik.

Azeria didarrez: "ai ene, ai ai ai!"
eta Txilinerrotak: "gozoa daukak, bai!".

(Gure txakurra bera ere txorizalea zen, baina lumaren bat ahoan itsasten bazitzaion, komediante bilakatzen zen, gizajoa).

*Azkenean txakurrak, berak jakin zelan
samatik oratu ta bertan ito eban.*

*Txoritxoa orduan, sagarraren puntan
pozez zoratuta lez hasten da kantetan:*

*“Aupa, Txilinerrota, txakurtxo kutuna
azerien gosetik askatu gaituna!*

*Gaurtik izango zara txakur txapelduna
azerien izua, txorien laguna”.*

Ipuinak bere kontura amaitu beharko zuen, ni antzinatik bainago lo. Txoriak kantuan hasi arte. Ez! Oraindik lo apur bat gehiago egin behar da, berandu ibili ginen eta. Nortzuk? Eguzkia ostertzean agertu arte behintzat. Ez! Apur bat gehiago. Ez! Eguzkia hiru hatz igo arte esku luzean, hots, 22,5 gradu, zeniterako laurdena, mendien altuerarena deskontaturik. Irteeran abiatsuago etorri ohi da, mendi artetik ihes egin guran, otsoak hel ez diezaion. Gero nekutzen hasten da, aldasgorak ez baitu barkatzen, ezta asmatu zuenari ere, gorago eta astiroago, izerberago, gorenean gelditzekoa egin arte. Uste dut gelditu egiten dela, ezein begik ezin diola zuzen begiratu baliaturik. Nork esango zukeen argiak ezkutatzeko balio zezakeenik? Zortziak izan daitezke, behi orro batek itzartu nauenean, oraingoan benetan beharbada. Ostertzetik aldentzen ari den eguzkiak gelara sartu nahi du, horixe eragoztearren jarkia diodan kontraleiho eta guzti ere, gortinei presioa eginez. Bortxatu egin nahi nau. *Sasoi onean aurkitu joat argiak be bultz egiten dauela!* Mesanotxe gaineko giltzari klik eman diot eta ez da ezer piztu. Seinale txarra, benetan itzartua izateko. Behiak orro dagi, txoriek txanda-janean dihardute kantuan, txakurzaunkak entzuten dira... *Itzarkera normala jirudik.* Txiza egin eta beste egotalditxo bat merezi du honek. Nik ez dakit txizalari txorrotxaile hau non ezkutaturik egoten den, itzartuz batera, honelako urgentziaz erasotzeko.

Komunera sartzea eta ikara-zarta bat izan dira. Auzorantz ematen duen leiho irekitik, behien deneriko orroak eta ardien beekak oldarrean datozen, txakur-zaunkek gaizkoaturik. Oilo-kakarek ez dakarte hainbesteko minik, baina untxi-irrintziek belarria ebaki lezakete. Ontzitik kanpora ez egiteko ordenantza guztiekin txizaginan ari naizela, burua, alde guztietatik estutuz, intsektu bihurtu nahi didatela nabari dut. *Dios! Hau katastrofea dok!* Animalia lotuak desesperatzen ari dira; ukuilu edo barrutietan solte daudenak elkar hiltzen hasiko dira, ur gabeziatik bizirauteko metamorfosia, isilkiago baina ez gutxiago krudelki, elkar janez azkartzen duten apaburuak bezala. Mendian basa-libreki zebiltzan baina euren izatea gizakiarekiko erlazioan bizitzen edo lehiatzen ohituak zirenak ez ote zaizkit denak gainera etorriko? Hondamenaren kontzientzia hainbat handiago da eta hainbatago durditzten nau, zenbat eta desesperazioaren eremura gehiago zabaltzen naizen. Baldin animaliek, hartara jartzen direnean, gizakiak baino urragarriago ozentzen badute heriotza, egun batzuk barru zer izan behar du honek? Logelako kanporanzko atea ireki dut, eta hemendik ere soinu bera dator. Balkoira irtenik, hondamenaren dimentsioaz osoan jabetu naizen uneak post eginaraziko zidakeen, luzatzen utzi banio. Hau ezin da entzun, hil zaitzan gabe, aurretik suizidatu ez bazara. *Hori egingo ete joat?* Tragediaren kontzientzia bakarra naizelako zamak abail ez nazan bide bakarra dut pentsatzea ezen denak bost axola didala erabakitzeo askatasun osoa dudala, beste ezein kontzientziak mugatu gabea. Alde paretik eta kito. Nora baina? Seguruenik, hil-biziaren sinfonia zarrastagarri hori, abiatu baino egin ez dena, etxe inguruan, eskualdean, Euskal Herrian, beharbada mundu guztian gertatzen ariko da. Itxarotea besterik ez daukat, handituz joango dela ziurtzat jo daitekeen katastrofeak nirekin zer halabehar burutu nahiko duen. Badaezpada, neu ere subjektu aktiboa naizelako itxurak ondorio ongarriren bat eragin ahal baleza, zigarroa piztu eta kantuz itxarongo dut.

Oi, Anboto bizkar-zorrotz
erraldoi mendetsu hilotz
Oiztik egiten diat hots
emaidak, arren, heure zati bat
nik hiri bihotz eta hats
sentimendua zer den dezagun
hik ikas eta nik ahantz.